Antes de nuestras intervenciones el lugar ya estaba catalogado en la Carta Arqueológica del Álava (con el número 5.101) a partir de recogidas superficiales que realizó J.A. Madinabeitia: no obstante su deficien-

ere, haren kokalekua bereizteko zehaztapenik eza izan zen gure bigarren «aurkikuntzaren» arrazoia. «Atxosteko landak» aurkientzatik hartzen du izena, Birgala Nagusian, sarreran baitago. Egun kareharrizko harkaitz baten azpian kokatzen da, ia estalkirik gabe: baina jakin badakigu antzina estalki handi bat izan zuela, holozenoan behera etorri zena, eta baliteke —etorkizunean argitu beharrekoa— bertako biztanleek aurtengo kanpainan partzialki irekitako egitura espeleologiko bat aprobetxatu izana.

Kanpamentuaren berezko balioez gainera, bertako sekuentzia estratigrafikoa oso zabala baita, aipagarria da oso Kanpanoste eta Kanpanoste Goikoa izeneko deposituak hurbil egotea, harpetik 600 eta 800 metrotara daudenak, hurrenez hurren. Era berean aski hurbil ditu Marañongo Haitza, Txarratuko Muinoa, Mendandia eta beste aztarnategi batzuk.

Landa-lana eta lorturiko sekuentzia estratigrafikoa

Bi izan genituen 2003ko kanpainan aurreikusitako helburuak:

a) Indusketa-eremua hegoaldera zabaltzea. Madalen aldiko mailak alde honetan aberatsagoak direnez (iparraldera lurrak garbituta daude eta materialak ez dira ondo kontserbatzen), beharbeharrezkoa genuen lan-azalera handitzea. Xede horretan lauki berriak induskatu genituen: Z5, Z7, Y5 eta Y7. Laukiok mazelan egokitzen zirenez, indusketak kota ezberdinetan hasi ziren sektoreen arabera (–180 kotan altuena), eta oro har –330ko sakonera iritsi genuen;

b) Z2 laukian kontserbatzen genuen zutabe estratigrafikoa, kontrolik gabeko jardueren xede izan dena, induskatzea. VII. maila bitartean induskatzeko asmoa genuen, baina galeria baten aurkikuntzak (agian egitura espeleologiko konplexuago bateko ganga da) galarazi zuen helburua lortzea. Egun galeria hau hiru metrotik gora barneratzen da, eta bertako betegarriak elementu arkeologiko ugari eskaini ditu. Induskatzen hasi baino lehen, beharrezko laginak jaso ziren azterketa palinologikoak egiteko xedean.

Aurtengo kanpainan, aurrekoan bezalaxe, alde batera utzi genuen V banda, bere garaian –600 zentimetroko kotan utzi genuena.

Aurreko kanpainetan jada agerian utzitako mailetan lan egin genuen, ez baikenuen gehiago sakondu, soilik hedadura handiagoa izan genuen aztergai: honenbestez ez dira deitura berriak proposatzen. A2 laukian eta haren luzapena den A4 laukian I, II eta III mailei dagokie induskatutakoa; Z5, Z7, Y5 eta Y7 laukietan landare izaerako gainazaleko geruza bat bereizten da, baita IV, V, VI eta VIb geruzak ere: goiko geruzen presentzia —IV eta V— oso partziala da egungo mazelaren hasierako inklinazioa tarteko. Aipatutako egitura espeleologikoko betegarri arkeologikoari begira ohar bat aurrete localización es causa de nuestro «redescubrimiento». Toma su nombre del término «las landas de Atxoste», Vírgala Mayor, pues se ubica en su entrada. En la actualidad aprovecha un pequeño farallón calizo sin apenas cobertera: sabemos no obstante que en la antigüedad poseyó una desarrollada techumbre que se derrumbó entrado el holoceno, y es bien posible —a determinar en un futuro— que los moradores aprovecharan una estructura espeleológica parcialmente destaponada la presente campaña.

Además de los valores intrínsecos del campamento, derivados de su amplísima secuencia estratigráfica, destaca aún más por su imbricación junto a los próximos sitios de Kanpanoste y Kanpanoste Goikoa, separados del refugio 600 y 800 metros respectivamente y los no lejanos de Peña de Marañón, Montico de Charratu, Mendandia...

Trabajo de campo y secuencia estratigráfica obtenida

Dos eran los objetivos previstos en la campaña del 2003:

a) extender el área de excavación hacia el sur. Dado que los niveles magdalenienses son más ricos en esta zona (hacia el norte las tierras están lavadas y los materiales no ofrecen un buen grado de conservación) se nos hace necesario ampliar la superficie de trabajo, para lo cual se abrieron nuevos cuadros: Z5, Z7, Y5 e Y7. La posición en ladera de los cuadros es causa de que los sectores comiencen su excavación a diferentes cotas (a –180 como más alta), y en su conjunto se alcanzó la profundidad de –330;
b) rebajar la columna estratigráfica que veníamos dejando sobre el cuadro Z2, y que ha sido objeto de remociones incontroladas. Siendo la intención su excavación hasta el nivel VII, el hallazgo de una galería (o tal vez sea la bóveda de una estructura espeleológica más completa) impidió alcanzar el objetivo. En la actualidad la galería penetra más de tres metros y su relleno suministró gran cantidad de elementos arqueológicos. Previo a su rebaje se recogieron las necesarias muestras para la evaluación palinológica.

Tampoco este año, como el anterior, se ha incidido sobre la banda V, dejada en su momento a –600 centímetros.

Se ha trabajado sobre niveles ya reconocidos en anteriores campañas, al no haber incidido en profundidad, sólo en extensión: así, no se proponen nuevas denominaciones. Sobre el cuadro A2, y su prolongación en A4, lo excavado corresponde a los niveles I, II y III; sobre Z5, Z7, Y5 e Y7 se reconoce una capa superficial de carácter vegetal y los estratos IV, V, VI y VIb: la presencia de los superiores —IV y V— es muy parcial, dado la inicial inclinación de la actual ladera. Una advertencia es necesaria para con el relleno arqueológico de la estructura espeleológica señalada.

ratu beharra dago. Bertako hutsunea ezin bizitoki gisa erabil zitekeen, induskatutako sakoneran bederen ez baitio pertsona bati baldintza egokietan bizitzeko aukerarik ematen. Leku hau historiaurreko gizakiek utzitako hondakinen metaketak estali zuen: bertako sedimentuen osaerak ez dio harpeko beste guneetako sedimentuzko osaeren logikari erantzuten, eta gutxienez goiko atalean aro ezberdinetako elementuak gordetzen dituela esan daiteke, batez ere Neolitos aroko bizilekutresnak eta ondorengo garaietako hileta izaerako elementuak. Honenbestez nahasian bildu dira hortzak, burezur zatiak eta eskeleto atalak, hasiera batean I mailako giza ehorzketei lotzen dizkiegunak baina haiek baino maila sakonagoan. Pentsatu behar dugu egituraren «hutsunean» ohikoa izango zela lurrak eta elementu arkeologikoak halako ordenari gabe egokitzea: nolanahi ere lagin organiko bat prozesatzen ari dira erradiokarbonoaren bidez neurtzeko, kontrol kronoestratigrafikoa zehazteko mekanismo gisa.

Jarraian azaltzen dugu landutako geruzen zerrenda eta horietan aurkitutakoen laburpena:

Gainazaleko maila

Z5, Z7, Y5 eta Y7 laukietako gainazaleko lurrak. Laukietan oso lodiera ezberdina hartzen du geruza honek, indusketaren hasierako gainazalak mazelan duen kokagunearen arabera: puntu jakin batzuetan –250 cm-ko kotaraino iristen da. Lurrak kolorez marroi ilunak dira, landare egiturarekin eta sustrai moderno ugariekin. Lurrak, limotsuak eta idorrak, soltean ageri dira, tartean bloke edo klastoren bat. Erraz induskatzen da.

Ez du material arkeologiko garrantzitsurik eskaintzen: lauki lautan tailaz landutako hamarren bat hondakin eta berrogeita hamarren bat hezur zatiki.

I Maila

A2 laukiaren indusketan baizik ez genuen bereizi. Sakontzen hasi eta berehala hauteman genuen horma konkortu egiten zela —geroago egitura espeleologikoa osatuko zuen punturaino—. 60 zentimetroko lodierara bitartean ageri zen oso zanga estu batean, eta hasieran landare modernoa zuen ezaugarri: belar-tapiz txiki bat eta sasi batzuk hormatik erauzitako bloke eta klasto ugari tartean. Oso argiak eta hein batean harroak, hasierako lurrak sakondu ahala trinkotu eta ilundu egiten dira, hori bai, tonu horikara inoiz ere galdu gabe.

Aurreko kanpainetan ikusitakoak ikusita, harpeko hileta izaerako aldiari dagokio maila hau, eta giza gorpuzkinak alde batera utzita, ez zuen aztarna arkeologiko gehiegirik eskaintzen. Honenbestez, horratx aurtengo kanpainan bildutakoak: berrehun eta berrogeita hamar hezur zati paleontologiko eta antropologiko; hamabosten bat elementu silizeo, dortso bat izaki pieza bakarra; ofitazko laska gutxi batzuk eta zeramikazko puska bat.

Su hueco no podía ser aprovechado para la habitación, dado que, a la profundidad que se ha excavado, no permite la estancia de persona alguna en condiciones adecuadas. El lugar se fue taponando mediante al acúmulo de residuos dejados por los hombres prehistóricos: su formación sedimentaria no sigue la misma lógica que en el resto del abrigo, y puede asegurarse que, al menos su tramo superior, retiene elementos de diferentes épocas, fundamentalmente neolíticas de habitación y posteriores funerarias. Así se han recogido, en mezcla, piezas dentarias, craneales y esqueléticas que, en principio, asociamos a los enterramientos humanos del nivel I, pero a mayor profundidad que éstos. Debe pensarse que fue habitual, sobre el «hueco» de la estructura, el deslizamiento de tierras y elementos arqueológicos sin demasiado orden: no obstante se está procesando una muestra orgánica para su valoración radiocarbónica como mecanismo de control cronoestratigráfico.

Exponemos a continuación la relación de los estratos sobre los que se actuó y un resumen de lo recuperado en ello:

Nivel superficial

Refiere a las tierras iniciales de los cuadros Z5, Z7, Y5 e Y7 alcanzando un muy desigual grosor de acuerdo a la situación en ladera de la superficie inicial de excavación: en algunos puntos particulares llega a la cota de –250. Se caracteriza por unas tierras de color marrón oscuro, de estructura vegetal con abundancia de raíces modernas. Las tierras, limosas y secas, están sueltas con presencia esporádica de algún bloque o clasto, resultando fácil su excavación.

No aporta materiales arqueológicos significativos, pues todo se reduce, en los cuatro cuadros, a una decena de restos de talla y medio centenar de pequeños fragmentos óseos.

Nivel I

Afectó exclusivamente a la excavación del cuadro A2, pues fue desde su primer rebaje cuando notamos que la pared se combaba —hasta lo que luego constituyó la estructura espeleológica—. Alcanzó hasta 60 centímetros de espesor, sobre una franja muy estrecha y se caracterizaba por la presencia inicial de vegetación moderna: un pequeño tapiz vegetal de hierba y algunas zarzas salpicada de numerosos clastos y bloques procedentes del descascarillado de la pared. Muy claras y relativamente sueltas las tierras iniciales van ganando, a medida que se profundiza, en compacidad y oscuridad, pero sin perder en ningún caso el tono amarillento.

Por lo visto en campañas precedentes se corresponde con la fase funeraria del abrigo, y no solía entregar, salvo los restos humanos, demasiadas evidencias arqueológicas. Así lo recogido este año se resume a dos centenares y medio de fragmentos óseos paleontológicos y antropológicos; una quincena de elementos silíceos, con un dorso como única pieza; escasas lascas de ofita y; un fragmento cerámico.

II Maila

A2 laukian sakondutako hamar zentimetro sedimentuzko geruza, hormak bere konkorra argi eta garbi erakusten hasten den puntua. Goiko mailaren ezaugarriei jarraiki, lurrak nabarmen iluntzen dira, orain marroi ilunak dira. Aldi berean ezkotu egiten dira eta murriztu egiten dira frakzio handiak: hormetatik erauzitakoak alde batera utzita, ez da ia bloke, errekarri edo klastorik bereizten. Desagertu egiten dira sustraiak eta, oro har, landare elementu modernoak.

Sedimentuaren lodiera apalean ez genuen material garrantzitsuaren zerrendarik espero. Izan ere, hezurrezko hirurogeita hamar zatiki, tailaz landutako bost hondakin eta dekoraziorik gabeko zeramikazko sei zati txiki bereizi genituen.

III Maila

Maila honen indusketa aurten A2 laukian sakondu izanaren eta, egitura espeleologikoan barna, A4 laukira zabaldu izanaren ondorioa da. Galeriako betegarriaren funtsezko maila da, eta ez dio zehatz-mehatz erantzuten harpearen kanpoko aldean maila horrek erakusten dituen ezaugarriei: ez zen bizitoki bat, bai ordea materialak metatzeko gunea, batez ere fauna hondakinak. Geruza hau, kulturaren ikuspuntutik, eskuarki lehen Neolitos aroari eta Mesolitos Aroko okupazio geometrikoari dagokien arren (IIIb2 deitzen dugunetik aurrera), itxura batean hemen material berriago batzuk lekuz aldatu direla ematen du: areago galerian aurrera egin ahala. Etorkizunean komenigarria litzateke betegarria bereiztea xehe-xehe aztertu ahal izateko: orduan baloratuko dugu karraskari txikien presentzia, orain artean mikrofaunaren hondakinak oso urriak baldin baziren, hemen hortz eta matrailezur pieza batzuk jaso baikenituen. Bestalde, geruza honen egitura limotsua da, soltea benetan, kolorez beltzaxka: orban horiagoak ageri dira galeriako hormen ondoan, hormetatik berariaz erauzitako atalen ondorioz. Landare elementurik izan ezean, ez du elementu handirik gordetzen: blokeak oso urriak dira, hormen ondoan osatutako «bretxa estalagmitiko» txikiren bat salbuespen. Sakondu ahala trinkotu eta ilundu egiten da maila honetako lurra.

Material arkeologikoen katalogo zabala eskaintzen du, horien artean aipagarri giza hezur zatiki urri eta barreiatu batzuk (hortzak, matrailezurren bat eta falangeak).

Harrizko tresnak

Laurehun eta berrogeita hamarretik gora objektu erregistratu genituen. Gehienak, 400, taila hondakinak dira; horiei ukitu gabeko (edo soilik erabiltzeko) berrogeita hamarren bat xafla eta ukitutako hamarren bat pieza gehitu behar zaizkie: segmentuak, zulagailuak, dortsoak, harraskailuak... Aipagarria da foliazeo biren presentzia, giza hondakinen alboan azaltzen direnak. Gure ustez, gaineko kotetatik behera etorriak dira, eta galeriarantz desplazatuak dira.

Nivel II

Se define como tal diez centímetros de sedimento rebajado sobre el cuadro A2, momento en el que la pared empezaba a mostrar claramente su concavidad. Siguiendo las pautas del nivel superior las tierras se han oscurecido notablemente, puede definirse como marrón oscuro, a la vez que se humedecen y desciende de la participación de la fracción mayor: salvo acumulaciones de descascarillados de las paredes apenas si se aíslan bloques, cantos o clastos. La pérdida de raíces, y en general de los elementos vegetales modernos, es muy evidente.

En la escasa potencia del sedimento no era de esperar un inventario material importante. De hecho se reduce a siete decenas de restos óseos, cinco desechos de talla y seis pequeños trozos de cerámicas lisas.

Nivel III

Su excavación este año es consecuencia del rebaje del cuadro A2 y su extensión, por la estructura espeleológica, en A4. Forma parte esencial del relleno de la galería, y no sigue miméticamente los caracteres que sobre él se han descrito al exterior del abrigo: no constituía un área de habitación y si de acúmulo de materiales, faunísticos en su mayor parte. Si en lo genérico el estrato pertenece culturalmente al Neolítico antiguo y Mesolítico geométrico (a partir de lo que venimos llamando IIIb2) aquí parecen haberse desplazado algunos materiales más recientes: más cuanto más nos adentramos por la galería. En un futuro convendrá individualizar el relleno para su estudio detenido: valoraremos entonces la presencia de pequeños roedores, pues si hasta ahora eran escasos los restos de microfauna se han recogido aquí varias piezas dentales y mandibulares. Por lo demás su estructura es limosa, ciertamente suelta, de color negruzco: pueden aparecer manchas más amarillentas junto a las paredes de la galería por controlados fenómenos de descascarillados. Libre de elementos vegetales carece de gruesos elementos: son muy esporádicos los bloques, salvo alguna pequeña formación de «brecha estalagmítica» junto a las pareces. A medida que se rebaja gana en su compacidad y oscuridad.

Aporta un catálogo amplio de materiales arqueológicos, significando la presencia de pocos y desperdigados fragmentos óseos humanos (dientes más alguna mandíbula y falanges).

Industria lítica

Registramos algo más de cuatro centenares y medio de objetos. En su mayor parte, 400, son restos de talla, a los que se suman medio centenar de láminas sin retoques (o sólo de uso) y una decena de piezas retocadas: Segmentos, perforadores, dorsos, raspadores... Destacamos la presencia de dos foliáceas que deben observarse junto a los restos humanos y creemos desplazadas hacia la galería desde cotas superiores.

Zeramikazko tresnak

Berrogeiren bat zati, batez ere sabelak eta ertzen bat —kasuren batean ebaki txikien bidez ezpaina dekoratua— eta inpresioen bidez dekoratutako piezak.

Industria cerámica

Cuatro decenas de fragmentos, esencialmente panzas contando con algún borde —decorado el labio mediante incisiones en alguna ocasión— y piezas decoradas mediante impresiones.



Atxosteko Harpea. Egitura espeleologikoan aurkitutako objektu arkeologikoak.

Abrigo de Atxoste. Objetos arqueológicos recuperados en la estructura espeleológica.

Fauna hondakinak

Kategoria honetara biltzen dira aztarna arkeologiko gehienak; izan ere, zortzi mila eta hirurehun zati baino gehiago bereizi dira.

Beste material batzuk

Ofitazko berrogeita hamarren bat laska zenbatu dira, baita material bereko leungailuen familiako objektu bat ere (egia esan objektu kolpatua baizik ez). Dozena erdi errekarri bereizi genituen, eta horietatik batzuek seguru asko kolpekari gisa erabili izanaren arrastoak kontserbatzen dituzte. Hezurrezkoa da puntzoi luzanga eta leundu bat.

IV Maila

Maila honen presentzia Y5 laukiaren iparraldeko sektoreetara mugatzen da, betegarria mazelan hartzen duen tokiaren ondorioz. Soilik bost zentimetro lodierako geruzan garatzen da, lurrak solteak, egungo zorutik iritsitako landare elementuekin eta harri metaketaren batekin. Z5 laukian eta altuera berean betegarrien «poltsa» bat hautematen da, lur solte eta kolorez horixkarekin eta landare elementuekin. Geruza hau —geruza «nahasi» definitzen genuen— beheko mailetan barneratzen da, eta aurreko kanpainetan Z3 laukian deskribatzen genuen egituraren segida da. Ez da zaila betegarria bereiztea —kontu handiz isolatu genuen—, egitura arina baita, harri txintxarrez betea: ez dakigu zer esanahi duen, eta historiaurreko materialik ia eskaintzen ez duen arren, bildutako gutxi horiek (zeramikazko zatiki txikiak eta segmenturen bat) Neolitos arora garamatzate.

IV maila hizpide harturik, tresnen katalogoak hogeita hamarren bat harrizko pieza (harraskailu bi eta trunkadura bat pieza osoan zehar) eta beste hainbeste fauna hondakin bereizten ditu.

V Maila

Aurreko kasuan bezalaxe, maila honen presentzia sektore batzuetara mugatzen da eta ez Y5 lauki osora. Bost zentimetro inguru lodi da maila hau. Kolorez marroi argiko zerrenda ahula da, oso zanpatua eta trinkotua, orban gorrixkak eta zurixkak nonahi, hareharrien eta kareharrien deskonposizioen ondorioak hurrenez hurren. Fenomeno honek halako egitura pikortsua ematen die lurrei.

Maila honetan ere ez genituen objektu asko bildu: berrogeiren bat hondakin silizeo —pieza bakar bat ez— eta ehunen bat hezur zatiki txiki.

VI Maila

Induskatutako azalera osoan dago presente, aurreko historiaurreko mailak altxa ondoren edo, 7. Bandan, gainazaleko landare-lurrak altxa ondoren. Horrenbestez, gune batzuetan hogeita bost zentimetroko lodiera iristen du maila honek. V mailaren aldean, leunkiro aldatzen ditu bere ezaugarriak: lurrak horixeagoak dira, deskonposizioen ondorioz sortutako orbanak ugariago dira, gero eta pikortsuago eta zakarragoak dira lehorra-

Restos de fauna

A esta categoría pertenecen la mayor parte de los restos arqueológicos pues sus evidencias superan los ocho mil trescientos fragmentos.

Otros materiales

Se han contabilizado medio centenar de lascas de ofita, así como un objeto de la familia de los pulimentos (poco más que escodado en realidad) en dicho material. Se reconocen media docena de cantos de los que, con bastante seguridad, algunos conservan huellas de su uso como percutores. De base ósea es un punzón alargado y pulido.

Nivel IV

Su presencia está muy limitada a los sectores septentrionales del cuadro Y5 dada la situación en ladera del rellano. Se desarrolla en sólo cinco centímetros de espesor para unas tierras sueltas, con elementos vegetales heredados del suelo actual y con cierto acúmulo de piedras. En el cuadro Z5 a la misma altura se detecta una «bolsa» de relleno con unas tierra amarillentas, sueltas y con elementos vegetales. La misma —que calificamos como «revuelto»— va a penetrar en los niveles inferiores y es continuidad de la estructura que en campañas anteriores describimos en Z3. No es difícil la individualización del relleno —que cuidadosamente aislamos— dada su estructura ligera rellena de piedrillas: no acertamos a explicar su significado y aunque apenas aporta materiales prehistóricos, los pocos recogidos nos remiten al Neolítico (pequeños fragmentos cerámicos y algún segmento).

Refiriéndonos al nivel IV el catálogo industrial distingue tres decenas de restos líticos (dos raspadores y una truncadura por toda pieza) y otros tantos de fauna.

Nivel V

Como en el caso anterior su presencia se vuelve a limitar a sectores, —y no todo el cuadro— de Y5 con una potencia de entorno a cinco centímetros. Es una débil franja de color marrón claro muy apelmazada y compacta con presencia constante de manchas rojizas y blanquecinas resultados de descomposiciones de, respectivamente, areniscas y calizas. Este fenómeno aporta una estructura granulosa a las tierras.

Tampoco fueron muchos los objetos recuperados: cuatro decenas de restos silíceos —ninguna pieza— y un centenar de pequeños fragmentos óseos.

Nivel VI

Está presente en toda la superficie excavada, una vez retirados los niveles prehistóricos anteriores o, en la banda 7, las tierras vegetales iniciales. Así su potencia alcanza en ciertos puntos hasta los veinticinco centímetros. Muda con suavidad sus caracteres respecto al V: amarilleado de las tierras, aumento de los manchones de descomposición, carácter cada vez más granuloso y rasposo para unas tierras menos li-

goak bai baina hain limotsuak ez diren lurrak, eta gero eta zanpatuago ageri dira. Tarteka, kareharrizko blokeak azaltzen dira deskonposizio egoera ezberdinetan.

Materialaren ikuspuntutik bi familia bereizten ditugu:

Harrizko tresnak

Kopurua berrehunen bat elementura murrizten da, guztiak, koxka bi eta karraskailu bat izan ezik —beti ere Mesolitos aroko koxken estiloan— taila hondakinak.

Fauna hondakinak

900 inguru zatiki.

VIb Maila

Maila honen indusketa partzialarekin amaitu genuen aurtengo kanpaina: gutxi gora-behera 60 cm sakondu eta azpiko maila iritsi gabe. Harpeko estalkiaren higakin faseari dagokio, eta bloke handien —tresneria handiagoekin hautsi behar direnak eta hainbat sektore hartzen dutenak—, kareharri deskonposatuen eta erraz «xerratzen» diren zarakarren erara erantsien, hormetatik erauzitako geruzen eta sedimentuen «mihi» gutxiren nahasketa batez osatuta dago. Lurrak finak dira —osagarri nagusiaren meteorizazioaren ondorioa—, horixkak eta deskonposizioak eragindako orban gorrixka handiak ageri dira. Egitura zanpatua du.

Historiaurreko material hauek eskaini zituen:

Harrizko tresnak

Mila eta ehun hondakin baino zertxobait gehiago zenbatu genituen, taila hondakinak nagusi, mila eta hirurogeita hamar gutxi gora-behera. Bi dozena xaflatxo eta hogeita hamarren bat pieza bereizi genituen. Aipagarri dira dortsoak, hamar xafla eta hiru punta, ukitu arinak dituzten zazpi xafla, hiru triangelu txiki, beste hainbeste koxka, harraskailu bi, trunkadura bat eta dentikulatu bat.

Fauna hondakinak

Bi milatik gora fauna hondakin zenbatu genituen.

2003ko kanpainan zehar berreskuratutako hondakin arkeologikoen guztizko baturak gainditu egiten du 13.800 hondakinen kopurua: hezurrezko hondakinak dira horietatik %86, harrizko tresnak %13,5, eta portzentaje txiki bat hartzen dute zeramikazko piezek eta beste aztarna batzuek.

Arkeologia zerrendaren ikuspuntutik aurtengo kanpaina trantsiziozkoa gertatu da. Aurreko kanpainetan bideratutako indusketen emaitzen arabera, bagenuen kanpoko aldean irekitako laukietan objektu arkeologikoak urri izango zirelako susmoa: goiko mailak askoz ere aberatsagoak dira hormetatik zenbat eta hurbilago egon. Gogora ekarriko dugu holozenos aldiko sedimentuen dinamika ondo ulertu dugunean, azalera berriak altxatzeko asmoa genuela Pleistozenos aldiko mailak hobe zehaztu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, kanpaina honek egiazki interesgarriak diren perspektiba berri batzuk irekitzen ditu.

mosas más secas, apelmazamiento progresivo. Ocasionalmente afloran bloques calizos en desigual estado de descomposición.

Desde el punto de vista material distinguimos dos familias:

Industria lítica

Reduce su número a dos centenares de elementos, todos, salvo dos muescas y una raedera —siempre de estilo campiñoide— restos de talla.

Restos de fauna

Cerca de 900 fragmentos.

Nivel VIb

Terminó la presente campaña con su excavación parcial: durante unos 60 centímetros y sin haber alcanzado el nivel subyacente. Corresponde a la fase de derrubio de la techumbre del abrigo y está compuesto por una mezcla de grandes bloques —que son necesarios romper con ayuda de herramienta mayor y ocupan varios sectores—, calizas descompuestas y agregadas a la manera de costras que se «filetean» con facilidad, áreas de descascarillado, y escasas «lenguas» de sedimentos. Las tierras son finas —de meteorización del componente mayor— amarillentas con manchones rojizos de descomposición, y estructura apelmazada.

Ha aportado el siguiente material prehistórico:

Industria lítica

Contabilizamos poco más de mil cien evidencias, con dominio de los restos de talla, unos mil setenta. Individualizamos dos docenas de laminitas y una treintena de piezas. Destaca la presencia de dorsos, diez láminas y tres puntas, acompañadas de siete láminas con ligeros retoques, tres pequeños triángulos, otras tantas muescas, dos raspadores, una truncadura y un denticulado.

Restos de fauna

El montante de la fauna supera los dos millares de elementos.

La suma total de los restos arqueológicos mayores recuperados durante la campaña de 2003 supera las 13.800 evidencias: corresponde a los restos óseos el 86% del inventario y el 13,5% a la industria lítica, más un pequeño porcentaje para la cerámica y otras evidencias.

Desde el punto de vista del inventario arqueológico calificamos la campaña del presente año como de transición. De acuerdo a los datos de anteriores excavaciones sospechábamos que sobre los cuadros exteriores abiertos serían escasos los objetos arqueológicos: los niveles superiores se nos muestran sensiblemente más ricos cuanto más cerca de la pared. Recordemos que la intención era despejar nuevas superficies para definir mejor los niveles pleistocénicos, cuando ya hemos comprendido a satisfacción la dinámica sedimentaria holocénica.

No obstante lo indicado, la actual campaña abre nuevas perspectivas, ciertamente interesantes. Efecti-

Izan ere, Atxoste neurri handiko harpe bat izateaz gainera egiazko leize-zulo bati sarrera egiten badio (hein batean desmuntaturiko egitura espeleologikoak iradokitzen duen moduan), okupazio primitiboagoen okupazioari buruzko datu berriak lortzen ahal dira. Izan ere, okupazio horrek paleolitos aldiaren gaineko mailak ukitzen dituzten sedimentuen fenomeno batzuk argitzen laguntzen du (ikus *Arkeoikuska'02*, 45 or. eta h.):

a) VII mailako alde kromatikoak (kromatismoaren arabera VIIa, VIIb eta VII mailatan bereizia). Harpearen hormaren ondoan putzu-guneak izango zirela espekulatzen genuen. Putzu horiek narriatu egingo zuten jatorrizko sedimentuen egitura eta hondatu egingo zuten material arkeologikoen kalitatea. Putzu horiek, beti ere hipotesi gisa, harpetik ateratako urek osatuta egon litezke;

b) Errekarrien ugaria VII mailan. Errekarri gehienek ez dute ageriko marka antropikorik, eta ez genuen ulertzen gizakiak zertarako ekarriak ziren. Orain, ordea, ekarri naturalaren emaitza izan zirela pentsatu behar dugu, harpearen barruko aldetik kanpoko aldera irtengo zen korronteren baten ondorioa.

Atxosteko sekuentzia estratigrafikoak, unitate txikietan zatiturik, ibilbide luzeko kultura informazioak biltzen ditu: 10.000 urte baino gehiago ia etenik gabeko bisitaldiekin, kronologia absolutuen bidez ondo sailkatuak eta tresna katalogo oso aberatsarekin. Euskal Herriko eta Kantauriko arroko historiaurrearen amaierako berreraikuntzan aitzakiarik gabeko erreferentzia izango da.

a) Deposituko bizitoki-zikloa amaitura, harpea erabiltzen jarraitu zuten hileta izaerako barruti gisa erabiltzeko. Gizaki gutxi batzuk ehortzi baino I maila deitu dugunaren gainean utzi zituzten. Hezurren metaketaren artean hainbat norbanako bereizi ahal izan genituen lotura anatomikoan, makurturik edo etzanik. Praktika hau, tresneria apal batez lagundurik —zeramikazko hondakinak, ofitazkoak, gezi-muturrak) Kalkolitos aroaren amaierakoa edo Brontze Aroaren hasierakoa da.

b) Hein batean giza hezurren zatikiekin nahasturik, II mailari dagozkio etxeko jarduerekin loturiko azken aztarnak. Harrizko zatiki (segmentuak aipagarri) eta zeramikazko (dekoratutako forma gutxi batzuekin) pusketa gutxi hauek II maila Neolitos aroan sailkatzera eramaten gaituzte.

c) Neolitos arokoa da III mailaren goiko aldeetan (IIIa eta III1 deituak) bildutako tresneria. Harrizko tresneria oso espezializatuaren aurrean gaude (alaka bikoitzeko segmentuak dira pieza esanguratsuenak, baina ez dira dortsoak, harraskailuak eta ukitutako xaflak falta). Zeramikazko elementuen artean aipagarri dira inprimatutako dekorazioak dituztenak, *boquique* itxurakoak eta plastikoak, hainbat diseinuren arabera itxuratuak profil soil (goporrak esaterako) edo bihurriko ontzietan. Ez da hezurrezko piezaren bat (puntzoiak) eta dekoraziorako elementuren bat falta. Bilduma honek ageriko loturak ditu Neolitos aldiarekin.

Efectivamente, si Atxoste no sólo era un abrigo de dimensiones importantes sino que además da acceso a una verdadera cueva (tal y como hace suponer la estructura espeleológica parcialmente desmantelada) pueden obtenerse nuevos datos sobre las ocupaciones más primitivas. De hecho su presencia ayuda a explicar varios fenómenos sedimentarios que afectaban a los niveles superopaleolíticos (véase *Arkeoikuska'02*, pp. 45 y ss.):

a) las diferencias cromáticas del estrato VII (donde a tenor de ellas distinguíamos entre VIIa, VIIb y VII). Especulábamos sobre la existencia de áreas de encharcamiento junto a la pared del abrigo, que habrían degradado la estructura sedimentaria original y la calidad de los materiales arqueológicos. Dichos encharcamientos, como hipótesis, bien pudieran haberse formado por la salida de aguas desde la cavidad;
b) la abundancia de cantos rodados en VII. La mayor parte de ellos carecen de seguras marcas antrópicas, y no acertábamos a explicar el por que de su supuesto acarreo humano. Debe pensarse ahora en un aporte natural partiendo de una corriente desde el interior al exterior.

La secuencia estratigráfica de Atxoste, parcelada en unidades menores, recoge informaciones culturales de largo recorrido: más de 10.000 años de visitas casi ininterrumpidas, bien encuadradas mediante la cronología absoluta y con un densísimo catálogo industrial. Será referencia inexcusable en las reconstrucciones del final de la prehistoria para la cuenca vasco cantábrica.

a) Acabado el ciclo habitacional del depósito el abrigo fue aún objeto de visitas para su uso como recinto funerario. Escasos individuos fueron depositados, mejor que enterrados en lo que hemos llamado nivel I. Entre el acúmulo de huesos pudo identificarse varios individuos en conexión anatómica, bien flexionada bien tumbada. La práctica, acompañada por un pequeño ajuar —restos cerámicos, de ofita, puntas de flecha), es propia de fines del Calcolítico o inicios de la Edad del Bronce.
b) En parte mezclados con fragmentos óseos humanos, pertenecen al nivel II los últimos rastros de actividad doméstica. Escasos fragmentos líticos (a destacar los segmentos) y cerámicos (con pocas formas decoradas) acercan su clasificación al Neolítico.
c) Neolítica es la industria recogida en los tramos superiores del nivel III (conocidos como IIIa y III1). Estamos frente a una industria lítica muy especializada (en donde los segmentos en doble bisel serán las piezas más representativas, sin que falten dorsos, raspadores o láminas retocadas). Del componente cerámico son de destacar las decoraciones impresas, boquique y plásticas en diseños varios para recipientes de perfiles sencillos (tipo cuenco) o sinuosos. No falta alguna pieza ósea (punzones) y de adorno. La colección guarda claras conexiones con otras de los inicios del Neolítico (Mendan-

diaren hasierako beste batzuekin (Mendandia, Peña Larga, Los Husos, Arenatza, Lóbrega Leizezuloa...) eta agerian uzten du K.a. 4300 aldera kulturak zuen bizitasuna.

d) Mesolitos Aroko okupazio geometrikoko ekipamendua unitate estratigrafiko bitara mugatzen da: IIIb2 eta IV mailetara. Tresnak harrizko industriaren garapenean oinarritzen dira, eta harrizko tresna horietan aipagarria da triangelu eta trapezioen presentzia handia —inoiz ere ez segmenturik— eta ukitu latzen baliabidea. Bilakaerak (trapezio sendoagoak kota sakonenetan) inguruko finkamenduetan hautemandako urratsak erakusten ditu. Ez dira falta, egia esan ugari dira, dortso txikiak (xaflak edo puntak), harraskailuak, zulagailuak, koxkak eta dentikulatuak eta ukitu soileko edo erabilerarako xaflak. Faunak ondo bereizitako nitxo ekologikoen erabilera uzten du agerian, eta apaindurek distantzia handiko harremanak. Eraikuntza elementu gisa errekuntzarako egitura batzuk eta hormei atxikiriko etxola zahar baten hondakinak bereizi ditugu. Kultura forma hauek seigarren milurtekoan garatu ziren Atxosten.

e) Mesolitos aroko unitate nagusia, koxkak eta dentikulatuak deitua, ondoz ondo etortzen diren kultura aldi bitan ageri da Atxosten: V eta VI mailetan. Industriaren etena agerikoa da, xaflen teknika ez baizik eta laskena hobesten baita, baita lerrokadura dentikularreko ukitu ezkatadunen erabilera ere; halatan, pieza ugarienak —kopuru aldetik ez oso oparoak— koxkak, dentikulatuak, zulagailuak eta karraskailuak dira. Koxka eta dentikulatuen estilo hau bat dator hurbileko Kanpanoste Goikoa, Kanpanoste eta Mendandia finkamenduetan bereizitakoarekin, eta penintsularen iparraldean gero eta hobe ezagutzen den industria moldea diseinatzen du. Kronologikoki Atxosteren kasuan zazpigarren milurtekoaren hasieran kokatzen gara.

f) Era berean, Atxosten bereizi da Mesolitos aroko industria unitateetan lehena, xaflena, VIb geruzetan, estalkia hondatu zen aldiari dagokion mailan, eta itxura denez, hezetasun handiko garaia izan zen aldian. Industria edo tresneriaren ikuspuntutik, aipagarri dira harrizko osagarri txikiak, nagusiki puntak eta dortso-xaflak, triangelu txiki batzuez lagundurik eta harraskailuak eta karraskailuak falta ez direlarik. Erradiokarbonoaren bidezko teknikak K.a. zortzigarren milurtekoaren erdialdera garamatza.

g) Aurten ez dira indusketaren xede izan VII, VIIb, VIIb2 eta VIIc geruzak, eta hortaz, baliagarri dira arestian egindako kontsiderazioak: Pleistozeno aldiaren amaierako okupazioak, dortsoen maiztasun handiarekin eta harraskailu, buril, trunkadura eta xaflak lagundurik. K.a. XII. eta XI. milurtekoetako erreferentzia erradiokronologiko batzuk bildu ditugu.

Deskribatutako guztian hamar mila urtetik gorako okupazio aldiak laburbiltzen dira, tartean etenaldi txi-

dia, Peña Larga, Los Husos, Arenaza, Cueva Lóbrega...) y pone de manifiesto la vitalidad cultural hacia el 4300 a.C.

d) El equipamiento del Mesolítico geométrico queda individualizado en dos unidades estratigráficas: IIIb2 y IV. El cuerpo instrumental descansa en el desarrollo de la industria lítica, donde cabe destacar la amplia presencia de triángulos y trapecios —nunca segmentos— y el recurso al retoque abrupto. En su evolución (más fuerza de los trapecios en las cotas más profundas) sigue las pautas ya observadas en los establecimientos del entorno. No faltan, —ciertamente son frecuentes— los dorsitos (en laminas o puntas), raspadores, perforadores, muescas y denticulados y láminas de retoques simple o de uso. La fauna demuestra el uso de nichos ecológicos bien diferenciados, y los adornos relaciones a largas distancias. Como elementos constructivos se han ido aislando diversas estructuras de combustión así como los restos de una antigua cabaña adosada a las paredes. Estas formas culturales se desarrollan en Atxoste a lo largo de sexto milenio.

e) La unidad central del Mesolítico, llamada de muescas y denticulados, queda representada en Atxoste en dos horizontes culturales consecutivos: V y VI. El corte industrial es muy neto pues se prefiere una técnica lascar frente a la laminar, y el uso de retoques escamosos de delineaciones denticulares: así las piezas más numerosas —no demasiado abundantes— serán muescas, denticulados, perforadores y raederas. Este estilo campiñoide es afín a lo reconocido en los muy próximos lugares de Kanpanoste Goikoa, Kanpanoste y Mendandia y diseña un modo industrial cada vez mejor reconocido en el tercio norte peninsular. Cronológicamente, en el caso de Atxoste, nos movemos en los primeros momentos del séptimo milenio.

f) También se ha reconocido en Atxoste la primera de las unidades industriales mesolíticas, la laminar: representada en los estratos VIb que se corresponden con la fase de deterioro de la techumbre, y, al parecer, a una época de notable humedad. Desde el punto de vista industrial sobresale el componente microlítico, en su mayoría puntas y láminas de dorso acompañado por algunos pequeños triángulos sin que falten los raspadores ni las raederas. La técnica radiocarbónica nos sitúa a mediados del octavo milenio a.C.

g) No han sido objeto de excavación este año los estratos dichos VII, VIIb, VIIb2 y VIIc, valen así las consideraciones anteriores: ocupaciones del final del pleistoceno con una altísima frecuencia de dorsos sumándose raspadores, buriles, truncaduras o láminas. Hemos acumulado varias referencias radiocronológicas de los milenios XII y XI a. C.

En lo descrito se resumen ocupaciones de más de diez milenios sin interrupciones notables, circunstancia

kiak izan zirela. Zirkunstantzia hau ez da gure inguruko historiaurre hurbileko beste aztarnategietan gertatzen, eta horrek halako balio berezia ematen dio Atxosteri. Areago finkamenduak ataletan bereizten direnean sedimentuen, tresneriaren eta kronologiaren arabera: egiazki aprobetxagarria da Neolitos aroko inbentarioa, eta gainera agerian uzten du haren osaeraren antzinatasuna euskal eremuan; interesgarria da, halaber, Mesolitos aroko okupazio maila handia, haren oinarrizko unitate hiruetan ordezkatua dena: geometrikoa, koxka eta dentikulatu eta xaflena; berriak dira Paleolitos aldiaren amaierako tresnak, euskal eremuaren hegoaldeko isurialdean erreferentzia onik ez dutenak.

que no se repite en ningún otro yacimiento de la prehistoria reciente de nuestro entorno, lo que le dota de un apreciable valor. Más por que los asentamientos son individualizados en tramos gracias a los respaldos sedimentarios, industriales y cronológicos: es de provecho el inventario neolítico que, además, incide en la antigüedad de su formación en el área vasca; de interés la densa ocupación mesolítica representada en sus tres unidades básicas —geométrica, de muescas y denticulados y laminar—; novedosas las industrias del final del paleolítico, carente de buenos referentes en la vertiente meridional del área vasca.

Etorkizuneko lanen aurreko ikuspegia

Atxosteko indusketa historiaurre hurbileko ehorzketen aztarnak aurkitzean planteatu zen. Agian, Kanpanoste eta Kanpanoste Goikoa hurbileko finkamenduen bizileku osagarria izan zitekeela uste izan zen. Aitzitik, ondoz ondo bideratutako kanpainek erakutsi digute gutxi gora-behera hamar mila urtetan zehar okupazioak ez duela etenik izan; ondorioz, sekuentzia estratigrafiko oso aberatsa utzi zuten. Beste edozein tokitan ez bezala, euskal historiaurrearen azkena xehetasunez argitzeko aukera dugu. Eta horrek landa-lanei halako segida ematea justifikatzen du, guk proposatzen dugun bezala.

2003ko kanpainan aurreikusitako helburuak bete dira: etorkizunean induskatu beharreko azalera handitu Z5, Z7, Y5 eta Y7 laukietan sakonduz ia Paleolitos aldiaren gaineko mailen sabairaino. Iragan urteko artikuluan aurtengoa zehaztu zen helburu nagusietako bat; Z2 laukiko zutabe estratigrafikoa hein batean altxatzea, hein batean diogu artean zehaztu gabeko egitura espeleologiko bat ezkutatzen duelako; nolanahi ere, perspektiba berriak eskaintzen dizkigu. Horixe zen aurrez zehaztutako bigarren helburua.

Datozen urteei begira komenigarria da: a) lauki berriak indusketa-unitate zentrala dagoen gainazaleraino (–430 kota inguruan) berdintzea, jarraian haietan sakontzeko eta Paleolitos aldiaren amaierako informazio iturria emendatzeko eta hobetzeko xedean. Berdintze lan hori 2004ko kanpainan egitea aski erraza da, baita eremu osoan sakontzen hastea ere; b) aurtengo udan bereizitako egitura espeleologikoaren indusketa. Ezin aurreratu dezakegu ez lanen iraupena ez eta zer bide hartuko duten ere, ez baitugu ezagutzen haren izaera. Neurri apaleko galeria eseki bat baizik ez bada («deabruaren zirrituaren» moldekoa) ez dugu denbora handia beharko hura aztertzeko. Baina, eta gure ustez aukera handiagoak daude, karst sare baterako sarrera baldin bada, ahalegin handiak —eta ezin aurreikusi daitezkeenak— eskatzen zaizkigu hura irekitzeko eta ondoren aztertzeko. Ahal den neurrian, hurrengo lan arkeologikoen kanpaina multzoan burutu nahiko genuke egiteko hori.

Perspectivas de trabajo futuro

Se planteó la excavación de Atxoste al haber localizado evidencias de enterramientos de la prehistoria reciente, quizá, se creyó, como complemento a la habitación de los próximos lugares de Kanpanoste y Kanpanoste Goikoa. Las sucesivas campañas nos han ido mostrando, en cambio, una sucesión de fases habitacionales que se encadenaron a lo largo de unos diez mil años que, como consecuencia, han dejado una amplísima secuencia estratigráfica. Tenemos la posibilidad, como en ningún otro lugar, de descifrar con detalle el final de la prehistoria vasca, lo que justifica la continuidad de los trabajos de campo, tal y como proponemos.

La campaña del 2003 ha logrado los objetivos previstos: ampliar la superficie a excavar en un futuro con el rebaje de los cuadros Z5, Z7, Y5 e Y7 casi hasta el techo de los niveles superopaleolíticos. En el artículo del año pasado se fijó el presente como uno de los objetivos prioritarios; retirar parcialmente la columna estratigráfica de Z2, parcialmente por que la misma ocultaba una estructura espeleológica todavía por determinar pero que abre nuevas perspectivas. Este era el segundo de los objetivos marcados.

Para años venideros conviene: a) rasear los nuevos cuadros hasta la superficie (en torno a –430) en que se encuentra la unidad central de excavación, con el fin de proponer su inmediato rebaje como forma de aumentar, mejorando, el caudal de información del final del Paleolítico. Es muy factible dicho raseado en la campaña del 2004, y comenzar así mismo el rebaje conjunto de todo el área; b) la excavación de la estructura espeleológica localizada en el presente verano. No nos es posible predecir el rumbo de los trabajos ni su duración, puesto que desconocemos su entidad. Si se trata sólo de un galería colgada de no demasiadas dimensiones (a la manera de «la bragueta del diablo») su reconocimiento no llevará mucho tiempo. Si por el contrario, y creemos más factible, es la entrada a una red kárstica se nos exige mucho esfuerzo en su destaponamiento —y no predecible— y posterior reconocimiento. Quiere hacerse tal labor, en la medida de lo posible, a lo largo de la próxima serie de trabajos arqueológicos.

Alfonso Alday Ruiz

B.1.1.2. **Los Husos II Harpea (Bilar)**

I. kanpaina
Zuzendaritza: Javier Fernández Eraso
Diru-laguntza emailea: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundia

B.1.1.2. **Abrigo de los Husos II (Elvillar)**

I Campaña
Dirección: Javier Fernández Eraso
Subvención: Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Álava

During 2003, excavation work began in this rocky cave. The excavation site is made up by five squares which together cover a surface area of 5m², based on the sondage carried out during an earlier intervention. A Roman level was excavated along with a residual area pertaining to a burial level from the Chalcolithic era that was totally burnt and had been partially destroyed by the occupants of the cave during Roman times.

Kokalekua

Los Husos II harpea Los Husos I harpea dagoen konplexu konglomeratiko berean kokatzen da, bigarrenaren gainean. Hegoaldeari begira dago, beheko harpea bezalaxe. Formaz oso antzekoa da baina neurriz askoz ere txikiagoa. Harpe honetan ere hondoan iturri txiki bat azaleratzen da, beheko harpekoak baino ur emari txikiagoa duena.

Osaeratik askatutako haitz izugarri handi baten atzean kokaturik dagoenez eta neurriz ere apalagoa denez, Los Husos I harpea baino babestuago dago.

Aurrekariak

Los Husos II harpea J.M. Apellánizek Los Husos I harpean bideratu zituen indusketa lanetan zehar ezagutu eta zundatu zen. Interbentzio hartan —ez ditugu indusketaren neurriak eta kokalekuak ezagutzen—, agerian geratu zen historiaurreko izaera zuen aztarnategi baten presentzia.

2001. urtean zehar 1,50 × 1,50 metroko zundaketa bat egin zen «0» lineaz azpitik –414 m-ko sakonera iritsi arte. Harpe honetan bideratu dugun interbentzioa 1985. urtean Peña Larga harpean (Kripan) hasitako indusketa lanez geroztik Kantabriako Mendialdean historiaurre hurbilari buruz egiten ditugun ikerketen multzoan kokatzen dugu. Harpearen inguruetan Neolitos aroko aztarnategiak egotea, Mendialde berean Kalkolitos aroko hainbat ukuiluren hondakinak aurkitu izana eta Los Husos I harpeak baino bizitzeko eta babesteko baldintza hobeak eskaintzea izan ziren Los Husos II harpeko betegarri arkeologikoa induskatzera eraman gintuzten arrazoiak.

2003-11-25eko kanpaina

Indusketa lanak 2003ko uztailean zehar eraman zituen aurrera Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek.

Situación

El abrigo de Los Husos II se abre en el mismo complejo conglomerático donde se encuentra el de Los Husos I y situado sobre este último. Su orientación es sur idéntica a la del abrigo inferior. Su forma es muy similar aunque sus dimensiones son mucho más reducidas. También en este abrigo desde el fondo del mismo brota un pequeño manantial con menos aporte de agua que el del abrigo inferior.

Su situación tras una enorme roca desprendida de la formación y sus menores dimensiones lo hacen más resguardado y protegido que el abrigo de Los Husos I.

Antecedentes

El abrigo de Los Husos II fue conocido y sondeado durante las excavaciones que J.M. Apellániz realizó en el abrigo de Los Husos I. En aquella intervención, cuyas dimensiones y ubicación desconocemos, quedó atestiguada la presencia de un yacimiento de carácter prehistórico.

Durante el año 2001 se realizó un sondeo de 1,50 × 1,50 hasta alcanzar una profundidad de –414 m. bajo la línea «0». Nuestra intervención en este abrigo se inscribe dentro de las investigaciones que, sobre la prehistoria reciente en la Sierra de Cantabria, venimos realizando desde que en 1985 comenzáramos las excavaciones en el abrigo de Peña Larga (Kripan). La existencia de yacimientos neolíticos en las inmediaciones del abrigo, así como el haber localizado restos de varios establos del Calcolítico en la misma Sierra, unido a que ofrece mejores condiciones de habitabilidad y refugio que el abrigo de Los Husos I, fueron los condicionantes que nos condujeron a excavar el relleno arqueológico de este lugar.

Campaña de 2003-11-25

Los trabajos de excavación tuvieron lugar durante el mes de julio de 2003, por un equipo de la Universidad del País Vasco.

Lanei ekin baino lehen lekua egokitu eta garbitu genuen, aurreko ardatzak eta sagitalak paratu genituen, eta aztarnategiko gainazal osoaren planimetria eginda gero, argazkiak atera de azalera laukitan bereizi genuen. Aurreko interbentzioan ezarririko «0» erreferentzia plano bera erabili genuen.

Indusketa 5 m^2-ko zabaleran egin genuen, eta honako sekuentzia estratigrafiko hau geratu zen agerian:

Azaleko maila

10 eta 30 cm bitarteko lodierarekin. Indusketa eremuaren ipar-mendebaldean maila honen lodiera, «0»

Las labores previas consistieron en el acondicionamiento y limpieza del lugar, la colocación de los ejes frontal y sagital, planimetría, fotografiado y la cuadriculación total de la superficie del yacimiento. Se mantuvo el mismo plano de referencia «0» establecido en la intervención anterior.

La excavación se realizó en una extensión de 5 m^2. poniendo de manifiesto la siguiente secuencia estratigráfica:

Nivel superficial

Con un espesor de entre 10 y 30 cm. En la zona NW de la excavación su espesor, medido desde el



Los Husos II harpean aurkitutako materialak. A. Gure garaikoak. B. Erromatarren garaikoak. C. Kalkolitos arokoak.

Materiales procedentes del abrigo de Los Husos II. A. Recientes. B. De época romana. C. Calcolíticos.

planotik neurtzen hasita, –131; hasierako –134 eta –163; –160 oinarrian, bitartekoa da. Hego-ekialdeko ertzean –149; hasierako –161, eta –159; –167 oinarrian, bitartekoa da.

Azalean okermendu nabaria erakusten du iparralde-hegoalde norabidean eta mendebalde-ekialde norabidean. Oinarrian ia zeharo horizontala da, nahiz eta aipatutako norabideetan okermendu apal bat duen.

Lur limotsu-buztintsuaz osatua da, eskuarki lur soltea, nahiz eta ipar-ekialdean apur batean zanpatuta egoteko joera duen. Bere masan ugari dira klastoak eta errekarriak. Ipar-mendebaldeko hormaren ondoan harri eta blokeen metaketa handiagoa hautematen da. Era berean, ugari dira ikatz zatiak eta sustraiak.

Kolorez marroi gorrixka da (5YR4/3), baina alde batzuetan marroi kolorearen joera erakusten du (7.5YR5/3).

Zeramika beiratuzko zatiak (gure garaikoak) berreskuratu ziren sigillata zati batzuekin eta itxuraz historiaurrekoak diren beste material batzuekin batera, hezur ezpalekin eta sukarrizko zati gutxi batzuekin batera.

I. Maila

12 eta 29 cm bitarteko lodiera du. Ipar-mendebaldean –160/–163 eta –178/–175 bitartean ageri da eta hego-ekialdean –159/–167 eta –178/–179 bitartean. Ia zeharo horizontala da, nahiz eta apur batean ipar-mendebaldetik hego-ekialdera okertzen den.

Lur kolorez marroi grisaxka ilunez osatua da (10Y R4/2), ehunduraz hareatsua da, latza, apur bat hezea eta trinkoa. Bere masan ugari dira neurri ertain eta txikiko harriak eta, alde batzuetan, harpeko hormetatik lur jotako blokeak. Ugari dira, halaber, ikatz zatiak eta sustraiak.

Hezur, beira, eskuz landutako zeramika, terra sigillata eta metalezko objektuen zatiak (puntak, nola burdinazko hala brontzezko xaflatxoak) bildu genituen.

II. Maila

Indusketa lanetan zehar II eta II beh. Ataletan banatu genuen.

Osotasunean 21 eta 41 cm bitarteko lodiera du. Muturreko kotetan –175 eta –216 bitartean garatzen da. Bereiziak izan ziren ekialdean zeharo ikaztutako pago-ohol bat azaldu zelako. Halatan, II behea izena eman genion ohol horretatik mailaren oinarrirainoko tarteari.

Goiko tartea lur limotsu-buztintsuaz osatuta dago, lur hezea, leuna, soltea hego-mendebaldeko harri handien artean izan ezik, alde honetan trinkoago ageri baita. Kolorez marroi iluna da (7.5YR3/2) eta parterik beherenean tonu grisaxka nagusitzen da grisa oso iluna bilakatu arte (10YR3/1). Bere masan ikatz zatiak eta harriak, eta neurri ertain eta txikiko hareharriak aurkitu genituen.

Berreskuratutako material arkeologikoaren artean aipagarri dira sigillata zeramikak, neurri handiko zeramika trakets landuak, mikazko desgrasante lodiekin, il-

plano «0», se comprende entre los –131; –134 de inicio y –163; –160 en la base. En la esquina SE entre –149; –161, de inicio y –159; –167 en la base.

En superficie presenta un fuerte buzamiento en dirección norte sur y oeste este. En la base se muestra prácticamente horizontal aunque sigue manteniendo un discreto buzamiento en las mismas direcciones señaladas.

Está formado por tierra limo-arcillosa, suelta por lo general aunque hacia noreste tiende a apelmazarse ligeramente. Contiene en su masa gran cantidad de clastos y cantos rodados. Junto a la pared noroeste se aprecia una mayor acumulación de piedras y bloques. También contiene abundantes trozos de carbón y muchas raíces.

Su color marrón rojizo (5YR4/3) tendiendo a marrón en algunas zonas (7.5YR5/3).

Se recuperaron fragmentos de cerámicas vidriadas (de época actual) junto con fragmentos de sigillata y otros de aspecto prehistórico, esquirlas de hueso y escasos fragmentos de sílex.

Nivel I

Presenta un espesor entre 12 y 29 cm. Está comprendido entre –160/–163 y –178/–175 en la parte NW y entre –159/–167 y –178/–179 en la SE. Es prácticamente horizontal aunque presenta un ligero buzamiento de noroeste a sureste.

Está formado por tierras de coloración marrón grisáceo oscura (10YR4/2), de textura es arenosa, áspera, algo húmeda y compacta. En su masa contiene abundantes piedras de tamaños medianos y pequeños y, en algunas zonas, bloques desprendidos de las paredes del abrigo. Además abundan los fragmentos de carbón y las raíces.

Se recogieron fragmentos de hueso, vidrio, cerámica fabricada a mano, terra sigillata y objetos metálicos (puntas, chapitas tanto en hierro como en bronce).

Nivel II

Durante la excavación fue subdividido en dos parte II y II inf.

En conjunto presenta un espesor entre 21 y 41 cm. estando comprendido entre –175 y –216 en sus cotas más extremas. Fueron separados por que en la zona este apareció un tablón de haya totalmente carbonizado. Así desde ese tablón hasta la base del nivel se le denominó II inferior.

La parte superior está formada por tierra limo-arcillosa, húmeda, suave, suelta salvo entre grandes piedras de la zona suroeste en las que se muestra más compactada. Es de color marrón oscuro (7.5YR3/2) y en la parte más baja comienza a adquirir una tonalidad grisácea hasta hacerse gris muy oscuro (10YR3/1). En su masa contiene trozos de carbón y piedras y cantos de arenisca de tamaños medianos y pequeños.

Entre el material arqueológico recuperado destacan cerámicas sigillatas, otras toscas de gran tamaño con gruesos desgrasantes de mica, clavos y una

tzeak eta burdinazko ezpala bat, brontzezko xaflatxoak eta hezur zatikiak.

II behea maila ipar-ekialdean pago-ohol (Fagus sylvatica) batek bereizia dago. Ohol hori zeharo ikaztuta zegoen («in situ» sendotu zen eta gero jaso egin zen ondoren aztertu ahal izateko). Ikatz masa bat da, kolorez beltza (2.5Y2.5/1). Haren azpian lur gorritua ageri da, kolorez gorri iluna, granate egite aldera (10YR2.5/1). Lur hezea da, trinkoa, ikatz zati txikiekin eta suak gorritu eta zartatutako hareharriekin. Induskatutako gainerako eremuan lurra kolorez grisaxka da (10YR6/3 eta 7.5YR5/2), trinkoa, ukitzean leuna, masan ikatz eta hareharri puskak. Indusketa-laukiaren alde batzuetan eta oso gune jakinetan kolorez oso beltzak diren lur orbanak ageri dira, lur plastikoagoak. Goiko geruzetan jasotako material arkeologiko bertsua berreskuratu genuen maila honetan.

III. Maila

Indusketa lanetan zehar beste bi azpi-mailatan banatu genuen.

III Goikoak

Lodiera aldakorra du, 8 eta 24 cm bitartekoa, neurtzen den gunearen arabera.

Alde batzuetan lur kolorez gris oso ilun batez osatua dago (7.5YR3/1), eta besteetan lur kolorez marroi grisaxkaz edo ilunez (10YR5/2; 5YR3/3). Alde batzuetan leuna da, hezea, ukitzean apur bat latza eta ikatz zatiekin; besteetan limotsu-buztintsua da, latza, idorra, masan hareharriak eta ikatzak. Oso zaila da ehundura biak bereiztea, era irregularrean ageri baitira lauki osoan zehar. Kolorez marroi grisaxkak edo grisak diren lurrak, errautsaren kolorera hurbiltzen direnak, kolorez beltzaxkak diren lur plastikoen geruzekin nahasten dira. Bertan berreskuratutako materialak erromatarren garaikoak, aurreko mailakoak eta historiaurrekoak dira, denak nahasian.

III azpi-maila

III Goikoa masaren baitan txertaturiko maila gisa aurkezten da. Hondakin geruza bat da, harpea erromatarren garaian okupatu zutenek ebakia. Errauts kolorez zurixkako geruza da, gutxi gora-behera 17 cm-ko lodierarekin, eta bertan kiskalitako giza hezur kopuru handia hautematen da. Kolorez gris argia da (5YR7/1) edo, kolorez gorrixkak diren hareharri txikiak dauden aldeetan, arrosa (7.5YR7/4). Oso lur leuna da, hezea, hareharri, ikatz eta hezur zati txikiekin. Bere masan gezi-mutur bat, harraskailu bat, pieza geometriko bi eta sukarrizko xaflak aurkitu genituen. Tresna hauetako gehienak erabat kiskalita zeuden. Era berean, pastillazeramikazko zatiki bat eta bi kondera berreskuratu genituen.

«0» lerroaz azpitik –224 cm-ko sakoneran amaitu genuen aurtengo kanpainako interbentzioa. Induskatutako eremua plastikoekin eta lurrekin babestu genuen 2004ko kanpainaren zain.

cuña de hierro, chapitas de bronce y fragmentos de hueso.

El subnivel II inferior se separa claramente en la zona noreste por la presencia de un tablón de haya (Fagus sylvatica) totalmente carbonizado (fue consolidado «in situ» y recogido para su estudio). Se trata de una masa de carbón de color negro (2.5Y2.5/1). Bajo ella aparece una tierra rubefactada de coloración rojo oscura tirando a granate (10YR2.5/1). Es una tierra húmeda, compacta con carboncillos y areniscas rojizas y craqueladas por acción del fuego. En el resto de la zona excavada la tierra es de tonalidad grisácea (10YR6/3 y 7.5YR5/2), compacta, suave al tacto, con trozos de carbón y areniscas en su masa. En algunas zonas del cuadro de excavación comienzan a aparecer, a nivel local, manchas de tierra muy negra y algo más plástica. El material arqueológico recuperado no difiere del recogido en las capas superiores.

Nivel III

Durante la excavación fue dividido en dos subniveles.

III Sup.

Presenta un espesor variable, según la zona en la que se tome, entre 8 y 24 cm.

Está formado por una capa de tierra de color gris muy oscuro (7.5YR3/1) en unas zonas, y marrón grisáceo u oscuro (10YR5/2; 5YR3/3) en otras. En unas zonas es suave, húmeda, algo rasposa al tacto y con carbones, en otras, limo-arcillosa, áspera, seca, con piedras de areniscas y carbones en su masa. Es muy difícil llegar a individualizar ambas texturas pues aparecen de manera irregular repartidas por todo el cuadro. Las tierras más cenicientas de color marrón grisáceo o incluso grises, alternan con capas de tierra plástica de coloración negruzca. Los materiales recuperados en ella están mezclados entre los de época romana, del nivel precedente, y de época claramente prehistórica.

El subnivel III

Se muestra como intrusivo dentro de la masa del III sup. Se trata de una capa residual que fue cortada por quienes ocuparon el abrigo en época romana. Es una capa de cenizas blanquecinas, con un espesor de unos 17 cm. que contiene gran cantidad de huesos humanos calcinados. Su coloración gris clara (5YR7/1) o, en aquellas zonas en las que se contienen cantitos de areniscas rojizos, rosa (7.5YR7/4). Es una tierra muy suave, húmeda, con trocitos de arenisca, carbones y huesos. En su masa se recogió una punta de flecha, un raspador, dos piezas geométricas y láminas de sílex. La mayor parte de estos instrumentos, calcinados. También se recuperó un fragmento de cerámica de pastillas y dos cuentas de collar.

A una profundidad de –224 cm. bajo la línea «0» finalizó la intervención del presente año. La zona excavada fue protegida con plásticos y tierras hasta la campaña del 2004.

Javier Fernández Eraso

B.1.1.3. **Iruña/Veleia hiria. A impluviumeko domusa A (Iruña Oka)**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Eliseo Gil Zubillaga
Finantzazioa: Eusko Trenbideak.
Ferrocarriles Vascos S.A. enpresa
eta Eusko Jaurlaritzaren
Garraio eta Herri Lanetarako Saila.

B.1.1.3. **Ciudad de Iruña/Veleia. Domus impluvium A (Iruña de Oca)**

II Campaña
Dirección: Eliseo Gil Zubillaga
Financiación: Eusko Trenbideak-
Ferrocarriles Vascos S.A.
del Departamento de Transportes
y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

Within the framework of the Iruña-Veleia III. Milenioa project, the following fieldwork research was carried out: we continued with the extensive study of the «Domus de Pompeia Valentina», in relation to which some important information has been obtained regarding its entity and evolution; we also worked in the area around the southern door of the late walled precinct, whose chronological dating had not been pinpointed during the excavation work carried out last century.

A Impluviumeko edo Pompeia Valentinaren Domusa

Amaitzen ari dira *domus* honen azalera osoaren gaineko azterketak, egituraren berehalako sendotzea programatzeko eta bertako hondakin arkitektonikoak museo bihurtzeko xedean.

Hiriko egoitza garrantzitsu honen hegoaldean aurrera egin dugu ustez merkataritza bokazioa izango zuen kale arkupedun baten azterketarekin. Barruti berri bat aurkitu eta ikertu dugu, eta honakoa ere *taberna* gisa definitu dugu. Gela handi bat da (3 × 5,5 m oinean), bere garaian mosaiko batez zolatuta egon zena (*tesselae* zurien zerrendak osatutako perimetroko orlaren atal bat kontserbatu du). Estratigrafiaren azterketak agerian utzi du nola Goi Inperioaren garaiko mosaikoz osatutako zoladuraren sektore hau degradatuz joan zen (seguru asko mantenu lanak egiten ez zirelako), eta nola modu batean edo bestean konpondu egin zuten kare eta hareazko kareorezko geruzekin, legarra agregatu gisa erabilita; azken garaietan (K.o. III. mende aldera), bertako kareharrizko lauzak erabili ere zituzten. Geroago, eta *taberna* honek lur jo zuen arte (hari atxikiriko materialari erreparatuz gero K.o. V. mendean behar zuen), utzikeria gero eta nabariagoa izan zen, eta gelako zoladuraren atal handi batean azken geruza bera ere faltako zen, aspaldian desagertu zen jatorrizko mosaikoaren azpiko *statumen* geruza agerian geratuz.

*Domus*aren iparraldean zimendu batzuk bereizi ziren jada aurreko urtean. Zirkulu formako (0,8 m-ko ø) oina duten basamentuak dira, paldo edo zutabeei eusteko xede dutenak. Guztira hiru geratu dira agerian, flaviotarren garaiko etxebizitzaren egiturekin lerrokatuak, patio edo, gutxienez, sarrera arkupedun baten atala osatuko zutenak, 5 metro argiko baoa estaliz. Berriro ere egiaztatzen da eraikuntza ereduen errepikapena, flaviotarren aurreko aldian ere egon

Domus de Pompeia Valentina (o del Impluvium A)

Se está procediendo a la finalización del estudio extensivo de esta *domus*, con objeto de programar su inmediata consolidación y consiguiente musealización de sus restos arquitectónicos.

En la zona sur de esta notable residencia urbana se ha continuado con el análisis de lo que fue presumiblemente una calle porticada de vocación comercial. Concretamente se ha descubierto e investigado un nuevo recinto, interpretado igualmente como una *taberna*. se trata de una gran estancia (con 3 × 5,5 m. de planta) que estuvo en su día pavimentada con mosaico (del que subsiste parte de su orla perimetral, consistente en una banda de *tesellae* blancas. La investigación estratigráfica ha desvelado cómo en este sector el pavimento musivario de origen altoimperial fue degradándose (presumiblemente por falta de mantenimiento), siendo reparado con diversa fortuna mediante capas de argamasa de cal y arena con grijo como árido, incluyendo incluso en sus últimos momentos (hacia el siglo III d.C.) incluso algunas lajas de caliza local. Con posterioridad y, hasta el derrumbe y arruinamiento definitivo de esta *taberna* (que a juzgar por el material asociado debió producirse hacia el siglo V d.C.) el descuido se hizo cada vez más palmario, llegando a faltar todo resto de acabado en gran parte de la solera de la estancia, llegando a evidenciarse la capa inferior del *statumen* del mosaico original, ya desaparecido hacia tiempo.

En la zona norte de la *domus* fueron localizadas ya el pasado año una serie de cimentaciones. Se trata de basamentos de planta circuloide (0,8 m. de ø) destinados a soportar postes o columnas, de los que han aparecido un total de tres, alineados con las estructuras de la vivienda de época flavia, de la que formarían parte de un patio o, al menos, de un acceso porticado, cubriendo un vano de 5 m de luz. Nuevamente se constata la reiteración de los modelos

bazeudelako leku berean zutikoentzako basamentuak.

Bukatzeko, *domus*aren iparraldeko angeluan oinean 2 × 10 metro izango zituen erregistro estratigrafikoa bideratu genuen. Halatan, erromatarren garaiari dagozkion mailak aztertzen hasi ginen. Aurreneko datuek nahasi gabeko estratigrafiaren presentzia iradokitzen dute, behera etorritako kareharrizko lauza lauen bidezko estalkiaren hondakin-geruzen azpian ezkutaturiko egiturak daudela ematen baitu.

Lan hauetan berreskuratutako tresneria oparoaren azterketei dagokienez, esan dezagun «Pompeia Valentinaren Domuseko» tresnen atala osatzen zuten Galia hegoaldeko buztinoletatik etorritako *sigillaten* osaeraren azterketa egin dugula. Oso gai garrantzitsua da *Veleia* hiriaren eta inguruko herrien artean zeuden merkataritza fluxuak zehazteko, kasu honetan Goi Inperioaren aldian (K.o. I. mendearen erdialdea-II. mendea), garai horretakoak baitira azterturiko aztarnak. Galiako tailer sortaren barnean, pieza horien jatorria zehaztu nahi genuen. Xede horretan SFECAG eta GECMA bezalako zentro eta erakundeetako adituen lankidetza izan genuen; baita Okzitaniako Tolosako CEMES-CNRS laboconstructivos, puesto que en la fase previa pre-flavia existían también basamentos para pies derechos en ese mismo lugar.

Finalmente en el ángulo norte de la domus se ha practicado un amplio registro estratigráfico de 2 × 10 m. de planta, habiéndose iniciado ya el estudio de los niveles correspondientes a época romana. Los datos preliminares auguran la presencia de una estratigrafía inalterada, representada por las capas de derrumbe de una cubierta de lajas planas de caliza que sellan bajo ella las estructuras subyacentes.

En cuanto a los estudios del nutrido ajuar recuperado en estos trabajos, es de recibo destacar que se ha llevado a cabo una analítica de composición de las sigillatas procedentes de los alfares del sur de las Galias que formaban parte de los ajuares de la «Domus de Pompeia Valentina». Se trata de un tema de gran trascendencia para el establecimiento de los flujos comerciales, entre *Veleia* y su entorno, en este caso durante el alto imperio (mediados del siglo I-siglo II d.C.), época a la que corresponden las evidencias analizadas. Se pretendía establecer la procedencia concreta de las mismas, dentro del abanico de los talleres gálicos. Para ello se ha contado con la colaboración de di-



Veleia-ko harresia. Hegoaldea, kanpoaldeko zimendua. *Opus quadratum* moldeko harlandu berriro ere erabiliak (harlanduetako batek inskripzio monumental baten zati bat du ziztaturik).

Muralla de *Veleia*. Zona sur, cimentación por el exterior. Sillería en *opus quadratum* reutilizada (uno de los sillares presenta parte de una inscripción monumental repicada).

rategietako kideena ere. Halatan, CEMES erakundeko Philippe Sciau doktoreak *Veleia*ko TSG lagin batzuk aztertu zituen, eta erromatarren garaiko Galiako buztinola garrantzitsuenetako bitatik (Montansetik eta La Graufesenquetik) inportatuak zirela egiaztatu zuen.

ferentes especialistas adscritos a centros e instituciones como la SFECAG o el GECMA; así como los laboratorios del CEMES-CNRS de Toulouse. Así el Dr. Philippe Sciau del CEMES, ha analizado varias muestras de TSG de *Veleia*, certificando su procedencia desde dos de los más importantes centros alfareros de las Galias en época romana (Montans y La Graufesenque).

Azken garaiko harresia. Hegoaldeko atearen ondoko atala

Behar-beharrezkoa zen *Veleia* hiriko harresiaren azterketari ekitea hegoaldeko atearen inguruan. Orain arte ezezagunak ziren eraikuntza izaerako xehetasun guztiz interesgarriak geratu dira agerian, esate baterako, Goi Inperioaren garaiko hiriari dagozkion azpiko egiturak, harresiaren zimenduen azpian amortizatuak. Halatan, atearen ekialdean I.-II. mendeetako etxebizitzen hondakinak geratu dira agerian, zeharo betetako kanalizazio edo estolda baten ondoan. Egitura horiek guztiak desmuntatu eta lurraren mailara berdindu egin zituzten harresia eraikitzeko. Harresian ere guztiz alderdi ezezagunak geratu ziren agerian, esate baterako, fundazioaren garaiko oinarri sakona atearen mendebaldean. Baina dudarik gabe hegoaldeko atearen barruko aldean gertatu zen aurkikuntzarik aipagarriena: bertan zimendua aztertu genuen, baita V. mende aldera espazio hau osoa eraikitzera eraman zuen okupazio prozesua ere, harresiaren barruko aldeari atxikirik, barruti harresituaren barruko aldean jatorrian antolatutako segurtasuneremuaren kaltetan gertatu zena.

Sektore hau induskatzeko lanetan zehar, lur eremuko harrizko substratuan arraildura bat zirudiena identifikatu genuen. Garbitu ondoren, lauza batez zigilatutako aho bat geratu zen agerian; ahoak zulo natural bati egiten zion sarrera, eta seguru asko zuhurtasun neurri gisa itxiko zuten III. mende amaieran harresia eraiki zutenean. Aipatutako zuloaren gaineko lehen azterketak oso itxaropentsuak gertatu ziren. Bertikalean 5,5 metrotan garatzen da, barruan sedimentu buztintsuzko depositu lodia du, gainazalean ikatz zati txikiak eta fauna hondakinak. Bada, halaber, dibertikulu sakonago bat, 2 metroko hondoarekin. Azterturiko atalean zuloak tximinia txiki bat eta beste sarrera bat ditu, azken hau 45°-tara, sedimentu arkeologikoek zeharo estalia; hortaz, zuzenean gainazaletik abiaturik aztertuko dugu.

Harresiko jatorrizko «ingurabide» aldeari dagokionez, harresiaren barruko atalari atxikiriko horma sorta bat hauteman zen aldea aztertzeari ekin genion. Hasteko, barruko aurpegiaren garbiketak eta indusketak agerian utzi dute harresiaren ikuspegi guztiz berria, berriro ere erabilitako harlanduez eta zutabe-danborren zatiez osaturiko errenkada sendogarriarekin. Bestalde, aipatutako hormei atxikiriko okupazio-mailek kultura materialaren item ugari eskaini dituzte, horien artean aipagarri inportaziozko DS-P eta sigillata gallica beranta motako zeramikak. Gainera, orain arte ezagutzen di-

Muralla tardía. Tramo junto a la puerta sur

Se hacía necesario abordar el estudio de la muralla de la ciudad de *Veleia* en torno a la puerta sur. Se han puesto al descubierto interesantísimos detalles constructivos desconocidos hasta la fecha, como la presencia de subestructuras correspondientes a la ciudad altoimperial, amortizadas bajo los cimientos de la muralla. Así, en el lateral este de la puerta se han encontrado restos de viviendas de los siglos I-II, junto con una canalización o atarjea colmatada. Todos esos restos fueron desmontados y nivelados para edificar la muralla. De la misma se han constatado también aspectos inéditos como la presencia de una profunda bancada fundacional en el lado oeste de la puerta. Aunque sin duda, el hallazgo más relevante se ha producido por el interior de la puerta sur, donde se ha estudiado su cimentación, así como el posterior proceso de ocupación de ese espacio que llevó a edificar hacia el siglo V, adosando directamente al paño interior de la muralla, sacrificando así el área de seguridad, originalmente dispuesta al interior del recinto murado.

Durante los trabajos de excavación de este sector, se ha identificado también lo que parecía una grieta en el sustrato rocoso del terreno. Su limpieza ha revelado la presencia de una boca sellada mediante una losa, que daba acceso a una sima natural, seguramente cerrada de modo cautelar al edificar la muralla a fines del siglo III. El reconocimiento preliminar de dicha cavidad a resultado muy prometedor. Su desarrollo vertical es de unos 5,5 m. presentando un potente sedimento arcilloso en su interior, con presencia de carboncillos y algunos restos de fauna en superficie, existe también un divertículo más profundo, con otros 2 m. de caída. La sima presenta, en el tramo explorado, una pequeña chimenea y otro acceso, este a 45° y completamente colmatado de sedimento arqueológico, por lo que se espera acceder a su estudio directamente desde la superficie.

En cuanto a la zona del primitivo «paso de ronda» de la muralla, se ha procedido al estudio de un área en la que se detectaron una serie de muros adosados al paño interno de la misma. En primer lugar la limpieza y excavación de dicha cara interna ha proporcionado una visión inédita de la misma, con una hilada de refuerzo integrada por sillares reutilizados, así como por fragmentos de tambores de columna. Por su parte, los niveles de ocupación asociados a los citados muros han liberado numerosos ítems de cultura material, entre ellos cerámica de importación como la DS-P o sigi-

ren haurrentzako hilobien artean zaharrenetako bat litzatekeena identifikatu dugu, hain zuzen ere K.o. IV. mende amaierakoa-V. mende hasierakoa, harresiari atxikiriko egoitza eraikinak datatzen diren unekoa.

Era berean, hegoaldeko atearen alde bietan jardun dugu, kanpoko aldetik baina. Ekialdean harresiz kanpoko okupazio-mailak geratu dira agerian, hiriaren azken uneei dagozkienak, K.o. V. mende ingurukoak, hain zuzen ere Ekialdeko dorrearen kanpoko aldean. Berriro ere inportaziozko materialen (DS-P) presentzia egiaztatzen da *Veleia* hiriaren bizitzaren azken aldi hauetako tresnen artean.

Horrez gainera, ekialdeko bigarren dorrearen azpian 2. Burdin Aroko herrixka izango zenaren hondakinak identifikatu ditugu. Horien artean aipagarri etxola-hondo baten atala, adobezko adreiluzko paretekin, eta horiei atxikiriko tresnen hondakinak (zeramika modelatuak, fauna hondakinak, burdinazko objektuen zatiak, etab). Horrek guztiak agerian uzten du *Veleia* hiria sortu aurreko jatorrizko herriaren hedadura handia. Izan ere, barruti harresituaren hegoaldeko lursailetan une haietako kultura materialaren aztarnak jada bereizi ziren arren, hondakinok testuinguruetatik at llata gállica tardía. Además se ha identificado lo que sería uno de los más tardíos enterramientos infantiles conocidos hasta la fecha, correspondiente precisamente a fines del siglo IV-inicios del V d.C., momento en el que se fechan las construcciones habitacionales adosadas a la muralla.

Se ha intervenido también a ambos lados de la puerta sur, por el exterior. En el lado Este se han descubierto niveles de ocupación extramuros, correspondientes a los últimos momentos de la ciudad, en torno al siglo V d.C., justamente al exterior de la torre Este. De nuevo se constata la presencia de materiales de importación (DS-P) entre los ajuares de estas fases finales de la vida de la ciudad de *Veleia*.

Adicionalmente, bajo la segunda torre del este se han identificado restos de lo que sería el poblado de la 2.ª Edad del Hierro. Concretamente, parte de un fondo de cabaña, con levantes de ladrillos de adobe y restos de ajuar asociados (cerámicas modeladas, restos de fauna, restos de objetos de hierro, etc.). Ello pone de relieve la enorme extensión del poblado indígena previo que antecedió a la ciudad de *Veleia*. Así, aunque se habían encontrado indicios de cultura material de esos momentos en las fincas al sur del recinto amurallado, éstos aparecían descontextualizados,



Pompeia Valentinaren Domusa. Iparraldeko zimenduen sekuentzia eta gainezarpena (2. Burdin Aroa, flaviotarren aurreko *domus*-a eta flaviotarren garaiko *domus*-a).

Domus de Pompeia Valentina. Secuencia y superposición de cimentaciones en la zona norte (2.ª Edad del Hierro, *domus* pre-flavia y *domus* flavia).

agertzen ziren; halatan, aurreneko aldia da alde honetan egiturak eta haiei atxikiriko egoitza mailak egiaztatzen direla.

Hori guzti hori zaborrez osaturiko maila lodi baten azpian ageri da, iragan mendearen 50. urteetan Gratiniano Nietok induskatu ondoren ekarria izan zena harresiaren fronteak berdintzeko xedean. Harrigarriro eta ikerketa prozesuaren onerako, lan zahar haiek ez ziren sistematikoki lur eremuaren oinarrira iritsi, eta alde askotan aski izan zuten harresiaren oina partzialki agerian uzten. Geroago, ekarritako betegarrien azpian geratu ziren lurperaturik agerian geratutako egiturak.

siendo pues la primera vez que se constata la existencia de estructuras y niveles de habitación asociados en esa área.

Todo ello aparece bajo un potente nivel de escombro que tras las excavaciones de Gratiniano Nieto de los años 50 del pasado siglo, fue aportado para nivelar los frentes de la muralla. Para sorpresa y beneficio del proceso de investigación, aquellos antiguos trabajos no llegaron a alcanzar sistemáticamente la roca base del terreno, contentándose en muchas zonas con despejar parcialmente la planta de la muralla. Quedando luego las estructuras descubiertas sepultadas bajo los rellenos aportados.

Eliseo Gil Zubillaga

B.1.2. *MIAKETAK*

B.1.2.1. **Valderejoko Parke Naturala. Castrillo, Lahozen (Valdegovía)**

I. Miaketa magnetikorako Kanpaina
Zuzendaritza: Cristina Gómez López
Diru-laguntza emailea: Berak ordaindua

B.1.2. *PROSPECCIONES*

B.1.2.1. **Parque Natural de Valderejo. Castrillo, en Lahoz (Valdegovía)**

I Campaña de Prospección magnética
Dirección: Cristina Gómez López
Subvención: Propia

A magnetic prospection was carried out in an apparently pastoral, fairly sparse area in order to determine its chronology and functionality.

Interbentzioaren emaitzak

Izaera arkeologikoko interbentzio bat planteatu da proiektu etnografiko baten testuinguruan. Izan ere, artzaintzaren mundua aztertu nahi dugu Gaubean.

Lahozeko herriaren goiko aldean, Castrillo izeneko aurkientzan, aski hondatuta dagoen barruti bat dago ebaki natural baten ondoan. Ez zegoen argi zein izan zitekeen egitura haren jatorria eta funtzioa, baina eremuko testuingurua aintzat harturik, artegi bat edo ganaduarentzako itxitura bat izan zitekeela pentsatzen zen.

Hasteko, interbentzio honi begira hasieran zehaztu genuen helburu praktikoa bete egin dela azpimarratu behar dugu, izan ere, ohiko miaketa batean aurkituko ez genituen elementu metalikoak aurkitu genituen.

Hala eta guztiz ere deigarria da gure ustez abeltzaintza jarduera bizia eta denboran luzea izango zen leku batean hain aurkikuntza kopuru apala egin izana. Ferrailtze batzuk eta ezkila-mihi bat alde batera utzita, ez genuen leku honetan garatu den jarduerari buruzko iradokizunak egingo lizkigukeen material hondakinik aurkitu. Gainera, arraroa dirudi abelburu kopuru handi bat

Resultados de la Intervención

Se ha planteado una intervención de carácter arqueológico en el marco de un proyecto etnográfico cuyo objetivo es el estudio del mundo pastoril en Valderejo.

Encima del pueblo de Lahoz, en el término de Castrillo, se encuentra un recinto bastante arrasado junto a un cortado natural cuyo origen y funcionalidad no estaba claro pero que por el contexto de la zona se presumía que podía corresponder a un cercado pastoril.

En primer lugar hay que destacar que se ha logrado cubrir el objetivo práctico inicial que se marcó para esta intervención, es decir, la localización de elementos metálicos que en una prospección ordinaria no habrían podido ser localizados.

Llama la atención sin embargo el reducido número de hallazgos que se ha producido en una zona donde preveíamos que la actividad ganadera había sido bastante intensa y prolongada en el tiempo. Exceptuando algunos clavos de herradura y un badajo no se ha localizado ningún otro resto material que nos hable de la actividad que se ha desarrollado en este lugar. Ade-

bildu den aldean, egitura hau ganaduarentzako itxitura bati dagokiola aintzat hartzen badugu, abeltzaintzarekin zerikusia duten metalezko elementu kopuru handiago bat ez agertzea, esate baterako ferra-iltzeak, ezkila-mihiak, ferra zatiak eta beste batzuk.

Eta ez genuen eskuarki *txatarraz* ulertzen dugun bolumen aipagarririk hauteman, hau da, ez genuen artzainek bota edo galduko zuten objekturik aurkitu, ez labana edo aizto hautsirik, ez botoirik, ez itxitura hau ixteko alanbrerik ere.

Bestalde, deigarri egiten zaigu aurkitutako material guztia landare geruzaren azpian egotea, *zortziko* baten formako kate-begi bat eta igitai txiki bat, eskuz landutako zeramikari lotutako tresna, izan ezik. Hauek 15 eta 20 cm bitarteko sakoneran ageri ziren.

Honenbestez, proiektuan zehaztutako helburu teorikoak bete ez direla kontsideratzen dugu, barrutiari ematen zioten erabilera zehaztea, baita barrutiaren kronologia zehaztea ere.

Zintzarri baten aurkikuntza ez da nahikoa barruti hau zein ganadu motari zuzendua zen erabakitzeko. Ferra-iltzeek abere ferradunen presentzia iradokitzen dute, baina Gaubean soilik zaldiei ipintzen zaizkie ferrak, eta zaldiak ez dira barrutietan egoten, erdi askatasunean bizi baitira mendialdeko larreetan.

1959ko txanpon bat da marko kronologiko bat zehazteko modua eskaintzen duen elementu bakarra. Kronologiaren erreferentziatzat hartzeak arazo ugari planteatzen ditu, barruti hau aro modernokoa izatera artean alde honetako auzoen gogoan egongo baitzen hari emandako erabilera (eta ez da horrela), eta barrutiaren eraikuntza beste barrutien modura egingo baitzuten, hau da, harrizko hormekin, eta honek lurrez egindako paretak ditu.

Hain zuzen ere puntu honetan hartzen dute garrantzia eskuz egindako zeramika baten, igitai txiki baten, eta *zortziko* baten formako kate-begi baten aurkikuntzak, gainerako aurkikuntzak egin ziren mailetan ez baizik eta beste sakonera batean aurkitu baikenituen. Aurkikuntza honek arrazoizko zalantza bat eragiten du, eta barrutia abeltzaintza erabilerarekin ageriko loturarik ez duelako susmoa eragiten du, aurreko kronologia bateko beste erabilera batekin baizik.

más, parece extraño que en una zona donde se han reunido un número considerable de reses, si partimos de que esta estructura corresponde a un cercado para ganado, no apareciesen un número mayor de elementos metálicos relacionados con la actividad ganadera como clavos de herradura, badajos, fragmentos de herradura, etc.

Tampoco se ha detectado un volumen significativo de lo que podemos considerar *chatarra* en general, es decir, aquellos objetos de los que se habrían desecho o habrían perdido los pastores como un cuchillo o navaja rotos, botones, o simplemente un alambre utilizado para cerrar este cercado.

Por otro lado, nos parece llamativo que todo el material hallado estuviese bajo el manto vegetal a excepción de un eslabón *en ocho* y un hocejo, artefacto que aparece asociado a cerámica hecha a mano, y enterrados a una profundidad de 15 ó 20 cm.

Consideramos, por lo tanto, que no han quedado cubiertos los objetivos teóricos que se marcaron en el proyecto, la determinación del uso al que estaba destinado el recinto, así como la cronología del recinto.

El hallazgo de un cencerro no es suficiente como para determinar el tipo de ganado a que estaba destinado. Los clavos de herradura indican la presencia de animales herrados, pero en Valderejo sólo se coloca herradura a los caballos y estos no se encierran en recintos sino que permanecen en estado de semilibertad en los pastos de la sierra.

El único elemento diagnóstico que permite establecer un marco cronológico es una moneda de 1959. Su aceptación como referente cronológico es harto problemática, ya que si el recinto fuera efectivamente de época moderna aún permanecería su uso en el recuerdo de los vecinos de la zona (que no es así) y su construcción se habría llevado a cabo igual que el resto de los recintos, con paredes de piedra, y éste presenta unas paredes de tierra.

Es en este punto donde adquiere relevancia el hallazgo de cerámica a mano, un hocejo y un *eslabón en ocho* a una profundidad claramente diferenciada del resto de hallazgos. Su hallazgo crea una duda suficientemente razonable como para sospechar que el recinto no esté claramente relacionado con el uso ganadero sino con algún otro tipo de uso de cronología anterior.

Cristina Gómez López

B.1.2.2. **Valderejoko Parke Naturala: Santa Kristina III (Valdegovía)**

I. Kanpaina
Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco
Diru-laguntza emailea: Arabako Foru Aldundia

B.1.2.2. **Parque natural de Valderejo: Santa Cristina III (Valdegovía)**

I Campaña
Dirección: Antxoka Martínez Velasco
Subvención: Diputación Foral de Álava

Following on from the Archaeological Heritage Study Programme of the Valderejo Nature Reserve (Alava), this year, a soil pit was dug in the cave containing cave paintings known as Santa Cristina III. The results confirm the existence of archaeological elements.

Lanen garapena

Katen bidezko miaketa lanak azaroan zehar egin genituen, hilak 19an eta 20an. Parkeko zaintzaileei interbentzioaren berri eman genien eta lanei ekin genien ondoren.

1 × 1 metroko lauki bat bereizi genuen barruko aldeko egituraren ardatzaren ondoan. Eremutik kendu egin genituen blokeak, hostoak eta adarrak, eta indusketari ekin genion. Zoruaren mailarekiko 42 cm-ko kotaraino sakondu genuen. Gainazaleko geruza higakin geruza batez osatua zegoen, harriak, landare hondakinak eta hondakin organikoak tartean, arrastean utziak ondoko harritzatik eta egitura hau aterpe gisa erabilitako animaliek ere utziak. Aipatutako kotara iritsitakoan zeramikazko hiru zati azaldu ziren (1. argazkia); hortaz eta *Arabako Jarduera Arkeologikoei buruzko Araudiaren* lehenengo artikuluak xedatzen duenaren arabera, amaitutzat eman genituen kata lanak. Maila honi 1. MAILA deitu diogu. Esan beharra dago ez ginela mailaren azken muturreraino iritsi, baina zeramikaren aurkikuntzak

Desarrollo de los trabajos

Los trabajos de prospección con cata se han realizado a lo largo del mes de noviembre, en los días 19 y 20. Se puso en conocimiento de la guardería del parque la realización de la intervención y se procedió a su ejecución.

Se marcó un cuadro de 1m. × 1m. ajustado al eje de la estructura en la zona interior. Se despejó de bloques, hojas y ramas la zona y se comenzó la excavación. Se profundizó hasta una cota de 42 cm. respecto al nivel de suelo retirando el nivel superficial formado por una capa de derrubio compuesta por tierra, piedras, restos vegetales y restos orgánicos, depositados por arrastre desde el canchal inmediato y depositados por los animales que han empleado esta estructura como refugio. Llegado a la cota indicada aparecieron 3 fragmentos de cerámica (foto 1) por lo que se dio por finalizada la cata en función de lo que establece la *Normativa sobre las actividades arqueológicas en Álava* en su artículo primero. Este nivel fue denominado NIVEL 1. Hay que señalar que no se llegó al límite final del nivel, pero con el hallazgo de la ce-



Valderejoko Parke Naturala: Santa Kristina III. Egituraren barneko zeramikak.

Parque Natural de Valderejo: Santa Cristina III. Cerámicas del interior de la estructura.

aztarnategia egiaztatzen duela ulertzen dugu eta amaiera eman genion interbentzioari.

Maila argazkien bidez dokumentatu genuen eta, era berean, argazkiak egin genizkien aurkitutako piezei.

Konklusioak

Santa Kristina III izeneko aztarnategian depositu arkeologiko bat badela egiaztatu dugu. Honenbestez, aztarnategi hau Arabako Arkeologia Ondarearen zerrendara jasotzen da.

Kata lanetan zehar aurkitutako materialek ez dute depositua kronologikoki eta kulturalki zehazteko modurik eskaintzen. Hortaz, argitzeke geratzen da alderdi hori.

rámica se entendió que quedaba constatada la existencia de yacimiento y se puso fin a la intervención.

Se documentó fotográficamente el nivel y se fotografiaron igualmente las piezas halladas.

Conclusiones

Se constata la existencia de depósito arqueológico en el yacimiento denominado *Santa Cristina III*, con lo que este yacimiento pasa a formar parte del Patrimonio Arqueológico Alavés.

Las evidencias materiales localizadas durante la realización de la cata no permiten una caracterización cronológica ni cultural claramente definida del depósito por lo que este aspecto queda pendiente de determinación.

Antxoka Martínez Velasco

B.1.2.3. **Arabako Lautada**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós Castillo
Diru-laguntza emailea: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Zientzia eta Teknologia Ministerioa

B.1.2.3. **Llanada Alavesa**

II Campaña
Dirección: Juan Antonio Quirós Castillo

Subvención: Universidad del País Vasco y Ministerio de Ciencia y Tecnología

During 2003, the second season of archaeological prospections was carried out in the eastern part of the Alava Plain, within the framework of the project carried out by the Archaeological Department of the University of the Basque Country, which aims to analyse the transition between Classical times and the Middle Ages on the basis of the study of the population network and an analysis of the agricultural landscape. In specific terms, this year's work concluded the prospections in the three eastern transects defined in the Salvatierra grid and included the review of previously-identified sites or sites appearing in documentary registers.

Sarrera

2003. urtean zehar aurrera jarraitu dute Arabako gizarteak Antzinateko munduaren eta Erdi Aroko gizarte moldeen artean bizi izan zuen aldaketa dinamika aztertzeko ikerketa lanekin, paisaiaren arkeologiaren bidez. Ikerketa lan hauek Zientzia eta Teknologia Ministerioak finantzaturiko eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkeologia sailak bideratutako «Boterearen arkeologia eta Penintsularen Iparraldearen feudalizazioa» ikerketa proiektuaren baitara biltzen dira.

Arkeoikuska agerkariaren aurreko zenbakian argitara emandako txostenean azaltzen genuenez, ikerketaren ardatz nagusiak ziren zientzia arazoak Lautadaren zirkunstantziei egokituriko lan metodologiaren diseinuarekin elkartzea eta informazio arkeologikoa kudeatzeko plataforma bat garatzea ondarea behar bezala kudeatuz eta babestuz errentagarria izan dadin.

Introducción

Durante el año 2003 han proseguido las investigaciones dirigidas al análisis de las dinámicas de transformación de la sociedad alavesa entre la Antigüedad y la Edad Media a través de la arqueología del paisaje. Estas investigaciones forman parte del proyecto de investigación «Arqueología del poder y feudalización del Norte Peninsular» financiado por el Ministerio de Ciencia y Tecnología realizado por el Área de Arqueología de la Universidad del País Vasco.

Tal y como se señaló en el informe publicado en el número anterior de la revista *Arkeoikuska*, se han considerado como ejes prioritarios de la investigación la integración de las problemáticas científicas con el diseño de una metodología de trabajo adecuadas a las circunstancias de la Llanada y el desarrollo de una plataforma de gestión de la información arqueológica que pueda ser rentabilizada en términos de gestión y protección del patrimonio.

Zehatz adierazteko, 2003. urtean zehar bideratutako ikerketa lanak funtsean bi lan-ildo nagusien inguruan egituratu ditugu:

SIT delakoaren diseinua eta ezarketa

Erdi Aroko eta aro modernoko idatzizko dokumentuak sistematikoki aztertu ditugu azken milurtekoan Arabako lautadak bizi izan dituen okupazio moldeei buruz dauden albisteak geografikoki kokatzeko. Era berean, erregistro eta inbentario arkeologikoak eta beste informazio mota batzuk, esate baterako, eraikiriko ondarearen kategoria batzuk, informatizatu egin ditugu.

Lan honen ondorioz Erdi Aroko lurraldearen espazioaren azterketa egiteko potentzialtasun handiko inbentario arkeologiko bat osatu da, eta tresna horren bidez egun azterketa geografikoak egiten ari dira, baita lur zatien banaketa egin aurreko laborantza lurren espazioa aztertzen ere. Bestalde, fotointerpretazioa bezalako prozedura berriak baliatzen dira.

Esan dezagun era honetan diseinatutako erregistro sistemak datuak eguneratzeko eta kontsultatzeko bide erraza eskaintzen duela, eta oinarri guztiz baliagarria dela karta arkeologiko informatizatu bat eraikitzeko.

Landa-lanak

2002an hasitako lanei jarraipena emanez, iragan urtean ekialdeko lautadan miaketa lanen lehenengo fasea amaitu genuen; ikerketa proiektuaren hasierako diseinuan zehaztutako azken bandak aztertu genituen.

Hona zertan oinarritu den laginketaren estrategia: a) kilometro bete luzerako aldeak dituzten banda batzuk mugatu genituen. Banda edo zerrenda hauek 6 km-ko tarte erregularretan itxuratu genituen, eta lautada osoa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuten azterturiko lurraldearen guztizkoaren %12 hartuz (305 km^2 Aguraingo eskualdean); b) Inbentario arkeologikoei eta dokumentu-iturri eta erregistroen bidez lorturiko adierazpenei esker aldez aurretik ezagutzen ziren Erdi Aroko aztarnategiak berrikusi genituen.

Planteamendu teoriko honen funtsezko irizpide metodologikoa izan zen intentsitate handiko miaketa sistematikoak eta intentsiboak egitea, Goi Erdi Aroko aztarnategien ikusgarritasun arkeologikoa apala delako. Zehatzago azaltzeko, 2003. urtean zehar 20 metroko tartea utzi genuen miaketa guneen artean, eta tarte hori 5 metrotara murriztu genuen identifikatutako Unitate Topografiko (UT) guztietan bideratutako bigarren begiratuan. Beste antzeko proiektuen aldean lanen intentsitatea oso altua izan zen, besteetan 50 metro (Astill, G., Davies, W., 1997, *A Breton landscape*, Londres) eta baita 100 metroko tartea uztea izaten baita ohikoena.

Concretamente las labores de investigación durante el año 2003 se han articulado esencialmente en dos líneas principales de trabajo:

Diseño e implementación del SIT

Se ha completado el vaciado sistemático de varios registros documentales medievales y de época moderna con el fin de georreferenciar las noticias existentes sobre las formas de ocupación de la llanada alavesa en el último milenio. Asimismo se ha procedido a una informatización de los registros e inventarios arqueológicos y de otros tipos de informaciones, como algunas categorías del patrimonio edificado.

Como resultado de esta labor se ha logrado elaborar un inventario arqueológico de gran potencialidad para el análisis espacial del territorio medieval y que constituye el instrumento a partir del cual se están actualmente experimentado análisis geográficos, estudio de los espacios agrarios precedentes a la concentración parcelaria o nuevos procedimientos como la fotointerpretación.

Hay que señalar asimismo que el sistema de registro así diseñado permite la fácil actualización y consulta, convirtiéndose en una base preciosa para la construcción de una carta arqueológica informatizada.

Trabajos de campo

Como continuación de las labores iniciadas en el año 2002, durante el pasado año se completó la primera fase de las prospecciones de la llanada oriental mediante la revisión de las últimas bandas definidas en el diseño inicial del proyecto de investigación.

La estrategia de muestreo se ha basado en (a) la delimitación de una serie de bandas de un kilómetro de lado que, separadas de forma regular a 6 km., cruzan de norte a sur toda la Llanada cubriendo de esta manera un 12% del total del territorio analizado (305 km^2 de la cuadrilla de Salvatierra); (b) la revisión de los yacimientos de época medieval ya conocidos previamente a través de inventarios arqueológicos e indicaciones recogidas a través de fuentes y registros documentales.

Un criterio metodológico fundamental de este planteamiento teórico ha sido el de propiciar la realización de prospecciones sistemáticas e intensivas con una alta intensidad, debido a la baja visibilidad de los yacimientos altomedievales. Concretamente durante el año 2003 la separación entre prospectores ha sido de 20 metros, reduciéndose a 5 metros en la segunda pasada en todas las Unidades Topográfica (UT) identificadas. Se trata de una intensidad muy alta respecto a otros proyectos similares, en los que es frecuente que la distancia se sitúe en torno a los 50 metros (Astill, G., Davies, W., 1997, *A Breton landscape*, London) o incluso 100 metros.

Bestalde, laborantza lanek ikusgarritasun bikaina eskaintzen duten sasoian bideratu genituen landa-lanak. Horrexegatik hain zuzen ere, miaketa lanak funtsean urriko hilean zehar eta azaroaren hasieran bideratu genituen, kontuan izanik espazioen erabileraren aniztasunak (goldatutako sailak, iraulitakoak, aldatuak eta lugorriak) nabari baldintzatzen duela garai hartako aztarnategien aurkikuntza. Honenbestez, ezin izan genituen mugatutako zerrenda guztiak intentsitate irizpide horiekin miatu.

Landa-lanen fasearen eta informatizatutako erregistro sistemaren arteko elkarketa erraztearren, sateliteen bidezko teknikak baliatu genituen zentimetroko doitasuna duen GPS-a erabiliz (Geoexplorer 3c). Azpiegitura horrek unitate topografikoak geografian kokatzeko unean doitasuna emendatzen lagundu zuen, eta batez ere unitate horiek mugatzen lagundu zuten, hondakin arkeologikoen eremuak zehazten erraztuz.

2003. urteko kanpainan zehar ekialdeko hiru zerrenda aztertu dira: B *transect* edo zerrendan, gutxi gorabehera 16 km^2-ko azaleran, 10 km^2 aztertu dira (horietatik 4 basoan eta 2 bazka soroetan edo goldatu gabekoetan); C zerrendan, 12 km^2-ko azaleran, 6 km^2 aztertu dira (kasu honetan 5 mendiko eremuan eta 1 miatu ez daitezkeen soroetan); eta bukatzeko, D zerrendan, 4 km^2-ko azaleran, 1,5 km^2 aztertu dira (horietatik ia 2 mendian eta km^2 erdia landu gabeko lurretan). Honenbestez, azterturiko lurraldearen guztizkoaren %10 lantzeko aukera izan genuen, eta portzentaje hori nahikoa da lurraldearen ikuspegi ez barreiatuegia eduki ahal izateko (Cambi, F., Terrenato, N., 1996, *Introduzione all'archeologia dei paesaggi*, Erroma).

Landa-lanek iraun zuten 6 asteetan zehar guztira 17,9 km^2 aztertu genituen, batez beste 0,81 km^2 egunean. Guztira 275 lursail eta lur-zati aztertu genituen, eta miaketa lanen ondorioz 35 unitate topografiko bereizi genituen guztira.

Emaitzak

Aurreko kanpainan lortutako emaitzekin bat etorrita, esan dezagun funtsean Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko materialak aurkitu genituela; halatan, kasu zehatz batzuetan baizik ez genituen Goi Erdi Aroko eta erromatarren garaiko zeramikak bildu. Nolanahi ere, esan beharra dago kronologikoki zehazten zail diren zeramika «arrunteko» materialen multzo esanguratsua aurkitu genuela; pieza hauei ez darie ezaugarri berezirik, eta behar bezala datauriko eta sistematikoki argitaraturiko testuinguruak zehaztutakoan baizik ezin izango zaie data zehatz bat eman.

Bereziki deigarria da gainazalean erromatarren garaiko materialik ia batere aurkitu ez izana, ez eta erromatarren garaiko aztarnategietan ere. Hortaz, alubioizko potentzia estratigrafikoa handi baten presentziak

Por otro lado, el trabajo de campo se ha realizado en el período en el que las tareas agrícolas ofrecen una óptima visibilidad. Por este motivo, las prospecciones se han realizado esencialmente durante el mes de octubre e inicio de noviembre, teniendo en cuenta que la diversidad de uso de los espacios (piezas aradas, volteadas, plantadas o en barbecho) condiciona de forma sustancial la localización de los yacimientos de este período. Por este motivo, no ha sido posible prospectar con estos criterios de intensidad la totalidad de las bandas delimitadas.

Para favorecer la integración entre la fase de trabajo de campo y el sistema de registro informatizado se ha recurrido a técnicas de posicionamiento por satélite a través del empleo de GPS de precisión centimétrica (Geoexplorer 3c), que ha permitido aumentar la precisión en la georeferenciación de las unidades topográficas y, especialmente, perimetrar las mismas, favoreciendo la determinación del área efectivamente interesada por los restos arqueológicos.

Durante la campaña del año 2003 se han analizado las tres bandas orientales. Del *transect* B, de 16 km^2 de extensión aproximados, se han prospectado 10 (4 de ellos corresponderían a bosque y 2 a campos de pasto o sin arar); en el C, de 12 km^2 de extensión, se han prospectado 6 (en este caso, unos 5 son terreno de monte y 1 pertenece a campos no prospectables) y por último, en el D, de 4 km^2 de extensión, se ha prospectado 1,5 (cerca de 2 km. se corresponden a monte y medio km. está compuesto por campos sin trabajar). Se ha completado de esta manera el 10% del total del territorio analizado, porcentaje que se considera suficiente para llegar a tener una visión no demasiado fragmentada del territorio (Cambi, F., Terrenato, N., 1996, *Introduzione all'archeologia dei paesaggi*, Roma).

Durante las 6 semanas de trabajo de campo se han cubierto un total de 17,9 km^2, con una media de 0,81 km^2 al día. El total de las parcelas y piezas cubiertas es de 275, en las que, como consecuencia de la prospección, se han identificado un total de 35 unidades topográficas.

Resultados

En consonancia con los resultados de la campaña anterior, hay que subrayar que se han hallado esencialmente materiales de época medieval y postmedieval, de manera que únicamente en casos muy concretos se han reconocido cerámicas de época altomedieval y romana. Hay que señalar no obstante que se han recogido un conjunto significativo de materiales cerámicos «comunes» de difícil atribución cronológica, carentes de criterios o discriminantes específicos, que solamente podrían fecharse cuando se cuenten con contextos bien fechados y publicados sistemáticamente.

Llama poderosamente la atención la casi completa carencia de materiales romanos en superficie, incluso en aquellos yacimientos ya reconocidos como tales, por lo que hay que pensar que la existencia de una

eta laborantza lurren espazioetan izandako aldaketa sakonak garai horretako finkamenduak ezagutzeko orduan irizpide okerrak erabiltzera eraman gaitzakete, erromatarren garaiko aztarnategietan bideratutako indusketa lanek agerian utzi duten bezala. Era berean, kontuan hartu behar dira aurreko urteetan burura eramandako miaketa kronologikoki selektiboen eragina.

Gainazalean bildutako materialei dagokienez, bat ez etortze nabaria gertatzen da iturri idatziek eskainitako informazioen eta inbentario arkeologikoek eskainitako datuen artean. Horrek Goi Erdi Aroko aztarnategien ikusgarritasun apala eta aztarnategi mota hauek azterketa estentsiboak eta tokian tokiko zundaketa eta indusketa lanak elkartuz aztertu behar direla baizik ez du berresten.

Halako maiztasun batez hauteman ahal izan den beste irizpide desitxuratzailea da bizileku batzuen inguruetan dauden materialen presentzia, paisaiaren arkeologiaren beste proiektu batzuetan *non site* direlakoekin parekatu daitezkeenak, eta bizileku horien inguruetan lurrak ongarriztatzeko eta hondakinak lekuz aldatzeko praktikarekin identifikatzen direnak (Ammerman A.J., 1981, *Surveys and archaeological research*, «Annual Review of Anthropology» 10, 63-89. orr.).

notable potencia estratigráfica aluvial y la modificación profunda de los espacios de cultivo pueden ser criterios distorsionantes significativos en el reconocimiento de los asentamientos de este período, tal y como han mostrado excavaciones realizadas en yacimientos de época romana. Asimismo hay que tener en cuenta la incidencia de las prospecciones cronológicamente selectivas realizadas en años anteriores.

Se ha observado la existencia de una notable discordancia entre las informaciones ofrecidas por las fuentes escritas y las atribuciones realizadas por los inventarios arqueológicos respecto a los materiales recogidos en superficie, lo que no hace sino confirmar la escasa visibilidad de los yacimientos altomedievales y la necesidad de analizar este tipo de yacimientos integrando análisis extensivos con sondeos y excavaciones en área.

Un último criterio distorsionante que se ha podido observado con una cierta frecuencia es la presencia de materiales en proximidad de algunos centros habitados, que pueden ser asimilados con los *non site* identificados en otros proyectos de arqueología del paisaje, y que se identifican con prácticas de abonado y desplazamiento de residuos en proximidad de los núcleos de habitación (Ammerman A.J., 1981, «Surveys and archaeological research», *Annual Review of Anthropology,* 10, pp. 63-89).



Miaketa Adana aldean. Elgeako (29. eta 30. UT-ak) eta Iratzako (26. UT) herri hustuak. Kolore urdinez miaketa unitateak; gorriz materialen kontzentrazioak; horiz airetiko argazkian hautemandako berezitasunak.

Prospección en la zona de Adana. Despoblado de Elguea (UT 29, 30) y de Iraza (UT 26). En azul unidades de prospección; en rojo las concentraciones de materiales; en amarillo anomalías observadas en la fotografía aérea.

Adierazle horiek guztiak aintzat harturik, urria da oso aurkikuntza berrien indizea, gutxi gora-behera km^2-ko batez beste 1,7 UT identifikatu baita, multzoaren dentsitatea km^2-ko 0,7 UT-koa denean.

Aztarnategi berrien artean aipagarria da Gereñuko herriaren inguruetan identifikatutako UT-en kontzentrazioa (13., 14., 21., 32. eta 33. UT-ak); bertan, errota bat eta Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko aztarnak bereizi ahal izan dira. Aitzitik, Gereñutik hurbil dauden beste aztarnategi ezagun batzuetan, esate baterako, Ozabalen, non urte batzuk pasa diren Goi Erdi Aroko materialak identifikatu zituztenetik, ez genuen gainazalean materialik aurkitu. Ildo honetatik, material hauek finka batzuk egokitzeko lanetan zehar identifikatu zirela azpimarratu behar da (Arabako Karta Arkeologikoa, 1987, Vitoria-Gasteiz, 198. or., 3256. zka); horrenbestez, nekazaritza lurren paisaiak gure garaian ezagututako aldaketak zuzeneko eragina izan du material hauen identifikazioa aldatzeko eta zailtzeko orduan.

Erdi Aroko eta Aro Modernoko beste finkamendu garrantzitsu eta ez hain garrantzitsu batzuk identifikatu dira Heredian, Andonin eta Alaitzan, eta oso ohikoak izan dira lursail askotan barreiatutako materialen aurkikuntzak.

Era berean, aipagarria da aldez aurretik ezagututako edo dokumentu-iturrien bidez ezagututako aztarnategien identifikazioak eta azterketak Erdi Aroko gizarte-sarearen antolamendua eta gizarte horien barne-antolamendua doitasun handiago batez ezagutzeko modua eskaini izana.

Honenbestez, esate baterako Adanaren inguruaren kasuan, XI. mende amaieran existitzen ziren herri hustu biren arrastoak identifikatu dira. Elgeak eta Iratzak (bertan XII.-XIII. mendeetako materialak aurkitu dira) elkarrengandik 500 metro eskasera daudenak eta Adanatik (1257an dokumentatua) tarte bertsura, Behe Erdi Aroko eta Erdi Aro beteko landa-egituraren kasu paradigmatikoa erakusten digute, lautadako sektore honetan okupazio-dentsitateren indizea altua zenean. Elgearen kasuan, gainera, bizileku-eremua kokatu ahal izan da San Joan elizaren kokalekuarekiko. Kasu honetan UT bien artean dagoen gutxi gora-beherako hurbiltasuna zehaztu ahal izan da; Arabako beste herri hustuetan ustez identifikatutakoa baino hiri eredu trinkoagoa ageri du, eta horrek egungoa ez bezalako landa-egitura baten presentzia planteatzen du.

Kasu honetan ezin izan dugu termino arkeologikoetan herri hustu hauek abandonatuak izateko faseak zehaztu. Hortaz, gaur arte iradoki diren hipotesien aurrean xehetasun garrantzitsuak dituen abandonatze eredu bat planteatzeko moduan gaude. Eskuarki arrazoi politikoak (hiribildu berrien fundazioak eta jauntxoen presioak) eta arrazoi ekonomikoak (herrixka hauen bazterketa) argudiatu dira Behe Erdi Aroko krisialdian izandako desertzioak justifikatzeko. Bestalde, mende horietan abandonatutako herrien indizeak historiografiak onar-

Teniendo en cuenta todos estos indicadores, el índice de nuevos hallazgos es reducido, puesto que se han identificado una media de 1,7 UT por km^2 aproximadamente, frente a una densidad en conjunto de 0,7 UT por km^2.

Entre los nuevos yacimientos hay que mencionar la concentración de UT identificadas en los alrededores del pueblo de Guereñu (UT 13, 14, 21, 32 y 33), donde se ha podido reconocer un molino e indicios de ocupación medieval y postmedieval. Por el contrario otros yacimientos ya conocidos en proximidad de Guereñu como Ozabal, donde se han identificado hace unos años materiales altomedievales, no presentan materiales de superficie. A este propósito es significativo señalar que estos materiales se identificaron durante el acondicionamiento de unas fincas (*Carta Arqueológica de Álava*, 1987, Vitoria-Gasteiz, p. 198, n. 3256), lo que nos da a entender la notable incidencia que ha tenido la modificación del paisaje agrario en época reciente a la hora de modificar y dificultar la identificación de estos materiales.

Otros asentamientos medievales y modernos de diversa entidad han sido identificados en Heredia, Andoni y Alaiza, mientras que han sido muy frecuentes los materiales dispersos recuperados en numerosas piezas.

Asimismo merece la pena subrayar que la revisión e identificación de yacimientos ya conocidos previamente o reconocibles en las fuentes documentales ha permitido conocer con mayor precisión la organización de la red de doblamiento en época medieval y la estructuración interna de los mismos.

Así por ejemplo, en el caso del entorno de Adana se han identificado los restos de dos despoblados que existían a finales del siglo XI. Elguea e Iraza (donde se han recuperado materiales de los siglos XII-XIII) se encuentran separados entre si a menos de 500 m. y a una distancia similar de Adana (documentado en 1257), nos muestran un caso paradigmático de la estructura aldeana del período pleno y bajomedieval, cuando este sector de la llanada contaba con un alto índice de densidad de ocupación. En el caso de Elguea se ha podido identificar asimismo la ubicación del área de habitación respecto a la ubicación de la iglesia de San Juan. En este caso se ha podido determinar la proximidad existente entre ambas UT, que muestra un modelo urbanístico más compacto del presuntamente identificado en otros despoblados alaveses, lo que plantea la existencia de una estructura aldeana distinta a la actual.

En este caso no ha sido posible determinar con precisión en términos arqueológicos las fases de abandono de estos despoblados, permitiendo plantear un modelo de abandono que presenta matices relevantes respecto a los sugeridos hasta la actualidad, que han abundado esencialmente en razones políticas (fundación de las nuevas villas y presión señorial) o económicas (la marginalidad de estas aldeas) para justificar las deserciones en ocasión de la crisis bajomedieval. Por otro lado hay que subrayar que el índice de abando-

tzen dituen portzentajeak gainditzen dituela azpimarratu behar dugu (Díaz de Durana, R., 1986, *Álava en la Baja Edad Media. Crisis, Recuperación y transformaciones socioeconómicas (c. 1250-1525)*, Vitoria-Gasteiz, 120-130. orr.).

Ildo honetatik, aurkitutakoak bezain esanguratsuak dira aurkitu ez direnak. Halatan, garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea nola dokumentuen erregistroen bidez hala inbentarioen bidez ondo ezagutzen diren finkamendu batzuetan ez dela material arkeologikoen kontzentrazio esanguratsurik aurkitu. Ulla (UC 444, 445), Mendieta (UC 184, 453, 454) eta Marantxona (UC 455, 456, 457) kasuak herri hustu hauek gainazalean «ikusezinak» direlako paradigma dira. Mendietaren kasuan, ez da material garrantzitsurik aurkitu ez 2002ko kanpainan ez eta 2003koan ere.

Lanen jarraipena

Ikusirik miaketa kanpaina bien emaitzak eta planteatutako gogoetak, honako konklusio partzial hauek planteatu daitezke:

1. urria da Lautadan Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko aurkikuntza berrien kopurua, besteak beste laborantza lanen intentsitatea handia izan delako, ikusgarritasun baldintzak kaskarrak direlako eta dagoeneko material batzuk bederen jasoak direlako. Kontuan izanik baliabide honen ahulezia, ondare arkeologikoa kudeatzeko tresnak eta inbentarioak hobetzen eta zehazten lagundu beharko da.

2. dagoeneko ezagutu eta aztertu diren aztarnategi batzuetan barne-artikulazio eta antolamendurako elementuak hauteman dira, eta finkamendu horietako antolakuntzari buruzko datu esanguratsuak lortu dira. Zirkunstantzia hauetan fotointerpretazioa bezalako estrategiak baliatu beharko dira aztarnategi hauek hobe ezagutzeko xedean. Era berean, garrantzitsua da Arabako Museo Arkeologikoan garai honi lotuta kontserbatzen diren material arkeologikoak sistematikoki berrikustea.
3. lurraldearen irakurketa zabal hau identifikatutako unitate topografikoen azterketa sakon batekin uztartu beharra dago. Kasu jakin batzuetan eta material hauek gainazalean erakusten zuen banaketaren arabera herrixken morfologia eta egitura zehaztea posible izan den arren, beste arazo jakin batzuk (fundazioaren faseak, abandonatzearen faseak, espazioaren gizarte antolakuntza eta beste) miaketa lanetan zehar identifikatutako morfologien kasu jakin eta adierazgarrietan induskatuta baizik ezin izango dira aztertu.

nos en estos siglos es superior a los porcentajes admitidos por la historiografía (Díaz de Durana, R., 1986, *Álava en la Baja Edad Media. Crisis, Recuperación y transformaciones socioeconómicas (c. 1250-1525)*, Vitoria, pp. 120-130).

A este propósito son tan significativas las ausencias como las presencias. Así nos parece muy significativo señalar que algunos asentamientos bien conocidos tanto a través de los registros documentales como por los propios inventarios no han restituido concentraciones significativas de materiales arqueológicos. Los ejemplo de Ulla (UC 444, 445), Mendieta (UC 184, 453, 454) o Maranchona (UC 455, 456, 457) son paradigmáticos de la «invisibilidad» en superficie de estos despoblados. Concretamente Mendieta no ha ofrecido materiales relevantes en superficie ni en la campaña del año 2002 ni en la del 2003.

Prosecución de los trabajos

A la luz de los resultados de las dos campañas de prospección y de las reflexiones planteadas, se pueden plantear las siguientes conclusiones parciales:

1. que el número de nuevos hallazgos de época medieval y postmedieval en la Llanada es reducido, debido entre otros motivos a la intensidad de las labores agrícolas, a las propias condiciones de visibilidad y a los efectos de las recogidas de materiales ya realizadas. Teniendo en cuenta la fragilidad de este recurso, será preciso contribuir a definir y mejorar las herramientas e inventarios de gestión del patrimonio arqueológico.
2. que en algunos de los yacimientos ya conocidos y revisados se han detectado elementos de la articulación y organización interna y se han obtenido datos significativos sobre su organización. En estas circunstancias será preciso recurrir a estrategias como la fotointerpretación para ahondar en el conocimiento de estos yacimientos. Se considera asimismo relevante llevar a cabo una revisión sistemática de los materiales arqueológicos conservados en el Museo Arqueológico de Álava relativos a este período.
3. que es preciso integrar esta lectura extensiva del territorio con un análisis intensivo de unidades topográficas identificadas. Aunque ha sido posible, en casos puntuales, determinar la morfología y la estructura de las aldeas en función de la distribución en superficie de estos materiales, otro tipo de problemas específicos (fases de fundación, de abandono, organización social del espacio, etc.) solamente podrán ser estudiados mediante la excavación de casos puntuales y representativos de las morfologías identificadas durante las prospecciones.

B.2. **BIZKAIA / BIZKAIA**

B.2.1. *INDUSKETAK*

B.2.1.1. **Sustrigiko haize zabaleko finkamendua (Areatza)**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos Lopez Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Nekazaritza Saila

B.2.1. *EXCAVACIONES*

B.2.1.1. **Asentamiento al aire libre de Sustrigi (Areatza)**

II Campaña
Dirección: Juan Carlos López Quintana

Financiación: Diputación Foral de Bizkaia. Departamento de Agricultura

The Sustrigi site, located 200 metres from the Mendigana dolmen in the Gorbeia Nature Reserve, constitutes, along with the Pareko Landa site, the second most important Epipalaeolithic stratigraphic open air site in Bizkaia.

2002. eta 2003. urteetan bideratu da Sustrigiko haize zabaleko finkamenduko interbentzio arkeologikoa, hilabete eta erdiko kanpaina banaren bitartez. Hona hemen aintzat harturiko helburu nagusiak:

— muinoaren esparru arkeologikoa zedarritzea, finkamenduko estratigrafia zehaztu eta haren garapen topografikoa mugatzeko. 37 zundaketa estratigrafiko egin dira guztira (19 2002an eta 18 2003an),
— zundaketa kanpainan azaldu diren okupazio-aldeen indusketa arkeologikoa. 28 metro koadroko eremua induskatu dugu guztira: 10 metro 1. okupazio-aldean (2002), 10 metro 2. okupazio-aldean (2003), eta 8 metro 3. okupazio-aldean (2003). Larrederko aisia-gunearen eraikuntza lanek (aparkalekuak, mahaiak, erretokiak…) eta nekosten basoak berealdiko eragina izan dute indusketalan hauetan, biziki mugatu baita haien ondorioz okupazio-alde bakoitzean induskatu ahal izan den eremua.

2003. urtean bideratu den indusketa kanpaina arkeologikoari esker, azalduriko hiru okupazio-aldeen

La intervención arqueológica en el establecimiento al aire libre de Sustrigi se ha desarrollado durante los años 2002 y 2003, en sendas campañas de mes y medio de duración, cubriendo dos objetivos básicos:

— una delimitación arqueológica de la loma con el propósito de determinar la estratigrafía del asentamiento y demarcar su desarrollo topográfico. Ha abarcado un total de 37 sondeos estratigráficos (19 durante 2002 y 18 durante 2003),
— la excavación arqueológica de las áreas de ocupación atestiguadas mediante la campaña de sondeos, la cual se ha extendido sobre una superficie de 28 metros cuadrados: 10 para el área de ocupación 1 (2002), 10 para el área de ocupación 2 (2003) y 8 para el área de ocupación 3 (2003). La incidencia de las obras de construcción del área recreativa de Larreder (aparcamientos, mesas, asadores…) y el bosque de cipreses han limitado de forma considerable la superficie excavable en cada una de las áreas de ocupación.

La campaña de excavación arqueológica desarrollada durante el año 2003 ha permitido (1) delimitar

eremua zehatzago mugatu ahal izan dugu (1), Sustrigiko dinamika estratigrafikoaren ezagutza zabaldu ahal izan dugu (2), habitat-egitura berriak dokumentatu ditugu, 2, okupazio-aldean bereziki (3), eta emendatu egin da, era berean, harrizko tresnen kopurua (4); halatan, material gehiago daukagu orain multzoko tresneriaren izaera eta sukarrien erauzte eta lantze eredua zertan ziren zehazteko. Sedimentuen egonezina ageri duten gune batzuk azaldu zaizkigun arren, sekuentzia estratigrafikoa ez da funtsean aldatu eta 2002ko kanpainaren ondoan argitaratu genituen oharren araberakoa da betiere. Datu berri gisa, aipa dezagun Lsgk behe-egituraren barruan harrizko materiala eta hondakin antrakologikoak azaldu direla. Hona hemen, laburrean, zehaztu dugun estratigrafia, sabaitik hormara:

con mayor precisión la superficie ocupada por las tres áreas de ocupación testimoniadas, (2) ampliar el conocimiento de la dinámica estratigráfica de Sustrigi, (3) documentar nuevas estructuras de hábitat, fundamentalmente en el área de ocupación 2, e (4) incrementar el efectivo de material lítico para la caracterización industrial del conjunto y para el establecimiento del modelo de captación de los sílex. La secuencia estratigráfica, si bien se ha enriquecido con la constatación de diversas situaciones de inestabilidad sedimentológica, no ha variado substancialmente con respecto a las notas preliminares publicadas tras la campaña de 2002. Como novedad, habría que mencionar la localización de material lítico y restos antracológicos dentro de la estructura inferior Lsgk, definida inicialmente como estéril desde el punto de vista arqueológico. Exponemos a continuación una síntesis, de techo a muro, de la secuencia estratigrafía determinada:

SnR egitura estratigrafikoa

Sn mailaren goialdeari dagokio. Nahasian ageri dira hartan elementu modernoak eta historiaurreko tipologia ageri dutenak.

Estructura estratigráfica SnR

Corresponde al tramo superior del nivel Sn, donde se mezclan materiales modernos con otros de tipología prehistórica.

Sn egitura estratigrafikoa

Sn mailaren goialdeari dagokio. Nahasian ageri dira hartan elementu modernoak eta historiaurreko tipologia ageri dutenak.

Estructura estratigráfica Sn

Estructura sedimentológica en la que predomina la fracción fina, arenas negras, estando ausentes, en líneas generales, los componentes de fracción gruesa (clastos y bloques).



Sustrigiko finkamenduko 2. okupazio-aldea.

Área de ocupación 2 del asentamiento de Sustrigi.

Sgk egitura estratigrafikoa

Hondar grisaxkak ageri dituen maila, gainean duen Sn maila baino trinkoagoa eta puska lodirik ageri ez duena. 2. eta 3. okupazio-aldeetan, limoak ageri ditu lur hondartsuak eta Slgk izena hartzen du orduan. Bereizgarri argia ageri dute Sgk mailako alde emankorrek, egitura estratigrafiko orokorrean guztiz nabarmen uzten duena: ugari dira oso landare hondakin handiak, kontserbazio egoera on xamarrean gainera. Hur azal edo perikarpo puskak nabari daitezke erraz asko. Halatan, Sgk egitura orokorrak C-Sgk (C = ikatza) izena hartu du azaldu zaizkigun hiru okupazio-aldeetan. Beste 30 zundaketetan —antzuak gertatu dira arkeologiari dagokionez—, landare-aztarna hauen arrastorik ñimiñoena ere ez da ageri. C-Sgk maila honetan ere, goiko Sn mailan baino askoz harrizko tresna gehiago azaldu da.

Lsgk egitura estratigrafikoa

Sedimentu limo-hondartsu gris trinko batek eratzen du Lsgk maila. Era berean, nabaria da hartan buztina. 2. eta 3. okupazio-aldeetan azaldu da, arroka naturalaren gainean eta Slgk mailaren azpian. 2003ko kanpainan harrizko material batzuk azaldu dira, gutxi halaz ere, eta aztarna antrakologikoak ere dokumentatu dira.

2003ko kanpaina honetan, Mandigana-Sustrigi eremuaren zedarritze arkeologikoa bideratu eta gero, ez da beste okupazio-alderik azaldu. Hala eta guztiz ere, zabaldu egin dugu 2002. urtetik ezagutzen genituen hiru aldeen gaineko ezagutza.

1. okupazio-aldea

Eduki arkeologikoa duten bi egitura estratigrafiko azaldu dira 1. okupazio-aldean, beren horretan: Sn eta C-Sgk mailak. C-Sgk mailaren barruan, bizigunearen ordenazio edo antolakuntzaren zantzuak eskaintzen dituzten egiturak eta elementuak ageri dira: (1) bloke-egitura duen sutondo bat (C-Sgbk-h1); (2) bi zutoin-zulo (C-sgk-U1 eta C-Sgk-U2), eta (3) bloke pilaketak (C-Sgbk), emankortasun arkeologiko handiko aldeetan. Egitura jakin batzuk identifikatzeko aukera ematen ez duten arren, badirudi habitat edo bizigune batekin lotu behar direla egitura eta elementu hauek.

2. okupazio-aldea

Eduki arkeologikoa duten hiru egitura estratigrafiko azaldu dira 2. okupazio-aldean, beren horretan: Sn, C-Sgk eta Lsgk mailak. Errekuntza-gune bat ere azaldu da, egiturarik gabe ordea (C-Slgk-h2) eta klastozko egitura duen sutondo bat, ongi kontserbatua (C-Slgk-h3).

Estructura estratigráfica Sgk

Nivel de arenas de tonalidad gris, de mayor compacidad que el suprayacente Sn y sin elementos de fracción gruesa. En las áreas de ocupación 2 y 3 la matriz arenosa incorpora limos y se define como Slgk. Las áreas fértiles del nivel Sgk presentan un rasgo distintivo, con gran significación en el seno de la estructura estratigráfica global: la gran profusión de macrorrestos vegetales, en bastante buen estado de conservación, entre los cuales se identifican fragmentos de pericarpio de avellana. Así, la estructura genérica Sgk se ha definido como C-Sgk (C = carbón) en las tres áreas de ocupación testimoniadas. En los 30 sondeos restantes, arqueológicamente estériles, este carácter desaparece por completo. En C-Sgk se aprecia también un aumento substancial de la industria lítica en relación al nivel superior Sn.

Estructura estratigráfica Lsgk

El nivel Lsgk se compone de un sedimento limo-arenoso gris compacto en el que es notorio, asimismo, el componente arcilloso. Ha sido evidenciado en las áreas de ocupación 2 y 3, donde aparece asentado directamente sobre la roca madre e infrayaciendo al nivel Slgk. Durante la campaña de 2003 se ha verificado la presencia de material lítico, aunque escaso, y restos antracológicos.

La delimitación arqueológica del área Mendigana-Sustrigi no ha aportado nuevas áreas de ocupación en la campaña de 2003. No obstante, se ha ampliado el conocimiento de las tres áreas de ocupación testimoniadas desde el año 2002.

Área de ocupación 1

El área de ocupación 1 presenta dos estructuras estratigráficas con contenido arqueológico en posición primaria: niveles Sn y C-Sgk. Incluye, en el seno del nivel inferior C-Sgk, una serie de estructuras y elementos que manifiestan una ordenación del espacio habitacional: (1) un hogar con estructura de bloques (C-Sgbk-h1); (2) dos agujeros de poste (C-Sgk-U1 y C-Sgk-U2); y (3) concentraciones de bloques (C-Sgbk) en zonas de gran fertilidad arqueológica que, aunque no posibilitan el reconocimiento de estructuras definidas, sí parecen ir asociadas a un área de hábitat.

Área de ocupación 2

El área de ocupación 2 muestra tres estructuras estratigráficas con contenido arqueológico en posición primaria: niveles Sn, C-Slgk y Lsgk. Incorpora, además, un área de combustión, carente de estructura (C-Slgk-h2) y un hogar con estructura de clastos, en buen estado de conservación (C-Slgk-h3).

3. okupazio-aldea

Eduki arkeologikoa duten hiru egitura estratigrafiko azaldu dira 3. okupazio-aldean, beren horretan: Sn, C-Sgk eta Lsgk mailak. Ez da hartan habitat edo bizigune egiturarik dokumentatu, T3 koadroan han eta hemen azaldu diren su-arrasto batzuk izan ezik. Halaz ere, aurrekoekin lotu beharko ez litzatekeen hirugarren okupazioaldi baten aurrean geundeke, elementu paletnologikoek iradokitzen diguten bezala.

Oraingoz dauzkagun datu tipologikoen arabera, Epipaleolitos Aroan egokitu beharko litzateke Sustrigiko haize zabaleko finkamendua. Gehiago zehazterik ez dagoelarik, jakin bedi berreskuratu diren tresnei halako «aire» zahar bat dariela, garrantzitsuak baitira muturrak eta dortso-xaflatxoak, neurri txikiko xafla-modulutan landuak. Ez da, gainera, mikrolito geometrikorik ageri.

Área de ocupación 3

Comprende tres estructuras estratigráficas con contenido arqueológico en posición primaria: niveles Sn, C-Slgk y Lsgk. No se documenta ninguna estructura de hábitat, a excepción de algunos indicios dispersos de fuego en el cuadro T3. Sin embargo, los elementos paletnológicos recuperados permiten definir una tercera ocupación aislada de las dos anteriores.

El asentamiento al aire libre de Sustrigi puede ser encuadrado, de acuerdo a los datos tipológicos disponibles, en el Epipaleolítico. Dentro de esta imprecisión, las industrias recuperadas muestran un «aire» antiguo, caracterizado por la importancia de las puntas y laminitas de dorso, confeccionadas sobre módulos laminares de reducidas dimensiones, y por la ausencia de microlitos geométricos.

Juan Carlos López Quintana

B.2.1.2. **Axlor harpea (Dima)**

Zuzendaritza: Jesus Gonzalez Urquijo,
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko
Foru Aldundia

B.2.1.2. **Abrigo de Axlor (Dima)**

Dirección: Jesús González Urquijo
Subvención: Diputaciión Foral
de Bizkaia

The 2003 excavation season completed the exploration of the known stratigraphic sequence of the site. Furthermore, it uncovered a series of older levels beneath level IX of the sondage carried out by J.M. de Barandiarán. Moreover, an analysis of the materials found is enabling experts to identify a number of interesting features relating to the organisational strategies used by the later Neanderthal societies.

Axlor aztarnategia Bizkaiko Dima herrian dago, Indusi auzoan hain zuzen ere. Depositu arkeologikoa Urrustei mendiaren iparraldeko mazelan, Baltzola errekaren gainean, irekitzen den harpe edo leize batean dago, eta itxirik zegoen ia guztiz bertako arkeologia lanak hasi zirenean.

1967an ekiz zien J.M. Barandiaranek Axlorko indusketa lanei eta 1974ra arte luzatu ziren. Barandiaranen lanen ondorioz bederatzi maila estratigrafiko bereizi ziren, eta Muster Aldiko tresnak azaldu ziren haietako seitan. Landa-lanen memoria gisa argitaratu ziren lan haien emaitzak; estratigrafia eta berreskuraturiko material esanguratsuenen ezaugarriak deskribatu ziren memoria haietan. Aztertu ere egin ziren giza hondakinak (J.M. Basabe), fauna (J. Altuna) eta harrizko tresneria (A. Baldeon).

2000. urtean berriro ekin genien Axlorren indusketa lanei, Erdi Paleolitos Aroaren amaierari buruzko erreferentzia enpiriko berriak erdietsi nahian, deposituaren kronologia hobeto zehazteko eta historia eta inguru-

El yacimiento de Axlor se encuentra en el barrio de Indusi, en el municipio vizcaíno de Dima. El depósito arqueológico se encuentra en un abrigo o cueva, en su origen estaba casi completamente colmatado, que se abre en la ladera septentrional del monte Urrustei, sobre el arroyo de Balzola.

Las excavaciones en Axlor fueron iniciadas en 1967 por J.M. de Barandiarán y se prolongaron hasta 1974. Los trabajos de Barandiarán definieron nueve niveles estratigráficos de los cuales seis contienen industrias de tipo musteriense. Los resultados de estos trabajos fueron publicados en forma de memorias del trabajo de campo, donde se describen la estratigrafía y los materiales más significativos. También se produjeron estudios sobre los restos humanos (J.M. Basabe), la fauna (J. Altuna) y la industria lítica (A. Baldeón).

En 2000 retomamos la excavación de Axlor con el objetivo de obtener nuevos referentes empíricos sobre el final del paleolítico medio, para situar con mayor precisión la cronología del depósito y para aplicar nue-

mena berregiteko azterketa berriak aplikatu ahal izateko. Lehen bi urteetan 14 metro karratu inguruko azalera bat induskatu dugu 42000 b.p. inguruan kokatuko genituzkeen goiko mailetan. 2002. eta 2003. urteetan, J.M. Barandiaranek bideratuko zundaketen perimetroa induskatzen jardun dugu bereziki, aztarnategiaren estratigrafia zertan den berrikusteko. 4 metroko lodiera du dagoeneko aztertu dugun estratigrafiak.

Barandiaranek induskatu zuen deposituaren sekuentzia osoa zehaztu ahal izan dugu aurtengo kanpainan.

Gainazaleko mailak (A-D) xeheki deskribatu genituen joan den urteko *Arkeoikuska* urtekarian. Antzuak dira ia-ia A eta C mailak. B maila harro xamarra da; D mailak, ordea, 20 cm-ko lodiera du batez beste eta handia da aldi berean haren trinkotasun maila, faunahondakinen alorrean batez ere. Xehekiago zehaztu ahal izan dira 2003ko kanpaina honetan gainaldean ageri diren mailak.

E maila buztin horixkako pakete ia antzu bat dela frogatu dugu. D mailako hezur zerrendaren azpian ageri da, aztarnategian induskatu den eremu osoan.

F maila ageri da E mailaren azpian. Betegarri konplexu askotarikoa da, eta lau tarte bereizi ditugu hartan


vos análisis para la reconstrucción histórica y del medio ambiente. En los dos primeros años hemos excavado una superficie de unos 14 metros cuadrados correspondientes a los niveles superiores, situados en torno al 42.000 b.p. En 2002 y 2003 los trabajos de campo se han centrado en la excavación del perímetro de los sondeos de J.M. de Barandiarán para reconocer la estratigrafía del yacimiento. Ésta alcanza por el momento más de 4 metros de potencia.

En la campaña de este año se ha definido la secuencia completa de la parte del depósito excavado inicialmente por Barandiarán.

Los niveles superiores (A-D) ya han sido descritos con algo más de detalle en el *Arkeoikuska* del año pasado. El A y el C son niveles casi estériles. El nivel B es un nivel poco espeso mientras el D, con una potencia media en torno a 20 cm. es muy denso sobre todo en restos de fauna. La campaña 2003 ha permitido precisar con más detalle los niveles que se encuentran a muro.

El nivel E es de nuevo un paquete de arcillas amarillentas casi estéril situado bajo la brecha de huesos del nivel D en toda la extensión excavada del yacimiento.

Bajo el nivel E encontramos el nivel F. Este es un relleno complejo en el que hemos individualizado 4 tra-



M eta N behealdeko mailetan azaldu diren muturrak.

Puntas procedentes de los niveles inferiores M y N.

(F1-F4), aztarnategiko alde batzuetan. Oro har, ugari dira hartan kare-harriak, hainbat zentimetro eta dezimetro dituztenak. Deskonposizioan ageri dira batzuetan, buztin marroika lur bat azalduz. Tarte horietako batzuetan, neurri handiko hezurkiak ere ageri dira, hautsirik baina. Goialdeko (B eta D) eta behealdeko (M eta N) maila emankorretakoa baino urrixeagoa da honetan harrizko tresneria. F mailaren barruan, ugariago azaltzen dira hondakin arkeologikoak 1. eta 3. tarteetan.

F mailaren azpian ageri dira M eta N mailak, *Arkeoikuska* urtekarian argitaraturiko artikulu batzuetan gaurgero deskribatuak. Aski bedi artikulu horietan aipaturiko ezaugarriek (harrizko lehengaien izaera, Levallois tailaren garrantzia sukarrian eta lutita batzuetan, punta edo muturren ugaritasuna) beren horretan dirautela esanda. Bestalde, erruz azaldu dira berriro ere N mailan joan den urtean dokumentatu ziren errekuntza-zantzuak.

P maila tamaina handiko arrokek eta lur buztintsu horixkak eraturiko pakete handi antzu bat da. Maila hau Barandiaranen araberako IX. mailari dagokio, eta 1967. eta 1970. urteen bitartean induskatu zen lubakiaren oinarria eratzen du. 2003. kanpaina honetan, P maila mugatu ahal izan dugu lubakiaren perimetro osoan. Harpearen barrualdean, J16 laukian, oraingoz metro karratu erdia ere hartzen ez duen eremu batean, beste sedimentu-pakete bat dokumentatu ahal izan dugu P maila horren azpian. Geruza finak ageri ditu sedimentu-pakete honek, limoak eta legarrak aldizka. Harrizko tresna tailatuaren eta faunaren hondakinak azaldu dira limo-geruza horietako bitan. Halaz ere, hain dira kopuru horiek urriak, non ezin baita oraingoz inolako sailkapen zehatzik bideratu.

Goialdeko mailetako (A-D) harrizko tresneria aztertu dugu bereziki. Tailaturiko arroka gehienak sukarriak dira, material guztiaren %75 inguru da gai horretakoa; halaz ere, luzea da landuriko materialen zerrenda: lutita, kuartzita, arroka-kristala, bai eta kare-harria ere). Sukarri eta kuartzitazko euskarriak plano ebakitzailez ordenaturiko taila batez lortzen ziren, Quina moduko estrategiak bideratuz. Lutiten kasuan, ordea, taila unipolarrak ere nabari daitezke; aho erregular zorrotzeko euskarri luzexkak lortzen ziren horrenbestez. Sukarrian landuriko lasken erabilera maila oso handia da, hainbestekoa non laska guztiak berrukiturik eta birlandurik ageri direla esan baikenezake; Quina edo Quinaerdi ukituz hornituriko karrakailuak dira %60tik gora. Erabilera maila handia ageri dute, halaber, materiala zorrozteko laskak.

Ezaugarri hauek begi-bistakoak dira A-D mailetan eta halako homogenotasuna ageri dute horrenbestez maila horiek, batez ere behealdeko mailekin alderatzen baditugu. Hala eta guztiz ere, alde nabariak daude goialdeko maila horien artean: bestelakoak dira tailan bideraturiko teknikak, aukeraturiko euskarrien tamainak, lehengaiak hautatu eta kudeatzeko irizpideak, ukituriko lasken ekoizpena eta bereizkuntza, tresna bihurtzerakoan, eta abar…

mos (F1 a F4) en algunas zonas del yacimiento. En general cuenta con abundantes cantos calizos, de tamaños decimétricos y centimétricos, a veces descompuestos, en una matriz de arcillas marrones. En algunos de los tramos están presentes además restos óseos de gran tamaño, aunque fracturados. La industria lítica es algo más escasa que en los niveles fértiles superiores (B y D) o inferiores (M y N). Dentro de F, los restos arqueológicos son algo más abundante en los tramos 1.º y 3.º.

Bajo el nivel F se encuentran los niveles M y N, que también han sido descritos en los artículos previos de *Arkeoikuska*. Baste señalar que las características señaladas se mantienen (variedad de materias primas líticas, importancia de la talla Levallois en el sílex y en parte de las lutitas, abundancia relativa de puntas) y que las evidencias de combustión que se reconocían el año pasado en el nivel N continúan siendo muy abundantes.

El nivel P es un paquete masivo formado por rocas de gran tamaño y una matriz arcillosa amarillenta, completamente estéril. Este nivel equivale al nivel IX de los trabajos de Barandiarán y constituye el nivel de base la trinchera excavada entre 1967 y 1970. La campaña de 2003 ha permitido delimitar el nivel P en todo el perímetro de la trinchera. En la parte interior del abrigo, en el cuadro J16, por el momento en menos de medio metro cuadrado, ha podido apreciarse la existencia de un nuevo paquete sedimentario que parece situarse por debajo del nivel P. Este paquete sedimentario está compuesto por finos lechos de limos y gravas alternados. Dos de estos lechos de limos contienen restos de industria lítica tallada y fauna, en cantidades tan escasas que no permiten aún ningún tipo de clasificación precisa.

Los estudios más específicos se han centrado en la industria lítica de los niveles superiores (A-D). El aprovisionamiento de las rocas talladas se centra en el sílex, que supone en torno al 75% del material, aunque sigue habiendo un amplio repertorio de materiales aprovechados (lutita, cuarcita, cuarzo, cristal de roca, incluso caliza). Los soportes en sílex y en cuarcita se obtienen mediante una talla ordenada en planos secantes con estrategias de tipo Quina pero en las lutitas se observan también tallas unipolares destinadas a la obtención de soportes alargados con filos regulares y cortantes. El aprovechamiento de las lascas de sílex es muy intenso hasta el punto de que prácticamente todas están retocadas; más del 60% son raederas con retoque Quina o semiQuina. También se aprovechan profusamente las lascas de reavivado.

Estos rasgos se aprecian en los diferentes niveles A-D y les confieren una cierta homogeneidad, sobre todo si establecemos una comparación con los niveles inferiores. Sin embargo, también se aprecian diferencias sutiles entre los niveles superiores: en las técnicas de talla, en los tamaños de los soportes seleccionados, en los criterios de selección y gestión de las materias primas, en la producción y selección de las lascas de retoque transformadas en útiles, etc.

Maila hauetan hauteman daitezkeen jokamoldeen arteko desberdintasunek argiro erakusten digute populazio neandertaldarrek hainbat eta hainbat estrategia bideratu zituztela tresneria ekoitzi eta kudeatzerakoan, unean uneko baldintza eta beharretara egokituz.

Estas diferencias en los comportamientos observados en los distintos niveles muestran estrategias de producción y gestión del utillaje variadas entre las poblaciones neandertales, adaptadas a condiciones o necesidades diferentes.

Jesús González Urquijo; Juan José Ibáñez Estévez; Joseba Ríos Garaizar

B.2.1.3. **Foruko finkamendu erromatarra (Forua)**

XX. kanpaina
Zuzendaritza: Ana Martinez Salcedo
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.2.1.3. **Poblado romano de Forua (Forua)**

XX Campaña
Dirección: Ana Martínez Salcedo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Work focused on the excavation of structure 7, located in sector III of the site. Thanks to the results of this process, experts have been able to confirm the presence of a second building, constructed sometime after the original building. This new construction, called structure 8, was built at least partly overlapping one of the rooms in the original building. The delimitation of this structure, as well as the study of a number of other aspects relating to its nature, function and period of activity, will be the focus of future seasons.

7. egituraren indusketa

Joan den urtean bideratu genituen indusketa-lanei esker, eraikin handi bat, 580 metro koadro ingurukoa, identifikatu ahal izan genuen. Hamabi esparru bereizi ziren hartan. Gure ustez, behin-behinekotzat jo behar da esparru kopuru hori, indusketa-lanek gutxi barru eskain liezazkiguketen emaitzen zain gaudela. Aurtengo kanpainari dagokionez, jakin bedi 1., 3., 5., 7., 8., 11. eta 12. esparruak landu ditugula bereziki.

1. eta 3. esparruak

2. esparruarekin batera, eraikinaren iparraldeko hegala osatzen dute esparru hauek. Hogei metro karratu inguru ditu 1. esparruak; zundatu egin zen aurreko kanpainetan eta egituraren aurriek eraturiko estratuak haren barruan itxuraturiko paketeak batez beste 0,90 metroko lodiera duela frogatu zen. Eta hain zuzen ere, elementu horiek —48 U.E.— osatzen duten unitate estratigrafikoa erauztea eta erretiratzea izan zen esparru honetan bideratu genuen indusketa-lanaren helburua. Segida emango zaio hurrengo kanpainetan esparru honen gaineko ikerketa lanari.

3. esparruak oraingoz zehazki muga ez daitekeen eremua hartzen du, induskatzen ari garen egituraren atal handiena aurkitzen den etxaldetik kanpoko lurretan zabaltzen baita. 1. esparruan gertatu zen bezala, eraikina abandonatu eta suntsitu ondoan pilatu ziren aurriek eraturiko unitate estratigrafikoa —50. U.E.— erauztea eta erretiratzea izan zen indusketa-lanen helburu nagusia.

La excavación de la estructura 7

Los trabajos de excavación ejecutados el año anterior permitieron reconocer un gran edificio de aproximadamente 580 metros cuadrados, donde se diferenciaron un total de doce ambientes. Pensamos que este número de espacios debe considerarse provisional a la espera de los resultados que el proceso de excavación pudiera deparar en un futuro próximo. Por lo que se refiere a la presente campaña las labores se han centrado en los ambientes 1, 3, 5, 7, 8, 11 y 12.

Ambientes 1 y 3

Estas habitaciones junto con el ambiente 2, constituyen el flanco septentrional del inmueble. El ambiente 1, de aproximadamente veinte metros cuadrados, fue sondeado en anteriores campañas pudiendo comprobar que el estrato formado por los derrumbes de la estructura, contenido en su interior, alcanzaba una potencia media de 0,90 metros. El trabajo de excavación en este recinto se centró en la eliminación de la unidad estratigráfica que constituían dichos elementos —U.E. 48—. El estudio de este espacio continuará en futuras campañas.

En cuanto al ambiente 3 se trata de un espacio cuya delimitación no es posible por el momento, debido a prolongarse su superficie hacia otra propiedad distinta a la que se encuentra la mayor parte de la estructura en proceso de excavación. Al igual que en el ambiente 1 la labor de excavación se centró en la extracción de la unidad estratigráfica —U.E. 50— que constituye los derrumbes caídos tras el abandono y destrucción del edificio.

5., 7., 11. eta 12. esparruak

Aurrekoetan bezala, barrualdean zeuden aurrien erauzte eta erretiratze lanei ere ekin genien esparru hauetan. Gune batzuetan, hare-harrizko lauzaz itxuraturiko estratuak bereizi ahal izan dira; itxura guztien arabera, badirudi gelen zoladuraren arrastoak izan litezkeela, baina hurrengo kanpainetan baizik ez dugu hori baieztu ahal izango.

8. esparrua

Urtekari honetan argitara eman genuen aurreko artikuluan adierazi bezala, abandonatu eta gero, aldaketak pairatu zituen 7. egiturak, giza jarduerak ez baitzuen gune hartan halako etenik izan. Beste hainbestekoa sumatzen eta ikusten genuen 6. esparruaren kasuan. Begi-bistakoa zen eraikuntza-elementu batzuk ebatsi egin zituztela, eta gureetatik hurbilxko diren garaietara arte zaborra bota egin zela inguru haietan.

Eraikina utzi ondoren orubea okupatu zen moduari dagokionez, beste eraikin baten presentzia atzeman genuen. 7. egituran ebatsitako hormen gainean egokitu zen alde batean. Orain arte azaldu zaizkigun elementuen artean daude bi horma-atal, lehen eraikinaren 8. esparruaren barruan egokitu zen barrunbe bat egituratuko zutenak. «8. egitura» izenaz bataiatu dugun obra berri honen eraikuntza moldeak ez du orain arte aztertu dugun multzoarenaren aldean halako bereizgarririk ageri. Hala eta guztiz ere, horma-atal horiekin loturik, barrunbe horrekin zuzenean loturik, eraikuntza-zeramikaren hainbat hondakin —estalkian egongo zi-

Ambientes 5, 7, 11 y 12

En el interior de estos recintos se procedió igualmente a la extracción de los elementos derrumbados contenidos en su interior. En algunos de los casos, es posible diferenciar estratos formados por lajas de arenisca que, potencialmente, pudieran formar parte de los pavimentos de las habitaciones, circunstancia ésta aún por confirmar en futuras campañas.

Ambiente 8

Como indicábamos en nuestra anterior reseña en esta revista, la estructura 7 sufrirá, una vez abandonada, una serie de alteraciones como consecuencia de la continua actividad humana en este lugar, circunstancia que también veíamos producirse en relación con la estructura 6. Era visible la acción del robo de algunos elementos constructivos, así como la del vertido de escombros en el entorno hasta fechas relativamente recientes.

En relación con el proceso de ocupación del terreno tras la amortización del edificio pudo detectarse la presencia de una nueva construcción, instalada en parte sobre los muros robados de la estructura 7. Entre los elementos detectados hasta el momento se encuentran dos tramos de muro que configuran parte de un recinto, instalado en lo que fue el interior del ambiente 8 del primer edificio. El procedimiento con el que fue erigida esta nueva fábrica que hemos convenido en llamar «estructura 8», no ofrece diferencias significativas con el conjunto analizado hasta ahora; sin embargo asociados a estos lienzos fueron documen-



8. egitura, hegoaldetik.

Estructura 8. Vista desde el Sur.

ren teila arabiarrak— dokumentatu ziren, eta beraz, oraingo honetan, erromatarren aro baino hurbilago dagoen garai baten aurrean geundekeela pentsarazten digu honek guztiak. Hurrengo kanpainan argitu eta zehaztu nahiko genituzke egitura honen mugak, izaera eta kronologia.

tados, en relación directa con este habitáculo, diversos restos de cerámica de construcción —tejas árabes procedentes de su cubierta— que podrían hacer pensar en una datación alejada del período romano. Está previsto que durante la próxima campaña puedan quedar definidos aquellos aspectos relativos a sus límites, naturaleza y cronología.

Ana Martínez Salcedo

B.2.1.4. **Antoliñako Koba (Gautegiz Arteaga)**

VII. Indusketa kanpaina
Zuzendaritza: Mikel Aguirre Ruiz de Gopegui
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru Aldundia

B.2.1.4. **Antoliñako koba (Gautegiz Arteaga)**

VII Campaña
Dirección: Mikel Aguirre Ruiz de Gopegui
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia

The 7th excavation season in Antoliñako Koba focused on documenting the occupation level pertaining to the Gravettian era located in the entrance area and the start of the northern gallery. These levels correspond to the Lab and Lmbk stratigraphic structures in the southern strip, which become more sandy towards the inside of the cave (Sap and Smbk). The lower level has been dated to 27,390 ± 320 bp. A number of stone items have been recovered, characterised by the abundance of Noailles burins.

Bederatzi metro karratuko eremu batean, A,B, C eta 3, 5, 7 banden arteko eremuan hain zuzen ere, bideratu dira lanak, aurreko kanpainetan landu ziren bi aldeetan, ezkaratzean eta iparraldeko galeriaren sarrerako gunean. Gravette aldiko *Lab* eta *Lmbk* okupaziomailak landu dira. Dokumentatu diren beste eremu batzuetan gertatu zen bezala, beheko mailan, *Lmbk* delakoan, kopuru eta trinkotasun maila handiagoan ageri dira materialak, C bandan bereziki. Argiro frogatu ahal izan dugu, bestalde, lauki banda honetako sedi-

Los trabajos se han desarrollado en un área de nueve metros cuadrados correspondientes a las bandas A, B, C, y 3,5,7, en la superficie del vestíbulo e inicio de la galería norte, abiertos en campañas precedentes. Han afectado a los niveles de ocupación gravetienses *Lab* y *Lmbk*. Al igual que en otras áreas ya documentadas el nivel inferior, *Lmbk,* muestra una densidad de materiales mayor, especialmente en la banda C. También se constata claramente el carácter más arenoso de los sedimentos en esta misma banda



Antoliñako koba. Lmbk-Smbk maila, 14. taila erdian.

Antoliñako koba. Nivel Lmbk-Smbk en la semitalla 14.

mentuak (*Sab* eta *Smbk*) hondartsuagoak direla. Oso ugari dira blokeak bi maila horietan. Koba edo leizearen hondoko sedimentuen bestelako izaera hau harrizko zoruaren sakonera basal handiagoaren eragina izango litzatzeke.

Lau taila erdi induskatu dira guztira, eta material arkeologiko gehiago azaldu da behealdeko bietan. Beltzagoak dira, halaber, maila horietako hondarrak eta limoak. Harrizko tresneriari dagokionez, bereziki azpimarratzekoa da Noailles zizelen ugaritasuna. Aipagarria da, bestalde, *Smbk* mailan *azagaia* edo azkon txiki bat azaldu dela, hiru zatitan.

de cuadros (*Sab* y S*mbk)*. En ambos niveles los bloques son muy abundantes. Esta variación de los caracteres sedimentarios hacia el fondo de la cavidad parece coincidir con una mayor profundidad basal de su suelo rocoso.

Se han excavado un total de cuatro semitallas, observándose una densidad mayor de material arqueológico en las dos inferiores, coincidiendo con un mayor oscurecimiento de arenas y limos. El material lítico se significa sin duda por la abundancia de buriles de Noailles. Es de destacar la recuperación en *Smbk* de una gran azagaya en tres fragmentos.

Mikel Aguirre Ruiz de Gopegui



Antoliñako koba. Smbk mailako azagaia edo azkon txikia. Gravette aldia.

Antoliñako koba. Azagaya del nivel Smbk. Gravetiense.

B.2.1.5. **Ventalaperra Leizea (Karrantzako Harana)**

III. Kanpaina
Zuzendaritza: Rosa Ruiz Idarraga eta Francesco d'Errico
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.2.1.5. **Cueva de Ventalaperra (Valle de Carranza)**

III Campaña
Dirección: Rosa Ruiz Idarraga y Francesco d'Errico
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia

This season's work had a twofold objective: to continue with the excavation of the grids surrounding the sondage carried out by José Miguel de Barandiarán in 1931 and to determine whether or not there is fertile sediment underneath. We have obtained samples from this area for both palinologic and anthracologic analyses, as well as material that can be used for specific dating processes, etc.

III. kanpaina honetan segida eman diegu Jose Miel Barandiaranek 1931. urtean induskatu zuen eremuaren ondoko laukien indusketa-lanei. Azterketa palinologiko eta antrakologikoetarako laginak, eta data absolutuak eskainiko lizkiguketen materialak jaso ditugu eremu hauetan.

Horrez gainera, aztarnategia On Joxe Mielek 1931. urtean induskaturiko mailatik harantz zabaltzen den ala ez zehaztu ahal izan dugu.

Metaturiko paketearen behealdea —material paleontologiko eta arkeologiko ugari ageri da hartan— zundaketa zaharrean landu zen eremuaren hondoari

Durante esta III campaña continuamos la excavación en los cuadros adyacentes a la excavación practicada por D. José Miguel de Barandiarán en 1931. De estas zonas hemos obtenido muestras para los análisis palinológicos, antracológicos, materiales para ensayar fechaciones absolutas, etc.

Además conseguimos determinar si el yacimiento continuaba por debajo del nivel alcanzado por la excavación practicada por D. José Miguel en 1931.

La zona inferior del paquete concrecionado, en el que se encuentra abundante material paleontológico y arqueológico, coincide con el fondo del sondeo anti-



Estalagmita geruzan bideraturiko kata, 1931n induskaturiko eremuaren hondoan.

Cata practicada sobre la costra estalagmítica en el fondo de la excavación de 1931.

dagokio. Zundaketa-eremu horren eta ondoan induskatu diren bi laukien bukaeran hasten da aztarnategia estaltzen duen estalagmita-geruza. Halaxe gertatzen da, behinik behin, ikertu ahal izan ditugun alde guztietan.

Geruza honetan 1 × 0,50 m-ko neurrietan bideratu genuen kata bati esker ikusi ahal izan genuen geruza horren lodiera 20 bat cm-koa dela eta haren azpian, 50 cm-ko sakonera iritsi arte, buztin horixka erabat antzuz eraturiko maila bat zabaltzen dela, Hormen makurdurari erreparatu ondoan, argi eta garbi esan dezakegu betegarri arkeologikoaren bukaera zehazten duela estalagmita geruza honek. Hala uste dugu behintzat.

Topo egin dugun estratigrafiaren lehen jomuga izan dugu leizearen bi okupazioaldi argiro bereizten dituen estalagmita geruza. Geruza honen goialdea Goi Paleolitos Aroan egoki bagenezake ere, ez dugu oraingoz datu aski zein aldiri dagokion zehazteko. Behealdea, berriz, Muster aldiari legokioke, baina ez gaude oraindik data zehatzik emateko moduan.

Geruza batzuek eteten dute leizearen okupazioaldi hau. Garai laburragoak dira ordea, eta ez horren orokorrak.

Aurreneko estalagmita geruza honen azpian zabaltzen da material arkeologiko eta paleontologiko gehien eskaintzen duen maila, han eta hemen egokitu diren estalagmita xaflekin batean metatu eta galkatu den lur betegarri batean.

Maila horren azpian ageri da bigarren geruza, oso zabala, betegarri arkeologikoaren behealdea mugatzen duena.

Sedimentuen gaineko azterketa osoago baten beharra dagoen honetan, argiro adierazi digu zoruen eraketan aditua dugun espezialistak geruza horien araztasunak eta lodierak leizea aldi luzetan abandonaturik egon zela adierazten dutela, eta bitarte haietan urpean istildurik egon zela ezkaratz ia guztia.

guo. Tanto al final de dicho sondeo como en el de los dos cuadros prácticamente excavados se inicia una costra estalagmítica que recubre, hasta lo que podemos observar, el yacimiento.

Una cata realizada sobre esta costra, de 1 × 0,50 m., mostró que el grosor de ésta era de aproximadamente 20 cm. y que por debajo, hasta una profundidad de 50 cm., aparecía un nivel de arcillas amarillentas y totalmente estériles. Creemos que, por la inclinación que presentan las paredes, esta costra estalagmítica marca el final del relleno arqueológico.

La estratigrafía que encontramos comienza con una primera costra estalámítica que separa claramente dos momentos de ocupación de la cueva. El nivel superior a esta costra, podemos encuadrarlo en alguna fase, aún no definida del Paleolítico superior y el nivel inferior, puede ser adscrito a un Musteriense del que de momento no podemos proporcionar una fechación segura.

Este período de ocupación de la cueva también se vería interrumpido por costras, aunque se trata de episodios más breves y menos generalizados.

Por debajo de esta primera costra estalagmítica, se encuentra el nivel en donde aparece el grueso del material arqueológico y paleontológico, en un relleno de tierra concrecionado con algunas placas estalagmíticas localizadas.

Por debajo de este nivel asoma la segunda costra, de gran amplitud, que delimita la zona inferior del relleno arqueológico.

A falta aún de un estudio sedimentológico completo, el especialista en formación de suelos indica que la pureza y grosor de estas costras sugieren que se dieron períodos de abandono de la cueva, en los que tuvo lugar un encharcamiento de la casi totalidad el vestíbulo.

Rosa Ruiz Idarraga; Francesco d'Errico

B.2.2. *MIAKETAK*

B.2.2.1. **Mendiolak Alen mendialdean (Artzentales, Sopuerta, Trucíos-Turtzioz)**

I. Kanpaina
Zuzendaritza: Fco. Javier Franco Perez
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru Aldundia

B.2.2. *PROSPECCIONES*

B.2.2.1. **Ferrerías de monte en el macizo de Alén (Artzentales, Sopuerta, Trucíos-Turtzioz)**

I Campaña
Dirección: Fco. Javier Franco Pérez
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia

The paper describes the prospecting season focusing on the mountain forges (also known as haizeolak*) dating from Roman and medieval times in the massif of Mount Alén, located in the central and northern parts of the Encartaciones area in Bizkaia.*
This prospecting season constitutes the first step in the creation of an archaeological map of the mountain forges in the historic territory of Bizkaia. As a result, we hope to widen our knowledge of the palaeometallurgy of iron in our territory, through an analysis of the characteristics of these sites, their state of conservation, location, perspectives and interrelations.

Kanpainaren helburuak

Bikoitza izan da laginen bidezko lehen kanpaina honen hasierako helburua: lehenik, erromatarren garaiko eta Erdi Aroko metalgintza-aztarnategi arkeologikoak aurkitu eta mugatu nahi genituen Alen mendialdean (Artzentales, Sopuerta/Garape eta Turtzioz udalerrietako lurretan), haien oinarrizko babesa eta, etorkizunean, indusketa bideratu ahal izateko. Bigarrenik, ahalik eta datu gehien lortu nahi genituen, Bizkaiko lurralde historikoko mendiola edo haizeolen karta arkeologikoa itxuratuko duten mapak, aztarnategien banaketa ongi zehazturik, egiteko.

Gure xedea ere bazen molde honetako aztarnategiak gure lurraldean egokitzerakoan jarraitu ziren ereduak aztertzea eta azterketa horretarako datuak erraztea, haien ezaugarri komunak eta haien arteko desberdintasunak, horrelakorik balego, zertan diren zehazteko. Bide batez, esan gabe doa, burdin mea eraldatzeko gune hauek berez zuten garrantzia ere agerrarazi nahi izan dugu, hala kopuruari nola izaerari dagokienez, duten balio arkeologikoa azpimarratzearren.

Lanaren metodologia

Lanaren abiapuntu gisa, eskualdeko arkeologia, historia eta kartografia dokumentazioa aztertu eta ikuskatu genuen. Landa-lan batzuk bideratu genituen ondoren (miaketa-lanak eta datuen bilketa, ahozko dokumentazioaren bitartez), eta segida eman genien, halaber, ohiko lanei: arkeologia lanei (laginen hartzea, zalantzazkoak diren zepadien kokalekua guztiz berresteko) eta UTM koordenatuak zehazteari, GPSaren bitartez. Azkenik, lanaldi guztietan bilduriko datuak aztertu eta berrikusi ditugu.

Objetivos de la Campaña

El objetivo inicial de esta primera campaña de prospección con cata es doble: en primer lugar se trata de localizar y delimitar yacimientos arqueometalúrgicos de época romana y medieval en el macizo montañoso de Alén (parte de los municipios encartados de Sopuerta, Artzentales y Trucíos-Turtzioz) que permitan su inicial preservación y su futura excavación. En segundo lugar se pretende la obtención del mayor número posible de datos, para la realización de mapas de distribución de yacimientos o de futuras cartas arqueológicas de las ferrerías de monte de todo el territorio histórico de Bizkaia.

Dentro de nuestros objetivos, también contamos con facilitar una aproximación al análisis futuro de las pautas de asentamiento de este tipo de yacimientos en nuestro territorio, sus características comunes y sus discrepancias si las hubiera; además de manifestar *per se* la importancia cuantitativa y cualitativa de estas zonas de transformación del mineral de hierro y el valor arqueológico de las mismas.

Metodología de trabajo

El punto de partida del trabajo consistió en la revisión de la documentación arqueológica, historiográfica, y cartográfica de la zona; posteriormente se han realizado los trabajos de campo (prospección y recogida de datos de documentación oral), y continuamos con los trabajos arqueológicos (catas destinadas a la confirmación de escoriales de ubicación dudosa) y toma de coordenadas UTM mediante G.P.S. Finalmente se ha procedido al estudio y revisión de los datos recogidos en las diferentes fases.

Lurraldea hainbat mendialdetan banatzeko irizpide geografikoari jarraiki bideratu genuen miaketa lana. Alen mendialdeak 52 kilometro karratuko eremua hartzen du eta bost mendi-kordatan banatu genuen lanari ekiterakoan, zundaketak erdi komunetik kanpoalderantz bideratuz.

Nolanahi ere, mendialde honen barruan nabariak dira aldeak eta bestelakotasunak eremu batzuetatik beste batzuetara, eta gogoan eduki beharra dago inolaz ere bereizgarri hori aldez aurreko kalkuluak egiterakoan. Bestelakotasun horiek eragiten dituzten faktoreak aztertu eta gero, landa-lanak onik gauzatzeko aztertu beharreko eremu guztietan gutxienez bi lan-molde komun bideratu beharko genituela deliberatu genuen. Halatan, landa-lanetarako egunen %20tan *miaketa estentsiboan* ahalegindu ginen, eta *miaketa intentsiboari* eskaini genion gainerako denbora. Lan-molde hori da, dudarik gabe, neketsuena, eta horrexegatik eskaini dizkiogu Alen mendialdean miaketa globalerako genituen egunen %80.

Lanen bilakaeran berebiziko garrantzia eduki duen planteamendua izan da, inolaz ere, mendi eta haran hauetako biztanleekiko harreman etengabea. Gaitzeko informazio-iturri gertatu zaigu harreman hori, aztarnategi batzuen kokaleku zehazterakoan. Harreman honi esker, zuzenean ezagutu ahal izan ditugu burdinarekin loturiko kultura oso baten gaineko azken testigantzak eta, aldi berean, argi geratu da estua zela inguru honetako biztanleek industriaren aurreko metalgintzaren aztarnekin duten hurbiltasun eta bizikidetza maila.

Emaitzak

Lan honen aldez aurreko aldiko emaitzek beren isla ikusi duten «Haizeola katalogoa» izena eman diogun datu-basean, hartara bildu baititugu mendiolen fitxa areologikoak. Haizeola katalogoaren alorrak zehazterakoan, Eusko Jaurlaritzaren Historia Ondarerako Zerbitzuak erabiltzen dituenak hartu ditugu oinarri gisa, ahalik eta fitxa uniformeagoak sortzeko eta sistematizazio maila ahalik eta homogeneoena gertatzeko, gogoan eduki baititugu betiere emaitza globalagoak eskainiko dizkiguten lan zabalagoak.

Aurkikuntzen katalogoa zehaztuz joan den arau, egiaztatu egin ahal izan dugu 1983an Gorrotxategik eta Yarrituk Alen mendialdeko mendiolen alorrean egin zuten lana. Egungo katalogoan nabarmen emendatu da aztarnategi ezagunen kopurua, ordukoen aldean. Lehen kanpaina honetan bideratu dugun miaketa lanari esker, 37 aztarnategi zehaztu ditugu, hau da, 1983an baino %73 gehiago. Hauekin batean, Kolitza ibaiaren ezkerraldean aurkitu ditugun beste bi zepadi hartu behar dira kontuan; ez ditugu, ordea, katalogoan mendiolatzat hartu, handiak baitira zalantza haien jatorriari buruz ditugun zalantzak, ageri dituzten kokalekua eta ezaugarriak oso bereziak izaki.

La labor prospectiva se ha desarrollado siguiendo el criterio geográfico inicial de unidades de macizo de montaña. El macizo del Alén cuenta con una superficie de 52 kilómetros cuadrados, y se ha dividido operativamente en cinco cordales que han sido prospectados desde el centro común hacia la periferia.

Con todo, dentro del entorno de este macizo de montaña existen variaciones en las condiciones de unas zonas a otras, con lo cual habrá que contar a la hora de hacer los cálculos previos. Una vez analizados los factores que inciden en las diferencias zonales, concluimos que el óptimo desarrollo de los trabajos de campo había de pasar por la combinación de dos elementos que abarcasen la totalidad del territorio a analizar. Por ello, dedicamos aproximadamente un 20% de las jornadas de trabajo de campo a realizar una *prospección extensiva.* El otro elemento utilizado fue la *prospección intensiva*, sin duda el más trabajoso y al que hemos dedicado los esfuerzos del 80% del trabajo de prospección global del macizo del Alén.

Un planteamiento que se ha revelado fundamental en el desarrollo de los trabajos, ha sido el continuo contacto con los vecinos de estos montes y valles. Han sido una fuente importante de información sobre el terreno a la hora de localizar ciertos yacimientos. Esta labor nos permite conocer de primera mano los últimos testimonios de lo que fue toda una cultura de contacto con el hierro y, al mismo tiempo, nos aportan datos que denotan el grado de proximidad y de cohabitación con estos vestigios preindustriales que ofrecía el entorno.

Resultados

Los resultados de la fase anterior de este trabajo se han visto reflejados en la creación de una serie de fichas arqueológicas de ferrerías de monte utilizando una base de datos denominada «Catálogo Haizeola», cuyos campos han sido obtenidos y adaptados de aquellos que utilizan en el Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno Vasco con el propósito de dotarnos de la mayor uniformidad y sistematización posible de cara a trabajos más amplios de los que poder extraer resultados más globales.

El catálogo de hallazgos recoge la verificación del anterior trabajo de prospección en la zona de Alén que en 1983 llevaron a cabo Gorrotxategi y Yarritu, en lo que a ferrerías de monte se refiere. El actual catálogo aumenta notablemente el número de los yacimientos conocidos desde aquel momento. La labor de prospección en esta primera campaña ha posibilitado la localización de un total de 37 yacimientos, superando la cifra de 1983 en un 76%. A estos habría que sumar otros dos escoriales en la margen izquierda del río Kolitza, que no han sido incluidos en el catálogo de hallazgos como ferrerías de monte puesto que por su ubicación y especiales características mantenemos serias dudas sobre su origen.

Kokalekua zehazteko faktoreak

Miaketa lanari ekiterakoan, gogoan eduki ditugu bereziki uraren indarra erabili aurretik burdingintzan bideratu ziren lantegi hauek bilatzerakoan aintzat hartu beharreko bi faktore nagusiak, denek aipatuak eta onartuak: burdin mea eta ikazkintzarako egurketa. Alabaina, ikerketa-lan hauetako eskarmentuak ezusteko handi bat utzi digu agerian, uraren erabilerari dagokion arloan. Izan ere, beste faktoreekin batean kontuan hartu izan zen arren, ez zitzaion meari edo egurrari besteko garrantzirik eman. Halako moduan non, aurkituriko gune guztiak erreka edo iturriren batetik hurbil, 100 metrotara ere ez (bi aztarnategietan dago iturria tarte handiagoan, 200 metrotik baino hurbilago nolanahi ere), daudela ikusirik, aurrez emaitza eskasak emaniko eremu batzuetan miaketa lanei berriro ekiteko aukera aztertu baitugu. Beraz, arreta handiagoz landu ditugu aurrerantzean mendi-errekastoen inguruak, eta emaitza onak lortu ditugu miaketa horietako batzuetan.

Bestalde, aztarnategien altimetria eta haren araberako banaketa aztertu ondoan, haien %67 erdi mendiko eremuetan (300 eta 500 m bitartean) daudela fro-

Factores de localización

Desde los primeros momentos de la prospección se ha prestado especial interés a los dos pilares comúnmente aceptados como básicos a la hora de localizar estos talleres de producción del hierro prehidráulico: el mineral de hierro y el aprovisionamiento de la madera para el carbón. Pero la experiencia que nos ha aportado el curso de la investigación, nos deparó una sorpresa en torno al uso del agua, dado que esta variable aunque se haya incluido con las anteriores no se le ha dado la misma importancia que al mineral y la madera. De tal modo que, ante la constatación de que todos los hallazgos tienen algún pequeño curso de agua o surgencia a menos de 100 m. de distancia (excepto dos yacimientos con manantial a menos de 200 m.), se ha replanteado la prospección en alguna zona en la que se habían obtenido escasos resultados con anterioridad, reincidiendo ahora en las proximidades de los arroyos de montaña y obteniendo buenos resultados en varios casos.

Por otra parte, una vez analizada la distribución altimétrica de los yacimientos, se desprende que más de un 67% del total se encuentran ubicadas en zonas



Sobrepeña mendiko olaren iparraldearen ikuspegia (Artzentales). Burdin mea ateratzen zen harrobia adierazten du gezi gorriak. Zepadi handiaren behealdeko muga zehazten du marra urdinak.

Vista desde el norte de la ferrería de monte de Sobrepeña (Artzentales). La flecha roja indica la cantera de extracción de mineral de hierro. La línea azul muestra el límite inferior del escorial de grandes dimensiones.

gatu dugu. Ez dakigu zer dela-eta egokitu ziren lantegi gehienak mazela erdian, inguru honetako burdin mea failen luzeran hariztatzen baita nagusiki, mendialde osoan zehar gora eta behera zabalduz. Halaxe gertatzen da Alenen: N35W norabidean luzatzen da faila.

Egurra, kokalekua zehazteko faktorea den aldetik, ugari izango zen inguru guztian aztertu nahi ditugun historia garaietan. Bestalde, mazela-haizeek *haizeole*tako labeei modu naturalean eragiteko zuketen garrantzia, kokalekurako faktore gisa, ez da inguru honetan kontuan hartzekoa; izan ere, aintzat har zitezkeen norabide guztietan azaldu dira aztarnategiak, eta haize nagusiak mendebaldekoak diren bezala, kontuan hartzekoak dira, era berean, hegoaldeko haizeak. Bestalde, mazela hondoetan azaldu dira aztarnategi batzuk, eta gune horietan ez zuketen inongo goranzko haizeren indarrik baliatu ahal izango.

Hona hemen ikuskatze sistematikoak aurkituriko aztarnategi guztietan oraingoz eskaini dizkigun datu edo adierazgarri komunak: lehenik, labeak mazeletan eginiko zabalgune txikietan egokitzen ziren, maldak berak labeetako zepen hustuketa erraz zezan, eta, bigarrenik, errekak edo iturriak ageri dira inguruetan hurbil xamar, mearen prestakuntza eta burdinaren lantze lanak errazteko.

Balorazioa eta ondorioak

Lehenik, landa-lana goitik beherako asmazioa izan da, zehazturiko aztarnategien katalogoak argiro erakusten digun bezala. Izan ere, bestela identifikatzen oso zailak izango ziren zepadi batzuk zehaztu ahal izan ditugu metodologiari esker.

Bigarrenik, eraginkorra da egiaz miaketa estentsiboa eta intentsiboa eremu jakin batean eta batera bideratzea, gure esperientziak erakutsi duen bezala. Ikertu beharreko eremu guztia lantzeaz gainera, sistematizatu ere egiten da iker beharreko eremu hori.

Ageri-agerikoa da zundaketa eta indusketen premia, aztarnategietan eta balio arkeologiko handiena salatu duten guneetan, ikerketa sakona bideratuko bada. Hona hemen gune horiek zein diren:

— Sobrepeñako lantegialdea, Artzentalesen. Garrantzi berezia hartzen du alde honetan burdin mearen erauzte eta lantze prozesuari buruz egingo den ikerketak, inguru honetan ugari baitira, eta egoera on xamarrean daudenak gainera, mendiola aztarnak.
— Lalen larreko mendiola, Alen mendiko gainetik hurbil. Zepa-tumulua txiki xamarra da eta, beraz, badirudi burdina lantzeko labe bakarra egokitu zela gune hartan. Horrenbestez, beste labeen interferentzia estratigrafikorik gabeko indusketa burura genezake gune honetan. Gainera, bakarra zenez, ez du aldatu izanaren zantzurik ageri.
— Kolitza I zepadiaren inguruko lantegialdeak bere jakin-mina piztu du indusketa-lanei begira, alde de media montaña (entre 300 y 500 m.). se desconocen los factores que propiciaron la masiva implantación de talleres a media ladera, puesto que la veta de mineral de hierro en esta zona discurre por lo general a lo largo de fallas, como la de Alén de dirección N35W, que ascienden por la práctica totalidad del monte.

La madera, en cuanto factor de localización, se presupone abundante en toda la zona para la época histórica del estudio. Por otra parte la importancia de aires dominantes o corrientes de aire de ladera para avivar los hornos de las *haizeolak* de modo natural como factor de ubicación no se sostiene en este ámbito. Puesto que existen yacimientos en todas las direcciones posibles en una zona de vientos dominantes del W y con fuerte presencia local de vientos meridionales, mientras que otros están en pies de ladera donde no podrían aprovechar corriente ascendente alguna.

Los únicos indicadores que la observación sistemática hoy en día hace coincidir en todos los hallazgos realizados, serían: la ubicación de la zona de hornos en pequeños rellanos de las laderas para que la propia pendiente facilitase el vaciado de las escorias desde los hornos, y la presencia más o menos regular en las cercanías de cursos de agua para facilitar la preparación del mineral y el laboreo del hierro.

Valoración y Conclusiones

En primer lugar señalar el acierto del planteamiento del trabajo de campo, como así lo demuestra el catálogo de yacimientos localizados; de hecho la metodología ha permitido el hallazgo de algunos escoriales que, en otras circunstancias, serían difíciles de identificar.

En segundo lugar se demuestra la eficacia de la combinación de la prospección extensiva y de la intensiva de áreas concretas, lo cual aporta una cobertura total a la vez que una sistematización del terreno de estudio.

Queda en evidencia la necesidad de realizar sondeos y excavaciones que permitan un estudio en profundidad de los yacimientos y lugares que se han revelado con mayor potencial arqueológico. Estos son:

— La zona productiva de Sobrepeña en Arcentales, donde es relevante el seguimiento que se puede hacer del proceso de extracción y transformación del mineral de hierro en un área con numerosos restos de ferrerías de monte en relativo buen estado de conservación.
— La ferrería de monte de Campa Lalén, situada en las proximidades de la cumbre del Alén. El túmulo de escorias es de reducido tamaño por lo que parece pertenecer a un solo horno de transformación del hierro, lo cual nos permitiría una excavación sin interferencias estratigráficas de otros hornos. Además debido a su aislamiento no presenta signos de haber sido alterado.
— La zona productiva en torno al escorial de Kolitza I posee interés para una excavación poten-

batean kargaturik ageri den zepa-tumulu handi baten hondakinak azaldu direlako. Eraikin txiki baten hondakinak ageri dira tumuluaren alboan, bai eta handik hurbil emanean ziren urtegi eta antepara baten hondakinak ere. Eremu honen gaineko ikerketa sakonago batek argi egin liguke zepa horien jatorriari buruz dauzkagun zalantzen gainean: teknologia hidraulikoari dagokio (hurbil dago erreka mardul batetik, halako jatorria salatuko ligukete inguruan suma daitezkeen teknologia-aztarna batzuek eta goratasun-kota apalean dago) edo teknologia hidraulikoen aurrekoa da (hala salatzen digute zepen tipologiak eta eraikin-hondakin kopuru urriak). Izan ere, bitarteko teknologia baten aurrean ere egon gintezke, eta interesgarriagoa izango litzateke hori: ekoizpen faktore nagusia izango zen ura, baina ez zen oraino teknologia hidrauliko zehatzik garatuko.

Berealdiko garrantzia izan du ahoz jaso dugun dokumentazioak, «burdinaren kultura» bizi izan duen azken testigantzak jaso ditugu baina, zorigaitzez, berekin batean galduko da hori ere. Halatan, are eta garrantzitsuagoak dira Bizkaiko burdinaren memoria historikoa berreskuratzen ahalegintzen diren lan hauek guztiek.

Zoritxarrez, aurkituriko aztarna eta hondakinek ez digute inguru honetan geneuzkan igurikapenak betetzen lagundu, biziro aldaturik eta, ondoren eginiko luriraulketen eraginez, dagokien jatorrizko testuingurutik kanpo azaldu baitira. Eta esan ere egin liteke olarien jarduera hura arkeologiaren bidezko berritxuratze lana mehatxu bizien pean dagoela, izugarri, eta erremediorik gabe itxuraz, ugaldu baitira baso-lanak inguru hauetan.

cial, dado que hay restos de un túmulo de escorias de grandes dimensiones que ha sido cargado en parte. Aparece junto a él restos de muros de una pequeña edificación, y de una presa y canal artificial de agua que discurre por las inmediaciones. Un estudio más amplio de esta zona nos aportaría luz sobre las dudas que mantenemos sobre el origen de estas escorias: hidráulico (por su proximidad a un importante curso de agua, por los restos de ciertas tecnologías en el entorno y por la escasa cota de altitud) o prehidráulico (por la tipología de las escorias y la escasa entidad de los restos constructivos). Pudiendo ser incluso, lo cual sería más interesante, la manifestación de una tecnología intermedia entre ambas con una presencia principal del agua como factor de producción pero sin el desarrollo de una técnica hidráulica específica.

Ha sido de una importancia vital la documentación oral para recoger testimonios de la última generación que ha vivido la «cultura del hierro» y que, lamentablemente, desaparecerá con ellos. Por lo que cobra aún más importancia este tipo de trabajos que recuperan la memoria histórica del hierro en Bizkaia.

Por desgracia, buena parte de los restos descubiertos no vinieron a cumplir las expectativas creadas en la zona, puesto que se encontraban sumamente alterados y descontextualizados por remociones operadas a posteriori. Especialmente se podría decir que la reconstrucción de aquella actividad ferrona a través de la utilización del método arqueológico, se ve seriamente amenazada por la proliferación imparable de la explotación forestal de este entorno.

Fco. Javier Franco Pérez

B.2.2.2. **Amurdiko tumulua eta Betsaide II eta III leizeak (Elorrio)**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos Lopez Quintana
Diru-laguntza emailea: Elorrioko Udala

B.2.2.2. **Túmulo de Amurdi y cuevas de Besaide II y III (Elorrio)**

II Campaña
Dirección: Juan Carlos López Quintana
Subvención: Ayuntamiento de Elorrio

This second prospecting season in the municipality of Elorrio forms part of a project which aims to assess the findings made by Gerediaga Elkartea, which has been carrying out systematic visual prospecting work in the region since 1990.

Elorrioko udalerrian laginen bidez bideratu dugun II. miaketa kanpaina hau Gerediaga Elkartearen Historia Lan Taldeak eginiko aurkikuntzen ebaluaziorako proiektuaren barruko lana izan da. Gogoan eduki bedi 1990. urtean sistematikoko ekin ziela aipaturiko lan-talde horrek begi-miaketei. 2002. eta 2003. urteetan, balio arkeologikoa duten honako hiru gune hauetan bide-

La II campaña de prospección con catas en el municipio de Elorrio forma parte de un proyecto de evaluación de hallazgos realizados por el Grupo de Trabajo de Historia de Gerediaga Elkartea, quien desarrolla labores sistemáticas de prospección visual en la comarca desde 1990. Durante los años 2002 y 2003 hemos realizado un programa de prospección arqueológica

ratu ditugu laginen bidezko miaketa arkeologikoak: Amurdiko tumulu-egitura, Betsaide II leizea eta Betsaide III leizea. Gerediaga Elkartearen Historia Lan Taldeak aurkitu zuen 1990ean.

Amurdiko tumulu-egitura (Memaia, Elorrio)

Amurdi izeneko muinoan dago, Memaia mendiaren ipar-ekialdean, 615 metroko goratasunean. Hareharrizko blokez itxuraturiko tumulu-egitura da; handiak eta ertainak dira blokeak, eta honako neurri hauek ditu, gutxi gora-behera, tumuluak: 16 metroko diametroa eta 3 metroko garaiera, iparraldean, malda pikoa erakusten duen aldean.

80 cm-ko sakoneran Eremuko iritsi zuen lagin-zundaketak substratu litologikoa, sabaitik hormara honako garapen sedimentologikoa agerian utziz: bloke solteak hondar beltzeko matrizeaz (BsnT) itxuraturiko maila; hareharrizko klastoak deskonposaturik ageri dituzten hondar marroiak (Smc), substratu litologikoaren gainean. Amurdiko tumuluan bideratu den interbentzio arkeologikoari esker, guztiz bazter dezakegu oraingo

con catas en tres sitios con potencial arqueológico: estructura tumular de Amurdi, cueva de Besaide II y cueva de Besaide III.

Estructura tumular de Amurdi (Memaia, Elorrio)

Se localiza sobre la colina de Amurdi, en la estribación nororiental del monte Memaia, a 615 metros de altitud. Estructura tumular formada por bloques de arenisca, de tamaños medianos y grandes, con unas medidas aproximadas de 16 metros de diámetro por 3 metros de altura en su sector norte, donde presenta una acusada pendiente. Fue descubierta por el Grupo de Trabajo de Historia de Gerediaga Elkartea en el año 1990.

La cata realizada alcanzó el substrato litológico del terreno en la cota –80 cm., documentando el siguiente desarrollo sedimentológico, de techo a muro: nivel de bloques sueltos con matriz arenosa de tonalidad negra (Bsnt); y nivel de arenas marrones con clastos de arenisca descompuestos (Smc), asentado sobre el sustrato litológico. La intervención arqueológica en el túmulo de Amurdi posibilita descartar el carácter



Betsaide II leizea.

Cueva de Besaide II.

honetan muinoaren historiaurreko izaera megalitikoa. Hareharrizko bloke handiak eta oso harroak bildu dira muino natural hartara, sedimentuen artean inolako kohesiorik gabe, eta biziki nabarmendu da, honenbestez, muino horren itxura eta tamaina. Hain zuzen ere, tumuluaren balio tipometrikoak eta haren harrizko osagaien sedimentuen jarrera ditugu tumulu honen historiaurreko izaera megalitikoa baztertzera eraman gaituzten datuak. Hala eta guztiz ere, gizakiaren lan da inolaz ere tumulu-egitura hau, eta haien funtzionaltasunak eta kronologiak interbentzio arkeologiko zabala bezain sakona eskatzen dute ezinbestean.

prehistórico y megalítico del montículo. Se trata de una acumulación de grandes bloques de arenisca muy sueltos, sin cohesión sedimentológica, realizada sobre una colina natural, que engrandece las dimensiones de la estructura. Precisamente, los valores tipométricos del túmulo y la disposición sedimentológica de sus componentes pétreos son los criterios que nos han llevado a rechazar su naturaleza prehistórica y megalítica. No obstante, se trata de una estructura tumular de origen antrópico, cuya funcionalidad y cronología requieren de una intervención arqueológica en extensión.

Betsaide II edo Olazubieta I leizea (Elorrio)

Zolotxota mendiaren mendebaldeko hegalean dago leize hau, Betsaideko lepotik hurbil, 545 metro itsas mailatik gora. 5,10 metro zabal eta 3,40 metro gora da haren ahoa, 300° mendebalde-ipar-mendebalde norabidean.

50 cm sakonera iritsi ondoan bukatu ziren zundaketa lanak, lanak arras oztopatuko zituzten bloke handi batzuek zeudela egiaztatu bezain laster. Arkeologiari dagokionez antzu diren bi maila bereizi genituen egiaztaturiko sekuentzian: klastoak eta buztin marroiak (Cam), eta blokeak eta buztin marroiak (Bam).

Cueva de Besaide II u Olazubieta I (Elorrio)

Cueva emplazada en la ladera oeste del monte Zolotxota, cerca del collado de Besaide, a 545 metros sobre el nivel del mar. Posee una boca de 5,10 metros de anchura por 3,40 metros de altura, orientada a 300° oeste-noroeste.

La cata se dio por finalizada en la cota –50cm, ante la presencia de un nivel constituido por grandes bloques que impedía la progresión del sondeo. La secuencia constatada se compone de dos niveles arqueológicamente estériles: clastos con arcillas marrones (Cam) y bloques con arcillas marrones (Bam).

Betsaide III edo Olazubieta II leizea (Elorrio)

Zolotxota mendiaren mendebaldeko hegalean dago leize hau, 542 metro itsas mailatik gora, Betsaide I leizetik hurbil. 3 metro zabal eta 31,40 metro gora da haren ahoa, 290° mendebalde-ipar-mendebalde norabidean. Sarrera egiten dio aho honek 6 metro luze eta 4 metro zabal den areto bati.

Lagin-zundaketak ez zuen emaitza positiborik ekarri arkeologiaren ikuspuntutik. Hala eta guztiz ere, halako ezaugarri sedimentologiko interesgarri suma daitezke gune honetan: zundaketa-eremuaren erdialdeko tartean, leizearen berpizte hidrologiko bati dagokion higadura-desegokiera ageri da. Lau maila bereizi dira itxuratu den sekuentzian: buztin marroi metatuak (E-Am); sedimentu buztin-limotsu marroi klastoduna (Almc); V-Amp higadura-desegokiera (Arp); buztin plastiko marroi gorrixkak (Amp-Arp-), eta buztin gris plastikoak (Agp).

Cueva de Besaide III u Olazubieta II (Elorrio)

Se sitúa en la ladera oeste del monte Zolotxota, a 542 metros sobre el nivel del mar, próxima a la cueva de Besaide II. Posee una boca de 3 metros de anchura por 1,40 metros de altura, orientada a 290° oeste-noroeste, dando paso a una sala de 6 metros de longitud por 4 metros de anchura.

La cata no ofreció resultados positivos desde el punto de vista arqueológico. Sin embargo, presenta rasgos sedimentológicos de interés, localizando en el tramo intermedio de la cata una discontinuidad erosiva correspondiente a un momento de reactivación hidrológica de la cueva. La secuencia determinada consta de cuatro niveles: arcillas marrones concrecionadas (E-Am); sedimento arcillo-limoso marrón con clastos (Almc); discontinuidad erosiva V-Amp (Arp); arcillas plásticas de tonalidad marrón rojiza (Amp —Arp—); y arcillas grises plásticas (Agp).

Juan Carlos López Quintana

B.2.2.3. **Bolunburuko ingurua (Zalla)**

Zuzendaritza: J-L.-Diez de Mena.
Nekazaritza Saila. B.F.A.
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko
Foru Aldundia

B.2.2.3. **Cerco de Bolunburu (Zalla)**

Dirección: J. L. Díez de Mena.
Departamento de Agricultura. D.F.B.
Subvención: Diputación Foral
de Bizkaia

Recovery of 40 fragments of a circular hand mill in the area around Castro de Bulumburu (Zalla).

Juan Luis Diaz de Mena basozainak gune hartako eihera-lan eta jardueren zantzu berri bila begi-miaketarako iradoki zuen lan-eguna (2003ko apirilaren 15a). Aurreko ekitaldian, errota zirkularren lau zati aurkitu zuen aipaturiko basozainak inguru gotortuaren ondoko eremuetan, harresiaren aurrien gainean. Aurkikunde haiek lan sistematiko batez landu ez zirelarik, inguru guztia miatu zen berriro besterik ba ote zen jakiteko. Lan-egun hartako emaitza izan zen errotarri zati multzo handi baten berreskurapena. Pieza finkoak ziren batzuk *(meta),* 14 ale guztira, eta higigarriak *(catillus)* beste batzuk, 26 ale guztira. Mazelan behera, harresiari dagokionez, edo barrunbe gotortuaren barnealdean azaldu ziren material gehienak. Gainazalean ageri izan ziren pieza asko, modu bitxian banaturik —joan den mendearen erditsura arte erabili zen baratze baten alde bietan—, eta beraz gune hartako baratze lanen ondorioz azalduko ziren errota-piezak azaldu ziren bezala, jatorrizko lekutik kanpo eta lur-azalean barreiaturik. Aurkikunde mota hau ohikoa dugu II. Burdin Aro beranteko edo erromatarren garaiko kronologia duten finkamenduetan, Samanoko Haitzekoak (Castro Urdiales) edo Arrolakoak (Nabarniz-Arratzu) darakuskuten bezala.

Jornada de prospección superficial promovida por el guarda forestal Juan Luis Díez de Mena (15 de abril de 2003) en busca de nuevas evidencias de molinería antigua en el lugar. Durante el ejercicio anterior fueron localizados por éste cuatro fragmentos de molinos circulares en las laderas del recinto fortificado, sobre el derrumbe de la muralla. Dado que estos hallazgos no eran objeto de un trabajo sistemático, se procedió a rastrear la presencia de otras posibles piezas. Resultado de aquella jornada fue la recuperación de un amplio lote de fragmentos de ruedas de molino, tanto piezas fijas *(meta)* con 14 ejemplares, como de móviles *(catillus)* con 26 evidencias. Los materiales fueron recogidos en su mayor parte ladera abajo en la zona de la muralla o en el interior del recinto fortificado. La abundancia en superficie y la peculiar distribución de las evidencias, a ambos lados de lo que fue un pequeño huerto a mediados del siglo pasado, pudieran estar originadas por los trabajos agrícolas en el lugar; producto de los cuales fueron la extracción y dispersión de los fragmentos de molino. Este tipo de hallazgo es frecuente en asentamientos de cronología de la II Edad de Hierro tardía y romana como la Peña de Sámano (Castro Urdiales) o Arrola (Nabarniz-Arrazua).

Miguel Unzueta Portilla
Bizkaiko Foru Aldundiaren Historia Ondarerako Zerbitzua/Servicio de Patrimonio Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia

B.3. **GIPUZKOA / GIPUZKOA**

B.3.1. *INDUSKETAK*

B.3.1.1. **Buruntzako San Martin eliza (Andoain)**

VIII. Kanpaina
Zuzendaritza: Alex Ibañez Etxeberria
Diru-laguntza emailea: Andoaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

B.3.1. *EXCAVACIONES*

B.3.1.1. **Iglesia de San Martín de Buruntza (Andoain)**

VIII Campaña
Dirección: Alex Ibañez Etxeberria
Subvención: Ayuntamiento de Andoain y Diputación Foral de Gipuzkoa

The 8th season of excavations in San Martín de Buruntza Church concluded the investigation of the said enclave. After nine years of investigation, experts have documented up to three successive plans of different churches, built in order to expand the original one. As regards the tombs associated with the different churches, we see that the earlier ones were destroyed as the newer ones were added, and no tombs or graves in stone vaults or any other typically medieval device have been uncovered. Currently, the project is focusing on ensuring adequate socialisation.

Interbentzio proiektuan deskribatzen den bezala, honako helburu hau izan du VIII. indusketa kanpaina honek «Kanpoaldeko tenpluaren trazatua betiko zehaztea, eta barnealdeko tenpluaren identifikazio posiblea, egitura horiei loturiko depositu arkeologikoaren indusketan sartu gabe, jada sakon aztertu dela kontsideratzen baita». Parametro horietan oinarrituta, zera baieztatzen zen «interbentzio honen xedea, horrenbestez, ez da indusketa eremu emankorrak zabaltzea, baizik eta behea jotako XV. mendeko tenpluaren eta erantsitako kaperen hormen azalera garbitzea. Era berean, garbitu egingo dira ager daitezkeen egitura erantsiak edo XIV. mendeko elizaren trazaren hondakinak izan daitezkeenak ere».

Horrenbestez, jada ezagutzen genituen horma egituren gainean soilik egin dugu lan, eta haien trazak mugatzen saiatu gara, etorkizuneko proposamenak honako xede honetan orientatu ahal izateko «aztarnategiaren kontserbazio eta berreskuratze proiektu bat bideratzea Andoaingo Udalaren laguntzarekin». Aztar-

El propósito de la VIII campaña de excavación, tal y como quedaba descrito en el proyecto de intervención, ha sido la identificación definitiva del trazado del templo exterior, y la posible identificación del templo interior, sin acceder en principio a la excavación de depósito arqueológico ligado a dichas estructuras por considerarlo ya analizado en profundidad. En base a dichos parámetros, se afirmaba que la intervención, por tanto, no buscará ampliar los espacios de excavación fértiles, sino tan sólo limpiar la superficie de arrasamiento de los muros del templo del XV y de las capillas añadidas, así como de las posibles estructuras añadidas que aparezcan o de posibles restos de la traza de la iglesia del XIV.

Los objetivos por tanto, se han centrado únicamente en trabajar sobre las estructuras murarias ya conocidas, tratando de delimitar sus trazas, de manera que se pudieran orientar las futuras propuestas hacia un proyecto de conservación, y recuperación del yacimiento en colaboración con el Ayuntamiento de Andoain.

nategia ixteko orientazio horrekin, jada dokumentaturiko trazak aurkitu eta berreskuratzeko interesarekin batera, proiektuak uko egin dio elizaren barnealdean nahiz kanpoaldeko *zimitorio*an jada ezagutzen ditugun ehorzlekuetan sartzeari, leku horietan XVI. eta XVII. mendeetan kokatuko genituzkeen materialak atzeman ondoren, aski dokumentatu direla uste baitugu.

Oraingo honetan batik bat hondeamakinarekin egin dugu lan, eta XX. mendearen bigarren erdialdean granja eraikitzeko ekarritako betegarrietan jardun dugu. Era berean, XVIII. mendean elizaren kanpoaldeko traza eraitsi ondoren agerian utzitako zangak estaltzen zituzten betegarriak hustu ditugu. Horrekin batean, hormak garbitu ditugu eta aztarnategiaren barnealdean ezkutuan zeuden trazak agerian utzi ditugu.

VIII. kanpaina honen emaitzek baieztatu egin dute XV. mendeko burualdearen trazari begira aurreikusitakoa. Aldiz, ez da gauza bera gertatu XIV. mendeko barnealdeko trazarekin, jada ezagutzen genituen zatiak besterik ezin izan baitugu atzeman.

XV. mendeko burualdeko hormari dagokionean, haren azken zimentazio maila baino ez da agertu. Zangaren hondoan hormak oinarri izango zuen karesnea dokumentatu dugu, baina horma erabat suntsitu zen 2002ko VII. Kanpainan aurkitutako bi muturretatik aurrera, eta kontrahorma bat baino ez zen kontserbatu, XVI.-XVII. mendean egindako obraren zimentazio gisa erabili baitzuten hura.

Oraingoan berriro dokumentatu dugu XV. mendeko absidean eginiko hezurtegi handia. Aurkitutako tenplurik zaharreneko absidea ebakitzen zuen hezurtegi hori barnealdetik absideari eratxikitzen zitzaiola egiaztatu genuen. Ageri zituen neurriak ikusita, esan daiteke XV. mendeko elizako presbiterioaren ia espazio osoa hartuko zuela, eta horrenbestez0 baieztatu egingo luke, 2002an dokumentatu zen bezala, XIV. mendeko tenpluaren trazaren zati bat suntsitu egin zela.

Beste helburuetako bat iparraldeko kapera dokumentatzea zen, eta hain zuzen ere horrexek ekarri zigun VIII. kanpaina honek eskainitako emaitzetan berrikuntza handiena. Hala bada, 2002ko kanpainan aurkitutako hondakinetako batzuk iparraldeko kaperakoak zirela ikusi genuen, baina haren bikia desagertua zegoen erabat. Era berean, *zimitorio*ko kanpoaldeko horma atzeman genuen bere iparraldetik. Harritu egin ginen ikusi genuenean kapera berria ez zela ongi mugatua zegoen XV. mendeko absidearen gainean bukatzen, baizik eta kaperaren iparraldeko muturrean ertzean bukatzen zela, gero beste abside oktogonal bat agertu zen jada ezagutzen genuenaren kanpoaldean, eta horrek benetan zentzua ematen zion 1995ean eginiko lehen aurkikuntzari. Kanpoaldean aurkitutako traza berri hau 1783an eraitsitakoa izango zen, errepidea eraberritu zenean zati batean suntsitu zutena. Hondakinak bikain kontserbatuta zeudela, eta zuten tamaina ikusita, pentsatzen dugu egungo errepidearen asfaltoaren azpian segituko dutela ezkutaturik.

Esta orientación al cierre del yacimiento, ha hecho que junto al interés de localizar y recuperar las trazas ya documentadas, el proyecto renunciara a introducirse en los espacios de enterramiento ya conocidos, tanto al interior de la iglesia, como del *zimitorio* exterior, que proporcionándonos materiales encuadrados entre los siglos XVI y XVII, se consideraban suficientemente documentados.

En esta ocasión el trabajo fue realizado principalmente con máquina excavadora, actuando sobre los rellenos aportados durante la segunda mitad el siglo XX para la construcción de la granja, y en el vaciado de los rellenos que cubrían las zanjas dejadas al descubierto tras el derribo de la traza exterior de la iglesia en el siglo XVIII. Junto a ello, se procedió a la limpieza de los muros y al descubrimiento final de las trazas ocultas bajo el interior del yacimiento.

Los resultados de esta VIII campaña han confirmado lo previsto en cuanto a la traza de la cabecera del siglo XV. Por el contrario, no ha ocurrido lo mismo con la traza interior del siglo XIV, que no pudo ser identificada en más tramos que los ya conocidos.

En cuanto al muro de la cabecera del siglo XV, no ha aparecido más que su último nivel de cimentación, documentándose la lechada sobre la que descansaría el muro en el fondo de la zanja, pero el mismo, se hallaba totalmente arrasado a partir de los dos extremos localizados en la VII campaña de 2002, conservándose tan sólo uno de los contrafuertes, posteriormente utilizado como cimentación de la obra del XVI-XVII.

Lo que si fue nuevamente documentada, fue la gran huesera practicada en el ábside del siglo XV. Esta huesera que corta el ábside del templo más antiguo localizado, se pudo comprobar como se adosaba al ábside por el interior. Por sus dimensiones, observamos que la misma debería ocupar prácticamente todo el espacio del presbiterio de la iglesia del siglo XV, y confirmaría, como ya se documentó en 2002, la eliminación de parte de la traza del templo del siglo XIV.

Otro de los objetivos, tal cual era la documentación de la capilla norte, trajo los resultados más novedosos que aporta esta VIII campaña. Así, parte de los restos localizados en la campaña de 2002, fueron identificados como pertenecientes a la capilla norte, cuya gemela, se halla totalmente desaparecida. Asimismo, el muro exterior del *zimitorio* por su lado norte también fue localizado. La sorpresa vino servida al ver que la nueva capilla, no remataba sobre el ábside del siglo XV que se hallaba bien delimitado, sino que en el extremo norte de la capilla remataba en esquina, apareciendo un nuevo ábside ochavado exterior al ya conocido, y que daba pleno sentido al primer hallazgo realizado en 1995. Esta nueva traza localizada al exterior, sería en realidad la que fue derribada en el año 1783, y la cual fue parcialmente arrasada por la remodelación de la carretera. La excelente conservación de los restos, así como su entidad, nos inclina a pensar que deben de continuar ocultos bajo el asfalto de la actual carretera.

Traza hau ageri da 140 bat cm lodierako horma batean, oso zimentazio sakona du bankada eta guzti. Bost tarteko absidea da, eta alboko kaperetan eta lau kontrahormatan oinarritzen da. Bost horma-atal ageri ditu, horietan bi lehenengoek Ekialde-Mendebalde norabidea dute, eta erdikoak Iparralde-Hegoalde, gainerako biak, berriz, angeluan eratuak daude.

Ezagutzen dugun dokumentazioari erreparatzen badiogu, Buruntzako elizan egindako azken obra handiaren aurrean gaudela baiezta dezakegu. Planta hori da hain ezaguna den Trebiñoko Idazkariaren 1634ko planoan islatuta ageri dena, eta badirudi, mendea aldatzean edo XVII. mendeko lehen urteetan egindako eraikuntza bati dagokiola.

Goian adierazi dugun bezala, interbentzio honekin amaitutzat ematen dugu Buruntzako San Martin elizan aurrera eramaniko arkeologia ikerketarako proiektuaren indusketa fasea. Tenpluaren hondakinak lehenbiziko aldiz aztertu genituenetik 9 urte igaro ondoren, esan dezakegu, erabat bete direla arkeologia mailan genituen itxaropenak, eta horrenbestez, gure lana bukatzeko azken urratsak baino ez zaizkigu geratzen, datuak argitara emateko eta aztarnategiaren sozializaziorako.

Azken laburpen gisa, esan dezakegu, aztarnategiak eskaintzen dituen datu nagusiek argi erakusten

Esta traza se presenta en un muro de 140 cm. aproximadamente de grosor y cimentación muy profunda con bancada. Es un ábside de cinco tramos, que se apoya en las capillas laterales y en cuatro contrafuertes más. Presenta cinco paños de los cuales los dos primeros presentan orientación E-W, y el central N-S, estando en ángulo los dos restantes.

Si atendemos a la documentación conocida, podemos afirmar que nos encontramos ante la última gran obra de la iglesia de Buruntza. Esta planta, es la que ya vemos reflejada en el plano del Secretario Treviño de 1634, que parece corresponderse a un período de construcción en el cambio de centuria o primeros años del siglo XVII.

Como ya hemos avanzado en líneas superiores, con esta intervención damos por finalizada la fase de excavación del proyecto de investigación arqueológica en la iglesia de San Martín de Buruntza. Tras 9 años desde que reconocimos por vez primera los restos del templo, podemos decir que las expectativas arqueológicas han sido cumplidas ampliamente, y que ya tan sólo nos enfrentamos a los últimos pasos para terminar nuestra labor, la publicación de los datos, y la socialización del yacimiento.

A modo de resumen final, podemos afirmar que los datos principales que aporta el yacimiento, son nueva-



XVII. mendeko burualdearen ikuspegi partziala, XV. eta XIV. mendeetako trazak ikus daitezke barrualdean.

Vista parcial de la cabecera de la traza del siglo XVII, acogiendo en su interior las trazas del siglo XV y XIV.

dutela espazio berean etengabean tenpluak eraikitzeak gure inguruan izan duen interes handia; zituzten neurriak eta trazak ikusita, izugarrizko kalitatea zuten tenplu horiek, baina etengabeko aurrerapenaren aurrean eta bizirik edukitzen zituzten komunitateen beharrak gero eta handiagoak izanik, eraitsi egiten zituzten gainean tenplu berriak eraikitzeko.

Kasu honetan, hiru tenplu atzeman ditugu, baina II. tenplutik III.era pasatze horretan aldaketa eta zabaltze ugari egin ziren II.ean, eta horrenbestez, esan dezakegu berez ez dela planta berriko proiektu bat, bai ordea I. tenplutik II.era pasatzerakoan. Landu gabeko harriz eginiko lehen tenplu horrek ez digu aukerarik ematen XIV. mendea baino lehenagora atzera egiteko, eta tenplu horri loturik ere ezin izan ditugu zaharragoa izanik, lauzazko zistak, esate baterako, lehenagoko finkamendu batez hitz egingo lukeen ehorzketarik aurkitu, material galkorrez eginiko aurreko tenplu posible batekoak izan zitezkeenak, hain zuzen ere.

Baina bai pentsa dezakegu horrelako tenplu bat egon zitekeela, aurkitutako eraikuntzak izugarrizko sendotasuna ageri duelako, kontrahormak baititu burualde oktogonalean, baina egia esan hori egiaztatzeko moduko daturik ez dugu eskuetan. Tenplu horren kanpoaldeko burualdeko depositu arkeologikoa desagertu denez, ez digu haren testuingururik eskaintzen, baina aukera hori baieztatuko lukeen hondakin bakanik ere ez dugu aurkitu.

Eraikuntza aldi honen kronologia Joan II.aren agintaldiaren —zorua eraikitzeko sotoa estaltzen eta berdintzen zuten materialei esker jakin izan dugu datu hori— eta XVII.-XVIII. mendeen artean kokatu behar dugu. Goiko mugaren zehaztasun eza hori berreskuratutako estratigrafiak eskainitako datuen eskasaren ondorioa da; izan ere, hurrengo aldian, XIX. mende hasieran zehar eraiki ziren egitura jakin batzuen lapurretari buruzko informazioa baizik ez digu eskaini.

Horrexegatik saiatu gara eraikina kokatzen zen lekuko eraikuntzaren bilakaera historikoa aztertzen. Hortaz, eraikin honen eraikuntza kronologikoki XVI. mendean kokatzen dugu, denbora tarte horretan oparo dokumentatuta baitago Hiribilduko burgesiaren munta bateko eraikin askotan bideratutako eraikuntza jarduera bizibizia, aldi honetan dokumentaturiko hondakinen kasua izan daitekeena, paramentuetako eraikuntza-taxu eta teknikak eta eraikuntzan erabilitako erabilerarako zoru mota aintzat hartzen baditugu.

La cronología de esta fase constructiva se ubica entre el reinado de Juan II, fecha aportada por los materiales que amortizaban y nivelaban el sótano para la construcción del suelo y los siglos XVII-XVIII. Esta indefinición del límite superior se debe a la escasez de datos aportados por la estratigrafía recuperada, que únicamente nos ha informado del robo de ciertas estructuras que fueron construidas durante la fase siguiente, a comienzos del siglo XIX.

Por ello hemos intentado estudiar el devenir histórico constructivo de la zona en la que se emplazaba el edificio, por el cual nos decantamos a encuadrar cronológicamente la construcción en el siglo XVI, espacio temporal en el que se encuentra profusamente documentada la frenética actividad constructiva de numerosos edificios de cierto porte pertenecientes a la burguesía de la Villa, como puede ser el caso de los restos documentados en esta fase, tanto por el aparejo y técnica constructiva de los paramentos como por el tipo de suelo de uso utilizado en la construcción.

3. aldia

Aldi honi, bigarrenari bezalaxe, eraikuntza aldien arteko bereizketa zehazten duen suteak eman zion hasiera. Nola zoruetan hala perimetroko hormetan bereiziriko ikatz ugariak dira sutearen testigantzak.

Eraikina oso-osorik berreraiki behar izan zuten, eutsi egin zioten aurreko aldian zuen zabalerari, baina mendebaldera txikitu egin zuten, fatxadaren lerroa aurreko aldiarekiko 0,5 metro eraman behar izan zuten atzera. Behe-oineko barne banaketari dagokionez, gela bitan banatuta egoten jarraitzen du, gibelaldekoak jatorrian zuen itxura berari eusten dio eta aurrekoa txikitu egiten da, eta 25 metro koadro izatetik 22,5 metro koadro izatera igarotzen da.

Aurreko aldeak kontserbatu ditu aldi honetako hondakinak, gibelaldea erabat galduta baitago. Lehen begiratu batean ikus daitekeena da berreraikitzeko lanak amaitu eta gero behe-oinaren funtzioa aldatu egin zela. Aurreko gelako oin guztia hartzen zuen espazio ireki bat izatetik gune bitan banatu zen, zurezko zutikoak egokitzeko hiru bermek mugatuta, espazioren bizkarrezurrarenak egiten dutenak. Batetik, eraikinaren gibelalderako korridorea mugatzen zuten, eta bestetik korridorearen eta iparraldeko gainerako espazioaren artekoa osatzen zuten. Horren erakusgarri da bermeen arteko tartea oso antzekoa izatea fatxadaren eta lehenengo bermearen arteko espazioa izan ezik, honakoa handiagoa delako, eta horretan oinarrituta ondorioztatzen dugu goiko oinetara daramaten eskailerei leku egingo zien tokia izango zela.

Fase 3

El inicio de esta fase se caracteriza, al igual que la segunda, por el hecho de que es un incendio el que marca el punto de inflexión entre etapas constructivas. Los restos que nos evidencian su acción nos han quedado representados en forma de abundantes carbones, tanto en el suelo como en los muros perimetrales.

El edificio tuvo que ser reconstruido de forma íntegra, manteniendo la anchura que poseía en la fase anterior, pero reduciendo sus dimensiones hacia el oeste donde la línea de fachada se retranqueó 0,5 metros con respecto a la fase anterior. En cuanto a la distribución interna de la planta baja, ésta sigue estando dividida en dos estancias, la posterior mantiene la misma fisonomía que tenía originalmente y la estancia delantera ve reducidas sus dimensiones, pasando de tener 25 metros cuadrados a 22,5.

Será esta parte delantera la que albergue los restos conservados de esta fase ya que la zona trasera, se encuentra completamente arrasada. Lo que podemos observar sobre el edificio en primera instancia es el hecho de que tras las obras de reconstrucción, la funcionalidad, cuando menos de la planta baja, cambia. Ésta pasará de tener un espacio abierto que ocupaba toda la planta de la estancia delantera, a subdividirse en dos zonas, que se encuentran delimitadas por tres apoyos para pie derechos de madera que actúan de vertebradores del espacio. Por una parte delimitan el pasillo hacia la zona trasera del edificio y por otra actúan como umbral entre este pasillo y el espacio restante al norte. Prueba de ello, es el hecho de que la distancia existente entre los apoyos es muy similar a excepción del espacio que se observa entre la fachada y el primer apoyo, que es de mayores dimensiones, de lo que se deduce que este sería el lugar por donde se accedería a las escaleras que suben a las plantas superiores.

Eskaileren morfologiari dagokionez, ustez zurezkoak izango ziren, ez baita haien arrastorik ere kontserbatu. Argi dagoena da eskailerak fatxadaren ardatz axialari jarraiki abiatuko zirela, eta altueraren erdialdera eraikinaren iparraldeko hormaren paraleloan biratuko zirela, lehenengo oinari bide emanez.

Aurreko aldiaren aldean, behe-oinari emandako funtzio aldaketa da aldi honen berezitasun handiena; behe-oinean izandako banaketa aldaketak iradokitzen du funtzio aldaketa hori. Eraikinaren aurreko alde osoa hartzen zuen neurri handiko ezkaratza ondo berezitutako espazio bitan banatu izana da adierazi dugunaren erakusgarririk agerikoena.

Orubearen behe aldean gertatutako funtzio aldaketa horrek, egoitza erabileratik artisautza izaerako erabilerarako trantsizioa iradoki diezaguke. Lehenengo oinera iristeko eskaileraren hutsuneko betegarriak egiazta liezaguke alderdi hori, bertan burdinazko eta kobrezko zepa hondakin ugari bereizteaz gainera, haiek lantzeko erabili zituzten tresnak dokumentatu baititugu.

Eraikuntza aldi honen kronologiari dagokionez, goiko aldetik XIX. azken laurdeneko suntsiketak zehazten du; beheko aldetik, fatxada atzera eraman izanaren arrastoak baizik ez dauzkagu, eta hori, arestian azaldu bezala, XVIII. mendearen bigarren erdiko 2. aldian gertatu zen.

4. aldia

*A*ldi honek orubearen erabileraren azken unea zehazten du. Eraikinak eutsi egiten dizkio neurriei oinean, baina perimetroko hormen orientazioa aldatu egiten da, apur batean desbideratuta daude aurreko aldien aldean. Halatan, 5 oineko eraikin bat itxuratu zen, eta behe-oinean, aurreko aldietan bezalaxe, ondo berezitutako espazio bi artikulatzen dira. Bata aurreko aldean, gutxi gora-behera 15 metro koadrokoa, eta bertara kaletik sartzen da zuzenean. Gibelaldeko espaziora, berriz, orubearen hegoaldean egokituriko korridore txiki batez iristen da. Korridoreak gibelaldean dagoen espazioari eta goiko oinetara daramaten eskailerei, behe-oinaren erdialdean daudenei, sarrera egiteko balio du.

Zorua berdintzeko betegarrietan aurkitutako txanponak eta zeramikak aintzat hartzen baditugu, eraikuntzaren ikuspuntutik XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran eraiki zuten eraikin hau, eta gutxi gora-behera mende batez erabili zuten, 2002ko urtarrilean eraitsi baitzuten.

En cuanto a la morfología de las escaleras, cabe suponer que serían de material lígneo, lo cual también explica el que no haya quedado ningún resto de ellas. Lo que si parece claro es que las escaleras arrancarían siguiendo el eje axial de la fachada y a media altura girarían paralelas al muro de cierre norte de la edificación, dando paso a la primera planta.

Lo singular de esta fase con respecto a la precedente es el cambio de funcionalidad que se le otorga a la planta baja y que se intuye por el cambio de distribución en la misma. El hecho de que se pase de poseer un recibidor de grandes dimensiones que ocupaba toda la zona delantera del edificio a subdividir ésta en dos espacios bien diferenciados nos está hablando de ello.

Este cambio de funcionalidad de la parte inferior del solar, puede estar indicándonos la transición de un uso residencial a uno de carácter artesanal. Una prueba de ello nos la puede aportar el relleno de robo de la escalera de acceso a la primera planta, en la cual hemos documentado la presencia de abundantes restos de escoria de hierro y cobre así como diferentes útiles empleados en el trabajo de los mismos.

En cuanto a la cronología de esta fase constructiva se encuentra acotada superiormente por la destrucción del edificio en el último cuarto del siglo XIX, ya que inferiormente únicamente tenemos el indicio del retranqueo de la fachada, fechado como hemos indicado en la fase 2 en la segunda mitad del siglo XVIII.

Fase 4

Esta fase marca el último momento de uso del solar en el cual éste no ve alteradas sus dimensiones en planta aunque sí la orientación de sus muros perimetrales, que se encuentran ligeramente desviados con respecto a las fases precedentes. De esta manera se configura un edificio de 5 plantas, en cuya planta baja se articula, al igual que en las fases anteriores, dos espacios bien definidos. Uno delantero de unos 15 metros cuadrados, al cual se accede desde la calle directamente. Mientras que al espacio trasero se accede a través de un pequeño pasillo situado en el lateral sur del solar. Éste, sirve de acceso al espacio que se encuentra situado en la parte trasera y a las escaleras que suben a los pisos superiores, situadas en el centro de la planta baja.

Esta edificación atendiendo al material numismático y cerámico hallado en los rellenos de nivelación se inició constructivamente hablando a finales del siglo XIX o principios del XX, siendo su tiempo de uso de aproximadamente una centuria, ya que fue derruida en enero del 2002.

Alberto Plata Montero; Iban Sánchez Pinto

D.1.1.5. **Mariturriko aztarnategia (Vitoria-Gasteiz)**

III. Kanpaina
Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez eta Julio Núñez Marcén
Finantzazioa: Sociedad Ensanche 21. Vitoria-Gasteizko Udala

D.1.1.5. **Yacimiento de Mariturri (Vitoria-Gasteiz)**

III Campaña
Dirección: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez y Julio Núñez Marcén
Financiación: Sociedad Ensanche 21. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

The work carried out has uncovered a 200 metre stretch of a road that, due to both its typology and direction, is believed to correspond to the Roman road Iter 34, running between Astorga and Bordeaux. This road is linked to a secondary road running north-south. The crossroads enables us to divide the site into two zones: the western side, with livestock farming areas; and the eastern side, with structures pertaining to a village that can be classified as a vicus*. The entire site (to date) corresponds to the High Imperial era of the Romanisation.*

2003. urtean zehar garatu dira lanak aztarnategi honetan. Guztira, gutxi gora-behera 16.000 m^2-ko azalera aztertu genuen, baina alde batzuetan, kanpaina honetan bederen, laborantza lanek ukitzen duten maila baizik ez genuen altxa. Orain artean 212 unitate estratigrafiko bereizi ditugu.

Finkamendu hau ondo bereizten diren hiru aldetan banatu dugu: bideak, *vicus* (herrixka) eta abereentzako eremuak.

Bideak

Aztarnategian bide bi hauteman dira: batak gutxi gora-behera iparraldetik hegoaldera egiten du, zundaketen kanpainan partzialki dokumentatua izan zena, eta besteak alderik alde igarotzen du, baita gainditu ere, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera, induskatutako eremu osoa. Bide biak gurutzatu egiten dira azterketa eremuko erdialde topografikotzat jo genezakeen gunean, eta orain artean ikasitakoaren arabera, herrixka zaharraren espazioa antolatzen eta sailkatzen dutela ematen du.

Aurreneko bidea atal bitan bana daiteke: bidegurutzearen iparraldera bata, ongien kontserbatua, eta hegoaldera bestea, non laborantza lanek guztiz nahasi dituzten aztarnak oro. Iparraldeko atalean ibilbidearen 40 metro baino zertxobait gehiago kontserbatzen dira, egungo Zuazora bidearen eta bide bien bidegurutzearen artean. Eraikuntzaren egitura oso sinplea da, eta eremuko kareharri naturalaren legarrezko geruza bik osatua da. Beheko geruza *(statumen)* neurri handiagoko «legarrez» osatuta dago, eta harriaren degradaziotik sortutako geruza naturalean egokitzen dira. Goiko geruzan *(summa crusta)* finagoak eta txikiagoak dira legarrak. Nolanahi ere, ibilbidearen atal batzuetan ondo kontserbatzen da goiko geruza, eta bertan bere garaian bide honetatik ibili ohi ziren zalgurdien arrastoak nabari daitezke artean. Gutxi gora-behera iparraldetik hegoaldera egiten du, eta gehienez 3,5 metro zabal izango zen.

A lo largo del año 2003 se han llevado a cabo trabajos en este yacimiento, interviniendo sobre una superficie total de aproximadamente 16.000 m^2, si bien en algunas zonas, en esta campaña, únicamente se ha rebajado el nivel correspondiente al laboreo agrícola. El número de UU.EE reconocidas hasta ahora es de 212.

El asentamiento se subdivide en tres zonas bien diferenciadas: vías, *vicus* (poblado) y zona ganadera.

Las vías

Se ha detectado la presencia de dos vías o caminos en el yacimiento: una que presenta una dirección aproximada norte-sur, ya documentada parcialmente durante la campaña de sondeos y otra que cruza, e incluso supera los límites de la zona excavada en dirección noroeste-sureste. Ambas vías se cruzan entre sí en lo que podríamos considerar el centro topográfico de la zona de estudio, y por lo descubierto hasta el momento, parecen ordenar y jerarquizar el espacio de la antigua población.

La primera puede dividirse en dos tramos: el situado al norte del cruce, el mejor conservado, y el situado al sur, donde los restos se encuentran muy alterados por las labores agrícolas. Del tramo septentrional se conservan algo más de 40 m. de recorrido, comprendidos entre el actual camino a Zuazo y el punto de cruce entre las dos vías. Su estructura constructiva es muy simple y consta de dos capas de la zahorra natural caliza propia de la zona. La capa inferior *(statumen)* está compuesta por «bolos» de mayor tamaño dispuestos sobre el estrato natural de degradación rocosa, mientras que la capa superior *(summa crusta)* presenta una granulometría más fina. No obstante, también se reconocen partes del recorrido en las que la capa superior se conserva en buen estado y en ellas ha sido posible reconocer incluso las rodadas de los carros que en su día circularon por este camino. Su orientación es aproximadamente norte-sur y su anchura máxima rondaría los 3,5 m.

Bidegurutzearen hegoaldera tarteka baizik ez dira bide honen aztarnak nabari. Norabidea apur batean aldatzen du, eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera egiten du. Ibilbidean bereizitako atalak 50 metro bitarte luzatzen dira, eta finkamenduaren neurriak ere gaindi ditzake. Bigarren atal honetan dokumentatuaren arabera, iparraldeko luzapenaren eraikuntza ezaugarri berberak ditu.

Finkamendua ipar-mendebaldetik hego-ekialdera zeharkatzen duen bideak ere goldearen erasoak jasan ditu, eta gune batzuetan egitura osoa desagertu da. Nolanahi ere, ondo kontserbatutako atalek eta ibilbidea mugatzen duten zangek, harrian induskatuek, aukera eman digute haren trazua zehazteko, zeharo zuzena, gutxi gora-behar 200 metrotan. Eraikiriko egitura konplexuagoa da, eta denbora askoan erabili izan zelako arrastoak ageri ditu, ugari baitira zoladuran egindako konponketa txikiak. Hiru aldi handiz hitz egin dezakegu, aurreneko biak erromatarren garaiari dagozkionak eta hirugarrena seguru asko Goi Erdi Aroari.

Aurreneko aldia, eraikuntzaren ikuspuntutik, behar bezala prestatutako harrizko geruza naturalean egokituriko kareharrizko hartxabalez osatuta dago. Itxura batean gurpildunen trafikoari eusteko egokitu eta zaindu zuten zoladura den arren, bidearen barruko nukleoa *(statumen)* baizik ez da. Horrexegatik, gainean beste geruza bat behar zuela pentsatu behar dugu, seguru asko legar finez osatua, higadurak eta bidea konpontzeko lanek berek desagerrarazi zutena. Lehen aldi honetan bidea 4,10 metro zabal zen.

Jatorrizko trazuari zegokion barne nukleo hori egokiro aprobetxatu zuten bidea berreraikitzeko lanetan zehar eraikuntza oinarri gisa. Halatan, gurpildunentzako geruza *(summa crusta)* berregokitu zuten legar finezko geruza lodi bat haren gainean jarrita. Zoladura berri honen lodieraren ondorioz bideak ezponda txiki batzuk izango zituen alboetan. Bigarren eraikuntza aldi honetan zehar harrian induskatutako alboetako hobi batzuekin hornitu zuten bidea, erromatarren garaian hirien arteko bideetan ohikoak ziren *sulci* deituekin. Egitura horiek bidea bera eraiki baino lehen trazua zedarritzea eta zehaztea zuten helburu. Baina bidearen bigarren aldi honetan izandako aldaketa garrantzitsuena galtzada 6 metroko zabalerara handitu izana da, ezbairik gabe.

Oraingoz ez dugu bidearen aurreneko bi aldi hauen eraikuntza hasi zuten unea kronologikoki zehazteko modua eskaintzen digun unitate estratigrafiko induskaturik. Nolanahi ere, eta inolako zalantzarik gabe, erromatarren garaikoak dira, kontuan hartzen badugu finkamenduan hautemandako beste eraikuntzekiko banaketa eta egokiera. Aitzitik, eta egitura mota honetan guztiz ezohikoa den arren, galtzada artean erabiltzen zuten azken garaietara hurbiltzeko modua eskaintzen digun aztarna kronologikoren bat bereizi dugu. Izan ere, egokitze lan partzial baten indusketak zoladuran lantza-mutur bat, *framea* bat, berreskuratzeko modua eskaini zigun; ha-

Al sur del cruce los restos de este camino aparecen de forma intermitente, modificando ligeramente su dirección, adoptando una orientación noreste-suroeste. Los tramos descubiertos de su recorrido se prolongan hasta 50 m. e, incluso, podrían superar los límites del asentamiento. Lo documentado de este segundo tramo presenta las mismas características constructivas que su prolongación septentrional.

La vía que cruza el asentamiento con dirección noroeste-sureste ha sufrido igualmente la acción del arado, habiendo llegado a desaparecer toda su estructura en algunas zonas. Sin embargo, sus tramos bien conservados y la presencia de zanjas excavadas en la roca que delimitan su recorrido, nos han permitido reconocer su trazado, absolutamente rectilíneo, en aproximadamente 200 m. Su estructura construida es más compleja y evidencia un período de uso muy prolongado en el tiempo que se traduce, lógicamente, en la existencia de numerosas reparaciones menores en su pavimento. Puede hablarse de tres grandes períodos, los dos primeros correspondientes al mundo romano y el tercero de cronología seguramente altomedieval.

La primera fase, desde el punto de vista constructivo, está constituida por una capa de lajas calizas concertadas y dispuestas sobre el lecho rocoso natural que fue convenientemente preparado. A pesar de que se trata de un pavimento aparentemente cuidado y dispuesto para soportar el tráfico rodado, no es sino el núcleo interno *(statumen)* de la vía. Por ello, cabe suponer que contaba con una capa superior, seguramente de zahorra fina, que desapareció por la erosión y la propia reconstrucción de la vía. En esta primera fase la calzada contaba con una anchura de 4,10 m.

Este núcleo interno perteneciente al trazado primitivo fue convenientemente aprovechado como base constructiva durante la reconstrucción de la vía, que consistió en repavimentar la banda de rodadura *(summa crusta)* mediante el aporte de una gruesa capa de zahorra fina. El espesor de esta nueva pavimentación hace que la vía presente pequeños taludes en sus laterales. Durante esta segunda fase constructiva se dotó también a la vía de unas fosas laterales excavadas en la roca, son los denominados *sulci* característicos de las vías interurbanas del mundo romano y cuya misión es la de delimitar y definir el trazado, con anterioridad a la propia construcción. Pero sin duda la transformación más significativa de esta segunda fase de la vía fue la ampliación de su calzada hasta los 6 m. de anchura.

No disponemos por el momento de unidades estratigráficas excavadas que nos permitan precisiones cronológicas sobre el momento en que se acometió la construcción de estas dos etapas iniciales de la vía, aunque su adscripción al período romano queda fuera de toda duda, sí tenemos en cuenta su relación con la disposición y distribución del resto de las construcciones detectadas en el asentamiento. Por el contrario, y de forma poco usual en este tipo de infraestructuras, sí disponemos ya de algún indicio cronológico que nos permite aproximarnos hasta las fechas más avanzadas en las que la calzada se encontraba todavía en uso.

ren ezaugarri morfologikoek antzinateko azken garaiko nekropoli ezagunetan aurkiturikoekin harremanetan jartzera eramaten gaituzte, eta behin-betiko azterketaren zain, bidean egindako konponketa bat gutxienez K.o. VI. mendearen bigarren erdialdean kokatzera bultzatzen gaituzte.

Konponketa hori egin eta gero, bideak suntsiketa partziala jasan zuen bere egituran, eta trazua hutsune handi batek eten zuen; hutsune hori lur kolorez iluneko betegarri batekin bete zuten, eta geroago bide berri bat eraiki zuten haren gainean. Bide berri honen trazuak eutsi egiten dio erromatarren garaiko bidearen norabideari, baina ez da haren gainean egokitzen, paraleloan baizik, aurrekotik zentimetro gutxi batzutan bereiziz. Logikoa denez, gainazalaren kotan egokitzen den egitura da, eta goldearen eraginez zeharo galdu da tarte txiki gutxi batzuetan izan ezik, estratigrafiaren lodiera handiagoak horretarako aukera eman duen tarteetan izan ezik. Nolanahi ere, bide honetatik gutxi gora-behera 15 metro kontserbatu dira aztarnategiaren erdialdean, eta haren aztarnak hautematen ere dira aztarnategiaren ipar-mendebaldeko muturrean; horrexek ematen digu, azken buruan, funtzioaren ikuspuntutik erromatarren garaiko bidearekin berdintzeko modua.

Bidearen hirugarren aldi honetan eraikiriko egitura askoz ere apalagoa da, eta besterik gabe, azpiko de-

Concretamente, la excavación de una de las reparaciones parciales, permitió recuperar sobre el pavimento una punta de lanza, una *framea*, cuyas características morfológicas permiten relacionarla con las halladas en conocidas necrópolis tardoantiguas y a falta del estudio definitivo, situar una reparación de la vía efectuada, como mínimo, en la segunda mitad del siglo VI d.C.

Con posterioridad a esta reparación la vía sufrió una destrucción parcial de su estructura, quedando interrumpido su trazado por un gran hueco rellenado, a su vez, por un depósito de tierras oscuras, sobre el que en un momento posterior se construyó un nuevo camino. El trazado de este nuevo camino mantiene la misma orientación que la vía romana, pero no coincide posicionalmente con la misma sino que discurre en paralelo, separándose de ella sólo unos pocos centímetros. Lógicamente, se trata de una estructura que se sitúa en una cota muy superficial y la acción del arado la ha hecho desaparecer por completo, salvo en las pocas zonas en las que la presencia de una mayor potencia estratigráfica ha permitido su preservación. A pesar de ello, conservamos de este camino aproximadamente 15 m. en la zona central del yacimiento y, también, se detecta su presencia en el extremo noroccidental del mismo, lo que en última instancia permite equipararlo funcionalmente a la vía romana.

La estructura construida de esta tercera fase de la vía es mucho más modesta y consiste, simplemente,



Mariturri. Bideak.

Mariturri. Vías de comunicación.

posituetan zuzenean egokituriko legar naturaleko geruza mehe bat da. Haren gainetik zirkulatzeko ahalmena ere murriztu egiten da, eta gehienez 2 metro zabal bihurtzen da. Kronologiari dagokionez, jasandako suntsiketa handiak eta egitura mota hauek adierazle kronologikorik ez izateak ez digute oraingoz zehaztapen handiak eskaintzeko paradarik ematen, baina ez dirudi huts handia egiten dugunik Goi Erdi Aroan kokatzen badugu, batez ere kontuan hartzen badugu VI. mende amaieran edo VII. mende hasieran erromatarren garaiko bidean artean halako konponketak egiten zituztela.

Vicus-a

Erromatarren garaiko herrixkako egiturak garatzen diren aldea aztarnategia iparraldetik hegoaldera igarotzen duen bideak zedarritzen du mendebaldetik, bidetik haratago ez baita egoitza egiturarik identifikatzen; hortaz, arestian deskribatutako bide bien bidegurutzeak zehazten du populatutako aldea. Mendebaldeko muturrari dagokionez, herrixkak ekialderantz egiten zuen eremua mugatzen duen errekarantz jaisten den mazela okupatuz. Aztarnategia ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen bide nagusiaren ardatza funtsezkoa da herrixkako «hiri» egiturarentzat, orain artean bereizitako eraikin nagusiak bidearen trazuaren arabera antolatzen baitira.

Herrixka mota honetan ohikoa denez, egiturek konplexutasun diakroniko handia erakusten dute, eta haien artean hainbat birmoldaketa, justaposizio eta amortizazio aldi bereiz daitezke. Nolanahi ere, eta sekuentzia konplexu hori laburbildu nahiz, erabilitako eraikuntza teknikek bereiziriko aldi handi biz mintza gintezke.

Aurreneko aldian oso apalak dira egoitza egiturak, ia harpeetako moldeko etxolak dira, zurezko paretak buztinez estaliak. Orain arte aldi honi dagozkion bi egitura baizik ez ditugu bereizi eta induskatu. Biak bide nagusiaren iparraldean daude, herrixkaren mendebaldeko muturrean, bideen bidegurutzetik oso gertu, goldearen eragina biziena izan den aldean; izan ere, bigarren aldi horri dagozkion eraikin gehienak desagerrarazi ditu, eta partzialki bada ere, etxolen egitura ukitu du.

Ondoen kontserbatutako etxolak, bietan handienak, oinplano laukizuzena du, 4 metro zabal eta, kontserbatutakoaren arabera, 10 metro luze. Norabideari dagokionez, hego-mendebaldetik ipar-ekialdera garatzen da, bide nagusiaren trazuaren perpendikularrean; bidetik metro gutxi batzuetara dago eta alde laburretako bat hari begira dago. Azalera oso horretan «etxola hondo» bat sortzeko induskatu zuten harria, ez ordea modu homogeneo batean, baizik eta aldapa txiki bat eratuz urak punturik beherenera bideratu zitezen eta, puntu horretatik eta erreten baten bidez, kanpoko aldera hustu zitezen. Etxolaren hegoaldeko fatxadan ez zuten harrian hainbeste induskatu, eta alde horretan

en una delgada capa de zahorrra natural asentada directamente sobre los depósitos inferiores. Su capacidad circulatoria también se reduce alcanzando una anchura máxima entorno a 2 m. Por lo que respecta a su cronología, su alto grado de destrucción y la falta de indicadores cronológicos que caracteriza a este tipo de estructuras, no permite por el momento grandes precisiones, aunque no parece arriesgado sugerir una datación centrada en la Alta Edad Media, sobre todo teniendo en cuenta que la vía romana todavía recibía cierto tipo de mantenimiento a finales del siglo VI o comienzos del VII.

El vicus

El área en la que se desarrollan las estructuras del poblado de época romana queda delimitada al oeste por la vía que recorre el yacimiento en dirección norte-sur, más allá del cual no se identifica ninguna estructura de habitación, lo que equivale a decir que es el cruce entre las dos vías descritas anteriormente el que señala el comienzo de la zona habitada. Desde ese límite occidental, el poblado se extendía hacia el este ocupando la ladera que desciende hacia el arroyo que limita el área. El eje viario principal, que cruza el yacimiento de este a oeste, también resulta absolutamente determinante para la estructura «urbana» del poblado, ya que las principales edificaciones descubiertas hasta el momento se ordenan en función de su trazado.

Como resulta habitual en este tipo de poblados las estructuras presentan una gran complejidad diacrónica, pudiendo reconocerse varias fases de remodelación, yuxtaposición o amortización entre ellas. No obstante, y tratando de sintetizar esta compleja secuencia, puede hablarse de dos grandes períodos diferenciados entre sí por las técnicas constructivas utilizadas.

El primer período se caracteriza por presentar estructuras de habitación muy modestas, cabañas semirrupestres con alzados lígneos revestidos de arcilla. Hasta el momento se han localizado y excavado únicamente dos estructuras correspondientes a esta fase. Ambas se sitúan al norte de la vía principal en la zona más occidental del poblado, muy cerca del cruce de las vías y donde la acción del arado ha sido más intensa, llegando a hacer desaparecer la mayor parte de las construcciones correspondientes a la segunda fase y afectando parcialmente a la estructura excavada de las cabañas.

La cabaña de mayor porte y mejor conservada tiene una planta rectangular de 4 m. de anchura y una longitud de la que conservamos 10 m., en cuanto a su orientación, mantiene una dirección suroeste-noreste prácticamente perpendicular al trazado de la vía principal de la que se sitúa a pocos metros y a la que ofrece uno de sus lados cortos. En toda esta superficie se talló la roca generando un «fondo de cabaña», pero no de forma homogénea sino creando una ligera pendiente que permitía dirigir las aguas hacia el punto más profundo para, desde allí, evacuarlas al exterior mediante una pequeña atarjea. El rebaje de la roca fue menor en la fachada meridional de la cabaña, zona en

gutxi gora-behera bi metro zabal zen harmaila bat eraiki zuten, etxolaren barruko aldea gela bitan banatu zutelako erakusgarri.

Perimetro osoan zehar zanga txiki bat ireki zuten eraikineko zurezko habe etzanei eta zutikoak ainguratzeko paldo-zuloei leku egiteko. Eraikinaren hormen izaeraren berri dugu suak kiskali zuelako eta sute horren hondakinen artean ikaztutako landare hondakin ugari eta buztinezko luzituen zatiak bereizi genituelako. Ezaugarri horiek guztiek ez dute egitura honen funtzioaren inguruan zalantzarik izateko paradarik eskaintzen; izan ere, Ebro ibaiaren Haranean erromatarren garaiaren aurreko herrixketan oso ezaguna eta arrunta den etxebizitza eredu baten aurrean gaude.

Ia harpeetako moldeko bigarren egitura deskribatutako etxolaren ekialdera dago, metro gutxi batzuetara; oinplano irregularra du, eta gainera zeharo eraldatua da ondorengo eraikuntzen eta goldearen eraginez. Norabide bera du eta, kurioski, arestian aipatutako sute berak kalteturik gertatu zen; hortaz, teknika berak erabilita eraiki zutela baiezta dezakegu. Funtzioari dagokionez, eta kontuan izanik oinaren irregulartasunak, itxura batean agerikoa da etxebizitza bat ez zena, baizik eta, seguru asko, aurreko etxolari lotutako biltegia; aukera horrek azalduko luke sute berak biak kaltetu izana eta bigarren etxolaren barruko aldean berreskuratutako hondakinen artean biltegiratzeko zeramika formak bereizi izana.

Egitura bietako pareta eta estalki zatiekin batera, zeramikazko, metalezko eta hezurrezko material kopuru handia eskaini zuen sutearen mailan bideratutako indusketak. Zeramikazko zatikiek eraikin biak amortizatu ziren unera hurbiltzeko kronologia eskaintzen dute. 29 eta 37b formako TSH ontzien nagusitasunak eta antzinako moldeko 37a formako ale bakarrak gure garaiko 80. urte ingurua iradokitzen dute, une horretan iritsi baitzuen bere maila gorena aipatutako formen produkzioak.

Induskatutako egiturak direla kontuan izanik, zailagoa da Mariturriko erromatarren garaiko herrixkako lehenengo etxebizitza hauek eraiki zituzten unera hurbiltzea; zeharkako aztarna batzuek, baina, leku honetan herrixka urte dezente lehenago sortu zutelako aukera aintzat hartzera behartzen gaituzte. Izan ere, aurkitutako txanpon batek, As batek, Calagurris-en, egungo Kalagorrin Augustoren garaian eginak, leku hau gure garaiaren I. mendearen aurreneko hamarraldietarako populatua zegoela iradokitzen du.

Sutearen ostean finkamendua berreraiki egin zuten teknika ohikoagoak erabiliz. Eraikinek kareharrizko hartxabalez egindako zokaloak zituzten eta haien gainean hormak eraiki zituzten, adobezkoak, eta gehienetan paretak. Eraikin hauetako teilatuek ere hobekuntza nabariak ageri dituzte bigarren eraikuntza aldi honetan, teila kurbatuak *(imbrices)* eta, neurri apalagoan, teila la que se creó un pequeño escalón de aproximadamente dos metros de anchura, elemento que evidencia una subdivisión interna en dos habitaciones.

En todo su perímetro se talló una pequeña zanja, destinada a acoger durmientes de madera, y diversos agujeros de poste en los que se anclaban los pies derechos de la estructura. Conocemos la naturaleza de sus alzados gracias a que se incendió y entre los restos de dicho incendio pudieron reconocerse gran cantidad de restos vegetales carbonizados así como fragmentos de enlucidos de arcilla. Todas estas características no dejan lugar a dudas sobre la funcionalidad de esta estructura, ya que nos encontramos con un modelo de vivienda bien conocido y muy abundante en los poblados prerromanos del Valle del Ebro.

La segunda de las estructuras semirrupestres se encuentra a pocos metros al este de la cabaña descrita y presenta una planta irregular que, además, ha sido fuertemente alterada por construcciones posteriores y por la acción del arado. Mantiene la misma orientación y, curiosamente, también fue afectada por el mencionado incendio, lo que nos permite asegurar que se construyó utilizando las mismas técnicas. Por lo que respecta a su función, habida cuenta de la irregularidad de su planta parece claro que no se trataba de una vivienda sino, probablemente, de un almacén asociado a la cabaña anterior, posibilidad que explicaría la coincidencia del incendio y la presencia de formas cerámicas destinadas al almacenaje entre los restos recuperados en su interior.

Junto con los fragmentos de las paredes y cubiertas de estas dos estructuras, la excavación de los niveles de incendio proporcionó gran cantidad de materiales cerámicos, metálicos y óseos, destacando sobre todo los primeros ya que permiten una aproximación cronológica al momento en el que ambas construcciones fueron amortizadas. El predominio de vasos de TSH de la forma 29 y 37b y la presencia de un único ejemplar de 37a de tipo antiguo sugieren una datación entorno al año 80 de nuestra era, momento en el que la producción de dichas formas alcanzó su mayor apogeo.

Teniendo en cuenta que se trata de estructuras excavadas, resulta más difícil proponer una aproximación cronológica sobre el momento en el que se asentaron estas primeras viviendas del poblado romano de Mariturri, si bien algunos indicios indirectos obligan a considerar la posibilidad de que la población surgiera en este lugar bastantes años antes. Concretamente, la aparición de una moneda, un As, acuñado en *Calagurris*, la actual Calahorra, en época de Augusto, sugiere que este lugar se hallaba habitado ya en las primeras décadas del siglo I de nuestra era.

Tras el incendio, el asentamiento se reconstruye utilizando técnicas más habituales. Se trata de construcciones provistas de zócalos levantados a base de lajas calizas sobre los que el muro se construía a base de adobe o, más frecuentemente, tapial. Las cubiertas de estas edificaciones también presentan mejoras en esta segunda fase constructiva, con la inclusión de te-

lauak *(tegulae)* erabili baitzituzten. Aldi honetan ere adreilua erabili zuten eraikuntza material gisa, eta *bessalis* moldeko adreiluak dokumentatu ditugu, oinaren 2/3-ko pieza koadroak, oso erabiliak erromatarren garaiko eraikinetako berokuntza sistemen, *hypocastum*, eraikuntzan. *Vicus* honetan bereiziriko terma txiki batzuen edo berokuntzaz hornituriko gela batzuen presentzia berretsi egiten du aurkitutako zeramikazko ziriak; ziri horrek berokuntza esparruko gelen alboetako hormetan kamara bat sortzeko balio zuen, eta kamara horretan barna zirkulatzen zuen aire berotuak.

Herrixkaren bigarren aldi honetan egiaztatzen den beste kontu garrantzitsu bat da espazioaren aprobetxamendu handiagoa, eraikinen arrastoak bidegurutzetik bertatik ageri baitira ondoz ondo, bide nagusiaren ipar-mendebaldetik hego-ekialderako trazuaren ondoko espazio osoa harturik. Aztarnategiaren goiko partean bigarren aldiari dagozkien egiturek jasandako narriadura handiak zeharo galarazten du oin osoak bereizi ahal izatea, eta ondorioz, deus gutxi esan dezakegu herrixkaren bigarren aldi honetan zehar alde honetan egokitu ziren egituren banaketaren eta funtzioen inguruan. Nolanahi ere, aurrekariak kontuan baditugu, orokorrean etxebizitza izaera dutela esan beharra dago. Inolaz ere, eraikin konplexuagoak dira, eta finkamenduaren hasierako aldiari begira deskribatutakoaren aldean, askoz ere garatuagoa da giroen aniztasuna; konplexutasun horretan dudarik ez dago erromatarren munduak berezko dituen ereduen eragina handiagoa dela.

Ekialdeko mazelan behera egin ahala, pixkana-pixkana, egiturak hobe kontserbatzen dira, eta bertan herrixkako egiturek konplexutasun handiagoa dutela agerian geratzen da. Egitura horien artean aipagarria da bide nagusiaren paraleloan zegoen eraikin bat; orain arte 18 metro luze eta 10 metro zabal identifikatu dira eraikin horretatik.

Herrixkaren bigarren aldi honen kronologiari dagokionez, antza denez etxola egoitzen habitataren aldia suntsitu eta amortizatu zen unea igaro eta berehala hasi zen, baina aldiaren azkena artean ezinezkoa da zehazten irekitako eremuaren mugak gainditzen dituelako.

Abereentzako eremua

Abereentzako eremua deritzoguna ere bide biek mugatzen dute. Bidegurutzearen mendebaldean dago, eta halatan, erromatarren garaiko habitataren harresiz kanpokotzat esan genezakeen aldea hartzen zuen. Eremu zabal honetan orain arte bi egitura ezberdin dokumentatu dira. Egitura horiek, ezbairik gabe, finkamendu honetan garatzen zen abeltzaintzarekin dute zerikusia.

Lehenengo egitura 2002. urtean aurkitutako barruti *(saepes)* handi bata da; bertan ez dugu aurtengo kanjas curvas *(imbrices)* y en menor medida teja plana *(tegulae).* También se introduce en este momento el ladrillo como material constructivo, documentándose concretamente la presencia de ladrillos *bessalis*, piezas cuadradas de 2/3 de pie frecuentemente utilizados en la construcción de los sistemas de calefacción, *hypocaustum*, del mundo romano. La presencia de unas pequeñas termas o, al menos, de habitaciones provistas de calefacción en este *vicus*, vendría avalada, además, por el hallazgo de una clavija cerámica, pieza que servía para crear cámaras *(concamerationes)* en los muros laterales de las estancias calefactadas por las que circulaba el aire caliente.

Otra cuestión importante que se evidencia en esta segunda fase del poblado es un mayor aprovechamiento del espacio, ya que los restos de construcciones se suceden desde el mismo cruce de las vías, ocupando todo el espacio inmediato al trazado noroeste-sureste de la vía principal. La gran degradación sufrida por las estructuras correspondientes a esta segunda fase en la zona alta del yacimiento, hace imposible reconocer plantas completas y, de esta forma, es muy poco lo que podemos definir con claridad sobre la distribución y las diferentes funciones de las estructuras que en esa zona se asentaron durante la segunda fase del poblado, aunque teniendo en cuenta sus antecedentes parece necesario reconocer en ellas el carácter genérico de viviendas. Son, en cualquier caso, edificaciones más complejas y que presentan una diversidad de ambientes mucho más desarrollada que lo descrito para la etapa inicial del asentamiento, complejidad en la que parece obvio subrayar una mayor influencia de los modelos propios del mundo romano.

El descenso de la ladera oriental, poco a poco, nos permite una mejor conservación y en ella las estructuras del poblado se conservan en un estado en el que, al menos, pueden definirse con seguridad estructuras más completas, destacando entre ellas una edificación paralela a la vía principal de la que, hasta el momento se han reconocido más de 18 m. de longitud por algo más de 10 m. de anchura.

En cuanto a la cronología de esta segunda fase del poblado, su comienzo parece inmediato al de la destrucción y amortización de la fase del hábitat de cabañas, pero su final resulta todavía imposible de precisar al superar los límites del área abierta.

La zona ganadera

La zona que denominamos ganadera también queda delimitada por las dos vías, situándose al Oeste del punto en el que se produce el cruce de las mismas y ocupando, de esta forma, un área que podríamos denominar extramuros con respecto al hábitat de época romana. En esta extensa área se han documentado hasta el momento dos estructuras diferentes que hay que poner en relación, sin lugar a dudas, con la actividad ganadera que se desarrollaba en este asentamiento.

La primera estructura es el gran recinto *(saepes)* descubierto en el año 2002, en el que no se ha inter-

painan jardun. Edozein kasutan, inguruetan bobidoen hezur hondakin ugari bereizi genituen, batzuk lotura anatomikoan. Datu analitikoak aintzat harturik, bere garaian egitura honi begira proposatutako funtzioa behin-betikoz berresten dela ematen du.

Abeltzaintza jarduerarekin zerikusia duen bigarren elementua aztarnategiaren ipar-mendebaldeko muturrean dago, eta harriekin eraikiriko egitura bat da, zanga batek mugatutako espazio lauangeluarrak inguratuta. Kareharrizko zokalo txiki bat da, gutxi gora-behera 4 metro luze, eta muturretan material berberaz eraikiriko berme zirkularrak egokitzen dira. Funtzioari dagokionez, eraikin bateko basamentua dela ematen du, seguru asko zurezko hormak izango zituen eraikinekoak. Aurretik irekita izango zuen espazio txiki bat estaliko zuen, eta morfologia horrek soilik erromatarren garaian aurkitzen du parekorik, baita Italia eta Britanniako landa herrixka eta baserrietan dokumentaturiko ukuilu batzuetan ere. Era berean, formaz eta funtzioz antzekoak diren egiturak identifikatu daitezke ia gure garaira arte iraun duten artzaintza inguruetan. Egitura txiki hau gutxi gora-behera 9 metro luze eta 6 metro zabal den espazio laukizuzen baten erdialdean dago, gutxi gorabehera 0,5 metro zabalerako perimetroko zanga batek argi eta garbi zehaztuta. Barruko aldean deposizio osteko higadurak desagerrarazi egin du jatorrizko depositu arkeologikoaren parte handi bat.

Konklusioak

Mariturriko aztarnategiak eskainitako historia-arkeologia informazioa oso aberatsa da nahiz eta agerian utzitako egituren monumentaltasuna apala izan oso. Informazio horrek historiaren alderdien arku zabala hartzen du, baina oraingoz ezin ditugu horietako asko zehaztu.

Bideei dagokienez, aztarnategia ekialdetik mendebaldera alderik alde igarotzen duen bidea, kontuan izanik bere ibilbidea eta ezaugarri teknikoak, Iberiar Penintsularen iparraldeko erromatarren garaiko bide garrantzitsu baten, Antoninoren Ibilbidearen *De Hispania in Aequitania*, *Ab Asturica Burdigalam, Iter XXXIV* delako bidearen trazuaren atala izatea da konklusio garrantzitsuena. Prestamerok jada aipatzen du aukera hori eta baliteke Mariturriren inguruetan artean bide horren atala ikusteko aukera izana, baina ezinezkoa dena da ezagutu zuena erromatarren garaiko bidea ala Goi Erdi Aroko bidea ote zen berrestea, bigarrenaren kokalekua aintzat harturik logikoki errazagoa izango baitzen une artan errazago ikusi ahal izatea.

Hain zuzen ere Goi Erdi Aroko bide hori aintzat hartzen du planteatu daitekeen bigarren konklusioak; izan ere, erromatarren garaiko bidearen trazuari eutsirik egiteko bera, edo gauza bera dena, une hartan bide nahenido en la presente campaña. No obstante, sí se han recuperado en su entorno abundantes restos óseos, algunos en conexión anatómica, pertenecientes a bóvidos, lo que, conjuntamente con los datos analíticos, parece confirmar definitivamente la función propuesta en su día para esta estructura.

El segundo de los elementos relacionados con la actividad ganadera se sitúa en el extremo noroeste del yacimiento y consta de una pequeña estructura construida en piedra rodeada de un espacio cuadrangular delimitado por una zanja. La mencionada estructura, consiste en un pequeño zócalo de lajas de caliza, de aproximadamente 4 m. de longitud, ante cuyos extremos se sitúan dos apoyos circulares construidos con el mismo material. En cuanto a su función, parece claro que se trata del basamento de una construcción, muy probablemente con alzados de madera, que permitía cubrir un pequeño espacio completamente abierto en su frente, morfología que únicamente encuentra similitudes en el período romano con algunos pesebres documentados en poblados y granjas rurales de Italia y Britannia. También es posible identificar estructuras similares en forma y función que han pervivido casi hasta nuestros días en entornos pastoriles. Esta pequeña estructura se encuentra situada aproximadamente en el centro de un espacio rectangular, de 9 m. de longitud por 6 m. de anchura, claramente marcado por la presencia de una zanja perimétrica de aproximadamente 0,5 m. de anchura. En su interior la erosión postdeposicional ha hecho desaparecer buena parte de los depósitos arqueológicos originales.

Conclusiones

La información histórico-arqueológica proporcionada por el yacimiento de Mariturri puede calificarse de muy rica, pese a la modestia monumental de los restos exhumados. Dicha información abarca un variado abanico de aspectos históricos, muchos de los cuales apenas podemos esbozar en el momento actual.

En cuanto a las vías, la conclusión más importante es que la gran calzada que atraviesa el yacimiento de este a oeste, habida cuenta de su recorrido y características técnicas, no es sino parte del trazado de una de las vías romanas más importantes del norte de la Península Ibérica, la denominada *De Hispania in Aequitania*, *Ab Asturica Burdigalam* en el Itinerario de Antonino, la *Iter XXXIV*. Prestamero ya hace referencia a esta posibilidad y es posible que llegase a ver todavía parte de la vía en las inmediaciones de Mariturri, pero lo que no es posible confirmar es sí realmente reconoció la vía romana o en realidad se refiere al camino altomedieval que, por su posición resultaría lógicamente más visible en ese momento.

Es precisamente a ese camino altomedieval al que se refiere otra de las conclusiones que pueden plantearse, ya que al perpetuar el trazado de la vía romana cabe imaginar que cumpliese la misma misión, o lo

gusiarenak beteko zituela, imajina liteke. Hipotesi honi eusten badiogu, kontserbatutako bidearen metro gutxi horiek Araba alderik alde igarotzen zuen Santiago Bide zaharraren atal batekin identifikatu litezke. Horrek, bide batez, partzialki aldatuko zituen orain arte Bide horri begira proposatu diren trazuak.

Era berean, garrantzitsua da oso aztarnategia iparraldetik hegoaldera igarotzen duen erromatarren garaiko bidea, komunikazio sare garatuaren erakusgarri eta, horrenbestez, ongi egituratutako herrixkaren antolakuntzaren erakusgarri. Gure kasuan, dudarik ez dago sare horrek populatutako herrixken kokalekuak aukeratzeko orduan izandako eragina handia izan zela, argi baitago Mariturriko *vicus*-a gune horretan gertatzen zen bidegurutzearen balio estrategikoa aprobetxatzeko sortu zela.

Herrixkako egiturei dagokienez, esan dezagun aurreneko aldiko zurezko etxolak egiazki elementu bitxi direla, ez baitira oso ugari mota honetako egiturak aurkezten dituzten Goi Inperio aldiko finkamenduak. Gainera, erromatarren garaiko *Hispania*-ri bagagozkio, Mariturriko etxolak mota honetako lehenak lirateke.

que es lo mismo que fuese el eje viario principal en ese momento. Aceptando esta hipótesis, cabría identificar los pocos metros de camino conservados con un fragmento del primitivo Camino de Santiago que atravesaba Álava, lo cual, de paso, modificaría parcialmente los trazados que para el mismo se han propuesto hasta ahora.

No menos importante resulta el reconocimiento del camino romano secundario que atraviesa el yacimiento de Norte a Sur y que nos evidencia una red de comunicaciones desarrollada y, por ello, de una organización del poblamiento bien estructurada, resultando obvio en nuestro caso la influencia que esa red tuvo en la ubicación de los núcleos habitados, puesto que parece claro, que el *vicus* de Mariturri surge precisamente para aprovechar el valor estratégico del cruce de caminos que se producía en este punto.

En lo referido a las estructuras del poblado, cabe señalar en primer lugar que las cabañas de madera correspondientes a su primera fase constituyen un elemento ciertamente singular, ya que no son muy abundantes los asentamientos de época altoimperial romana que presentan este tipo de estructuras y si nos referimos exclusivamente a la *Hispania* romana las cabañas de Mariturri, también serían las primeras de este tipo en documentarse.



Mariturri. *Vicus*-eko barrutiak.

Mariturri. Recintos del *vicus*.

Mariturriko *vicus*-eko lehenengo aldiko etxolak beste lekuetan dokumentatuetatik bereizten dira oinean dituzten ezaugarri bereziengatik. Hemen, bizi zen garaia izan arren, bertako jatorrizko ereduaren araberako etxearen eredua aukeratu zuten. Eta hori harrigarria da kontuan badugu etxeko tresneria, batez ere erromatarren garaiko baxera. Kontraste hau *vicus*-eko biztanle batzuen artean erromatarren kultura artean erabat nagusitu ez zelako erakusgarri da.

Herrixkaren bigarren aldiari dagokionez, bidearen bazterretan metaturiko etxeek eta eraikin konplexuek isla garbia dute Inperioko probintzia batzuetako bide garrantzitsuetan barna altxatzen diren *vicus* ugarietan.

Erromatarren munduan abeltzaintzak izandako garrantzi ekonomikoa orain arte nabarmendu duten lan guztietan iritzi komun bat aurkitzen dugu: artzaintza jarduera arkeologikoki dokumentatzeko zailtasun aparta. Ez da gehiegikeria bat, ez dira ohikoak antzinaroko ekonomiaren kapitulu nagusi horren inguruko lekukotasun materialak.

Mariturriko abereentzako barrutiei dagokienez, oso bereziak direla esan beharra dugu, ahalik eta zehatzen dokumentatu beharra daude, egiazki oso gutxi direlako ez soilik Iberiar Penintsulan, baita erromatarren mundu osoan ere. Idatzizko iturriei esker pentsa dezakegu itxitura mota hauek erromatarren garaian ganadua merkaturatzeko eta hazteko erabiliko zituztela, eta kasu honetan ardiak egoteko eta edukitzeko.

Las cabañas de la primera fase del *vicus* de Mariturri presentan en su planta unos rasgos particulares que las diferencian de las documentadas en otros lugares. Aquí, a pesar de las fechas en las que nos movemos, se eligió un modelo de casa de raigambre puramente indígena. Este hecho resulta bastante sorprendente sí tenemos en cuenta el ajuar con el que contaba la casa, sobre todo vajilla de mesa plenamente romana, contraste que sólo encuentra explicación en un grado de penetración de la cultura romana todavía incompleto entre algunos de los habitantes del *vicus*.

En cuanto a la segunda fase del poblado, su urbanismo agolpado en los márgenes de la vía o sus complejas edificaciones encuentran un reflejo claro y evidente en los numerosos *vicus* situados a lo largo de las vías importantes de algunas provincias del Imperio.

En todos los trabajos que, hasta la fecha, se han dedicado a destacar la importancia económica de la explotación ganadera en el mundo romano, puede encontrarse una opinión común: la enorme dificultad de documentar arqueológicamente la actividad pastoril. No se trata de una exageración, los testimonios materiales sobre ese importante capítulo de la economía antigua no son demasiado frecuentes.

Respecto de los recintos ganaderos de Mariturri queremos llamar la atención sobre su excepcionalidad y la necesidad de documentarlos con la mayor precisión posible, puesto que se trata en realidad de construcciones sumamente escasas, no ya en la Península Ibérica sino en todo el mundo romano. Podemos suponer, gracias a las fuentes escritas, que este tipo de cercados cumplía un papel básico en la cría y comercialización del ganado en época romana, y que, en este caso, se dedicaban a la guarda de ganado bovino.

Julio Núñez Marcén; Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez; José M. Martínez Torrecilla

D.1.2. *ZUNDAKETAK*

D.1.2.1. **N-I Autobidea: Trebiñuko Konderriko atala (Aramiñon, Argantzun, Villanueva de Oca, Iruña Oka)**

Zuzendaritza: Carmen Alonso Fernández
Finantzazioa: Sustapen Ministerioa eta Arabako Foru Aldundia

D.1.2. *SONDEOS*

D.1.2.1. **Autovía N-I: Tramo Condado Treviño (Armiñón, La Puebla de Arganzón, Villanueva de Oca, Iruña de Oca)**

Dirección: Carmen Alonso Fernández
Financiación: Ministerio de Fomento y Diputación Foral de Álava

The construction of the stretch of the N-1 motorway called «Legua del Rey» which links Armiñón and Iruña de Oca (Álava) with the County of Treviño and La Puebla de Arganzón (Burgos), has enabled us to document the existence of at least seven enclaves which lie within the planned route. Archaeological sondages were carried out in six of the sites inventoried during the prior prospecting work, and further intervention was initiated in three of these, namely: Mohabe, Arreto/La Revilla and La Erilla. Furthermore, the archaeological monitoring project carried out from the start of the work has resulted in emergency intervention in two new enclaves, one linked to the Mohabe site and the other being a completely new site called El Arroyo. The interventions carried out have guaranteed the adequate documentation of the archaeological heritage contained in the sites, without needing to modify the road construction project. An interesting representation of sites from a number of different eras was documented.

Sarrera

Sustapen Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak sustaturiko «Legua del Rey» edo «Trebiñuko Konderria» izeneko N-1 Autobideko atala eraikitzeko proiektuaren exekuzioak aldez aurreko jarduera arkeologikoen multzo bat eskatzen zuen. Jarduera horiek 2001ean bideratutako miaketa arkeologikoen emaitzen, argitalpen honetan (Misiego, J.C. eta Redondo, R., 2001:258-264) plazaratu ziren emaitzen arabera bideratu dira.

Atala 9,5 km luze da, eta Estabilloko (Aramiñongo udalerria, Araba) herrian du abiapuntua, Burgosko probintziaren mugetatik hurbil. Miranda-Trebiñuko sakonunetik aurrera egiten du Burgosko administraziopeko Burgeta (Trebiñuko Konderriko udalerria) eta Argantzun eta Villanueva de Oca (Argantzuneko udalerria) herrietan barna, berriro ere Arabako herrialdean sartzeko, Langraitz Okan (Iruña Okako udalerria), Las Conchas de La Puebla izenaz ezagutzen den Zadorra ibaiko amildegia gainditu ondoren.

Memoria honetan aurkezten diren indusketa arkeologikoen interbentzioak Mohabe, Las Canteras/San Juan, Arreto/La Revilla, Barcinas, La Paúl II eta La Erilla aztarnategietan, hainbat miaketetan hautemandako aztarnategietan, garatutako zundaketa arkeologikoei eta 2003ko uztailean obrak hasi zirenetik garatzen ari garen kontrol eta jarraipen arkeologikoei dagozkie. Lanotan beste bi aztarnategi identifikatu dira: bata Mohabe aztarnategiaren luzapena da eta bestea, guztiz berria, El Arroyo izenekoa.

Introducción

La ejecución del proyecto de construcción del tramo de Autovía N-1 denominado «Legua del Rey» o «Condado de Treviño» promovido por el Ministerio de Fomento y la Diputación Foral de Álava ha requerido de un conjunto de actuaciones arqueológicas previas, que se han desarrollado de acuerdo a los resultados de la prospección arqueológica llevada a cabo en 2001 y cuyos resultados fueron publicados en este medio (Misiego, J.C. y Redondo, R., 2001: 258-264).

El tramo posee 9.5 km. de longitud, y parte de la localidad de Estavillo, T.M. de Armiñón (Álava) próximo al límite provincial con Burgos, desarrollándose por la depresión de Miranda-Treviño por las localidades burgalesas de Burgueta (T.M. de Condado de Treviño) y La Puebla de Arganzón y Villanueva de Oca (T.M. de La Puebla de Arganzón), para concluir de nuevo en territorio alavés, en Nanclares de Oca (T.M. de Iruña de Oca) una vez salvado el desfiladero del río Zadorra conocido como Las Conchas de la Puebla.

Las intervenciones de excavación arqueológica que se desarrollan en la presente memoria corresponden a los trabajos de sondeos arqueológicos llevados a cabo en los yacimientos Mohabe, Las Canteras/San Juan, Arreto/La Revilla, Barcinas, La Paúl II y La Erilla, identificados en prospección, y al resultado del control y seguimiento arqueológico que se viene realizando desde el inicio de las obras en julio de 2003, donde se han identificado dos nuevos enclaves: uno, correspondiente a la extensión del yacimiento Mohabe, y otro inédito denominado El Arroyo.

Zundaketa arkeologikoak

Obrei ekin baino lehen zundaketa arkeologiko batzuk egin ziren aztarnategi bakoitzaren potentzial arkeologikoa zehazteko eta proiektuak miaketetan identifikatutako sei guneetan izan zezakeen eragina mugatzeko eta neurtzeko xedean. Gune horiek guztiak Gaztela-Leongo lurraldean kokatzen dira, eta kasuren batean Arabako herrialdearen mugetatik hurbil. Aurkientza horietatik ia guztiak nekez zehazta daitezke azaleraren aldetik, berreskuratutako materialak eskasak direlako eta ez esanguratsuak, eta aurreko miaketetan bildutako albisteak askotan kontrakarrean daudelako. Obrek ukituko zuten aldean bideratutako zundaketa arkeologikoen emaitzek aukera eman zuten Las Canteras/San Juan, Barcinas eta La Paúl II aztarnategietan geruza estratigrafiko emankorrak bereizteko. Horietan guztietan testuingurutik at zeuden materialak bereizi genituen, historiaurrekoak, erromatarren garaikoak eta aro modernokoak; autobide berriaren eraginpeko eremuan kontzentrazio gunerik ez dagoela adierazten dute, edo erabat nahasita daudela. Aitzitik, ukitu gabeko maila arkeologiko emankorrak identifikatu genituen Mohabe, Arreto/La Revilla eta La Erilla aztarnategietan. Ondorioz, ukitutako eremua zabaleran induskatu genuen, eta jarraian azaltzen ditugu emaitzak.

Kontrol eta jarraipen arkeologikoa

2003ko uztailean lur mugimenduak hasi zituztenetik, bide atalean zehar egindako kontrolek halako interes arkeologikoko gune berri biren aurkikuntza eragin zuten, indusketa interbentzio osagarriak egitea eskatu zutenak. Lehenengoa Estabillon dago, Burgosko mugetatik hurbil, eta Mohabe aztarnategiaren luzapen kronologikoa eta espaziala da. Bigarrena, Villanueva de Ocako (Burgos) Elizaren ondoko errekaren ondoan dago, eta El Arroyo deituriko harrizko bide bat da.

Mohabeko aztarnategia (Burgeta, Burgos eta Estabillo, Araba)

Lehenengo miaketa baten arabera, egungo N-1 errepidearen adar bien artean mugatutako aurkientza txiki bat da, bereiztu gabeko aztarnategi bati dagokiona, kronologikoki Kalkolitos arokoa izan daitekeena, gutxi gora-behera 0,80 ha-ko azalerarekin, Teso de San Juan delakoaren ipar-mendebaldeko mazelaren beheko partean, Burgetako herrian. Burura eramandako hamar zundaketetatik bakar batek eskaini zituen emaitza positiboak; hartan historiaurreko zanga bat bereizi genuen, egungo N-1 errepidearekin lotutako azpiegiturek nabarmen kaltetua.

Burgos aldean gutxi gora-behera 375 m^2-ko azaleran (A Eremua) bideratutako indusketan espazio honen okupazio aldi bi dokumentatu ditugu: bata, kanpai-for-

Sondeos arqueológicos

Con carácter previo al inicio de las obras, se realizaron un conjunto de sondeos arqueológicos para determinar el potencial arqueológico de cada yacimiento, y delimitar y evaluar el nivel de afección que el proyecto representaba sobre los seis enclaves identificados en prospección, ubicados todos ellos en territorio castellano-leonés y en algún caso próximo a la divisoria provincial con Álava. En casi todos los enclaves, su delimitación en superficie resultaba imprecisa como consecuencia de la escasez e inexpresividad de los materiales recuperados y por noticias contradictorias recogidas en prospecciones anteriores. Las resultados de los sondeos arqueológicos llevados a cabo en la zona de afección real de la obra permitieron descartar horizontes estratigráficos fértiles en los yacimientos Las Canteras/San Juan, Barcinas y La Paúl II, identificándose en todos ellos materiales descontextualizados de cronologías prehistóricas, romanas y modernas, que indican la ausencia de zonas de concentración en el área de afección de la nueva autovía o su completa alteración. Por el contrario, se identificaron niveles arqueológicos fértiles sin alteración en los yacimientos *Mohabe, Arreto/La Revilla y La Erilla que dieron paso a la excavación en extensión del área* afectada, y cuyos resultados se desarrollan en detalle.

Control y seguimiento arqueológico

Desde que en julio de 2003 se iniciasen los movimientos de tierras, los controles realizados a lo largo de la traza han deparado en el hallazgo de dos nuevos puntos de interés arqueológico que han suscitado intervenciones complementarias de excavación. El primero, situado en Estavillo y próximo a la divisoria provincial con Burgos, que representa una extensión cronológica y espacial del yacimiento Mohabe. El segundo, ubicado junto al río de la Iglesia en Villanueva de Oca (Burgos) consistente en un camino empedrado denominado El Arroyo.

Yacimiento Mohabe (Burgueta, Burgos y Estavillo, Álava)

Según la prospección previa, se trata de un pequeño enclave embutido entre los dos ramales de la actual carretera N-1, correspondiente a un yacimiento sin diferenciar de una posible cronología Calcolítica, de unas 0,80 ha de extensión y ubicado en la zona baja de la ladera noroccidental del Teso de San Juan, en la localidad de Burgueta. Únicamente uno de los diez sondeos arqueológicos realizados deparó en resultados positivos, identificándose parte de una zanja prehistórica severamente alterada por infraestructuras relacionadas con la actual carretera N-1.

La excavación en extensión sobre una superficie aproximada de 375 m^2 en el área burgalesa (Zona A) ha permitido documentar dos momentos diferentes de

men aurreko Kalkolitos aroko egoitza alde bat da, egitura negatiboak dauzkana; eta besteak, nekazaritza izaerako egitura positibo batzuk biltzen ditu, kronologiaz aro modernokoak edo gure garaikoak, historiaurreko okupazioa nabarmen kaltetu dutenak. Bestalde, kontrol arkeologikoak hiru egitura negatibo eta aztarnategi honen historiaurreko okupazioari lotutako harrizko industriaren tailer bat dokumentatzeko parada eskaini zigun Arabako Estabillon (B Eremua). Elementu hauek harreman espaziala eta kronokulturala dute Burgosko aldean dokumentatuekin.

Aro modernoko edo aro garaikideko egitura positiboak bertan «erreten» esaten dietenak dira; iturrietatik etorritako urak kanalizatzeko sistemak dira, eskualde honetan ugari direnak, eta ur-emari txikiak zorupetik bideratzeko aukera ematen dute gisa horretan laborantza lurrak urpean gera ez zitezen. Eraikuntzaren ikuspuntutik, substratu geologikoan aldez aurretik induskatutako zanga batean barna garatzen dira egitura hauek. Eskualdean «cubija» esaten dieten gaineko estalkiekin, hartxabal handiekin, «tizón» edo zeharkako deituriko alboetako beste batzuen gainean egokituekin, osatzen da erretena; hartxabalen artean osatzen den bidean barna ibiliko dira urak husten diren erreka nagusietara iritsi bitartean. Erreka hauek izen berezien jabe dira. Egiturak, eraiki eta gero, berriro ere zorupean egokitzen dira gainazaleko laborantza lurrak landu ahal izateko, aldez aurretik hartxabalen arteko hutsarte txikiak eta arraildurak harri txikiagoekin zigilatuz erretena bete ez zedin. Burgetako herrian aurkikuntza hauen dokumentazioa osatzeko xedean egindako ahozko inkestak adierazten du erretenak eskuarki irailean altxatzen zirela barrutik garbitzeko eta kalteturiko estalkiko eta alboetako harriak berritzeko, uda partea eta iturri nahiz lurren lehorra aprobetxaturik.

Ongien kontserbatutako egitura biek antzeko garapena erakusten dute ukitutako eremu osoan. Elkarrengandik 2-2,30 metroko tartera daude, eta hein handi batean aldez aurretik altxatutako goldearen eraginpeko maila adierazten duen «0 kotatik» –40/45 cm-ra ageri dira. Luzeran garatzen dira, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera, mazelaren kotari eusten diote, eta azkeneko partean mendebaldera egiten dute 140°-ko inflexio apalaren bidez. Halatan, ura desnibel naturalean barna isurtzea eta metro gutxi batzuk aurrerago hustuketa kontrolpean edukitzea bermatzen zen, bihurgune ireki batez diseinaturiko inflexioa, emari handiagoko garaietan uholdeak saihesteko itxuratua, gainditu eta gero.

Bestalde, nola Burgosko hala Arabako lurraldean dokumentaturiko sei egitura negatiboak, espazioan desartikulatuta dauden arren, une kronokultural berean sailkatu daitekeen historiaurreko okupazio baten parte

ocupación de este espacio: uno, correspondiente al lugar de habitación enmarcado dentro de un horizonte Calcolítico precampaniforme, con presencia de estructuras negativas; y otro, correspondiente a diversas estructuras positivas de naturaleza agraria y cronología moderna/contemporánea que han afectado severamente la ocupación prehistórica. Por otro lado, el control arqueológico ha permitido documentar tres estructuras negativas y un taller de industria lítica asociados a la ocupación prehistórica de este yacimiento, pero situados ya en territorio alavés de Estavillo (Zona B), que mantienen relación espacial y cronocultural con los documentados en el sector burgalés.

Las estructuras positivas de adscripción moderna/contemporánea se corresponden con los localmente denominados «caños», que constituyen sistemas de canalización de aguas provenientes de fuentes y manaderos, ampliamente representados en la comarca, que permiten la conducción subterránea de pequeños caudales evitando de esta forma el encharcamiento de las tierras de cultivo. Desde el punto de vista constructivo, estas estructuras se desarrollan a lo largo de una zanja previamente excavada en el sustrato geológico, constituyendo una secuencia de grandes lajas encimeras denominadas en la comarca «cubijas», que se sustentan sobre otras dispuestas en sus laterales conocidas como «tizones»; la cámara que se configura entre unas y otras conforma un corredor por el cual circularán los caudales hasta las «cavas» o arroyos madre donde desaguan, los cuales se distinguen mediante nombres propios. Estas estructuras, una vez construidas, pasan a ser nuevamente soterradas para permitir de esta forma el cultivo de los terrenos de la superficie por donde discurren, calzando y sellando previamente las pequeñas oquedades y grietas existentes entre las lajas con piedras más menudas para evitar la colmatación de su corredor. La encuesta oral realizada en la localidad de Burgueta para complementar la documentación de estos hallazgos cita que, tradicionalmente, se levantaban los caños en el mes de septiembre para su limpieza interior, así como para la reposición de cubijas y tizones dañados, aprovechando el estiaje y la sequedad de tierras y fuentes.

Las dos estructuras mejor conservadas poseen un desarrollo paralelo en todo el área de actuación intervenida, manteniendo una distancia constante de unos 2-2,30 metros entre sí, y documentándose a –40/45 cm. de la «cota 0» correspondiente en gran medida al nivel de arada que se ha retirado previamente. Se desarrollan de forma lineal de NE a SO, manteniendo la cota de la ladera y derivando en su tramo final al oeste mediante una suave inflexión de unos 140°, garantizando de esta forma la escorrentía por el desnivel natural y su desagüe controlado unos metros más adelante, una vez superada la inflexión que ha sido diseñada mediante un giro suave y tendido para evitar rebosamientos en épocas de mayor caudal.

Por otro lado, las seis estructuras negativas documentadas tanto en territorio burgalés como alavés, a pesar de su desarticulación espacial, constituyen parte de una ocupación prehistórica encuadrable dentro de

dira. Funtzioaren ikuspuntutik, hiru tipologia ezberdinei erantzuten diete egiturok. Lehenengoa A Eremuan dokumentaturiko «zanga» bat da, gutxi gora-behera 13 m luze eta sakonera apalekoa, luzeran «erreten» batek eteten duena. Historiaurreko egitura mota honen funtzioak interpretazio askotarako bidea zabaltzen du, ura biltzeko eta gordetzeko kanalak izan daitezke, espazioak zedarritzeko egiturak izan daitezke eta baita zabortegiak ere. Zanga honen edukian material organiko eta ikatz asko bereizi genituen, aztarnategi honen kasuan zanga zabortegi gisa erabili zutela iradokitzen dutenak.

Bestalde, B Eremuko 1. Egitura «errekuntzarako egitura» bat da, tradizioz sutegi edo erretzeko labeekin lotutako tipologiari erantzuten diona. Egitura egokitu aurretik harriak egokitzen zituzten azpian oinarri geologikoa zuloaren hondotik zeharo isolatzeko. Egitura hauek eskuarki ez dira siloak eta zabortegiak bezain sakonak, material arkeologiko gutxi eskaintzen dute eta ehundura «koipetsuko» sedimentu beltza, barruan etenik gabeko erreketak izanaren ondorioz. Dokumentaturiko egiturak ezaugarri orokor horiek guztiak ditu, eta beraz, forma horretan interpretatzeko modua eskaintzen dute.

Bukatzeko «hobiek» osatzen dute gainerako egiturak; hobiok zabortegi edo hondakinentzako (fauna, zeramika, etab) depositu gisa erabili zituzten. Ez dakigu jatorrian zertarako eraiki zituzten, hein handi batean estratigrafia nahasita dagoelako.

Berreskuratutako materialei dagokienez, zeramikazko sorta eskasa da eta esangura apalekoa, ez dute kultura batera hurbiltzeko aukerarik ematen, ez dira ez elementu formalak ez dekoraziozkoak identifikatzen. Aitzitik, B Eremuan berreskuratutako haize zabaleko 17,49 m^2-ko tailer bati zegokion harrizko multzo interesgarriak 402 piezatako multzo interesgarria dokumentatzeko aukera eman du. Pieza hauek, nagusiki sukarria lantzekoak, ijeztadura teknikaz eginak dira, xaflen trunkaduraren bidezko tresnak; amaitutako elementu ugari dokumentatu dira. 30 xafletatik askok eta askok mikrolitismorako joera erakusten dute: 3 dortsoxaflak dira eta gainerakoak xafla bakunak. Harraskailuak dira tresna ugarienak, horietatik 10 frontalak, 3 zirkularrak, 1 dentikulatua eta 1 ojibazkoa. Gero burilak ageri dira, 9 pieza, alboetan aurpegiak dituztenak eta alboko planoa dutenak.; eta puntak, 6 bakun eta 2 dortsokoak, azken hauetako bat koartzitan landua. Bukatzeko 4 karraskagailu dokumentatu genituen, 2 alboetakoak eta 1 albokoa-zeharkakoa.

0+00 p.k.tik 0+180 p.k.ra bitarteko bide azpiegiturak ukituriko aztarnategia, kultura materialaren erregistroa dokumentatu eta berreskuratu eta gero, okupatu egin da eraikuntza proiektua aldatu edo mugatu behar izan gabe.

un mismo momento cronocultural. Desde el punto de vista funcional, las estructuras se corresponden con tres tipologías diferenciadas. Una primera, correspondiente a una «zanja» documentada en la Zona A, con un desarrollo aproximado de 13 m. y escasa potencia, que se encuentra afectada longitudinalmente por un «caño». La funcionalidad de este tipo de estructuras prehistóricas presenta diversas interpretaciones, pudiendo constituir canales de recogida y acopio de aguas, delimitadores de espacios e incluso basureros. El contenido de esta zanja presenta un elevado aporte de materia orgánica y de carbones, hecho que en el caso concreto del yacimiento apuntaría a un uso en este último sentido.

Por otro lado, la Estructura n.º 1 de la Zona B constituye una «estructura de combustión», tipología tradicionalmente asociada a hogares u hornos de cocción, caracterizadas por un acondicionamiento previo de su fondo mediante aportes intencionados de piedras que lo recubren en su totalidad, aislando de esta forma el soporte geológico del interior del hoyo. Normalmente estas estructuras presentan una potencia menor frente a silos y basureros, presentando escaso material arqueológico y un sedimento negro de textura «grasienta» producto de continuadas combustiones y exposiciones al fuego en su interior. La estructura documentada mantiene todas estos rasgos genéricos que permiten interpretarla de esta forma.

Finalmente, el resto de estructuras los constituyen «hoyos» cuya última finalidad ha sido su utilización como basureros o depósitos de desechos (fauna, cerámica, etc.) desconociéndose la finalidad con la que originalmente fueron concebidos, en buena medida como consecuencia de su alteración estratigráfica.

Respecto a los materiales recuperados, el lote cerámico resulta escaso e inexpresivo, no identificándose elementos formales ni decorativos que permitan un aproximación cultural más exacta. Sin embargo, el interesante conjunto lítico recuperado en la Zona B correspondiente a un taller al aire libre, en una superficie de 17.40 m^2, ha permitido documentar un interesante grupo de 402 piezas de industria principalmente extractiva sobre sílex, realizada a partir de la técnica de laminación, con utillaje mediante truncadura de láminas, donde se han documentado abundantes elementos terminados. De las 30 láminas, un buen número de ellas poseen tendencia al microlitismo: 3 son láminas de dorso y el resto láminas simples. El útil más abundante lo constituyen los raspadores, entre los que se encuentran 10 frontales, 3 circulares, 1 denticulado y 1 ojival. Le siguen los buriles, que ascienden a 9 elementos, de paños laterales y plano lateral; y las puntas, 6 simples y 2 de dorso, una de estas últimas realizada sobre cuarcita. Por último, se documentan 4 raederas, de las cuales 3 son laterales y 1 latero-transversal.

El yacimiento, afectado por la infraestructura viaria desde p.k. 0 + 00 hasta 0 + 180, una vez documentado y rescatado su registro de cultura material ha sido ocupado sin la necesidad de modificar o limitar el proyecto de construcción.

Arreto/La Revillako aztarnategia (Burgeta eta Argantzun, Burgos)

Panguara daraman errepidearen alde bietan kokaturiko aurkientza, Arabako inbentarioan Arreto izenarekin ageri dena. Okupazio bikoitza izan duen aurkientza da, historiaurrean eta erromatarren garaian, azken aldi horretan *villae* batekin identifikatzen dena. Obraren eraginpeko eremuan bideratutako 26 zundaketetatik gehienetan okupazio aldi bien estratigrafiak geratu dira agerian, erromatarren garaikoak aurrenekoa nahasi duela eta laborantza lanek hein batean biak.

Interbentzioak aurkientzaren ipar-mendebaldean kokatzen den historiaurreko okupazio eremu bat dokumentatzeko aukera eman du. Okupazio honen tipologiaren zehaztapenari dagokionez, egoitza leku batek berezko dituen egituren gabeziaren, kultura materialaren erregistroen eskasaren eta berreskuratutako zeramikazko materialen esangura apalaren gain arazoa gehitu behar da. Eskuz landutako zeramika sorta trakets landuta dago, eta azaletan ez dute dekoraziorik edo tratamendu berezirik ageri. Hala eta guztiz ere, esangura apalekoak diren arren, material honek antz handia du hurbileko Mohabeko aztarnategian dokumentatuekin, eta material horren presentziak alde honetan egoitza gune bat egon zitekeela iradokitzen duen arren, interbentzio arkeologikoak ez du jarduera esparruan haren ezaugarriak zehazteko modurik eskaini. Nolanahi ere, lekuaren baldintza geografikoak, ibarbidean eta ibai baten bazterrean, a priori oso egokiak dira giza finkamendu bat egokitzeko. Aipagarria da harrizko tresneriaren ugaritasun erlatiboa. Tresna horiek jarrera estratigrafikoan agertu dira, eskuarki xafla moldeko multzoa da, baina haren presentzia hasiera batean ezin dugu harria lantzeko tailer batekin lotu.

Erromatarren garaiko okupazioaren eremuak ukitutako aldean parterik handiena hartzen du, historiaurreko eremuaren ekialdera eta eki-hegoaldera. Berreskuratutako materialen ezaugarriak —TSH nagusi, ondoren mahaiko zeramika arrunta—, sukaldeko zeramika arruntaren urria eta eraikuntza hondakinen presentzia aintzat hartzen baditugu, villae motako landa finkamendu batekin identifikatu beharko litzateke aztarnategi hau; bertako gune nagusia alde honetatik kanpora geratuko zen, Arroyo del Prado errekaren hegoaldera, eta ukitutako eremua alde horren iparraldeko muturrean geratuko zen. Miaketa lanetan berreskuratutako iztuku zati batzuek, pintura gorriaren arrastoak kontserbatzen zituztenek, berretsi egiten dute alde honetan villae bat egon izana; finkamendu hori Akitaniako Bidearekin jarri beharko litzateke harremanetan, bide hori itxura guztien arabera ondoko Burgetako Bentatik igarotzen baitzen. Ezaugarri hauetako landa izaerako finkamenduaren presentzia bat dator Erromatarren Inperioaren aldian zehar jarraitutako ereduarekin, barreiatutako herrixka txikiez osatuarekin, hurbileko Cabriana-ko (Comunión) eta Uralde-ko (Trebiñu) villae-ekin gertatzen den bezala, baita artean tipologikoki zehaztu gabe dagoen Arkaia erromatarren garaiko aztarnategiarekin. Berreskuratutako zeramikazko materialen, zehazki TSH-ren, azterketatik ondorioztatu daiteke erromatarren garaiko

Yacimiento Arreto/La Revilla (Burgueta y La Puebla, Burgos)

Enclave situado a ambos lados de la carretera de acceso a Pangua, incluido en el inventario alavés con el nombre de Arreto. Constituye un emplazamiento con una doble ocupación, prehistórica y romana, asimilada esta última a una *villae.* El conjunto de 26 sondeos realizados en el área de afección de la obra depararon en su mayoría resultados estratigráficos positivos de ambas ocupaciones, habiendo alterado la romana a la primera, y el laboreo agrícola parcialmente a ambas.

La intervención ha permitido la documentación de una zona de ocupación prehistórica que se localiza en el área NO del enclave. Con respecto a la determinación de la tipología de esta ocupación, ha contado con la problemática añadida de la ausencia de estructuras propias de un lugar de habitación, la escasez de registros de cultura material y la inexpresividad de los materiales cerámicos recuperados. El lote cerámico elaborado a mano posee una factura tosca, y ausencia total de decoración o de tratamientos superficiales. Sin embargo, y a pesar de su inexpresividad, este material mantiene claros paralelismos con el documentado en el cercano yacimiento de Mohabe, y aunque su presencia delata la posible existencia de un lugar de habitación, la intervención arqueológica no ha permitido determinar sus características en la zona de actuación. Sin embargo, las condiciones geográficas del lugar, en la vega y cerca de un curso fluvial, resultan propicias a priori para el asentamiento humano. Destaca la relativa abundancia de la industria lítica, que ha sido documentada en posición estratigráfica, tratándose de un conjunto predominantemente de tipo laminar, cuya presencia, en principio, no podemos asociar a la existencia de un taller lítico.

El área de ocupación romana representa la mayor extensión dentro de la zona intervenida, ubicándose al E-SE del área prehistórica. Por las características de los materiales recuperados, en los que predomina la TSH seguida por la cerámica común de mesa, junto con la escasa representatividad de la cerámica común de cocina, y la presencia de restos constructivos, el yacimiento habría que relacionarlo con un asentamiento rural tipo *villae*, cuyo núcleo principal quedaría ubicado fuera de la traza, al sur del Arroyo del Prado, tratándose la zona intervenida de su área de dispersión natural más septentrional. La existencia de una villae en esta zona vendría avalada por la recuperación en prospección de algunos fragmentos de estuco con restos de pintura roja, asentamiento que además habría que ponerlo en relación con la Vía Aquitana, cuyo paso por la cercana Venta de Burgueta parece probado. La presencia de un asentamiento rural de estas características estaría en consonancia con el patrón seguido en la comarca durante el Imperio Romano, integrado por pequeños poblamientos de carácter disperso, como sucede con la cercanas villae de *Cabriana* (Comunión) y Uralde (Treviño), y con el yacimiento romano de Arcaya, de tipología aún sin precisar. Del análisis de los materiales cerámicos recuperados, en concreto de la TSH, se puede afirmar que la ocupa-

aztarnategiaren okupazioa Behe Inperio aldian gertatu zela, IV. mende aldera; nagusiki A moldeko 1. azpi-motako Mezq. 37t eta Ritt. 8 formen presentziak bermatzen du baieztapen hura. Nolanahi ere, pieza batzuetako bernizaren kalitateak, eta tipologikoki lehenengo molde berantiarrean baina baita nagusiki II. mendetik aurrera garatutako dekorazio eskeman sailkatu daitekeen elementu dekoratu baten presentziak Goi Inperio aldiko finkamenduaren aukera iradokitzen dute, erromatarren garaiko biztanleek Arabako lurraldean jarraitu zituzten ereduei erreparatzen badiegu.

Bidearen azpiegiturak gune honetako zorupeari begira duen eragin txikia kontuan harturik, lubeta batean garatzen baita, eta ukitutako eremuan dokumentatu eta kontserbatu beharreko egitura edo elementu positiborik ez zegoenez, ez zen beharrezkotzat jo bidearen trazua aldatzea edo mugatzea.

La Erillako aztarnategia (Argantzun, Burgos)

Zadorra ibaiaren eskuin ertzeko aurreneko terrazetan kokaturiko aurkientza txikia, Conchas de La Pueblan osatzen duen arroilara iritsi baino lehen, izen bereko kastroaren oinetan. Miaketa lanetan zehaztu gabeko historiaurreko aztarnategi gisa dokumentatua, bertan bideratutako zundaketek ez dute okupazio aldi horrekin lotura izan dezaketen ez mailarik ez material arkeologikorik eskaini, eta zundatutako eremua ibaiaren ibilgurantz zabaldu genuen. Zundaketek egitura negatiboen multzo bat identifikatu zuten gutxi gora-behera 950 m^2-ko azaleran. Bertan bideratu ziren indusketa arkeologikoari zegozkion lanak.

Indusketek 12 egitura negatibo dokumentatzeko aukera eman dute; horietatik 10 zorupe geologikoan induskatutako «zuloak» dira, gehienak jatekoak biltegiratzeko siloak eta zabortegiak, baina 2 interpretatzen zailak diren «hobiak» dira, antzeko egiturak izan daitezke, baina estratigrafiaren ikuspuntutik nahasita daude. Guztiak erromatarren azken garaian kokatu behar dira. Gehienetan nagusi dira molde zirkularreko egitura duten oinak, gopor formako sekzioekin eta sekzio zirkularrekin, konikoak eta kono-enbor formakoak, forma aldetik oso antzekoak gainazalaren hedadurari eta betegarrien tipologiari bagagozkie. Egitura negatiboak betetzen dituzten sedimentuen lodiera gorenari dagokionez, lodierak aldakorrak dira, eta 41,5 eta 100 cm bitarteko lodierara biltzen dira.

Egituren funtzionaltasunaren ikuspuntutik, 9. zuloaren kasuan dudarik ez dago jatekoak biltegiratzeko «silo» gisa erabili zutela; egitura hau gure garaira arte kontserbatu da inolako nahasketarik jasan gabe, eta barruko aldean jatorrizko deposituaren izaerari eusten dioten elikadura-piezak kontserbatu ditu, horien artean aipagarri sai arre bat, eper bat, bobido baten zati batzuk, arrain ezkatak eta bibalbo bat. Bestalde, 4., 6.

ción romana del yacimiento se corresponde con momentos bajo imperiales, que habría que situarlos en torno al siglo IV; esta afirmación vendría avalada principalmente por la presencia de formas Mezq. 37t y Ritt. 8 variante A subtipo 1. Sin embargo, la calidad del barniz de algunas de las piezas, junto con la presencia de un elemento decorado tipológicamente encuadrable en el primer estilo tardío, pero también con un esquema decorativo desarrollado principalmente a partir del siglo II, determinan la posibilidad de un asentamiento altoimperial, siguiendo los patrones de poblamiento romano en el territorio alavés.

Dada la escasa afección que la infraestructura viaria representa para el subsuelo en este punto, por su desarrollo en terraplén, una vez documentada la zona afectada y ante la falta de estructuras positivas o elementos que precisasen conservación, no se consideró necesaria la modificación o limitación del trazado.

Yacimiento La Erilla (La Puebla de Arganzón, Burgos)

Pequeño enclave ubicado en las primeras terrazas de la margen derecha del río Zadorra, situado antes del cañón que conforma en las Conchas de la Puebla y a los pies del castro de dicho nombre. Documentado en prospección como un yacimiento prehistórico indeterminado, los sondeos realizados no han permitido documentar ni niveles ni materiales arqueológicos relacionados con esta ocupación, ampliando su dimensión espacial hacia el cauce de este río. Los sondeos identificaron un conjunto de estructuras negativas en una superficie aproximada de afección de 950 m^2 sobre la que se han llevado a cabo los trabajos de excavación arqueológica.

La excavación ha permitido documentar 12 estructuras negativas, de las cuales 10 de ellas conforman «hoyos» excavados en el subsuelo geológico, concebidos en su mayor parte como silos de almacenamiento de comida y basureros, y 2 lo constituyen «fosas» de difícil interpretación, y que pudieran tratarse de estructuras similares pero alteradas desde un punto de vista estratigráfico, todos ellos encuadrados en un momento tardorromano. En la mayoría de los casos predomina la planta de la estructura de tipo circular con secciones cuenquiformes y cilíndricas, o en menor medida, cónicas y troncocónicas, manteniendo grandes paralelismos formales en cuanto a su extensión superficial y tipología de los rellenos. En relación a la potencia máxima de los sedimentos que rellenan las estructuras negativas, éstos resultan variables, y se encuadran dentro de un rango comprendido entre los 41,5 y 100 cm.

Desde el punto de vista de funcionalidad de las estructuras, en el caso del hoyo n.º 9 se ha evidenciado una utilidad clara como «silo» de almacenamiento de alimentos, estructura que se ha mantenido hasta la actualidad sin ningún tipo de alteración, conteniendo en su interior una variedad de piezas alimentarias que mantienen su condición de depósito primario, entre las que destacan un buitre leonado, una perdiz, varias

eta 7. zuloetan dokumentaturiko eta seguru asko 5. eta 10. zuloetan ere dokumentatuko diren estalduren hondakinek, kolorez horixkak eta laranjak diren buztin dekantatuez osatuek, zulo hau bere bizitza erabilgarriaren uneren batean elikagaiak biltegiratzeko silo gisa erabili zutela erakusten dute. Guztietan, 6. zenbakiko siloan izan ezik, hauteman daiteke hasieran silo gisa erabili zituztela eta gero zabortegi gisa, edukiei eta deposituetako sekuentziei erreparatuz gero. 6. zenbakiko zuloa, berriz, lehenik zabortegi gisa erabili zuten eta gero siloarenak egiteko egokitu zuten, bertako estratigrafiaren ezaugarriek adierazten digutenez.

Biltegiarenak betetzen zuten siloen diseinuaren ikuspuntutik, 9. zuloaren kasuan egitura perimetrotik mugatzeko harrizko metaketa bat hautematen da bere hondoan, eta tarteko espazioa buztinezko eta errautsezko ondoz ondoko geruzekin antolatzen da gainean edukiak uzteko. 4. eta 7. zuloen kasuetan, egituraren hondoa lehenik suaren bidez egokitu zuten, eta gero ondo dekantaturiko buztinarekin estali zituzten hondoa eta hormen beheko atalak; 4. zuloaren kasuan, estaldura horrek puntu batzuetan 10 cm-ko lodiera iristen du.

Dokumentaturiko beste egiturak zabortegi gisa erabiltzeko sorturiko zuloak dira, eta beren betegarrietan hondakin izaerako material arkeologikoak dokumentatzen dira. Aitzitik, 1. zuloa errekuntzarako egitura bat izan liteke, sutegi edo erretegi bat. Bestalde, kasu askotan egituretako betegarrietan material arkeologikoekin batera (zeramikak, harriak, metalak, beirak eta hezurrak) harri handi samarrak edo beren sekuentziak azaltzen dira, sarri askotan betegarrien barruan eta ertzetatik hurbil egokiturik.


Zabortegi izateko eraiki eta dokumentaturiko egitura bakoitzaren mikroestratigrafiaren ikuspuntutik, gehienek sedimentuzko betegarriaren unitate bakarra dute, kasurik hoberenean bi unitate, 6. zuloan gertatzen den bezala. Betegarriok depositu-sekuentzia azkar batean gertatzen dira kontuan badugu unitate estratigrafiko bakoitza zehazten duen sedimentuzko

porciones de un bóvido, escamas de pescado y un bivalvo. Así mismo, los restos de revestimientos documentados en los hoyos n.os 4, 6 y 7, y probablemente también en los n.os 5 y 10, a base de arcillas decantadas de colores amarillentos y anaranjados, permiten aseverar su uso como silo de almacenaje en algún momento de su vida útil. En todos ellos se puede observar una primera concepción como silo y una posterior amortización como basurero, a juzgar por sus contenidos y su secuencia de depósito, excepción hecha en el hoyo n.º 6, utilizado primero como basurero y posteriormente adecuado como silo atendiendo a sus características estratigráficas.

Desde el punto de vista del diseño de los silos destinados a almacenaje, en el caso del hoyo n.º 9 se observa en su fondo una delimitación perimetral de la estructura a base de amontonamientos de piedras, cuyo interespacio es acondicionado mediante sucesivas capas de arcilla y de cenizas para la deposición superior de los contenidos. En el caso de los hoyos n.os 4 y 7, aparece un primer acondicionamiento mediante fuego en el fondo de la estructura, y un posterior revestimiento a base de arcilla bien decantada, principalmente en el fondo y partes bajas de las paredes, que en el caso del hoyo n.º 4 llega alcanzar hasta 10 cm. de potencia en algunos puntos.

El resto de estructuras documentadas lo constituyen hoyos concebidos y utilizados como basureros, en cuyos rellenos se documentan materiales arqueológicos de desecho, excepción hecha de la estructura n.º 1 que podría tratarse de una estructura de combustión, genéricamente asimiladas a hogares u hornos. Por otro lado, en muchos casos los rellenos de las estructuras presentan junto a los materiales arqueológicos (cerámicos, líticos, metálicos, vítreos y óseos), piedras notables o secuencias de éstas, frecuentemente depositadas dentro de los propios rellenos y junto a los perfiles.

Desde el punto de vista de la microestratigrafía de cada una de las estructuras documentadas con destino a basurero, mayoritariamente presentan una única unidad de relleno sedimentario, dos en el mejor de los casos como en el hoyo n.º 6. Estos rellenos se producen en una secuencia de depósito rápida, dada la gran similitud del paquete sedimentario que define cada



La Erillako aztarnategia. 9. zulo-siloko indusketaren sekuentzia. Gorritutako buztinezko estalkiak (ezk.), elikagaientzako jatorrizko deposituak (erdian) eta zuloaren perimetroaren egokitzapena harrien bidez (esk.).

Yacimiento La Erilla. Secuencia de excavación del hoyo-silo n.º 9, conformado por una tapa de arcilla rubrefactada (izq.), un depósito primario de alimentos (centro) y un acondicionamiento perimetral del hoyo mediante piedras (dcha.).

paketearen eta unitate horizontal batzuen hasieran eta amaieran dokumentaturiko materialen (nagusiki zeramikazkoak) arteko lotura, 5. zuloan gertatzen den bezala. 4. zuloaren kasuan, non errekuntza izaerako betegarriekin batera sedimentu geologikoko ondoz ondoko geruza txikiak tartekatzen diren, antzeko depositu-sekuentzia bat hautematen ere da; egituraren edukia bete zuten isuriak estaltzeko edo ezkutatzeko egokituko zituzten geruza horiek. Bestalde, 9. zuloan dokumentaturiko errautsezko geruza finak erabilera antiseptikoaren eta unitate hau osatzen duten elikagaiak kontserbatzeko erabileraren erakusgarri dira.

Ildo honetatik, esan dezagun ia betegarri eta egitura guztietan dokumentaturiko errauts, ikatz eta ikazturiko zur zati handien kopuru handiek ez dutela beren jatorria egituraren baitan *in situ* bideratutako errekuntzan, bigarren mailako deposituak dira, agian errekuntzarako hirugarren egituretatik ekarriak. Harrien eta estalduren eskasiak, horma gorrituen gabeziak eta egitura horien edukien baitan erretako hezurren eskasak berretsi egiten dute proposamen hura.

Aztarnategiaren kronologiaren balorazioari dagokionez, erromatarren azken garaian kokatu beharra dago aintzat hartzen badugu berreskuratutako TSHt sorta eskasaren tipologia; Mezq. 42 formako ertz bat dokumentatu genuen, engobea galdurik ia, eta Mez. 37b formaz dekoratutako zati bat. Kronologia hori berretsi egiten dute dokumentaturiko metalezko elementu nagusi biek: igitai itxurako aiztoak eta lantza lantzeolatuak, tipologiaren aldetik oso arruntak direnak IV. eta V. mendeetako Behe Inperio aldiko giroetan. Gainerako materialak sukaldeko erabilera arrunteko zeramikak eta metalezko sorta txikia, beirak eta hezurrezko tresnak dira.

Aztarnategiaren tipologiaren ikuspuntutik, dokumentaturiko hondakinak neurri apaleko finkamendu baten, landa izaerako finkamendu baten perimetroko aldiriari legozkioke, izan ere, ugari dira erabilera arrunteko zeramikak eta oso gutxi zeramika finak edo T.S.-ak. Honenbestez, Trebiñuko Konderrian Erromatarren Inperio aldi osoan zehar ohikoa izan zen finkamenduaren ezaugarriekin bat dator: han-hemen barreiatutako herri txikiak, hiri-nukleoaren kategoriara iristen ez direnak. La Erilla aztarnategian bereizitako harrizko tresnen presentzia handiak seguru asko historiaurreko ereduak irauten zutela adierazten dute, agian habitatak atzera egin zuen berriro ere harpeetara bere burua babesteko printzipioei jarraiki, beti ere «euskal-erromatar garaia» izeneko aldian, Santimamiñe eta Los Husos harpeetan bideratutako ikerketa lanez geroztik deskribatuan.

El Arroyo aztarnategia (Villanueva de Oca, Burgos)

Villanueva de Ocako Arroyo de la Iglesia izeneko inguruan bideratutako kontrol eta jarraipen arkeologikoaren emaitzaren ondorioz —bertan aspaldian, seguru asko

unidad estratigráfica y la conexión de materiales (principalmente cerámicos) documentados en el principio y fin de algunas unidades horizontales, como en el caso del hoyo n.º 5. En el caso del hoyo n.º 4, donde aparecen sucesivos microniveles de sedimento geológico en alternancia con rellenos de combustión, se advierte igualmente una secuencia de depósito similar; que pueden ser interpretados con la finalidad de tapar u ocultar los vertidos que han ido rellenado el contenido de la estructura. Por otro lado, los microniveles de cenizas documentados en el hoyo n.º 9 advierten un uso antiséptico y de conservación del grupo de viandas que ahora componen esta unidad.

A este respecto cabe señalar que el elevado contenido de cenizas, carbones y grandes fragmentos de madera carbonizada documentados en la práctica totalidad de rellenos y estructuras, no tiene su origen por efecto de una combustión *in situ* dentro de la estructura, sino por efecto de un depósito de carácter secundario, tal vez proveniente de terceras estructuras de combustión. La escasez de piedras, revestimientos o paredes rubefactadas así como de restos óseos quemados dentro de los contenidos de las estructuras, confirman este extremo.

En cuanto a la valoración cronológica del yacimiento se puede enmarcar dentro de un período Tardorromano, a juzgar por la caracterización tipológica del escaso lote de TSHt recuperado, donde se documenta el borde de una forma Mezq. 42 con el engobe muy perdido y un fragmento decorado de una forma Mez. 37b. Esta cronología estaría confirmada, además, por los dos principales elementos metálicos inventariados: un cuchillo afalcatado y una lanza lanceolada, tipológicamente frecuentes en ambientes bajoimperiales de los siglos IV y V. El resto de materiales corresponden a cerámicas de uso común de cocina y un escaso lote de metales, vidrios e industria ósea.

Desde el punto de vista tipológico del enclave, los restos documentados habría que asociarlos al área suburbana o perimetral de un asentamiento de pequeña entidad, de tipo rural rústico a juzgar por la abundante presencia de cerámica de uso común frente a la escasez de cerámica fina o T.S. Estaría, por lo tanto, en consonancia con el patrón de asentamiento característico en el Condado de Treviño durante todo el Imperio Romano: pequeños poblamientos de carácter disperso que no alcanzan la categoría de núcleos urbanos. La notable presencia de industria lítica en La Erilla manifiesta una probable relación con la pervivencia de modelos tradicionales prehistóricos, tal vez una vuelta al hábitat en cuevas fundamentado en principios defensivos, dentro del denominado «período vascorromano» y descrito a partir del grupo Santimamiñe y de Los Husos.

Yacimiento El Arroyo (Villanueva de la Oca, Burgos)

Como resultado del control y seguimiento arqueológico realizado en el entorno del Arroyo de la Iglesia en Villanueva de la Oca, sobre el cual se localiza un puen-

Erdi Aroan, eraikiriko zubi bat dago—, zubiarekin zerikusia duten izaera arkeologikoko aztarna bi geratu ziren agerian. Elementu horiek autobidea eraikitzeko lanetan zehar egindako garbiketa lanetan geratu ziren agerian.

Aurkikuntza horietan lehena zorupeko egitura negatibo bat da; gainazalean joera ia zirkularreko orbana ageri da euskarriarenak egiten duen sedimentuaren gainean, kolorez laranja oso bizia eta perimetroan ororoso beltza, non ikaztutako egur zati handiak agertzen diren. Barruko aldean material arkeologikorik gordetzen ez zuenez, egitura isolatu hau zehaztu gabeko kronologiako «sutegitzat» interpretatu dugu; bertan errekuntza jarduera bizia gertatu zen eta gero egokitu egin zuten ondo dekantaturiko buztinezko geruza bat paratuz; honenbestez, giro erreduktorea sortu zuten eta, ondorioz, errekuntza eskasa eta luzea.

Bigarren elementua ipar-ekialdetik hego-mendebalderako lerrokadura duten kuartzozko zortzi harri handiren eta lerrokadurari tarteka eusten dioten beste harri batzuen, arrautza formako oinarekin eta 40 eta 67 cm bitarte luze eta 24 eta 38 cm bitarte zabal, sekuentziak osatzen du. Lerrokadurak eutsi egiten dio hurbileko Puente sobre el Arroyo de las Huertas zubiaren lerrokadurari; zubi honetako gainazala harriz estalita dago. Zubiaren alde bietara, eta batez ere mendebaldera, neurri ertaineko kuartzitez osatutako harrizko zola ageri da, eta bertan ardatzarekiko perpendikularrean egokitutako harrizko sekuentzien lerrokadura batzuk hautematen dira, baina kontserbazio egoera kaskarra eta antzeko harrien barreiadura oztopo dira guztizko zabalera zehazteko, nahiz eta lau metro ingurukoa zela esan genezakeen.

Argantzunen eta Villanueva de Ocan egindako ahozko inkestaren arabera alde honetan bazen abereentzako bide bat. 60. hamarraldian, Argantzungo udalerrian egindako lur-zatiketa berritik etorritako egokitzapen lanen ondorioz, bidea estali egin zuten alde hau laborantza-lur bezala aprobetxatzeko. Galdetutakoek ondo gogoratzen dituzte bide honen ezaugarriak, eta *«aguantío»* edo beti ere putzuz beteta egon ohi zen toki gisa deskribatzen dute. Ahozko inkestaren arabera, bide hau erabili ahal izateko behin eta berriz egokitu beharra zegoen harriak ipinita, harriak ausaz paratzen zituzten, eta horrela pertsonak eta ganadua iragan zitezkeen bertatik. Hortaz, ez da egiazko bide baten presentzia gogoratzen, igarobide batena baizik, putzuz beteta egon ohi zena eta zabalera irregularrekoa; harrizko deposituek ahalbideratzen zuten igarobidearen gaineko joan-etorria.

Bestalde, zubiak eta bideak bertatik igarotzen zen Santiago Bide zahar batekin zerikusia izateko aukera planteatzen da. Egun N-1 errepidetik gertu eta haren paraleloan garatzen da, baina lehen Arabako Subilana eta Argantzun batzen zituen Gasteizko Mendiak alderik alde igaro eta Villanueva de Oca atzean utzita. x. mendeaz geroztik dago dokumentatuta Gasteiz eta Argante de fábrica antigua, muy posiblemente medieval, se pusieron a la luz dos evidencias de naturaleza arqueológica en relación con éste, descubiertas tras los desbroces realizados durante la construcción de la autovía.

El primero de estos hallazgos se corresponde con una estructura negativa en el subsuelo, que en superficie se muestra como una mancha de tendencia paracircular que destaca sobre el sedimento soporte, conformando una mancha naranja muy intensa rodeada perimetralmente por una coloración muy negra, donde aparecen grandes fragmentos de madera carbonizada. Exenta en su interior de materiales arqueológicos, esta estructura aislada ha sido interpretada como un «hogar» de una cronología indeterminada, donde se ha realizado una intensa combustión sobre la que posteriormente se ha producido un acondicionamiento mediante el aporte de una capa de arcilla bien decantada; de esta forma se ha creado un ambiente reductor y, por lo tanto, una combustión deficiente y prolongada.

La segunda zanja se abrió en sentido E-O, junto a la pared norte del solar, con unas medidas de 1,5 m. × 3 m. de lado. Bajo el nivel inicial del suelo actual y de los depósitos de relleno para su recrecimiento apareció un empedrado perteneciente a la antigua cuadra del edificio anterior al que se va a reformar y bajo éste, a una profundidad de 30 cm., apareció el estrato natural, concluyendo así la excavación de la zanja. En cuanto al material arqueológico aparecido, es similar al de la zanja 1, aunque más escaso.

Como conclusión, decir que los restos conservados bajo la superficie del solar en el momento de la intervención arqueológica pertenecían tanto a la cimentación de la vivienda derribada para su rehabilitación como a las reestructuraciones internas de la planta baja del edifico que ocupaba el solar con anterioridad.

Henar Fernández Cebrián

D.1.2.13. **San Joan Plaza, 8 (Agurain)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Javier Campo Molinuevo

D.1.2.13. **Plaza de San Juan, 8 (Salvatierra)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Javier Campo Molinuevo

In response to the alteration of the building located on this site, an obligatory archaeological assessment was carried out, consisting of the excavation of three assessment trenches. One of these was dug on the lower-ground floor located underneath the ground floor, in which few fillings were found. The second was dug in the house's rear courtyard, where a large amount of material was uncovered including abundant (although mixed) pottery pieces. The third trench was dug along the line of the wall that delimits this courtyard, and revealed the structure of the old town wall, as well as remains of earlier constructions that were built up against it and which disappeared following the fire that razed the site in 1564.

Aguraingo Hirigune Historikoko San Joan Plazako 8. zenbakiko eraikina birgaitzeko lanek interbentzio arkeologiko hau egitera behartzen zuten. Lanen lehenengo fasean baloraziorako hiru zanga ireki ziren. Zanga hauek etxebizitzaren erdi-sotoan, gibelaldeko patioan eta harresiaren lerrotik hurbil, patioan ere, kokatu ziren. Geroago, eraikina eraitsi ondoren, egitura berriari zimenduak jartzeko lur-mugimenduak kontrolatu genituen, baina ez genuen zangak induskatuta lortutako emaitzez bestelakorik lortu.

1. zanga

Eraikinaren erdi-sotoan irekia, 11,35 m luze eta metro bete zabal. Halatan, espazio honen azaleraren %21,10 aztertu genuen. Indusketa lanek agerian utzi zuten gela honen gainazalean hedatzen zen aro garaikideko betegarriaren azpian geruza naturala agertzen zela, buztinez eta harriz osaturiko geruza. Gutxi gorabehera 35 cm-ko lodiera zuen deposituak, lur kolorez grisaxkak osatua, ehunduraz buztintsua. Eraikuntza materialen zatiak zituen, eta erdi-sotoko zementuzko zoladura berdintzeko betegarria zen.

2. zanga

Orubearen gibelaldeko patioan irekia; lehen aipatutako gelatik iristen zen alde honetara. Zanga 6,15 m luze eta metro bete zabal zen. Harresiaren lerrotik hurbil irekiriko 3. zangarekin bat egiten du, eta bien artean espazio honen %29 aztertu genuen. Induskatutako lehenengo betegarriek zeramikazko zati ugari zituzten, Erdi Aroko zeramiketatik hasi eta aro garaikidekoekin buka. Eta hori orube honek urteen joanean jasango zuen nahasketaren erakusgarri da. Hala eta guztiz ere, soilik Erdi Arokoak diren depositu batzuk bereizi genituen, buztinez eta harri metaketez osatuak. Deposituetako bat etenda zegoen harresiaren lerroaren paraleloan, harresiaren barruko aurpegitik metro pasatxora. Harresiko zimendu-zanga izan daitekeela pentsatzen dugu. Zanga horren mendebaldeko muturrean azaldu ziren harresiaren aurreneko arrastoak, baina aski hondatuta zeuden orain ez asko uren hustubiderako hodi bat egokitu dutelako.

3. zanga

Harresiaren lerrokaduran zehar ireki genuen, hartan bermatzen zen hormatik hurbil, patioaren gibelaldean. Halatan, 4,70 m-ko luzerarekin, orubearen luzerarekin, eta 2 m-ko zabalerarekin ireki genuen. Lehen adierazi dugun bezala, 2. zangarekin batera, patioaren azaleraren %29 aztertu genuen. Zanga bietako muturretako bik bat egiten zutenez, deposituen egokiera, oro har, oso antzekoa zen. Hala eta guztiz ere, harresiari atxiki-

La rehabilitación del edificio situado en el n.º 8 de la Plaza de San Juan, dentro del Casco Histórico de Salvatierra-Agurain obligó a realizar esta intervención arqueológica. La primera fase de los trabajos se correspondía con la apertura de tres zanjas de valoración distribuidas respectivamente en el semisótano de la vivienda, en el patio trasero y junto a la línea de muralla, en ese mismo patio. Posteriormente, y una vez derribado el edificio se llevó a cabo el control de las obras de remoción de tierras para la cimentación de la nueva estructura, el cual no aportó resultados diferentes a los que se extrajeron de la excavación de las zanjas.

Zanja 1

Zanja situada en el semisótano del edificio con unas medidas de 11,35 m. de largo por 1 m. de anchura, lo que supuso la valoración del 21,20% de la superficie de este espacio. Su excavación sólo sirvió para constatar de que bajo el relleno que se extendía por la superficie de esta estancia, de cronología contemporánea, afloraba el estrato natural, compuesto de arcillas y roca. Se trataba de un depósito de aproximadamente 35 cm. de potencia media, de tierra de color grisáceo y textura arcillosa que contenía fragmentos de material de construcción y que suponía el relleno de nivelación de la solera de cemento del semisótano.

Zanja 2

Abierta en el patio trasero del solar, con acceso por la estancia anteriormente mencionada. Sus dimensiones eran de 6,15 m. de largo por 1 m. de anchura. Unida a la zanja 3, abierta junto a la línea de muralla, entre ambas supusieron la valoración del 29% de este espacio. Los primeros rellenos excavados contenían gran cantidad de fragmentos cerámicos cuya cronología abarcaba desde la Edad Media hasta época contemporánea. Esto da una idea de la alteración que sufrió este solar a través de los años. No obstante, se han hallado una serie de depósitos compuestos de arcillas y acumulaciones de piedras que parecen corresponder ya exclusivamente a época medieval. Uno de ellos se hallaba cortado en dirección paralela a la línea de muralla, a algo más de un metro de su paño interno. Pensamos que podría corresponderse con su zanja de cimentación. Es en el extremo sur de esta zanja donde aparecieron los primeros restos de la cerca, aunque bastante deteriorados debido a la colocación reciente de una tubería para salida de aguas.

Zanja 3

Se situó a lo largo de la línea de muralla, junto al muro que se le apoyaba, en la parte trasera del patio. Por tanto, se abrió con una longitud de 4,70 m., el ancho del solar, y con una anchura de 2 m. Como hemos dicho anteriormente ha supuesto la valoración del 29% del área dedicada a patio, junto con la zanja 2. Al coincidir dos de los extremos de ambas zanjas, la disposición de los depósitos fue, en líneas generales, muy si-

ta egon zen eta egungo eraikinaren aurreko eraikuntza bati zegozkion arrastoak bereizi genituen. Zimendurako zanga bat zen, iparraldetik atxikiriko eraikinaren hormaren ondoan, gorrituriko lurrez, errautsez, ikatzez eta eraikuntza materialen zatikiez betea. Ezaugarri horiek aintzat harturik, 1564an hiribilduan sutea izan zen unean orube hau okupatuko zuen eraikinari dagozkiola pentsatzen dugu. Zimendurako zanga horren paraleloan, patioaren beste muturrean, harresiaren egiturari atxikiriko sillarrizko horma baten hondakinak topatu genituen, lehengo hipotesia berretsiko lukeena.

Bestalde, espero bezala, Aguraingo harresia bereizi ahal izan genuen. Orubearen zabalera osoan dokumentatu genuen, hau da, 4,70 m-tan, eta agerian utzitakoaren arabera 1,10 eta 1,20 metro bitarte lodi zen. Kontserbatutako altuera gorena 1,20 eta 1,60 m bitartekoa zen harri naturalaren okermenduaren ondorioz. Landu gabeko harriz egina dago, harriak hareaz eta kolore okreko kareaz osatutako mortairuaz batuak. Orain ez asko hodi bat paratzeko jasan zuen nahasketa bazterrera utzita, aski erregularra zen horizontalean erakusten zuen aurpegia. Nolanahi ere, eraispen honek baloratu beharreko orubea baizik ez zuen ukitzen, haren altuera, begi bistan denez, alboko eraikinetakoa baino askoz ere garaiagoa baita.

Azken konklusioak

Balioraziorako hiru zangetako indusketa arkeologikoa eta etxebizitza berrirako zimendua egokitzeko milar. No obstante, se hallaron evidencias de una construcción anterior a la actual y que estuvo adosada a la muralla. Se trata de una zanja de cimentación, junto a la pared del edificio anexo por el norte, colmatada de tierra rubificada, cenizas, carbones y fragmentos de material de construcción. Dadas estas características pensamos que, quizás pertenecería a un edificio que ocupaba este solar en el momento en que se produjo el incendio de la villa, en el año 1564. Paralelo a este corte de cimentación, en el extremo contrario del patio, se dio con los restos de un muro de sillería adosado a la estructura de la cerca, lo que ahondaría en esta hipótesis.

Por otro lado, tal y como era de esperar se produjo el hallazgo también de la muralla de Salvatierra. Se documentó a lo largo del ancho total del solar, es decir, 4,70 m., descubriéndose en una anchura de 1,10 a 1,20 m. La altura máxima conservada oscilaba entre 1,20 y 1,60 m, debido al buzamiento de la roca natural. Su fábrica es de mampostería, con piedras unidas mediante un mortero compuesto de arena y cal de color ocre. A excepción de la alteración sufrida para colocar una tubería en fechas recientes, su corte de arrasamiento horizontal era bastante regular. Sin embargo, este derribo sólo afectaba al solar objeto de valoración ya que su altura, claramente apreciable a simple vista, es muy superior en los edificios contiguos.

Conclusiones finales

Finalizada la excavación arqueológica de las tres zanjas de valoración y el control de las obras de ci-



Aguraingo harresiaren hondakinak.

Restos de la muralla de Salvatierra.

obren gaineko kontrola amaiturik, orubeko sekuentzia estratigrafiko osoa dokumentatu ahal izan genuen, nola erdi-sotoari hala gibelaldeko patioari dagokionez. Lehenengoan interbentzioaren emaitzak ia erabat negatiboak izan ziren arren, patioaren zorupeko balorazio arkeologikoak konklusio interesgarriak eskaintzen dizkigu.

Izan ere, Erdi Aroko hiribilduko harresiaren atal bat utzi genuen agerian, 4,70 m luze. Guztira bederatzi errenkada kontserbatzen zituen, landu gabeko harri irregularrez eginak. Harriak hareazko eta karezko mortairu batez batuta daude, eta gehienez 1,60 m-ko altuera du. Induskatutako lodiera 1,10 eta 1,20 m bitartekoa izan zen, baina hari atxikitzen zaion hormaren lodierarekin batuta, harresia puntu honetan 2,20 m lodi zen guztira.

Nolanahi ere, harresiaren eraispenak orubearen mugak baino ez zituen hartzen. Alboetako eraikinen gibelaldeko fatxadak harresiarenak ziren gutxienez lehenengo oinaren altuerara bitartean. Honenbestez, gibelaldeko patioko itxitura horma ez da Erdi Aroko harresiaren egituraren atala. Bertan neurri handiko bao bat ireki zuten ganaduarentzako ukuilurako sarrera gisa. Seguru asko XIX. mendean zehar antolatu zuten ukuilua. Erabilera hori eman ziotela erakusten du harresiaren beraren mutur bietan barruko aldetik hustu izanak, berak eratzen baitu gela honetako zoruaren maila. Egitura honen zimenduak jartzeko zanga bat induskatu zuten, eta gero ateratako deposituekin berekin estali zuten. Betegarriok, aldi berean, harresiaren barruko aurpegiari atxikiriko eraikin baten zimenduak jartzeko nahasi zituzten. Eraikin hori 1564. urtean hiribildua suntsitu zuen sutearen ondorioz galdu zen betikoz. Guztia depositu berri batzuek estali zuten, baina hauek oso nahasita daude eraikin berriak altxa dituztelako eta beste erabilera batzuk eman dizkietelako.

mentación de la nueva vivienda se logró documentar la secuencia estratigráfica completa del solar, tanto en lo que se refiere al semisótano como al patio trasero. Si bien en el primero de los casos los resultados de la intervención fueron prácticamente nulos, de la valoración arqueológica del subsuelo del patio se pueden extraer conclusiones muy interesantes.

En efecto, se sacó a la luz un tramo de la muralla medieval de la villa de 4,70 m. de longitud. Conservaba un total de nueve hileras, en mampostería irregular, cuyas piedras están unidas mediante un mortero de arena y cal, hasta alcanzar 1,60 m. de altura máxima. La anchura excavada fue de entre 1,10 y 1,20 m., pero unida al espesor del muro que se le apoya hacían un total de 2,20 m. de anchura total de la muralla en este punto.

El derribo intencionado de la cerca afectaba, no obstante, sólo a los límites del solar. Las fachadas traseras de los edificios contiguos pertenecían a la propia muralla hasta la altura, al menos, de la primera planta. De ello se desprende que el muro de cierre del patio trasero no forma parte de la estructura de la cerca medieval, habiéndose abierto un vano de grandes dimensiones como acceso a una cuadra para ganado habilitada, posiblemente, durante el siglo XIX. Evidencias de su uso como tal es el vaciado del interior de la propia muralla en ambos extremos, constituyendo su corte de arrasamiento el nivel de suelo de esa estancia. Para su cimentación se produjo la excavación de una zanja, rellenada posteriormente por los mismos depósitos extraídos. Estos rellenos fueron a su vez afectados por sendas zanjas de cimentación para un edificio adosado al paño interno de la cerca, el cual desaparecería a consecuencia del incendio que asoló la villa en el año 1564. Todo ello quedó cubierto por nuevos depósitos, muy alterados hoy en día debido al levantamiento de nuevas construcciones y a sus diversos usos.

F. Javier Ajamil Baños

D.1.2.14. **Zapatari kalean, harresiz kanpo (Agurain)**

Zuzendaritza: Javier Fernández Bordegarai
Finantzazioa: Aguraingo Udala

D.1.2.14. **Extramuros de calle Zapatari (Salvatierra)**

Dirección: Javier Fernández Bordegarai
Financiación: Ayuntamiento de Salvatierra

In light of the forthcoming renovation of the north-western stretch of the old Salvatierra town walls, it was of the utmost interest to determine once and for all whether or not this part of Zapatari Street contained the remains of the two defensive towers, evidence of which had been found in an earlier intervention carried out in the area immediately inside the wall. The zone in question corresponds to the external stretch of the wall discovered in a number of empty sites in this street in the year 2002, when two clear breaks in the structure were also identified. Indeed, remains of the two defensive structures were actually found, although they were in a very poor state of conservation, since only the first rows of ashlar blocks remained.

Interbentzio arkeologiko honek babeserako dorre biren hondakinak ba ote zeuden era seguru batez zehaztea zuen helburu, Zapatari kalearen iparraldeko muturreko orube bitan hautemandako harresi atala etorkizunean birmoldatzeko orduan kontuan hartzeko xedean. Aukera hori iradokitzen genuen 2002. urtean orube horietan bideratutako interbentzioan zehar harresiaren barruko aurpegiaren egituran aurkitutako etengune biek (*Arkeoikuska'02*, 264-267. orr.). Atal honen kanpoko aurpegia orain ez asko bertan bideratutako jarduera batzuek mozorroturik zegoen, eta ondorioz ezinezkoa gertatzen zen kanpoko aldetik dorre bi horiek hautematea.

Jarduera arkeologikoan zehar metro bete zabal eta ia 11 metro luze ziren zanga bi ireki genituen harresiaren kanpoko aurpegiaren oinetan, lehen adierazitako eten-guneak kokatzen ziren lekuetan. Espero bezala, batez beste 50 cm-ko sakoneran, dorreen hondakinak azaldu ziren zanga bietan. Nolanahi ere, hondakin horiek sillarrien errenkada bakar batez osatzen ziren, alboetako horma-atalak ziren, ez zuten 25 cm-ko altuera gainditzen, eta harrien artean neurri eta forma irregularreko harrizko betegarria ageri zen, harriak hareaz eta karez osaturiko ore batez batuak, babes-egitura hauen oinarri izan ohi dena. Jarduera hau Aguraingo mendebaldeko ibilbidean garatzen zenez, ez genuen zangen zabalera handitu oinezkoentzako ibilbidea ez hondatzearren. Horrexegatik ezin izan genuen zehaztu zenbat irteten diren harresiaren lerrokadurarekiko, bai ordea aurreko hormen luzerak, 7,75 m iparraldeko dorrearen kasuan eta 7,95 m hegoaldekoarenean. Edozein kasutan, helburu nagusia lortu genuen, hau da, babeserako egitura hauen presentzia egiaztatzea, egitura aurreratuak, oinplano lauangeluarrekoak, hiribilduaren ekialdeko babeserako sistemak erakusten duen ereduari jarraiki.

Dorre bi hauen eta mendebaldeko harresiaren atal handienaren suntsiketa Lehenengo Karlistaldiaren testuinguruan gertatuko zen ziurrenik, udal dokumentazioaren arabera 1835ean karlistek harresiko harriak erabili baitzituzten Gebara gaztelu zaharra gotortzeko. Dokumentuetako batean *«...bederatzi-hamar mila gurdi sillarri...»* (*«...de nueve a diez mil carros de piedra sillar...»)* aipatzen da, suntsipen lanen muntaren erakusgarri dena, nahiz eta kopuruak gehiegizkoa ematen duen.

Esta intervención arqueológica ha estado motivada por el interés que tendría determinar de forma segura la existencia de restos de dos torreones defensivos de cara a la futura rehabilitación del tramo de muralla de la villa de Salvatierra localizado en dos solares del extremo norte de la calle Zapatari. Esta posibilidad se justificaba por el hallazgo de sendas discontinuidades en la estructura del paño interno de la cerca descubierto durante la intervención desarrollada en el año 2002 por nosotros en dichas parcelas (*Arkeoikuska'02*, pp. 264-267). El lienzo externo de este tramo se halla actualmente enmascarado por actuaciones recientes, lo que imposibilitaba apreciar desde el exterior la existencia de los dos torreones.

La actuación arqueológica consistió en la apertura de dos zanjas de 1 m. de anchura y casi 11 de longitud a los pies del paño externo de la muralla, en los puntos donde se localizaban las discontinuidades antes mencionadas. Tal y como era de esperar, a una profundidad media de 50 cm., afloraron en ambas zanjas los restos de los torreones. No obstante, éstos consistían en prácticamente una sola hiera de sillares, que se correspondían con los lienzos laterales, de no más de 25 cm. de altura, y entre ellos, el relleno de piedras de tamaños y formas irregulares unidas mediante un mortero de arena y cal que suponen la base de estas estructuras defensivas. Al llevarse a cabo esta intervención en el paseo que discurre al oeste de Salvatierra, no se amplió la anchura de las zanjas para evitar destruir el camino dedicado al paso de peatones. Por ello no se ha llegado a descubrir cuanto sobresalen respecto a la línea de muralla, aunque sí la longitud de su paramento frontal, de 7, 75 m. en el caso del torreón norte y de 7,95 m. en el caso del torreón sur. Sin embargo, se logró el objetivo fundamental, que era el propio hallazgo de estas estructuras defensivas con lo que se confirma la existencia de torreones avanzados, de planta cuadrangular, siguiendo un modelo similar al que presenta el sistema defensivo de la villa en su lado este.

Muy posiblemente, la destrucción de estos torreones, así como de la mayor parte de la muralla occidental, debió de producirse en el contexto de la Primera Guerra Carlista, puesto que la documentación municipal señala que en 1835 los carlistas utilizaron la piedra de las murallas para fortificar el antiguo castillo de Guevara. En uno de los documentos se habla en concreto *«...de nueve a diez mil carros de piedra sillar...»,* lo que puede dar idea de la magnitud de los trabajos de destrucción, a pesar de que la cifra pueda estar exagerada.

Fco. Javier Ajamil Baños

D.1.2.15. **Hedegile kalea, 74-80 (Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Idoia Filloy Nieva
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila

D.1.2.15. **Correría, 74-80 (Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Idoia Filloy Nieva
Financiación: Gobierno Vasco. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales

Archaeological intervention carried out as the result of the construction of houses in these sites located in the historic quarter of Vitoria-Gasteiz, adjacent to the old walls which once surrounded the medieval town. The results of the sondages were of little interest from an archaeological point of view, since only stratigraphic units and contemporary material were found. Nevertheless, the sondages carried out next to the wall enabled the foundations of this defensive structure to be studied and documented, and a planimetric survey was carried out of its current state.

Orube hauek Gasteizko Hirigune Historikoan daude, Erdi Aroko nukleoko jatorrizko harresiaren, dokumentuen arabera 1181ean eraiki zuten harresiaren, ondoan. Etxebizitzak, dendak eta trastelekuak eraikitzeko proiektuak eragin zuen interbentzio arkeologiko hau. Orube hauek mazelaren terraza batean eraiki ziren, eta desnibel handia dago Hedegile kalearen eta gibelaldeko patioaren —eraiki gabea— artean; alde honetan harresiaren atal bat ikus zitekeen. Guztira 6 zundaketa estratigrafiko egin genituen, 4 beheko aldean eta 2 harresiko dorre baten ondoan.

Arkeologiaren ikuspuntutik zundaketen emaitzak ez ziren garrantzitsuak gertatu, aro garaikideko eta inolako interesik gabeko unitate estratigrafikoak eta hondakin materialak baizik ez baikenituen erregistratu; hortaz, ez zen beharrezkoa izan zundaketa zabaleran egitea. Nolanahi ere, harresiaren ondoan egindako zundaketek harresiaren eta dorrearen norabidea dokumentatzeko aukera eman zuten, baita egitura bien eraikuntza sekuentzia zehazteko ere. Horra datu esanguratsuenak:

Harresia puntu honetan oso nahasita dago jatorrizko egiturarekiko, batez ere goiko partean, zeharo berritua dorrearen hormetan artean kontserbatzen diren gezi-leihoetatik gora. Beheko partea ere nahasita dago, paramentuan artean hauteman daitezke atxikiriko eraikinen presentzia, baita harresiari atxikiriko horma bat ere —zundaketa baten baitan aurkitua—, ondorengo garai batekoa.

Harresia dorreari lotzen zaio.

Dorrearen zimendua harresiarena baino askoz ere sendoagoa da, harri naturalak mendebalderantz duen okermendua gainditzen du, eta maila berdintzen du egituraren beraren hormak eraiki ahal izateko.

Dorrean zimendurako maila bi hautematen dira, batez ere iparraldeko aurpegian. Goiko zapata landu gabeko kareharri tabularrekin eraikia, horma baten gisara, ondo landua, beste maila sendoago batean egokitua. Bigarren maila hau neurri handiago kareharriz egina da, kareztatu gabeak eta gutxi gora-behera 45°-tan ipiniak, kareore sendoago batez batuak. Hegoaldeko aurpegiaren zimendua nahasiago ageri zen goiko partean, eta ez zuen kanpoko harrizko estaldura kontser-

Los solares en cuestión se ubican en el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz, junto a la muralla fundacional del núcleo medieval, cuya construcción se documenta en 1181. La intervención arqueológica vino motivada por la existencia de un proyecto de construcción de viviendas, locales comerciales y trasteros. Solares construidos sobre un aterrazamiento de la ladera, con un fuerte desnivel entre la calle Correría y el patio trasero —sin construir— en el que era visible el paño de la muralla. Se llevaron a cabo un total de 6 sondeos estratigráficos, 4 de ellos en la parte baja y 2 junto a una torre de la muralla.

Los resultados de los mismos carecieron de relevancia desde el punto de vista arqueológico, al no haberse localizado sino unidades estratigráficas y evidencias materiales de cronología contemporánea de escaso interés, lo que no hizo necesaria una actuación en extensión. No obstante, los sondeos llevados a cabo junto a la muralla, permitieron documentar la cimentación de ésta y de la torre, así como la secuencia de construcción de ambas estructuras. Así se pudo establecer:

Que la muralla en este punto es una construcción muy alterada respecto a su fábrica original, sobre todo en su parte superior, totalmente reconstruida a partir de las aspilleras que aún se conservan en los paños de la torre. La parte baja también muestra alteraciones y la presencia de construcciones anexas cuyas huellas son aún visibles sobre el paramento, así como de un muro —localizado dentro de un sondeo— adosado a la muralla y claramente posterior.

Que la muralla se adosa a la torre.

Que la cimentación de la torre es mucho más potente que la de la muralla, salvando además el propio buzamiento de la roca hacia el oeste y nivelándolo para construir el alzado propiamente dicho de la estructura.

Que se observaban dos niveles de cimentación en la torre, sobre todo en su cara norte, con una zapata superior construida con mampuestos tabulares de caliza, ejecutada a modo de murete y de buena factura, sustentada sobre otro nivel más potente constituido por un conjunto de calizas de mayor tamaño y sin carear dispuestas más o menos a 45° y trabadas con una argamasa más consistente. La cimentación de la cara sur estaba algo más alterada en su parte superior,

batzen. Aurpegi honek ere seguru asko zimendurako maila bi izango zituen: goikoa landu gabeko kareharri tabularrez osatua, ondo landua hormatxo baten gisara kanpoko aurpegia eratuz. Maila hau beste zimendurako maila baten gainean egokituko zen, bigarren hau kareharrizko bloke handiz eraikia. Tarte batzuetan eta beheko partean jarriak txikiagoak izango ziren eta 45°-tan ipiniak egongo ziren.

Harresiaren zimendua erregularragoa da, kanpoko estaldura formaz erregularragoarekin. Dorrearen iparraldean landu gabeko kareharri tabularrezko errenkada erdiz eraikita dago, harri naturala altuago dagoelako, eta hegoaldean lodiera handiagoa du. Atal honen beheko partean, landu gabeko harri neurriz apalagoak ageri dira, 45°-tan ipiniak.

Harresiaren zimenduak dorrearekin bat egiten du iparraldeko aurpegian.

Harresiaren zapata dorrearen zimenduaren gainean egokitzen da hegoaldeko aurpegian.

Dorrea harresiaren atal hau baino lehenago eraiki zuten.

Bukatzeko, esan dezagun harresiaren atalaren eta azterketa eremuko dorreen egungo egoera islatzeko planoak egin genituela.

no conservándose el forro exterior de piedras. Este paño posiblemente también tuvo dos niveles de cimentación: uno superior con mampuestos tabulares de caliza dispuestos constituyendo una cara exterior a modo de murete y de factura regular, sustentándose sobre un segundo nivel de cimentación construido con grandes bloques calizos, aunque zonalmente y ya en su parte baja, serían más pequeños y dispuestos a 45°.

Que la cimentación de la muralla es de factura más regular, con un forro exterior aparejado de forma regular. En la parte al norte de la torre está constituida por 1/2 hiladas de mampuestos tabulares de caliza, ya que la roca está más alta, en tanto en la sur tiene una mayor potencia. En la parte inferior de este tramo, presenta mampuestos de menor tamaño dispuestos ya a 45°.

Que la cimentación de la muralla se adosa a la de la torre en su cara norte.

Que la zapata de la muralla monta sobre la cimentación de la torre en su cara sur.

Que la torre está construida con anterioridad al propio paño de la muralla.

Finalmente señalar que también se llevó a cabo un levantamiento planimétrico del estado actual del tramo de muralla y la torre ubicadas en la zona en estudio.

Idoia Filloy Nieva

D.1.2.16. **Erreteganako aztarnategia (Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Luis Gil Zubillaga
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

D.1.2.16. **Yacimiento de Retegana (Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Luis Gil Zubillaga
Financiación: Diputación Foral de Álava

Due to the existence of a project aimed at improving the local A-4307 road which links the towns of Foronda and Artaza (municipality of Vitoria-Gasteiz, Álava), an archaeological monitoring project was carried out of the corresponding works.
The only site affected by the works was the «Retegana» site located next to the town of Foronda. In this Roman site, a number of sondages were carried out prior to the work in the area that was to be affected. The results of the sondages were negative, which led to the conclusion that the road works would have no impact of archaeological importance.

«Forondatik Artatzarako A-4307 errepidea zabaltzeko, hobetzeko eta sendotzeko» lanak zirela-eta, obren gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen.

Aldez aurreko ikusizko miaketa egin ondoren, a priori ukitzen den aztarnategi bakarra Forondako herritik hurbil dagoen Erreteganakoa dela erabakitzen da. Obrek erromatarren garaiko aztarnategi gisa katalogatutako aztarnategi honetan eragin zezaketen inpaktua neurtzeko, lau zundaketa estratigrafiko egin genituen errepidearen alde bietara, lauak eskuz.

Con motivo de las obras de «Ensanche, mejora y refuerzo de la carretera A-4307 de Foronda a Artaza», hemos llevado a cabo el correspondiente control arqueológico de las mismas.

Tras la prospección visual previa, se determina que el único yacimiento afectado a priori es el de «Retegana», situado junto a la localidad de Foronda. Para valorar el posible impacto de las obras en este yacimiento catalogado de época romana, hemos efectuado cuatro sondeos estratigráficos manuales, a ambos lados de la carretera.

Interbentzio honen emaitzak negatiboak izan ziren. Zundaketetan ez genuen ez egiturarik ez maila arkeologiko estratifikaturik bereizi. Harri naturala eskuarki sakonera txikian azaltzen da, eta aurkitutako aztarna material urriak, kronologiaz erromatarren garaikoak eta Erdi Arokoak, oso nahasita ageri ziren inguru honetan garatutako laborantza lanen ondorioz.

Ondorengo obren gaineko kontrol lanek ere ez zuten emaitza positiborik eskaini.

Los resultados de esta intervención pueden calificarse como negativos. En ninguno de los sondeos hemos localizado ni estructuras ni niveles arqueológicos estratificados. La roca madre aparece en general a escasa profundidad, y las escasas evidencias materiales localizadas, de cronología romana y medieval, muestran la apariencia de haber sido muy alteradas por la labranza.

El posterior control de obras también ofreció resultados negativos.

Luis Gil Zubillaga

D.1.3. *MIAKETAK*

D.1.3.1. **Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko burdinbidea. Atala: Arrazua-Ubarrundia-Legutiano (Arrazua-Ubarrundia, Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero
Finantzazioa: Idom Internacional S.A.U. eta Geoconsult, S.A. Aldi baterako Enpresa Elkartea

D.1.3. *PROSPECCIONES*

D.1.3.1. **Línea de alta velocidad Vitoria-Gasteiz-Bilbao-Donostia-San Sebastián. Tramo: Arrazua-Ubarrundia-Legutiano (Arrazua-Ubarrundia, Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Alberto Plata Montero
Financiación: Idom Internacional S.A.U. y Geoconsult, S.A. UTE

The work on the «Arrazua-Ubarrundia-Legutiano» stretch of the basic project for the high-speed train line linking Vitoria, Bilbao and San Sebastián requires an archaeological study to be carried out prior to the construction work. For this reason, at the request of Ingeniería Idom Internacional S.A.U. y Geoconsult, S.A. UTE*, the company awarded the contract for the works, carried out a comprehensive study divided into four stages: a) heritage assessment report; b) heritage impact report; c) proposal for corrective measures; d) execution of corrective measures.*

Proiektuan planteatutako faseetatik, lehenengoa eraman dugu burura. Ondarea baloratzeko txosten bat aurkeztu zuen, eta txosten horretan agerian utzi zuen aipatutako obrek ondare arkeologikoan izan zezaketen eragina.

Burura eraman dugun lanaren antolakuntzak miaketa-zerrendak mugatzeko metodologian du oinarri. Miaketa-zerrenda horiek, batetik, lanen artikulazioa errazten digute, eta bestetik, inpaktua nola obra-zerrendan hala inguru hurbilean neurtzeko orduan lehen hurbilketa bat egiteko modua eskaintzen digute.

Metodologia hau oro har aplikatu da, lan bakoitzak bere ezaugarriekin bat datorren egokitzapena eskatzen baitu. Gure kasuari dagokionez, zerrenden hedadurak eta mugak burura eramango diren lanen eraginpeko esparrura egokitu genituen.

Horra lanetan zehar erabilitako zerrenda bakoitzaren definizioa:

De las etapas planteadas en el proyecto, hemos llevado a cabo la primera, en la cual se presentó un informe de valoración patrimonial que puso de manifiesto las posibles afecciones arqueológicas que sobre el patrimonio arqueológico tendrán las citadas obras.

La organización del trabajo que hemos efectuado está basada en la metodología de delimitación de bandas de prospección, que por un lado nos facilitan la articulación de las labores, y por otro nos permiten realizar una primera aproximación a la hora de la evaluación del impacto, tanto en la franja de obra como en su entorno inmediato.

La aplicación de esta metodología se ha realizado en líneas generales, ya que cada trabajo requiere un acondicionamiento propio acorde a sus características individuales. En nuestro caso en concreto hemos adecuado la extensión y delimitación de las bandas de acuerdo a la entidad y grado de afección de los trabajos que se van a realizar.

La definición particular de las bandas utilizadas en el transcurso del trabajo, ha sido la siguiente:

A) Ukitutako zerrenda: Burdinbidea eta bere inguru hurbilena hartzen dituen aldea da, gure kasuan burdinbideko plataformaren neurrikoa. Kontuan harturik lubetak egin behar diren aldeak, obraren zerrendaren zabalera 10 eta 45 metro bitartekoa da. Horrexegatik erabaki genuen zerrendak 100 metroko zabalera izatea, 50 metro plataformaren ardatzaren erdiko lerroaren alde bietara. Zerrenda honetan, aztarnategi arkeologikoak zuzenean eta atzera egiteko modurik gabe ukituko direnez, dokumentaturiko hondakinek eragin maila larria jasango dute.

B) Eraginpeko zerrenda: Gure kasuan muga batzuk zehaztu ditugu zerrenda honi begira, 50 eta 200 metro bitarte burdinbideko plataformaren alde bietara. Izan ere, aurrera egin ahala obrek esparru hau ukituko dutela ulertzen baitugu, ez ordea beti atzera egiteko aukerarik gabe, eremu hau ez baita burdinbideko plataformaren azpian ezkutaturik geratuko. Horrexegatik, hain zuzen ere, zerrenda honetan aurkitzen diren hondakinek jasango duten eragina zeharkakoa izango da, eta eragin maila ertaina izango da.


C) Laginketarako zerrenda: Zerrenda honen mugak 200 eta 300 metro bitartean zehaztu dira plataformaren ardatzaren alde bietara. Zerrenda honetan dokumentatzen diren hondakin arkeologikoek ez dute eraginik jasango. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da elementu horiek dokumentatzea, aurreko zerrenden baitan aurkitutako hondakinak dagozkion testuingurura biltzeko xedean.

A) Banda de afección: Se trata de la zona por la que discurre el trazado y su entorno más inmediato, en nuestro caso el tamaño de la plataforma viaria. Teniendo en cuenta las zonas donde es necesaria la ejecución de terraplenes, la anchura de la franja de obra varía entre 19 y 45 metros. Por ello establecemos que la banda tenga unas dimensiones de 100 metros, 50 a cada lado de la línea central del eje de la plataforma. En esta franja, debido a que los yacimientos arqueológicos existentes van a verse afectados de manera directa e irreversible, los restos documentados van a adquirir un grado de afección crítico.

B) Banda de incidencia: En nuestro caso hemos establecido unos límites para esta banda, situados entre 50 y 200 metros a cada lado de la plataforma viaria, entendiendo que durante el transcurso de las obras este ámbito espacial va a verse afectado, aunque no siempre, de manera irreversible, ya que esta área no va a quedar oculta bajo la plataforma viaria. Debido a ello, la afección de los restos localizados en esta banda se va a considerar indirecta, y el grado de afección moderado.

C) Banda de muestreo: Los límites espaciales de esta banda se han establecido entre los 200 y los 300 metros a cada lado del eje de la plataforma. En esta banda se considera que los restos arqueológicos documentados no van verse afectados. Sin embargo se considera necesaria su documentación, logrando con ello ayudar a la contextualización de los restos localizados dentro de las bandas anteriores.

Aztertutako eremuan dokumentaturiko aztarnategien kokalekua.



Localización de los yacimientos documentados en el área estudiada.

Plano kartografikoetan lanerako zerrendak zehaztu ondoren, alde honetako aztarnategi arkeologikoak aipa ditzaketen informazio iturri guztiak berriro aztertzea izan genuen hurrengo urratsa. Xede horretan Arabako Karta Arkeologikoan dokumentaturiko aztarnategiak, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren datu-baseak eta GIS-a eta erakunde horrek urtero argitaratzen duen *Arkeoikuska* argitalpena berrikusi genituen. Era berean, aztertutako atalean dokumentaturiko aztarnategi arkeologikoak zuzenean edo zeharka aipatzen dituzten argitalpenen bibliografia berrikusi genuen. Gainera, eta ezinbesteko jarduera osagarri gisa, ikusizko miaketa bat egin genuen bertatik bertara.

Aztarnategiak identifikatu ondoren, GIS programa batean islatu genituen haien kokalekuak zehaztuz. Halatan, beharrezkoak genituen gaikako planoak osatu genituen, eta aztarnategiek eskainitako informazio alfazenbakizkoa eta grafikoa modu erraz eta bateratuan kudeatzeko modua prestatu genuen.

Jarraian aurkezten dugu obrek ukituko dituzten aztarnategi arkeologikoen zerrenda.

Una vez establecidas las bandas de trabajo en los diversos planos cartográficos, el siguiente paso en el estudio efectuado ha sido el de revisar toda aquella información que pudiera hacer referencia a los yacimientos arqueológicos de la zona. Para ello hemos procedido a la revisión de los yacimientos documentados en la Carta Arqueológica de Álava, las bases de datos y el GIS. del Centro de Patrimonio Cultural Vasco, así como su publicación anual *Arkeoikuska*. También, se ha procedido a la revisión bibliográfica de las publicaciones en las que se hace referencia directa o indirectamente a los yacimientos arqueológicos documentados en el tramo estudiado. Además y como complemento indispensable se ha realizado una prospección visual del terreno.

Tras la identificación de los diversos yacimientos, éstos han sido georreferenciados en un programa de GIS mediante el cual hemos podido generar los planos temáticos necesarios, así como gestionar de manera sencilla y conjunta, tanto la información alfanumérica como gráfica proporcionada por los diversos yacimientos.

A continuación exponemos una tabla de los yacimientos arqueológicos que van a ser afectado por la obras.

	Fitxa zka./N.º Ficha	Izena/Denominación	Udalerria/Municipio	Herria/Localidad
Ukitutako zerrenda	19	Arzamendi	Arrazua-Ubarrundia	Luco
Banda de Afección	NYE-1	La Calzada	Vitoria-Gasteiz	Miñano Mayor
	97	San Andrés	Vitoria-Gasteiz	Retana
	NYE-17	Porrosolo	Vitoria-Gasteiz	Retana
	NYE-21	Aracabea	Vitoria-Gasteiz	Retana
Eraginpeko zerrenda	GAS-3	Bentaldea	Arrazua-Ubarrundia	Luco
Banda de Incidencia	93	San Lorenzo	Vitoria-Gasteiz	Miñano Mayor
	53	San Esteban	Vitoria-Gasteiz	Retana
Laginketarako zerrenda	31	Kapelamendi	Arrazua-Ubarrundia	Durana
Banda de Muestreo	4	San Esteban	Arrazua-Ubarrundia	Durana
	30	Eskalmendi	Arrazua-Ubarrundia	Arzubiaga
	98	La Natividad	Arrazua-Ubarrundia	Gamarra Menor

Alberto Plata Montero

D.1.4. *OBREN KONTROLAK*

D.1.4.1. **Ama Birjinaren Jasokundearen Elizaren ingurua (Berantevilla)**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantzazioa: Arabarri, S.A.

D.1.4. *CONTROLES DE OBRAS*

D.1.4.1. **Entorno de la Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora (Berantevilla)**

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: Arabarri, S.A.

The opening up of trenches in the area surrounding La Asunción de Nuestra Señora Church in Berantevilla uncovered almost immediately a human skeleton located at the northern end of the building. This discovery led to an archaeological intervention which combined the monitoring of the trench digs and the archaeological excavation of the western and southern sides of the church. As a result, various burial levels corresponding to the medieval necropolis and cemetery were uncovered, along with the disk of a stele.

Beranturiko Ama Birjinaren Jasokundearen elizaren inguruan termiten aurkako programa aitzindari bat eraman behar zuten aurrera, eta haren arabera zanga bat ireki behar zuten aipatutako tenpluaren iparraldeko, hegoaldeko eta mendebaldeko hormen inguruan. Indusketa lanak hasi zirenean, ehorzketa baten zantzuak geratu ziren agerian zangaren iparraldean. Aurkikuntza hori egin eta gero obren promotore Arabarri S.A. elkarteko zuzendaritza harremanetan jarri zen gurekin honek aurkikuntzaren balorazioa egin zezan, obra hauen gaineko jarraipen eta kontrol arkeologikorako proiektua itxuratu zezan eta hautemandako hondakinak induskatu zitzan.

Jarraipen eta kontrol proiektuak zehazten zuen jarduera ildoa arkeologo baten presentzian oinarritzen zen. Honek makineriaren lanak ikuskatuko zituen, eta obra eten beharreko lekuak adieraziko zituen beste talde batek (lau profesionalen lana eskatu zuenak) makineriak agerian utzitako hondakinak berreskuratuko zituen bitartean. Interbentzio arkeologikoa zangara mugatzeko erabakia hartu zen, egungo zoladuraren azpitik horizontalean jardun gabe, hilobi osoak berreskuratzeko ez bazen.

Iparraldeko zangan bideratutako lanei esker hobi bakuneko hilobi bat aurkitu eta atera ahal izan genuen, bertan pertsona baten hezurrak zeudela. Bestalde, zanga osoaren gaineko kontrolak iturri bat —auzoen arabera gure garaian egindako iturria da— eta elizaren

La ejecución de un programa experimental de lucha contra las termitas en el entorno de la Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora, en Berantevilla, incluía la realización de una zanja alrededor de los flancos norte, sur y oeste del mencionado templo. Una vez iniciadas las labores de excavación se localizaron, en la zona norte de la zanja, los restos de un enterramiento. Tras dicho hallazgo la dirección de Arabarri, S.A., entidad promotora de las obras, se puso en contacto con nosotros para la evaluación del hallazgo y la elaboración de un proyecto de seguimiento y control arqueológico de estas obras y la excavación de los restos detectados.

La línea de actuación que marcaba el proyecto de seguimiento y control se basaba en la presencia de un arqueólogo supervisando los trabajos de la maquinaria indicando los sitios donde se tendría que parar la obra mientras que otro equipo (que llegó a necesitar la presencia de cuatro profesionales) se ocuparía de recuperar los restos puestos a la vista por la maquinaria. Se estimó la necesidad de limitar la intervención arqueológica al interior de la zanja no interviniendo horizontalmente por debajo de la solera actual salvo para recuperar tumbas completas.

Los trabajos en la zanja norte permitieron la localización y exhumación de un enterramiento en fosa simple que contenía los restos de un individuo. Así mismo el control de toda la zanja permitió la localización de una fuente —reconocida por los vecinos como un ele-



Hilarriaren kokalekua, agerian utzitako hormetako batean txertatua.

Localización de la estela formando parte de uno de los muros descubiertos.

iparraldeko hormarekin bat egiten zuen beste horma bat bereizi genituen. Horma honen taxua osatuz disko formako hilarri bat aurkitu genuen, hilarriaren aurpegi biak dekoraturik. Hareharrian landua dago, alboetako aurpegiak leunduak. Diskoak 36 cm-ko diametroa du, 18 cm lodi da eta 35 cm-ko altuera kontserbatu du (neurri horiek guztiak piezak jasandako kalteek baldintzatuta daude). Aurreko aldean landareetan oinarritutako dekorazioa du, lau petalo parez osatutako motiboa, petaloak zirkuluaren barruan ziztatuak. Atzeko aldean aurpegia lautan banatzen duen hondotik nabarmentzen den gurutze greko bat du; 1. eta 4. laurdenetan 6 puntako izar bana —Dabiden Izarra— ageri da ziztaturik, eta 2. eta 3. laurdenetan lau petalo zirkuluen barruan.

Mendebaldeko zangan jardun zuen makinaren lanen gaineko kontrolak ez zuen emaitza positiborik eskaini, ez genuen inolako hondakin arkeologikorik bereizi.

Hegoaldean irekiriko zangak hainbat mailatan egokitutako hilobiak ateratzeko eta tenpluaren hormari atxikiriko horma egitura batzuk bereizteko aukera eman zigun. Hilobiei dagokienez, hiru ehorzketa maila bereizi genituen. Maila gorenean zegoena Aro Modernoaren amaierarekin, hilotzak elizen barruko aldean ehorzteko ohiturarekin amaitu ondorengo aldiarekin, bat etortzen zen; maila hau oso nahasita zegoen plazan bideratutako obra ugariek eraginda (azkenekoak 90. hamarraldiaren erdialdera), eta ondorioz hezurdura batzuek ez dute lotura anatomikorik aurkezten, eta ziurrenik plazan komenientziazko hezurtegiak osatuko zituzten. Indusketaren maila goren honetan eskeletoaren lepoaren inguruan jarritako kondera bat ematen duen elementua aurkitu genuen. Maila honetako hilobia hobi bakuna dela ematen du, baina interpretazio hau makineriaren ekintza suntsitzaileak baldintzatuta dago.

Azpiko beste mailak seguru asko Erdi Arokoak izango dira, Hiribilduaren fundazioaren eta hazkundearen garaikoak. Hilobiak hartxabalez eginda daude, estalkiak harrizkoak, eta zenduak ekialdetik (oinak) mendebaldera (burua) egokituta daude. Nolanahi ere, hilobi hauek berriro erabiliak izan zirelako zantzuak hauteman ditugu, eta horiek ez diote eskema berari erantzuten.

Eskeletoak ateratzen eta arkeologikoki antzuak ziren substratuetara iristen ginen aldi berean, lanen enpresa esleipendunak aurrera jarraitzen zuen hodiak instalatzeko eta zangak estaltzeko lanekin.

mento realizado en época reciente— así como la constatación de un muro que venía a adosarse a la pared norte de la iglesia. Formando parte del aparejo de este muro se recuperó el disco de una estela discoidea decorada por sus dos caras. Está realizada sobre roca arenisca, con las superficies laterales alisadas. Presenta un disco de 36 centímetros de diámetro, un grosor de 18, y una altura conservada de 35 centímetros (todas estas medidas están condicionadas por los daños que la pieza ha sufrido). Su anverso presenta una decoración vegetal, con un motivo floral de cuatro pares de pétalos incisos e inscritos en el círculo. Su reverso presenta una cruz griega resaltada sobre el fondo que distribuye el campo en cuatro cuarteles habiéndose grabado por incisión en los cuarteles 1 y 4 sendas estrellas de 6 puntas —Estrella de David— y en los cuarteles 2 y 3 flores con cuatro pétalos inscritas dentro de círculos.

El control de la máquina en la zanja oeste fue negativo ya que no se localizaron restos arqueológicos de ningún tipo.

La zanja practicada en el lado sur propició el levantamiento de una serie de enterramientos en varios niveles y la aparición de estructuras murarias que se adosaban a las paredes del templo. En lo que se refiere a los enterramientos cabe destacar la detección de tres niveles de los mismos. El más alto se correspondería con el final de la Edad Moderna y la supresión de la costumbre de enterrar en el interior de las iglesias; este nivel se hallaba sumamente alterado por la realización de distintas obras en la plaza (las últimas en la mitad de la década de los 90) que han provocado la desconexión anatómica de algunos de los esqueletos y la más que probable creación de osarios de conveniencia en la plaza. En este nivel más alto de la excavación se ha podido recuperar un elemento de ajuar que parece corresponderse con las cuentas de un rosario colocado en torno al cuello del esqueleto. El tipo de enterramiento correspondiente a este nivel parece ser el de fosa simple, aunque siempre mediatizada esta interpretación por la acción destructora de la maquinaria.

Los dos niveles inferiores tendrán, probablemente, un origen medieval relacionado con la fundación y crecimiento de la villa. Sus características principales son las tumbas de lajas con tapa de piedra y con el finado orientado de manera este-oeste aunque se han detectado reutilizaciones de las tumbas que no se corresponderían con este esquema.

Al tiempo que se exhumaban los esqueletos y se llegaba a los sustratos arqueológicamente estériles se continuaba con los trabajos de instalación de tuberías y rellenado de la zanja por parte de la empresa adjudicataria de los trabajos.

F. Rafael Varón Hernández

D.1.4.2. **Udaletxea. Bakearen Plaza, z/g (Labastida)**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain
Finantzazioa: Bastidako Udala

D.1.4.2. **Casa Consistorial. Plaza de la Paz, s/n.º (Labastida)**

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain
Financiación: Ayuntamiento de Labastida

The Labastida Town Hall is located in the modernist expansion area (18th century) of the town of Labastida. As early as 1242, the Town Hall already stood on the side of a hill in a strategic location which had been inhabited in previous centuries. The town of Labastida was structured around two neighbourhoods which surrounded the Cristo, El Olmo fortress, with its square and street running north-west, and La Mota, with two parallel streets, Mota Alta and Mota Baja. All this was protected within a walled precinct.
From the 16th century onwards, the town expanded to the lower part of the hill, where the ground was flatter and easier to build on. However, it was during a later period of expansion, which took place during the 18th century, that Mayor, Larrazuria and Frontín Streets and La Paz Square (formerly known as Constitución Square) were built.
The building that is the object of this intervention is located in La Paz Square.
The Town Hall had (and continues to have) a clearly administrative function. Construction work began in 1732 and the building was finished in 1740. It was designed by Agustín de Azcarraga, although it was mainly built by Ignacio de Elejalde.

XVIII. mendeko euskal-nafar lurraldeko udaletxeek komunean dituzten ezaugarriak ditu: behe-oin arkupeduna; kontzeju aretoa lehenengo oinean, arkupeen gainean; burdineriaz hornitutako balkoiak; ziega eta beste gela batzuk; dekorazioa baoen inguruetara mugatua; aglomeratu moldeko barne antolakuntza (erdiko patiorik gabe), soila eta ez oso handia.

que implica la progresiva demolición de la iglesia medieval. Se levantan ahora el ábside, el primer tramo y una sacristía adosada al sur. Este momento se circunscribe, en función de las características estilísticas y de la documentación histórica, a la primera mitad del siglo XVI. A partir de la etapa V tenemos datos más precisos acerca de las diferentes actuaciones que se van produciendo en el edificio. Así el maestro Juan de Olate continúa el proyecto de iglesia comenzado en la etapa anterior levantando el segundo tramo de la nave (etapa Va) entre 1583 y 1624. Esta intervención implica la consolidación de los restos de la iglesia medieval todavía en pie y su configuración como tercer y último tramo del edificio (etapa Vb), así como la construcción de la actual estructura del coro (etapa Vc). Durante la etapa VI asistimos al levantamiento de una nueva sacristía entre 1681 y 1685, en el mismo lugar en el que se levantó la anterior.

A partir de este momento hacemos referencia a las intervenciones y reformas que no transforman la imagen arquitectónica que tenemos actualmente del templo. La etapa VII agrupa las diferentes adecuaciones litúrgicas y funcionales que se produjeron durante el siglo XVIII, mientras que la etapa VIII agrupa las producidas hasta 1950. Finalmente, la etapa IX engloba las actuaciones y reparaciones efectuadas durante las últimas décadas de vida del edificio y necesarias para su mantenimiento.

Mario Núñez Herrero

D.1.5.5. **Madalena nekropolia Caicedo-Yuson (Lantaron)**

Zuzendaritza: Luis Gil Zubillaga
Finantzazioa: Lantarongo Udala

D.1.5.5. **Necrópolis de la Magdalena, en Caicedo-Yuso (Lantarón)**

Dirección: Luis Gil Zubillaga
Financiación: Ayuntamiento de Lantarón

At the request of the Lantarón Local Council, we cleaned and renovated the cemetery carved into the «La Magdalena» rock in the town of Caicedo-Yuso.
Although the site had already been catalogued, it was practically unrecognisable, due to the successive deposits of stone from nearby sites and the existence of abundant shrub-like vegetation.
After the cleaning process, and under archaeological supervision in order to avoid any damage, we uncovered a total of ten tombs carved into the rock face, among which we found examples of trapezoid and bath plants, as well as a curious semicircular headstone.
The Lantarón Local Council has promised to fence off the area and signpost the cemetery in order to ensure its protection and encourage visits.

Lantarongo udalaren ekimenari jarraiki, harrian tailaturiko «Madalena» nekropolia garbitu eta egokitu dugu. Nekropoli hau Caicedo-Yuso herritik hurbil dago.

Nekropoli hau jada 1970eko hamarraldian dokumentatu zen. Nekropolia oso hondatuta zegoen zuhaixkek hartua zegoelako eta bertan inguruko lursailetatik

A iniciativa del ayuntamiento de Lantarón, hemos llevado a cabo la limpieza y acondicionamiento de la necrópolis tallada en la roca de «La Magdalena», situada a escasa distancia de la localidad de Caicedo-Yuso.

La existencia de esta necrópolis había sido publicada ya en la década de 1970, y sin embargo había sufrido un fuerte proceso de deterioro, tanto por cau-

ekarritako harri ugari metatu zirelako. Garbitu aurreko egoeran ezin ezagutu zitekeen.

Garbiketa lanak egin eta gero, hots zuhaixkak, lurra eta harriak kontrolpean kendu ondoren, lastra handi bat geratu zen agerian, harrian ilaran tailaturiko hamar hilobi bereizi genituen, hilobiak mendebaldetik ekialdera egokituak.

Ez genuen aztarna materialik aurkitu, nekropolia aspaldidanik hustua izan zela adierazten diguna.

Nekropoli honetan topatzen ditugun hilobien tipologiari dagokionez, hilobi gehienak bainu-ontzi eta trapezio formakoak dira, baina bada bat buruko erdizirkular bat duena, ederra benetan. Gehienak haurrentzako hilobiak dira, eta batzuek pikotxen bidezko azken ukitu berezi batzuk dituzte. Azken ezaugarri horri hilobien sakonera apala gehitzen badiogu, zirriborratutako hilobiak edo amaitu gabeko hilobiak direla pentsa dezakegu.

Bestalde, hilobi biren artean paldoren bat egokitzeko zuloa edo hobi txikia bereizi genuen, eta nekropolia estaltzen zuten harrien artean hilobi bati legokiokeen ustezko estalkia.

sa de la vegetación arbustiva, como de la acumulación de abundantes piedras procedentes de las fincas colindantes. En su estado actual resultaba irreconocible.

Tras los correspondientes trabajos de limpieza, que han consistido en la retirada controlada de las piedras, la tierra y la vegetación arbustiva, queda a la luz una lastra de gran monumentalidad, con una decena de enterramientos alineados tallados en la roca, con orientación oeste-este.

No se localizaron evidencias materiales, lo cual nos indica que esta necrópolis había sido saqueada desde antiguo.

La tipología funeraria que encontramos en la necrópolis consiste en tumbas de planta de bañera y trapeciales, así como un bello ejemplar con una cabecera semicircular. En su mayor parte corresponden a tumbas infantiles, y algunas presentan un curioso acabado «repiqueteado», lo cual unido a su muy escasa profundidad, nos plantea si no se trata de enterramientos sólo esbozados o inconclusos.

También hemos localizado un agujero de poste o pocillo situado entre dos tumbas, así como una posible cubierta de sepultura entre las piedras que cubrían la necrópolis.



Nekropolia garbitzeko lanen ikuspegi orokorra.

Vista general de los trabajos de limpieza de la necrópolis.

Garbitu ondoren eta lanen eta egituren dokumentazio arkeologikoa amaitu eta gero, Lantarongo Udalak bere egin du nekropoli hau babesteko eta nekropoliari halako balioa emateko konpromisoa. Xede horretan, nekropolia partzialki hesituko da eta azalpen panelak paratuko dira inguruetan.

Tras la limpieza, y la documentación arqueológica efectuada de los trabajos y de las estructuras, existe el compromiso, por parte del ayuntamiento de Lantarón, de llevar a cabo la protección y puesta en valor de esta necrópolis, mediante su vallado parcial, y la colocación de carteles explicativos.

Luis Gil Zubillaga

D.1.5.6. **Ruíz de Vergara etxea, Zapatari 33 eta Errementari 30-32 bitartean (Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Finantzazioa: Arabarri eta Gasteizko Udaleko Hirigintza berrikuntza eta Etxebizitza Agentzia

D.1.5.6. **Casa Ruíz de Vergara, entre Zapatería 33 y Herrería 30-32 (Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Financiación: Arabarri y Agencia de Renovación Urbana y Vivienda del ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

An analysis of the constructive evolution of Ruiz de Vergara house, carried out in accordance with stratigraphic criteria. The intervention (currently being carried out) consists of an analysis of the walls and their excavation. The developmental sequence of the building is divided into six principal moments (the oldest being a building dating from the end of the 15th century), which correspond to a number of historical events which affected the owners and which are reflected in the varying uses to which the building has been put, in accordance with the needs of the moment.

Interbentzioaren arazoak eta arrazoiak

Ruiz de Vergara izenaz ezagutzen den etxearen (Gasteizko hirigune historikoko Zapatari kaleko 33. zenbakiaren eta Errementari kaleko 30.-32. zenbakien artean kokatua) historia eta arkeologia azterketa 2003ko azken herenean hasi genuen, eta beraz, une honetan amaitu gabe dago. Horrenbestez, behin-behinekoak dira laburpen txiki honetan aurkezten diren datuak. Hori esan ondoren, aipatutako higiezinean egingo diren berrikuntza lanek eraman dute ikerketa hau egitera, etxea Elkarte Arabarri egoitza berri bihurtuko baita.

Lan arkeologikoak egiteko agindua jaso eta gero, azterketa proiektu bat itxuratu genuen. Horren arabera, hormen irakurketa estratigrafikoa egingo genuen (ezinbestekoa eraikinaren eraikuntzaren bilakaera zehazteko) eta eraikinaren barruko zorupea induskatuko genuen, berritze lanen gaineko jarraipena ahantzi gabe.

Ikus daitekeenez, planteatutako jarduteko estrategiak indusketa arkeologikoa eta hormen irakurketa osagarri diren lan eskemari erantzuten dio. Eta hori azpimarratu egin nahi dugu, gure ustez ohikoa eta larriegia delako, batez ere hiri esparruan bideratutako eta oker deituriko «premiazko» edo «salbatzeko» interben-

Problemática y motivación de la intervención

El estudio histórico-arqueológico de la conocida como Casa Ruiz de Vergara (sita entre los números 33 de la Calle Zapatería y 30-32 de la Calle Herrería en el casco histórico de Vitoria-Gasteiz) comenzó en el último tercio del 2003, por lo que en la actualidad se encuentra en ejecución. Este hecho hace que los datos vertidos en esta pequeña síntesis no pueden ser tomados sino como provisionales. Dicho esto, cabría señalar que la realización de la presente investigación está motivada por las labores de restauración que se realizarán en el citado inmueble, dado que el mismo será en breve convertido en la nueva sede de la Sociedad.

Una vez recibida la comisión de los trabajos arqueológicos, confeccionamos un proyecto de análisis que comprendía tanto la lectura estratigráfica de los alzados (imprescindible para vertebrar la evolución constructiva del edificio) como la excavación de subsuelo en el interior del edificio, sin olvidar, obviamente, el seguimiento de las propias obras de restauración.

Como se observa, la estrategia de intervención planteada responde a un esquema de trabajo donde se complementa la excavación arqueológica con la lectura de alzados. Hacemos hincapié en este hecho, porque creemos que es demasiado habitual y grave, sobre todo en las erróneamente denominadas intervenciones

tzioetan, hormen irakurketa estratigrafikoa albo batera uztea. Esperientziak erakusten digu kasurik gehienetan hormen irakurketa zuzenarekin zundaketen bidez lorturiko datuekin baino hobe ezagutzen dela orubeko arkeologia, nahiz eta zundaketak beti egin, egin behar diren.

Izan ere, orubeak bere hedadura osoan induskatzeko baldintza egokiak dituenean izan ezik, kata arkeologikoetan lortutako informazioa ezin osoa izan daiteke. Hortaz, eraikitako multzo osoa hartzen duen azterketa bakarra denez, hormen irakurketa estratigrafikoa bitarteko posible bakarra da zundaketetan lorturiko datuak ere jasotzen dituen ikuspegi oso bat izateko. Eta hormetan kontserbatutako errealitatea itxuraz berria bada ere, hormak osatzen dituzten paramentuen azterketak agerian utziko du, kasu honetan gertatu den bezalaxe, horma zaharrenak behin eta berriz erabiliak izan direla, eta gainera, zorupeko sekuentzia estratigrafikoarekin zuzenean lotuta daudela.

de «urgencia» o «salvamento» realizadas en ámbito urbano, el prescindir de la lectura estratigráfica de alzados. La experiencia nos está demostrando que, en la mayor parte de los casos, una correcta lectura de alzados permite un mejor conocimiento arqueológico del solar que el obtenido mediante los sondeos (aunque, en cualquier caso, estos deben ser realizados siempre).

De hecho, salvo que se den las condiciones ideales para una excavación total en extensión, la información generada en las catas arqueológicas es, por necesidad, fragmentaria, lo que convierte a la lectura estratigráfica de alzados, en cuanto que único análisis que involucra a todo el conjunto construido, en el único medio posible para la obtención de una visión unitaria donde queden integrados también los datos obtenidos en los sondeos. Incluso si la realidad construida conservada en alzado es aparentemente reciente, una revisión de los paramentos que lo componen pondrá de relieve, como ha sido este caso, la constante reutilización de muros más antiguos que, además, conectan directamente con la secuencia estratigráfica de subsuelo.



Jauregiko enkatxuetako baten ikuspegia.

Vista de uno de los encachados con que contaba el palacio.

Hala bada, eta aztertzen ari garen kasura itzuliz, hormen irakurketaz aparte zundaketak planteatu genituenean, gure estrategiak higiezinaren zorupeko potentzia arkeologikoari buruzko informazioa biltzea eta Gasteizko hiriaren mendebaldeko mazela honetan (ekialdetik mendebaldera okertzen den aldapa handia du) urbanizazioa nola artikulatu zen argitzea zituen helburu nagusi. Oso emaitza interesgarriak bildu ditugu lan hauetan, baina azterketa amaitu arte ez dugu xehetasun gehiago emango.

Eraikuntzaren bilakaeraren behin-behineko sekuentzia

Eraikuntzaren sekuentzia azaltzeko orduan nahiago izan dugu aztertzen ari garen eraikinari «jauregi» esatea. «Mehelin-oinetxe» edo besterik gabe «oinetxe» esaten dioten beste egile batzuek ez bezala, formen ezaugarriak aintzat harturik nahiago dugu «jauregi» erabiltzea, funtzioaren ikuspuntutik aztertzen ari garen higiezinak gure ustez XVI. mendeko Gasteizko jauregiak goratu zituen errealitate edo asmo berari erantzuten diolako.

1. aldia. Aurrez zeudenak (XV. mende amaiera)

Jauregia bera eraiki baino lehenagokoak dira identifikatutako egitura batzuk. Horien artean aipagarri dira landu gabeko harriz egindako horma handi bat (1. UE) eta kandola bat. Hurrengo aldian jauregiko zolata paratu baino lehen zorua berdintzeko baliatutako betegarrietan aurkitutako zeramikazko materialari esker datatu ahal izan dira. Hortaz, lehendik eraikin bat egongo zen, eta jauregiaren eraikuntza berria lur-eremuaren orografiari eta aldez aurretik zegoen udal estolderiaren sareari egokitu behar izan zitzaien.

2. aldia. Lehenengo jauregia (1521. urte aldera)

Landu gabeko harriz egindako eraikina da, sillarria eskantzuetan eta baoen inguruetan. Errementari kalearri begira dagoen fatxadan bi oineko altuera kontserbatzen da, baina beste aldean, Zapatari kaleari begira dagoen aldean, jauregiaren fatxada nagusia egongo zen aldean, sotoak baizik ez dira kontserbatzen. Multzo honek bazuen jada barne patio bat, oinean egun ikus dezakegunaren forma bera izango zuena.

Eraikuntza honi buruzko idatzizko dokumentazio gutxi dago, baina Errementari kaleko fatxadan txertaturiko armarrietako heraldikan oinarriturik, 1521. urte aldera ezkondutako Juan Ruiz de Vergara eta María Díaz de Álava y Esquivel jaun-anderearenak direla esan dezakegu.

3. aldia. Jauregiaren birmoldaketa (XVI. mende bukaera)

Garai honetan eraikina nabari handitu zuten, eta beste oin bat irabazi zuen. Obra berri hauek adreilua dute

Pues bien, volviendo al caso particular que nos ocupa, aparte de la lectura, nuestra estrategia al plantear los sondeos pretendía que, además de informarnos sobre la potencialidad arqueológica del subsuelo del inmueble, fuese posible aclarar como se articuló constructivamente la ocupación urbanística de esta ladera Oeste de la villa de Vitoria, que cuenta con una pronunciada pendiente que buza E-O. Al respecto de todo ello, hemos obtenido interesantes resultados que detallaremos cuando el estudio esté finalizado.

Secuencia provisional de la evolución constructiva

Durante la exposición de la secuencia constructiva hemos optado por la utilización del término «palacio» para referirnos al edificio objeto de estudio. A diferencia de otros autores que optan por considerarlo como «casa señorial medianil», o bien simplemente «casa señorial», atendiendo a características formales, preferimos usar «palacio» porque entendemos que, desde un punto de vista funcional, el inmueble que estudiamos responde a la misma realidad, o intencionalidad, que promovió la elevación de los conjuntos palaciegos más destacables del siglo XVI vitoriano.

Fase 1. Preexistencias (finales del siglo XV)

Anteriores a la edificación del palacio propiamente dicho, se han identificado algunas estructuras construidas entre las que destacan un gran muro de mampostería (UE 1) y un albañal. Su datación ha sido posible gracias al material cerámico hallado en los rellenos de nivelación realizados para colocar la solera del palacio en la fase siguiente. De ello se desprende que existió un edificio anterior y que la nueva construcción del palacio debió adaptarse a la orografía del terreno así como a la red de alcantarillado municipal preexistente.

Fase 2. Palacio primitivo (hacia 1521)

Se trata de un edificio realizado íntegramente en mampostería, con sillería en los esquinales y en el recerco de los vanos. En la fachada que da a la calle Herrería se conserva en alzado hasta una altura de dos plantas, mientras que en la zona opuesta de Zapatería, donde el palacio debió tener su fachada principal, sólo se conservan los sótanos. Este conjunto contaba ya con un patio interior que, en planta, tendría la misma forma que el que podemos observar en la actualidad.

Existe escasa documentación escrita acerca de esta construcción pero, basándonos en la heráldica de los escudos que se encuentran incrustados en la fachada de Herrería, podemos afirmar que pertenecen al matrimonio formado, entorno a 1521, por Juan Ruiz de Vergara y María Díaz de Álava y Esquivel.

Fase 3. Remodelación palacio (finales del siglo XVI)

En este momento el edificio se amplia considerablemente, ganando una nueva planta. Estas nuevas

oinarri eta, alderen batean, zurezko bilbadura. Baoetan artean sillarria erabiltzen jarraitu zuten. Agerikoa denez, lehenengo Juan Ruiz de Vergara haren ondorengoren batek, agian izen bereko semeak, familiaren etxeko espazio erabilgarria handitzeko beharra izan zuen. Horrek guztiak Ruiz de Vergaratarren egoitza nagusia Gasteiztik Madrilera aldatu baino lehen (XVII. mende hasieran) gertatu behar zuen.

4. aldia. Iparraldeko hegalaren berreraikuntza (XVII.-XVIII. mendeak)

Egituran akatsen bat zegoelako edo agian eraikinak bete beharreko funtzioak birplanteatu zirelako, desagertu egin zen aurreko aldian adreiluz eraikitako higiezinaren atala, eta beste gorputz batek hartu zuen haren lekua, honakoa material beraz egindakoa baina askoz ere modu traketsagoan. Baoen kopurua eta neurriak nabari txikitu ziren.

Une honetan bi mende hartzen dituen epe kronologiko zabal hori hobe zehazten saiatzen ari gara. Itxura batean argi dago obra berri honek ez dituela estetika kontuak zaintzen, eta haren egoitza aukerak oso eskasak direla. Hortaz, fundatzaileek jauregia abandonatu eta gero, 1755etik aurrera aduana gisa eta 1812. urte inguruan oste frantsesen kaserna gisa bereganatu zituen funtzio berriek aipatutako ezaugarriak dituen bloke hau sorrarazi zutelako hipotesiarekin ari gara lanean.

5. aldia. Etxebizitzetan banatzen da (XIX. mendearen erdialdera)

Munta txikiko lan batzuk dira, eraikinaren bolumenaren egitura orokorrean eraginik ez dutenak. Guztiak adreiluz eginak dira, gehienak paretak, bao zaharren itxiturak eta eskailera berriak. Aipagarria da jauregiaren iparraldeko blokeari gehitutako gorputza, Errementari kaletik begiratuta oinen kopurua batean emendatzen duena. Ildo honetatik, badira oste frantsesak egotziak izan ondoren higiezin honetan etxebizitzak egokitu zirela adierazten duten dokumentuak.

6. aldia. Etxebizitzen banaketa berria (1864. urte aldera)

Lehenengo etxe banaketak erabateko aldaketa ezagutu zuen, 1864an, ordu arte Zapatari kaleko 33. zenbakiko orubea okupatzen zuen eraikina eraitsi zutenean, beste eraikin erabat berria eraikitzeko, etxebizitza berriekin. Bistan denez, higiezin osoaren barruko aldea berriro ere planteatu behar izan zuten, baita Errementari kaleari begira egoteagatik, agian berrantolaketa horretatik kanpora gera zitezkeen aldeak ere. Horixe da, aldaketa oso txikiak tarteko, gure garaira arte iritsi den eraikinaren egoera.

obras tienen como base el ladrillo y, en alguna zona, el entramado de madera. Para los vanos aún se utiliza la sillería. Evidentemente, alguno de los descendientes de aquel primer Juan Ruiz de Vergara, quizá su hijo homónimo, se vieron en la necesidad de aumentar el espacio útil de la residencia familiar. Todo esto tuvo que suceder con anterioridad al traslado de la residencia principal de los Ruiz de Vergara de Vitoria a Madrid, hecho que aconteció a principios del siglo XVII.

Fase 4. Reconstrucción del ala N (siglos XVII-XVIII)

Debido a algún fallo de la estructura o quizá por un replanteamiento de las necesidades que debía cumplir el edificio, desaparece parte del inmueble que había sido construido en ladrillo en la fase anterior para ser substituido por otro, confeccionado con el mismo material pero aparejado de una forma mucho más tosca. El número y la amplitud de los vanos se reducen considerablemente.

Estamos tratando, en estos momentos, de definir mejor esta amplísima horquilla cronológica que abarca dos siglos. Parece claro que esta nueva obra no guarda ninguna preocupación estética y que sus posibilidades residenciales son muy escasas, por ello trabajamos con la hipótesis de que, abandonado el palacio por sus fundadores, las nuevas funciones que asumió, como aduana desde 1755 o como barracón para las tropas francesas entorno a 1812, dieron lugar a este bloque de características ya citadas.

Fase 5. División en casas de vecindad (mediados del siglo XIX)

Se trata de un grupo de obras de reducidas dimensiones que no afectan a la configuración general del volumen del edificio. Todas ellas están efectuadas con ladrillo y se corresponden en su mayoría con tabiques, cegado de antiguos vanos o la introducción de nuevas escaleras. Cabe destacar el caso de una nueva habitación que se añade al bloque N del palacio y que hace que se eleve en una el número de plantas visibles desde la calle Herrería. Al respecto, existen pruebas documentales que nos hablan de la conversión del inmueble en casas de vecindad una vez las tropas francesas fueron expulsadas.

Fase 6. Redistribución de las casas de vecindad (hacia 1864)

Esa primera división en casas de vecindad, sufrió una profunda modificación cuando, en 1864, se derriba el edificio que hasta entonces ocupaba el portal 33 de Zapatería para construirse uno completamente nuevo con nuevas viviendas. Evidentemente, esto supone un replanteamiento interno de todo el inmueble, incluso en el caso de aquella parte que, por dar a la Herrería, pudieran quizá estar libre del mismo. Esta es la situación constructiva que, con ligerísimas modificaciones ha llegado a nuestros días.

D.2. **BIZKAIA / BIZKAIA**

D.2.1. *INDUSKETAK*

D.2.1.1. **Arostegi kalea, 27 (Bermeo)**

Zuzendaritza: Sonia Anibarro Sanchez
Finantzazioa: Beruala S.A.

D.2.1. *EXCAVACIONES*

D.2.1.1. **Arostegi kalea, 27 (Bermeo)**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Beruala S.A.

The site defined as number 27 Arostegi Street is to be affected by the global restructuring of its surface area in order to build a series of new houses. Since it is a gothic site, located in the lower zone of the historic quarter of Bermeo, an urgent archaeological intervention was carried out.

Bermeoko Hirigune Historikoan, Arostegi kaleko 27. zenbakian, dago interbentzio honetan ikertu dugun orubea, mehelinen arteko tipologiari dagokiona.

Eraikina dagoen etxadia beterik dago alde guztietatik eta, beraz, multzo bateratu bat osatzen dute etxe guztiek atzealdeko patio baten inguruan.

Oin angeluzuzeneko etxea da, 4,15 metro zabal eta 16 metro luze. 78 m^2 inguruko eremua hartzen du. Orube «gotiko» bat da, aurrealde laburrekoa eta sakonera handikoa. Gandola dute oraindik ere atzealdean.

Hiru etxebizitza eraiki nahi dira orube honetan eta lur-zati guztia induskatu beharko dute horretarako.

Lorturiko emaitzak

Hirigune zaharreko behealdean dagoen arren, ikergai dugun orube honen sedimentazio maila apala da, hirialde honetako mazelaren malda oso pikoa delako. Halatan, alde horretan etxe berriak egin edo okupaturiko orubeak eraberritu behar direnean, ezinbestekoa

El solar objeto de intervención, está situado en el Casco Histórico de Bermeo, en el n.º 27 de Arostegi Kalea, respondiendo a la tipología habitual de vivienda entre medianeras.

El resto de la manzana de la que forma parte el edificio, está colmatada por la edificación, formando un conjunto unitario en torno a un patio zaguero.

Es de planta rectangular con unas dimensiones de 4,15 metros de anchura y 16 metros de profundidad, con una superficie aproximada de 78 m^2. Se trata de un solar de «alforja» o «gótico», con escaso frente de fachada y gran desarrollo en profundidad, que mantiene albañal en la trasera.

En el se pretende la edificación de 3 viviendas, para lo cual, resulta necesaria la excavación de toda la parcela.

Resultados obtenidos

La parcela que nos ocupa, a pesar de localizarse en la zona baja del casco antiguo, presenta una escasa potencia de sedimentación, ya que la pendiente de la ladera en esta zona es acusada y a medida que se reedifica o se reforman las zonas de ocupación en ella,

izaten da aurreko mailak induskatzea eta, beraz, galdu egiten da estratu edo geruza emankorra.

Arroka ageri den sakonera kota oso hurbila da eta ez da 20 cm-etara iristen orubearen aurrealdean.

Dokumentaturiko aztarnei dagokienez, hustubide eta estoldekin loturiko egiturak dira, elkarrekin lotura duten bi egitura hain zuzen ere. Bata Arostegi kaleranzko norabidean jaisten da etxadiaren goialdetik, eta bestea mendebaldeko mehelinetik abiatzen da, bestearekin bat egin eta leku berean husteko. Lehenengoa da zaharrena, bat ere zalantzarik gabe; gerokoan bideratuko zuten bigarrena, harekin lotuz.

Elementu hauek biak Arostegi kaleko 25. orubearekin bezala lotzen dira etxadian atzealdeko patiora jotzen duten gainerako etxeekin. Izan ere, ezaugarri horietako hodiak ikus daitezke egun ere patio horren perfiletan.

Egitura hauen eraikuntzak XIX. mende hasiera arteraino eramango gintuzke seguruenik. Eremuko higiene-baldintzak hobetzen saiatuko ziren horrenbestez. Horretarako, induskatu egin zituzten etxeak bermatu ziren arroka-mailak eta berritu edo berritik eraiki zituzten bi estoldak, iparralde-hegoalde norabidean luzatu zena lehenik, eta, aurrekoarekin bat egiteko, Arostegi kaleko 25. orubetik abiatu zena ondoren.

Jabetza Erregistroan eginiko kontsultan jaso genuen dokumentazioak —1860koa da haren lehen erreferentzia— etxearen iparraldean patio bat dagoela aipa-

es necesaria la excavación de niveles precedentes, lo que evidentemente arrasa el estrato fértil.

La cota de profundidad a la que aparece la roca es mínima, no llegando a los 20 cm. en algunos puntos de la zona delantera del solar.

En cuanto a los restos documentados se trata de estructuras relacionadas con desagües y alcantarillas, en concreto de dos estructuras asociadas, una de ellas, baja en dirección a la calle Arostegi, desde la zona alta de la manzana, mientras que la otra, sale de la medianera occidental, para unirse a aquella y desaguar al mismo sitio. Con toda probabilidad, la de mayor antigüedad, será la primera de ellas y posteriormente se construye la otra, asociándose a aquella.

Estos dos elementos, se relacionan tanto con el n.º 25 de Arostegi kalea, como con todos los edificios que poseen frente al patio trasero existente, en el cual, aún hoy día, se observan caños de estas características en los perfiles.

Se trata de estructuras cuya construcción nos remonta probablemente a comienzos del siglo XIX, en un intento por mejorar las condiciones higiénicas de la zona. Para ello, se realiza una excavación en los niveles de roca sobre los que asientan las construcciones y se renuevan o construyen de nueva planta, ambas alcantarillas, primero la que discurre en sentido N-S y posteriormente se le asocia la que sale del n.º 25 de Arostegi Kalea.

En la documentación recogida en la consulta al registro de la propiedad, cuya primera referencia data tan sólo de 1860, se habla de la existencia en la zona



Induskaturiko orubearen atzealdean ikuspegia.

Vista de la zona posterior de la parcela excavada.

tzen du. Patio hori Josefa Aldecoa andrearen etxeari dagokio eta, etxearen inskripzioa bideratu zenean, «hiriko estolda» gisa definitu zuten.

Eremu honen inguruetan dokumentaturiko egitura-aztarnen presentziari dagokionez, hona hemen azalpen logiko bat: kutxetak horren zabalera mugatua duten lurzatietan eraikitzeko indusketa-lanak egin zirenean —aztergai dugun orubeak 4 metro eskas ditu mehelinen artean—, hormatxo batzuk eraiki ziren perimetroan, patioko estoldaren irteera-gunea mugatzeaz gainera, mehelinen zimentazio-lerroa ere sendotu zutenak. Saihestu egiten zen horrenbestez hainbat eraikuntza arazo.

Halaz ere, interpretatzen zail den elementu bat azaltzen zaigu egitura hauekin loturik. Bi bloke ageri dira E-M norabidean luzatuak, gontz edo itxituren markak agerian, orubearen atzealdeko eremuari sarrera egingo zion atearen atalase gisa. Ez dago oraingoz argi zein zatekeen elementu horien helburua, estua baita inolaz ere induskaturiko orubea.

Egungoa baino askoz lehenagoko bizileku baten egitura-aztarnak zirela uste izan genuen hasieran. Askoz zabalera handiagoko egiturak izango ziren, orube gotikotzat hartu ohi ditugun egiturenaren aldean. Hala eta guztiz ere, bazter utzi behar izan dugu ideia hori sakonera-kota ezagutu eta egiturak aztertu eta gero.

Bestalde, azaldu zaizkigun materialak toska ekoizpen oso modernokoak dira gehienak. Hiru sukalde-zeramika itxuragabe ere azaldu dira, eztiaren kolore esmaltea barnealdean nabari.

Zeramika hondakin gutxi horiez gainera, burdin zepanodulu txiki batzuk ere azaldu dira. Dokumentaturiko egiturak eraiki ziren garaikoak edo ditugu, ohikoa baitzen molde horretako materialak paramentuetan betegarri gisa erabiltzea. Lotu ere egin litezke mineralen lantzea eskatuko zuen edo orubean artisauen moduan bideratuko zen jardueraren batekin, baina ez da haren beste aztarnarik azaldu eta oinarri sendorik gabeko espekulazio hutsa litzateke aukera hori aintzat hartzea.

norte del edificio de un patio, perteneciente a la casa de Doña Josefa Aldecoa, patio que para las fechas en las que se realiza la inscripción del inmueble aparece definido como «cloaca de la villa».

En cuanto a la presencia de los restos estructurales documentados en torno a esta zona, creemos que una explicación lógica es que al realizarse la excavación para la construcción de las arquetas en parcelas de anchura tan limitada, —el solar que nos ocupa no tiene más de cuatro metros de distancia entre medianeras—, se construyen una serie de muretes perimetrales, que además de delimitar el área de la salida de la cloaca de patio, sirven para reforzar en la línea de cimentación las medianeras existentes, para evitar problemas constructivos.

Sin embargo a estas estructuras se asocia un elemento que resulta de difícil interpretación, como es la presencia de dos bloques orientados E-W y que presentan marcas de goznes o cierres, a modo de umbral con puerta de acceso a la zona posterior de la parcela. Cual es la finalidad de estos elementos no está demasiado claro dadas las escasas dimensiones en anchura de la parcela excavada.

En principio, creímos que se trataba de restos de una estructura de habitación de cronología muy anterior a la existente actualmente y cuyas dimensiones serían en anchura muy superiores a las que habitualmente se entiende que tienen los solares en alforja, sin embargo tanto las cotas de profundidad, como el análisis de las estructuras, nos hacen desestimar la idea.

Por otra parte, los materiales localizados, se relaciona con producciones muy modernas de loza y tres fragmentos amorfos de producciones de cocina, con un esmalte melado al interior.

Junto a estos mínimos restos de cerámicas, se han localizado algunos pequeños nódulos de escoria férrica, que pueden asociarse a la construcción de las estructuras documentadas, ya que en ocasiones es habitual localizarlos actuando como ripio en paramentos. Por otro lado, podrían asociarse a algún tipo de actividad relacionada con el tratamiento de minerales, que se desarrollase de forma artesanal en el solar, pero no habría quedado resto alguno de ello y sería especular sin base alguna.

Sonia Aníbarro Sánchez

D.2.1.2. **Aurrekoetxea z/g. Ama Josefinen Kolegioa. (Bermeo)**

Zuzendaritza: Sonia Anibarro Sanchez
Finantzazioa: Beruala S.A.

D.2.1.2. **Aurrekoetxea s/n.º. Colegio de las MM. Josefinas (Bermeo)**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Beruala S.A.

The archaeological intervention described here was carried out at the insistence of the municipal authorities, as the result of the need to extend the car parking zone inside the historic quarter. To this end, the old M.M. Josefinas college was knocked down to make way for the construction of a 3-story car park and a civic centre. The magnitude of the earth moving works required the carrying out of an archaeological intervention.

Bermeoko Ama Josefinen kolegioak okupatu du duela hilabete batzuetara arte interbentzio honetan landu dugun orubea, eta Hiriburu Historikoaren goialdeko perimetroan dago, hegoaldeko mazelan.

Oin karratua du ia-ia, eta bi ertz, eta 1.066,22 m^2-ko eremua hartzen du. 3 solairu atonduko dira aparkalekurako eta eraikin berri bat jasoko da haren gainean, hiriko azpiegitura sozio-kulturalari begira.

Indusketa-lanen lehen aldian, bitarteko mekanikoen bidez erretiratu ziren orain arteko eraikinaren eraitsi ondoko aurriak eta zaborrak.

Ondoren, hormigoizko zolata bat zulatu behar izan genuen, bitarteko mekanikoez betiere, eta sorturiko zabor guztia erretiratu genuen ondoren.

Azkenik, hiru kronologia-garai desberdinekin lotu ditugu dokumentaturiko unitate estratigrafikoak.

I. Sekuentzia

Monjek 1966. urtean eraikinaren egokitzapenari begira eginarazi zituzten lanekin lotuak dira aldi honetako unitate guztiak.

Lan haiekin lotu ziren egitura-elementu guztiak hartu ziren aintzat aldi hartan, hala nola pilare euskarriak, hormigoizko zolatak, baldosaz itxuraturiko zoruak, eta abar… bai eta elementu haiekin loturik, azalera horizontal bat sortzeko, bideratu ziren maila guztiak ere.

Aldi hau da, beraz, dokumentatu dugun berriena.

II. Sekuentzia

Aldi honetan dokumentaturiko unitate guztiak daude Josefinen etxe zaharrarekin eta Aurrekoetxea kalera jotzen duen lur-sailaren aurrealdeko lorategiarekin loturik.

14. U.E.: Horma bat da. Ezin neurtu izan dugu haren zabalera, Aurrekoetxea kale aldera irten eta induskaturiko eremutik kanpo geratu baita.

Harri landu gabeaz atonduriko horma da eta egoera onean dago. Etxaldea itxiko zuen hegoaldetik.

15. U.E.: Josefinen etxe zaharraren hegoaldeko horma da. Agerian utzi dugu luzera guztian, ekialdeko muturrean izan ezik. Izan ere, gune horretan, iparralderantz okertzen da horma eta gure indusketa-eremutik kanpo geratu zen alde hura.

Dagokion fitxan deskribatu bezala, eraikuntza kalitate oneko lana da, ongi taxuturiko harri landu gabez egina, ertzetan txukunago landuriko erremate-harriak ere ageri dituena. Mendebaldean, argi eta garbi suma daiteke sarrera-eskaileren abiaburua.

La parcela intervenida, es la ocupada hasta hace pocos meses por el colegio de las M.M. Josefinas de Bermeo y está situada en la zona alta y perimetral del Casco Histórico, toda ella en ladera sur.

Es de planta casi cuadrada con dos esquinas, ocupando una superficie es de 1.066,22 m^2 y en ella se plantea la construcción de 3 plantas de aparcamiento y la construcción de nueva planta de un edificio, que acogerá un centro de carácter socio-cultural.

La primera fase de la excavación se centró en la retirada por medios mecánicos, de los escombros generados por el derribo del edificio existente.

Posteriormente, hubo de picarse una solera de hormigón, también recurriendo a medios mecánicos, al igual que la retirada del escombro generado.

Finalmente hemos podido asociar a tres períodos cronológicos diferentes las unidades estratigráficas documentadas.

I Secuencia

Todas las unidades pertenecientes a esta fase, están relacionadas con una serie de obras de acondicionamiento llevadas a cabo por las monjas en el año 1966.

En esta fase se integran todos aquellos elementos estructurales vinculados a estas tareas, tales como pilares de sustentación, soleras de hormigón, suelos de baldosa etc., así como todos los niveles asociados a estos elementos y destinados a crear una superficie más o menos horizontal.

Esta fase por tanto, es la más moderna de todas las documentadas.

II Secuencia

Todos las unidades documentadas en esta fase están relacionadas con el edificio viejo de las Josefinas y el jardín existente en el frente de la parcela que da a Aurrekoetxea Kalea.

U.E.14: Se trata de un muro, del que no hemos podido establecer sus medidas en anchura, puesto que sale hacia la zona de Aurrekoetxea Kalea y quedaba fuera del área de excavación.

Se trata de un muro de mampostería, en buen estado de conservación, que marcaría el cierre de la finca en la zona meridional de la misma.

U.E.15: Se trata del muro meridional del edificio viejo de las Josefinas, del que hemos puesto al descubierto toda su longitud, salvo en la zona más oriental, puesto que en este punto, dicho muro gira al norte y esta zona quedaba fuera del área de excavación.

Como aparece descrito en su ficha correspondiente, se trata de una estructura de buena calidad constructiva a base de mampostería aparejada, con algunos remates para las esquinas de mejor factura. En el se aprecia en la zona occidental, el arranque de las escaleras de acceso.

16. U.E.: Lorategian, etxalderako sarreratik hurbil, zegoen putzu zahar baten hondakinak dira.

Lur joa da egitura eta 1960. urteen erdialdeko obrak hasi zirenerako ere ez zuten erabiliko. Jatorrizko egituratik, behealdeko ilarak baino ez dira gelditzen. Ongi taxuturiko harri landu gabez egina dira hauek ere. 2 metroko diametroa zuen putzuak.

Estolda bat dugu dokumentaturiko egitura aipagarrienetako bat.

Ubide bat da, Aurrekoetxea kalean irteten dena. Haren kontserbazio egoera oso kaxkarra den arren, neurri handi xamarrekoa da eta, egin zutenean, itxura on ederrekoa izango zen.

Era berean eraikineko ubide guztiei hustubidea eskaintzea eta etxaldeko behealdera eramatea zen, 8., 12. eta 18. unitateen, elkarren artean eta estolda nagusiarekin loturiko zeramikazko hodien, xedea.

Josefinen etxe zaharrarekin loturik daude elementu horiek guztiak eta, beraz, XIX. mendearen bukaeran edo XX. mende hasieran egokitu beharko ditugu.

U.E.16: Se trata de los restos de un antiguo pozo que existía en la zona del jardín cercana al ingreso de la finca.

Está arruinado y caería en desuso ya durante el período de obras de mediados de la década de los 60. de su estructura originaria, no quedan más que las hiladas inferiores, también realizadas en mampostería aparejada. Posee un diámetro de unos 2 metros.

Uno de los elementos más destacables de los localizados es una atarjea.

Se trata de una conducción de aguas, con salida a la calle Aurrekoetxea, que aunque presenta un estado de conservación bastante malo, es de unas dimensiones considerables, y en el momento de su creación, sería de buena factura.

Así mismo, las unidades 8,12 y 18, definen una serie de tuberías de cerámica, relacionadas entre sí y a su vez con la atarjea principal y tienen como finalidad dar salida a todas las conducciones de agua del edificio y llevarlas a la zona baja de la finca.

Todos estos elementos están relacionados con el edificio viejo de las Josefinas, lo que nos traslada a fines del siglo XIX y principios del siglo XX.

III. Sekuentzia

Azken aldi bat, guztietan zaharrena, bereiz genezake. 10. eta 17. unitate estratigrafikoak ageri dira aldi honetan.

III Secuencia

Podemos definir una última fase, que sería la más antigua de todas, en que se localizan las siguientes Unidades Estratigráficas: 10 y 17.



Dokumentaturiko ubideen ikuspegia.

Vista de la conducción de aguas documentada.

Su baten arrastoak edo lirateke. Su hark gutxienez etxaldea suntsituko zuen lur-sailaren ekialdeko muturrean. Etxalde haren datazio hurbilenak Aro Modernora eramango gintuzke, baina eraikuntza egitura hori Erdi Arokoa izango zen seguruenik.

Eraikuntzan erabilitako habeen hondakinak dira, eremu hartan egongo zen etxe bateko habeak beraz. Su batek eramango zuen etxea. Halaz ere, hondakin horiek ez dira *in situ*, sortu ziren lekuan, aurkitu, baizik eta arroka gainean jaurtiko zituzten, etxaldearen ondoko egokitzapenerako lanen garaian seguruenik.

Bidezkoena da hiria 1722. urtean erre zuen sutea gogoan hartzea, guztiz suntsitu baitzuen haren goialdea, Talako elizaraino iritsiz.

Gure ustez, su honek erremediorik gabe jo zuen Bermeoko goialdea, suntsitu egin zituen bertako hiri-egitura gotiko gehienak eta XVIII. mende barrura arte etxerik gabe geratu ziren haietako asko.

Halatan, zorupean lorturiko emaitzak alde guztietatik txarrak izan direla aipatu beharra daukagu, lurra harrotzerakoan ez baitugu eraitsitako etxearen aurreko aztarna ñimiñoena ere aurkitu, aurrez bestelako ustean geunden arren.

Erdi Aroan atonduriko lur-sailen arrastoak aurkitzea espero genuen, aurrealdean behinik behin, maila beherago batean dagoenez errazago kontserbatuko baitziren egiturak. Ez da ordea horrelakorik gertatu, etxaldea inguratzeko horma berri bat eraiki zutenean guztiz ezabatu baitzituzten, antza denez, aurreko aztarnak oro.

Emaitzen argitan, honako hau esango genuke orubea induskatu eta gero: orubeak terrazatu egin zituzten hiriko goialde honetan.

Ziur esan dezakegu gainera, terrazamendu hau XIX. mendean egin zela, horixe baita lorturiko emaitzek salatzen diguten data zaharrena.

Se trata de los restos de lo que parece ser un incendio, que arrasaría al menos la finca existente en el extremo oriental de la parcela y que pertenecería a épocas cuanto menos de época moderna, aunque lo más probable es que fuese una estructura constructiva de origen Medieval.

Son restos de vigas constructivas, probablemente una vivienda, que se ubicaría en esta zona de la parcela y que es arrasada por un incendio, sin embargo son restos que no se hallan in situ, sino que están echados sobre roca, probablemente durante las posteriores tareas de acondicionamiento de la finca.

Lo más lógico es pensar que se trata del incendio que asoló la villa en marzo de 1722 y que arrasó la zona alta de la misma, llegando hasta la iglesia de la Atalaya.

Creemos que este incendio, afectó de modo irremediable a la zona alta de Bermeo, acabando con gran parte de las estructuras de lotización gótica y quedando muchas de ellas sin edificación alguna, hasta bien avanzado el siglo XVIII.

Así pues, hemos de señalar que los resultados obtenidos, han sido decepcionantes de todo punto, a la hora de localizar en el subsuelo resto alguno anterior a la edificación derribada, tal y como preveíamos.

Teníamos las esperanza de localizar, al menos en la zona delantera, restos de posibles parcelas de ocupación medieval, ya que al quedar a un nivel más bajo, podrían haberse conservado. No ha sido así, puesto que la construcción de un nuevo muro para cercar la finca, arrasó cualquier resto anterior.

A la vista de los resultados, la conclusión extraída de la excavación del solar es que se ha producido un evidentemente aterrazamiento de los solares en esta zona alta de la villa.

Lo que si podemos asegurar es que este aterrazamiento se realizó durante el siglo XIX, que es la fecha de mayor antigüedad a la que nos trasladan los resultados obtenidos.

Sonia Aníbarro Sánchez

D.2.1.3. **Aurrekoetxea kalea, 1-3 (Bermeo)**

Zuzendaritza: Sonia Anibarro Sanchez
Finantzazioa: Lameratxiki S.A.

D.2.1.3. **Aurrekoetxea kalea, 1-3 (Bermeo)**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Lameratxiki S.A.

The archaeological intervention carried out at numbers 1 and 3 Aurrekoetxea Street in Bermeo, are a clear example of how this kind of work (aimed at protecting heritage sites) should not be done, given that archaeologists and developers should work in collaboration.
In this intervention, no such collaboration occurred.

Bi lur-sail batu ondoan itxuratu zen aztergai dugun orubea, Aurrekoetxea kaleko 1. eta 3. zenbakiek eratua. Bermeoko Hirigune Historikoaren goialdean dago.

Aurrekoetxea kaleko 1. orubea, Irakaskintza kaleko 2. orubea ere badena, oin trapezoidaleko orubea da: 10,5 metro da zabal eta 26,7 luze. Etxearen maila Doniene kalearenaren azpitik dago, Aurrekoetxea eta Ongintza kaleen arteko desnibela dela medio.

Aurrekoetxea kaleko 3. orubea trapezoidala da: 4 metro zabal eta 14,5 metro luze.

Orubeen mailan, trazatu zuzena ageri du Aurrekoetxea kaleak, hirigunea bermatu zen muinoaren malda gorenaren norabidearen perpendikularrean.

Nabarmena da altimetria koten arteko aldea, 3,45 metroko baita lur-sailaren aurrealdetik atzealderaino.

Aintzat hartu diren lanen arabera, merkataritzarako lokalak, sotoa eta instalazio-gela egituratuko dira behe oinean, eta haren gainetik etxebizitza gisa egokituko dira bi solairu eta teilatupe bat.

Lur-sailaren desnibel ikaragarria dela medio, Aurrekoetxea kaleko fatxada apala bada, Irakaskintza kalean, lurpean gertatzen da guztiz fatxada.

Aurtengo urrira arte iraun dute zutik eraikin zaharra mugatzen zuten lau hormek.

Bertan behera utzi zuen aldi batez Aldundiaren Ondare Sailak, promotoreak, interbentzio arkeologikoa bideratu aurretik, aurreko hormak eraitsi eta lur-sailaren atzealdean estratua hiru metro beheratu zituelako.

Gogoan edukirik bi lur-sail horiek Ondare alorrean bete behar dituzten lege-baldintzak eta promotoreak horiek ez dituela bete, bertan behera utzi zituenlanak Aldundiaren Ondare Sailak.

Halatan, begi-bistakoa zenez, urriak izan ziren emaitza arkeologikoak, lur-sail ia guztia induskaturik baitzegoen.

Nolanahi ere, kontrol arkeologikoa egiteko agindu zuen Aldundiak, ukitu gabe zegoen eremuan.

Arkeologiaren ikuspegitik bideratu ahal izan diren lan urrietatik abiatuta, hona hemen zer dugun esateko: Ez da ia-ia maila arkeologiko ez eta sedimentu maila interesgarririk azaldu. Izan ere, eremu batzuetan, 20 cm-tik ez da goratzen maila antropikoaren geruzaren lodiera.

Begi-bistakoa da hiriaren goialde honetan orubeak terrazatu egin zituztela, gainazalean ageri baita ia-ia arroka naturala.

Argi eta garbi adieraz dezakegu terrazamendu lan haiek ez zirela aurreko etxeen eraiste lanen garaian egin, baizik eta etxadia berriro eraiki zenekoak, hau da,

El solar objeto de estudio está formado por la unión de dos parcelas, definidas con los números 1 y 3 de Aurrekoetxea Kalea y está situado en la zona alta del Casco Histórico de Bermeo.

El n.º 1 de Aurrekoetxea Kalea, también señalado como Irakaskintza n.º 2, es un solar de planta trapezoidal de 10,5 m. por 26,7 m. El nivel de la casa se encuentra por debajo del de la calle Doniene debido al desnivel existente entre las calles Aurrekoetxea y Ongintza.

El n.º 3 de Aurrekoetxea Kalea, es un edificio de planta trapezoidal de 4 m. por 14,5 m.

A la altura de los solares, Aurrekoetxea Kalea tiene un trazado rectilíneo, perpendicular a la dirección de máxima pendiente de la colina sobre la que asienta el casco.

Existe una clara diferencia de cota altimétrica entre la parte delantera y trasera de la parcela, que llega hasta los 3,45m.

La obra a realizar, plantea la construcción en planta baja de locales comerciales, portal y cuarto de instalaciones y sobre ella se elevarán dos plantas y bajocubierta como uso para viviendas.

Debido al enorme desnivel de la parcela, mientras en la calle Aurrekoetxea la fachada es baja, en la calle Irakaskintza, por el contrario, está completamente soterrada.

Hasta octubre del presente año el solar mantenía en pie los cuatro muros que delimitaban la antigua construcción.

Esta obra quedó paralizada por el Departamento de Patrimonio de Diputación, dado que el promotor derribó los muros preexistentes y rebajó el estrato en la parte posterior de la parcela al menos tres metros, de modo previo a la intervención arqueológica.

Teniendo en cuenta los condicionantes legales en materia de Patrimonio a que están sujetas ambas parcelas y teniendo en cuenta que el promotor no las ha respetado, se procedió a la paralización de obras, por parte del Departamento de Patrimonio de Diputación.

Así pues y como es, evidente los resultados, se preveían escasos, dado que se había excavado prácticamente la totalidad de la parcela.

En cualquier caso, Diputación exigió la realización de control arqueológico, en la única zona no del todo alterada.

Partiendo de las mínimas tareas que desde el punto de vista arqueológico han podido llevarse a cabo, cabe señalar, la ausencia casi absoluta, no sólo de niveles arqueológicamente interesantes, sino incluso de niveles de sedimentación, ya que hay zonas en las que el nivel antrópico no pasa de los 20 cm. de potencia.

Es evidente el aterrazamiento de los solares en esta zona alta de la villa, dada la presencia casi en superficie de la roca natural.

Lo que sí podemos señalar, es que este aterrazamiento no se realizó durante las tareas de derribo de las viviendas anteriores, sino que es fruto de la nueva

XIX. mendekoak, direla. Argiro erakusten dute hori Aurrekoetxea kaleko 1. orubeko aurrealdean agertu diren horma-hondakin batzuek.

Eraitsitakoaren aurreko eraikin baten aurrealdeko zimentazio-lerroa zehazten dute azaldu diren hondakinek. Ezaugarri eta dimentsioei erreparatu ondoan, orubean «lur-sail gotikoko» etxe baten aurrean geundekeela esan genezake. Lur-sail hori barruan hartu zuen aldamenekoak, XIX. mende bukaeran seguruenik, eraikitzeko aukera zabalagoak eskainiko zuen orube handiagoa itxuratzeko.

Bistan denez, kalearen maila goratu egin da XIX. mendearen aurreko garaietan zegoenaren aldean, 40 cm gutxienez Aurrekoetxea kaleko 1. orubean. Askotariko betegarriak erabili ziren horretarako, eta udal mailako kutxetak eta azpiegitura lan asko bideratu ziren haietan.

Kale horren beraren ekialdean, ez da horrelakorik sumatzen, sakonera-kota hurbilagoan azaltzen da arroka naturala eta ez da inolako betegarririk behar.

Halatan, ezinezko gertatu zaigu Aurrekoetxea kaleko 1. eta 3. lur-sailetan etxebizitza eta merkataritzarako lokalen eraikuntzari begira okupaturiko orubea arkeologiaren ikuspuntutik aztertzea eta ebaluatzea, lanen hasieran indusketa mekanikoak balizko maila arkeologikoetan eraginiko kalte handiarengatik, arras suntsitu baitzituzten maila horiek guztiak.

construcción de la manzana, durante el siglo XIX. Este hecho se aclarada debido a la localización de los restos de un muro aparecido en la zona de fachada del solar n.º 1 a la calle Aurrekoetxea.

The intervention carried out at number 8 Komentukale Street involved the excavation of an area of ground in which archaeological remains from the town's various construction eras were discovered. The site has a dense history of occupation. The medieval phase is represented by the foundations of the old town walls, which are extremely fragmented and discontinuous, as well as by the remains of living structures ranging from pits dug for the foundations to a clay floor which delimits the area inhabited at that time. The continuity in the use of the site is fairly clear up until the 18th century, when it was abandoned and the earlier structures destroyed. During the 19th century, when many of the town's infrastructures were improved, water channels were installed which formed part of the general network. Finally, at the beginning of the 20th century, a Civil Guard barracks was built here, which altered and partially destroyed the earlier structures and strata. We should also point out that the site was open to the public during the entire excavation process.

Durangoko Arkeologia Eremuaren barruan dago, Hirigune Historiko horretako Komentukaleko 8. orubea. 1995eko irailaren 26ko 428/1995 Dekretuaren arabera Monumentu Multzotzat hartu zen Arkeologi Eremu hura, eta haren babes erregimena ere zehaztu zen dekretu hartan. Une honetan aztergai dugun espazioari dagokionez, III. eranskinean xedatu zen haren indusketa zabala zorupeko ezein lur-iraultzeren aurretik (EHAA, 1995eko urriak 24). Baldintza hauek onarturik, bidezkoa den bezala, indusketa lanei ekin genien orube hartan, lan batzuk proiektatu baitzituen bertan Durangoko Udalak.

Nolanahi ere, bagenituen lursail honi buruzko datu batzuk, aurreko interbentzio batean bilduak. Izan ere, zundaketa bat bideratu zen orube honetan 1993an, Durangoko Historia eta Arkeologia Azterketa bideratzen ari zenean; orubearen balio arkeologikoa zehaztu nahi zen, eta Arkeologiaren bitartez erantzun ahal izango ziren historiako galderak egin ziren. Positiboak izan ziren zundaketa haren emaitzak, interes handiko aztarna arkeologikoak azaldu baitziren. Azterturiko espazio hartako eraikinen bilakaera islatzen zuten datu haiek. Besteak beste, harresiaren atal bat, bizigunearen hainbat hondakin eta garai bateko artisau-jardueraren aztarna argiak azaldu ziren espazio hartan.

Igurikapen haien menturan ekin genien, beraz, orubeko indusketa-lanei. Hutsik zegoen orduan eta 400 metro karratu inguruko eremua hartzen zuen. Hiru hilabeteren buruan bukatu genuen landa-lana. Bi metro eta pizar bat gehiago sakondu genuen indusketetan.

Indusketa sistema estratigrafikoa eta Harrisen erregistro sistema bideratu genituen lanetan. 269 unitate estratigrafiko bereizi genituen guztira.

Orubearen okupazioaldiak

Mendeetan zehar etengabe okupatu den orubea da aztertu duguna. Aberatsa da haren sekuentzia es-

El solar de Komentukale 8 del Casco Histórico de Durango forma parte de la Zona Arqueológica de la villa, calificada con la categoría de Conjunto Monumental según Decreto 428/1995, de 26 de septiembre, en el que se especifica y fija su régimen de protección. En lo que respecta al espacio que nos ocupa, en el anexo III se establece la excavación en extensión del solar previo a cualquier remoción del subsuelo (BOPV de 24 de octubre de 1995). Lógicamente, atendiendo a estas condiciones, se procedió a la excavación en área del solar afectado por las obras proyectadas en el mismo por el Ayuntamiento de Durango.

De cualquier forma, contábamos con datos extraídos de esta parcela edificatoria en una anterior intervención, en este caso, en forma de sondeo, llevada a cabo en 1993 en el marco del Estudio Histórico-Arqueológico de la villa, encaminado a evaluar su potencial arqueológico, y a plantear cuestiones de carácter histórico que pudieran ser respondidas a través de la Arqueología. Los resultados de ese sondeo previo fueron positivos, ya que se pusieron al descubierto restos arqueológicos de gran interés, que reflejaban la evolución constructiva del espacio investigado, entre los que se encontraba un lienzo de muralla, además de otra serie de restos de habitación y ocupación artesanal de este espacio.

Con estas perspectivas, abordamos la excavación en área del solar, que se encontraba desocupado, y que tenía una extensión aproximada de 400 metros cuadrados. El trabajo de campo se consiguió concluir en un tiempo de tres meses. La profundidad máxima alcanzada supera ligeramente los dos metros.

El sistema de excavación utilizado ha sido el estratigráfico, y el sistema de registro empleado en el trabajo es el ideado por Harris. Se documentaron 269 unidades estratigráficas.

Fases de ocupación del solar

El solar investigado es un área intensamente ocupada a lo largo de los siglos, y podríamos decir que pre-

tratigrafikoa, XV. mendetik XX. mendera arteraino zabaltzen dena. Logikoa denez, bestelakoak izan dira eremua okupatzeko moduak, eta biziguneak bezala hiriko azpiegiturarekin loturiko egiturak dokumentatu ditugu hartan. Azken finean, elementuak eta espazioak ulertu, eraiki, erabili eta are suntsitzeko modu desberdinak islatzen dira estratigrafian.

Puntu honetara iritsita, jakin bedi estratuetan azaldu den material higigarria aztertzen ari garela oraindik eta, beraz, berandu gabe zehaztu ahal izango ditugu oraindik gehiago lan honetan proposatu ditugun kronologiak.

Erdi Aroko lehen okupazioa

XX. mende hasieran kuartel patio gisa erabili zen eremuan dokumentatu dugu bereziki espazio honetako Erdi Aroko okupazioa. Espero zen bezala, espazio honetan aro garaikidean eraikinik egon ez izanak bereziki erraztu du azpiko estratuen kontserbazioa nahiz, geroago ikusiko dugun bezala, harresiaren kasua benetan apartekoa den.

XV. mendearen bigarren erdialdekoak dira hirian kale berri bati, Kalebarriari, eta inguratuko zuen harresi baten eraikuntzari buruzko lehen kronologia-erreferentziak. Halatan, badakigu 1483. urterako Kalebarria egina zela, Isabel I.a Gaztelakoa Durangoko hirian egin zuen bisitaren berri emanez idatzi zen albistean hala zehaztu zelako. Harresiari dagokionez, espresuki aipatzen du 1489ko dokumentu batek Kalebarriko murrua edo harresia. Bidezkoa denez, data horiek biak «ante quem» datatzat hartu behar dira inolaz ere, aurreko errealitate baten gaineko zerbaiti buruz ohartarazten baitigute. Beraz, XV. mendea dugu seguruenik abiapuntua; ekonomia egoera ona bizi zuen orduan hiriak eta arrakasta haren isla dugu espazio berrien okupazioa. Hazten ari zen hiriak eskatutako espazioak ziren haiek zalantzarik gabe. Beharrak aginduta eta halako hiri-egitura berririk gogoan eduki gabe okupatuko ziren eremu haiek hasieran, baina «ofizialdu» edo egingo ziren ondoren, harresi-atal berri baten trazaeraren bitartez. Hiriaren fisonomian ere eragina izan zuten aldaketa haiek.

Aipatu dugun Erdi Aroko harresiaren aztarnak azaldu dira, puskatan eginik, indusketa-eremuko hainbat gunetan. Kurioski, atal handiena 1993. urtean bideraturiko interbentzio hartan atzemanikoa da inolaz ere. Jakina denez, XX. mendean bipildu zuten Erdi Aroko egitura eta osorik galdu zen ia-ia harresia luzera osoan zehar, orubea kuartela eraikitzeko sakon eraberritu eta itxuraldatu baino lehen. Harresiaren aztarnak kontserbatu diren guneetan, ilara bakar bat antzeman daiteke: zimentazioaren osagaia zen ilara hori. Lau gunetan azaldu dira hondakinak, bakan azaldu ere, ondoan murruaren segidarik ez dutela. Soil xamarra da harresi-atal hauetan suma daitekeen eraikuntza teknika: bi kanpoaldeak ongi landuak eta erdiko gunea, landu gabeko harriz eta erreka-harriz egituratua. Horixka da kareorea, kare sendoz egina, eta nabari dira hartan

senta una rica secuencia estratigráfica que comienza en el siglo XV y concluye en el siglo XX. Lógicamente, las formas de ocupación han sido muy distintas, y hemos podido documentar desde áreas de habitación, hasta estructuras relacionadas con la infraestructura urbana. Al fin y al cabo, quedan reflejadas en la estratigrafía las diversas maneras de entender, construir, utilizar e incluso destruir elementos y espacios.

Llegados a este punto, quisiera señalar que aún se encuentra en fase de estudio el material mueble asociado a los diferentes estratos, de manera que muy probablemente pronto se podrán afinar y concretar más las cronologías que aquí proponemos.

La primera ocupación medieval

La ocupación medieval de este espacio se encuentra especialmente representada en el área reservada a patio del cuartel asentado aquí a principios del siglo XX. Evidentemente, la presencia de este espacio libre de edificaciones de época contemporánea, ha permitido, en general, la conservación de los estratos inferiores, aunque como enseguida veremos, el caso de la muralla es un tanto peculiar.

Las primeras referencias cronológicas relativas a la creación de una nueva calle en la villa —Kalebarria— y a la edificación de una cerca englobándola son de la segunda mitad del siglo XV. Así, tenemos constancia de que la calle nueva ya existía para 1483, año en que Isabel I de Castilla visita la villa de Durango. Y en lo que respecta a la presencia de la muralla, contamos con un documento que cita expresamente la cerca de Kalebarria en 1489. Lógicamente ambas hay que tomarlas como fechas *ante quem,* es decir, hacen referencia en un momento concreto a una realidad preexistente. Nuestro punto de partida es pues, muy probablemente, el siglo XV, momento de gran pujanza económica de la villa, que refleja su éxito con la ocupación de nuevos espacios, probablemente demandados por una población en aumento. Hay que pensar que pudo tratarse de una ocupación espontánea en un primer momento, que pasó poco más tarde a ser «oficializada» mediante el trazado de un nuevo lienzo de muralla, que vino a cambiar la fisonomía de la villa.

Esta muralla medieval a la que hacemos referencia ha podido ser recuperada de forma muy fragmentada en diferentes puntos de la excavación. Curiosamente, el lienzo más considerable fue el detectado en el sondeo realizado en el 93, al que ya hemos hecho referencia, ya que la estructura medieval fue objeto de un saqueo en el siglo XIX, que produjo la práctica desaparición de la misma en la mayor parte de su recorrido, incluso antes de que el solar se transformara profundamente con la construcción del cuartel. En los puntos en los que se ha conservado queda una única hilada, que forma parte de la cimentación de la muralla. Efectivamente, se ha localizado en cuatro puntos diferentes, interrumpidos por zonas en las que se ha destruido por completo. La técnica constructiva que se aprecia en estos fragmentos es bastante sencilla:

ikatz txikien presentzia. 40 cm-ko goratasunean azaldu dira hondakin garaienak. Azaldu diren zatien artean, 2,85 metro ditu atal luzeenak eta 0,35 laburrenak. Inguruaren gainerako guneetan, guztiz galdu da harresiaren zimentazioa. Egin dugun deskripziotik edozeinek ondorioztatuko lukeen bezala, harresiaren kontserbazioa txarra eta zatikakoa baizik ez da izan.

Erdi Aroan harresi horrek mugatzen zuen espazioan bideratu ziren jarduerei dagokienez, bidezkoa eta beharrezkoa da hainbat okupazioaldi eta mota bereiztea, gehienetan biziguneak egokitu ziren arren.

Harresiko murruen barruko espazioaren okupazioa salatzen diguten lehen aztarnetako bat dugu buztin naturalean induskaturiko hobi luzexka bat (356. U.E.), zurezko enbor edo habe bat hartzeko egina. Eraikuntza teknika hau bera azaldu zaigu indusketa-eremuko beste aieka batean; kasu horretan, gainera, barruan zirauen egokitu zen zurezko puska (330. U.E.). Iparralde-hegoalde norabidean egin ziren bi kasuetan zuloak. 356. unitate estratigrafikoak, zehazkiago, 4.45 m-ko luzera eta 0,24 m-ko zabalera ditu, eta 5,5 metroko espazioa mugatzen du harresiaren eta egituraren artean. Ezin dugu, ez oraingoz behinik behin, lursailean une hartan eraiki zen etxearen atzealdeko hormaren muga ote zen —zura erabili zen nagusiki etxea eraikitzeko—, edo harresiari itsatsirik egongo zen bigarren mailako eraikin baten, ukuilu edo etxola baten, egituren hondakinak ote diren. Hala balitz, barnealdeko erronda-pasealekua okupatuko zuen, etxearen eta harresiaren artean.

Zuraren erabilerari dagokionez, zutoin-zulo bat azaldu zen 1993. urtean zundaturiko eremuan (328. U.E.). Aipatu berri dugun eraikinarekin lotu beharko genuke beharbada unitate hori.

Aztertu ahal izan dugun Erdi Aroko orube-espazioaren erdialdean azaldu da elementu zaharrenetako bat (349. U.E.). Harri obal xamar bat da; ongi egokituko bazuten, behar baino hobi zabalxeago bat zulatu zuten buztin naturalean. Hareharrian landua da pieza, 1,22 metro luze iparralde-hegoalde ardatzean eta 1,16 ekialde-mendebalde ardatzean; 10 eat 14 cm bitarteko lodiera du. Erdian ez du zulorik ageri, indusketa bitartean azaldu diren beste harri batzuek bezala. Berrerabili eta zartatu egingo ziren azken hauek. Kanpoaldea erregular xamar ageri du, ez ordea guztiz leundurik, eta erregularrak ere ditu ertzak, leundu ez ziren arren. Harrizko zimentazio-zapata baten oinarria izango zen, eta haren gainean zutituko zuten zurezko zutoina.

Lehen aurkikuntza hauek Erdi Arokotzat jo ditugun arren, ezin zehazta dezakegu, adibidez, harresiaren aurreko okupazioaldi bati ote dagozkion (gogoan har bedi kalea aurrez inolako sistematizaziorik xedatu gabe

se trata de dos caras externas trabajadas, y un núcleo central elaborado de piedra sin trabajar de tamaño medio y cantos de río. El mortero es amarillento, y se hace evidente la presencia de pequeños carbones y cal muy resistente. La altura máxima conservada es de unos 40 cm. De los fragmentos conservados el más largo es de 2,85 m. y el menor, de 0,35 m. de longitud. En el resto de su recorrido, la cimentación de la cerca ha desaparecido completamente. Como se puede desprender de la anterior descripción, la conservación de la muralla es bastante deficiente y fragmentaria.

En lo que respecta a las actividades que en la Edad Media tuvieron lugar dentro del recinto que esa muralla cerraba, podemos hablar a su vez de varias fases y de varios tipos de ocupación, aunque se trata fundamentalmente de niveles de habitación.

Uno de los primeros restos que indican la ocupación de este espacio intramuros es una fosa longitudinal excavada en la arcilla natural (U.E. 356), hecha para encajar un tronco/viga de madera. Esta técnica constructiva se ha visto también empleada en otra zona de la excavación, en la que se conservaba incluso el fragmento de madera que albergaba (U.E. 330). En ambos casos presentan una dirección norte-sur. Concretamente la U.E. 356 presenta una longitud de 4,45 m. y una anchura de 0,24 m., y marca un espacio de 5,5 m. entre la muralla y la propia estructura. No podemos —al menos de momento— concretar si se trata del límite zaguero de la casa construida en este momento en la parcela, en la que indudablemente se empleó la madera masivamente, o se trata de los restos de una construcción de carácter secundario, de tipo cuadra o chabola, adosada a la muralla, ocupando precisamente el espacio de ronda interior entre la construcción propiamente dicha y la muralla.

En relación con el uso de la madera, también contamos con un agujero de poste localizado en el área sondeada en 1993 (U.E. 328), posiblemente contemporánea a la construcción que acabamos de mencionar.

Otro de los elementos más antiguos es una piedra de forma ligeramente oval, ubicada en la zona central del espacio de la parcela medieval que hemos podido investigar (U.E. 349). Para colocarla excavaron en la arcilla natural una fosa algo más amplia de lo que en principio pudiera corresponderle para encajarla en la misma. Se trata de una piedra arenisca de forma ligeramente oval, con un eje norte-sur de 1,22 m. y el eje este-oeste de 1,16 m., y un grosor de entre 10 y 14 cm. No presenta orificio central, como ocurre con otras localizadas en el transcurso de la excavación, reutilizadas y fragmentadas. La cara externa está regularizada, aunque no completamente alisada, y también los bordes tienden a ser regulares, aunque no lisos. Se ha interpretado como base para una zapata de cimentación de piedra sobre la que iría algún poste de madera.

Hemos de colocar estos primeros hallazgos dentro de la etapa medieval, aunque no podamos decir, por ejemplo, si responden a una ocupación preexistente a la propia muralla (recordemos el origen «espontáneo»

sortu zela), ez baita haien arteko lotura estratigrafikorik zehaztu ahal izan. Nolanahi ere, guztiz dokumentatu ahal izan dugu zurezko materiala erabili zela eta zura, etxeen altxaeran ez ezik, eraikinen zimenduetan ere bideratu zela. Eremu horretako substratu geologikoaren ezaugarriak direla eta, eraikin haiek ez zuten luzeegi iraungo.

Erdi Aroko bigarren okupazioa

Erdi Aroko lehen okupazioaldi honen ordea hartu zuen bestelako eraikuntza ezaugarriak erakutsiko zituen beste batek. Izan ere, berdindu eta prestatu egin zuten ondoren lurra, hau da, buztin naturala, lurra xehatu eta zanpatu ondoren, araberako zoru mota hedatzeko (342. U.E.). Betegarri grisaxka bat prestatu zuten aurrez horretarako, xehaturiko eraikuntza material, errauts eta ikatzez osatua, hezetasunari gaineko geruzetara iragotzen eragozteko. Geruza haren gainean hedatu zuten lur zanpatuzko zoru gorria, arestian aipatu duguna. Egia esan, zoru hau ez zen harresi-marraraino iristen. Zoru gorriaren eta harresi-marraren arteko atzealdean, 4 metroko eremua zabaltzen da haien artean, buztin plastikozko geruza bat zabaldu zuten halaber (345. U. E.), itxuraz buztin naturalaren oso antz de la nueva calle), ya que no presentan relaciones estratigráficas entre sí. De cualquier forma, lo que sí se ha podido documentar es el uso de material lígneo, que se emplearía no sólo para los alzados de las casas, sino también para cimentar las construcciones, que dadas las características del sustrato geológico en la zona, no perdurarían demasiado en el tiempo.

La segunda ocupación medieval

A esta primera fase de habitación medieval le siguió otra, con características constructivas un tanto diferentes. En efecto, posteriormente, se niveló y preparó el terreno, es decir, la arcilla natural, para instalar un suelo de tierra batida (U.E. 342). La preparación consistió en depositar un relleno de color grisáceo, compuesto de material constructivo, cenizas y carbones, que probablemente aislaría de la humedad a las capas superiores. Sobre ella se instaló el suelo de tierra batida de color rojo al que hemos hecho referencia, que en realidad no llega hasta la línea de muralla, y también un nivel de arcilla plástica (U.E. 345), muy similar de aspecto a la natural, que ocupa la zona zaguera entre el suelo rojo y la línea de muralla (4 m.). Estas diferencias evidencian actividades o espacios



Indusketa-eremuaren ikuspegi partziala, indusketa-lanak bukatutakoan. Lehen planoan, harresiaren zimenduen lehen ilara.

Vista parcial de la excavación al término de la misma. En primer término se aprecia la hilada de cimentación de la muralla.

handikoa. Alde hauek bestelako jarduera edo guneen presentzia salatzen dute eraikin beraren barruan. Aurrealdea, zoru gorriaren eremua, espazioa bizigune bilakatu zen okupazio-mailari dagokio. Eraikin honen atzealdea, ordea, beste jarduera batzuetarako erabili zen.

Eremuaren indusketa zabalari esker ezagutu ahal izan ditugu, gutxi gora-behera, lehen okupazio haien neurriak. Izan ere, 1993ko interbentzioak eskaini zizkigun datuak eta hil hauetako interbentzioan, behinbehineko izaeraz oraingoz, lortu ditugunak batuz gero, 5 bat metroko zabalera zukeen lur-sail bati buruz mintzo garela esan genezake. Logikoa denez, ezin mintza gintezke oraingoz etxearen sakonerari buruz, okupaturiko orubearen atzealdea baizik ez baitugu induskatu. Hala eta guztiz ere, begi-bistakoa da harresiaren ondoko atzealde hartan bideratu ziren jarduera motak eta lur-sailaren gainerako aldeetan bideratu zirenak bestelakoak zirela, arestian azaldu ditugun arrazoiengatik. Atzealdean halako ortuak edo baratzeak edukiko zituztelakoa hartu beharko genuke aintzat, askotan aipatu izan baitira horrelakoak Erdi Aroko hirigintza aztergai izan duen bibliografian, haien dokumentazio arkeologikoa arras gutxitan zehaztu den arren.

Behe Erdi Aroko garai honek aztarna gutxiago utzi ditu nonbait interbentzio-eremuaren iparraldean. Zuzenago litzateke beharbada, eremu honetako estratu eta egituren kronologiara hurbiltzea arras neketsua dela esatea, hutsa baita ia-ia alde horretan berreskuratu den material arkeologikoa. Ongi dakigu, ordea, aztarnategiaren alde honen oinarrian buztinean induskaturiko hobi handi itxuragabe batzuk azaldu zirela (2,50 metro zituen, adibidez, 326. unitate estratigrafikoaren ardatz nagusiak). Zalantzak zalantza, eremu hartan uraren drainadurari begira eginiko zuloak edo hobiak genituzke, edo egitura baten eraikuntza-une jakin bateko hondakinak. Ezin esan oraingoz. Agerikoa da, bestalde, aro moderno eta garaikideko lanek eragin handiagoa izan dutela alde honetan, eta itxuragabetu egin dituztela, gutxienez, lehen okupazioaldietako egituren ezaugarriak.

Lehen Aro Modernoa

Lehen Aro Modernoan ez da aztarnategian halako haustura handirik sumatzen, bai ordea segida bat, ordura arte dokumentatu den okupazio motaren segida, alde batzuk nabari daitezkeen arren. Izan ere, ageriagokoa da segida hori Aro Modernoko lehen uneetan, XVI. mendean bereziki, bere horretan iraun baitzuen espazioaren aurreko okupazio motak, hau da, etxe edo bizigune izaten iraun zuen betiere. Aurreko garaien aldean, materialen nolakotasunak zehazten ditu desberdintasun handienak, harria erabili baitzen. Horren argibide dugu 352. unitate estratigrafikoa, harresi-atalari itsatsirik kontserbatu den horma-zatia. Halatan, argiro dokumentu ahal izan dugu orube honetan eraiki zuten etxea berehala luzatu zela murruaren marraraino. Besterik ere esan dezakegu; izan ere, kurioski, pentsa litekeenaren bestaldera, haren marraraino jo bazuen ere, eraikin berriak ez zuen harresia atzealdeko hormatzat

distintos dentro de una misma construcción. La zona delantera, ocupada por el suelo rojo, es claramente un nivel de ocupación, utilizado para habitar ese espacio. La zaguera de esta construcción debió servir para otras actividades.

La excavación en área ha permitido también conocer las dimensiones aproximadas de la parcela en la que tienen lugar estas primeras ocupaciones. Efectivamente, uniendo provisionalmente los datos extraídos de la intervención de 1993 con la realizada en estos meses, podemos hablar de una parcela de aproximadamente 5 m. de anchura. Lógicamente, no podemos conocer la profundidad, debido a que hemos excavado la zona trasera del solar ocupado, pero aún así es evidente que en un primer momento el tipo de actividades que tenían lugar en la zona zaguera —contigua a la muralla— y en el resto de la parcela eran diferentes, según hemos tenido ocasión de explicar líneas más arriba. Esta circunstancia podría interpretarse como la presencia de las huertas zagueras, tantas veces mencionadas en la bibliografía dedicada al urbanismo medieval, pero que pocas veces hemos tenido la oportunidad de documentar arqueológicamente.

Esta etapa bajomedieval está poco representada en la zona norte de la intervención aunque quizás fuese más correcto decir que es realmente difícil ofrecer una cronología aproximada a los estratos y estructuras más antiguos de esta zona, ya que el material arqueológico recuperado es prácticamente inexistente. Lo cierto es que la base del yacimiento en esta área presentaba una serie de fosas informes excavadas en la arcilla, de dimensiones considerables (un eje mayor de 2,50 m., por ejemplo, en el caso de la U.E. 326). Se pueden relacionar, en principio, y con todas las dudas posibles, con fosas realizadas para el drenaje del agua en la zona, o restos de un momento de construcción de alguna estructura. Es evidente, también que esta zona se ha visto más afectada por obras modernas y contemporáneas, que cuando menos, han desfigurado las características de la primera ocupación.

La primera Edad Moderna

En la primera Edad Moderna, no se aprecia en el yacimiento una ruptura considerable, sino más bien una cierta continuidad en el tipo de ocupación documentado, pese a las diferencias que puedan existir. Ciertamente, esta continuidad es más evidente en los primeros siglos modernos y concretamente en el siglo XVI vemos que se produce el mismo tipo de ocupación del espacio, es decir, nos encontramos ante un lugar de habitación. Las diferencias respecto a las primeras etapas vienen fundamentalmente de la utilización de otros materiales, como es la piedra. Prueba de ello es la U.E. 352, fragmento de muro que se conserva pegante al lienzo de muralla, y que documenta precisamente que la casa que se levantaba aquí llegó a alcanzar muy pronto la línea que marcaba la cerca. Incluso podemos decir algo más, y es que curiosamente, al contrario de lo que se podría pensar, al alcanzar esa lí-

hartu, baizik eta berezko horma bat eraiki zuen, murruari itsatsirik (335. U.E.).

Bestalde, hainbat geruza hedatuz berdindu eta egokitu zen okupaturiko espazioa. Deigarria da, halaber, habe batzuen eta haiekin mihiztaturiko soliben hondakinak ageri dituen su-maila (283. U.E.). Lagin batzuk hartu ditugu hartatik, C-14aren bidezko analisiari begira. Material horien artean, pezo eta adreilu hondakinak ere ageri dira. Eraikuntza material gisa erabiliko zituzten elementu horiek.

Lur-sailean dokumentatu ziren ekoizpen-jarduerei dagokienez, garbi dago hipotesi moduan ere ezin mintza gaitezkeela artisau-lantegi bati buruz, ez baita molde horretako jarduerekin lotu litekeen egiturarik edo material berezirik azaldu. Agertu egin dira, ordea, harri zirkular edo biribil batzuk, itxura galduak eta hainbat obratan eraikuntza material gisa berrerabiliak guztiak. Induskatu dugun etxean artisau moldeko jarduerak bideratuko ziren aukera guztiz baztertzeko arrazoirik ez dago, garbi dago hori, areago kontuan hartzen badugu Erdi Aroan, bai eta lehen Aro Modernoan ere, berezko zutela etxeek funtzio aniztasun hori. Baina besterik da egiazko lantegi bat, hau da, ekoizpen mailak etxekoen premietatik harantz joko lukeen tailerra. Horixe da oraingoz esan dezakeguna; jakitun gara eta ederki jabetu gara horretaz, okupaturiko lur-sailaren atzealdea baizik ez dugula induskatu eta, beraz, aurrealdeak dezente datu gehiago eskain diezagukeela.

XVII.-XVIII. mendeak

Era berean, argiago mugatu ziren barruko espazioak Aro Modernoan, eta harresiaren marra bera ere gainditu zen, etxeetako hormak harantzago luzatuta. Mehelinen zeharkako hormen trazatuak, hau da, iparralde-hegoalde norabidean luzatu ziren hormek ematen digute lehen fenomenoaren berri. Aldi berean, bigarren fenomenoaren aztarnak ditugu harresiari kanpoaldetik, marra gutxienez 3,5 metro gaindituz, itsatsi ziren 218. eta 239. unitate estratigrafikoak, aro garaikideko kuartelaren hormek eten baitzituzten gune hartan. Harresiaren barruko lur-saila mugatuko zuten mehelinen lerroari jarraiki luzatu ziren horma haiek.

XVIII. mendearen bigarren erdialdera arte iraun zuen etxe edo bizigune mota hark. Utzi egin zen une hartan, dokumentazio idatziak eta dokumentazio arkeologikoak egiaztatu bezala. Izan ere, arkeologiak argiro frogatu du betegarri ugari hedatu zirela garai hartan; eraikuntza materiala zen batez ere, eta estali nahi izan ziren horrenbestez aurreko hondakinak.

XIX. mendea

Orubeak aldaketa handiak bizi izan ditu aro garaikidean. XIX. mendeak hatz materialak utzi ditu Erdi Aroko harresia, eraikuntza materiala berrerabiltzeko asmotan,

nea, la construcción no utilizó la muralla como muro zaguero, sino que se levantó un muro que cumplió ese papel adosado a la muralla (U.E. 355).

A su vez, se trató de acomodar el espacio ocupado, nivelándolo mediante diversos echadizos. Llama la atención también un nivel de incendio en el que se conservan restos de vigas y viguetas ensambladas (U.E. 283), de los que hemos tomado muestras para análisis de C-14. También aparecen entre el material, restos de adobe y ladrillo, utilizados como material constructivo.

En lo referente a las actividades productivas que en su momento se documentaron en la zona, decir que a modo de hipótesis no podemos hablar propiamente de taller artesanal como tal, debido a que la presencia de estructuras o material específico no se ha hecho muy evidente. Sí han aparecido algunas piedras circulares, pero todas ellas son deformes y reutilizadas como material constructivo dentro de diversas obras. Está claro que no se puede descartar totalmente la posibilidad de que en la casa que hemos excavado se hicieran actividades de tipo artesanal, ya que esa multifuncionalidad es consustancial a las casas de la Edad Media y al menos a las de la primera Edad Moderna, pero algo muy diferente es que se trate de un verdadero taller en el que la producción supere las necesidades de los habitantes de la casa. Esto es lo que podemos decir de momento, aunque somos conscientes de que hemos excavado la zona trasera de la parcela ocupada, y que la delantera puede ofrecer más datos al respecto.

Siglos XVII-XVIII

Durante la Edad Moderna se da también la delimitación más clara de espacios interiores, y la superación de la propia línea de muralla mediante la prolongación de los muros de las casas. El primer fenómeno se aprecia con el trazado de muros transversales a los medianiles, es decir, en dirección norte-sur, y del segundo nos quedan señales en los muros denominados U.E. 218 y 239, que se adosan a la muralla por el exterior, superando su línea, en al menos 3,5 m., ya que aparecen interrumpidos a esa altura por los muros del cuartel de época contemporánea. Siguen la línea de los que probablemente fueron los medianiles que limitaban la parcela constructiva intramuros.

Esta continuidad del tipo de habitación se da hasta la segunda mitad del siglo XVIII, cuando el espacio se abandona, según se desprende tanto de la documentación escrita como arqueológica. Efectivamente, arqueológicamente se constata que se echan abundantes rellenos, compuestos sobre todo de material constructivo, que vienen a «sellar» los restos anteriores.

El siglo XIX

El solar ha sufrido fuertes transformaciones en época contemporánea. El siglo XIX ha dejado sus huellas materiales en una zanja de saqueo de la muralla me-

bipiltzeko bideratu zuten zanga batean (121., 367., 368. eta 369. unitate estratigrafikoak). eta Durango hiri azpiegituraz hornitzeko ahaleginarekin lotu beharko genituzkeen kanalizazio eta estolden trazatuan.

Zorionez, estolda nagusiaren instalazioaren data zehazteko informazioa eskaintzen digute dokumentu idatzi batzuek. Iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du estoldak orubea ekialdetik eta beste adar txikiago bat ageri du loturik, zeharka. 1891. urtekoa da proiektu hura eta Herriko Eskoletako patiotik abiatzen eta Kurutziagaraino, dokumentuan *Birjinaosteko kantoia* izenaz («cantón de Virjiñaoste») aipatzen den lekuraino (egungo Komentukale), zabaltzen zen estolda luzatu nahi zen haren arabera. Halatan, badakigu ordurako bazela estolda hura, eta seguruenik ez dugu denboran atze egiteko aukera handiegirik izango. Testuaren arabera, ekialde-mendebalde norabidean luzatzen eta estolda handian husten zen estolda txikia eskoletako patioan, hau da, aztergai dugun orubean, egin zen, eskolak patiotik zetorren hezetasunetik libre uzteko. Obraren neurriak eta deskripzioa bata datoz hartu ditugun datu arkeologikoekin eta, beraz, egoki da gure ustez 137. eta 282. unitate arkeologikoak eta garai hartan bideratu ziren lanak bat egitea. Horrez gainera, adierazi ere egiten ditu dokumentuak azterturiko orubean etengabeak izan zirela hezetasun arazoak, Komentukalearen aldean batez ere.

xx. mendea: Guardia Zibilaren kuartelaren eraikuntza

Aro garaikideko bigarren eraikuntza unea zehaztu zen Guardia Zibilaren kuartelaren eraikuntzaz. Kasu honetan, eskuetan dauzkagu obra hauen kronologi zehatza eskaintzen diguten dokumentu idatziak eta grafikoak (obraren planoak eta proiektuaren araberako altxaerak). Egia esan, bi alditan eraiki zen kuartel hau. 1927. urte aldera eraiki zen lehen kuartela, eta zabaldu eta eraberritu zen ondoren, 1933. urtean, aurreko urteko proiektuari jarraiki. Eraitsi zen arte —1960. urteen bukaeran edo 1970. urteen hasieran gertatu zen hori– eduki zituen forma eta ezaugarriei eutsi zien ordutik aurrera. Logikoa denez, dituzten ezaugarri teknikoengatik, obretan bideratu ziren materialengatik, eta abarrengatik, berealdiko eragina izan zuten egitura hauek aurrekoetan, erabat suntsitu edo hein batean desitxuratu zituztelako. Halatan, patiorako utzi zen eremuan kontserbatu dira Erdi Aroko eta Aro Modernoko mailak eta egiturak.

Arkeologia Ondarearen zabalkunde lanak

Interbentzio arkeologikoak bazituen lanak jendaurrean azaltzeko aukera bideragarri bihurtzen zuten bereizgarri batzuk eta, beraz, beste askotan ezinezkoa edo ia ezinezkoa dena bete ahal izan dugu oraingo honetan. Alde batetik, udalaren orube bat zen, mardula

dieval con el objeto de reutilizar el material constructivo (UU.EE. 121, 367, 368, 369) y en el trazado canalizaciones y atarjeas relacionadas con un esfuerzo por dotar a la villa de infraestructura urbana.

Afortunadamente, contamos con algunos documentos escritos que nos permiten fechar aproximadamente la instalación de la atarjea mayor, que cruza el solar de norte a sur en su lado Este y que va unida a otra rama menor, que es transversal a la anterior. Se trata de un proyecto de 1891, que pretende prolongar la atarjea que partía del patio de las Escuelas Públicas y llegaba a Kurutziaga hasta el que en el documento aparece citado con el nombre de «cantón de Virgiñaoste», identificable con la actual calle Conventos. Así pues, para esa fecha, sabemos de su existencia, aunque probablemente no se puede retrotraer mucho más en el tiempo. Del texto se desprende que la canalización pequeña, que con dirección este-oeste viene a desembocar en la mayor, se realiza en el patio de las escuelas (que es el solar que nos ocupa) para preservar a estas de las humedades que proceden del patio. Las dimensiones y descripción detallada de la obra, coinciden con los datos arqueológicos, de manera que pensamos que es adecuada la identificación de las UU.EE 137 y 282 con las obras realizadas en esas fechas. Asimismo, el documento nos confirma los problemas de humedad que han sido constantes en el solar investigado, especialmente en la zona cercana a Komentukale.

El siglo xx: la construcción del cuartel de la Guardia Civil

Un segundo momento constructivo en época contemporánea está marcado por la construcción del cuartel de la Guardia Civil. En este caso, también contamos con documentos escritos y gráficos (planos y alzados del proyecto de obra) que ofrecen una cronología precisa del acontecimiento. En realidad, el edificio se erigió en dos fases sucesivas. El primer cuartel se construyó hacia 1927, y éste se amplió y reformó según proyecto de 1932, un año más tarde, tomando la forma y características definitivas hasta su demolición, a finales de la década de los sesenta o principios de los setenta. Lógicamente, estas estructuras, por las características técnicas que presentan, el material empleado en ellas, etc. han afectado a las preexistentes, ya que las ha destruido o desfigurado en parte. Así, la zona reservada a patio ha sido la que ha conservado los niveles y estructuras medievales y modernos.

Labores de divulgación del patrimonio arqueológico

La intervención arqueológica, que aunaba una serie de condiciones que hacían viable su apertura al público, ha permitido una labor de difusión que en otras ocasiones suele ser poco menos que imposible. Por una parte, se trataba de un solar de propiedad munici-

gainera (400 m^2 inguru); bestalde, zundaturik zegoen dagoeneko eta igurikapen arkeologiko interesgarriak aurkezten zituen. Lanean hasi zen Euskal Herriko Unibertsitateko talde bat, Udalak berak kontratatua, interbentzioari begira. Horrez gainera, Durangoko Arte eta Historia Museoaren laguntza ere bagenuen, eta jendearen bisitaldien gestio eta antolakuntzaren ardura hartu zuen instituzio horrek.

Egia esan, helburu nagusia ez zen hainbestean interbentzioaren emaitzak azaltzea, indusketa-lanetan ari baikinen bitarte hartan, baizik eta oinezko hiritarrari interbentzio arkeologiko bat zertan den, nola eta zergatik bideratzen den, azaltzea, hala nola egungo Arkeologiara eta egungo arkeologia moduetara hurbiltzea. Halatan, indusketa bere testuinguruan uler zedin, gidaturiko bisitaldiari hiri osoa aztarnategi arkeologiko gisa aurkeztuz ekitea deliberatu genuen. Haren zati bat zen aztergai geneukan orubea. Indusketa-eremuan bukatzen genuen bisitaldia, hartan ageri ziren aldien oinarrizko berri ematearren.

Espero ez genuen arrakasta izan zuen saio honek. Bi asteko epean, bostehun lagun inguruk egin zuen azaletik deskribatu dugun bisita gidatu hura. Gainera, badakigu jende askok ezin egin izan zuela bisitaldia, txandaka irago ziren taldeetan lagun gehiagorako lekurik ez izaki.

Bukatu aurretik esan dezagun merezi lukeela eginiko lana eta lorturiko emaitzak gainetik bada ere balioztatzea. Orube oso zabal baten eraikuntzaren historia berritxuratu ahal izan dugu eta agerian utzi ahal izan dugu, zehatz xamar gainera, hartan gordetzen zen estratigrafia aski konplexua. Bestalde, orube iparraldetik hegoaldera zeharkatuko zuen harresi-atala oso era apurtuan baizik ez bada kontserbatu, harresiaren murruen barruko okupazioaren ezaugarrien perfil zehatzagoa eskaini ahal izan dugu eta, emaitzen argitan, esateko moduan gaude une honetan orubea bizigunea izan zela batez ere, eta ez beraz ekoizpen-gunea, haren barruan hainbat helburu zituzten guneak bereizten ziren arren. Interesgarria da, halaber, berreskuratu dugun material arkeologikoa, ugari baitira zeramika piezen formak, oreak eta dekorazioak.

Azkenik, interbentzio honen beste alderdi positibo bat ere aipatu nahi nuke, jardunbide honi esker hiri barruko indusketa arkeologiko baterako sarbidea zabaldu baitzaio Durangoko jendeari, eta arkeologia lanen inguruko motibazioen berri ere eman ahal izan zaio horrenbestez.

pal y de considerables dimensiones (en torno a 400 m^2), que había sido previamente sondeado y que presentaba interesantes perspectivas arqueológicas, en el que trabajaba un equipo de la UPV/EHU contratado por el propio ayuntamiento para la realización de la intervención. A su vez, contábamos también con la ayuda del Museo de Arte e Historia de Durango, que se ocupó de las labores de gestión y organización de las visitas concertadas.

En realidad, el objetivo principal no fue tanto presentar los resultados de la intervención, que se encontraba en proceso de excavación, sino dar a entender al ciudadano de a pie en qué consiste una intervención arqueológica, cómo se realiza y por qué, así como acercarle a lo que es la Arqueología tal y como hoy se practica. Así pues, para entender la excavación en su contexto, consideramos oportuno comenzar la visita guiada mostrando la propia villa como yacimiento arqueológico, del que el solar en proceso de estudio forma parte. La visita concluía en la excavación, en la que se explicaban básicamente las fases representadas.

La iniciativa tuvo un éxito inesperado, ya que en el transcurso de dos semanas, unas quinientas personas realizaron la visita guiada que hemos descrito someramente. Aún así, nos consta que mucha gente no pudo realizarla por falta de plazas en los grupos organizados en cada turno.

Para concluir, quizás merezca la pena una somera valoración del trabajo y de sus resultados. En este sentido, señalar que se ha podido rehacer la historia constructiva de un solar muy amplio y de una complejidad estratigráfica considerable con bastante precisión. Por otro lado, a pesar de que el lienzo de muralla que debió atravesar el solar de norte a sur no se conserva más que de forma muy fragmentada, hemos podido también perfilar mejor las características de la ocupación intramuros, y nos inclinamos a pensar a la luz de los resultados, que se trató fundamentalmente de un lugar de habitación —y no tanto de producción—, aunque presentase espacios internos diversos. El material arqueológico recuperado es también interesante debido a la abundancia de formas, pastas y decoraciones de las piezas de cerámica.

Finalmente, quisiera también hacer referencia a otro elemento positivo de la intervención, ya que su ejecución ha posibilitado el acercamiento de la gente de Durango a lo que es una excavación arqueológica urbana, y a las motivaciones que la impulsan.

Belén Bengoetxea Rementeria

D.2.1.11. **Atxagako leizea (Forua)**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos Lopez Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua eta Cantera Peña Forua S.A. enpresa

D.2.1.11. **Cueva de Atxagakoa (Forua)**

II Campaña
Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia, Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y Cantera Peña Forua S.A.

The systematic excavation work being carried out in Atxagakoa Cave has enabled us to document a stratigraphic sequence that is of great interest from the point of view of our knowledge of human and animal development in Urdaibai. On the one hand, in the lower section the oldest evidence of human occupation in Urdaibai has been found, corresponding to the Middle Palaeolithic era. In the middle section, the cave became a refuge for carnivores, with the presence of exceptional species such as the steppe rhinoceros, the hyena and the marmot (fairly rare in the Cantabrian Pleistocene) being verified.

Atxagako leizea Foruko Atxa mendiaren hego/hego-ekialdeko hegalean zegoen, Foruko udalerrian, eta Peña Forua harrobiaren jardueraren poderioz galdu zen ezin zehaztu dugun datan. 1959koa da leize honi buruzko lehen albistea, Grupo Espeleológico Vizcaíno delako taldeak bobido handien, hiena eta otsoen aztarnak aurkitu zituenekoa. 1978an beste fauna aztarna batzuk azaldu ziren, errinozero baten atzeko hagin bat besteak beste, J. Altuna arkeozoologoak zehaztuko zuen bezala. 2001. urtean, Urdaibaiko Kantauri aldeko artadietako aztarnategi arkeologikoen katalogazioa egiten ari ginen bitartean, Atxagako aztarnategiari zegokiokeen sedimentu-lekuko baten presentzia egiaztatu genuen.

2002. eta 2003. urteetan bideratu da Atxagako leizeko interbentzio arkeologikoa. 2002. urtean zundaketa estratigrafiko bat egin genuen eta aztarnategi arkeologiko eta paleontologiko bat zegoela egiaztatu genuen. Horrenbestez dokumentatu genituen Urdaibaiko lehen giza okupazioaren aurreneko zantzuak eta aztarnak eta aberastasun handiko fauna multzo bat, Pleistozenoko bioaniztasunaren erakusgarri. Depositu estratigrafikoa, lanean ziharduen harrobi batean izaki, arras galtzeko arriskuan zenez, sedimentu-lekukoaren indusketa osoa bideratu dugu 2003an.

Dokumentatu dugun sekuentzia estratigrafikoak 2 metro inguruko lodiera du eta sei egitura sedimentologiko hartzen ditu bere baitan, ondoren sabaitik hormara zehaztuko dugun bezala. Sei egitura horiek hiru multzo estratigrafikotara bildu ditugu: eduki arkeologikoa eta paleontologikoa dute behealdeko bi multzoek. Aldaketa batzuk egin ditugu 2002ko zundaketa estratigrafikoari buruz argitaratu genuen txostenaren aldean, kontserbaturiko lekukoaren indusketa sistematikoak informazio osoagoa eskaini baitigu.

Goialdeko multzo estratigrafikoa

Geruza batek estaltzen du Atxagako Pleistozenoko betegarria. Hona hemen geruza horren osagai nagu-

La cueva de Atxagakoa, localizada en la ladera sursureste del monte Foruko Atxa (Forua), desapareció a consecuencia de la actividad de la cantera de Peña Forua, desconociendo la fecha exacta de su desmantelamiento. La primera noticia referida a esta caverna procede de 1959, cuando el Grupo Espeleológico Vizcaíno localizó restos de Gran Bóvido, hiena y lobo. En 1978 se recuperan nuevas evidencias faunísticas, entre ellas un molar de rinoceronte determinado por el arqueozoólogo J. Altuna. En el año 2001, con motivo de la catalogación de los yacimientos arqueológicos emplazados en áreas de encinar cantábrico de Urdaibai, comprobamos la existencia de un testigo de sedimento que presumiblemente correspondía al yacimiento de Atxagakoa.

La intervención arqueológica en la cueva de Atxagakoa se ha desarrollado durante los años 2002 y 2003. En el año 2002 se efectuó un sondeo estratigráfico que permitió verificar la presencia de un yacimiento arqueológico y paleontológico, documentando los primeros indicios de ocupación humana del área de Urdaibai y un conjunto faunístico de gran riqueza como muestra de la biodiversidad pleistocénica. Dado el emplazamiento del depósito estratigráfico en una cantera en explotación con riesgos evidentes para su conservación, durante el año 2003 se ha acometido la excavación íntegra del testigo.

La secuencia estratigráfica documentada, de cerca de 2 metros de potencia, se compone de seis estructuras sedimentológicas que describimos a continuación de techo a muro, y que son agrupables en tres conjuntos estratigráficos, los dos inferiores con contenido arqueológico y paleontológico. Se introducen algunas modificaciones respecto al primer avance publicado a partir del sondeo estratigráfico de 2002, derivadas de la información más completa proporcionada por la excavación sistemática del testigo conservado.

Conjunto estratigráfico superior

El relleno pleistocénico de Atxagakoa aparece cubierto por una capa en la que predominan los bloques

siak zein diren: blokeak dira nagusi, buztinezko matrize grisaxka batekin, oso harroa guztia (Bagt). Egitura hau guregandik hurbil den garai batean eratuko zen, harrobiaren jardueraren eraginez. Bagt mailaren azpian, goialdeko multzo estratigrafikoaren osagarri gisa, buztin marroi trinko eta antzuko egitura bat ageri da (Amk-s). Egitura honen behealdean, ordea, basaltozko koskoak eta hezurkiak ageri dira. Azpiko mailatik (Amck) datoz guztiak.


Erdiko multzo estratigrafikoa

Erdiko multzo estratigrafikoan, nagusi dira haragijaleak erregistro paleontologikoan. Multzoaren goialdean ageri da Amck maila, buztin marroi trinkoekin batean kareharrizko blokeak eta klastoak ageri dituen. Klasto horietako gehienek taula itxura eta hondatze maila handia ageri dute, jarduera krioklastiko bizi baten ondorioz. Informazio sedimentologikoak (krioklastiaren presentzia) eta klima hotzaren adierazle gardena den faunaren presentziak (estepako errinozeroa), klima latz baten lekukotasunak ematen dizkigute inolaz ere. Azterketa arkeozoologiko sistematikoari esker —P. Castañosen ardurapean bideratzen ari gara hori une honetan— jakin ahal izan dugu errinozeroaren hondakinak *Dicerorhinus hemitoechus* motari dagozkiola, eta ez *Coelodonta antiquatis* motari, 2002ko zundaketa estratigrafikoaren ondoko txostenean adierazi genuen bezala. Amck egituraren azpian ageri da Amk-i egitura estratigrafikoa. Buztin marroi trinkoko sedimentu honetan askoz urriago ageri dira puska lodiak; fauna hondakinek, bestalde, klima garai hotza salatzen digute,

sobre una matriz arcillosa de tonalidad gris, todo ello muy suelto (Bagt). La formación de esta estructura debe situarse en época reciente debido a la actividad de la cantera. Por debajo del nivel Bagt, formando parte del conjunto estratigráfico superior, aparece una estructura de arcillas marrones compactas estériles (Amk-s), aunque en su parte inferior incluye un canto de basalto y algunos escasos fragmentos óseos, todo ello procedente del nivel infrayacente Amck.

Conjunto estratigráfico intermedio

El conjunto estratigráfico intermedio se caracteriza por el predominio de los carnívoros en el registro paleontológico. En la parte superior del conjunto se sitúa el nivel Amck, formado por arcillas marrones compactas que incorporan bloques y clastos calizos, una gran parte de los cuales muestran formas tabulares y un notorio estado de descomposición, característico de una intensa actividad crioclástica. La información sedimentológica (presencia de crioclastia) y su asociación con un neto indicador faunístico frío (rinoceronte estepario) testimonian un episodio climático de gran rigurosidad. El estudio arqueozoológico sistemático, actualmente en curso por P. Castaños, ha revelado que los restos de rinoceronte corresponden al *Dicerorhinus hemitoechus* y no al *Coelodonta antiquitatis* como se señaló en el avance publicado al sondeo estratigráfico de 2002. Infrayaciendo al nivel Amck, se sitúa la estructura estratigráfica Amk-i, compuesta por un sedimento arcilloso marrón compacto con una significativa disminución de los componentes de la fracción grue-



Indusketa-lanak Atxagako leizean.

Proceso de excavación en la cueva de Atxagakoa.

estepako errinozeroaren presentziak egiaztatzen duen bezala.

Amck eta Amk-i mailen barruan harrizko tresna gutxi batzuk azaldu dira, eta beraz giza interbentzioa zehaztu ahal izan da horrenbestez deposituan. Seguruenik, haragijaleek, hienek batez ere, baina baita hartzek, otsoek eta azeriek ere, leizera eramango zituzten faunaren aprobetxamenduarekin lotu beharko litzateke depositu hau (une jakin batzuetako haragi, larru, adar eta abarren aprobetxamendua).

Behealdeko multzo estratigrafikoa

Atxagako lehen aztarna arkeologikoak limo horixkek (Lak) itxuraturiko maila baten gainean azaldu dira eta Urdaibaiko giza okupazioaren zantzu zaharrenak eskaintzen dizkigute. Erdi Paleolitos Arokoak dira seguruenik. Almk (Alak) mailarekin lotzen dira, sedimentu buztin-limotsu trinko marroixka (horixka bilakatzeko joera du) nagusi. Sedimentuen (limoen presentzia eta puska lodien urritze nabarmena) eta arkeologia-paleontologia (fauna haragijalerik ez dago eta harrizko tresneria tailatuak eta ungulatuen hondakinek zehazten duten giza okupazioaren presentzia nabari da) ezaugarriak direla-eta hartu dugu multzo estratigrafikotzat.

Lo más destacable de los elementos que se hacen en el siglo XVIII es la refacción de un caño que atraviesa toda la plaza al menos desde finales del siglo XVI y que seguía en uso a juzgar por la calidad con la que lo rehicieron para poder construir el edificio sobre él sin peligro. Esta atarjea cruza la esquina oriental del edificio en sentido noreste suroeste pasando por debajo de los cimientos de la Aduana pues viene de la plaza y va hacia la calle del sur. Se trata de una canalización de

tzen baita. Neurri handiko kanalizazioa da inolaz ere; 70-80 cm-ko harri landu gabez eginiko bi horma sendo ageri ditu paraleloan, metro eta erdiko goratasuna iritsiz, bi motatako estalkiz tapatuak. Eraikinaren hormen azpiko tarteetan, gangaduna eta lau dobela-harlanduz itxuratua da estalkia; aldiz, eraikinaren erdialdetik luzatzen den tarteetan, laua lauza tailatuz itxuratua da estalkia. Lauza hauen aurpegiak alakatuak dira, hormetan ziri moduan ezarritako albo-pieza batzuetan egoki mihiztatzeko.

Azkenik, oso eremu txikian eta ondoan beste materialik ez dutela azaldu direlarik, data zehazten eta interpretatzen zailak diren unitate batzuk ditugu Aduana eraiki baino lehenagoko elementu bakarrak, 34., 35., 36. eta 37. unitate estratigrafikoak hain zuzen ere. Iparekialdeko muturrean azaldu dira eta bi su-maila dira itxuraz, eraginiko suntsipena estaltzeko eta zorua berdintzeko mailak ere ondoan ageri dituztenak. Agerian geratu da, halaber, Aduana eraiki aurreko plazari legokiokeen beste unitate bat (38. U.E.). Unitate hauen argitara aurrera dezakegu plazako alde horretan eraikin txiki bat egon zelako hipotesia; teilatupe bat baino ez zen izango agian. Izan ere, artxiboko dokumentazioak eta 2000. urtean plazan bideratu zen kontrol arkeologikoaren emaitzek plazako alde hori okupatuko zuten etxeei buruzko daturik eskaintzen ez diguten arren, uste izatekoa da horren eremu handian eraikinen bat, txikia bada ere, izango zela, areago etxeek eta arkupeek okupaturik ez zeukaten aldea izaki.

grandes dimensiones compuesta por dos muros paralelos de mampostería muy sólida de unos 70-80 cm. de grosor y más de metro y medio de altura sobre los que apoya una cubierta que presenta dos variedades. En los tramos en los que va por debajo de los muros del edificio la cubierta es abovedada formada por cuatro sillares-dovela, sin embargo, cuando discurre por el centro del edificio la cubierta es plana formada por lajas talladas con las caras biseladas para encajarlas con unas piezas laterales dispuestas en forma de cuña sobre los muros.

Por último, los únicos elementos anteriores a la construcción de la Aduana son algunas unidades de difícil fechación e interpretación por haber sido excavadas en una superficie muy reducida y no tener materiales asociados. Se trata de las U.E. 34,35,36,37, localizadas en el extremo nororiental, que parecen dos niveles de incendio así como los rellenos de nivelación tras la destrucción provocada por los mismos, y de un posible suelo de la plaza (U.E. 38) anterior a la construcción de la Aduana. Estas unidades nos permiten aventurar la hipótesis de que quizá existió en esta zona de la plaza alguna pequeña edificación, tal vez alguna tejavana, pues aunque en la documentación de archivo y en el control arqueológico de la plaza hecho en el año 2000 no se han encontrado pistas sobre la existencia de edificios en la plaza, sí parece probable que en un espacio tan amplio hubiese alguna construcción siquiera de carácter menor, precisamente además en el flanco no ocupado por viviendas ni soportales.

Silvia Cajigas Panera

D.2.1.19. **Frankoen kalea, 7 (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera eta Iñaki Pereda Garcia
Finantzazioa: Maria Pilar Zurundarena Bilbao eta Pedro Arana

D.2.1.19. **Frankos, 7 (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera e Iñaki Pereda García
Financiación: María Pilar Zurundarena Bilbao y Pedro Arana

The archaeological excavation of the site located at number 7 Francos Street (historical quarter of Urduña-Orduña) enabled us to identify two phases of occupation. Two pits were documented belonging to the earlier 19th century phase. One of these is thought to have been a silo and the other to have housed a wooden structure.
The last building was constructed at the beginning of the 19th century, probably as a spin off from the adjacent site located at number 5 Francos Street.

Sarrera

Hirian bideratu diren azken ikerketa historiko-arkeologikoek argiro bereizi dituzte hiru zabalaldi Urduñako Hirigunearen bilakaeran. 1229. urtearen ingurukoa, ekialdean auzo bat itxuratu zenekoa, dugu lehena (Burdin kalea, Artekale eta Arategi kalea). 1256. urte ingurukoa, iparraldeko auzoa gorpuztu zenekoa, dugu bigarrena

Introducción

Las últimas investigaciones histórico-arqueológicas realizadas en la villa han puesto de relieve la evolución del Casco Histórico de Orduña en tres etapas. La primera en torno a 1229 cuando cristaliza la formación de un recinto oriental (calles Burdin, Artekale y Arategi). La segunda hacia 1256 cuando se origina el núcleo

(Kale Zaharra, Frankoen kalea, Orruño kalea, Donibane kalea, Lukas Deuna Kalea eta Mikel Deuna kalea). XV. mendekoa edo, beharbada, XVI. mendekoa da hirugarrena. Horietako bigarren zabaldian dago ikerketa arkeologiko honetan landu dugun orubea.

Berez jendeztatuko zen eremu hau, jatorrizko hirigune nagusiaren harresiaren ondoko bidean, Gaztelako lurrak Bilborekin lotzen zituen bidean hain zuzen ere. XIII. mende erditsurako itxuratua izango zen hirigune hura, harresiak mugaturik eta lehen hirigunetik guztiz bereizirik.

Frankoen kaleko eraikin honen oina trapezoidala da, angeluzuzen izateko joeraz; kantoia eratzen du haren ertzak eta Frankoen kalera jotzen du haren aurrealdeak. Interbentzio arkeologikoa bideratu genuen unean, etxearen behe oineko hormak baino ez zeuden zutik eta hutsik erabat barrua.

Arkeologiaren ikuspegitik, alderdi interesgarriak sumatzen genituen aurrez orube hartan, hala nola banaketaren bilakaera, erabilitako materialak edo zurezko eraikinen balizko aztarnak.

Igurikapen haiek gauzatu ahal izateko, orubea osorik induskatzea erabaki genuen, arras urria baitzen bertako eremuaren balizko balio arkeologikoa (0,30 m-ko lodiera batez beste).

Orubearen okupazioaldiak

Aro Modernoa

Margak dira nagusi eremu horretako lurren estratu naturalean. Urri xamarra da substratu mota hau Urduñako lurpean.

Landu eta beheratu egin zuten maila naturala azalera guztian orubearen barne espazioari probetxu hobea aterako zion zoru horizontala itxuratzeko. Horrenbestez gaindituko zuten era berean mendebaldetik ekialdera lerratzen zen malda txikia, ondoko kantoian agerian utzi eta erregistratu dena.

Urri dira, halaber, azkeneko etxearen aurreko okupazioaldiari argiro dagozkion unitate estratigrafikoak. Bi hobi ditugu aipagarri:

Aurrealdean, aurreko horma baten azpian, azaldu zen lehena. Oin erdi-zirkularreko zulo bat da, substratu naturalean induskatua. Oinean malda txiki bat ageri du mendebaldetik ekialdera, eta ekialdeko ertzaren hondoan erdi zulaturik ageri da eremua, ipar eta hegoaldeko ertzak biribildurik ageri dituen zerrenda angeluzuzen batez. Lur harro xamarra azaldu zen hobiaren betegarrian, tartean obra-materialak (adreiluak, teilak), hezurkiak, ikatz-dilista txikiak eta kronologia modernoko bi zeramika oin esmaltatu gabe ageri zituena. Ez dago betirako daturik; halaz ere, dokumentatu diren beste aztarna batzuekin alderatu eta gero, silo txiki bat zela esan genezake.

Orubearen erdialdean eta, hein batean, iparraldeko perimetro-hormaren azpian ageri da bigarren hobia.

septentrional (calles Zaharra, Francos, Orruño, Donibane, Lukas Deuna y Mikel Deuna). La tercera realizada en el siglo XV o quizás XIV. El solar objeto de análisis arqueológico se localiza dentro del identificado como segundo ensanche.

El poblamiento de esta área debió de tener un origen espontáneo relacionado con el vial que discurría junto a la cerca del núcleo de fundación inicial y que comunicaba la meseta con Bilbao. Hacia mediados del siglo XIII, la zona citada formaría ya un núcleo delimitado por una muralla y diferenciado del primer núcleo.

El edificio de Francos N.º 7 es de planta trapezoidal tendente a rectangular, situado en esquina con el cantón y con frente a la calle Francos. En el momento de la intervención arqueológica únicamente se conservaba la P.B. del edificio y el interior estaba completamente vacío.

Desde el punto de vista arqueológico el solar planteaba aspectos de interés como la evolución de la parcelación, los materiales empleados o los restos de posibles edificaciones lígneas.

Para solucionar dichas problemáticas y a la vista del escaso potencial arqueológico (de 0,30 m. de grosor medio) optamos por la excavación integral del solar.

Fases de ocupación del solar

Período Moderno

El estrato natural del terreno está formado mayoritariamente por margas, un tipo de sustrato poco frecuente en el subsuelo de Orduña.

Cabe señalar que dicho nivel natural fue trabajado y rebajado en su totalidad con la finalidad de conseguir una superficie horizontal que permitiese un mejor aprovechamiento del espacio interior del solar. Así, se eliminaba la pequeña pendiente natural que existe desde el oeste hacia el este y que se registra en el cantón contiguo.

Son escasas las unidades estratigráficas que corresponden con claridad a una fase de ocupación anterior a la del último inmueble. Destacamos dos fosas:

La primera, localizada en la zona delantera y bajo el muro delantero, es una cavidad de planta semicircular excavada en el sustrato natural. Su base presenta una ligera inclinación de Oeste a Este y en el fondo del extremo Este el terreno está a su vez semiexcavado en una franja rectangular, cuyos extremos norte y sur están redondeados. Rellenando la fosa se documentó una tierra de compactación baja, con presencia de materiales de obra (ladrillos, tejas), fragmentos óseos, pequeñas lentillas de carbones y dos fondos de cerámica sin esmaltar de cronología moderna. No hay datos concluyentes, aunque por comparación con otras evidencias arqueológicas documentadas, es asimilable a un pequeño silo.

La segunda fosa, situada en la zona central del solar y en parte bajo el muro perimetral norte, es una oque-

2,10 × 1,90 metroko zulo angeluzuzena da. IM eta IEko erpinetan, oin obaleko zulo bana ageri du, hondoan kareharrizko lauzak dituztela batak zein besteak. Ipar-mendebaldeko zuloaren paretak zuzenak dira, eta hondoa konkaboa. Honako neurri hauek ditu: 67 × 45 × 60 cm. Sekzio triangeluarreko arrail txiki bat, 10 × 10 cm, ageri du. Beste zuloa, ipar-ekialdeko erpinean azaldu dena, egoera txarragoan dokumentatu zen, iparraldeko horman ageri den atalase baten azpian baitzegoen. Hondoa laua du, iparralderantz makurtuxe bada ere, eta 40 × 43 × 60 cm dira haren neurriak. Ez dugu haren pareko aztarna arkeologikorik aurkitu, baina zurezko egitura baten euskarri gisa erabiliko zutelakoa uste dugu. Lauzen ondoan kronologia hurbileko toska-portzelanazko zeramika zati txiki bi azaldu dira. XVIII. mende bukaeraren eta XIX. mende hasieraren arteko data eman geniezaieke.

Beraz, ez dugu orube honetan XIX. mendea baino lehen bideratuko zuten banaketa berritxuratzeko aukera emango ligukeen unitate estratigrafikorik topatu.

Aro Garaikidea

Aro honen barruan, lehen aldi bat bereiziko dugu aurrenik, eta azken etxea eraiki aurreko lanekin lotuko dugu. Alde batetik ditugu estratu naturalaren gainean aurkitu diren bi betegarri, eremuko gorabeherak estali eta zorua berdintzea helburu zutenak.

dad de planta cuadrangular de 2,10 m. por 1,90 m. En sus vértices NO y NE dispone de sendos hoyos de planta oval en cuyas bases se localizan lajas de piedra caliza. El hoyo situado en el ángulo noroeste es de paredes rectas y fondo cóncavo y sus dimensiones son de (67 × 45 × 60) cm., con una pequeña hendidura de sección triangular de 10 × 10 cm. La otra cavidad, localizada en el vértice noreste, se documenta en peores condiciones ya que se introduce por debajo de un umbral de acceso existe en la pared norte. Su base es plana, aunque ligeramente inclinada hacia el norte y sus dimensiones son de (40 × 43 × 60) cm. No hemos localizado evidencias arqueológicas equiparables, aunque apuntamos la posibilidad de que sirviese de apoyo a una estructura de madera. Junto a las lajas se han recuperado dos pequeños fragmentos cerámicos de loza-porcelana de cronología reciente y que podrían fecharse entre finales del siglo XVIII y principios del siglo XIX.

En definitiva, no contamos con unidades estratigráficas que nos permitan reconstruir la parcelación existente en este solar antes del siglo XIX.

Período Contemporáneo

Dentro de este período distinguimos una fase antigua relacionada con los trabajos previos al levante del último edificio. Por una parte, se encuentran dos rellenos localizados sobre el estrato natural y cuya finalidad era la de tapar irregularidades del terreno.



Erdialdean azaldu den hobia, IM eta IE angeluetan zulo bana agerian. Kareharrizko lauzak dauzkate hondoan.

Fosa localizada en la zona central, en sus ángulo NO y NE dispone de sendos hoyos en cuyas bases se localizan lajas de piedra caliza.

Beste aldetik, harriz eta lur harro xamarrez itxuraturiko betegarri bat dokumentatu dugu orubearen erdialdean azaldu den hobia estaltzen duena. Landu gabeko harriak ziren gehienak harrizko jarleku baten zati bat izan ezik.

Orubearen IEko angeluan kronologia berriko beste betegarri bat zehaztu dugu; izan ere, azken etxearen aurrealdeko eta eskuinaldeko hormen oinarriaren ondoan azaldu da. Aipatu berri ditugun bi hormen zimentazio-zanga izango zen zuloa estaltzen du betegarri horrek. Bestalde, aro garaikideko etxearen hormak ziren horiek biak.

XIX. mende hasieran eraiki zen orube honetako azken etxea, estilo neoklasikoaren arauei jarraiki, aurrealdeko behe oinak salatzen digun bezala. Oin berriko etxea izan zen. Perimetro-hormak jaso eta bitan banatu zen horma batez barruko espazioa (aurrealdea eta atzealdea). Mehelin-tabikeak eraiki ziren aurrealdeko espazioan. Etxearen barruko egitura zurezkoa zen eta harroinak eta harrizko ezkantzuak zituen euskarri (IM eta HM angeluak). Zoruei dagokienez, aipagarriak dira buztinezko zoru bat, ekialdeko hormaren ondoko hobia estali zuena, eta lauzazko enkatxo bat, erdialdean.

Ez dakigu lur-sail hau aldameneko orubetik (Frankoen kalea, 5) banatu ote zen, atzealdeko hormaren mendebaldeko oinarriak iradokitzen digun bezala. Aldameneko eraikinaren gaineko azterketak berretsi edo ezetsiko digu datu hau.

Urri dira berreskuraturiko materialak. Hezurkiak eta eraikuntza materialak (teilak eta adreiluak) dira gehienak. Zeramika ere ez da ugari azaldu. Aro garaikidekoak dira arrasto gehienak, baina azaldu ere egin da aurreko aldikotzat har genezakeen zeramika zatiren bat edo beste. Erdi Aroko itxura duten zeramika zatiak azaldu dira bi unitate estratigrafikotan, ondoko testuinguruetan ordea.

Por otra parte se documenta un nivel formado por un echadizo de piedras en su mayoría sin trabajar (salvo el fragmento de un poyo de piedra) y tierra de compactación baja que anula la fosa subyacente localizada en la zona central del solar.

En el ángulo NE del solar se ha identificado otro relleno de cronología reciente ya que se adosa a la base del muro delantero y del lateral derecho del último edificio. Colmata a su vez una fosa que interpretamos como la zanja de cimentación de los dos muros antes citados y que pertenece a la casa de villa contemporánea.

El último edificio levantado hacia principios del siglo XIX es de estilo neoclásico, tal y como se puede observar en la P.B. de la fachada delantera. La construcción fue de nueva planta. Se levantaron los muros perimetrales. Al interior el espacio se dividió con un muro que lo compartimentaba en dos (espacios delantero y zaguero) y en el espacio delantero se construyeron tabiques medianeros. La estructura del interior de la casa era de madera y se apoyaba en poyos y esquinales de piedra (ángulos NO y SO). Respecto a los suelos destacamos un nivel de arcillas que anula la fosa situada junto el muro este y un encachado de lajas existente en la zona central.

Desconocemos sí esta parcela pudo desgajarse de la contigua de Francos N.º 5 tal y como parece indicar la base de la cara oeste del muro zaguero. Se trata de un aspecto que habrá que confirmarlo con el estudio del edificio contiguo.

Los materiales recuperados son escasos. Predominan los restos óseos y los materiales de construcción (tejas y ladrillos). Las cerámicas no son muy abundantes. Dentro de estas últimas predominan las producciones de cronología contemporánea, aunque hay también algún fragmento cerámico adscribibles a una fase anterior. En dos unidades estratigráficas se han recogido unos fragmentos cerámicos de aspecto medieval pero en contextos posteriores.

Iñaki Pereda García

D.2.1.20. **Urduñako gotorlekua (Urduña-Orduña)**

I. Kanpaina
Zuzendaritza: Jose Luis Solaun
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

D.2.1.20. **Recinto fortificado de Orduña (Urduña-Orduña)**

I Campaña
Dirección: Jose Luis Solaun
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The archaeological excavation carried out in the Fortified Precinct of the City of Orduña corroborated the data obtained during the previous intervention, as well as providing new data which show the importance of the entire set of buildings. One of the most significant results was the corroboration of the fact that the precinct was constructed at the end of the 13th century, the fact that it was abandoned from the 16th to the 18th century and the uniqueness of the cemetery which stood on this site at the end of the 18th century.

2002. urtean Urduñako harresien irakurketa estratigrafikoa eta identifikazio topografikoa eta Gotorlekuaren ipar-ekialdeko dorrearen Indusketa lanak amaitu eta gero, Urduñako hiriko gotorlekuaren ikerketa proiektuaren garapena hein handiagoan edo txikiagoan ukitzen zuten historia eta ondare mailako auzi batzuk hartu ziren aintzat. Ezinbestekoa zen, beraz, une hartan sortu ziren galdera batzuei egoki erantzutea, eta horrenbestez berretsi edo, hala behar izanez gero, zuzenduko ziren aurreko azterketetan eginiko proposamen batzuk.

Historiaren ikuspegitik, Urduñako hiri egituraren bilakaeraren testuinguru historikoaren eta aurkezpenesparruaren barruan txertatu beharra zegoen gotorlekuaren eraikuntza. 1257an merkataritza-trafikoaren monopolioa Urduñako hiriaren eskuetan utzi eta gero, merkataritzaren gorakada hark demografia hazkundea

Una vez concluida, en el año 2002, la lectura estratigráfica e identificación topográfica de las murallas de Orduña y la excavación del Torreón Nordeste del recinto fortificado se plantearon una serie de problemáticas, tanto históricas como patrimoniales, que afectaban —en menor o mayor grado— el desarrollo del proyecto de investigación en el recinto fortificado de la ciudad de Orduña. Era necesario, por tanto, dar respuesta a una serie de interrogantes surgidos en este momento, y ratificar —o en su caso corregir— algunas de las propuestas avanzadas en los estudios anteriores.

Desde el punto de vista histórico nos correspondía integrar su construcción dentro de un contexto histórico y un marco explicativo en la evolución urbana de Orduña. La concesión del monopolio del tráfico mercantil en 1257 a la villa de Orduña debió suponer, en los años siguientes, un auge comercial traducido en

Induskaturiko eremuaren ikuspegi orokorra.



Vista general del área excavada.

areagotuko zuen eta lehen hiriaren esparrua zabaldu egingo zen ezinbestez. Errege Santxo IV.ak 1288. urtean hiriari eman zion pribilegio batek biziagotuko zuen gainera joera hura. Izan ere, urtean behin hamabost eguneko feria egiteko baimena eman zion hiriari errege hark. Huraxe izan zen Gaztelaren menpeko euskal hiri batek horrelako baimena jasotzen zuen lehen aldia.

Hala eta guztiz ere, aurreko lanetan gogora ekarri dugun bezala, arkeologia ez da soil-soilik ezagutza historikoaren zerbitzuan diharduen tresna bat, gizarte beharrei eta ondare eraikinaren gestioari egokiro erantzuten saiatzen den lanabesa ere baita. Urduñako hiriko Gotorlekua, zalantza izpirik ez dugu honetan, hobekien kontserbatu den gaztelua da Bizkaiko Erdi Aroko babes eraikinen artean; areago, gaitasun aparta duen arren, abandonu eta ahanzturaren eremu baztertuan datza betiere.

Halatan, egoki trenkatu beharreko bigarren auzia zen espazio horren premiazko balioztatzea eta Urduñako hiri egituraren barnean txertatzea. Jarduera haren arabera, saneatu eta zaharberritu beharko litzateke egun arte horren bazterturik egon den hiriguneko eremu hau.

Gauzak horrela, gotorlekuaren ekialde osoa *open area* edo agerian induskatu beharra hartu genuen aintzat. Oin trapezialeko 120 m^2 inguruko eremua zehaztu genuen, honako muga hauen artean: Andra Mari eliza hegoaldean, gotorlekuaren beraren ekialdeko itxitura ekialdean eta ipar-ekialdeko dorrea mendebaldean. Indusketa lan hauetako sekuentzia historiko-estratigrafikoa IE-ko dorrean eginikoarekin bat aurkeztu zen, laburrik bada ere, beharrak hala eraginda. Halatan, sekuentzia osatzen duten aldi batzuetan, aurreko kanpainako datuen gainetik daturik erantsi beharrik ez dugu izan, aurrez argitara emaniko testura jo baitugu zuzenean (*Arkeoikuska 02*, 404-41 or.). Halatan, hona hemen zertan den sekuentzia:

1. Gotorlekuaren eraikuntza (XIII. mende bukaera)

2. Eraberritze lanak gotorlekuan (XIV. mendea)

3. Gotorlekuaren abandonua (XVI.-XVIII. mendeak)

Aurreko kanpainan aldi edo fase hau dokumentatu ez zen arren, erreparatu egin genion bigarren aldiaren («Eraberritze lanak gotorlekuan») eta XVIII. mende bukaeran hilerria eraikitzeko bideratu ziren lanen garaiaren artean erregistro arkeologikorik ez izanak sorrarazten zuen harridurari.

Aurtengo kanpainan, aipaturiko estratigrafiarekin topo ez egiteaz gainera, garai hartako, hau da, XVI. eta

un crecimiento demográfico que inevitablemente demandaría la ampliación del primitivo recinto fundacional. Esta circunstancia va a verse incrementada con el privilegio otorgado por Sancho IV en el año 1288, por el que se concede una feria anual de 15 días de duración, y que supone la primera concesión de este tipo en una villa vasca.

Sin embargo, como recordábamos en trabajos anteriores, la arqueología no puede mostrarse únicamente como un instrumento al servicio del conocimiento histórico, sino también como una herramienta que de respuesta a las necesidades sociales y a la gestión del patrimonio edificado. Sin lugar a dudas, el recinto fortificado de la ciudad de Orduña es una de las construcciones defensivas medievales mejor conservadas y con mayor potencialidad de la provincia de Bizkaia, a pesar de lo cual sigue estando sumida en un profundo estado de abandono y olvido.

Por ello, la segunda de estas problemáticas era la apremiante puesta en valor del espacio y su integración en el entorno urbanístico de la ciudad, actuación que también conllevaría el saneamiento y revitalización de esta zona del casco urbano, actualmente muy deprimida.

En este contexto se planteó la necesidad de ejecutar una excavación en *open area* de todo el flanco oriental del recinto fortificado, una franja de planta trapecial de *ca*. 120 m^2, delimitada por la iglesia de Santa María al sur, el cierre oriental del propio recinto al este y el torreón nordeste al oeste. La secuencia histórico-estratigráfica resultante de esta excavación se presenta enlazada con la efectuada en el torreón NE, aunque sintetizada dada la necesidad de resumir. Así, la ausencia de datos añadidos con respecto a la campaña pasada en alguna de las fases que componen la secuencia nos exime de volver a incidir sobre ellas, remitiéndonos al texto presentado en la anterior publicación (*Arkeoikuska'02*, pp. 404-411). De este modo, la secuencia queda como sigue:

1. Construcción del recinto fortificado (finales del siglo XIII)

2. Reformas en recinto fortificado (Siglo XIV)

3. Abandono del recinto fortificado (siglos XVI-XVII)

Aunque en la campaña anterior no se documentó esta nueva fase, ya nos apercibíamos de la extraña ausencia de registro arqueológico entre la fase 2 «Reformas en el recinto fortificado» y la construcción del cementerio a finales del siglo XVIII.

En la presente campaña, además de la ausencia de estratigrafía mencionada, se le une el hecho de ha-

XVIII. mendeen bitarteko alerik eskaintzen ez digun txanpon multzo garrantzitsu bat berreskuratu dugu. Zoru honetan jaso ditugun txanponak 5. aldiari («Gerra karlistak») dagozkio ia guztiak. Garai hartan etorri zen esparru honetako hilerriaren bukaera. Txanpon multzo honen sekuentzia kronologikoa XIII. mendearen 2. erdialdean hasten da, Alfontso X.aren garaiko *noven* batez (1252-1284), eta XV. mendearen 2, erdialdean amaitzen, Enrike IV.aren garaiko *blanca* batez (1454-1475). Txanpon multzo hau guztia, esan gabe doa, hondar material gisa ageri da XIX. mendean azpiko estratigrafia suntsitu eta garraiatu ondoren itxuratu zen depositu batean. Nolanahi ere, gotorlekua jardunean egon zen garaiari buruzko ideia bat egin genezake txanpon hauen bitartez.

Beraz, aztarna arkeologiko guztiek berretsi dute eremu honetan XV. mende bukaeratik hilerria XVIII. mende bukaeran atondu zen arteko informaziorik ez dagoela. Halatan, froga hauen guztien aurrean, garbi dago denboraldi oso luze batez, 300 bat urtean, gotorlekua abandonaturik edo erabileratik kanpo, eta giza jarduera garrantzitsurik gabe, egon zelako ustea oso kontuan hartu beharrekoa dela. Bai behinik behin induskatu dugun eremuan.

4. Hilerria (XVIII. mende bukaera)

XVIII. mendean arras aldatu zen gotorlekuko eremuaren funtzioa, hiriko hilerria egokitu baitzen haren barruan. Dokumentazioari esker, badakigu 1782. eta 1785. urteen bitartean bideratu zirela hilerri berrirako lanak, Andra Mari elizaren ondoan, gotorlekuak hartzen zuen espazio honetan berean hain zuzen ere, eta hileta erabileraz hornitu zen horrenbestez dorrea, kapera antolatu baitzuten haren barruan.

Hala eta guztiz ere, hilarrien presentziak eskaintzen digu inolaz ere hilerri honen datu harrigarriena. Hilobien oinetan zeuden eta lauzez estaliak ziren hobiak. Ezaugarri hauek askoz ere berezkoagoak dira Goi Erdi Aroko hilerri batenak XVIII. mende bukaerako batenak baizik. Honek guztiak hileta giroko interbentzio arkeologiko ugaritan behin eta berriro azaldu zaigun errealitate bat jartzen digu agerian: fidagarritasunik bat ere edo ia bat ere ez dute Erdi Arokotzat edo ondo garai batekotzat hartu diren hilobi tipologia askok. Hona hemen zertan diren Urduñako Hiriko hilerrian dokumentatu ditugun bi hilobi mota:

Hobi bakuneko familia hilobiak

Indusketa-eremuaren HM-ko eremuan aurkitu dugu hilobi mota hau. Hilarri anepigrafiko bat azaltzen da haien oinetan, ehorzketarako aukeraturiko lekua adieraztearren. Zenbaitetan, lauza batez edo batzuez estalirik ageri da hilobiaren betegarria.

ber recuperado un importante lote numismático en el que tampoco se registra ninguna moneda perteneciente a este período, esto es, desde el siglo XVI al siglo XVIII. La práctica totalidad de las monedas han sido recogidas en un suelo perteneciente a la fase 5 «Guerras Carlistas», que amortiza el cementerio ubicado en este recinto. Poseen una horquilla cronológica que va desde la 2.ª mitad del siglo XIII, con un Noven de Alfonso X (1252-284), hasta la 2.ª mitad del siglo XV, con una Blanca de Enrique IV (1454-1475). Obviamente, todo este lote de monedas aparece como material residual en un depósito secundario formado en el siglo XIX por el aporte y arrasamiento de la estratigrafía inferior, aunque puede dar idea del período en que estuvo en uso el recinto.

Por tanto, todas las evidencias arqueológicas nos ratifican la ausencia de información desde finales del siglo XV hasta el establecimiento del cementerio a fines del siglo XVIII. De esta forma y ante tales pruebas debemos llegar a la conclusión de la existencia de un período muy dilatado de tiempo —*ca*. 300 años— en el que el recinto fortificado se encuentra abandonado o en desuso, al menos el área excavada, sin ningún tipo de actividad antrópica importante.

4. Cementerio (Finales del siglo XVIII)

El siglo XVIII supone un cambio importante en la funcionalidad que va a desempeñar toda el área del conjunto defensivo, al situarse en su interior el camposanto de la ciudad. Sabemos por la documentación que entre 1782 y 1785 se ejecutan las obras de un nuevo cementerio junto a la iglesia de Santa María, concretamente en este recinto fortificado, momento en que el torreón pasa a tener uso funerario con la erección de una capilla en su interior.

Lo más sorprendente de este cementerio ha sido, sin embargo, la constatación de un tipo de enterramiento caracterizado por la presencia de estelas a los pies y cubiertas de lajas, rasgos ambos más propios de una necrópolis altomedieval que de un cementerio de finales del siglo XVIII. Todo ello no hace sino evidenciar una realidad que venimos constatando en numerosas intervenciones arqueológicas que se ocupan del ámbito funerario: la inexistencia o escasa fiabilidad de muchas de las tipologías sepulcrales otorgadas para el período medieval y posteriores. Veamos a continuación los dos tipos de enterramientos documentados en el área cementerial de la Ciudad de Orduña:

Enterramientos familiares en fosa simple

Este tipo de enterramientos los encontramos localizados en la zona SW de la excavación. Se caracterizan por la presencia de una estela anepigráfica situada a los pies de la fosa señalando el lugar elegido para la inhumación y en algunos casos una o varias losas cubriendo el relleno de la tumba.

Hilarrien bitartez bereizten ziren, antza denez, familia hilobiak halakoak ez direnetatik, edota gorpu bat baino gehiago zituzten hilobiak bakarra zutenetatik. Izan ere, hilotz bat baino gehiago azaldu dira hilarriak ageri diren hilobi guztien barruan edo, bakarra badute ere, betegarrian argiro sumatzen da hobi hark aurrez beste hainbat gorpu eduki zituela. Berrerabili egin ziren, beraz, hilobi edo sepultura guneak, aurreko ehorzketa errespetatuko ez bazen ere.

Hilobi mota hauen artekotzat har genitzake, halaber, dorreko hileta-kaperan zeudenak, 2002. urteko indusketa lanetan dokumentatu zirenak. Hala eta guztiz ere, kapera pribatu batean zeudenez eta oinetan hilarririk ageri ez zutenez, eskema horretatik kanpo geratzen dira inolaz ere, hilobi espazio berbera berrerabili zuten arren, aurrekoek bezala.

Banako hilobiak hobi bakunean

Indusketa-eremuaren iparraldeko erdialdean aurkitu dugu hilobi mota hau. Gorpu bana dute hobiko. Haien betegarriak oso garbiak dira, ez da hartako nahasian hezurrik ageri eta, beraz, hobiko gorpu bat ehorzten zutela ondoriozta dezakegu.

Ekialdean ageri dira hilobiak nagusiki, eta bi ehorzte une bereiz daitezke haietan. Bigarren aldikoak lehenengoen arteko mehelinetan ezarri zituzten, aurrekoak moztuz. Ez ziren hilobi hauen kokalekuen gehiegi arduratu eta, beraz, anarkikoagoa eta beteagoa da hilerri edo hilobi espazio hau.

Halatan, badirudi hilobi espazioa berrantolatzen ahalegindu zirela, hobekiago probextatzearren.

5. Gerra Karlistak (1833-1876)

6. Hilerriko lanak (XIX. mendearen bigarren erdialdea)

7. Hilerriaren abandonua (XIX. mende bukaera-XX. mende hasiera)

La existencia de estas estelas en las tumbas parece identificar aquellas sepulturas familiares de las que no lo son, o al menos aquellas sepulturas con más de una inhumación de las que contienen exclusivamente una. En efecto, todos los casos donde se observa la presencia de estelas poseen más de un individuo y en caso de poseer sólo uno, sus rellenos evidencian la presencia primigenia de anteriores deposiciones, en una clara reutilización de los espacios sepulcrales, aunque no se respete el enterramiento anterior.

En esta categoría de enterramientos también podríamos incluir los pertenecientes a la capilla funeraria del torreón, y que ya fueron documentados en la excavación del año 2002. Sin embargo, su especial situación dentro de un capilla privada y la inexistencia de estelas a los pies hacen que se salgan de este esquema, aunque reutilizan un mismo espacio sepulcral al igual que los arriba descritos.

Enterramientos individuales en fosa simple

Este otro tipo de enterramientos se ubican en la mitad norte de la excavación y se caracterizan por poseer un sólo individuo por fosa. Sus rellenos, muy limpios, no presentan restos óseos revueltos lo que nos indica una única inhumación por fosa.

Las tumbas, situadas preferentemente en la zona oriental, presentan dos fases o momentos de deposición. Las pertenecientes a la segunda fase, dispuestas entre los medianiles de las primeras, provocan el corte de éstas, sin preocuparse demasiado en su ubicación, mostrando un espacio cementerial más anárquico y saturado.

Todo esto nos lleva a pensar en un posible intento de reorganización del espacio sepulcral para su mejor utilización.

5. Guerras Carlistas (1833-1876)

6. Fase de obra del cementerio (2.ª mitad del siglo XIX)

7. Abandono del cementerio (Finales del siglo XIX-siglo XX)

Jose Luis Solaun Bustinza; Jose CardosoTostado

D.2.2. *ZUNDAKETAK*

D.2.2.1. **Etxanoko Andra-Mari eliza (Amorebieta-Etxano)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera
Finantzazioa: Leku Eder Kultura Elkartea

D.2.2. *SONDEOS*

D.2.2.1. **Iglesia de Santa María de Etxano (Amorebieta-Etxano)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera
Financiación: Asociación Cultural Leku Eder

This intervention was carried out with the aim of assessing the archaeological perspectives of the field to the south of Santa María Church in Etxano, a Zone designated of Presumed Archaeological Importance in which a series of development activities were planned.
The two archaeological sondages carried out enabled us to document the existence of an early medieval cemetery that may have remained in use until the middle of that period. The graves were simple pits dug into the natural ground, some of which had a monolithic cover with or without holes, and carvings in the rock face in the form of baths or human figures.
In addition to the cemetery, a lime kiln of indeterminate chronology was also partially excavated.

Interbentzioaren aurrekariak eta lekuaren ezaugarriak

Etxanoko Andra Mari elizaren hegoaldeko zelaiaren ikuspegi arkeologikoak balioztatzeko bideratu eta gauzatu zen interbentzio hau. Eliza hori balizko balio arkeologikoko eremua da eta hainbat urbanizazio lan hartuak ziren han aintzat.

Elizaren hegoaldeko zelai honek desnibel handi bat gainditzen du elizaren eta errepidearen artean: bi terraza zabal eta hauen bitartean lubeta bat eratu dira hartan.

Leku horretako historiari dagokionez, esan dezagun Etxano (Oiz eta Bizkargi mendien arteko magalek Ibaizabal ibaiak erdibidean ureztatzen dituen lurren aldera eraturiko terraza batean dago Etxano) Bizkaiko *eleizalde* autonomoa, berezko gobernuaz hornitua, izan zela Zornotzako udalera bildu aurretik.

Erdi Aroaren hasieran egokitu beharko genuke haren hasiera, bai behinik behin X. mendean, lekukotza idatzi eta arkeologiko batzuei erreparatuz gero. Aipagarria da, zentzu honetan, parrokiaren atarikoan berreskuraturiko hilarri tabularra, honako idazkun hau, alfabeto bisigodo mozarabiarrez idatzia, agerian: *«In dei nomi(ne) ego Acenari».* Maiz ageri da izen hori Goi Erdi Aroko kartularioetan.

XI. mende bukaerakoa da Etxanori buruz ezagutzen dugun bigarren berria, Donemiliaga Kukulako Kartularioak dakarrena. Haren bitartez, Ugarteko Done Bikendi monasterioaren donazioa berresten zaio Errioxako monasterio horri. Etxanoko abade bat, «domno Monnio de Eggano», ageri da Bizkaiko Jaunaren ondoan donazio horren berrespena eginez. Agerikoa da bizigune garrantzitsua izango zela orduko Etxano.

Aurreko datuez gainera, XVII. mende hasieratik errepikatu dira elizako atarian berrerabilitako hilobi-estalkiei buruzko albisteak. Haien oihartzunak gidaturik, eliza horretako lauzadura eraberritzeko lanen kontrol arkeo-

Antecedentes y características del emplazamiento

Esta intervención se llevó a cabo con el objetivo de valorar las perspectivas arqueológicas de la campa del sur de la iglesia de Santa María de Etxano, zona declarada de presunción arqueológica donde se iban a realizar obras de urbanización.

Esta campa meridional de la iglesia salva un desnivel importante entre el templo y la carretera formando dos amplias terrazas con un terraplén entre ellas.

Con respecto a la historia del emplazamiento debemos decir que Etxano (situado en una terraza en las laderas que se extienden entre las cumbres del Oiz y Bizkargi, sobre el curso medio del Ibaizabal) formaba una de las anteiglesias del territorio con organización propia antes de integrarse en Amorebieta.

Su origen debe situarse en los comienzos de la Edad Media, al menos en el siglo X, a juzgar por algunos testimonios tanto escritos como arqueológicos. En este sentido, destaca una estela tabular recuperada en el pórtico de la parroquia, en la que se puede leer escrito en alfabeto visigótico mozárabe: *«In dei nomi(ne) ego Acenari»,* onomástico que aparece frecuentemente repetido en los cartularios altomedievales.

La segunda noticia referida a Etxano es de finales del siglo XI del Cartulario de San Millán de la Cogolla. Se trata de la confirmación de la donación a este monasterio riojano, del monasterio de San Vicente de Ugarte. Es un abad de Etxano, «domno Monnio de Eggano» quien aparece junto al Señor de Bizkaia confirmando dicha donación, hecho indicativo de que ya para estas fechas Etxano debió constituir un núcleo importante.

Aparte de los datos anteriores, desde comienzos del siglo XVII se venían repitiendo noticias sobre la existencia de cubiertas sepulcrales reutilizadas en el pórtico del templo. En este sentido, Iñaki García Camino

logikoa bideratu zuen Iñaki Garcia Camino arkeologoak eta baieztapen haien egia frogatzeko aukera izan zuen, bi hilarri berreskuratu zituelako. Aro Modernokoak ziren, ordea, hilarri haiek.

Hortaz, datu horiek hor daudela, oso litekeena da langai dugun inguru honetan egungoaren aurretik beste eliza bat izatea, egungoaren leku berean edo hurbil, eta hilerria ere egongo zen haren baranoan, eta elizaren hegoaldea dugu hilobi espaziorako gehien erabiltzen zen aldeetako bat.

Zundaketen kokalekua eta deskripzioa

Bi zundaketa egin dira, eskuz zulatuta. I. zundaketan zeharka ireki zen goialdeko terraza guztia, atariaren ekialdeko ertzetik abiatuta. Hala eta guztiz ere, berehala utzi zen atariko hormaren inguruko aldea, oso nahasia zegoela frogatu eta gero (hodi bat sartu zen alde hartatik orain urte batzuk). Zundaketa hau 8,70 m luze zen I-H norabidean eta 4,40 m E-M norabidean. Induskailuaren laguntzaz, ekialderantz zabaldu genuen zundaketa-eremua, ezpondaren hegian barneraturik ageri zen harlandu bati jarraiki eta hilerriaren hedadura alde horretatik mugatzeko asmotan. Era berean, hegoalderantz ere zabaldu zen zundaketa-eremua, behealdeko terrazako betegarria zulatu eta hilobirik ba ote zegoen egiaztatzeko.

Goialdeko terrazaren mendebaldeko ertzean, terraza iparralderantz okertzen hasten den gunean, bideratu genuen II. zundaketa. Induskailuaz ekin genion zundaketa honi, eta haren bitartez dokumentatu ahal izan genuen goiko terrazaren euste-horma, eta egiaztatu genuen, bide batez, beheko terrazan hilobirik ez zegoela, ekialdean gertatzen zen bezala. Halarik ere, hilobiak azaldu ziren goiko terrazaren betegarrian. Eskuz induskatu genuen alde hau, 4,5 × 1,5/2 metroko azaleran.

Zundaketa arkeologikoen emaitzak

Aurreko atalean deskribatu ditugun zundaketen bidez lortu genuen aztarnategia hein batean mugatzea, eta Goi Erdi Aroko nekropoli edo hilerria goialdeko terraza osoan, bai eta ekialdean haren eta beheko terrazaren artean dagoen ezpondan ere, hedatzen dela egiaztatu genuen. Beheko terrazan ez zegoen hilobirik eta ekialdean, hilobirik ageri ez zen aldean, karobi bat azaldu zen, partzialki induskatua.

Hona hemen I. zundaketaren estratigrafia

— Landare-geruzaren azpian, betegarri batek (aro garaikideko zeramika eta txanponak) okupatzen zuen zundaketaren iparraldeko eremua, hau da, terraza eta kota goreneko ezponda aldea.
— Hilobiak estaliz, aurreko betegarriaren azpian, azaltzen zen beste lurrezko betegarri bat. Lur hondartsua zen eta hartan ez zen ia materialik ageri. Eremua berdintzeko bideratuko zuten betegarri hura.

realizó el control arqueológico de las obras de reparación del enlosado del mismo, donde pudo comprobar la veracidad de dichas afirmaciones al recuperar dos estelas, si bien eran de época moderna.

En definitiva con estos datos era muy probable que en la zona que nos ocupa existiese un templo anterior al actual en su mismo emplazamiento o muy próximo y una necrópolis en torno a él, siendo precisamente la zona sur del templo presumiblemente una de las más utilizadas para enterrarse.

Ubicación y descripción de los sondeos

Se han realizado dos sondeos excavados de forma manual. El sondeo I se abrió inicialmente ocupando transversalmente toda la terraza superior, desde el extremo oriental del pórtico, sin embargo la zona norte más próxima al muro del pórtico se abandonó enseguida porque descubrimos que estaba muy alterada al haberse metido hace unos años una tubería. Este sondeo tenía inicialmente una extensión de 8,70 m. en sentido N-S y 4,40 m. en sentido E-W. Con la excavadora se procedió a su ampliación hacia el este con el fin de seguir un sillar que se metía en el cantil y delimitar la extensión de la necrópolis por ese lado. Asimismo este sondeo se prolongó hacia el sur para excavar el relleno de la terraza inferior y comprobar si había enterramientos en esa zona.

El sondeo II se localizó en el borde de la terraza superior en el extremo occidental, en la zona en la que la terraza empieza a curvarse hacia el norte. Este sondeo se inició con la excavadora, y con él se pudo documentar el murete de contención de la terraza superior, así como la inexistencia de enterramientos en la terraza inferior, al igual que sucedía en la zona oriental. Sin embargo, sí aparecieron tumbas bajo el relleno de la terraza superior, excavada de forma manual en una extensión aproximada de 4,5 × 1,5-2 m.

Resultados de los sondeos arqueológicos

Con los sondeos descritos en el apartado anterior conseguimos delimitar parcialmente el yacimiento, comprobando que la necrópolis altomedieval se extiende en toda la terraza superior e incluso en el talud que existe entre ella y la inferior en la zona oriental. La terraza inferior no presentaba sepulturas y por el este donde acababan los enterramientos hallamos un calero excavado parcialmente.

La estratigrafía en el sondeo I es la siguiente

— Bajo el manto vegetal existía un relleno con cerámica y monedas de época contemporánea ocupando la zona septentrional del sondeo, es decir, la zona de la terraza y del talud de mayor cota.
— Cubriendo las sepulturas bajo el relleno anterior existía otro de tierra de composición arenosa sin apenas materiales que parecía nivelar el terreno.

— Sepulturen betegarria eta aurreko atalean deskribaturiko betegarria bezain lodi zen geruza mehe batean zulatuak ziren hilobiak. Lur hareatsuz itxuraturiko geruzak hareharrizko estratu naturala estaltzen zuen. Geruza natural horretan ere induskatu zituzten hilobiak.

Bost hilobi ziur eta hilobiak baziratekeen arren mugatzen zailak diren beste hobi batzuk zehaztu dira zundaketa honetan. Oro har, garbi dago haien norabidea, ekialderantz, eta hobi bakunak dira, hareharrian zulatuak, estratuak berez sorrarazten dituen mailak baliatuz eginak. Hobiak sakon xamarrak dira, haren oina angeluzuzena gutxi gora-behera, ertzak kurbatuak eta hondoa laua. Harri irregularrez sendoturik ageri dira batzuetan.

Zabar arbastaturiko harri bakarreko lauza bana ageri dute bi hilobik. Zartaturik ageri zen haietako bat, hobi bakuneko sepultura bat estalirik. Ez zuen euskarrirako beste harririk. Haur baten hilobian ageri zen bestea, neurriari erreparatuz diogu hau. Zulo batek zeharkatzen zuen lauza alderik alde eta harri irregularrez sendoturiko sepultura hobi bakuna estaltzen zuen. Oiz aldeko hilerrietan ageri dira bereziki azken molde honetako hilobiak.

— Las sepulturas estaban excavadas sobre un estrato de poco grosor similar al relleno de las sepulturas y al relleno que las cubría descrito en el punto anterior. Esa capa de tierra arenosa cubría el estrato natural de arenisca, en el que también se excavaron las fosas.

En este sondeo se han localizado 5 sepulturas seguras y algunas fosas correspondientes casi con seguridad a sepulturas pero difíciles de delimitar. En general tienen una orientación clara hacia el este, y son fosas simples excavadas en la arenisca aprovechando los escalones que crea el estrato de forma natural. Son fosas bastante profundas de planta más o menos rectangular con los bordes redondeados y el fondo plano. En algunas ocasiones aparecen reforzadas por piedras irregulares.

Dos de las sepulturas presentan cubiertas de losas monolíticas groseramente desbastadas. Una de ellas estaba fragmentada y cubría una sepultura de fosa simple sin piedras de refuerzo, mientras que la otra, de un niño a juzgar por su tamaño, estaba horadada por un agujero que atravesaba la losa de lado a lado y cubría una sepultura de fosa simple reforzada con piedras irregulares, asociación esta última que se da sobre todo en las necrópolis del Oiz.

Hareharrian zulaturiko hilobiak, Etxanoko Andra Mari elizaren ondoko II. zundaketan.



Sepulturas de fosa talladas en la arenisca del sondeo II de Santa María de Etxano.

Molde honetako hilerri batean arrotzago gertatzen den beste hilobi batek harlandu angeluzuzen oso lodi bat ageri zuen estalki. Ongi landuriko hareharri gorrixka zen eta burualdean neurri txikiagoko beste harri silare baten gainean bermatzen zen. Hareharrizko lauza batek mugatzen zuen hilobiaren oinaldea. Erdi Aroaren bukaerakotzat har genezake hilobi hau; alabaina, estratigrafiaren aldetik ezin berretsi izan dugu geroagoko izate hori, dagokion hobiak azpiko beste moztu zuelako.

Hilobien betegarrietan neurri txikiko ikatz ugari ageri badira ere, hezurrak galdu dira ia guztiz. Izan ere, oso kontserbazio egoera txarrean dauden hezur luze batzuen diafisi zati batzuk baizik ez dira azaldu, zalantzazko hobi horietako batean, zundaketa-eremuaren hego-ekialdeko ertzean.

Oso erraza da II. zundaketaren estratigrafia

— Terrazaren betegarria baino ez da dokumentatu. XVIII. edo XIX. mendekoa izan liteke eta hilobiak estaltzen ditu.
— Horrez gainera, terrazaren euste-horma ere dokumentatu dugu.

Lau hilobi induskatu dira eta beste bat dokumentatu, ezpondaren hegiaren azpian. Hareharrizko estratu naturalean induskaturiko hobiak dira eta bainuontzi baten itxura dute. Oro har, I. zundaketan azaldu direnek baino itxura hobeagoa dute, estratu naturala eremu honetan trinkoagoa delako beharbada. Halaz ere, ez da hau desberdintasun bakarra. Hobiak ez dira horren sakonak eta betegarri duten lurrak ez du ikatzik; gainera, hobekiago kontserbatu dira hezurrak, oso egoera txarrean dauden arren. Induskatu diren lau hilobietan azaldu diren behealdeko gorputz-atalen hezur luzeen diafisi zatiak. Hobekiago kontserbatu dira, trinkoagoak baitira hezurrak.

I. zundaketaren zabaldian partzialki induskatu zen karobiari dagokionez, ezin zehazta dezakegu, oraingoz, haren kronologia. Estratigrafiari dagokionez, egungo betegarria baino ez zuen ageri, landare-geruzaren azpian. 2,30 metroko sakonera iristen du, lur naturalean zulatu da eta 1,90 metro ditu diametro zabalenean. Hegoaldean, erdi altueran edo, aho bat irekitzen da elikadurarako eta, egitura ezpondaren hegiaren azpian barneratzen denez, soilik alde batean induskatu ahal izan den egitura angeluzuzen bat irekitzen da ahoaren barnean. Ahotik beherantz mehetu egiten da karobia, inguruan duen lubeta batek behartuta, eta gero eta meheagoa da karobia hondora ahalean. Metro beteko diametroa du hondo lauan. Lurrez bete zuten karobi guztia, erabileratik kanpo geratu eta gero arriskurik gerta ez zedin seguruenik. Hala eta guztiz ere, hondoan erabili zen garaiko arrastoak gelditu dira, landare-ikatz geruza lodi bat eta kare-harri ageri baitziren.

Otra de las sepulturas, más atípica en este tipo de necrópolis, estaba cubierta por un sillar rectangular muy grueso y bien trabajado en arenisca rosácea, que apoyaba en la cabecera sobre otro de menores dimensiones. A los pies estaba delimitada por una laja de arenisca. Esta sepultura se podría fechar a finales de la Edad Media, de hecho estratigráficamente se ha podido confirmar que es posterior al resto pues su fosa corta a otra inferior.

En el relleno de las sepulturas se apreciaban bastantes carbones de pequeñas dimensiones, y sin embargo los huesos prácticamente han desaparecido, pues únicamente se han hallado unos fragmentos de diáfisis de huesos largos en muy mal estado de conservación en una de las fosas dudosas situadas en el extremo suroriental del sondeo.

En el sondeo II la estratigrafía es muy sencilla

— Únicamente se ha documentado el relleno de la terraza que podría ser del siglo XVIII o XIX cubriendo los enterramientos.
— Asimismo se ha documentado el murete de contención de la terraza.

En este caso se han excavado 4 enterramientos y se ha documentado otro que se mete bajo el cantil. Son fosas talladas en el estrato natural de arenisca con formas de bañera. En general tienen una ejecución mucho mejor que las del sondeo I, tal vez debido a la mayor compacidad del estrato natural en esta zona, sin embargo no es esta la única diferencia. Son fosas menos profundas y la tierra que las rellena no contiene carbones, además se han conservado mejor los huesos, aunque están también en muy mal estado. En las cuatro excavadas se han hallado fragmentos de diáfisis de huesos largos de las extremidades inferiores, los cuales se han conservado mejor por tener más densidad ósea.

Con respecto al calero excavado parcialmente en la ampliación del sondeo I, por el momento no podemos precisar su cronología, si bien estratigráficamente sólo presentaba el relleno contemporáneo situado bajo el manto vegetal. Alcanza los 2,30 m. de profundidad, ha sido excavado en el terreno natural y mide 1,90 m. de diámetro máximo. Presenta hacia el sur a media altura una boca de alimentación que da a una estructura rectangular que sólo ha sido excavada de forma parcial porque se mete bajo el cantil. De la boca hacia abajo el calero se estrecha con un bancal existente alrededor desde donde va disminuyendo en pendiente hasta el fondo que es plano de 1 m. de diámetro. Todo el calero había sido rellenado con tierra posiblemente para evitar riesgos una vez de que dejó de ser utilizado. Sin embargo, en el fondo todavía quedaban restos de su uso, pues existía una potente capa de carbones vegetales, así como numerosas piedras de cal.

Silvia Cajigas Panera

D.2.2.2. **Axpeko Andra Mari eliza (Busturia)**

Zuzendaritza: Jose Luis Ibarra Alvarez
Finantzazioa: Eizategui, S.L.

D.2.2.2. **Iglesia de Santa María de Axpe (Busturia)**

Dirección: José Luis Ibarra Álvarez
Financiación: Eizategui S.L.

In February 2003, as a result of the development work being carried out in the area around Santa María de Axpe church (Busturia), a number of archaeological sondages were carried out in the designated zone of presumed interest. The sondages revealed the partially conserved remains of an external graveyard dating from the medieval era. The presence of the cemetery provided indirect evidence which enabled us to link a documentary reference from 1051 to the Busturia Monastery, dedicated to the Holy Virgin, with the late gothic building which stands on the site today.

Jarduera arkeologikoaren helburuak, interbentziorako hautaturiko eremuak eta indusketarako jardunbidea

Bi helburu nagusi izan zituen Busturiako udalerri bizkaitarreko Axpe auzoko Andra Mari elizaren kanpoaldean bideratu genuen interbentzio arkeologikoak:

Lehenik, inguru hauetan eliza honi egokitu ohi zaion kronologia tarteko eta bereziki eliza sortu zen garaiko, garai zaharreneko, aztarna arkeologikorik baden edo ez den zehaztea, kontuan harturik eremu hau guztia Eusko Jaurlaritzak 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bitartez balizko eremu arkeologikotzat hartu zuela monumentu hau eta haren mugen barruan aurreikusi dela Etxezarre urbanizazio programa.

Egungo Andra Mari eliza estilo eta kronologia aldetik gotiko berantarekin (XVI. mende hasiera) lotu behar den arkitektura bolumena da. Haren erreferentzi materialen artean ez dago aurreko historia garairen batera eraman gintzakeen elementurik eta, beraz, hutsean dugu oraingoz eliza hau *«monasteri iuxta maris, cui vocabulum est Sancte Marie de Izpea, subtus Penna, in territorio Busturi»* aipamenean adierazten denarekin zuzenean lotzeko aukera. Usufruktuan eman zion Bizkaiko kondeak delako eliza hori Gartzea Arabako apezpikuari, 1051ko urtarrilaren 30ean, eta ordukoa da aipamena.

Egungo elizaren zorupean hondar material historikoak kontserbatu izana frogatuz gero betiere, erregistro estratigrafikoaren kalitatea eta interesa ebaluatzea izango da bigarren helburua, berritxuratze historikorako lanetan informazio-iturri garrantzitsua izango delakoan. Ebaluazio hori ezinbestekoa izango da hala urbanizazio proiektuak ukituko duen eremuaren gaineko babes arkeologikoa indarrik gabe uzteko, erregistroa guztiz suntsiturik, arras nahasirik eta itxuraldaturik badago edo historiaren ikuspegitik horren interesgarria ez dela frogatzen bada, nola etorkizunean neurri eta hedadura handiagoko jarduera-programak aintzat hartu, bultzatu eta bideratzeko, zorupearen erregistro estratigrafikoan gorde den informazio historikoa berreskura-

De los objetivos de la actuación arqueológica, de las áreas seleccionadas para la intervención y de los procedimientos de excavación

Dos fueron los objetivos principales que se persiguieron con la actuación en el exterior de la iglesia de Santa María, en el barrio de Axpe, en el municipio de Busturia (Bizkaia):

El primero, constatar la presencia o ausencia en el emplazamiento, dentro de la zona protegida por la Resolución de 5 de mayo de 1997 del Gobierno Vasco que declara las áreas de presunción arqueológica y en el área de la misma que se encontraba afecta al programa de urbanización Etxezarre previsto en el enclave, de restos arqueológicos referidos al tramo cronológico que se viene suponiendo para este templo, en especial de aquellos alusivos a su etapa más antigua y fundacional.

La actual iglesia de Santa María se erige como un volumen arquitectónico vinculado cronológicamente en su estilismo con lo tardogótico (inicios del siglo XVI), sin evidenciar referentes materiales en su alzado que puedan ser retrasados hacia etapas históricas previas, con lo que se anula la posibilidad de certificar una relación directa de esta iglesia con el *«monasteri iuxta maris, cui vocabulum est Sancte Marie de Izpea, subtus Penna, in territorio Busturi»,* cuyo usufructo fue donado por los condes de Vizcaya al obispo García de Álava el 30 de enero de 1051.

El segundo objetivo, y siempre en el caso de que fuera probada la conservación de restos materiales históricos en el subsuelo del emplazamiento, implicaría la labor de evaluar la calidad e interés del registro estratigráfico como potencial fuente de información para labores de reconstrucción histórica. Tal evaluación se impone como el procedimiento inicial que permita bien desestimar la protección arqueológica extendida sobre el área afectada por el proyecto de urbanización, en el caso de que el registro hubiera sido anulado, se encontrara profundamente alterado o evidenciase un relativo interés desde un punto de vista histórico, bien promover y planificar futuros programas de actuación, de mayor amplitud y envergadura, que permitieran re-

tu, dokumentatu, interpretatu, kontserbatu eta zabaltzeko.

Helburu hauek gauzatu ahal izateko, hiru interbentzio-eremu bereizi ziren. Eremu hauek guztiek Andra Mari elizako balizko eremu arkeologikoaren hegoalde eta ekialdeko sektoreak baino ez zuten okupatzen eta zundaketa bana aurreikusi zen haietako bakoitzean. Oin karratuko zundaketa izango zen, eta alde bakoitza inoiz ez zen lau metrotik beherakoa izango. Bideratu genituen hiru zundaketa-eremuetatik, 1. Zundaketa deitu genuenaren iparraldeko erdialdean baizik ez genituen aztarna interesgarriak jaso. Huraxe zen elizatik hurbilen zegoen zundaketa-eremua, eta hartan eginiko aurkikuntzek gidatuko dute gure deskripzioaren haria.

Sedimentuak erauzteko moduari dagokionez, bitarteko mekanikoak bezala bideratu genuen eskulana. Hiru interbentzio-eremuetan erabili genituen bereziki bitarteko mekanikoak, eta inon jarduera arkeologikoetan aintzat hartzen diren berritxuratze lanei begira halako garrantzi historikoko aztarna antropikorik ageri ez zela frogatu eta gero erabili genituen, geruza estratigrafiko antzuak zeuzkaten sedimentuak erauzteko. Eskulana bideratu genuen, ordea, historiaren ikuspegitik aztarna garrantzitsuak izan zitezkeenen erauzte eta dokumentazio lanetan. Halaxe landu genuen, izan ere, 1. zundaketa-eremuko A sektorea edo iparraldeko sektorea.

cuperar, documentar, interpretar, conservar y transmitir la información histórica contenida en el registro estratigráfico del subsuelo.

Para llevar a cabo estos objetivos se señalaron tres áreas de intervención diferenciadas. En cada una de estas áreas, que implicaban únicamente a los sectores meridional y oriental del área de presunción arqueológica del templo de Santa María, se pretendía practicar un sondeo individualizado, cuadrangular en su forma en planta, no inferior en ningún caso a cuatro metros de lado. De los tres sondeos practicados, únicamente en la mitad septentrional del denominado Sondeo 1, el que se localizaba en posición más inmediata al templo, se documentaron evidencias de interés, que serán las que centren nuestra descripción.

Respecto al modo de proceder a la extracción de los sedimentos, cabe señalar que se recurrió tanto a procedimientos mecánicos como a manuales. Aquellos fueron aplicados especialmente en las tres áreas de intervención y se utilizaron para extraer y retirar los sedimentos de aquellas capas estratigráficas en las que se iba constatando la ausencia de cualquier evidencia antrópica interpretada como de relevancia histórica para las labores de reconstrucción que se persiguen con las actuaciones arqueológicas. Los procedimientos manuales, por su parte, se aplicaron exclusivamente en la excavación y documentación de aquellas evidencias que se interpretaron como relevantes desde un punto de vista histórico, en concreto a las que se exhumaron en el Sector A o Norte del denominado Sondeo N.º 1.

Lorturiko emaitzen gaineko aurre-informazioa eta aztarna esanguratsuenen deskripzio laburra

Aldez aurreko oharrak

Labur azal ditzagun, lehenik, interbentzioan lorturiko emaitza globalak, jarduera honen aurrean geneuzkan helburuen arabera.

Interbentzioan egiaztatu ahal izan dugu leku honetan hondakin historikoak badirela. Halarik ere, 1. Zundaketa deitu dugun eremuko A sektorean edo iparraldeko sektorean dokumentatu ahal izan dira horiek modu fidagarrian. Andra Mari elizaren hegoaldeko atari aurreko eremuan bideratu zen 1. Zundaketa hori. Hondakin horiek ehorzte praktikekin loturiko hilobiei dagozkie nagusiki. Hilobi haiek kanpoko nekropoli edo hilerri batean antolatu ziren, eta azaldu diren lekuari eta ageri dituzten ezaugarriei erreparaturik Erdi Aroko garai batekoak direla esan genezake.

Dokumentaturiko aztarnen kalitate «erlatiboa» da, berritxuratze historikorako lanei begira. Halaxe diogu bi konstatazio berezi aintzat hartu ondoren:

— alde batetik, oso nahasirik azaldu ziren hegoaldeko atariaren hegoaldeko mugatik urrunen

Avance inicial informativo a los resultados obtenidos y breve resumen descriptivo de las evidencias más significativas

Notas previas

Cabe resumir, en primer lugar, los resultados globales obtenidos durante la intervención de acuerdo con los objetivos planteados para la actuación:

La intervención ha permitido constatar la conservación en el emplazamiento de restos históricos, si bien sólo documentados con fiabilidad en relación con el Sector A o Norte del denominado Sondeo 1, acometido sobre el área más inmediata al pórtico meridional del templo de Santa María. Tales restos se corresponden fundamentalmente con evidencias sepulcrales referidas a prácticas de inhumación, organizadas en una necrópolis o cementerio exterior, cuya localización y características parecen referirlo a una cronología medieval.

La «relativa» calidad de las evidencias documentadas en su posible aplicación a la labor de reconstrucción histórica. Tal calificación viene derivada de ponderar dos constataciones diferenciadas:

— por una parte, las evidencias sepulcrales más alejadas del límite meridional del pórtico sur

zeuden hilobi hondakinak, galdurik baitzituzten jatorrizko osagai fisiko garrantzitsu gehienak, hala hilobien beraien itxuraren ezaugarriak nola haien barruan ehortzi zen/ziren gorpua edo gorpuak,

— beste alde batetik, hilerrietan bi dira informazio historikoa eskaintzen diguten funtsezko aurkikuntzak: hilobiak edo sepulturak berak, eta haietan hobiraturiko giza gorpuzkinak. Hileta hondakin hauek pairatuko zuten itxuraldatze fisikotik harantz, beharrezkoa da zehaztea gorpuak hilobiratu ziren buztinalde horren garraztasun maila handiak ez duela hezurkien kontserbazio egokia erraztu, zehaturik edo ahulegi edo papurtuegi ageri baitira gehienetan. Beraz, oso zaila eta nekeza izaten da orduan gorpuzkin horien azaleratze eta identifikazio lana.

aparecían muy alteradas, evidenciando la pérdida de una parte importante de los elementos que las constituyeron o caracterizaron físicamente en su origen, tanto en lo que respecta a los caracteres que permiten definir la propia sepultura, como en aquello que atañe al cuerpo o cuerpos que fueron inhumados en ella,

— por otra parte, en las necrópolis son dos los hallazgos fundamentales que suministran información histórica: las sepulturas propiamente dichas y los restos esqueléticos humanos asociados a aquellas. Más allá de la alteración física que hayan podido sufrir estas evidencias funerarias, es necesario precisar que la alta acidez del medio arcilloso en el que fueron sepultados los cuerpos no ha favorecido la adecuada conservación de los restos óseos, que aparecen en la mayor parte de los casos prácticamente desintegrados o excesivamente frágiles y fragmentados, haciendo extremadamente dificultosa y laboriosa tanto su excavación, como su identificación.

1. Zundaketa-eremuaren iparraldeko sektoreko aztarna arkeologikoak

1. Zundaketan dokumentaturiko aztarnen artetik, hileta-hondakinak dira inolaz ere historiaren ikuspegitik esanguratsuenak; hala bada, haietara bilduko dugu gure deskripzio hau guztia. Hona hemen, puntu hauetara laburbildurik, haien ezaugarriak:

a) Ehorzketak dira, salbuespenik gabe, dokumentaturiko hileta-prozesu guztiak.

b) Dokumentaturiko eskeletoak —hamar dira guztira, multzo osoak eta hondakin partzialak bat harturik—, ahoz gora pausatu zituzten hilobietan, gorputz osoa luze eta burua mendebaldeko aldean. Ehortzi beharreko gorpuak egokituko diren hilobiaren hondoaren arabera pausatzen ziren gehienetan.

c) Hilerria osatu zuten hilobiak hainbat motatakoak ziren eta literatura arkeologikoan definitzen eta zehazten diren eredu klasikoen araberakoen ondoan azaltzen dira molde nagusi horien aldagaitzat har litezkeen beste batzuk. Hau dela eta, hona hemen bereizi ditugun hilobi molde batzuk:

Hobi bakuneko hilobiak

Molde honetako gutxienez bost ehorzleku dokumentatu ditugu. Honako bereizkuntza hau egin daiteke haien artean, zurezko katabuta ageri zutenen eta halako edukiontzirik ez zutenen arteko aldeari erreparatuz gero. Inolako zalantzarik gabe egiaztatu dugu katabutaren presentzia dokumentaturiko hilobi edo sepultura horietako batean: katabutaren burdinazko iltzeei esker ezagutu ahal izan genituen zurezko oholak edo piezak.

Zurezko egiturekiko lotura aurkeztu zuen, halaber, hobi bakun batean azaldu zen eskeleto batek; hala eta

Las evidencias arqueológicas del tramo septentrional del Sondeo 1

Puesto que de las distintas evidencias documentadas en el Sondeo 1, las funerarias son las más relevantes desde el punto de vista histórico, centraremos en ellas de manera exclusiva nuestra descripción, pudiendo resumir sus características en los siguientes puntos:

a) Todos los procesos funerarios documentados se corresponden invariablemente con inhumaciones.

b) Los esqueletos documentados, en número total de diez, contabilizando tanto los conjuntos completos como los restos parciales articulados, habían sido depositados en sus sepulturas en posición de decúbito supino, con el cuerpo totalmente extendido y con la cabeza posicionada al oeste. Las inhumaciones tienden a depositarse siempre en relación con el fondo de la sepultura en la que se alojan.

c) Las sepulturas que componían la necrópolis obedecían a una variada tipología, documentándose tanto los modelos clásicos que se definen e identifican en la literatura arqueológica, como aquellos que cabría calificar como variantes de los tipos principales. Cabe señalar a este respecto las siguientes modalidades:

Sepulturas en fosa simple

Se han documentado al menos cinco enterramientos correspondientes a este modelo, pudiendo establecer una diferenciación entre aquellos que aparecen asociados a un ataúd de madera y aquellos que no se relacionan con tal tipo de contenedor. La presencia del ataúd, atestiguado sin lugar a dudas para uno de los enterramientos documentados, se ha detectado a través de la presencia de los clavos de hierro que permitieron fijar las piezas de madera que armaron el ataúd.

Otro de los esqueletos asociados a una fosa simple mostró relación con vestigios lignarios, si bien, en

guztiz ere, ezin lotu izan genituen gorpuzkin haiek zurezko katabuta edo zerraldo jakin batekin. Eskeleto horrek, 1. Eskeletoa deitu diogu, izter-hezurren arteko gunean, eskuineko tibia edo bernazakiaren gainean, zurezko aztarna batzuk azaldu ditu. Halaz ere, katabutaren hondakin batzuekin baino, gorpuaren gainean ezarriko zuten zurezko pieza mehe batekin lotu beharko lirateke aztarna horiek. Hiru ohar interesgarri egingo ditugu, hipotesi honen aldeko argudioen sendogarri:

— aipaturiko eremuaren inguruetan ez zen beste zurezko hondakinik azaldu, ez lur-azalean ez eta sedimentuen behealdean 1. Eskeletoa azaldu zen mailekin zuzenean lotzen diren mailetan ere,

— dokumentaturiko zurezko hondakinak burdinazko iltzeekin batean azaldu dira. Iltze horiek zutik ageri zitzaizkigun, bertikalean hain zuzen ere, zurezko hondakinen erdialdeko ardatzen gainean, eta tarte erregularrak utzirik elkarren artean. Antzeko morfologia erakusten zuten iltzeak dokumentatu ziren eskeletoaren enborraren aldean, zurezko hondakinik dokumentatu ez den alde batean; halaz ere, zutik ageri ziren hauek ere, bertikalean, eta tarte erregularrak utzirik, gorpuaren gainean. Zantzu hauen arabera, mendebalderantz luzatuko zen zurezko pieza, eta hilobiaren azpiko aldea eratuko zuen atal hark. Metalezko hondakin mota hau ez zen hilobiko beste inon dokumentatu, gorputzaren erdiko ardatzaren gainean erregistraturiko iltzeak, dagoeneko aipatuak, izan ezik,
— eskeletoa egokitu zuten hobia oso itxura irregularrekoa da; alde batzuetan gorpua hilobiko ebakian presioz sakatu zutela ematen du eta errealitate hori katabuta barruan dokumentaturiko hilobiaren erregulartasunaren kontrakarrean dator guztiz ere.

Lauzen bidezko hilobiak

Molde honetako bi hilobi dokumentatu ditugu, partzialki kontserbatua bata eta osorik bestea. Osorik azaldu den hilobian haur bat ehortzi zuten; lauzek ez zuten perimetro osoa mugatzen, oinaldean eta burualdean baizik ez baitzituzten lauzak ezarri. Hilobiaren luzerako ertzen erdialdean ere ageri ziren lauzak. Sedimentuen eginiko ebakiak zehazten zituen perimetroko gainerako aldeak eta mugak.

Horma bidezko hilobiak

Zalantzarik gabe dokumentaturiko konstatazio bat baino, berreskuratu diren aztarna partzialetatik abiatuta berritxuratu den egitura da molde honetako hilobia. Argiago azal dezagun guztia. Buztinezko sedimentuz oratu eta irmoturiko hiru harlauza ilara elkarren gainean pausatu ondoan eraikitako hilobi baten mendebaldeko tartetzat hartu zena azaldu zen. Hala eta guztiz ere, ez zen hilobiaren gainerako alde edo tarteetan antzeko eraikuntza moldea salatuko zuen beste aztarna materialik azaldu. Burualdeko itxituran ez zen beharbada

este caso concreto, no fue posible vincular tales restos con un ataúd propiamente dicho. Este esqueleto, identificado como Esqueleto n.º 1, mostraba en el espacio intermedio entre sus fémures y sobre la tibia derecha restos lignarios que cabía asociar más con una estrecha pieza de madera colocada sobre el cuerpo que con los restos parcialmente conservados de un ataúd. Podríamos aportar, para argumentar esta hipótesis, tres observaciones de interés:

— no se documentó en el área inmediata a la zona ya señalada la conservación de otros restos lignarios, tanto en superficie como en las cotas inferiores del sedimento relacionado directamente con el Esqueleto n.º 1,
— los restos lignarios documentados se mostraban asociados a clavos de hierro, los cuales aparecían en disposición vertical, instalados sobre el eje medio de los restos de madera, localizados además a tramos regulares. Clavos de similar morfología se documentaron también en relación con el tronco del esqueleto, en una zona donde no se documentaban restos lignarios, apareciendo sin embargo en similar disposición vertical y ordenados a tramos regulares sobre el cuerpo; unos indicios que llevarían a suponer la prolongación hacia el oeste de la pieza de madera que cabe identificar para el tramo inferior del enterramiento. Este tipo de restos metálicos no volvieron a documentarse en punto alguno de la sepultura, salvo los registrados y ya citados sobre el eje central del cuerpo,
— la fosa en la que aparece alojado el esqueleto se caracteriza por su acusada irregularidad formal, al tiempo que en algunas zonas el cuerpo parece encajado a presión en el corte de la sepultura, un hecho que contrasta abiertamente con la regularidad que evidencia la fosa que se asocia al enterramiento documentado en un ataúd.

Sepulturas de lajas

Se han documentado dos ejemplares que cabe referir a este modelo, uno parcial en su conservación y otro completo. El ejemplar completo, asociado al enterramiento de un infantil, no definía todo su perímetro mediante lajas, encontrándose éstas únicamente dispuestas en pies y cabecera y en el punto medio de los bordes longitudinales de la sepultura; el restante perímetro se definiría mediante un corte en el sedimento.

Sepulturas de muro

Esta tipología es más una presencia reconstruida a partir de los vestigios parciales recuperados que una constatación documentada fuera de toda duda. Se recuperó parte de lo que fue identificado como el tramo occidental del lateral norte de una sepultura que se construía a partir de tres hiladas superpuestas de piedras planas, asentadas y unidas con sedimento arcilloso. No se documentó, sin embargo, ningún otro vestigio material que pudiera ser referido a similar construcción para los restantes laterales de la sepultura. Es posible

inolako osagarririk eraikiko, ez hormarik, ez lauzarik, honelakoetan ohi zen bezala, buztinean hilobia sarrarazteko egin zen ebakiak ez baitzuen harrizko edozein elementuren egokipena erraztuko, oso gune edo espazio txikia geratzen baitzen horretarako. Ebaki horren ondo-ondoan, hilobiaren barruan belarri-babes moduan ezarritako bi piezen ekialdeko ertza suma zitekeen; beraz, haien eta buztinean eginiko ebakiaren artean ez zen erraza hilobiaren burualderako itxitura bat bideratzea edo eraikitzea.

Ikusirik hilobian ehortzitako eskeletoaren buruari eusteko belarri-babes bat bazela eta hilobiaren hegoaldeko muga zehazteko aukera emango zuen buztinezko substraturik ez zegoela, hilobiaren hegoaldeko aldean eta oinaldean eraikuntza bidezko itxituraren bat egon zitekeelakoa pentsatu genuen. Halaz ere, itxitura hori ez zen ezinbestez horma bat izango, hegoaldean kontserbaturiko tartean gertatzen zen bezala, beste hilobi molde baten bitartez bideratuko baitzuten agian itxitura hura.

Horma eta lauza bidezko hilobiak

Hilobi bakar bat da molde honetakoa. Harlauzaz antolatu ziren hilobi-kutxaren alde bateko tarte bat eta ekialdeko eta mendebaldeko itxiturak, eta bi ilarako horma batez zehaztu ziren hilobiaren bi alde luzeen ekialdeko tarteak. Hilobi honen oinaren joera trapezoidala da inolaz ere, oinaldearen zabalera burualdearena baino murritzagoa izaki. Belarri-babesek osatzen dute hilobi molde hau: burualdearen alboetako itxituren zutitutako bi harlauzak dira.

Dokumentatu ditugun hilobietako bietan baino ez ditugu estalkiekin loturiko piezen presentzia egiaztatu: lauza bidezko hilobian eta horma bidezko hilobian. Hilobiaren alde luzeen gainean bermaturiko lauza lau zelai baten presentzia erregistratu zen kasu bietan. Estalkiak harri bat baino gehiagoz atonduko zituzten, baina egun ez da haien arrastorik geratu.

d) Hilobiak okupaturik azaldu dira, gorpu bakar batez kasu gehienetan. Arau hau hausten duen salbuespen bakarra dokumentatu dugu lauza eta horma bidezko hilobian, bi ehorzketa bideratu baitziren gutxienez hartan. Horrelako ondorioa ateratzen dugu guk, behinik behin, barruan bi burezur zeudela ikusita. Hala eta guztiz ere, hilobian dauden hezurren kontserbazio egoera txarra eta eskeleto hondakinen itxuraldatze maila handia direla eta, ezin zehaztu izan dugu hil-kutxa berbera erabili zen bi ehorzketa berezi izan ziren edo, aitzitik, hilobian giza burezur bat berriro sartu ote zuten, hartan ehortzirik zegoen pertsonarekiko lotura, edo gorpuaren atal batzuk esanahi berezi batez gordetzen zituen errito bat zela medio, gorpuzkin horiek ondoren egokituko ziren hilobia okupaturik zegoen edo ez kontuan hartu gabe.

que el cierre de cabecera hubiera prescindido de refuerzo constructivo alguno, ya fuera muro, ya fuera laja, lo más habitual en estos modelos, toda vez que el corte practicado en la arcilla para insertar la sepultura no parecía favorecer la instalación de elemento pétreo alguno, al mostrar un reducido espacio para tal fin. En posición inmediata a dicho corte se evidenciaba la presencia del borde oriental de dos piezas dispuestas como orejeras en el interior de la sepultura, no favoreciendo en consecuencia entre ellas y el corte en la arcilla la disposición de un cierre constructivo para la cabecera sepulcral.

La presencia de este dispositivo de sujeción de la cabeza del esqueleto inhumado en la sepultura y la ausencia de sustrato arcilloso para labrar el límite meridional de la tumba, parecerían reclamar algún tipo de cierre constructivo sobre el lateral sur de la sepultura y sobre la zona de los pies. Sin embargo, tal cerramiento no tuvo por qué responder necesariamente a una modalidad de muro en reproducción simétrica de lo que acontece en el tramo conservado del lateral sur, pudiéndose recurrir a otras modalidades sepulcrales para efectuar dicho cerramiento.

Sepulturas mixtas de lajas y muro

Responde a este modelo una única sepultura, que organizaba mediante lajas de piedra un tramo de los laterales de la caja sepulcral, así como los cierres oriental y occidental, mientras que recurría a un muro de dos hiladas para el tramo oriental de los dos laterales longitudinales de la sepultura. Esta tumba exhibe en planta una forma tendente a lo trapezoidal, al reducir en los pies la anchura que caracteriza a la cabecera. Este modelo sepulcral se ve complementado con orejeras, dos lajas de piedra dispuestas verticalmente contra los cierres laterales de la cabecera.

Sólo en dos ejemplares de las sepulturas documentadas, correspondientes a la tumba de lajas y a la sepultura de muro, se han documentado piezas que pudieran haber estado en relación con elementos de cubierta. En ambos casos se registró la presencia de una losa plana afianzada en su posición sobre los laterales de la sepultura, pudiéndose suponer su integración en cubiertas polilíticas hoy desaparecidas.

d) Las sepulturas aparecen ocupadas, por lo general, con una inhumación. La única excepción a esta norma se documenta en la tumba construida con lajas y muro, donde se documentó la práctica de al menos dos inhumaciones, o esto se quiere deducir de la presencia de dos cráneos contenidos en su interior. Sin embargo, la mala conservación de los huesos presentes en el enterramiento y la detección de indicios de alteración de los restos esqueléticos presentes, impidieron determinar si se trataba de dos inhumaciones completas utilizando el mismo contenedor funerario o, por el contrario, se constataba la reintroducción de un cráneo humano en la sepultura bien por su correspondencia con un individuo previamente exhumado en esa tumba, bien como parte de un ritual que preserva partes del cuerpo con una significación especial, hayan o no ocupado la sepultura en la que se han colocado posteriormente.

e) Hilobiek ez dute halako ordena jakinik salatzen hilerriaren barruan. Dokumentaturiko hilobien ikuspegi globalak halako ordenamendua salatzen digu hilobietan, errenkada erregular xamarretan, hegoalderanzko norabidean. Hala eta guztiz ere, ezaugarri nagusi hilerriko espazioaren etengabeko okupazio intentsiboa —espazio honen hilerri erabilerak iraun zuen aldi osoan— izan duen hilobiratze prozesu baten amaierako emaitzari dagokio bereziki irudi hori, eta ez hilerrian bideratu zen antolakuntza jakin baten ondorioa. Norabide horretan abiarazi gaituzte hilerri espazio honen noizbaiteko erabilera etengabeak utzi dizkigun zantzuek. Estratigrafia arlo honetan mutu xamar ageri zaigun arren, hilobiek elkarren arteko lotura fisikorik ageri ez duten eremuetan, sekuentzia estratigrafiko argia ageri duten hiru hilobi baditugu, espazio berberean.

e) Las sepulturas no parecen evidenciar un orden determinado dentro de la necrópolis. La visualización conjunta de los enterramientos documentados permite constatar una ordenación de las sepulturas en filas más o menos regulares que se van sucediendo en continuidad hacia el sur. Sin embargo, esta imagen parece corresponderse más con el resultado final de un proceso de ocupación intensiva y continuada del espacio sepulcral a lo largo del período en el que pudo hacerse efectivo su uso, que la expresión de una voluntad organizadora aplicada sobre la necrópolis. En tal sentido apuntarían los indicios documentados de un uso continuado del espacio funerario. Si bien la estratigrafía se muestra poco elocuente a este respecto, al menos sobre aquellas zonas donde las sepulturas no establecen contacto físico alguno entre ellas, existen tres enterramientos que muestran una sucesión estratigráfica evidente, con disputa de similar espacio.

Aurkikuntzen garrantzi historikoa eta esanahia. Aurrerapena

Agerian utzitako hilobiak kanpoko hilerri baten itxura duen egitura batean zeuden. Horrenbestez, orain arte Busturiako Axpeko honen antzeko kasuetan fro-

Avance a la relevancia histórica y significación de los hallazgos

Las evidencias funerarias descubiertas, asociadas a lo que parece una necrópolis exterior, vendrían a confirmar lo que hasta el momento no dejaba de ser



Bitariko hilobia, horma eta lauzen bidezkoa.

Sepultura mixta, de muro y lajas.

gatutako errealitateekin gutxi gora-behera kontrastatu den hipotesi bat egiaztatuko litzateke, hau da, azaleraturiko aurkikuntzek zeharka egiaztatuko ligukete 1051. urteko donazioan ageri den Santa Maria elizaren iraupen topografikoa eta funtzionala, egun leku horretan ageri den arkitektura bolumenaren estilo erreferentziek —gotiko berantari dagozkio— jatorrizko lehen eraikin haren trazarik ezagutzeko aukera txikiena ere eskaintzen ez diguten arren.

1. Zundaketan dokumentatu den hilerriaren egitura, antolakuntza eta lehen okupazioa dokumentu-iturrietan aipatzen den Goi Erdi Aroko elizari dagozkio inolaz ere, eta ez dira Erdi Aro beranteko elizaren, egun ere zutik dirauen elizaren, zuzeneko fruitutzat hartu behar. Norabide horretan jartzen gaituzte zeharkako hainbat egitatek. Hilerriak eskaintzen duen irudi globalarekin eta hilerriko hilobi motekin lotuko genuke lehen egitatea; izan ere, hilobien ezaugarriak bat datoz gure lurraldean goi Erdi Aroan eta Erdi Aro minean egituratu ziren hilerrienekin, batez ere hilobi mota bat baino gehiago aurkezten dituzten hilerrienekin.

Irizpide honen alde datorkigu beste datu esanguratsu bat. Izan ere, hilerriak lekuz aldatu ziren une garrantzitsuan eraiki zen egungo Andra Mari eliza; elizen kanpoaldea betikoz utzirik, elizen barnealdean, nabeen zorupean, antolatu ziren ordudanik hilobi-aldeak edo hilerriak. Beraz, hilerri berri bat antolatuko zen Axpeko parrokia-elizaren barruan Erdi Aroaren bukaeran, eliza haren arkitektura bolumena eta estiloa ere guztiz berritu ziren garai berean. Abandonatu egin zuten, bestalde, kanpoko hilerri zaharra.

Bitartean, aldaketa hura mamitu zen arte, jardunean edukiko zuten kanpoko hilerria. Dokumentatu ditugun hilobi motak hilerriak jardunean iraun zuen kronologia arkuko une jakin batzuekin edo besteekin lotzea dugu oraindik egiteke dagoen lana, lan izugarri zaila gainera, gogoan edukitzen badugu aztarnategi honek ez dituela lan hori erraztuko luketen erreferentzia estratigrafiko argiak eskaintzen eta lurraldeko beste aztarnategi batzuetan Erdi Aroaren bukaerakotzat egiaztatu diren hilobi ereduak eta hileta praktikak —Etxebarriako San Agustin (elorrio) edo Ziortza Andra Mari (Markina-Xemein) ditugu horien lekuko— ez direla erregistratu. Zurezko elementuen presentziak emango liguke agian garai berantetako hilobi-eredu eta hileta-praktiken berri hilerri honetan, antzeko ezaugarriak ageri baitituzte Busturiako Axpeko 1. Eskeletoak eta Uribarriko Andra Mari elizaren barruko hilobi-aldeko (Durango) Erdi Aroaren bukaerako hilobi batzuek. Baina kontu eta hipotesi horiek guztiek gogoeta eta azterketaren premia handia dute oraingoz, eta lerro hauen xede berriemailetik kanpo geratzen dira inolaz ere.

una suposición más o menos contrastada a partir de la extrapolación de hechos constatados en casos similares a este de Axpe de Busturia, esto es, los hallazgos exhumados posibilitan confirmar indirectamente la continuidad topográfica y funcional entre la iglesia de Santa María que figura en la donación de 1051 y el volumen arquitectónico de fines del gótico que hoy en día se contempla en el emplazamiento, cuyos referentes estilísticos en nada permiten reconocer traza alguna de aquella edificación primigenia.

La configuración, organización y primera ocupación de la necrópolis documentada en el Sondeo n.º 1 debe sin duda corresponder a la iglesia altomedieval de la que nos informan las fuentes documentales, antes que ser considerada como fruto directo del actual edificio tardomedieval. En este sentido apuntarían diversos hechos indirectos. El primero tiene que ver con la imagen general que aporta la necrópolis y con los modelos sepulcrales que conforman el cementerio, cuyas características entroncan directamente con aquellas que se reconocen e identifican en las necrópolis de época alto y plenomedieval documentadas en el territorio, en especial con aquellas que también constatan una cierta pluralidad en cuanto a los modelos sepulcrales que exhiben.

También jugaría a favor de tal criterio la circunstancia de que la actual iglesia de Santa María se construye en coincidencia con el momento en el que se produce un cambio significativo en el emplazamiento de los cementerios, que abandonan definitivamente el exterior de los templos para pasar a ocupar en el interior de las iglesias el suelo de sus naves. Esta constatación llevaría a pensar en la configuración de una necrópolis interior vinculada con la completa renovación arquitectónica que se produce a fines del medievo en el templo parroquial de Axpe, mientras queda abandonada en el exterior la antigua necrópolis.

Evidentemente, y hasta que tal hecho se produce, el cementerio exterior tuvo que mantenerse activo. Determinar la concurrencia de los modelos sepulcrales documentados con distintos o idénticos momentos de todo el arco cronológico en el que pudo encontrarse activa la necrópolis es una labor que todavía está por acometerse, revelándose de extrema dificultad en un yacimiento que no ofrece referentes estratigráficos claros que favorezcan tal labor y que no registra algunos modelos y prácticas sepulcrales de fines del medievo constatadas en otros yacimientos del territorio, como pudieran ser San Agustín de Echevarría (Elorrio) o Santa María de Cenarruza (Markina-Xemein). Quizá la presencia de los elementos lignarios sea el indicio que apunte hacia fases tardías en el uso de este espacio funerario, al constatarse algunas similitudes entre lo documentado en Axpe de Busturia en relación con el Esqueleto N.º 1 y algunos enterramientos tardomedievales de la necrópolis interior de Santa María de Uríbarri (Durango). Pero estas cuestiones, por el momento, aún necesitan verse complementadas con fases de reflexión y análisis, que exceden el ámbito informativo que se persigue desde las presentes líneas.

José Luis Ibarra Álvarez

D.2.2.3. **Kalebarria, 13/ Komentukale, 10 (Durango)**

Zuzendaritza: Jose Luis Ibarra Alvarez
Finantzazioa: Amairukalea, S.L.

D.2.2.3. **Kaleberria, 13/ Komentukale, 10 (Durango)**

Dirección: José Luis Ibarra Álvarez
Financiación: Amairukalea S.L.

In July 2003, as the result of a project involving the building of a new construction, a number of archaeological sondages were carried out in two adjacent sites in the historic quarter of Durango. These sites are located in the area into which the town expanded during the late medieval period, a move which forced the authorities to build a new street and erect a fence to delimit this sector and incorporate it into the original town. The archaeological sondages have enabled progress to be made in the characterisation of the old wall, as well as identifying a number of the basic traits that define the occupation of this urban site over the centuries, although several important gaps remain in our knowledge of the historical chronology, due to the significant silences registered in the stratigraphy of the site.

Durangoko Komentukale, 10 eta Kalebarria, 13 orubeetan bideraturiko interbentzio arkeologikoan dokumentatu diren ezaugarri estratigrafiko garrantzitsuenen laburpenari ekiterakoan eta haien berregituratze historikorako prozesuan beharreko aurrerapenak bideratzerakoan, komenigarria litzateke aldez aurretik ez gaudela oraindik finkamendu horretan dokumentatu den azken errealitate estratigrafikoa ulertzeko moduan, arrazoi asko dela eta. Funtsezko arrazoiak dira horiek, gure ustez, eta modu batean edo bestean oztopatuko dituzte lerro hauetako deskripzioan azalduko ditugun oharrak.

— Lehenak, interbentzio arkeologikoan induskaturiko orubearen proportzioaz haratago, zerikusi zuzena du dokumentaturiko aztarna asko erregistratu ziren kontserbazio egoera partzialarekin.

— Kontuan hartu beharreko bigarren zehaztapenak gogora ekartzen digu egun ez daudela gure esku dokumentaturiko aztarna asko egokiro interpretatzeko beharko genituzkeen kultura erreferentziak. Aipagai ditugu bereziki historiaren ikuspegitik garrantzi handiena eskaintzen zaien aztarnak, eta haien antzinatasuna da bereziki auzitan dagoena, biziki arazotsua baita landutako orubeak egokitu ziren hirialdearen lehen okupazioaldiko uneak zehaztea.

— Hirugarren oharraren jomuga ditugu estratu gehienetan kronologia fidagarriak zehazten lagunduko liguketen elementurik azaldu ez izanak dakartzan arazoak. Posizio estratigrafiakoak eskaintzen digun informazioa, elkarren arteko harremanetan dauden estratu edo geruzen aurrekotasuna edo ondokotasuna, dugu askotan estratu horien kronologiari buruz zerbait esateko daukagun baliabide bakarra. Kronologia historikoak eskainiko lizkigukeen elementurik ez dagoenez, aintzat harturiko helburuak iristeko betarik gabe geratzen gara askotan, ezin izaten dugu atzemaniko aztarna arkeologikoen testuingurua behar bezala zehaztu eta hutsean uzten du orubearen edo finkamenduaren berritxuratze historikorako euskarri sendo fidagarrietan oinarrituriko ezein ahalegin serio.

Aldez aurreko ohar hauek egin eta gero, eta seguru gaude lagundu egingo digutela ondoren aurkeztuko di-

A la hora de abordar el resumen de los rasgos estratigráficos más relevantes documentados durante la intervención arqueológica acometida en los solares números 10 de Komentukale y 13 de Kaleberria de Durango y avanzar sus implicaciones aplicadas al proceso de reconstrucción histórica, convendría comenzar por precisar que no se está aún en disposición de comprender la realidad estratigráfica última documentada en el emplazamiento, debido a un plural conjunto de razones, fundamentales a nuestro entender, que lastrarán de algún modo las notas descriptivas que aquí expongamos:

— La primera, y más allá de la proporción de solar excavado en la actuación arqueológica, tiene que ver con el estado parcial de conservación que registraban muchas de las evidencias documentadas.

— Un segundo aspecto atañe a la carencia de referentes culturales actuales que permitan interpretar correctamente una parte sustancial de las evidencias documentadas y, en especial, de aquellas a las que se les atribuye mayor relevancia histórica, al menos en cuanto a la antigüedad que cabe referir para las mismas, ligadas a los momentos iniciales de ocupación del sector urbano en el que se emplazan los solares intervenidos.

— Un tercer aspecto debe quedar referido a la ausencia que se registra, en la mayor parte de los estratos, de elementos que permitan avanzar cronologías fiables para los mismos, más allá de la que quedaría determinada por su posición estratigráfica, donde el carácter de anterioridad o posterioridad respecto a los estratos relacionados es, muchas veces, el único componente cronológico que cabe referir sobre los mismos. Tal ausencia de elementos que aporten cronologías históricas impide muchas veces dar solución a los objetivos planteados, no favorece la contextualización de las evidencias arqueológicas presentes y anula cualquier intento de reconstrucción histórica, sobre bases sólidas y fiables, para el solar.

Hechas estas aclaraciones previas, que seguramente ayudarán a entender lo que de imprecisión y va-

tugun aztarna arkeologikoen deskripzio laburrean estalirik eta zehaztu gabe geldituko dena ulertzen, bereziki karakterizazioari, berregite historikoari eta kronologiari dagokienean; izan ere, egoera hori ez da bat ere harritzekoa hiriko orubeetako giza okupaziotik sorturiko estratigrafia zail eta aldatuak aztertzeko lanari aurre egin behar dion arkeologoaren eguneroko zereginean; aipatzekoa da, dokumentatu diren funtsezko ezaugarriek aukera emango digutela, modu orokorrean bada ere, hiri sareko alde honetan bideratu zen okupazio eredu nagusia zehazteko, gaur egun oraindik finkamenduaren zorupean kontserbatu diren arkitektura eta zoladura hondakinen bitartez identifikatu baitugu okupazio hori.

Okupazio horren bilakaera deskribatzerakoan, elementu garrantzitsua gertatu zaigu, zalantzarik gabe, orubearen atzealdean azaldu zaigun eraikuntza hondakin bat, Durangoko hiria Erdi Aroaren bukaeran inguratu zuen harresiaren tarte bat alegia. Hiriaren lehen gunea ekialderantz zabaldu eta kale berria (Kalebarria) antolatuko zeneko espazioan azaldu da egitura hau. 1,20 metro zabal da eta Komentukale, 10 eta Kalebarria, 13 orubeen zabalera guztia hartu zuen iparralde-hegoalde norabideko orientabidearen luzeran. Aldameneko orubeetan barrena luzatzen zen harresiaren bidea, hala hegoalderantz, Kalebarria, 15 orubean goratzen den etxearen iparraldeko perimetroaren mugaraino, nola iparralderantz, Komentukale, 8 orubean aurrez bideraturiko interbentzioetan dokumentatu diren harresi-atalek salatzen diguten bezala.

Eraikuntzari dagokionez, harlandu txiki gotiko izenaz ezagutu den egiturarekin lotzen da harresiaren itxura, txukun landuriko hareharriak, ilara erregularreko egitura antolatzeko aukera ematen duen erregulartasun nahikoa agerian. Pieza handien osagarri gisa ageri dira beste pieza txiki batzuk, ziri moduan sartuak, harlandu txikiak sakatu, egokitu eta doitzeko ipiniak (ikus argazki argigarria). Zeharka, hiru xafla edo ilara ageri ditu obrak, kanpoaldeko biak, harlandu txikiz eratuak eta barnealdean zabalera desberdina erakutsirik, eta beste bat erdialdean, zabalera irregularreko gune bat eraturik, neurri oso desberdineko harriz itxuraturiko multzoa eskainiz. Erreka-harriak dira nagusi, kare eta hondarrezko mortairu batez oratuak.

Bi tarte bereiz daitezke hormaren altxaeran. Metro beteko goratasuna iristen du goialdekoak obraren hegoaldeko muturrean eta bi ilara ageri ditu gutxienez. Egitura horren molde eta antolaerari erreparatuz gero, garbi dago bat zetorrela antolakuntza molde hori harresiaren goialdekoarenarekin. Zimentazio-oinarria ageri da behealdean, ilara bakar batean, hareharrizko harri arrunt eta silare txikien gainean ordenatua, 0,25 bat metroko goratasuna iritsiz. Gaineko horma baino zabalagoa da. Zimentazio-oinarri hau estalirik zegoen, elementuaren ekialdean behinik behin, eta agerian gelditu zen guztiz, estaltzen zuen buztin geruza lodia altxa eta gero. Bertako oinari geologikoa itxuratzen duen buztin geruzaren antzekoa zen hura ere.

Harresiaren eraikuntzaz eta eremu honetan hiriko alde babestuaren eta babesik gabearen artera ekarri

guedad pueda encubrirse en el resumen descriptivo de las evidencias arqueológicas que a continuación anotaremos, en especial en lo que atañe a la caracterización, la reconstrucción histórica y la cronología, situación nada extraña en el quehacer cotidiano del arqueólogo que se enfrenta con la labor de analizar las difíciles y alteradas estratigrafías que se derivan de la ocupación humana de los solares urbanos, cabe señalar que los rasgos fundamentales que se han documentado permitirán derivar, en sus líneas más generales, el modelo básico de ocupación que se pudo seguir para este sector de la trama urbana, identificado a través de los restos de las arquitecturas y pavimentos que se conservan todavía en el subsuelo del emplazamiento.

Un elemento importante a la hora de describir esa evolución ocupacional lo constituye, sin duda, un resto constructivo localizado sobre el tercio trasero del solar y que fue identificado con un tramo de la cerca que ciñó la villa de Durango a fines del medievo, una vez se gana espacio hacia el este para el núcleo original de la población y se organiza la Calle Nueva (Kaleberria). Esa construcción, de 1,20 metros de ancho, se extendía con orientación norte-sur a lo largo de la anchura total de los solares n.º 13 de Kaleberria y n.º 10 de Komentukale, prolongando su recorrido hacia los solares inmediatos, tanto hacia el sur, al quedar su volumen atrapado bajo el límite perimetral norte del edificio que se alza sobre Kaleberria n.º 15, como hacia el norte, al haberse documentado en actuaciones anteriores restos de la cerca en el solar n.º 8 de Komentukale.

Constructivamente, el aparejo de la muralla se asocia con lo que ha dado en denominarse como sillarejo gótico, con piezas areniscas lo suficientemente labradas como para otorgarles la necesaria regularidad para conformar una fábrica organizada en hiladas regulares, con complemento de pequeñas piezas, a modo de cuñas, que ayudan a calzar y ajustar los sillarejos (ver foto ilustrativa). Transversalmente, la sección de la obra ofrece tres hojas, dos exteriores conformadas a partir de los sillarejos, con desigual penetración hacia el interior de la fábrica, y un núcleo intermedio de anchura irregular, que acoge un variado conjunto de elementos pétreos de desigual dimensión, en especial cantos rodados, cementados con mortero de arena y cal.

El alzado del muro ofrece dos tramos diferenciados, uno superior, de un metro aproximado de altura en el extremo meridional de la obra, organizado en al menos dos hiladas, que debió corresponderse, por el tipo y organización del aparejo, con la parte emergente de la muralla, y un banco de cimentación inferior, de una sola hilada, ordenada sobre mampuestos/sillarejos de arenisca, con alzado de 0,25 metros aproximadamente, de mayor anchura que el muro que se le superpone. Este banco de cimentación se encontraba oculto, al menos en la zona oriental del elemento, punto en el que fue totalmente descubierto, bajo una espesa capa de arcilla, de características similares a aquella que conforma la base geológica del emplazamiento.

Excepción hecha de la construcción del elemento murado y de la división que introdujo en este espacio

zuen banakuntzaz kanpora, bertako estratigrafiak ez du oinarrizko bi auzi trenkatzeko informazio fidagarri aski eskaini. Hona hemen: Behe Erdi Aroan dagoeneko eraturik zegoen hiri batek sektore honen hiri-okupazioa bideratzeko jarraitu zuen eredua eta espazio berri hark, harresiak bere horretan iraun zuen bitartean, eduki zuen helburua.

Harresi barruko espazioari dagokionez, bi dira jaso eta zehaztu ahal izan diren aztarna garrantzitsuak. Bertako substratu geologikoan irekitako bi zulo hartu ditu aintzat lehenak. Ardatz berean lerrokatzen dira, ekialde-mendebalde, eta orubearen mendebalde muturreko ertzean daude (Kalebarriko fatxadaren ondoan). 1,08 metroko diametroa eta 0,40 metroko altuera zituen mendebaldean irekitzen zen ebakiak edo zuloak, eta dokumentaturiko bien arteko txikiena zen. Landare-ikatzaren hondarrak azaldu ziren han eta hemen haren hondoan, kopurua aski zen ordea, han sorturikoak edo beste nonbaitetik ekarriak ziren jakiteko. Kasu honetan, ebakia estaltzeko eginiko betegarriko materialak ziren, haren konposizioan ekarri baitzuen betegarriak gai horiek. Ebakiaren pareten gainean, hondotik hurbilen dagoen eremuan, hiri hareharri atzeman genituen, norabide desberdinetan hirurak; ez genuen haien posizioa jatorrizkoa edo kasuala zen jakiterik izan, ez baitzen aldamenean aukera horietako bat argudiatzen edo balioztatzen lagunduko ligukeen erreferentziarik azaldu. Ez zen elementuen inolako disposizio nagusirik dokumentatu, eta era berean, ez zen presentzia batzuen borondatezko izaeraren edo hango ezein instalazioren suntsipenaren gainean zalantzak argituko zuen elementurik erregistratu.

Egoera berbera bizi izan genuen ekialdean eginiko ebakian. 2,23 metro luzera eta 0,50 metroko sakonera izan zuen. Kasu honetan, ez zen ebakiaren barneko angeluetan harririk dokumentatu eta oso urria zen hondoan zeuden ikatzen maila.

Beterik zeuden bi ebakiak, 0,80 metroko geruza lodi batez estaliak. Teila puskak eta burdin zepak ageri ziren nagusiki betegarri hartan.

Askotarikoa da ebaki edo zulo haiei eman geniezaiekeen interpretazioa, areago haiekin batean elementu bereziak dokumentatu ez direnean, baita haietan egokituko ziren instalazioak guztiz desmuntatu edo ezereztu izan balira ere. Bestalde, etengabeko ur-iragazte eta jarioak dokumentatu ziren ebaki handi sakonenean, zorupean barrena, eta egoera horrek ez zituen, gure ustez, giza jarduera batzuk mesedetuko. Beharbada, beste erabilera batzuetarako buztina baino ez zuten atera nahiko zulo haiek eginda: bizilekuetako sutondoen berme-lurra atontzeko erabiliko zuten esate baterako. Interpretazio horren arabera, ordea, okupazio mota guztiz berezia onartu beharko litzaioke hirialde honi.

Harresi barruko espazioan azaldu zaigun bigarren aztarnak argi egiten digu hirialde honetan bideratu eta atondu zen zoru motaren inguruan. Oraingoz zoru horren

entre la superficie acogida o no a la villa, la estratigrafía del emplazamiento no ha revelado información suficiente y válida para despejar dos cuestiones básicas: el modelo utilizado para la apropiación urbana de este sector que se incorpora en el bajomedievo a una villa ya formada y la dedicación que se le asigna mientras la cerca se mantuvo activa.

Respecto al espacio intramuros, dos son las evidencias relevantes que han conseguido identificarse. La primera compete a dos agujeros abiertos en el sustrato geológico del enclave, alineados sobre un mismo eje este-oeste y ubicados sobre el tramo más occidental del solar (junto a la fachada a Kaleberria). El corte o agujero que se abría al oeste, de 1,08 metros aproximadamente de diámetro y un alzado de unos 0,40 metros, era el de menor tamaño de los dos documentados. Sobre el fondo del mismo se constataron restos dispersos de carbón vegetal, pero en cantidad insuficiente como para determinar si su presencia era primaria o secundaria, derivada en este caso del relleno que colmaba el corte, que aportaba tales elementos en su composición. Sobre las paredes del corte, en la zona de contacto con el fondo del mismo, se detectó la presencia de tres piedras areniscas instaladas en distintas posiciones, sin alcanzar a determinar tampoco si su posición era original o casual, dada la ausencia de referentes que permitieran argumentar y validar cualquiera de estas opciones. No se documentó ninguna disposición preferente de elementos, o en una concurrencia tal que pudieran despejare dudas respecto a lo intencional de ciertas presencias o al carácter desmantelado de cualquier instalación allí localizada.

Idéntica situación se reproducía en el corte abierto al este, de 2,23 metros de longitud y 0,50 metros de alzado, si bien en este caso no se documentaron piedras asociadas a los ángulos inferiores del corte y el nivel de carbones sobre el fondo del mismo era muy escaso.

Ambos cortes se encontraban completamente rellenos y enmascarados por una gruesa capa, de 0,80 metros de espesor, integrada fundamentalmente por fragmentos de teja y escorias de hierro.

La interpretación que cabría dar a tales cortes o agujeros es plural, máxime cuando no se documentan elementos específicos asociados a ellos, incluso en el caso hipotético de que las instalaciones que pudieran haberse organizado en ellos hubieran sido completamente desmanteladas. Por otra parte, en el corte de mayor tamaño y profundidad se documentaron constantes filtraciones de agua desde el subsuelo que, entendemos, no hubieran favorecido determinadas dedicaciones humanas. Quizá sólo estemos ante excavaciones para la extracción de arcilla destinada a otros usos, como pudiera ser la preparación de las bases de asiento para los hogares de los espacios de habitación. Tal interpretación supondría, sin embargo, asumir un tipo de ocupación muy específico para este sector de la villa.

La segunda evidencia de interés en el espacio intramuros queda referida a lo que se interpreta como un suelo que acondicionó esta zona de la población.

ezaugarri guztien berri emango diguten alderdi guztiak azaltzeko moduan ez gauden arren, ziurtasunez aurrera dezakegu bertara ekarritako buztinezko oinarri sendo batez itxuratu zela, eta buztin horiek azaletik erre zituztela, azala erre-gorrituz. Areago, atal horretan ez ezik, prozedura hark harresiaren ekialdeko paramentua ere ukitu zuen eta gorriagotu egin zen, halaber, haren azaleko aldea. Harresiko hareharrien gorritze honek ez zuen eraginik izan zimenduen oinarrian, buztinen mailaren azpian, ez eta harresiaren ekialdeko edo kanpoaldeko paramentuan ere.

Prozedura hura gertatu zen une zehatzari dagokionez, ez gaude inoizko kronologia aurreratzeko moduan. Zera baizik ez dakigu oraingoz, zoruaren oinarria osatzen duten buztinen artean ez dela toskazko arrastorik azaldu, orubeko zorupearen geruza eta betegarri guztietan horrelakoak maiz ageri diren arren. Berreskuratu ditugun elementu material bakarrak, alde bat utzirik aztarnategiko oinarrizko maila hauekin horren ugari lotzen diren animalia arrastoak (hezurrak), lurrezko ontzi zati beiratu gabeak dira gehienak. Haien ezaugarri morfo-teknikoei erreparatuz gero, hertsiki lotu behar dira produkzio hauek lurraldeko beste hainbat lekutan (Bermeon, Plentzian edo Bilbon, adibidez) Behe Erdi Aroko estadioetan dokumentatu direnekin.

Zoruaren eraikuntzaren inguruko gorabeherak, zoruari egokitu zitzaion funtzioa edo orubearen mendebaldeko zuloekin edukiko zituen lotura argitu gabe dirauten aspektuak dira guztiak, eta beste hainbestekoa

Si bien no estamos por el momento en disposición de referir todos los aspectos que permiten caracterizar al mismo, sí podemos avanzar que se constituyó sobre una potente base de arcillas incorporadas al enclave, que fueron quemadas superficialmente, consiguiendo su rubefacción superficial. Es más, no sólo logró tal hecho sino que también afectó al paramento oriental de la muralla, cuyo aparejo alteró su coloración más superficial. Esta rubefacción de las areniscas de la cerca no afectó sin embargo ni al banco de cimentación, oculto bajo el nivel de arcillas, ni al paramento oriental o exterior de la muralla.

Respecto al momento concreto en que se efectuó tal proceso, no es posible avanzar ninguna cronología. Sólo puede apuntarse por el momento el hecho de que entre las arcillas que conforman la base del suelo no se han documentado restos de lozas, frecuentes en casi todas las capas y rellenos del subsuelo del solar. Los únicos elementos materiales recuperados, aparte de los huesos de animales que se asocian poderosamente a estos niveles basales del yacimiento, se corresponden con fragmentos de recipientes de alfarería no vidriada, que exhiben características morfo-técnicas fuertemente ligadas a las producciones que se documentan en estadios bajomedievales de distintos enclaves del territorio (Bermeo, Plentzia o Bilbao, por citar tres ejemplos).

Las circunstancias que pudieron favorecer la construcción del suelo, la funcionalidad que se le asignó al mismo o la relación que pudo mantener con los agujeros del tramo occidental del solar son aspectos que



Behe Erdi Aroko harresiaren ekialdeko paramentuaren egitura.

Aparejo del paramento este de la cerca bajomedieval.

esan beharko genuke harresiak, bere helburu eta egitekoan ordurako zentzurik ez zuelarik, eraikin baten atzealdeko itxitura osatuko zuen arkitektura elementu gisa erabiltzen hasi zen arte eremu hartan gertatu zirenen inguruan. Aztarnategiko estratigrafiak ez digu gertaera horien gainera argirik eman, buztin erre-gorrituz itxuraturiko zoru hartan bermatu baitziren beste betegarri moderno batzuk, zementuzko zoladura baten euskarri gisa hedatuak.

Harresitik kanpoko espazioa, bestalde, jardunean eduki zuten murruak bere jatorrizko egitekoan iraun zuen bitartean, edo horrelako zerbait ulertu beharko genuke elementu honen —harresiaren kanpoaldeko paramentuari itsatsitako horma zuzen bat— eta bi fabriken trazatuarekin doitu zen lauzadura baten arteko loturaren argitan.

Landu dugun eremuan agerian utzi dugun harresitartearen erdigunean gutxi gora-behera, harresiaren ekialdeko paramentuaren kontra eutsirik, azaldu eta dokumentatu zen harri arruntez itxuraturiko horma bat, harresiaren perpendikularrean, ekialde-mendebalde norabidean, proiektatzen zena. 1,12 metroko luzera erregistratu zitzaion, eta gerokoan goratzeko leku bera bilatu zuten egitura batzuen azpitik luzatzen zen. 0,48 metroko zabalera zuen bestalde. Harresiaren zimendu-oinarria estaltzeko erabili zen buztinezko geruzaren gainean bermatu zen zuzenean, eta beraz, haren gainean hartzen zuen atseden harresiari itsasten zen hormak.

Zoladura baten presentzia dokumentatu dugu halaber. Hareharrizko harri irregularrez osatua da eta landu dugun eremuaren iparraldeko erdialdean dago. Murrua eta beronen perpendikularrean proiektaturiko horma ziren haren muga naturalak. Zundaketa-eremuaren hegoaldeko erdialdean berdin-berdina izango zen zoladura baten aztarnak azaldu ziren. Guztiz nahasirik ageri zen, ordea, oraingo honetan. Azaldu ere egin ziren zoladura hartarako oinarri eta euskarri gisa bideratu ziren geruzen elementuak, zorua ez baitzen besterik gabe zuzenean, azpiko buztinen gainean, bermatu. Badirudi zoladura artifizial honen presentziak —eraikin bi horien ondoan, eta bereziki harresiaren ondoan—, adierazten digula horma perpendikular hori harresiz kanpoko elementu bat izan zela, harresia jardunean eduki zuten garaian.

Balizko presentzia hori aintzat hartzea gauzarik errazena da prozesu honetan guztian; aski da finkamenduan azaltzen diren gertaera estratigrafikoen segida atzekoz aurrera hartzea: harresia, horma perpendikularra, lauzadura. Zera da, ostera, zaila, horma horren esangura, erabilera, funtzioa eta eraikiko zen une zehatza argitzea, haren sorreraren urruntasuna edo hurbiltasuna babes egituraren eraikuntzaren kronologiara bezala zoladurari egoki dakiokeen kronologiara ere hurbilduz.

Zoruaren kronologia zehaztearren eta, bide batez, harresiari itsatsitako hormarentzat *ante quem* data bat zehaztearren, zoladura itxuratu zuten hareharrizko pieza irregularrak altxatu genituen alde batean, azpiko

quedan inexplicados, lo mismo que cabe referir para los sucesos que pudieron desarrollarse en el enclave hasta el momento en el que se asiste a la anulación funcional de la cerca y su utilización como elemento arquitectónico para componer el cierre zaguero de una construcción. La estratigrafía del yacimiento no arroja luz alguna sobre tales acontecimientos, puesto que sobre el suelo de arcillas rubificadas asientan rellenos modernos aportados para la construcción de un pavimento de cemento.

El espacio extramuros, por su parte, también estuvo activo mientras la cerca cumplió su función, o al menos tal hecho quedaría revelado por la asociación que cabe resumir entre este elemento, un muro rectilíneo apoyado en el paramento exterior de la cerca y un suelo de losas que quedaba ajustado al trazado de ambas fábricas.

En aproximada coincidencia con el punto medio del tramo de muralla descubierto en el área intervenida, y apoyado contra el paramento oriental de la cerca, se documentó la presencia de un muro de mampostería ordinaria que se proyectaba perpendicular a la muralla con dirección este-oeste. Registraba una longitud conocida de 1,12 metros, aparentemente prolongada bajo estructuras que buscaron tardíamente idéntica localización para erigirse, y una anchura de 0,48 metros. Asentaba directamente sobre la capa de arcillas que se utilizaron para ocultar el banco de cimentación de la cerca, sobre el que se encabalgaba en consecuencia el muro para adosarse a la muralla.

Se sumaba además la presencia de un pavimento compuesto por losas irregulares de arenisca, localizado sobre la mitad norte del área intervenida, que encontraba sus límites naturales tanto en la muralla como en el muro que se proyectaba perpendicular a ésta. En la mitad sur del sondeo se localizaron restos de lo que pudo ser un pavimento idéntico, en esta ocasión totalmente alterado, y de los distintos elementos que integraron las capas utilizadas como base y sustentación del mismo, puesto que el suelo no se construyó directamente sobre las arcillas subyacentes. La presencia del pavimento artificial en relación con ambas estructuras constructivas, y especialmente con la muralla, parecen certificar la presencia del muro perpendicular como un elemento extramuros en el momento en que la cerca se mantuvo activa.

Suponer tal presencia es sin duda lo más fácil del proceso, basta revertir la seriación de acontecimientos estratigráficos que se concitan en el enclave: muralla, muro perpendicular, pavimento de losas; lo difícil radica en interpretar la significación de dicho muro, su utilidad o el momento concreto en el que se pudo asistir a su construcción, aproximando su cercanía o lejanía con respecto tanto a la cronología edificatoria del propio elemento defensivo como a aquella que cabe suponer para el pavimento.

A fin de determinar la posible cronología del suelo, y buscar una datación *ante-quem* para el muro que se adosaba a la muralla, se procedió a una retirada parcial de las irregulares piezas de arenisca que confor-

euskarri-geruza haietan data hori aurrera liezagukeen elementuren bat ba ote zegoen jakiteko. Ordea, emaitzak ez ziren onurakoak izan. Kultura materialeko oso elementu gutxi jaso genituen betegarri haietan, erreferentziaren bat emango zigun ezertxo ere ez. Aipatzekoa da, halarik, aztarna baino anekdota bada ere, «belakiaren teknikaz» landuriko toska zati bat azaldu zela. Dekorazio molde hau berezko bihurtu zen Talavera de la Reinako toskagintzan XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, eta beraz adierazi baino ez dugu egingo aurkikuntza hau, oso urrun baikaude berreskuraturiko zatiaren eta aldi hartan do gerokoan dekorazio molde hori erabili zuen zeramika lantegi baten arteko loturaren bat zehazteko aukeratik, edo historian horren luzaro erabili den dekorazio prozedura horri kronologia zehatz hori ematetik.

Zaharrenak diren aldetik, finkamenduaren historiari begira esanguratsuentzat jo genitzakeen ezaugarri estratigrafiko hauen berri emateaz gainera, deus gutxi esan edo aurrera genezake hirialde honek bere okupazioko lehen mendeetan bizi izan zituen gorabeherei buruz, oso urri baitira eremu honetan etengabeko giza okupazio intentsiboa salatzen diguten lekukotza argiak. Bestela gertatzen da, adibidez, egungo kalearen beste aldean, landu dugun orubearen kontrako aldean, Kalebarriaren zenbaki bikoitietan, aztertu diren hiri orubeetan, populazioaren bilakaeraren zantzuak eta aztarnak jaso baitira haietan Behe Erdi Arotik gure egunetara arte. Eta bere horretan iraungo zuen egoerak harresia jardun betean eduki zuten bitartean. Zenbat iraun zuen garai hark? Ez dakigu, oraingoz. Orubea luzera guztian antzeko bi erditan banatu zuen horma sendoaren eraikuntzaren kronologia egokiro zehaztea ere oraingoz ezinezkoa zaigun bezala. Gogoan har dezagun atzealdeko itxiturari begira, harresiaren egitura bilatu zuela horma hark, hari itsatsirik gelditu arte. Jardueratik kanpo eta, beraz, interes pribatuen mendean ote zegoen ordurako harresi hori horma hura eraiki zenean?

Horma hori harresiari noiz itsatsi zen zehatz-mehatz esaterik oraingoz ez daukagun arren, esan dezagun horixe dela hirialde honetan bizigune helburuaz bideratu zen giza okupazioaren lehen aztarna zalantzarik gabe. Zimenduaren sendotasunak argi eta garbi adieraziko liguke, bestalde, eraikina garrantzitsua izango zela goratasunean eta harresiaren altxaera osoa baliatuko zutela hartarako. Gainera, eraikin berria ez zen orubearen barruan harresiaren ondoko lurretara hedatu baizik eta oin berriko eraikin gisa egokitu eta eraiki zen orubean, horretarako orubeak harresia barruan hartzen zuen luzera guztia hartuz. Errealitate honek okupazioaren kronologia beranta salatzen digu beharbada, aro barrokoaren azken uneekin lotu beharko genukeena agian, orduantxe galdu baitzuen harresiak zukeen interes publiko guztia, orduan ere hirigune jendeztatuaren mugetako bat zehazten zuen arren.

Lehen urrats honek argiro erakusten du interes pribatuari utzi zitzaiola harresiaren bolumen guztiaz jabetzen, eta biziguneen barruan geratu zen beraz murrua.

maban el pavimento, por si en los niveles de sustentación de éste se documentaba algún elemento que permitiera avanzar su fechación. Los resultados, sin embargo, no fueron satisfactorios. Apenas se recogieron restos de cultura material entre los rellenos que pudiesen arrojar alguna referencia a ese respecto. Destacaremos sin embargo, más a modo de anécdota que de evidencia argumental, la presencia de un fragmento de loza decorada al «esponjado». Esta modalidad decorativa se constituye en una característica de la loza talaverana desde la segunda mitad del siglo XVI, lo que se anota a modo de indicador, porque estamos muy lejos de poder avanzar la correspondencia entre el fragmento recogido y cualquier centro alfarero donde se utilizó simultáneamente o con posterioridad tal modalidad decorativa o asignar esa cronología específica a un procedimiento decorativo largamente utilizado.

Salvo enumerar estos rasgos estratigráficos que entendemos como los más relevantes históricamente en el emplazamiento, por su mayor antigüedad, poco más podemos avanzar respecto a la suerte que pudo correr este sector de la villa en sus primeros siglos de ocupación, puesto que apenas se atestiguan signos claros de una ocupación humana continuada o intensiva, en situación contraria, por ejemplo, a lo que se constata en los solares urbanos que se enfrentan al solar intervenido en el otro lado de la actual calle, en los números pares de Kaleberria, en los que es posible recuperar indicios de la evolución del poblamiento desde el bajomedievo hasta nuestros días. Y tal situación parece cumplirse al menos para el período en el que debió mantenerse completamente activa la cerca. ¿Cuánta duración tuvo dicho período?, lo desconocemos por el momento. De igual manera que tampoco es posible situar en su adecuada cronología la construcción de un potente muro que dividió longitudinalmente el solar en dos mitades similares, buscando para su cerramiento zaguero la fábrica de la muralla, a la que se adosa. ¿Había caído ya en completo desuso la función de la cerca cuando se erige el citado muro, entregada por tanto a los intereses privados?

Aunque ignorantes por el momento respecto a la data precisa en el que se adosa esa fábrica a la muralla, cabe señalar que parece representar la primera evidencia segura de una ocupación humana con función habitacional en este sector de la villa. La potencia del cimiento revelaría, por otra parte, una importante construcción en altura, que debió aprovecharse del alzado íntegro de la muralla. La nueva edificación, además, no gana terreno sobre la superficie del solar más inmediata a la cerca, sino que asienta su volumen como obra de nueva planta en el solar, incorporando a sus fines la longitud completa intramuros de esa superficie. Tal hecho quizá esté revelando una cronología tardía en la ocupación, ligada tal vez con los momentos finales del barroco, cuando la cerca pierde interés para lo público, pero todavía sirve como marca de uno de los límites del espacio urbano poblado.

Este primer paso constata que se ha permitido a lo privado apropiarse completamente del volumen de la cerca, integrándolo en consecuencia en los espacios

Bigarren urratsean, deuseztatu ahal izango da harresiaren eraikina eta espazio berria irabazi ahal izango du horrenbestez harresiaren barruko espazio zaharrak. Hiriak zeharka irabaziko duen eremua bi aldi desberdinetan urbanizatuko da, hiriko eraikinak berritzen doazen heinean.

Harresiaren marra zaharra gainditu zuen, hau da, murrua itxura guztien arabera ezdeusean utzi zuen lehen arkitekturak metro eta erdi inguruko eremua irabazi zuen ekialderantz, eta zimenduz hornitu zen gune hartan. Atzealdeko itxiturak ekialderantz eginiko progresio hori hegoaldean, Kalebarria 15 orubean, bideratu zen eraikuntza baino geroagokoa da, geroagokoa da hartan dokumentaturiko erregistroa, hegoaldean aurrez zegoen bolumenaz baliatu baitziren obra berriari eusteko. Eremu berrien aldeko prozesu honen bitartean bete ere egin zen harresiaren kanpoko beheragunea: oraingoz ezagutzen ez dugun leku batetik hartu eta ekarri ziren betegarri hartan erabili zituzten sedimentuak. Nolanahi ere, badakigu sedimentu haiek jendez beteriko alde batetik ekarri zituztela, ugari eta kronologia askotakoa baita tartean ageri den kultura materiala. Betegarri lan horien helburua bakarra izan zen: harresiz kanpoko aldearen maila goratu, berdindu eta harresi barruko kota berean utzi.

Aurrekoak baino hedadura handiagoa izan zuen azken bultzada bati esker irabazi ziren eremu berriak eraikitzeko. Horrenbestez zabaldu eta handitu zen hiriko etxadi hau, haren fatxadetako bat egungo Komentukaleko marraraino eramanez. Bestalde, uren kanalizazio obra guztiak ere bideratu ziren orubean, hala publikoak nola pribatuak.

de habitación; el segundo paso supondrá la capacidad de anular constructivamente la muralla y ganar progresivamente terreno sobre el antiguo espacio extramuros. La superficie que se va ganando indirectamente para la villa se incorpora en dos fases diferenciadas, en la medida en que se va produciendo la renovación de las construcciones erigidas en el emplazamiento.

La primera arquitectura que sobrepasa la antigua línea de la cerca, previsiblemente responsable por tanto del arrasamiento de esta obra, avanza aproximadamente metro y medio hacia el este, punto en el que se cimenta. Esta progresión oriental del cierre zaguero se documenta posterior a la que se registra para la construcción inmediata al mediodía, sobre Kaleberria n.º 15, toda vez que utilizará el volumen preexistente de ésta para apoyar su obra. Este proceso de avance estuvo acompañado de un programa de relleno de la depresión existente en la zona extramuros, a la que se hacen distintas aportaciones de sedimentos traídos desde un lugar por el momento no aclarado, pero con una ocupación humana intensiva, dada la alta frecuencia de elementos de cultura material de distintas cronologías que contienen, con el único fin de elevar sus cotas superficiales e igualarlas con las que se registraban en el ámbito intramuros.

Un último impulso, de mayor amplitud que el precedente, ganará nueva superficie para las construcciones, ampliando en consecuencia la anchura de esta manzana urbana, y trasladando una de sus fachadas hasta la actual línea de Komentukale, procediendo además a acometer las redes de canalización de aguas en el solar, tanto públicas como privadas.

José Luis Ibarra Álvarez

D.2.2.4. **Goienkale, 37 (Plentzia)**

Zuzendaritza: Javier Fernandez
Bordegarai
Finantzazioa: Aberlam4

D.2.2.4. **Goienkale, 37 (Plentzia)**

Dirección: Javier Fernández
Bordegarai
Financiación: Aberlam4

Due to the construction of new houses at number 37 Goienkale Street in the historic quarter of Plentzia, an archaeological assessment was made of the site's subsoil. To this end, two large sondages were carried out, one on the south-western side and the other at the north-eastern corner. The first sondage identified three successive phases of occupation, although of fairly recent chronology and no particular interest. The second sondage revealed only a few cuts in the natural clay. Nevertheless, despite the generally negative results of the intervention, we should highlight the discovery of some objects dating from the late middle ages in the fill-ins, particularly a seal in a very good state of conservation.

Plentziako Hiriguneko Historikoko Goienkale, 37 orubean etxebizitza berriak eraiki nahi zirela eta, interbentzio arkeologiko baten beharra hartu zen aintzat orubean. Hasierako ebaluazio lanak bazuen baldintza bat,

Con motivo de la construcción de nuevas viviendas en el solar n.º 37 de la calle Goienkale del Casco Histórico de Plentzia, se hizo necesaria la realización de una intervención arqueológica. El trabajo inicial de

orubea okupatzen zuen eraikinaren fatxada nagusia kontserbatu behar baitzen inolaz ere, eta aldatu behar izan ziren hasieran eginiko aurreikuspenak. Halatan, aurreikusitako bi zangen ordez, bi zundaketa handi induskatu genituen ebaluazio arkeologikoa egiteko aukera ematen ziguten bi espazioetan, orubearen hegoaldean eta eraitsitako etxearen ekialdean hutsik gelditu zen espazioan.

la valoración venía condicionado por la obligación de conservar la fachada principal del edificio que ocupaba el solar, lo que provocó la modificación de las previsiones iniciales. Así, en vez de las dos zanjas previstas se pasó a excavar dos grandes sondeos en los únicos espacios con suficiente amplitud para poder realizar la valoración arqueológica: el tercio sur del solar y el espacio libre de edificaciones al este del edificio derribado.

1. Zundaketa

Orubearen hego-mendebaldeko angeluan bideratu genuen, mendebaldetik mugatzen zuen hormaren ondoan. 28 bat m^2 hartzen zituen eta 2 metrotik gorako hondoa zulatu genuen kota sakonenean. Lehen zundaketa honetan 21 unitate estratigrafiko bereizi genituen, ondozka zetozen hiru etapatan:

— Botatako etxearen egituren hondakinak. XX. mendearen lehen erdialdean eraikiko zuten etxe hura.

— Orubea mendebaldetik mugatzen zuen egungo hormaren azpiko bi horma. Kokalekuari dagokionez, bat etorriko lirateke hirialde honetan harresiari egokitu zaion balizko trazatuarekin, baina orubea bete zuen lurrari eutsi zioten hormen hondakin gisa baino ezin dira interpretatu eta, beraz, haien kronologiak ez gaitu XIX. mende bukaeratik harantz eramango.

— Lurrez beteriko deposituak izango lirateke unitate zaharrenak. Orubea lorategi edo baratze gisa erabiltzeko bete zituzten lurrez. Hainbat garaitako kultura materialeko aztarnak azaldu ziren haietan nahasian, kronologia hurbileko zeramiken ondoan Behe Erdi Aroko itxura zuten beste

Sondeo 1

Situado en el ángulo sudoeste del solar, junto al muro que lo delimitaba por el oeste. Su superficie se aproximaba a los 28 m^2 y su profundidad máxima alcanzada superaba los 2 m. En este primer sondeo se identificaron 21 unidades estratigráficas correspondiendo con tres etapas sucesivas:

— Los restos de las estructuras del edificio derribado, cuya construcción debió de producirse en la primera mitad del siglo XX.

— Dos muros bajo la actual pared que delimitaba el solar por el oeste. Su ubicación podría encajar con el probable trazado de la muralla supuesto para esta zona, pero únicamente pueden interpretarse como los restos de los muros de contención de la tierra que rellena el solar, cuya cronología no se remontaría más allá de fines del siglo XIX.

— Las unidades más antiguas se corresponderían con depósitos de rellenos de tierra, para posibilitar el uso del solar como jardín o huerto. En ellos aparecían mezclados evidencias de cultura material de diferentes épocas, desde cerámicas de época reciente a otras de apariencia bajo-



Lakrerako zigilua, eraberritu eta geroa, eta haren silikonazko positiboa.

El sello para lacre tras su restauración y su positivo en silicona.

batzuk, Aro Modernoko buztinezko pipa zatiak eta txanponak ere tartean. Gainera, lakrerako brontzezko zigilu bat azaldu zen buztin naturalen gainean. Almendra itxurako xafla bat ageri du zigiluak, eta eraztun txiki bat atzealdean, katetxo batez, eskegitzeko. Erdiko irudian bi pertsona ageri dira, tronuan biak, eta Ama Birjinaren koroatzearen aurkezpen bat da. Haurra du altzoan Ama Birjinak, Jainko Jaunaren irudi eginez. Jabearen izena ageri da irudi osoaren inguruan, honako idazkun honetaz: «Ioan Sanchez de Sarria». Jabearen iruditxoa azaltzen da, halaber, belauniko otoitz eginez, zigiluaren behealdean. Pieza (Jesus Alonso Lopezek eraberritu du) oso kontserbazio egoera onean dago eta estilo eredu gotiko peto-petoen araberakoa da. Beraz, XV. eta XVI. mendeen artekotzat jo genezake haren kronologia.

Hortaz, objektu interesgarri batzuk berreskuratu diren arren, oso txikitzat jo dezakegu 1. zundaketa honen balio arkeologikoa.

2. Zundaketa

1. zundaketaren kontrako aldean induskatu zen, orubearen ipar-ekialdeko angelutik hurbil, hutsik edo eraiki gabe zegoen espazioaren barruan. 26 m^2-ko eremua hartzen zuen eta sakonera gorenean ez zen 30 cm-tara iristen. Zundaketa honetako estratigrafia oso sinplea zen, sei unitate desberdin baizik ez baitira bereizi. Halatan, lur buztintsuko depositu mehe bat azaldu zen buztin naturalen gainean, kronologia hurbileko kultura materiala barruan. Lau ebaki eginak ziren depositu hartan. Garai hurbileko zaborrez betea zen horietako handiena eta etxeko animaliak lurperatzeko zuloak ziren gainerako hirurak. Halatan, hutsa izan zen zundaketa honen interes arkeologikoa.

Bukatu aurretik, interbentzio honen gaineko azken hitz gisa esan dezagun orube honen interes arkeologikoa oso txikia dela, jaso diren kultura materialeko aztarna batzuen garrantzia ukaezina den arren. Hor dago aipatu dugun zigilua. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko antzinatasuna darion arren, elementu horien balio arkeologikoa oso urria da, Aro Modernoan, orubean lurgintza bideratzearren egin ziren betelanen ondoko betegarrietan azaldu baitira nahasian. Beraz, bigarren mailako deposituko materialak dira eta ez dugu lehenengoz pausatu ziren egiazko testuinguru arkeologikoa ezagutzen.

medieval, fragmentos de pipas de arcilla y monedas de la Edad Moderna. Además, sobre las arcillas naturales, apareció un sello para lacre realizado en bronce. El sello está formado por una placa amigdaloide provista de una anilla dorsal y una cadenita de suspensión. El motivo figurativo central está formado por dos personas entronizadas y representa la coronación de la Virgen, que lleva al Niño en el regazo, por Dios Padre, todo ello rodeado por el nombre del propietario, «Ioan Sanchez de Sarria», cuya figura aparece arrodillada, en actitud orante, en el extremo inferior del sello. La pieza (restaurada por Jesús Alonso López) presenta un excepcional estado de conservación y responde a modelos estilísticos típicamente góticos, por lo que su cronología podría situarse a caballo entre los siglos XV y XVI.

En definitiva, a pesar de haberse recuperado algunos objetos de interés, el valor arqueológico de este sondeo 1 puede considerase mínimo.

Sondeo 2

Se excavó en el lado opuesto del sondeo 1, cerca del ángulo noreste del solar y dentro del espacio que se encontraba sin edificar. Su superficie alcanzaba los 26 m^2 y su profundidad máxima apenas superaba los 30 cm. Su estratigrafía es muy sencilla puesto que sólo se han detectado seis unidades diferentes. Así, sobre las arcillas naturales apareció un depósito poco potente de tierra arcillosa con evidencias de cultura material de cronología reciente, sobre el que se realizaron cuatro cortes. El mayor de ellos fue rellenado con escombro de época reciente y los otros tres correspondían a pequeñas fosas de enterramientos de animales domésticos. En consecuencia, el interés arqueológico de este sondeo fue nulo.

Para finalizar y como conclusión general de la intervención, se debe señalar que el solar posee un interés arqueológico mínimo, derivado únicamente de la relevancia que poseen algunas evidencias de cultura material, como el sello citado. Sin embargo, pese a presentar cierta antigüedad, el potencial arqueológico de dichos elementos es mínimo puesto que aparecen entre los materiales de relleno acarreados durante la Edad Moderna para posibilitar el cultivo del solar, por lo que constituyen un depósito de carácter secundario, desconociéndose el verdadero contexto arqueológico en el que se depositaron inicialmente.

Henar Fernández Cebrián

D.2.2.5. **Mendieta I eta II aztarnategiak (Sopelana)**

I. Kanpaina
Zuzendaritza: Joseba Rios Garaizar eta Diego Garate Maidagan
Finantzazioa: Sopelako Udala

D.2.2.5. **Yacimientos de Mendieta I y II (Sopelana)**

I Campaña
Dirección: Joseba Rios Garaizar y Diego Garate Maidagan
Financiación: Ayuntamiento de Sopelana

The series of sondages carried out in the residential zone of Zaldu (Sopelana) revealed two new open air archaeological sites dating from the Old Palaeolithic era (Lower and Middle), which have been christened Mendieta I and II.

Eremuaren kokalekua eta deskripzioa

Miaketa sistematikoa eta zundaketa arkeologikoak bideratu diren eremua Zaldu deituriko lekuan dago, Sopelako udalerri bizkaitarrean, Mendieta auzotik hurbil. izena eman die toponimo honek aurkitutako aztarnategiei (MET sigla). Honako muga hauen artean dago eremua: Sopelako hirigunea, mendebaldean; Urdulizko udalerriko Igeltzera industrialdea, ekialdean; Lurraldeko BI-100 errepidea, hegoaldean, eta Mendieta auzoa, iparraldean.

Goi Kretazeoko (Cenomanum eta Maastricht aldiak) harriz osaturiko substratuaren gainean bermatua da eremua hau, askotariko litologia aurkezten duena: Flysch Karetsuko margak, marga-kareharriak eta kareharri buztintsuak; flysch detritiko-karetsuko kareharri buztintsuak, margak eta hareharriak; eta flysch beltzeko lutitak, hareharriak eta konglomeratuak ageri dituzten alde batzuk, IM-HE norabideko ardatzaren araberako estratutan ageri direnak. Eremua zelaia da ia guztia eta hurbilean gailentzen dira Santa Marina haitzak eta Ganeko gaina. Gobela ibaiaren sorburua eratzen duten errekasto txikiek zeharkatzen dute. Geologia berezi honetan, aipagarria da kalitate handiko silex-noduluen presentzia; erraz asko aurki daitezke horiek Kurtziako olitostromoan eta haren barrura aldeko luzapenean.

J.M. Barandiaran, M. Muñoz, M. Aguirre eta F. Bazetaren lanen ondoren dira ezagunak gizakiaren presentzia etengabe intentsiboak kostalde honetan (Kurtzia) eta barnealdeko gune batzuetan (Munarrikolanda) utzi dituen hatzak eta aztarnak.

Eremu arkeologikoaren aurkikundea

Viconsa S.A. enpresak egin zituen, udalak sustatuta, Zaldu eremuaren urbanizaziorako lehenengo lanak, eta lurrak altxatu eta irauli ziren proiektatu ziren errepideen eremuko hainbat kotatan. Ez zen ordea 13C errepidea bideratu, topografian baino ez baitzen haren trazatua aintzat hartu. Gainerako kasu guztietan, landare-lurraren estalkia irauliaz gainera, biziki ukitu ziren azpiko paleolurraren mailak. Iraultze lan hauek depositu arkeologikoak ukitu zituzten, metaturiko zabortegietan eta errepideen hondoan materialak aurkitu eta ja-

Localización y descripción del área

El área donde se han realizado las labores de prospección sistemática y sondeos arqueológicos se halla en el término de Zaldu del municipio de Sopelana (Bizkaia), cerca del barrio de Mendieta, topónimo que da nombre a los yacimientos localizados (Sigla MET). Esta área esta comprendida entre el casco urbano de Sopelana (oeste) y el polígono industrial Igeltzera (este) del municipio de Urduliz, la carretera provincial BI-100 (sur) y el barrio de Mendieta (norte).

Se trata de una zona asentada sobre un sustrato formado por rocas del Cretácico Superior (Cenomaniense-Maastrichtiense) de una litología muy variada, margas, margocalizas y calizas arcillosas del flysch calcáreo; calizas arenosas, margas y areniscas del flysch detrítico-calcáreo; y algunas zonas con lutitas, areniscas y conglomerados de flysch negro, dispuestos en estratos según un eje NO-SE. Es una zona prácticamente plana en la que destacan las Peñas de Santa Marina, y el alto de Gane. Está atravesada por pequeños cauces de agua que conforman la cabecera del río Gobela. Esta geología particular destaca por la presencia de nódulos de sílex de gran calidad fácilmente localizables en el olitostromo de Kurtzia y en su prolongación hacia el interior.

Tras los trabajos de J.M. Barandiarán, M. Muñoz, M. Aguirre y F. Bazeta se conocen evidencias de una intensa y continuada presencia del hombre en esta zona desde el Paleolítico Medio en toda la zona costera (Kurtzia) y algunos puntos del interior (Munarrikolanda).

Descubrimiento del área arqueológica

El inicio de las obras de urbanización del área de Zaldu realizadas por Viconsa S.A. con promoción municipal, había provocado el levantamiento de tierras a diferentes cotas en el área de los diversos viales proyectados excepto el 13C que únicamente había sido replanteado topográficamente. En todos los casos además de remover la cobertura de tierra vegetal resultaron afectados los niveles de paleosuelo subyacentes. Estas labores de remoción afectaron a depósitos arqueológicos tal y como evidenció la localización

sotzeko bideratu genuen saioetan frogatu genuen bezala.

Eremuan lur iraultzen ari zirela ikusirik, bertara jotzea erabaki genuen, oso hurbil baitaude Kurtziako aztarnategiaren inguruan babes arkeologikoa duen eremua. Lan horietan aztarnategi bakar bat ere ez zela ukitu egiaztatu nahi genuen.

Bi ikustaldi laburretan (2003/11/4 eta 2003/11/18) egiaztatu genuen harrizko aztarna ugariren presentzia, induskaturiko azaleran, errepideen ebakietan eta zaborategietan barreiatuak. Aurkikunde horren aurrean, txosten bat prestatu eta aurkeztu genion Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondare Zerbitzuari, balizko aztarnategi baten babesa ziurtatuko luketen neurriak har zitezen.

Sopelako udalak egoeraren berri jakin bezain laster, erabaki zen urbanizazio lanak aldi batez bertan behera uztea, zundaketa bidezko miaketa intentsibo bat bideratu bitartean. Landu beharreko eremua urbanizazioko lur publikoetara mugatuko zen, eta lanek helburu garbia izango zuten: balizko aztarnategia aurkitzea eta ebaluatzea.

2003ko abenduaren 23an hasi ziren zundaketa lanak, eta 2004ko urtarrilaren 24an bukatu.

Interbentzioaren garapena

Interbentziorako metodologiari begira, zundaketa-eremuak hautatu genituen lehenik (kontuan hartu genituen horretarako harrizko aztarnen kokalekua, estratuen osotasuna, landare-lur iraulia ez bezalako mailen presentzia eta aurkikundeen dinamika bera), prestatu egin genituen ondoren (neurketa topografikoa eta landare-lurraren erauzketa), indusketa arkeologikoari ekiteko (material arkeologikoaren azaleratzea eta sedimentuen ezaugarriak zehaztea). Azkenik, erregistratu eta siglatu genituen materialak (Euskal Museoan edo Euskal Arkeologia, Etnologia eta Historia Museoan, EAEHM, utzi aurretik).

y recogida de materiales que realizamos en las escombreras acumuladas y en el fondo de los viales.

Ante la constatación de que se estaban removiendo tierras en la zona, y debido a la proximidad del área de protección arqueológica localizada en torno al yacimiento de Kurtzia, decidimos acercarnos al lugar para constatar que las obras no estaban afectando ningún yacimiento.

Dos breves visitas (4/11/2003 y 18/11/03) revelaron la presencia de abundantes restos líticos diseminados entre la superficie excavada, los cortes de los viales y las escombreras. Su descubrimiento motivó la realización de un informe que presentamos ante el Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia con el fin de posibilitar la puesta en marcha de medidas que coadyuvasen a la protección de un posible yacimiento.

Informado el ayuntamiento de Sopelana se decidió la paralización temporal de las obras de urbanización durante la realización de una prospección intensiva mediante sondeos, limitada al terreno público de la urbanización, y orientada a la localización y valoración del posible yacimiento.

Los sondeos se iniciaron el 23 de diciembre del 2003, y finalizaron el 23 de enero del 2004.

Desarrollo de la intervención

La metodología de la intervención consistió en la selección de las áreas de sondeo (en función de la localización de restos líticos, la integridad de los estratos, la presencia de niveles distintos a la tierra vegetal revuelta y la propia dinámica de descubrimientos), la preparación de los mismos (replanteo topográfico y eliminación de la tierra vegetal), su excavación arqueológica (exhumación del material arqueológico y caracterización del sedimento) y el registro y siglado de los materiales (previamente a su deposición en el M.A.E.H.V.).



Mendieta I (Sopela). W Ebakia 17 eta 17A zundaketan.

Mendieta I (Sopelana). Corte W del sondeo 17 y 17A.

53 zundaketa eta 3 zanga bideratu ziren guztira. Kuaternarioan anitza eta askotarikoa izango zen paisaia azaldu zitzaigun haietan, honako berezitasun hauekin: egun idor dauden ur-korronteak, istil edo lintzura aldeak eta alde guztietan estratigrafia homogeneo xamarra:

— landare estalki bat azaleko mailan, terraza artifizialekin eta oso nahasia. Silex hondakinak ageri dira material modernoekin batean,
— maila beltz irregular bat, hainbat aldetan ageri ez dena, eta eduki organiko handia duena. Jatorrizko paleolurra izango zen. Harrizko tresneria ageri da gune batzuetan, Erdi Paleolitos Arokoa gehiena,
— maila hori buztintsu bat, azpian dituen margen degradazioagatik eratua. Oro har, antzua da maila hau arkeologiaren ikuspegitik.

Eremuaren barruan material arkeologikoa bildurik duten bi gune nagusi bereizi ziren. 800 bat metro daude euren artean, eta Mendieta I eta Mendieta II izenez bataiatu ditugu.

Mendieta I

17., 17ª, 17B eta 17C zundaketetan eta 1. zangan azaldu da Mendieta I aztarnategia. Okupazio bat edo gehiago dira, eta ibai jatorria duten hondarrezko estratu baten barruan aurkitu ditugu. Sedimentologia datuen arabera (Iriarte, E. eta Zearreta, A. 2004), osos-osorik dago hondarrezko estratua. Indar gutxiko ibai-korronte batek sorrarazitako sedimentu bat da eta, horrenbestez, bertan azaltzen den materiala *in situ* topatzeko aukera handia da. Bereizi ahal izango dira, beraz, okupazio garai desberdinak.

Estratu honetan jaso ditugun materialak harrizko tresneriaren aztarnak dira guztiak: nukleoak, tresnak, laskak eta zatiak. Haien ezaugarriei erreparatu ondoren esan dezakegu tresnen fabrikazio eta kontsumo fase guztiak azaldu zaizkigula. Bestalde, kultura aldetik egin genezakeen datazioa ez da batere zehatza, Paleolitos Aro zahar batean kokaturik betiere: Behe Paleolitos Aroan (duela 200.000 urtetik gorakoa) edo Erdi Paleolitos Aroan (duela 200.000 eta 40.000 urte bitartekoa).

Zundaketetan induskatu den aztarnategi eremuak, ordea, ez du interpretazio zehatz baterako aukerarik eskaintzen. Gure ustez, zabalean bideratu beharko litzatekeen indusketa baten bidez izan ezik ez dira aztarnategiaren ezaugarriak ezagutuko. Egun haren alde bat ezagutzen dugu, C3 errepidean eta ondoko lur-sailean induskaturiko azaleraren azpiko alde bat hain zuzen ere. Halaz ere, ez dugu lur-sail horren mendebaldeko luzapena ezagutzen, zundatu ez delako.

Bestalde, aztarnategia hormigoi geruza batez ixtea erabaki zuen administrazioak (2004/02/06) etorkizunean babesteko. Ondoren, haren gainean bideratu dira urbanizazioaren saneamendurako hodiak, metro eta erdi hondar eta, azkenik, aintzat harturiko errepidea.

Se realizaron un total de 53 sondeos y 3 zanjas que mostraron un paisaje que debió ser muy variado en el Cuaternario, incluyendo cauces fluviales hoy secos, zonas de encharcamiento pantanoso y una estratigrafía más o menos homogénea en todo el terreno, formada por:

— un nivel de cobertura vegetal en superficie con aterrazamientos artificiales y muy revuelto. Aparecen restos de sílex junto a materiales modernos,
— un nivel negro irregular y ausente en algunas zonas pero con alto contenido orgánico que se corresponde con un paleosuelo original. Contiene en ciertos puntos industria lítica mayormente del Paleolítico Medio,
— un nivel amarillo de arcillas formadas por la degradación de las margas sobre las que se asienta. En general se presenta arqueológicamente estéril.

Dentro del área se localizaron dos zonas de concentración del material arqueológico, unos 800 metros distantes entre sí, y que han sido nombradas como yacimientos de Mendieta I y II:

Mendieta I

El yacimiento de Mendieta I ha sido localizado en los sondeos 17, 17A, 17B y 17C así como en la zanja 1. Se trata de uno o varios niveles de ocupación localizados dentro de un estrato compuesto por arenas de origen fluvial. A tenor de los datos sedimentológicos (Iriarte, E. y Zearreta, A., 2004) podemos asegurar que el estrato arenoso está íntegro, que se trata de un sedimento originado por una corriente fluvial de escasa energía, y que por tanto hay una alta probabilidad de que el material arqueológico que se localiza en el esté *in situ*, pudiéndose por tanto diferenciar distintos momentos de ocupación.

Los materiales recogidos en este estrato son exclusivamente restos de industria lítica, núcleos, útiles, lascas y fragmentos. Del análisis de sus características podemos apuntar que se localizan todas las fases de fabricación y consumo de utillaje. Además podemos realizar una atribución cultural poco precisa que los situaría dentro de un Paleolítico Antiguo bien sea un Paleolítico Inferior (hace más de 200.000 años) o medio (entre 200.000 y 40.000 años BP.).

La superficie del yacimiento excavada en los sondeos resulta sin embargo insuficiente para poder hacer una interpretación precisa, por lo que creemos que sólo mediante un proceso de excavación en extensión se podrá llegar a conocer las características del mismo. En la actualidad conocemos parte de su desarrollo, localizándose debajo de la superficie excavada del vial C3 y en la parcela adyacente, sin que podamos conocer, al no haber sido sondeada dicha parcela su extensión hacia el O.

Por otro lado, la administración decidió sellar el yacimiento del vial con una capa de hormigón (6/2/04) para su futura preservación. Posteriormente sobre él se han colocado los tubos de saneamiento de la urbanización, un metro y medio de arena y, por último, la carretera correspondiente.

Mendieta II

13C errepidearen I-ko perfilean azaldu da Mendieta II aztarnategia. Ugari zen alde hartan material nahasia eta obretako indusketa lanetan oinarriko buztin horiak ere altxatuak ziren. Beraz, lan haietan aztarnategiaren alde handi bat ukitu zelako ustea jabetu zen gutaz.

Ezin zehaztu izan ditugu aztarnategiaren mugak eta hedadura, urbanizaziotik kanpora zabaltzen baita. Negatiboak izan dira, ordea, hegoaldean egin diren zundaketen emaitza guztiak. Zundaketetan eta alde nahasietan berreskuratu ditugun materialek Mendieta I aztarnategiaren aurkezpenean azaldutakoen ezaugarri bertsuak dituzte. Silexaren fabrikazio eta kontsumo kate osoaren presentzia eta Paleolitios Aro zahar bati dagokion kultura.

Halaz ere, aztarnategi hau itxuratu zen sedimentu aldea arras bestelakoa da, materialak buztin horien barruan azaltzen baitira. Limoak idortu ondoren itxuraturiko zoruak dira buztin hori horiek eta, beraz, kasu honetan bada okupazio une eta garai desberdinak bereizteko aukera.

Aldameneko lurrak zundatuz baizik ez dugu aztarnategi honen hedadura zehaztu ahal izango, eta zabalean bideraturiko indusketa lanen bitartez baizik ez dugu aztarnategi hori giza okupazioaren arabera interpretatuko.

Mendieta II

El yacimiento de Mendieta II ha sido localizado en el perfil N del vial 13C. La abundancia de material de revuelto y la constatación de que las labores de excavación del vial habían levantado las arcillas amarillas donde se localiza el mismo, nos llevó a pensar que se ha podido ver afectada buena parte del yacimiento.

Los límites y la extensión del mismo son imprecisos y se extienden fuera del área de la urbanización, ya que hacia el sur todos los sondeos realizados han sido negativos. El material recuperado tanto en los sondeos como en el revuelto parece apuntar unas características similares a las anteriormente expuestas para Mendieta I. Presencia de todas las fases de la cadena operativa del sílex y atribución cultural a un Paleolítico Antiguo.

Sin embargo el medio sedimentario en el que se ha formado este yacimiento es bien distinto ya que los materiales aparecen insertos dentro de las arcillas amarillas en las que hemos identificado suelos formados por la desecación de los limos, en los que por tanto hay posibilidades de individualizar distintos momentos de ocupación.

Sólo mediante el sondeo de los terrenos adyacentes podrá valorarse la extensión de este yacimiento, y sólo mediante la excavación en extensión del mismo se podrá interpretar en términos de ocupación humana.

Joseba Rios Garaizar; Diego Garate Maidagan

D.2.2.6. **Burdin kalea, 12 (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera
Finantzazioa: Hnos. Castresana Jabe Elkartea

D.2.2.6. **Burdin kalea, 12 (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera
Financiación: Comunidad de Propietarios Hnos. Castresana

A number of remains of buildings dating from the 13th and 14th centuries have been documented at the eastern end of this large urban site located in the original settlement of Orduña. The site was destroyed by a fire and was not used again until the contemporary era.
In the central area of the site remains of a 15th century building have been found. This building underwent a number of modifications as regards both its division and construction, and was also razed by fire at the beginning of the modern era. Part of the walls of this building was reused in the contemporary era during the construction of the house that occupied the site until its recent demolition.

Aurrekariak

Aztarnategi honetan irauli dugun sedimentuaren metro kubiko kopurua aski handia da dagoeneko (120 inguru), batez ere kontuan izanik hasierako harpeak lau metro karratu inguruko azalera baino ez zuela. Material arkeologikoak azaleran hedaturik daude, 35 metro karratutan zehar, eta horietako batzuetan hiru metro lodiko sedimentu eta hondakin arkeologikoa harrotu ditugu. Leku horretako unitate arkeologiko batzuk (zehatz

Durante esta tercera campaña habíamos planificado cerrar la excavación, tras el completo vaciado de la cavidad, lo cual ha vuelto a ser imposible, habida cuenta de la gran profundidad que alcanza el sedimento (por encima ya de los cuatro metros). Esta excavación ha sido promovida por la empresa Cantera y Calera de Kobate S.L., que quiere recuperar los contenidos de cuantos depósitos arqueológicos se identifiquen en el monte Artazu, antes de que el avance del frente de la cantera los destruya. Artazu II fue localizado durante el año 2000, procediéndose a continuación a efectuar sobre el mismo un sondeo, seguido de sendas campañas intensivas de excavación durante 2001 y 2002.

El número de metros cúbicos de sedimento removido del yacimiento es ya considerable (unos 120), sobre todo teniendo en cuenta el hecho de que el abrigo inicial tenía una superficie de unos cuatro metros cuadrados. La extensión en superficie de la dispersión de materiales arqueológicos alcanza ya a 35 metros cuadrados, en algunos de los cuales han sido retirados hasta cuatro metros de potencia de sedimento y res-

adierazteko, Brontze Aroari loturiko maila) osorik induskatu ditugu jada eta beharreko laginak atera ditugu. Beste hainbeste esan genezake *Moustir* aldiko harrizko hondakinei dagokienean; hondakin horiek –200 eta –350 koten artean banatzen dira han-hemenka. Azalera txiki batean oraindik ez gara leizeko harri amara iritsi, eta hori beharrezkoa litzateke bertan intereseko unitate arkeologikorik ez dela geratzen ziur egoteko. Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu, baliabide mekanikoen bidez, leizeko atariko mendebaldeko sektorean kata bat egitea. Itxuraz bederen, alde horrek ematen du fisikoki eta estratigrafikoki ez duela leizearekin loturarik, eta horrenbestez, ez du aztarnategirik izango. Oraingoan ere, segurtasun neurri bat da, leizea suntsitu baino lehen material arkeologiko guztiak aterako direla ziur egoteko.

Artazu II leizeak badu nolabaiteko interesa, bertan zehaztu ditugun kronologiengatik bereziki. Orain arte aurkitutako material gehienak honako bi garai hauetan kokatuko genituzke: Brontze Aroa eta *Moustier* Aldia. Brontze Aroko mailan neurri desberdinetako bostehunen bat zeramikazko hondakin aurkitu ditugu, eta batik bat buztin plastikoz eginiko dekorazioak ageri dituzte. 2003ko kanpainak aukera eman digu karena eta ertz zati berri batzuk aurkitzeko, eta horiek lagunduko digute multzo honen tipologia zehazten. Bestalde, *Moustier* aldian kokatuko genituzkeen harri hondakinak ageri zituen okupazio zehaztugabea, 2002. urtean aurkitu genuena, induskatu dugu azalera handi batean. Lehen berreskuratutako hondakinez gainera (bifaz trauskil bat laskan landua, sei nukleo, landutako harkosko batzuk, eskotadurak, dentikulatuak eta hogeita hamar bat laska edo zati, hareharri, limonita eta lutitan landuak gehienak), 2003. urtean bikoiztu egin dugu inbentarioa, beste hogei bat laska, hamabi nukleo, lau harraskailu eta beste bost elementu aurkitu baititugu, horiek ukituak eta mota desberdinetakoak.

Kobateko Harrobiaren behin-behineko afekzio arkeologikoen jarraipen integralari begira, kata bat egin dugu eskuz, ahal izan dugun lekuraino, honen ondoko Artazu III leizean. Gero, harrobiaren aurrealdetik makineria sartzeko bidea ireki ondoren, prozedura mekanikoen bidez jarraitu dugu kata egiten, eta azkenik, ahal izan dugun sedimentu guztia eskuz garbitu dugu berriro ere. Oraingoz ez du interes arkeologikoko materialik eskaini. Era berean, beste leize txiki bat aurkitu dugu inguruetan, baina zundaketak 2004ko kanpainan egingo ditugu hartan.

tos arqueológicos. Algunas de las unidades arqueológicas del sitio (concretamente, el nivel adscrito a la Edad del Bronce) han sido ya íntegramente muestreadas y excavadas. Otro tanto podríamos decir de los restos líticos atribuidos al Musteriense que, de manera difusa se reparten entre las cotas –200 y –350 aproximadamente. Quedaría aún pendiente alcanzar la roca madre de la cavidad en una pequeña superficie, de modo que tengamos la seguridad de que no quedan unidades arqueológicas de interés en el mismo. Igualmente nos parece importante hacer, con medios mecánicos, una cata en el sector oeste del portal de la cueva, aparentemente desconectado física y estratigráficamente de la misma y por tanto sin yacimiento. Se trata, nuevamente, de una medida de seguridad para certificar que la destrucción de la cavidad se realice una vez que ésta esté completamente vaciada de material arqueológico.

Artazu II es un yacimiento de cierto interés, sobre todo por las cronologías que en él se contienen. Casi todos los materiales arqueológicos localizados hasta el momento se adscriben a dos períodos: la Edad del Bronce y el Musteriense. El nivel de la Edad del Bronce ha proporcionado quinientos cincuenta restos cerámicos de diferentes dimensiones, entre los que se observan básicamente decoraciones con barro plástico. La campaña 2003 ha permitido recuperar algunas carenas y fragmento de bordes nuevos, que contribuirán a la definición tipológica del conjunto. Por otra parte, hemos excavado en una amplia superficie la ocupación difusa con restos líticos adscritos al Musteriense localizada en 2002. Además de los restos anteriormente recuperados (un bifaz tosco sobre lasca, seis núcleos, varios cantos tallados, escotaduras, denticulados y una treintena de lascas o fragmentos de las mismas, confeccionados sobre arenisca, limonita y lutita), en 2003 hemos duplicado el inventario, incluyendo una veintena de lascas, doce núcleos, cuatro raederas y otros cinco elementos retocados de signo diverso.

De cara al seguimiento integral de las eventuales afecciones arqueológicas de la Cantera de Kobate, hemos efectuado una cata por procedimientos manuales, hasta donde ha sido posible, en la vecina cueva de Artazu III. Posteriormente, tras abrir un acceso para maquinaria desde el frente de la cantera, se prosiguió la cata con procedimientos mecánicos, para concluir, nuevamente con una limpieza manual del conjunto de sedimento accesible. Por el momento no ha proporcionado materiales de interés arqueológico. Igualmente ha sido identificada otra pequeña cavidad en las inmediaciones, que será sondeada en la campaña 2004.

Alvaro Arrizabalaga

D.3.1.2. **San Martin auzoa. 44-46 unitateak (Ataun)**

Zuzendaritza: Sonia San Jose
Finantzazioa: Ataungo Udala

D.3.1.2. **Barrio San Martín. Unidades 44-46 (Ataun)**

Dirección: Sonia San Jose
Financiación: Ayuntamiento de Ataun

As a result of the demolition work and the building of a new block of houses in Development Units 44, 45 and 46 in the San Martin neighbourhood of Ataun, we carried out an archaeological intervention in the site with the aim of documenting the houses to be demolished and locating the canal that supplied water to the Elizalde mill, located to the north.

«44., 45. eta 46. Garapen Unitateei dagokien Barne Erreformarako Plan Berezia» aurrera eraman behar zela eta, 2000. urtean San Martin auzoko alde horretan zeuden etxeak eraistea eta bertan oin berriko etxebizitzak eraikitzea aurreikusten zuen Ataungo udalak. Proiektu hori, denboraldi bat geldirik egon ondoren, berriro abian jarri da 2002. urte amaieran eta 2003. urte hasieran.

Etxe multzo hori eraitsi aurretik, interbentzio arkeologiko bat egiteko eskatu zigun Ataungo udalak. Proiektua idazterakoan, bi fase desberdin zehaztu genituen: alde batetik, desagertuko ziren etxe horien dokumentazio historiko-arkitektonikoa biltzea, eta bestetik, orubearen azterketa arkeologikoa egitea, etxebizitzak eraiki aurreko aztarnak bilatu nahian.

Ildo horretatik, leku honetan zegoen Elizalde errota hornitzen zuen kanala; errota hori iparralderago zegoen, San Martin elizaren ondoan. 1408. urtekoa da errota horri buruzko lehen aipamena, eta orduz geroztik, laurehun urtetik gora aritu da jardunean. 1894. urtean errota berreraiki zuten, eta 1962[24]. urtean dokumentatu da azken ehoketa. Gaur egun, errotaren eraikin nagusia etxebizitza bilakatu bada ere, oraindik egoera onean kontserbatu da antepara, jokorako leku gisa aprobetxatu dena.

Errota honek Agauntza ibaiko ura erabiltzen zuen turbinak mugitzeko. Urez hornitzen zuen urtegia orain dela urte batzuk desagertu da, baina haren kanala, zatietako batzuk bederen, kontserbatu dira eraitsitako etxeen orubean eta haien iparraldean errepidearen azpian.

Egitura horiez gainera, ospitale bat zegoen Ospitalenea eta Sankristau-enea etxeak zeuden orubeetan, Ataundik pasatzen ziren Santiago Bidea egiten ari ziren erromesei harrera egiteko. Zein garaitan sortu zen ez badakigu ere, haren aipamenak ageri dira 1536[25]. urtean

Con motivo de la ejecución del «Plan Especial para la Rehabilitación Interna correspondiente a las Unidades de Desarrollo 44., 45. y 46.», el ayuntamiento de Ataun tenía previsto en el año 2000 el derribo de las casas situadas en esta zona del barrio de San Martín y la construcción en el lugar de viviendas de nueva planta. Este proyecto, después de haber estado paralizado un tiempo, se ha puesto de nuevo en marcha a finales del año 2002 y principios de 2003.

Antes de proceder al derribo del conjunto de casas, el ayuntamiento de Ataun nos encargó la realización de una intervención arqueológica. A la hora de redactar el proyecto contemplamos dos fases distintas: por un lado, recoger documentación histórico-arquitectónica de las casas que iban a desaparecer y, por otro, realizar un estudio arqueológico del solar en busca de vestigios anteriores a la construcción de las viviendas.

En este sentido, en este lugar se encontraba el canal que abastecía al molino Elizalde, situado más al norte, al lado de la iglesia de San Martín. La primera referencia al mismo data de 1408 y, desde entonces, ha estado en marcha más de cuatrocientos años. En 1894 reconstruyeron el molino, documentándose la última molienda en el año 1962[24]. Hoy en día aunque el edificio principal del molino se ha transformado en vivienda, todavía se conserva en buen estado la antepara, aprovechada como lugar de juegos.

Este molino utilizaba el agua del río Agauntza para mover las turbinas. La presa que abastecía el agua ha desaparecido hace unos años, pero el canal del mismo, por lo menos alguno de sus tramos, se ha conservado en el solar de las casas derribadas y debajo de la carretera al norte de las mismas.

A parte de estas estructuras, en los solares de las casas Ospital-enea y Sankristau-enea se hallaba un hospital, que acogía a los peregrinos del Camino de Santiago que pasaba por Ataun. Aunque no sabemos en que fecha se fundó, ya hay referencias del mismo en 1536[25].

---

[24] AGUIRRE SORONDO, A., *Tratado de molinología (Los molinos de Gipuzkoa).* Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1988, 351-352. orrialdeak.

[25] AAVV, *Ataun*. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, 1975, 100. or.

[24] AGUIRRE SORONDO, A., *Tratado de molinología (Los molinos de Gipuzkoa*). Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1988, pp. 351-352.

[25] AAVV, *Ataun.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1975, p. 100.

jada. Egungo eraikinak XVIII. mende aldera eraiki ziren eraikuntza zaharraren elementuetako batzuk aprobetxatuz, Santiagoren ustezko irudia dagoen nitxoa, besteak beste.

Hondakin horiek aurkitzeko asmoz, zundaketa arkeologikoak egin ditugu 2003ko urtarrilean. 8 izan dira guztira, eta baliabide mekanikoen bidez egin dugu lan. Eginiko aurkikuntzak, berriz, eskuz induskatu ditugu.

Lan arkeologiko horiei esker, Santiagoko ospitalearekin loturiko aztarnarik aurkitu ez badugu ere, bai dokumentatu ahal izan dugu Elizalde errotaren kanala. Azken urteetako material eta hondakinez betea zegoen kanal hori, eta etxeen atzealdean eta ibaiaren ertzean dauden baratzeen artean kokatzen da. Hareharrizko lauza erregularrez egina da, «U» formako sekzioa du, eta Ipar-Mendebalde/Hego-Ekialde norabidea, ibaiaren paraleloan. 1,32 m-ko zabalera eta 0,57 m-ko altuera ditu.

Los edificios actuales se construyeron hacia el siglo XVIII, aprovechando algunos elementos de la antigua edificación, entre ellos la hornacina donde está la supuesta imagen de Santiago.

Con el objetivo de localizar estos restos, hemos realizado sondeos arqueológicos en enero de 2003. En total han sido 8 y se han excavado por medios mecánicos. Los hallazgos encontrados, en cambio, se han excavado de forma manual.

Gracias a estos trabajos arqueológicos, aunque no hemos encontrado ningún vestigio relacionado con el hospital de Santiago, sí que hemos podido documentar el canal del molino Elizalde. Colmatado con material y deshechos de los últimos años, estaba situado entre la parte trasera de las casas y las huertas situadas en la ribera del río. Está construido con losas regulares de arenisca, con sección en forma de «U» y dirección noroeste-sureste, paralelo al río. Sus dimensiones son de 1,32 m. de anchura y 0,57 m. de altura.

Sonia San José Santamarta; Alfredo Moraza Barea



Elizalde errotaren kanalaren ikuspegi orokorra (Ataun).

Vista general del canal del molino Elizalde (Ataun).

D.3.1.3. **Altamira (Azkoitia)**

Zuzendaritza: Sonia San Jose
Finantzazioa: Azkoitiko Udala

D.3.1.3. **Altamira (Azkoitia)**

Dirección: Sonia San José
Financiación: Ayuntamiento de Azkoitia

As a result of the levelling of Altamira hill in Azkoitia, the local council requested an archaeological intervention to determine whether or not there were any archaeological remains in the area. The work revealed an open air settlement with a clear presence of metallurgic activities. Although we have no absolute data, the pottery remains lead us to believe that the settlement dates from the Iron Age. Its location near the fortified town from the same era called Munoaundi and closer still to San Martín de Iraurgi hill, where the original town of Azkoitia stood, makes the site extremely interesting. Unfortunately, before the work could be finished, the site was destroyed.

Azkoitiko Altamira muinoan urbanizazio proiektua aurrera eraman behar zutela eta, desagertu egingo ziren muino horretan dagoen izen bereko baserria eta baita muinoa bera ere, lurra berdindu egin behar baitzuten etxebizitzak eta aisiarako guneak eraikitzeko. Lan horiek egiten hasi aurretik, desagertu behar zen eremu horretan interbentzio arkeologikoa egitea erabaki zuen Azkoitiko udalak. Ustezko Eremu Arkeologiko gisa babestua ez badago ere, oso leku interesgarria da Iraurgiko San Martin eremutik, Azkoitiko lehen herrigunea da hori, eta Munoaundiko Burdin Aroko herrixkatik hurbil dagoelako.

Alde honetan egindako lehen kata arkeologikoek emaitza positiboa eskaini ziguten, eta horrenbestez, aukera izan dugu hedadura handiagoko zundaketak egiteko aurkikuntza horiek aztertu ahal izateko.

Lan horiei esker, aire zabaleko bizileku baten hondakinak aurkitu ditugu Altamirako muinoko mendebaldeko gainean, justu Iraurgiren aurrean. Okupazio maila bakarra dokumentatu dugu, errekarriz eginiko zoru antzeko baten gainean. Aurkitutako materialen artean, eskuz landutako zeramika zatiak jaso ditugu eta baita metalezko zepa hondakin ugari ere.

Oraindik datazio zehatzik ez dugun arren, dokumentaturiko zeramikaren ezaugarriei erreparatzen badiegu, Burdin Aroko finkamendu bat dela pentsa dezakegu. Bestalde, material multzoak eta material horien ezaugarriek pentsarazten digute prozesu metalurgikoek garrantzi handia izan zutela aztarnategi honetan.

Gipuzkoan azken hamarkada hauetan eginiko ikerketei esker, Gipuzkoako Azken Brontzeari eta Burdin Aroari buruz ditugun ezagutzak handiak badira ere, oraindik hutsune asko daude argitzeko. Ongi asko ezagutzen ditugun herrixka gotortu eta harrespilez gainera, pentsatu behar da, garrantzi txikiagoko habitatak ere egongo zirela han eta hemen, herrigune handiei loturik beharbada.

Ildo horretatik, Azkoitiko Altamiran aurkitutako aztarnategiak era horretako finkamenduei erantzuten diela dirudi: muino batean kokaturiko bizilekua da, itxuraz ez du defentsarako egiturarik, baina habitat egonkor baten ezaugarriak ageri ditu. Era berean, aipatzekoa

Debido al proyecto de urbanización de la colina de Altamira de Azkoitia, se proyectó la desaparición tanto del caserío con el mismo nombre situado en su cima, así como de la colina misma, allanando el terreno para la construcción de viviendas y zonas de recreo. Antes de iniciar estos trabajos, el ayuntamiento de Azkoitia decidió realizar una intervención arqueológica en la zona que iba a desaparecer. Aunque no esté protegida como Zona de Presunción Arqueológica, es un sitio muy interesante por su proximidad respecto a San Martín de Iraurgi, primer núcleo de población de Azkoitia, y respecto al poblado de la Edad del Hierro de Munoaundi.

Las primeras catas arqueológicas realizadas en la zona dieron resultado positivo, por lo que hemos tenido oportunidad de realizar sondeos de mayor extensión para estudiar los hallazgos.

Gracias a estos trabajos hemos encontrado restos de un lugar de habitación al aire libre en el collado oeste de la colina de Altamira, justo frente a Iraurgi. Hemos documentado un único nivel de ocupación, dispuesto sobre un posible suelo realizado con cantos de río. Entre los materiales encontrados se ha recogido fragmentos de cerámica fabricada a mano y abundantes restos de escoria de metal.

Aunque todavía no tenemos una datación precisa, atendiendo a las características de la cerámica documentada podemos pensar que se trata de un asentamiento de la Edad del Hierro. La concentración y las características del material, por otro lado, hacen suponer que los procesos metalúrgicos tenían gran importancia en este yacimiento.

Aunque gracias a las investigaciones realizadas en las últimas décadas en Gipuzkoa el conocimiento que poseemos sobre el Bronce Final y Edad del Hierro en Gipuzkoa es considerable, todavía quedan importantes lagunas por resolver. Además de los bien conocidos poblados fortificados y cromlechs hay que pensar que también existirían hábitats dispersos de menor entidad, en relación quizá con los grandes poblados.

En este sentido, el yacimiento localizado en Altamira de Azkoitia parece que responda a este tipo de asentamientos: lugar de habitación situado en un collado, aparentemente sin estructuras defensivas aunque con características de un hábitat estable. Al mis-

da, leku honetatik gertu dagoela Munoaundiko gotorlekua. Datazioek garai bereko aztarnategiak direla baieztatzen badute, datu horrek pentsarazten digu haien artean harreman zuzenak egon zitezkeela beharbada.

Bestalde, Munoaundiko gotorlekua hurbil egoteaz gainera, ez dugu ahantzi behar finkamendu hori Iraurgiko San Martindik hurbil dagoela halaber. Arkeolan Ikerketa Zentroak eginiko ikerketa lanen arabera, leku horretan kokatzen da Azkoitiko herriaren sorrera, eta Iraurgin erromatarren garaietatik egon liteke dokumentatua gizakiaren presentzia, eta noski, inolako zalantzari gabe, Goi Erdi Arotik aurrera. Testuinguru honetan, Altamiran aurkitutako finkamendua izan liteke herrigune horren jatorri zaharrena. Zoritxarrez, aztarnategia suntsitu egin dute landa-lanak amaitu aurretik.

mo tiempo, hay que resaltar la proximidad de este lugar y el poblado fortificado de Munoaundi. Este dato, si las dataciones confirman que se trata de yacimientos contemporáneos, nos puede hacer pensar que habría habido relaciones directas entre ellos.

Por otro lado, a parte de la proximidad con Munoaundi, no hay que olvidar que este asentamiento también esta cercano a San Martín de Iraurgi. Según los trabajos realizados por el Centro de Investigaciones Arkeolan, en este sitio se sitúa la fundación del pueblo de Azkoitia, pudiendo estar documentada la presencia humana en Iraurgi desde época romana, y sin ninguna duda desde la Alta Edad Media. En este contexto, el asentamiento encontrado en Altamira podría ser el origen más antiguo de este núcleo de población. Desgraciadamente, antes de terminar los trabajos de campo, el yacimiento ha sido destruido.

Sonia San José Santamarta

D.3.1.4. **Igartzako burdinola (Beasain)**

Zuzendaritza: Juantxo Agirre Mauleon
Finantzazioa: Beasaingo Udala
eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.1.4. **Ferrería de Igartza (Beasain)**

Dirección: Juantxo Agirre Mauleon
Financiación: Ayuntamiento de Beasain
y Diputación Foral de Gipuzkoa

During the archaeological intervention carried out on the Igartza iron mill complex, the ironworks structures built by Francisco de Ibero in 1782 were recovered, along with their hydraulic channel. An earlier version of the same structure was also excavated in clay, along with a roasting kiln dating from the Late Middle Ages.

Igartzako Monumentu multzoa ikertu eta eraberritzeko programarekin jarraitzeko, burdinola-errota multzo horren azpiegitura hidraulikoaren zati bat berreskuratu genuen 2003. urtean. Zehatz adierazteko, antepararen eta Igartza Segurako hiribilduarekin lotzen zuen galtzadaraino luzatzen zen kanalaren ibilguaren barnealdeak induskatu genituen lehenengo. Alde hori aukeratu genuen errotako makineria museo bihurtu eta ur zirkuitu itxi baten bidez abian jartzeko beharra zegoelako.

Arkeoikuska'02 argitalpenean adierazi genuen bezala, 1782an Francisco de Iberok eraikitako burdinolako tailerra eta ikaztegiak aurkitu ondoren, itxaropen handiak genituen arkeologia ikerketaren ikuspegitik begiratuta.

Antepararen hondoan, buztinezko deposituetan sarturik zeuden errekarriek osaturiko zolarriaren azpian, oraingoaren aurreko azpiegitura hidrauliko bati loturiko horma egitura bat dokumentatu genuen lehenengo. Haren kokalekua ez zetorren bat ez 1740ko errotarenarekin ez 1782ko burdinolarenarekin. Era berean, 5,50 metroko luzera eta 1,50 metroko zabalera zituen horma egitura hori lurreko buztinean induskaturi-

Continuando con el programa de investigación y restauración del Conjunto Monumental de Igartza, durante el año 2003 se procedió a la recuperación de parte de la infraestructura hidráulica de este complejo ferromolinero. En concreto en primer lugar se realizó la excavación del interior de la antepara y del cauce del canal existente hasta el puente de la calzada que unía Igartza con la villa de Segura. La elección de esta zona estuvo determinada por la necesidad de musealizar y poner en funcionamiento, mediante un circuito cerrado de agua, la maquinaría del molino.

Como ya se informó en *Arkeoikuska'02*, el descubrimiento del taller y las carboneras de la ferrería construidas en 1782 por Francisco de Ibero abrió mayores expectativas desde el punto de vista de la investigación arqueológica.

Bajo la solera de cantos rodados embutidos en los depósitos de arcillas del fondo de la antepara, se documentó en primer lugar una estructura muraría relacionada con una infraestructura hidráulica previa a la actual. Su emplazamiento no coincide con la existente tanto en el molino de 1740 como en la ferrería de 1782. Asimismo dicha estructura muraría de 5,50 m. de longitud por 1,50 m. de anchura se alineaba y en-

ko kanal baten ibilguarekin lerrokatu eta lotzen zen. Galtzadako zubiraino luzatzen zen kanal hori. Buztinean induskaturiko kanalaren zatia 26 metroko luzerara iristen da, eta zabalera, berriz, bi metrokoa da erdialdean eta metro batekoa muturretan. Hondakinak benetan interesgarriak zirenez, kanalaren eta antepararen barnealdean zegoen azalera guztia zabaleran ireki genuen. Aipatzekoa da, Francisco de Iberok 1782. urtean eginiko obra hartan burdinolako multzo hidrauliko guztia, eta horrenbestez, bertan zeuden tailerrak, goitik behera berregokitu zirela. Hain zuzen ere horregatik bihurtu da ikerketa taldearen helburu Igartzako burdin eta errota ustiapenarekin loturiko eraikuntza fase desberdinak aurkitzea.

Arkeologia erregistroak aukera eman digu horma egituraren azpian aurreko antepara baten zatia izango zena dokumentatzeko. Beste egitura bat ere azaldu zen, horrek oin zirkularra zuen, 3 metroko diametroa eta metro eta erdiko lodiera, eta arragoa edo labe bati zegokion; lurreko harri naturalean induskatua zegoen haren behealdea. Egitura horren barnealdea edo kubeta zepa, errekarri eta landu gabeko harriz betea zegoen. Altueran nabari zen harri horiek gero eta arreta handiagoz antolatu zirela, horma egitura osatu arte. Egituraren tipologiari, buztinean ageri diren su hondakigarzaba con el cauce de un canal excavado en la arcilla del terreno que se prolongaba hasta el puente de la calzada. El tramo de canal excavado en arcilla alcanza los 26 m. de longitud, y una anchura que oscila entre los dos metros de la zona media y un metro en los extremos. Ante el interés de los restos se procedió a la apertura en extensión de toda la superficie existente al interior del canal y de la antepara. Es necesario señalar que la obra de Francisco de Ibero realizada en el año 1782 supuso un completo reajuste de todo el complejo hidráulico de la ferrería y consiguientemente de sus talleres, por ello se ha convertido en objetivo del equipo de investigación la búsqueda de las diferentes fases constructivas relacionadas con la explotación ferrona y molinera de Igartza.

El registro arqueológico permitió documentar bajo la estructura muraría probablemente parte de una anterior antepara, otra estructura de planta circular de 3 m. de diámetro y metro y medio de potencia, correspondiente a una arragoa u horno; cuya parte inferior estaba excavada en la roca natural del terreno. El interior o cubeta de esta estructura estaba colmatada con escorias, cantos rodados y mampuestos que en su desarrollo en altura se depositaban cada vez de forma más cuidadosa y ordenada hasta formar una estructura muraría. La tipología de la estructura, los restos del



Arraguaren ikuspegia Igartzako kanale hidraulikoaren barnealdean.

Vista de la arragoa en el interior del canal hidráulico de Igartza.

nei eta kareharriari erreparatzen badiegu burdin-mea kaltzinatzeko arragoa edo labe baten aurrean egongo ginateke. Hauxe da, zalantzarik gabe, Igartzako burdin jarduerarekin loturiko testigantza arkeologiko zaharrena, eta Behe Erdi Aroan Kokatuko genuke haren kronologia. Guztien laginak bidali ditugu erradiokarbono bidezko datazioa egiteko.

fuego en la arcilla y la cayuela nos sitúan ante una arragoa u horno para la calcinación del mineral de hierro. Es sin duda el testimonio arqueológico más antiguo relacionado con la actividad ferrona en Igartza, cuya cronología situamos en la Baja Edad Media. Muestras de todo ello han sido remitidas para su datación radiocarbónica.

Juantxo Agirre-Mauleon; Arantza Aguirre Urteaga

D.3.1.5. **Boulevard zumardia, 10 (Donostia-San Sebastian)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar
Finantzazioa: Cnes. Amenabar, S.A.

D.3.1.5. **Alameda de Boulevard, 10 (Donostia-San Sebastián)**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar
Financiación: Cnes. Amenabar, S.A.

The archaeological intervention in the site located at number 10 Alameda de Boulevard revealed, once again, the vast archaeological potential of Donostia-San Sebastián and, more specifically, the southern end of the modern-day Old Part, which contains a number of important house-towers that were built up against the old medieval wall.
The use of these old structures belonging to the town's former buildings for modern purposes is something else that has been verified during the course of this archaeological excavation.

2002. eta 2003. urteetan interbentzio arkeologikoa egin dugu Donostiako Boulevard Zumardiko 10. zenbakian dagoen higiezinean, leku horretan etxebizitza eraikin berri bat egin behar baitute hainbat fasetan.

Alde batetik, higiezina eraitsi aurretik, eta zundaketa geoteknikoen emaitzak kontsultatu ondoren, hainbat kata egin genituen eskuz soto oinean. Geruza edo/eta egituren ezaugarriak ezagutzea genuen helburu, behin higiezina eraitsi ondoren zabaleran egingo zen indusketa arkeologikoa xehetasun handiagoz planifikatu ahal izateko.

Batik bat betegarri geruzak aurkitu nahi genituen (obra hondakinak, suteen ondoko hondakinak eta abar), Erdi Aroko deposituak egon zitezkeela eta bertan tresneria ugari egongo zela pentsatzen baikenuen inguruko beste orube batzuetan gertatu den bezala. Halaz ere, arestian aipaturiko kata horien emaitza zoladurak eta hondarrezko geruzak aurkitzea izan zen. Era berean, soto oinaren eraikuntza egiturak aurkitu genituen; lehenagoko eraikin batekoak ziren horiek berrerabili zituztenak.

Bigarren fasean, kontrol arkeologikoa egin genuen higiezina eraisteko lanak egin eta behe solairuko eta soto oineko hondakinak ateratzen ziren bitartean, espazio horietan oinarritzen baitzen jarduera arkeologikoa.

Aurreko eraikina eraitsi ondoren, hasi ginen benetan indusketa lana egiten, eta horretarako, eskuz lan egin genuen eta baliabide mekanikoak ere erabili genituen. Segurtasun alorrean obrak eskatzen zuena betetzeko, zabaleran induskatzen hasi aurretik, horma pan-

Durante el año 2002 y 2003 se ha llevado a cabo la intervención arqueológica en el inmueble sito en Alameda de Boulevard, n.º 10, en Donostia-San Sebastián afectado por la construcción de un nuevo edificio de viviendas en varias fases.

Por una parte, antes del derribo del inmueble y tras consultar los resultados de los sondeos geotécnicos se realizaron varias catas con medios manuales en la planta sótano. El objetivo era conocer las características de los estratos y/o estructuras de forma que se pudiera planificar con mayor detalle la excavación arqueológica en extensión que se llevaría a cabo una vez derribado el inmueble.

Nuestro interés se centraba, sobre todo, en la posible localización de estratos de relleno (escombros, incendio, etc.) que nos indujera a pensar en la existencia de depósitos de origen medieval con abundancia de ajuares como ha ocurrido en otros solares cercanos. No obstante, el resultado de las citadas catas fue el hallazgo de pavimentos y estratos de arena. Se registraron igualmente las estructuras constructivas de la planta sótano pertenecientes a una edificación anterior reaprovechada.

La segunda fase, se limitó a realizar un control del derribo del inmueble y desescombro de la planta baja y planta sótano, espacios donde se centraba la actuación arqueológica.

Derribado el inmueble anterior, se procedió a realizar la excavación propiamente dicha contando con medios manuales y mecánicos. Por exigencias de la obra en aspectos de seguridad, antes de iniciar la excavación en extensión, la promotora llevó a cabo las labo-

taila eraikitzeko lanak egin zituen sustatzaileak. Hura amaitu ondoren ekin genion indusketa lanari.

Obra-hondakinak atera ondoren, agerian geratu ziren soto oinean aurkitutako eraikuntza egiturak, eta xehe erregistratu genituen haiek. Hasierako lan horiek amaitu ondoren, eraitsitako higiezin horren aurreko eraikuntza baten egitura batzuk azaldu ziren, oso handiak ziren gainera. Hartan, hainbat eremu bereiz daitezke. Alde batetik, ekialdeko muturrean, neurri txikiko areto bat zegoen. Hura egiteko erabilitako materiala —hareharrizko silarria, kalitate handikoa—, eta ageri zituen eraikuntza aldaketak —baoetako betegarriak, zoladura maila desberdinak, sarrera aldatua eta abar— ikusita, pentsatu genuen espazio hori berrerabili eta eraldatu egin zutela.

Bestalde, eraikuntza egiturek patio ireki bat zehazten zuten. Patioaren erdian bi zutabe handi zeuden, neurri handiko putzu baten ondoan. Era berean, indusketa lanek aukera eman ziguten harkoskoz osaturiko zoladura bat erregistratzeko, bai esparruaren barnealdean bai kanpoaldean.

Indusketa lanak egiten genituen bitartean, segitu genuen zoladura horren azpian zeuden geruzak erregistratzen. Gehien bat, hondarrezko deposituak ziren, horixkak, eta aski antzuak. Kolore beltzaxka zuen hondarrezko geruza bakarra atzeman genuen, orubearen hegoaldean, eta ekialdetik mendebaldera luzatzen zen banda bat zehazten zuen horrek. Geruza horrek material arkeologikoa eskaini zigun, baina oraindik aztertzen ari da hori.

Patioaren erdialdean eskaini zizkiguten hondakin gehiago aurkikuntza arkeologikoek. Zutabeetako baten azpian, —mendebaldeko muturrean zegoenean—, putzu baten hondakinak aurkitu genituen, zurezkoa zen

res de ejecución del muro pantalla. Finalizado éste, comenzó la excavación.

Concluido el desescombro se dejaron al descubierto las estructuras constructivas localizadas en la planta sótano procediéndose a su registro detallado. Finalizadas estas labores iniciales, se dejaron al descubierto parte de las estructuras de una edificación, anterior al inmueble derribado, de grandes dimensiones. En ella, podíamos diferenciar áreas distintas. Por una parte, en el extremo este, destacaba una estancia de reducidas dimensiones que por su material constructivo, —sillería de arenisca de gran calidad—, y por sus modificaciones constructivas, —rellenos de vanos, distintos niveles de pavimento, acceso modificado, etc.—, nos hacía pensar en la reutilización y posterior transformación de este recinto.

Por otra parte, las estructuras constructivas definían un patio abierto, con dos grandes columnas en el centro junto a un pozo de grandes dimensiones. Las labores de excavación permitieron, asimismo, registrar un pavimento de cantos rodados que se localizaba tanto en el interior del recinto como el exterior.

Las labores de excavación continuaron registrando los estratos acumulados por debajo del citado pavimento. Mayoritariamente, se localizaron depósitos de arena, de color amarillento y bastante estéril. Sólo se halló un estrato de arena de color negruzco, en el extremo sur del solar, que definía una banda que se extendía de este a oeste, muy puntual. Este estrato aportó material arqueológico, aún en estudio.

Fue en el interior del patio donde los hallazgos arqueológicos aportaron mayor cantidad de vestigios. Bajo una de las columnas, —la situada en el extremo oeste—, se localizaron los restos de un pozo, de ma-



Indusketa eremuaren ikuspegi orokorra.

Vista general del área de excavación.

hura, neurri txikikoa. Haren ondoan, zurezko hainbat hesola azaldu ziren. Patioko putzuaren azpian agertu zen plataformarekin loturik egongo dira agian zurezko egitura horiek, hura ere zurezkoa baitzen. Egitura horiek guztiak xehe marraztu ziren eta bakoitza bere inbentario zenbakiarekin erregistratu zen, geroago Foru Aldundiak Agorregiko Burdinolan (Aia) dituen aretoetara eramateko.

Egitura eta geruzen erregistroa amaitu ondoren, baliabide mekanikoen bidez kendu genituen haiek. Era horretan, zimentazioaren datu zehatzak lortu ahal izan genituen, kota eta eraikuntza ezaugarriei zegokienean. Indusketa arkeologikoa amaitutzat eman genuen orubea hondar naturalen geruzetaraino erabat induskatuta geratu zenean.

dera, de pequeñas dimensiones. Junto a él, varias estacas de madera. Estas estructuras ígneas tal vez pueden estar relacionadas con la plataforma, también de madera, que se localizó bajo el pozo del patio. Se dibujaron detalladamente todas estas estructuras y se registraron con su correspondiente número de inventario para su posterior traslado a las dependencias que la Diputación Foral tiene en la Ferrería de Agorregi (Aia).

Finalizado el registro de las estructuras y estratos, se procedió a la eliminación de éstas con medios mecánicos. De este modo, se pudo obtener los datos precisos de la cimentación en cuanto a cotas y características constructivas. La excavación arqueológica se dio por finalizada una vez que el solar quedó totalmente excavado hasta los estratos de arena naturales.

Miren Ayerbe Irízar

D.3.1.6. **Unanue Zahar baserria (Donostia-San Sebastian)**

Zuzendaritza: M.ª Antonia Gereñu
Urzelai
Finantzazioa: Pribatua

D.3.1.6. **Caserío Unanue Zahar (Donostia-San Sebastián)**

Dirección: M.ª Antonia Gereñu
Urzelai
Financiación: Privada

Farmhouse located in the Añorga neighbourhood, in the municipality of Donostia-San Sebastián. The site was ravaged by fire in 2003, an event which affected the whole structure, resulting in an immediate reconstruction process which involved the entire building. The archaeological project carried out also included the excavation of the subsoil, the taking of dendrochronological samples, a detailed planimetric survey and an analysis of the walls. All this enabled us to establish the building's various construction phases, as well as the different uses to which it was put over the centuries.

Unanue Zahar baserria Añorga auzoan dago, Donostian. Eraikin hori landa turismorako erabiltzen zen 2003ko martxoan sute batean erre zen arte. Baserri horren egitura erabat hondatu zuen sute horrek, eta horrexegatik, bere berreraikuntza prozesuak jarduera globala eskatzen zuen eraikin osoan. Arrazoi horregatik, proiektu arkeologiko integrala egin genuen, eta hainbat azterketa-metodologia erabili genituen hartan: zorupearen indusketa, lagin dendrokronologikoak hartu eta paramentuen azterketa, eta erregistro planimetriko xehea ere egin genuen.

El caserío Unanue Zahar se sitúa en el barrio de Añorga, en Donostia-San Sebastián. El edificio se utilizaba como centro de agroturismo hasta el momento de su incendio, en marzo de 2003. El incendio sufrido por el caserío afectó de tal manera a la estructura del mismo que su proceso de reconstrucción implicaba una actuación global en todo el edificio. Este hecho motivó la realización de un proyecto arqueológico integral en el que se combinaron diversas metodologías de análisis: la excavación del subsuelo, la toma de muestras dendrocronológicas y la lectura de paramentos, así como un registro planimétrico detallado.

Eraikinaren egoera

Lanak hasi zirenean, aurri egoeran zegoen eraikina, horma perimetralak, horiek barrukoek baino kalte txikiagoa jasan zutelako, eta behe solairuko zurezko egituraren zati bat bakarrik baitzeuden zutik. Baserriak oin lauangeluarra zuen, 380.50 m^2-koa, bi isurialdeko teilatua zuen, eta behe solairua, lehen solairua eta estalkipea zituen. Hormen altxaera landu gabeko harriz egina zen, harlandu txikiak ageri zituen iparraldeko fatxadaren beheko aldean eta harlandu batzuk haren goiko aldean eta mendebaldean. Beste bi fatxadak, berriz,

Estado del edificio

Cuando se iniciaron los trabajos, el estado del edificio era de ruina, manteniéndose únicamente los muros perimetrales, menos dañados que los del interior y parte de la estructura de madera de la planta baja. El caserío presentaba una superficie en planta cuadrangular de 380.50 m^2 y cubierta a dos aguas, con una distribución de planta baja, primera y bajocubierta. El alzado de los muros era de mampostería con sillarejo en la parte inferior de la fachada septentrional y algunos sillares en la zona superior de la misma y de la occidental. Mientras

landu gabeko harriz eginak ziren soilik. Lau ertzetan harlanduek sendotzen zuten, kareharriak batzuk eta hareharriak besteak.

Barrualdeak itxura penagarria zuen benetan. Lehen solairua eta estalkipea desagertuak ziren erabat, eta banaketa bakar bat ere ez zuten kontserbatu, ez banaketa bertikalak ez horizontalak. Sagardoa egiteko dolare zaharraren hondakinik ez da kontserbatu ia. Fatxadako horma-artean, iparraldeen zegoenean, jatorrizko armazoiaren puska bat ere ez da kontserbatu. Zinbria lauko horma-artean, hortxe kulunkatzen da dolareko palanka, hareharrizko bi harroin dokumentatu genituen *in situ*, eta beste bat, lekutik mugitua; zutikoei eusteko oinarri lana egiten zuten horiek. Sutearen aurretik, bi bernietako bat altxatzen zen, eta horien gainean kulunkatzen zen dolarea, arrail angeluzuzena kontserbaturik.

Hurrengo horma-arteari balezta deitzen zaio, eta erdialdean hiru bernia edo zutoin bertikal mantentzen ditu beren kareharrizko harroinekin, eta uhalaren zati bat ere kontserbatu da. Dolareko azken horma-arteari, berriz, atzealdekoa deitzen zaio, eta hartan bi bernia ageri ziren; horiek jabaloi lana egiten zuten uhalari eusteko.

Interbentzioaren garapena

Baserriko paramentuen planimetria-adierazpen xehea osatzeko, ahoz eta argazkien bidez jaso genuen informazioa, eraikinari buruzko dokumentazioa bilatzeko lanak ez baitzigun inolako emaitzarik ekarri. AutoCad euskarri digitalean jasotako unitate estratigrafiko desberdinen fitxak egin ondoren, eraikinaren kronologia eta eraikuntza bilakaera prestatu genituen. Zegoen bibliografia kontuan harturik, eta erreferentzia gisa A. Santana irakaslearen sailkapena aintzat hartuta, lau denboraldi handi bereizi genituen, eta horiek faseetan banatu genituen aldi berean.

Denboraldi Gotiko-Errenazentista: XV. mendearen azken hamarkada-XVII. mendearen erdialdea

1. Fasea: jatorrizko baserri-dolarearen eraikuntza

Jatorrizko baserria XV. mendearen azkenean-XVI. mendearen hasieran eraiki zen. Jatorrizko eraikin horretatik, iparraldeko fatxadaren beheko gorputza eta mendebaldeko fatxadaren zati txiki bat baino ez dira kontserbatu. Hormak landu gabeko harriz eginak dira, harri horiek pseudoilaratan egokituak. Modulua heterogeneoa da, forma kubikoak ageri ditu, eta hareharrizko nahiz kareharrizko piezak erabili ziren hura egiteko. Zorua ukitzen duen eremuan, beheko ilarak lodiagoak dira eta zapata jarraitu edo zimentazio-bankua eratzen dute.

Baserriaren oina lauangeluarra izango zen, eta lau zeharkako habearte eta hiru luzerako habearte izango zituen. Kanpoaldeko hormak, beheko gorputzekoak bederen, landu gabeko harriz eginak izango ziren. Goiko gorputzeko itxiturak harrizkoak izango ziren agian, bilbadura landu gabeko harriz edo/eta adreiluz betea izango zuen, edo besterik gabe, zurezko oholez betea, que las otras dos se alzaban exclusivamente mediante mampuestos. Las cuatros esquinas tenían refuerzos de sillería tanto en piedra caliza como en arenisca.

El interior mostraba un aspecto desolador. El primer piso y la bajocubierta habían desaparecido por completo, no conservando ninguna de sus divisiones, ni compartimentaciones verticales, ni horizontales. De la antigua estructura del *tolare* o lagar de sidra apenas se conservaban restos. En la crujía de la *fachada*, la más septentrional, no se mantenía nada del armazón primitivo. En la de la *marrana*, donde oscila la palanca del lagar, se documentaban dos basas de piedra caliza *in situ* y otra desplazada que servían de apoyo a los pies derechos. Antes del incendio se alzaba una de las dos bernias sobre las que penduleaba el lagar, conservando la característica hendidura rectangular.

La siguiente crujía, denominada *ballesta,* mantenía en la zona central tres bernias o postes verticales con sus correspondientes basas de caliza y parte de la correa. De la última crujía del lagar conocida con el nombre de *trasera* se apreciaban dos de sus bernias con función de jabalcones que sustentaban la correa.

Desarrollo de la intervención

La representación planimétrica exhaustiva de los paramentos del caserío se completó con la recogida de información oral y fotográfica ya que la búsqueda de documentación relativa al edifico resultó totalmente infructuosa. Tras la elaboración de las fichas de las diferentes unidades estratigráficas representadas en soporte digital, se elaboró la evolución cronoconstructiva del edificio. Teniendo en cuenta la bibliografía existente y tomando como referencia la clasificación de A. Santana se definieron cuatro grandes períodos, subdivididos a su vez en fases.

Período Gótico-Renacentista: última década del siglo XV-mediados del siglo XVII

1.ª Fase: construcción del caserío-lagar primitivo

El caserío primitivo se alzó en una fecha temprana, finales del siglo XV-comienzos del siglo XVI. De la edificación primitiva tan sólo se conservan el cuerpo inferior de la fachada septentrional y una pequeña parte del de la fachada occidental. Los muros presentan una fábrica de mampuestos dispuestos en pseudohiladas. El módulo es heterogéneo, con una tendencia hacia formas cúbicas y se emplean tanto piezas de arenisca como de caliza. En la zona de contacto con el suelo, las hiladas inferiores se engrosan formando una zapata corrida o banco de cimentación.

La planta del caserío sería cuadrangular y estaría dividida en cuatro naves trasversales y tres longitudinales. Los muros exteriores, al menos los del cuerpo inferior, estarían fabricados con mampuesto. Los cierres del cuerpo superior podrían haber sido de piedra, de entramado relleno de mampuestos y/o ladrillos o simplemente de tablas de madera como ocurre en el ca-

Ezkio-Utsason, Igartubeiti baserrian gertatzen den bezala. Eraikinaren altuera bi solairutan banatuko zen, garapen horizontala izango zuen argi eta garbi, eta teilatua, berriz, bi isurialdekoa izango zuen.

Barrualdea dolareko makinaren inguruan eratuko zen. Sagardoa egiteko prentsa handi bat zuen, palanka eta zurezko torlojuarekin. Prentsa horrek esparru osoa hartuko zuen, zeharkako habearteetako bat izan ezik. Berniak, torloju bertikala eta luzerako habea zituen, eta horrexegatik, bigarren solairua diafano edo gardena izango zen ezinbestean. Etxebizitza eremuari dagokionean, haren fisonomia ezin dugu zehaztu, baina beste baserri-dolare batzuetan oinarritzen bagara, alboko horma-arteetako batean egongo zen seguru asko, suhesi batek babestua, edo bestela, «L» forma izango zuen.

2. Fasea: jatorrizko baserri-dolarearen zati handi bat suntsitu zuten eta orubea eraberritu zuten, XVI. mendearen lehen erdialdean

Baserria eraberritu zutenean, aparailu gotikoa sartu zuten eta arkuan bukatzen ziren bao batzuk erabili zituzten, eta horrek goratu edo hobetu egin zuen eraikinaren kanpoaldea. Barnealdean banaketa berbera mantendu zuten, behar-beharrezkoa dolareak jardunean jarrai zezan.

Iparraldeko fatxadan goiko gorputza landu gabeko harri kontzertatuz eta hareharri landuz osatua dago. Harlandu horiek erdialdean daude, eta hantxe irekitzen dira bi leiho pare germinatuak. Era berean, beheko gorputzean bi leiho txiki egokitu ziren, arkuan bukatuak, baina aurrekoak baino xumeagoak.

Mendebaldeko fatxadan altxaera osoa landu gabeko hareharriz egin zen, pseudoilara irregularretan kokatuak harri horiek. Zertxobait Iparralderantz emana dago sarrerako baoa eta hartatik oso gertu gezileihoa dago. Ateak erdi puntuko arkua du, harlanduz egina. Horma honen eta aurrekoaren arteko mihiztaketak halako egokitze arazo batzuk sortu zituen, zaharrena zertxobait lodiagoa baitzen. Gorabehera hori konpontzeko, horma berria eraiki zuten bestearen kanpoko trazatu berari jarraiki, eta horrenbestez, irtengunea barnealdetik soilik ikusten zen. Gauza berbera egin zen beste fatxadan ere, baina kasu honetan elkarren gaineko bi zoru dira, horietan azpikoa zeharragoa da eta gainekoa baino lodiagoa.

Ezer gutxi dakigu espazioaren barrualdeko banaketari buruz. Seguru asko, banaketa hori ez zen askorik aldatuko, baina goiko solairuan ageri diren leiho germinatu horiek esparru nobleagoa izango zela, eta egoitzarako erabiliko zela pentsarazten digute.

Denboraldi Barrokoa: XVII. mendearen erdialdea-XVIII. mendearen amaiera

1. Fasea: Gotiko berantiarreko estalkia desagertzea

Etxe honetako jarduera nabarmen igotzen joango zen mendean zehar. Beharbada maizterren kopuruak serío Igartubeiti, en Ezkio-Itsaso. La altura del edificio se articularía en dos plantas, con un claro desarrollo horizontal mientras que la cubrición se resolvería mediante un tejado a dos aguas.

El interior se articularía en torno a la máquina del lagar, formada por una gran prensa de sidra con palanca y husillo de madera que ocuparía todo el recinto, a excepción de una de las naves trasversales. La existencia de las bernias, el tornillo vertical y la viga longitudinal debió de provocar que la segunda planta fuera necesariamente un lugar diáfano. En cuanto a la zona de vivienda, no podemos precisar su fisonomía pero basándonos en otros ejemplos de caseríos-lagar, posiblemente se ubicaría en una de sus crujías laterales, aislada mediante un muro cortafuegos o bien, tendría una disposición en «L».

2.ª Fase: destrucción de gran parte del primitivo caserío-lagar y remodelación de la casa solar, primera mitad del siglo XVI

La rehabilitación del caserío supuso la introducción de un aparejo gótico y la utilización de diversos vanos rematados en arco que ennoblecieron el porte exterior del edificio. En el interior se mantuvo la misma distribución, necesaria para el funcionamiento del *tolare*.

Dentro del conjunto de maderas localizadas destaca el registro de dos estructuras de notables dimensiones y varios conjuntos de estacas, asociados todos ellos a los depósitos de época medieval, conservándose la mayoría de estos restos en buenas condiciones. Las dos construcciones, que corresponden a ingenios de características similares, están formadas por un pilar central y un encepado de tablas y viguetas, dispuestas en cuatro niveles. Las primeras hipótesis planteadas para la identificación de estas estructuras están relacionadas con las actividades propias de un lagar o *tolare* (en los niveles arqueológicos asociados se recogieron gran cantidad de semillas de fruta siendo la más abundante la de uva); sin embargo, serán las investigaciones en curso sobre todos los elementos hallados durante la intervención las que podrán aclarar la finalidad de los elementos localizados.

Pía Alkain Sorondo

D.3.1.9. **Orio IV ontzi-puska, Oria ibaian (Orio)**

Zuzendaritza: Manu Izagirre Lacoste
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Arazoetarako Zuzendaritza

D.3.1.9. **Pecio Orio IV, en río Oria (Orio)**

Dirección: Manu Izagirre Lacoste
Financiación: Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos del Gobierno Vasco

As a result of the construction of a fishing quay on the left bank of the River Oria in the town of Orio, Gipuzkoa, an initiative backed by the Ports and Maritime Affairs Department of the Basque Government, Insub carried out an underwater archaeological monitoring programme of the works.
During the works, divers encountered a wreck that was first discovered in 1993, and since it would have been destroyed by the building of the quay, the Gipuzkoa Provincial Government gave permission for its submarine excavation following the halting of the aforementioned works in the corresponding sector.
Called the Orio IV, the wreck was a patache venaquero *from the second half of the 16th century, measuring 11 metres in length and 5 metres across the beam and loaded with 34 tons of iron ore from the Somorrostro mining basin at the time of its sinking in the sandbank which lies at the mouth of the River Oria.*

Aurrekariak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura sailak, inguru hartan bi itsasontziri zegozkien hiru ontzi-puska eta burdinazko lingote kargamentu bat aurkitu zituztela eta, bi lehenengoen presazko urpeko indusketa sus-

Antecedentes

El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la vista de los hallazgos en la zona de tres pecios correspondientes a dos embarcaciones y un cargamento de lingotes de hierro, promovió en su

tatu zuen bere garaian, 1992 eta 93 urteetan, nahiz eta alde horretan inolako ustezko eremu arkeologikorik ez zegoen.

1993ko indusketan hirugarren patatxe bat aurkitu zuten, baina hartan interbentziorik ez egiteko erabakia hartu zen, une hartan aurrera eramaten ari ziren dragatze lanek ez baitzuten haren gainean inolako eraginik izango, obren Zuzendariak adierazitakoaren arabera.

2002. urtean, Oria ibaiaren ezkerraldean arrantzale kai bat eraikitzeko proiektua martxan zegoela eta, leku hartan bertan eta arestian aipaturiko aurrekari horiek kontuan harturik, Aldundiak zegokion ikerketa arkeologikorako proiektua idazteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietarako Zuzendaritza Nagusiari, nahiz eta eremu horrek inolako legezko babesik ez zuen oraindik.

Horretarako, 02/04/16an, INSUB Itsaspeko Ikerketarako Elkarteak ikerketa proiektu bat idatzi zuen. Honako lan hauek jasotzen zituen proiektu horrek; ibaia dragatzeko lanen kontrola obrei zegokien eremuan, miaketa lana 1993an ikusitako ontzia aurkitzeko eta haren indusketa.

2002ko udan hasi ziren ibaietako dragatze lanen eta obrek eragina zuten eremuen kontrolak, eta baita 1993ko ontzi-puska aurkitzeko ahaleginak ere, baina urriaren 15ean amaitutzat eman ziren arestian aipaturiko ontzi-puska hori aurkitu gabe.

2003. urtean, jada amaitua zegoen kaiko ohol-hormaren oinean harri-lubeta bat eraikitzeko egin ziren dragatze lanetan, maiatzean, azaldu zen azkenean ontzi-puska.

Lanen plangintza

Txosten hau Orio IV izeneko ontzi-puskaren kontrol arkeologiko eta urpeko indusketarako lanei dagokie, horiexek baitziren goian aipaturiko ikerketa proiektuaren helburuak.

Kontrola

Proiektuan planteatu ziren kontrolak bi eratakoak ziren. Lehenengoa, dragatze lanei zegokiena izan zen, eta 1993an ikusitako ontzi-puska aurkitzea genuen helburu, orduan «in situ» utzi baikenuen lehen adierazitako arrazoiengatik. Bigarren zeregina, etorkizuneko kaiaren obra proiektuan jasotako ibaiaren dragatze lanaren jarraipena egiteko planteatutako kontrola izan zen. Ibaiaren albeoan oinarritu ginen eta dragaturiko eremua begiz miatu genuen. Horri esker, mineral pilaketa bat ikusi genuen, 1993an induskatu zen Orio II petatxearen karga zen hura, orduan karga hondoan utzi baitzen epe arazoengatik eta interes arkeologiko handiegirik ez zuelako.

momento la excavación submarina de urgencia de los dos primeros, los años 1992 y 93, a pesar de que sobre dicha zona no recaía declaración de presunción arqueológica alguna.

Durante la excavación del 93 se localizó un tercer patache que se decidió no intervenir ya que las labores de dragado que se llevaban a cabo en aquel momento no le iban a afectar según la información de la Dirección de las obras.

En 2002, ante el proyecto de construcción de un muelle pesquero en la margen izquierda del Oria, en esta misma zona y teniendo en cuenta los antecedentes citados, Diputación instó a la Dirección General de Puertos y Asuntos Marítimos del Gobierno Vasco para que se redactara el oportuno proyecto arqueológico de investigación a pesar de que todavía la zona se encuentra sin ningún tipo de protección legal.

A tal efecto, con fecha 16/4/02 La Sociedad de Investigación Submarina INSUB redactó un proyecto de investigación que recogía el control del dragado de la ría en la zona correspondiente a la obras, la prospección para la localización de la embarcación hallada en 1993 y su excavación.

En verano de 2002 se comenzaron los controles de los dragados del río y de las zonas de influencia de las obras como los correspondientes a la localización del pecio del 93, que terminaron el 15 de octubre sin haber localizado el citado pecio.

Con motivo del dragado que en 2003 se realizó para la construcción de una escollera a pie del tablestacado del muelle ya terminado, en el mes de Mayo apareció el pecio.

Planificación de los trabajos

El presente informe corresponde a los trabajos de control arqueológico y excavación subacuática del pecio denominado Orio IV y constituían los objetivos del proyecto de investigación arriba citado.

Control

Los controles que se plantearon en el proyecto eran de dos tipos. El primero, que se ejecutó fue el correspondiente a los trabajos de dragado dirigido exclusivamente a la localización del pecio encontrado en 1993 y que entonces se mantuvo «in situ» por las razones expuestas. El segundo fue el control planteado para hacer el seguimiento del dragado de la ría contemplado en el proyecto de obras del futuro puerto. Se concentró en el albeo de la ría y se llevó a cabo por observación «de visu» de la zona dragada que permitió detectar una concentración de mineral que pudo identificarse como la carga del patache Orio II excavado en 1993, cuya carga se dejó entonces en el fondo debido a problemas de plazos y a su relativo interés arqueológico.

ORIO IV Ontzi-puskaren indusketa

Dragatze lanak egiten zituzten bitartean, zur landua ikusi ondoren, aurkikuntza hori begiz ebaluatu genuen, eta honako ondorio hauek atera genituen:

Aurkikuntza hori egin genuen lekuan ibaiaren hondoa hondarrezkoa zen, eta arrastan ekarritako material hondakin batzuk ere ageri zituen. Ez zion plano jarrai bati erantzuten, baizik eta zurgatze-dragatuak eragindako krater batzuk ziren, –6 kotara iristen zirenak, eta beste pilaketa batzuk, –3,5 metroko kotan. Gailur batean, krater horietako hiruren artean, –4 kotan, 20 cm-ko zur puska bat ageri zen, sekzio karratua zuen, 15 cm-koa, eta ertza, berriz, 30 cm-koa zuen eta lodiera 3 cm-koa.

Bi hondakin horiei gaineko hondarra kendu ondoren, ikusi genuen, krosko bakar baten zuakerra eta ohol-ilara zirela, hurrenez hurren, «in situ» zeudenak, multzoarekin batera.

Agertutako hondakinak oso hauskorrak zirenez eta aztarnategiaren hedadura zehaztu gabe zegoenez, 20 metroko babes-eremu bat zehaztu behar zela jakinarazi genion obraren arduradunari, harri-lubeta egiteko lanek ez baitzuten jarraitu behar eremu horretan.

Lehen urperaldiak egin genituen lan eremua ebaluatzeko, eta horren ondoren, lan programa zehaztu ahal izateko, hauxe da, amarratzeko puntuak kokatu mareen eta ontzi-puskaren posizioaren arabera, konpresorea eta zupatzailea kokatu, eta garabi eta kamioen sarbidea eta hurbiltze puntua zehaztu.

03/08/09an hasi ziren urpeko lanak, eta horiek bukatutakoan, ekin genien indusketaren ondoko lanei, hauxe da: garbiketa, lehengoratze lana, ontzi-puska osatzen zuten pieza desberdinen xehetasunen marrazkiak eta argazkiak egin, lehen fasean lortutako materialaren argazki dokumentazioa eta bideoak prozesatu. Era berean, ikerketa lanari zegozkion lanak ere hasi ziren: indusketan lortutako laginen azterketa, formak berreraikitzea, dokumentazio historikoaren azterketa eta abar, 2004an amaitzen joango direnak.

Urpeko lanen memoria

Lehen hiru egunetan ontzi-puskarekin zerikusirik ez zuten materialak kendu genituen, harri-lubeta, esate baterako, hura bota egin baitzuten obran, nahiz eta lan arkeologikoak egiteko eremua mugatu. Tm arteko blokeek osatua zegoen hura.

Beste materialak hondarra eta ibai-ohearen eta ontzi-puskaren artean zegoen alubioia ziren, eta leku batzuetan 1,80 metrora iristen ziren haren gainetik. Lan hau bi aire-zupatzailerekin egin zen, lehorrean zegoen konpresore batetik elikatuak horiek.

Itsasontziaren egituraren piezak azaldu ahala, etiketak jarri genizkien, galdu ez zitezen eta erregistroan

Excavación del Pecio ORIO IV

Tras la detección durante el dragado de la presencia de madera trabajada se procedió a la evaluar «de visu» el hallazgo, pudiéndose llegar a las siguientes consideraciones:

El fondo del río en la zona del hallazgo era de arena con algunos restos de material de acarreo. No obedecía a un plano continuo sino que por el contrario se trataba de una serie de cráteres de dragado de succión que alcanzaban la cota –6 y puntos de amontonamiento de cota –3,5 m. En un caballete entre tres de estos cráteres que se encontraba en la –4 asomaba un extremo de 20 cm. de una madera de sección cuadrada de 15 cm. y el borde de 30 cm. de una tablado 3 cm. de grosor.

Una vez despojados ambos restos de la arena superficial pudo comprobarse que se trataban de una cuaderna y una traca respectivamente de un casco único, que se encontraban «in situ» y solidarias al conjunto.

Ante la fragilidad de los restos aparecidos y la imprecisión de la amplitud del yacimiento se comunicó al encargado de la obra la necesidad de establecer una zona de respeto de 20m en la que no debían proseguirse los trabajos de vertido de escollera.

Las primeras inmersiones se llevaron a cabo con objeto de evaluar la zona de trabajo y poder así establecer el programa de trabajo, materializar los puntos de amarre en función de las mareas y la posición del pecio, ubicación y colocación del compresor y la chupona así como concretar el punto de acceso y aproximación de grúas y camiones.

Con fecha 9/8/03 dieron comienzo los trabajos submarinos que una vez terminados se comenzaron las labores de postexcavación, como son: limpieza, restauración, dibujo y fotografiado de detalle de las diferentes piezas constituyentes del pecio, procesado de la documentación fotográfica y video del material obtenido durante la primera fase, así como los correspondientes a la investigación: análisis de muestras obtenidas en la excavación, reconstrucción de formas, estudio de documentación histórica, etc., que se irán terminando durante el 2004.

Memoria de los trabajos submarinos

Durante los tres primeros días se procedió a labores de eliminación de materiales ajenos al pecio como la escollera que fue vertida en obra a pesar de haberse acotado la zona de trabajo arqueológico y que consistía en bloques de hasta una Tm. de peso.

Otros materiales eran la arena y aluvión existente entre la cota del lecho del río y el pecio, que en algunos lugares llegaba a 1,80 m. por encima del mismo. Este trabajo se llevó a cabo con dos chuponas de aire con alimentación desde compresor de baja en tierra.

A la vez que las piezas de la estructura del barco iban apareciendo se etiquetaban para evitar su pérdi-

jaso ahal izateko. Era berean, hausteko arriskuan zeudenak bendatan biltzen hasi ginen hautsiak edo multzotik berex zeuden zati txikiak elkartuta edukitzeko.

Hurrengo hiru egunetan, ontzi-puskatik garraiatzen zuen burdin-mea kentzen eta kanpora ateratzeko prestatzen aritu ginen. Era berean, etiketak jarri genituen eta argazkiak, bideoa eta marrazkiak egin genituen laginak hartzeaz gainera.

Ondoren, ontzi-puska xehe eta osorik garbitu genuen, behin karga atera ondoren erabat azter baitzitekeen. Era berean, bendak eta etiketak jarri eta argazkiak eta bideoa egiteko lana eraman genuen aurrera. Mikrogarbiketa lanaren fasea oso denbora egokia da laginak hartzeko, objektu txikiak berreskuratzeko, arkitektura xehetasunak behatzeko eta haien marrazkiak eta argazkiak egiteko.

Metodologia

Interbentzio hau presaka egin behar izan denez, idatzian zehar aipatu ditugun eraikuntza obra horien barnean egoteagatik, ez dugu aukerarik izan ikerketarako indusketa baterako nahi izango genuen epeetan indusketa egiteko.

Halatan, lan zail eta neketsuenak baztertu egin ditugu eta aukera xume eta azkarragoak bilatu ditugu, era honetako egoeretan soilik egiten direnak.

Bestalde, itsasontziaren arkitekturaren marrazketa krokizazio moduan egin da, kontuan izanik haren elementuak kontserbatu egingo zirela. Horrenbestez bi funtzio betetzen zituen, espazioan zuten erlazioa zehaztea eta dokumentu gida izatea geroko muntaiarako. Kontuan izan behar da itsasontziaren elementuetako bakoitzaren azterketa eta marrazketa xehea uretatik kanpo egin behar dela, aurrekontserbaziorako behinbehineko deposituan.

Arkitekturaren nahiz kargaren xehetasunen erregistro grafikoa bideo eta argazkien bidez egin dugu.

Kontuan izanik Orio IV ontzi-puskak arkitektura eta kargaz osaturiko tipologiari erantzuten ziola, hura induskatzeko ere metodologia desberdina erabili da bi alor horietan.

Bestalde, ibai-inguru aktiboko indusketetan ohikoa den bezala, hondoko oheak sistema txandatzaile ez itxiak dira, eta horrek esan nahi du deposituak aldian behin hainbat gorabehera jasaten zituela. Horregatik, zailtasun handiak daude era horretako testuinguruei loturiko materialak benetan ontzi-puskari dagozkion ala ez egiaztatzeko.

Horregatik, interes berezia izan dugu testuinguru itxiak aurkitzeko, erreferentzia gisa erabiltzeko kronologien erregistroak eskainiko baitzituzten horiek.

da y permitir su registro. De la misma forma, se comenzó a vendar las que se encontraban en peligro de rotura para mantener unidos los fragmentos menores que se encontraban rotos o sueltos del conjunto.

Los tres días siguientes se dedicaron a vaciar el pecio del mineral de hierro que transportaba y prepararlo para su extracción, mientras se llevaban a cabo tareas de etiquetado, fotografiado, video, dibujo y toma de muestras.

Seguidamente se acometió la limpieza pormenorizada y completa del pecio que al estar despojado de la carga podía estudiarse en su totalidad. A la vez, se llevaban a cabo las obligadas tareas de vendado, etiquetado, fotografiado y video. La fase de labores de micro-limpieza constituye el período idóneo para la toma de muestras, recuperación de pequeños objetos y observación de los detalles arquitectónicos, su dibujado y fotografiado.

Metodología

El carácter de urgencia de la intervención debido al hecho de contemplarse dentro de las obras de construcción referidas a lo largo del escrito, no ha permitido una excavación en los plazos que hubieran sido de desear para una excavación de investigación.

En este sentido, se han evitado las operaciones más complejas y costosas buscando alternativas más simples y rápidas, solamente justificables en situaciones similares.

Por otro lado, el dibujo de la arquitectura naval se ha llevado a cabo a modo de croquización habida cuenta de que los elementos de la misma iban a ser conservados, por lo que cumplía su doble función de relación espacial entre los mismos y documento guía para un posterior montaje. Debe tenerse en cuenta que el estudio y dibujo pormenorizado de cada uno de los elementos del barco deberá ejecutarse fuera del agua, en el depósito provisional de preconservación.

El registro gráfico de los detalles de la arquitectura como de la carga se ha llevado a cabo a base de video y fotografía.

Habida cuenta que el pecio Orio IV obedecía a la tipología habitual de un pecio compuesto de arquitectura naval y carga, para su excavación también se ha aplicado metodología diferente en ambos campos.

Por otro lado, como es habitual en las excavaciones en medio fluvial activo, los lechos de fondo consisten en sistemas alternantes no cerrados, lo que suponen depósitos sujetos a fluctuaciones periódicas. Por ello, existen serias dificultades para determinar que los materiales ligados a este tipo de contextos puedan considerarse como pertenecientes al pecio.

Por ello, se ha tenido especial interés en determinar contextos cerrados susceptibles de suponer registros de cronologías referenciables.

Horretarako, kontsideratu dugu, egon zitezkeen sistema itxiak itsasontziaren arkitekturari loturik egongo zirela, huraxe baitzen egitura iraunkor bakarra edo behintzat ez zen hain azkar aldatuko, etenik gabe estratigrafia aldaketak jasaten zituen inguru batean. Kontuan izanik ingurua oso aldakorra zela, egitura erdi-iraunkor bakarrak karga, hura harrizkoa eta astuna baita, zurezko arkitektura, hura ez delako erraz eraldatzen, eta bi horiek osatutako sistema dira.

Ildo horretatik, ezinbestekoa zen sistema itxi horiek bilatzea bi testuinguru horien artean, baina horietatik itsasontziaren arkitektura zen egokiena. Hartan, kontuan hartu behar ziren:

— Itsasontziaren egituran egon zitezkeen bolumen estankoak.
— Material koloidalak, kroskoaren eta itsasontziaren bizitza erabilgarriaren uneren batean haiekin loturik egongo ziren material aloktonoen artean lotura gisa jardungo zutenak.

— Fidagarria kontsidera zitekeen beste sistema kargaren eta itsasontziaren egituraren arteko lotura zen, kontuan harturik beti, karga bera isolatzaile nahikoa izango zela depositu aloktonoen sarreraren aurrean.

Klarak

Ildo horretatik, granelaren, kroskoaren, zuakerren eta aurkako bandetako entremitxen artean zeuden klarek osaturiko espazio itxiak aztertu genituen. Hauxe da, aurpegi lauak zituzten prisma luzeak granelaren hedadura osoan. Kontuan izanik istriborreko banda gehiago higatu dela denboraren joanean, eta gaur egun jada suntsitua dagoela ibaian egindako azken dragatze lanen ondorioz, banda horretan ez zegoen entremintxerik, eta horrenbestez, aipaturiko bolumen hori ezin zen itxitzat hartu, paralelepipedo bakoitzaren aurpegi bat falta baitzen granelaren azpian. Halaz ere, kontuan izan behar dugu, bolumen horiek inguru hurbileko material aloktonoz beterik zeudela, ia guztia hondarra, eta horrenbestez, nolabait esateko itxiak zeudela.

Espazio horiek beren sedimentazio paketearekin, nolabait ere esparruan itxiak daude, eta zaila da geroagoko kronologia bateko materialak sartu eta horiekin nahastea. Horrenbestez, testuinguru fidagarri eta itxia eskaintzen digute, arkitektura multzoaren garai berekoa, eta benetan interes berezia dute bertan jasotako material txikiak aztertzeko.

Esparru horietan, lehenengo, konkrezio bat aurkitu dugu, graneleko oholetan zehar sartutako mineral hautsaren deposituak sortua, produktu hori garraiatzen zen bitartean. Itsasoko urak hauts horretan izandako eraginak oxidazio-erreakzio bat sortu zuen, eta emaitza gisa, esparru horien hondoa estaltzen zuen ore moduko bat sortu zen, eta haren gainean gero eta hauts eta itsasoko ur gehiago pilatzen zen itsasontziaren bidaia bakoitzean. Konkrezio hori klara batzuetan gehiago nabari zen besteetan baino, granelak lasaiera

Para ello, se ha considerado que los sistemas cerrados que podían existir debían estar vinculados a la arquitectura naval, por constituir la única estructura permanente o menos deformable frente a un entorno sujeto a variaciones permanentes de las estratigrafías. Habida cuenta de la variabilidad del entorno, las únicas estructuras semipermanentes son la carga, dada su naturaleza pétrea y pesada, la arquitectura lígnea, por su escasa deformabilidad y el sistema determinado por ambos.

En este sentido, era imprescindible buscar estos sistemas cerrados entre ambos contextos, pero de ellos la arquitectura naval constituía le estructura más idónea. En ella, había que recurrir a:


— Los volúmenes estancos que podían existir en la estructura del barco.
— Las materias coloidales que actuarían como ligazón entre el casco y los materiales alóctonos que pudiesen haber estado en relación con los mismos en algún momento determinado de la vida útil del barco.
— Otro sistema que pudiese considerarse fiable era la unión entre la carga y la estructura del barco considerando siempre que la carga misma fuese suficientemente aislante a las penetraciones de depósitos alóctonos.


Claras

En este sentido, se analizaron los espacios cerrados constituidos por las claras encerradas entre el granel, el casco, las cuadernas y los entremiches de las bandas opuestas. Es decir, prismas alargados de caras planas en toda la extensión del granel. Habida cuenta de que la banda de estribor se había erosionado más a lo largo del tiempo y actualmente se había destruido durante el último dragado del río, no existían entremiches en dicha banda, por lo que el volumen mencionado no podía considerarse cerrado, pues faltaba una de las caras de cada paralelepípedo bajo el granel. Sin embargo, debemos tener en cuenta que estos volúmenes se encontraban colmatados de materiales alóctonos pertenecientes al entorno inmediato, en su casi totalidad arena y por lo tanto, en cierto modo sellados.

Estos espacios con su paquete de sedimentación, sellados por el confinamiento del recinto son difíciles de contaminar con la penetración de materiales de cronología posterior lo que nos proporciona un contexto fiable, cerrado, coetáneo al conjunto arquitectónico y de excepcional interés para el estudio de materiales menores contenidos en el mismo.

En estos recintos se han localizado, en primer lugar, una concreción producida por el depósito de polvo de mineral introducido a través de las tablas del granel, durante los transportes de dicho producto. La acción del agua marina con el polvo produjo una reacción de oxidación que dio como resultado una masa que tapizaba el fondo de los citados recintos sobre la que se iba acumulando más polvo y agua de mar en cada viaje del barco. Esta concreción era más patente en unas claras que en otras, coincidiendo sin duda,





Egituraren planoa-Zuakerrak eta ontzi-puskaren argazki orokorra.

Plano estructural-Cuadernas y foto general del pecio.

handienak zituen lekuetan gertatzen zen hori, tarte horietatik hauts gehiago sartzen baitzen.

Konkrezio horren gainean, eta ababorreko bandaren ertzean, esparruak ixten zituzten entremitxen ondoan, kalamuzko bi soka puska aurkitu genituen, hiru kordakoak, 8mm Ø-koak. Horietako batek 13 cm-ko luzera zuen eta besteak 9 cm-koa eta korapilo arrunta osatzen zuen.

Alde berean aurkitutako beste objektu bat larruzko oinetako bat izan zen.

Koloideak

Testuinguru itxien barnean, elementu koloidalek osatzen dute bigarren multzoa, eta horiek, duten itsasteko ahalmenagatik soilik harrapa ditzakete materialak. Itsasontziek, batzuetan, ontzietan sartuta eramaten zituzten istinkatze-oreaz ari gara.

Ontzi-puska honetan istinkatze-ore bat zegoen ontzirik gabe korastaren gainean. Lehen egiaztapen gisa, esango dugu, zeramikazko bi objekturen 14 zati aurkitu ditugula ore horretan itsatsiak.

Ontzi-puskaren deskribapena

Aztertzen ari garen ontzi-puska hau haritz-zurez eginiko itsasontzi batena da, eta burdin-meaz kargatua zegoen; campanil edo goetita motakoa zen gehiena eta limonitak ere baziren, baina kopuru txikiagoan. 23 Tm berreskuratu dira guztira.

Patatxe venaquero, arrufero edo chumaquero moldeko itsasontzia da, kostaldean zehar mea garraiatzeko erabiltzen ziren horietakoa.

Kaiko metalezko *ohol-horma* eraiki zutenean ontzi-puska ebaki zuen, eta 7,40 metroko luzera gorena utzi zuen korastatik egungo *ohol-hormaraino*, hauxe da, ageriko lekuan. Kontuan izanik ebaki hori zuaker nagusia baino zertxobait branka alderago egin zela, esan dezakegu, heren bat baino zerbait gehiago gelditu dela eraikitako kaiaren azpian.

Haren zabalera gorena 5 metrokoa da gutxi gorabehera *ohol-hormatik* gertuen dagoen aldean.

Dauden hondakinengatik, ezin dugu behar bezala neurtu, baina bai bere *zabalera*, *luzera* eta *garaiera* antzeman.

Gilaren orientazioa 80°-koa da, eta ontzi-puskaren sakonera –5 metroko kota da, portuari dagokion takimetro orokorraren arabera.

Arkitektura

Jobalta-jenol sistemaren bidez eraikitako itsasontzia da, kroskoa 3 cm lodiko ohol-ilaraz osatua du, *ohol-ilarak topeka* egokituak; barrualdeko oholtza hacon las mayores holguras del granel por las que la penetración del polvo era mayor.

Sobre esta concreción y en el extremo de la banda de babor, junto a los entremiches que cerraban los recintos se pudo recuperar dos fragmentos de cuerda de cáñamo de tres cabos de 8 mm. de Ø. Uno de ellos medía 13 cm. de long y el otro 9 y formaba un nudo simple.

Otro objeto aparecido en la misma zona es un calzado de cuero.

Coloides

Dentro de los contextos confinados, el segundo tipo es representado por los elementos coloidales susceptibles de capturar materiales por su simple poder de adhesión. Nos referimos a las resinas de calafate que las embarcaciones, en ocasiones solían llevar, introducidas en recipientes a tal efecto.

En este pecio existía una masa de resina sin recipiente sobre el codaste. Como primera constatación se ha podido observar la presencia de 14 fragmentos de dos objetos de cerámica adheridos a la masa.

Descripción del pecio

El pecio en cuestión se compone de una embarcación de madera de roble cargada de mineral de hierro, mayoritariamente en sus variedades de campanil o goetita y limonita en menor cantidad, de las que se han recuperado 23 Tm.

Se trata de una embarcación de tipología de *patache venaquero, arrufero o chumaquero,* empleados para el transporte de mineral a lo largo de la costa.

El *tablestacado* metálico del muelle en su construcción cortó el pecio, dejando una longitud máxima desde el codaste hasta el actual *tablestacado*, es decir de la parte visible de 7,40 m. Teniendo en cuenta que el corte se ha producido algo más a proa que la cuaderna maestra podemos decir que ha que ha quedado algo más de un tercio bajo el muelle construido.

Su anchura máxima existente y que corresponde a la zona más cercana al *tablestacado* es de 5 m. aprox.

Por los restos existentes no podemos medir, aunque sí deducir su *manga, eslora y puntal.*

La orientación de la *quilla* es de 80° y la profundidad del pecio es la cota –5 m. del taquimétrico general correspondiente al puerto.

Arquitectura

Se trata de una embarcación construida con sistema *varenga-genol*, casco de *tracas a tope* de 3 cm. de grosor y forro interior a base de un *granel de tracas*

ritz-zurezko *ohol-ilara solteez* eginiko *granelak* osatzen du, eta hark estaltzen duen espazioa ia bat dator *kuenta-jobaltek* okupaturikoarekin.

Graneleko ohol-ilaren luzeraren artean alde garbia dago *istribor* eta *ababorreko bandetan*. *Istriborreko* lehen *ohol-ilara*, *gilagainetik* aurrera, 70 cm baino gehiago ez duten oholek osatzen dute. Helburua zen horiek eskuz altxatzea *klarak* garbitu eta bertako ura *xukatu* ahal izateko. Kontuan eduki behar dugu itsasontzi honetan *jobaltek* ez zutela *soka-zulorik* itsasontzian sartutako ura haien eta *gilaren* artean pasatzeko, eta horrenbestez, ur hori *klaretan* gelditzen zen eta klara horiek eskuz xukatu behar ziren. Zirkunstantzia horrek arazo handiak sortzen zituen itsasontzitik ura *xukatxeko* garaian, hura kargatuta zegoenean, kargarengatik eta *granelarengatik* ezin baitzen *klararen* hondora iritsi. Horrenbestez, ura *xukatzeko* modu bakarra itsasontzia *eskoratzea* zen, eta hori *lehen estekaduraren* paren egin behar zen, *graneletik* kanpo. Horretarako, itsasontzia ongi *eskoratu* behar zen eta zeharraldietan itsasoarekin ezin zen. *Granelean* inolako *arkerarik* ere ez da azaldu mearen artetik *kindurtza* mailaraino ponpa bat sartzeko edo. Horren guztiarengatik, hori guztia aztertzea funtsezkoa dela uste dugu.

Itsasontziak zuen *masta* bakarra *gilagain* baten gainean ezarria zegoen, 10 × 5 cm-ko *garlinga prismatiko* batean oinarritua eta 7 cm-ko sakoneran, 304 eta 306 *jobalten* artean. *Gilagain* hori brankatik txopara doa, *kuenta-jobalten* luzera okupatuz.

Kuenta-jobaltak 5 dira *zuaker nagusiaren* brankan eta bost txopan eta hori 306 zenbakiduna da. Txopakoak honako hauek dira: 47, 48, 302, 303 eta 304. Branka aldera 4 daude agerian, hauxe da: 307, 308, 309, 310. Branka aldeko bosgarrena orain dela gutxi eraiki den kai berriaren azpian egongo da, seguru asko.

Gilagaina behin-behinean iltzatu egin zuten eraiki zutenean, burdin forjatuzko lau iltzez josi baitzuten; albo batetik *gilagainaren* aurpegietan sartzen ziren horiek eta 48 eta 308 *jobaltetaraino* iristen ziren.

Elementu hori itsasontziaren gainerakoarekin finkatzeko, burdinazko bi *berno* erabili zituzten, 12 mm-koak eta sekzio zirkularrekoak, eta *gilagaina*, 302 eta 307 *jobaltak* eta *gila* zeharkatzen zituzten horiek.

Txopa laua da eta bere *korastak* pieza zuzen bat du, *gilari* mihiztaketa konplexu batez lotzen zaiona. Lotura horren zurruntasuna buxarda moduan egokitutako *zapata* baten bidez lortzen da, *gila* eta korasta burdinazko *bernoen* bidez lotzen baititu.

Gilak ez du sekzio iraunkorra bere ibilbide osoan. Bere asentu-*hegatsez* osatutako tipologia, *lehen ohol-ilararekin* eta *txopako* haren muturra *taloiarekin*, XVI. mendearen hasirakoa da, eta 1565. urtean hondoratu zen San Juan Euskal baleontzian dugu erreferenterik hurbi-

sueltas de roble que cubre un espacio que coincide casi con el ocupado por las *varengas de cuenta.*

Existe una diferencia clara entre la longitud de las *tracas del granel* en las *bandas de estribor y babor.* La primera *traca de estribor* a partir de la *sobrequilla* se encuentra compuesta de tablas no mayores de 70 cm. El objeto era facilitar su levantado manual para permitir la limpieza de las *claras* y su *achicado*. Debemos tener en cuenta que las *varengas* en este barco no tenían *groeras* que permitiesen discurrir entre ellas y la *quilla* el agua embarcada, por lo que la misma quedaba estancada en las *claras* y había que achicarlas individualmente de forma manual. Esta circunstancia plantea serios problemas a la hora del *achique* de la embarcación cuando esta se encontraba cargada ya que no era posible llegar al fondo de la *clara* a causa de la carga y del *granel.* Por lo tanto, la única forma de *achique* era *escorando* el barco y hacerlo a la altura de la *primera ligazón*, fuera del *granel*. Para ello era necesario *escorar* considerablemente la embarcación y durante travesías con mar no era posible. No ha aparecido tampoco ninguna *arquera* en el *granel* que permitiese introducir una bomba entre el mineral hasta el nivel de *sentina*. Por todo ello, consideramos que es una fundamental materia a investigar.

El único *mástil* de que constaba la embarcación y del que no ha aparecido rastro alguno, iba implantado sobre una *sobrequilla* alojándose en una *carlinga* prismática de 10 × 5cm y una profundidad de 7 cm. emplazada entre las *varengas* 304 y 306. Esta *sobrequilla* se extiende en dirección *proa popa* ocupando la envergadura de las *varengas de cuenta.*

Las *varengas de cuenta* son 5 a proa y 5 a popa de la *cuaderna maestra* que es la 306. Las de popa son: 47, 48, 302, 303 y 304. Hacia proa hay a la vista 4, como son: 307, 308, 309, 310. La quinta hacia proa estará bajo el nuevo muelle recién construido.

La *sobrequilla* iba clavada provisionalmente durante su construcción por medio de cuatro clavos de hierro forjado que lateralmente penetraba en las caras de la *sobrequilla* y llegaban a las *varengas* 48 y 308.

La fijación de este elemento con el resto de la embarcación se producía con dos *pernos* de hierro de 12mm de sección circular que atravesaban la *sobrequilla, las varengas* 302 y 307 y la *quilla.*

La *popa* es plana y su *codaste* consta de una pieza recta se une a la *quilla* por medio de un ensamblaje complejo y la rigidez de la unión se garantiza a base de una *zapata* a modo de curvatón que une la quilla y el codaste por medio de *pernos* de hierro.

La *quilla* no es de sección constante en todo su recorrido. Su tipología de *aletas* de asiento con la *traca de aparadura* y su extremo de *popa* con *talón* se remonta a comienzos del s. XVI y el referente más inmediato lo tenemos en el ballenero vasco San Juan hundi-

lena. Seguru asko haren ahaide hurbilena izango dugu hau tipologiaren eta kronologiaren ikuspegitik ere.

Indusketan 306 erreferentzia eman diogun *zuaker nagusia* osorik dago, ez ordea istriborreko bi *jenolak*, horiek hautsi egin baitziren ibai-ohearen maila jaitsi eta egungo kaiko *harri-lubetaren* oina jartzeko dragatze lanak egin zirenean. Obra horietan azaldu zen, hain zuzen ere, ontzi-puska.

Istriborreko aldean jenolen oinarriak soilik kontserbatzen diren bitartean, *ababorrekoan* guztiak ageri dira, baita *lehen estekaren* oinarriak ere. *Lehen estekarik* agertu ez bada ere osorik, bada pieza oso gisa aurkezteko, eta horrenbestez, *karelaren* neurrira iristeko oso gutxi falta zaion piezaren bat, karel horren pieza bakar bat ere ez baita existitzen.

Karga

Burdin-meaz osatua dago, gehienbat goetita edo campanil, burdinan %75eko aberastasuna du, eta gainerakoa limonita eta beste batzuk dira. Kontuan izanik Somorrostroko meatze-aldeak benetan mea aukera aberatsa duela, 2. kalitateko karga baten aurrean geundekeela esango genuke.

Burdinaren ekoizpenean eta manufakturan, beharrezkoa zen, oinarriko meak fabrikatu beharreko objektuaren araberako aberastasuna izatea. Ildo horretatik, ohikoena zen mea mota hori erabiltzea, nahiz eta lehen kaltzinazio fase bat pasa behar zuen. Esan beharrik ez dago horrek egite-prozesua zailtzen zuela.

Oria ibaian aurkitutako hondakinetatik, Orio I-ean soilik egiaztatu genuen *bena* bezalako lehen mailako kalitateko mearen garraioa. %80 eta 90en arteko burdin aberastasuna du mea horrek

Kontserbazio egoera

Ontzi-puska osatzen zuten elementuak aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera ahal izan genituen.

Itsasontzia:

— *Metalezko elementuak*.
— *Zeramikazko elementuak.*
— *Elementu organikoak.*

Karga:

— *Metalezko elementuak*.

Metalezko elementuak, Ontzi-puskari loturiko metalezko elementuak oso gutxi izan dira.

Itsasontziaren egiturarekin bat egiten ez zuten elementuen artean ez da metalezko elementurik agertu. Guregana iritsi den itsasontziaren arkitekturan dauden metalezko elementu bakarrak honako hauek dira: *gilagaina* eta *gila* elkartzeko bi *berno* forjatuak, *korastako* zapata *gilarekin* lotzeko bi *bernoak* eta 4 iltze, horiek

do en 1565. Posiblemente nos encontremos también ante su pariente más cercano desde el punto de vista tipológico y cronológico.

La *cuaderna maestra siglada* en la excavación con la referencia 306 se encuentra entera, no así los dos *genoles* de estribor que fueron desgarrados por la draga que rebajó el nivel del lecho del río para alojar el pie de *escollera* del muelle actual, en cuyas obras apareció el pecio.

Así como en la *banda de estribor* tan sólo se conservan los arranques de los *genoles* en la de *babor* permanecen la totalidad de ellos incluso los arranques de la *primera ligazón*. Aunque no haya aparecido ninguna *primera ligazón* entera hay alguna pieza que le falta muy poco para presentarse como pieza entera y por lo tanto poder llegar a la medida de la *borda* de la que no existe pieza alguna.

Carga

Esta compuesta de mineral de hierro, mayoritariamente de goetita o campanil con una riqueza en hierro del 75% y el resto de limonita y otros. Teniendo en cuenta la riqueza de las variedades de la cuenca minera de Somorrostro podemos decir que nos encontramos con una carga de 2.ª calidad.

En la producción y manufactura del hierro era preciso que el mineral de base fuese de la riqueza específica según el objeto a fabricar. En este sentido lo habitual era emplear este tipo de mineral aunque necesitase una primera fase de calcinación que naturalmente complicaba el proceso de elaboración.

De los restos encontrados en la ría del Oria tan sólo en el Orio I se detectó un transporte de mineral de primera calidad como la *vena* con una riqueza en hierro entre el 80 y el 90%

Estado de conservación

Analizados los elementos constitutivos del pecio pudo llegarse a las siguientes conclusiones.

Embarcación:

— *Elementos metálicos*.
— *Elementos cerámicos.*
— *Elementos orgánicos.*

Carga:

— *Elementos metálicos*.

Los elementos metálicos vinculados al pecio han sido muy escasos.

Entre los objetos no solidarios a la estructura naval no ha aparecido ningún elemento metálico. Los únicos elementos metálicos existentes en la arquitectura del barco que llegó hasta nosotros correspondían a los 2 *pernos* forjados de unión entre la *sobrequilla* y la quilla, los dos de unión de la zapata del *codaste* con *la*

ere forjatuak, *gilagaina* azpian dituen *jobaltetako* birekin elkartzen dutenak. Metal horren aztarnarik ere ez zen gelditzen, okupatzen zituzten hutsuneak eta oxido hondarrak soilik ageri baitira kokatuta zeuden lekuan.

Burdinazko materiala desagertu egin da oxidazioaren eta ekintza galbanikoaren eraginez, burdineriako burdin forjatuaren beraren eta burdin-mearen artean, metal urrikoa hura, baina huraxe zen ontzi-puskan zegoen karga eta 400 urtean zehar elkarrekin egon dira ur gaziko inguru batean, soluzio bikaina baita hori elektrolito gisa. Horrek guztiak, eta inguruan oxidazio handia eta tenperatura epela izateak, korrosio eragina sortu zuen, eta ez zuen burdinazko elementu bakar bat ere mantentzen utzi.

Mea ezin da metalezko elementu gisa hartu ganga masa handia duelako. Karga ez dago mea mota berdinez osatua, eta horrenbestez, mea mota bakoitzaren araberakoa da kontserbazio egoera.

Zeramikazko elementuak

Berreskuratu diren zeramikazko elementu bakarrak istinkatze-oreari itsatsitakoak dira, eta objektu bakar baten zatiak dira denak, kontserbazio egoera onean guztiak ere.

Elementu organikoak

Kaiaren oineko harri-lubeta botatzeko obrak egin zituztenean dragak ateratako zura aztertu ondoren, egiaztatu ahal izan genuen oholtzatik hautsitako zura zela. Aski ongi kontserbatua zegoen, urpean aztertutako zur multzo osoa ez bezala. Horrek pentsarazten zigun eremu batzuk besteak baino degradatuagoak zeudela itsasontzian bertan. Izan ere, gorabehera hori egiaztatu ahal izan genuen indusketan, baina «a priori» ez genuen horren adierazpen garbirik.

Azkenik, pentsatu genuen, hondoko hondarraren mugimenduen ondorioz, ontzi-puskaren zati batzuk beharbada hondarretik kanpo geratu zirela denboraldi batean eta itsasoko urean dagoen oxigenoak eta ibaian dauden ur beltzetatik etorritako bakterioek eragina izan zutela zuraren alde batzuetan. Sedimentazio fluktuazio horiek eragina izango zuten, halaber, bere ph-ren gorabeheretan.

Zura alde batera utzita, honako hauek dira indusketan agertu diren hondakin organiko bakarrak:

— Oinetako baten zola eta larru puska bat. Larruak ez zuen bat ere itxura sendoa eta gaur egun lehengoratze prozesuan dago.
— Istinkatze-orea.
— Istinkatze-orea ohol-ilaren artean landare hondakinekin, seguru asko kalamua. Istinkatze-orea ia ez da bat ere hondatzen uretan, eta horrenbestez, egoera onean zegoen.

quilla y los 4 clavos, también forjados, que unen la *sobrequilla* con dos de las *varengas* que pisa. De este metal no quedaba resto alguno, tan sólo los huecos ocupados por ellos y los restos de óxido en el lugar que ocuparon los mismos.

La desaparición del material férreo se debe a la oxidación del mismo y a la acción galvánica entre el propio hierro forjado de los herrajes y el mineral de hierro, pobre en metal, pero que constituía la carga existente en el pecio y que durante los 400 años han permanecido juntos en un medio acuoso salino, ideal solución como electrolito. Todo ello unido a la elevada oxidación del medio y a una temperatura templada produjo un efecto corrosivo que no permitió que permaneciese elemento alguno de hierro.

No puede considerarse el mineral como elemento metálico dado que le acompaña una masa importante de ganga. La carga no está compuesta por el mismo tipo de mineral por lo que su estado de conservación depende de cada tipo de mineral.

Elementos cerámicos

Los únicos restos de cerámica que se han recuperado son los que han aparecido adheridos a la masa de calafate y son fragmentos de un mismo objeto, todos ellos en buen estado de conservación.

Elementos orgánicos

Tras el análisis de la madera extraída por la draga durante las obras de la escollera del pie de muelle, pudo comprobarse que se trataba de madera desgarrada perteneciente a la *tablazón,* cuyo relativo buen estado de conservación no concordaba con el de la totalidad de la madera analizada bajo el agua. Lo cual permitía pensar que existían zonas más degradadas que otras en el propio barco. De hecho esta circunstancia pudo comprobarse en la excavación sin una explicación clara «a priori».

Finalmente, se planteó la hipótesis de que a causa de movimientos de la arena del fondo, zonas del pecio pudiese haber quedado fuera de la misma durante el tiempo suficiente para que la acción del oxígeno existente fundamentalmente en el agua marina y las bacterias procedentes de las aguas fecales existentes en el río actuasen en determinadas zonas de la madera. Estas fluctuaciones de sedimentación de acarreo también habrán influido habida cuenta de de las oscilaciones de su ph.

Al margen de la madera los únicos restos orgánicos que han aparecido en la excavación son:

— Un calzado compuesto por la suela y parte de la caña. El cuero ofrecía un aspecto poco consistente y actualmente se encuentra en restauración.
— Calafate en masa.
— Calafate entre tracas con restos vegetales, posiblemente cáñamo. El calafate prácticamente no se deteriora en medio acuoso por lo que su estado es bueno.

Ikerketaren konklusioen aurrerakina

Itsasontziaren karga hipotetikoa hondoratu zenean: 34 Tm.

Ontzi-puskaren luzera hipotetikoa: 11,20 m, edo 34 oin.

Karga Somorrostroko meatze-aldetik zetorren, mea motari erreparatzen badiogu. Oriaren ibai-portuetan deskargatu aurretik hondoratu zen itsasontzia edo kostaldeko beste portu batzuetara irtetean, Orioko hiribilduan beharreko muga-zerga kontrola pasa ondoren.

Kronologia. Itsasontziaren arkitekturaren lehen azterketatik abiatuta, itsasontzi hori XVI. mendearen bigarren erdialdean eraiki zutela pentsatzen dugu.

Ezaugarri berdinekin eta antzeko egoeran Oriaren behe arroan agertu den hirugarren itsasontzia dugu hau, aurkikuntza bakanetatik 100 metrora, eta horrek esan nahi du, argi eta garbi, arroa horrek benetan balio handia duela arkeologiaren aldetik, eta legeak gutxieneko babesa eskaini behar diola ustezko eremu arkeologiko gisa.

Avance de conclusiones de la investigación

Carga hipotética del barco en el momento del hundimiento: 34 Tm.

Eslora hipotética del pecio: 11,20 m., o 34 pies.

La carga procedía de la cuenca minera de Somorrostro, a juzgar por el tipo de mineral. El hundimiento se produjo antes de su descarga en los puertos fluviales del Oria o a su salida hacia otros puertos de la costa tras el correspondiente control arancelario en la villa de Orio.

Cronología. A partir del estudio inicial de la arquitectura del barco puede datarse la construcción del mismo en la segunda mitad del s. XVI.

Se trata de la tercera embarcación de características y en circunstancias similares que aparece en un tramo de la ría del Oria inferior a los 100 m al margen de los hallazgos aislados, lo que significa una evidencia más del notable valor arqueológico de la cuenca como para que goce de una protección legal mínima de presunción arqueológica.

Manu Izagirre Lacoste

D.3.1.10. **Unzurrunzaga, 9-11 (Segura)**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Estructuras Garaiz, S.L. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.1.10. **Unzurrunzaga, 9-11 (Segura)**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Estructuras Garaiz, S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological intervention carried out in the town of Segura, founded in the middle of the 13th century, revealed a number of interesting data about its origins. On the one hand, the remains correspond to the old wall that once surrounded the town, and on the other, the results showed evidence of activities related to the reduction of iron ore which predate the founding of the town (11th-12th century).

Segurako Unzurrunzaga kaleko 9-11 orubean interbentzio arkeologikoa egin genuen jabeek oin berriko eraikuntza bat egiteko obrak hasi behar zituztelako. Hiribilduaren ekialdeko muturrean dago orubea, Zapatari kale zaharra du muga mendebaldean, gaur egun Unzurrunzaga, eta erronda kale zaharra edo Atzeko Zeharkaldea ekialdean. Interbentzio hau egin genuen unean orubea aparkalekurako erabiltzen ari ziren behin-behinean, zati batean okupatzen zuen eraikina 1981. urtean eraitsi ondoren. 760 metro inguruko azalera du.

Interbentzio honen aurretik, orube honetan bertan hainbat zundaketa arkeologiko egin ziren Segurako Hirigune Historikoko Historia-Arkeologia Azterketa egin zenean, Alex Ibañez, Alfredo Moraza eta Juantxo Agirreren zuzendaritzapean. Datu horiek kontuan harturik,

La intervención arqueológica desarrollada en el solar de la calle Unzurrunzaga número 9-11 de la localidad de Segura tiene su origen en las obras de ejecución de una edificación de nueva planta emprendidas por sus propietarios. El solar se localiza en el extremo oriental de esta villa, lindando por el oeste con la antigua calle de los Zapateros, actualmente Unzurrunzaga, y por el este con la antigua calle de ronda o Atzeko Zerkaldea. En el momento de llevar esta intervención el solar estaba siendo empleado circunstancialmente a modo de aparcamiento, tras el derribo del edificio que parcialmente lo ocupaba en el año 1981, presentando una superficie de unos 760 metros cuadrados.

Con anterioridad a esta intervención ya se habían efectuado en este mismo solar una serie de sondeos arqueológicos durante el desarrollo del Estudio Histórico-Arqueológico del Casco Histórico de Segura bajo la dirección de Alex Ibañez, Alfredo Moraza y Juantxo

orubearen hegoaldeko herenean egin genituen lan arkeologikoak, gainerakoa erabat garbitua baitzegoen (Ikus *Arkeoikuska'97*).

Lan arkeologikoei hasiera emateko, orube osoa estaltzen zuen «zagor» maila kendu genuen lehenengo (101. U.E.) baliabide mekanikoen bidez. Lehen adierazi dugun bezala, orubearen zati gehienean, betegarri horren azpian paleozoru naturala azaltzen zen berehala (110. U.E.), eta okermendu nabarmena ageri zuen, Segurako hirigunea kokatzen den ezproiko topografia naturalari jarraiki. Funtsean hiru multzo handitan egituratzen ziren eginiko aurkikuntzak:

Harresi barrutiarekin loturiko egiturak

Elementu arkeologiko interesgarrienetako bat neurri handiko horma bati loturik dago; jatorrian hirigune hau inguratzen zuen lehenengo harresiaren zatia izango zen. Horma horretan hainbat atal bereizi ahal izan genituen, eraiki ondoren egindako aldaketak ziren horiek, baina eraikuntza kalitatea oso antzekoa zen elkarrekiko.

Harresi zati hori dokumentaturiko orubearen ekialdeko ertzean zegoen justu, 14,65 metroko luzera zuen eta orubearen ia erdia hartzen zuen. Dokumentatu ditugun atal desberdinak oso antzera eginak ziren, kareharriz eginiko ilara bikoitza zuten, harriak erdi landuak eta tamaina handikoak ziren. Barrualdea, berriz, forma handirik gabeko blokeek osatzen zuten. 1,50-1,70 metroko zabalera zuen batez beste. Horma hori lurreko harri naturalean oinarritua zegoen zuzenean, haren irregulartasunei egokitua, eta hartxabal txiki edo teilaz kaltzatua zegoen leku batzuetan.

Harresi hori aski kontserbazio egoera txarrean zegoen, eta azken ilarak (3-5) baino ezin izan ditugu dokumentatu. 70 cm-ra ez zen iristen punturik altuenean.

Hiribildu hau inguratzen zuen lehen harresia 1256. urte inguruan eraiki zuten, eta harresi jada dokumentatu da herriko hainbat lekutan, baina batik bat hiribilduko iparraldeko erdian, gaur egungo eraikuntzen barnean sartua. Horrez gainera, esan behar da, gaur egun iraun dutela harresi barrutiak izan zituen jatorrizko ateetako hiruk. Arkeologia aldetik dokumentaturiko harresiaren gainerako sektoreek gaur egungoaren oso antzeko formaezaugarriak zituzten, eta 4-5 metro inguruko luzerara iristen ziren gehienez ere.

Industria jarduerekin loturiko egiturak

Arkeologiaren aldetik induskaturiko sektorearen erdialdean, hiru egitura interesgarri dokumentatu ahal

Agirre. Tomando en cuenta estos datos las labores arqueológicas se concentraron en el tercio meridional del solar al encontrarse el resto totalmente arrasado *(Vide Arkeoikuska'97).*

Los trabajos arqueológicos comenzaron con la retirada del nivel de «todouno» que cubría todo el solar (U.E. 101) mediante el empleo de medios mecánicos. Como se ha señalado anteriormente en la mayor parte del solar bajo este relleno afloraba ya el paleosuelo natural (U.E. 110), con un claro buzamiento siguiendo la topografía natural del espolón en el que estaba habilitado el núcleo de Segura. Los hallazgos efectuados se estructuraban fundamentalmente en tres grandes grupos:

Estructuras relacionadas con el cerco amurallado

Uno de los elementos arqueológicos más interesantes está relacionado con un muro de grandes dimensiones que en buena parte se correspondería con la primitiva cerca amurallada que originalmente rodeaba este núcleo urbano. En este muro se pudieron distinguir diversos tramos diferenciados en función de las distintas alteraciones operadas tras su construcción, aunque con una calidad constructiva muy semejante entre sí.

Esta porción de muralla estaba situada justo en el extremo este del solar documentada, presentando un desarrollo longitudinal de 14,65 m. y alcanzando casi la mitad del solar. Los diversos tramos documentados estaban ejecutados de una manera muy similar, mediante una doble hilada de bloques calizos semilabrados de gran tamaño y el interior con bloques más informes, alcanzando una anchura media entre 1,50-1,70 m. Este muro se apoyaba directamente sobre la roca natural del terreno, adaptándose a las irregularidades del mismo, estando calzado en algunas ocasiones con pequeñas lajas de piedra o tejas.

Este muro se encontraba en un estado de conservación bastante deficiente, habiéndose podido documentar únicamente las últimas hiladas del mismo (de 3 a 5), alcanzando en el punto de mayor envergadura los escasamente 70 cm.

La primitiva muralla que circundaba esta villa, fundada en torno a 1256, ha sido ya documentada en diversos parajes de la misma, mayormente concentrados en mitad septentrional de la villa inserta dentro de las actuales edificaciones. A estas constataciones hay que unir además la pervivencia aún hoy en día de tres de los cinco primitivos portales de los que dispuso. Los otros sectores de muralla documentados arqueológicamente presentaban unas características formales muy semejantes al actual, alcanzando en el mayor de los casos una envergadura en torno a los 4-5 metros.

Estructuras relacionadas con actividades industriales

En la parte central del sector excavado arqueológicamente se pudo documentar la presencia de tres inte-

izan genituen. Burdina lantzearekin loturiko industri jarduera baten lehengo garapena erakusten zuten horiek. Era horretako egiturak oso ohikoak izaten dira hiri inguruetan, eta Segurako kasu zehatz honetan, hainbat puntutan aurkitu ahal izan da.

Forma aldetik hiru egiturak oso antzekoak ziren, eta tamaina zen alde handiena. Paleozoru naturalean induskatuak zeuden guztiak ere, kalota erdi-esferikoen forma zuten, eta oina, berriz, oboide samarra. Egitura horien paretak gorrituak zeuden, bero iturri garrantzitsu batek haietan eragin zuzena izan zuelako.

Egitura horietan mendebaldeen zegoenak 150 × × 100 cm-ko neurria zuen, eta sakonera ez zen 18 cm-ra iristen (218. U.E.). Lur marroiak osaturiko betegarria ageri zuen, oso lur harroa zen, eta zepa hondakinen bat ere ageri zuen, baina ez zuen beste material arkeologikorik (219. U.E.).

Bigarren egiturak (201. U.E.) neurri handiagoak zituen, kanpoaldeko perimetroak 280 × 246 cm neurresantes estructuras que evidenciaban el desarrollo pretérito de una actividad industrial relacionada con el trabajo del hierro. Este tipo de estructuras suelen ser muy habituales en contextos urbanos, y en el caso concreto de Segura se han podido localizar en varios puntos.

Las tres estructuras eran formalmente muy semejantes entre si, siendo la principal diferencia su tamaño. Todas ellas se encontraban excavadas en el paleosuelo natural con una forma de casquetes semiesféricos y una planta aproximadamente ovoide. Las paredes de estas estructuras se encontraban rubificadas, debido a la acción directa de una importante fuente de calor sobre las mismas.

La más occidental de esas estructuras presentaba unas dimensiones de 150 por 100 cm. y una profundidad de escasamente 18 (U.E. 218). Presentaba un relleno de tierra de color marrón muy suelto con algún resto de escoria sin otro material arqueológico (U.E. 219).

La segunda estructura (U.E. 201) presentaba mayores dimensiones, con un perímetro exterior de 280



Unzurrunzaga 9-11 (Segura). Harresiaren luzerako garapenaren ikuspegia.

Unzurrunzaga 9-11 (Segura). Vista del desarrollo longitudinal de la muralla.

tzen zituen eta sakonera metro erdira ez zen iristen ia. Barrualdean hainbat betegarri ikus zitezkeen, eta mailak oso ongi bereizten ziren: lur marroiak osaturiko maila bat, oso lur trinkoa zen eta eraiste materialekin batera zegoen, ikatz-poltsa batzuk eta zepa puska txikiak ere bazituen (202. U.E.); oso buztin plastikoz osaturiko maila, lur marroi argia zen, eta kubetaren pareten gainean oinarritzen zen zuzenean (203. U.E.).

Hirugarren egitura, ekialdeen zegoena, txikiena zen; 300 × 240 cm-ko neurriak zituen, eta sakonera 100 cm baino zertxobait gehiago zuen (210. U.E.). Era berean, haren barnean ere hainbat maila berezi genituen: lur pikortsuak osatutako maila bat, oso lur harroa zen, eta zepa zati ugari eta oxido orban asko ageri zituen, eta baita errekarri batzuk eta lauza zati txiki batzuk ere. Aurrera egin ahala, maila honetako pikorrak murrizten zihoazen eta ikatzen portzentajea gero eta handiagoa zen (211. U.E.); ongi zehaztutako maila bat, 5 cm-ko lodierara ez zen iristen ia, eta ikatz portzentaje handia zuen (212. U.E.); eta azkenik, buztinezko maila bat, buztina plastikoagoa eta trinkoagoa zen, eta harlandu zati txikiak ageri zituen, eta baita fauna hondakin batzuk ere. Maila honetan ez zen zeparik ageri, baina bai ikatz orban txikiak, oxido hondar eta erre gabeko zur hondakinekin batera (213. U.E.).

Lortutako datuetan oinarrituta, egitura horiek burdinaren murrizketarekin loturiko jarduera bati zegozkion argi eta garbi, arragoa edo mea kaltzinatzeko labe xumeak ziren, aurten bertan hemendik hurbil dagoen Igartzako burdinolaren (Beasain) inguruan aurkitutakoaren antzekoak ziren oso, baina oso testuinguru desberdinean zeuden.

Etxe izaerako okupazio mailekin loturiko egiturak

Identifikaturiko elementuen azken multzoa etxe izaerako egitura eta okupazio mailekin loturik dago. Elementu aipagarriena orubearen mendebaldeko mugan zegoen; oin zirkularreko putzu bat zen, landu gabeko hareharriz eta mortairuzko kareorez egina (240. U.E.). Harresia oinarritzen den lurreko marga naturalean zulatua zegoen putzu hori; 1,50 metroko diametroa zuen eta gutxienez 2,30 metroko sakonera. Barnealdean hainbat betegarri maila ageri ziren, eta kronologia garaikideko materialak antzinagoko beste material batzuekin nahasita zeuden. Material horiek aztertzen ari dira gaur egun. Putzu horren egituraren zati bat hondatu zuten hondeamakinek interbentzioa egiten genuen bitartean.

Orubearen beste muturrean horma baten hondakinak dokumentatu genituen, horma xumea zen (220. U.E.), orubearen ekialdeko itxituraren paraleloan luzatzen zena. Horma horren luzera 3,30 metrora ez zen iristen ia eta

por 246 cm. y profundidad de escasamente medio metro. Su interior estaba colmatado por diversos rellenos perfectamente individualizados: un nivel de tierra marrón muy apelmazada mezclada con materiales de derribo asociada a algunas bolsadas de carbón y pequeños fragmentos de escorias (U.E. 202); un nivel compuesto por una arcilla muy plástica de color marrón claro que se apoyaba directamente sobre las mismas paredes de la cubeta (U.E. 203).

La tercera de las estructuras, la situada más hacia el este, era la de mayor tamaño, alcanzando unas dimensiones de 300 por 240 y una profundidad de algo más de 100 (U.E. 210). En su interior se pudieron identificar asimismo varios niveles: un nivel de tierra granulada muy suelta conteniendo gran número de fragmentos de escoria y abundantes manchas de óxido mezcladas con algunos cantos de río y fragmentos de losetas. Conforme se iba profundizando el componente granulado de este nivel se iba reduciendo aumentando el porcentaje de carbones (U.E. 211); un nivel perfectamente definido de escasamente 5 cm. de espesor compuesto por un alto porcentaje de carbones (U.E. 212); y finalmente un nivel de tierra con arcilla más plástica y apelmazada que contenía pequeños fragmentos de sillares de piedra y algunos fragmentos de fauna. En este nivel no se apreciaba la presencia de escorias aunque sí de pequeñas manchas de carbón asociadas a restos de óxidos y de madera sin combustionar (U.E. 213).

En base a los datos obtenidos estas estructuras estaban claramente relacionadas con una actividad relacionada con la reducción del hierro, a modo de sencillas arraguas u hornos de calcinación del mineral, muy similares a la localizada este mismo año en el entorno de la cercana ferrería de Igartza (Beasain), aunque en un contexto totalmente diferente.

Estructuras relacionadas con niveles domésticos de ocupación

El último grupo de elementos identificados están relacionados con diversas estructuras y niveles de ocupación de carácter doméstico. El elemento más destacado se situaba en el límite occidental del solar, consistiendo en un pozo de planta circular ejecutado a base de mampostería de arenisca y argamasa de mortero (U.E. 240). Este pozo se encontraba excavado en la marga natural del terreno contra el que se apoya el muro, presentando un diámetro de 1,50 m. y una profundidad de al menos 2,30. En su interior se pudieron apreciar diferentes niveles de relleno, entremezclándose materiales de una cronología contemporánea con otros más antiguos que se encuentran en proceso de estudio. La estructura de este pozo fue parcialmente dañada en el transcurso de la intervención por las máquinas excavadoras.

En el otro extremo del solar se pudo documentar los restos de un muro de factura sencilla (U.E. 220), dispuesto en paralelo al cierre oriental del solar. Este muro apenas si presentaba un desarrollo longitudinal de esca-

0,80 cm-ko zabalera zuen. Hareharrizko harlandu txikiz eginiko ilara bikoitza zuen, eta harkosko txikiak barnealdean. Han zeuden eraikuntzetako baten jatorrizko itxiturari zegokion horma hori, eta zehatzago adierazteko, 1748. urtean berreraiki zutenari, eraikin hura *«hondatua eta ate aldera okertua»* zegoelako. Jatorrizko etxea orubearen ekialdeko mugaraino iritsiko zen, une horretan haren neurriak txikitu egin bazituzten ere obraren kostua merkatzeko.

Konklusioak

Interbentzio arkeologiko honetan lortutako datuak aztertu ondoren, aipatzekoa da, datu horiek oso garrantzitsuak direla Hirigune Historiko zehatz honetako hirigintza modu sakonagoan ezagutzeko bidean aurrera egiteko.

Orube honetan gutxienez hiru eraikuntza unitate desberdin egon izango ziren iraganean, horien dokumentu egiaztapenak baitaude gutxienez XVI. mendearen amaieratik hasita. Eraikuntza horiek bilakaera bereizia izan zuten XX. mendera arte, eta orduan finka bakar batean elkartu zituzten, baina une horretan jada baratze bihurtuak ziren hiruak ere.

Identifikaturiko harresi zatia da orain arte Seguran ezagutzen diren guztietan garapen handiena duena, baina azkenean, garrantzi txikia izateagatik eta kontserbazio egoera txarrean egoteagatik erabat desagertu da obra prozesuak aurrera egin ahala. Nolanahi ere, haren ezaugarriek erabat baieztatzen dituzte beste zati batzuetan aurkitutako datuak, eraikuntza sistemari dagokionean bereziki. Harresi horren data zehazteko lanak laborategian daude oraindik, eta horrenbestez, ezin da baieztatu zati hori XIII. mendearen erdialdean eraikitakoarena den, edo bestela, geroago egindako berreraikitzeren batean eraiki zuten, horiek ere dokumentuen bidez egiaztatu baititugu.

Halaz ere, paleozoru naturalean induskaturiko hiru egitura horiek eskaini dizkigute datu interesgarrienak. Egitura horiek oso antzekoak dira elkarren artean, neurrietan alde nabarmenak ageri badituzten ere. Haien eraikuntza tipologiak burdin-mea kaltzinatzeko arragoa edo labeak ekartzen dizkigu gogora argi eta garbi; ezpurutasunak kentzeko egiten zuten prozesu hori, ondoren mea murriztu eta forjatu ahal izateko. Egiturak aski xumea dela dirudi, harri naturalean zulo sakon bat egin zuten eta hantxe erreko zuten mea hori gordinean, egur eta ote ugarirekin batera.

Halaz ere, egitura horiei dagokienean badira bereziki bi alderdi garrantzitsu aipatu beharrekoak. Alde batetik, beren kokalekua, ezproi baten goialdean, eta gero hantxe egokituko zen Segurako hirigunea. Orain arte pentsatzen zen era horretako egiturak mea-filoietatik hurbil kokatzen zirela, edo bestela, burdin instalazioetatik gertu, Igartzako burdinolan (Beasain) gertatzen den bezala (Ikus artikulua *Arkeoikuska* honetan

samente 3,30 m. y una anchura de 0,80, estando ejecutado con una doble hilera de bloques de sillarejo de arenisca y cascajo menudo en el interior. Este muro formaba parte del primitivo cierre de una de las construcciones allí existentes, y más en concreto de la reedificada en el año 1748 al encontrarse *«viciada y desplomada hacia la huerta»*. La casa original llegaría hasta el límite este del solar si bien en este momento se procedió a reducir sus dimensiones con el fin de abaratar los costes de obra.

Conclusiones

Analizados los datos obtenidos en esta presente intervención arqueológica es necesario destacar la importancia de los mismos a la hora de avanzar en el conocimiento más profundo del urbanismo referente a este concreto Casco Histórico.

El presente solar era en realidad el fruto pretérito de la unión de al menos tres unidades edificatorias diferentes, de las cuales se tiene constancia documental desde al menos finales del siglo XVI. Esas edificaciones tuvieron una evolución particularizada hasta el siglo XX, cuando fueron unificadas en una sola finca aunque ya para ese momento las tres ya se encontraban reducidas a huerta.

El tramo de muralla identificado es el de mayor desarrollo de todos los conocidos hasta el momento en Segura, a pesar de que finalmente y debido fundamentalmente a su escasa relevancia y deficiente estado de conservación ha desaparecido completamente por el avance del proceso de obra. Sus características confirman plenamente los datos obtenidos en otros tramos, especialmente en lo que se refiere a su sistema constructivo. Los trabajos para datar esta muralla se encuentran aún en laboratorio, por lo que no puede confirmarse si este tramo se corresponde con aquella erigida a mediados del siglo XIII o bien con alguna de las posibles reconstrucciones operadas posteriormente, y ya constatadas documentalmente.

Los datos más interesantes, sin embargo, nos lo han deparado las señaladas tres estructuras excavadas en el paleosuelo natural. Estas estructuras son muy similares entre si, a pesar de las evidentes diferencias existentes en sus dimensiones. Su tipología constructiva nos recuerda claramente a las arraguas u hornos destinados a la calcinación del mineral de hierro para eliminar buena parte de sus impurezas, paso previo de su posterior reducción y forjado. Su estructura parece ser que será bastante sencilla, mediante un profundo socavón practicado en la roca natural donde se combustionaría ese mineral en bruto acompañado de abundante leña y árgoma.

Existen, sin embargo, dos aspectos que cabe reseñar especialmente, en relación a estas estructuras. Por un lado su ubicación en la parta alta de un espolón donde posteriormente se habilitará el núcleo urbano de Segura. Hasta el momento este tipo de estructuras se creía que se situaban en las cercanías de los propios filones mineros o en su defecto cerca de las mismas instalaciones ferronas, tal y como ocurre en el

bertan). Kasu zehatz honetan, itxuraz bederen, badirudi ez dela baldintza horietako bat ere betetzen, egitura horiek tarteko puntu batean, eta mea-filoietatik urrun kokatzen direla esan baitaiteke. Bigarren, haien kronologia aipatu beha da. Jasotako ikatz hondakinek, zehatz adierazteko II. Labean (210. U.E.), oso datazio goiztiarra eskaini digute, XI-XII. mendeetara eramango baikintuzkete, kronologiaren aldetik *haizeolak* gailurrean egon ziren garaietara, hain zuzen ere.

Datu horiek galdera interesgarri batzuk planteatzen dituzte egitura zehatz horiek izango zuten paperaren inguruan. Kronologiaren aldetik, *haizeolen* garai berekoak dira (XI.-XIV. mendeak), baina badira haietatik urruntzen dituzten hainbat gorabehera, bereziki beren tamainei dagokienean, izan ere, haizeolek 50-70 cm-ko diametroa zuten bitartean, Seguran aurkitutako egiturak 240-300 cm-ra iristen dira. Gorabehera horiek haien zeregin hipotetikoa izango zenera hurbiltzen gaituzte gehiago, hauxe da, mea kaltzinatzeko egiturak zirela pentsatzen dugu; geroagoko fase batean mea hori murriztu eta forjatu egingo zuten, seguruenik inguruetan egongo ziren beste labe batzuetan. Datu horiei erreparatzen badiegu, zentro metalurgiko goiztiar eta garrantzitsua izango zenaren testigantzen aurrean egongo ginateke. Zentro hori jada jardunean arituko zen lehen milurtekoko lehen mendeetan, baina zoritzarrez, aurkitutako datuak aski partzialak dira konklusio globalagoak egiteko. Zentro metalurgiko horrek beste esanahi garrantzitsu bat ere badu, espazio honetan okupazio bat izan zela erakusten baitu, eta gero bertan eraiki zutela Segurako hiribildua, iturri idatziek orain arte adierazitakoa baino dezente lehenagoko une batean, iturri horiek 1256. urte aldera sortu zela adierazten baitute. Horrekin erabat baieztatzen dira lehen aipaturiko Historia-Arkeologia Azterketa hori egin zen bitartean jada apalki adierazi ziren suposizio batzuk, Segurako herria aurretik okupaturik zegoen gune askoz ere xumeago batean egokitu zelako ideia, alegia.

caso de la ferrería de Igartza (Beasain) (*Vide* artículo en este mismo n.º de la revista *Arkeoikuska*). En este concreto caso aparentemente no parecen cumplirse ninguna de las dos referidas condiciones, puesto que estas estructuras se sitúan en un punto que podemos definir como intermedio y alejado de los filones de mineral. En segundo lugar hay que hacer mención a su cronología. Los restos de carbón recogidos, concretamente en el horno II (U.E. 210), han aportado una datación sumamente temprana que nos remonta hasta los siglos XI-XII, cronológicamente coincidente con el esplendor de las *haizeolas* o ferrerías de viento.

Estos datos plantean una serie de interesantes interrogantes sobre el papel jugado por estas concretas estructuras. Cronológicamente son coetáneas a las *haizeolas* (siglos XI-XIV) pero existen circunstancias que las distancian de ellas, especialmente en lo referido a sus proporciones puesto que frente a los escasamente 50-70 cm. de diámetro de éstas las estructuras localizadas en Segura alcanzan los 240-300 cm. Estas circunstancias nos acercan más hacia aquella que parece que pudo ser su hipotética dedicación, la de calcinación del mineral, para en una fase posterior llevar a cabo su definitiva reducción y forjado en otra serie de hornos ubicados muy presumiblemente en sus proximidades. Con estos datos nos encontraríamos ante los testimonios de lo que parece que fue un importante y temprano centro metalúrgico que ya se encontraba en activo durante los primeros siglos del primer milenio, aunque lamentablemente los restos localizados sean bastante parciales como para poder realizar conclusiones más globales. Este centro metalúrgico tiene otra importante significación, puesto que evidencia la presencia de una ocupación del presente espacio, donde posteriormente se fundará la villa de Segura, en un momento bastante anterior a lo señalado hasta el momento por las fuentes escritas, las cuales situaban esa fundación en torno al año 1256. Con ello se confirman plenamente una serie de suposiciones que ya se apuntaron muy tímidamente durante el desarrollo del referido Estudio Histórico-Arqueológico, en la línea que Segura se asentaba sobre un núcleo mucho más sencillo ya habitado con anterioridad.

Alfredo Moraza Barea; Arantxa Agirre Urteaga

D.3.1.11. **RC4 Eremua (Tolosa)**

Zuzendaria: Juantxo Agirre Mauleon
Diru-laguntza emailea: Tolosako Udala

D.3.1.11. **Área RC4 (Tolosa)**

Dirección: Juantxo Agirre Mauleon
Subvención: Ayuntamiento de Tolosa

During the archaeological intervention carried out in Area RC4 in Tolosa, corresponding to a site left undeveloped since the 16th century, the foundations of a renaissance palace built for Don Alonso de Idiakez by the architect Juan Mosquera were discovered.

In the adjacent site, corresponding to a mill, remains of earlier structures were revealed, along with an important archaeological deposit containing a large amount of ceramic material dating from the 16th and 17th centuries.

2003. urtean interbentzio arkeologikoa egin dugu Santa Maria elizaren eta Aranburu jauregiaren artean dagoen orubean, inguru hura urbanizatu eta aldamenean dagoen Elizaldea errota eraberritzeko lanak egin aurretik. Interbentzio horretan horma batzuk geratu ziren agerian, oso ongi landuak ziren eta metro bat baino gehiagoko lodiera zuten. Alonso de Idiakezen jauregiaren zimenduak ziren inondik ere. Jauregi hori errenazimenduaren garaiko eraikuntza zen, XVI. mendearen erdialdekoa, eta Alfonso de Idiakez, Karlos V.a enperadorearen idazkari eta aholkulariak eman zuen eraikitzeko agindua, baina ezin izan zen erabat amaitu. Hormen zimenduen eta altxaeren hondakinak orubearen erdialdean daude, eta Aranburu jauregiko postrimetrietatik hasi eta Oria ibaiaren ezkerralderaino zabaltzen dira, puntu horretan Tolosako hiribildua inguratzen zuen Erdi Aroko harresiaren hondakinen gainean geratzen dira. Hondakin arkeologikoek aukera ematen dute jauregiaren oin orokorra eta barneko banaketa dokumentatzeko.

Interbentzioa egin genuen bitartean agerian jarritako zati handiak, landu gabeko harriz eta harlandu txikiz eginiko aparailua du, eta ibaiaren ibilguko harrien gainean oinarritzen da zuzenean. Geroago moztu egin zuten Santa Maria parroki eliza handitu zutenean.

Parroki elizaren alboko fatxadaren aldamenean eta paraleloan, hari erantsitako eraikin baten zimenduak do-

Durante el año 2003 la intervención arqueológica llevada a cabo en el solar situado entre la iglesia Santa María y el palacio Aramburu previo a las obras de urbanización de la zona y rehabilitación del molino Elizaldea colindante, supuso el descubierto de unos muros, cuidadosamente labrados de más de un metro de grosor, correspondientes a la cimentación del palacio de Alonso de Idiakez. Se trata esta de una construcción renacentista de mediados del siglo XVI ordenada por Don Alonso de Idiakez, secretario y consejero del emperador Carlos V, que no pudo ser concluido. Los restos de las cimentaciones y alzados de los muros se emplazan en el centro del solar, extendiéndose desde las postrimerías del palacio de Aramburu hasta la margen izquierda del río Oria, superponiéndose en este punto a los restos de la muralla medieval que circundaba la villa de Tolosa. Los registros arqueológicos permiten documentar la planta general del palacio así como su distribución interna.

El amplio tramo de muralla redescubierto durante la intervención presenta aparejo de mampostería y sillarejo alzado directamente sobre el afloramiento rocoso del cauce del río, habiendo sido posteriormente seccionado con motivo de la ampliación de la iglesia parroquial de Santa María.

Colindante y paralelo con la fachada lateral de la iglesia parroquial se han documentado las cimentacio-



Elizaldea errotaren ikuspegia, Idiakez Jauregiaren aldamenean.

Panorámica del molino Elizaldea adyacente al Palacio de Idiakez.

kumentatu ditugu. Eraikin hori hamarrenak biltzeko izango zen eta arrasean eraiki zuten Idaiakez jauregiaren kanpoaldeko hormaren gainean, XIX. mendearen erdialdean. 1951. urtean desagertu zen sute baten ondorioz.

Jada aipaturiko hondakin arkeologiko horiei harlanduan eraikitako tunel hidraulikoa erantsiko genieke. Santa Maria Parroki Elizako sakristien eta aldarearen azpitik igarotzen da tunela. Tunel horrekin amaitzen zen metro batzuk aurrerago Elizaldea errota elikatzen zuen kanal hidraulikoaren trazatua. XIV. mendearen hasierakoak dira errota horren lehen aipamenak. XIX. mendearen amaieran eraikitako errotaren eraikina berritu behar zutela eta, interbentzio arkeologikoa egin zen haren barnean, eta hari esker, aurreko instalazioen hondakinak aurkitu ziren, eta batik bat, depositu arkeologiko garrantzitsu bat atzeman zen, errotarri puska asko eta zeramika hondakin ugariz osatua.

nes de un edificio anexo, destinado a recaudar los diezmos, construido a ras sobre el muro exterior del palacio Idiakez a mediados del siglo XIX y que desapareció, tras un incendio en el año 1951.

A los restos arqueológicos ya mencionados cabe sumar el túnel hidráulico erigido en piedra sillar con un recorrido bajo las sacristías y altar de la Iglesia Parroquial de Santa María. Este supone el final del trazado del canal hidráulico que alimentaba unos metros más arriba al molino Elizaldea, cuyas primeras menciones datan de principios del siglo XIV. Con motivo de la rehabilitación del edificio del molino construido a finales del siglo XIX se lleva a cabo en su interior una intervención arqueológica que permite localizar restos de instalaciones anteriores y sobre todo un importante depósito arqueológico formado por numerosos fragmentos de piedras de moler y abundantes restos de cerámica.

Juantxo Agirre-Mauleón; Arantza Agirre Urteaga

D.3.1.12. **Gorosabel, 27 (Tolosa)**

Zuzendaritza: Sonia San Jose Santamarta
Finantzazioa: Gorosabel Mugiezinak S.L.

D.3.1.12. **Gorosabel, 27 (Tolosa)**

Dirección: Sonia San José Santamarta
Financiación: Gorosabel Mugiezinak S.L.

During April 2003, an archaeological intervention was carried out in the site located at number 27 Gorosabel Street (Tolosa). This excavation was prompted by a project to demolish the existing building and construct a new block of flats in the aforementioned site, which is located within the town's historic quarter. The most important result of these works was, without doubt, the finding of a stretch of the wall which once defended the town of Tolosa.

2003ko apirilean egin dugu interbentzio arkeologikoa Gorosabel kaleko 27. zenbakian (Tolosa) dagoen orubean. Indusketa lan hori egin genuen orube horretan eraikuntza zaharra eraitsi eta oin berriko etxebizitzak eraikitzeko proiektua martxan zegoelako, proiektu horrek ezinbestean ukituko baitzuen zorupean dagoen depositu arkeologikoa. Orube hori udalerriko Hirugune Historikoaren barnean dagoenez, Kultur Ondasun gisa babestua, Monumentu Multzo kategoriarekin eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatua, obrak egin aurretik interbentzio arkeologikorako proiektu bat egiteko eskatzen baitu Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak.

Eraikuntza lanek depositu arkeologikoan izango zuten eragina arintzeko, interbentzio arkeologikoak hainbat zundaketa arkeologiko egitea planteatu zuen orubean banatuta. Guztira 4 zundaketa egin ditugu baliabide mekanikoak erabilita, lehenengoan izan ezik. Hondakin arkeologikoak aurkitu ondoren, eskuz egin dugu lan.

Durante el mes de abril de 2003 se ha realizado la intervención arqueológica del solar situado en la calle Gorosabel 27 (Tolosa). Esta excavación viene motivada por el proyecto de derribo y construcción de viviendas de nueva planta en el solar citado, el cual iba a afectar de modo irreversible al depósito arqueológico localizado en el subsuelo del mismo. Debido a la ubicación de este solar dentro del Casco Histórico del municipio, protegido como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental e inscrito en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, la Ley 7/1990 del 3 de julio sobre Patrimonio Cultural Vasco exige la realización de un proyecto de intervención arqueológica previo a la realización de las obras.

Con el objetivo de paliar los daños que los trabajos de construcción iban a suponer para el depósito arqueológico, la intervención arqueológica planteó la realización de varios sondeos arqueológicos distribuidos en el solar. En total se han realizado 4 sondeos excavados, excepto el primero, por medios mecánicos. Una vez localizados los restos arqueológicos, se han excavado de forma manual.

Lan hauek eskaini diguten emaitza garrantzitsuena Tolosako hiribildua babesten zuen harresiaren zati bat aurkitzea izan da inolako zalantzarik gabe. Orubearen mendebaldeko erdian dokumentatu dugu, Iparralde-Hegoalde norabidean, egun eraitsitako etxebizitzaren fatxadaren zimentazioaren paraleloan. 2,10 metroko zabalera du eta 0,34-0,60 metroko altuera kontserbatu du, bi ilara mantendu ditu gehienez ere. Harresi horren ekialdeko horma-atala kareharrizko harlanduz egina bada ere, landu gabeko harri arruntaz eginiko horma batek mugatzen du mendebaldeko horma-atala. Ekialdeko horma-atalean kontserbatu duen ilara bakarra buztinezko depositu geologikoaren gainean oinarritzen da zuzenean; mendebaldean, berriz, 0,80-0,90 metro sakonerako zimentazio baten gainean oinarritzen da, eta hura kareorez zarpeatua dago. Zimentazio egitura horrek 0,70 metroko zabalera du, eta zeharkako sekzioan harresiaren ekialdeari lotzen zaiola ikusten da. Badirudi zimentazio hori geroago eraiki zela harresiaren zimenduak sendotzeko asmoz. Era berean, horma horren mendebaldeko horma-atala estaltzen duen kareorezko zarpeatua harresia iragazgaitz bihurtzeko egingo zuten. Ez dugu ahantzi behar Tolosako hiribilduko alde honetatik igarotzen zela Erretengibeleko kanala, ura Oria ibaitik jasotzen zuena, eta guztiz logikoa zela kanalak eragindako higadurak arintzeko sendotze neurriak hartzea.

Hau ez da Tolosako hiribilduan harresiaren zatiak dokumentatzen ditugun lehen aldia. Ildo horretatik, 1998. urtean egindako kontrol arkeologikoan Nafarroako Atearen zimenduen hondakinak aurkitu genituen. Hala eta guztiz ere, haren inguruko informazio zabalagoa lortu ahal izango dugu oraingo honetan, harresiaren zabalera, esate baterako, eta baita Erretengibeleko

El resultado más importante de estos trabajos ha sido, sin duda, el hallazgo de un tramo de la muralla que defendía la villa de Tolosa. Se ha documentado en la mitad oeste del solar, con dirección norte-sur, paralela a la cimentación de la fachada de la vivienda actualmente derribada. Tiene una anchura de 2,10 m. y ha conservado una altura de 0,34-0,60 metros, manteniendo, como máximo, dos hiladas. Aunque en el lienzo este de la misma está formada por sillería caliza, el lienzo oeste esta delimitado por una pared de mampostería ordinaria. La única hilada que ha conservado en el lienzo este descansa directamente sobre el depósito geológico de arcilla, mientras que en el lado oeste, se asienta sobre una cimentación de 0,80-0,90 metros de profundidad, la cual está enfoscada con argamasa. Esta estructura de cimentación tiene unos 0,70 m. de anchura y en la sección transversal se aprecia que se anexiona a la parte este de la muralla. Parece que esta cimentación se ha construido posteriormente con la intención de reforzar los cimientos de la misma. Del mismo modo, el enfoscado de argamasa que cubre el lienzo oeste de esta pared tendría el objetivo de hacerla impermeable. No hay que olvidar que por esta parte de la villa de Tolosa discurría el canal de Erretengibel, que recogía agua del río Oria, y que es lógico que se tomaran medidas de refuerzo para paliar los desgastes producidos por el canal.

No es la primera vez que documentamos restos de muralla en la villa de Tolosa. En este sentido, en el control arqueológico realizado en 1998 localizamos restos de la cimentación de la Puerta de Navarra. Aun y todo, en esta ocasión hemos podido recuperar más información sobre la misma, como puede ser la anchura de la muralla, y también datos indirectos relacionados



1 eta 2: Ikuspegi orokorra eta harresiaren xehetasuna.

Detalle de la muralla.

kanalarekin loturiko zeharkako datuak ere, harresian egindako sendotze lan hori, esate baterako.

Jatorrian XIII. mendean eraiki ondoren, harresi honek eta Erretengibeleko kanalak babestu zuten hiribilduaren mendebaldea XIX. mendera arte. Defentsa izaera galdu ondoren, egitura horiek benetako arrisku bilakatu ziren etengabean gertatzen ziren uholdeen ondorioz. Horregatik, Erretengibeleko kanala desagertu egin zen 1802. urtean, eta 1827. urtean alde horretarako hirigintza plangintza proiektatu zen (gaur egun Pablo Gorosabel kalea), gaur egun ezagutzen dugun bezala, eta harresia eraitsi eta Erretengibeleko kanala bete egin zuten.

con el canal de Erretengibel, como el mencionado refuerzo realizado en la muralla.

Construida en origen en el siglo XIII, esta muralla, junto con el canal de Erretengibel defendieron la zona oeste de la villa hasta el siglo XIX. Una vez perdido el carácter defensivo, estas estructuras se convirtieron en un serio peligro debido a las constantes inundaciones. Es por ello que el canal de Erretengibel desapareció en el año 1802, y en 1827 se proyectó la planificación urbanística de esta zona, teniendo como consecuencia la proyección y ordenación de la calle Rondilla (hoy en día calle Pablo Gorosabel) tal y como hoy la conocemos, derribando la muralla y colmatando el canal de Erretengibel.

Sonia San José Santamarta

D.3.2. *ZUNDAKETAK*

D.3.2.1. **Murugaingo esparru gotortua (Arrasate)**

Zuzendaritza: Sonia San José
Finantzazioa: Vodafone España, S.L.

D.3.2. *SONDEOS*

D.3.2.1. **Recinto fortificado de Murugain (Arrasate)**

Dirección: Sonia San José
Financiación: Vodafone España, S.L.

As a result of the construction (without permission) by Vodafone España, S.L. of a station for a mobile telephone antenna in the Iron Age fortified precinct of Murugain (Arrasate), we carried out a study of the impact of the works on the site. The most important result was the finding of the wall which once surrounded the site, and the verification that works have totally destroy one section of this wall.

2003ko irailean jakinarazi ziguten Vodafone enpresak komunikaziorako banagune bat eraiki zuela Murugaingo esparru gotortuan horretako beharrezkoa den baimenik eskatu gabe. Kontuan izanik obra hori babestua dagoen ezohiko interesa duen aztarnategi batean egin dutela, Arrasateko Udalak lanak geldiarazi zituen zegokion azterketa arkeologikoa egin arte.

Telefonia mugikorraren antena bat jartzeko banagune hori aztarnategiaren iparraldean eraiki dute, Telefonicaren banagunearen Hego-Mendebaldean, 10 bat metrora. Zehatz adierazteko, aldapa txiki bat duen aldean, 10 × 7 metroko neurriak eta 4 metroko sakonera duen zanga bat egin dute. Induskatutako sedimentua zapata gisa erabili dute lekua berdintzeko.

Obrak gelditu ondoren, Vodafoneko arduradunak gurekin harremanetan jarri ziren eraikuntza lan horiek aztarnategian izan duten eraginaren azterketa eta balorazioa egin genezan. Txosten hori prestatzeko, hainbat urrats eman ditugu: alde batetik, indusketa obren ondorioz ezpondan irekitako zangak berrikusi ditugu; bestetik, hainbat kata eta zundaketa bat luzeran egin ditugu terrazan eta obretatik gertu dagoen maldan. Gure lanek, eremu horren inguruetako sekuentzia estratigrafikoa ezagutu eta leku horretan egon zitezkeen

En septiembre de 2003 nos comunicaron que la empresa Vodafone había construido una estación base de comunicación en el recinto fortificado de Murugain sin el preceptivo permiso. Dado que la obra había sido realizada en un yacimiento de excepcional interés, el ayuntamiento de Arrasate paró los trabajos hasta que se hiciera el correspondiente estudio arqueológico.

La estación base para la colocación de una antena de telefonía móvil se ha construido en la zona norte del yacimiento, a unos 10 metros al sur-oeste de la estación de Telefónica. En concreto, en una zona de suave pendiente, han excavado una zanja de 10 × 7 metros y un máximo de 4 metros de profundidad. El sedimento excavado ha sido utilizado como zapata para horizontalizar el lugar.

Una vez paradas las obras, responsables de Vodafone su pusieron en contacto con nosotros para que realizáramos el estudio y la valoración del impacto que los trabajos de construcción había tenido en el yacimiento. Para la elaboración de este informe hemos llevado a cabo varios pasos: por un lado revisar los cantiles abiertos en el talud fruto de las obras de excavación; por otro, realizar varias catas y un sondeo longitudinal en la terraza y pendiente próxima a las obras. Nuestro objetivo era conocer la secuencia estratigráfica de los alrede-

harresia edo beste era bateko egiturak aurkitzea zuten helburu.

Interbentzio arkeologiko honen emaitza nagusia esparrua inguratzen duen harresia aurkitzea izan da. Hego-ekialde/Ipar-mendebalde norabidea du leku honetan, eta bertako harriak erabili ziren hura eraikitzeko. Harresiaren kanpoaldeko horma-atalak ezin izan dira zehaztu, harresiak behea jo ondoko harriek estaltzen baitituzte.

Txosten honen emaitza gisa, aipatzekoa da, banagunea eraikitzeko eginiko indusketa lanek eta ondoko lur berdinketek bete-betean ukitu dutela harresiaren zati bat. Hala eta guztiz ere, obrako zapata egitura horren gainetik dagoenez, oraindik ezin dugu jakin indusketa lanek erabat suntsitu duten edo, aldiz, azaleko kalteak besterik izan ez diren.

dores de la zona afectada y buscar la muralla u otro tipo de estructuras que pudiera haber en este lugar.

El resultado principal de esta intervención arqueológica ha sido la localización de la muralla que rodea el recinto. Tiene, en este lugar, una dirección sureste-noroeste y para su construcción se han utilizado piedras del terreno. Los lienzos externos de la muralla no se han podido determinar, ya que están tapados por las piedras provenientes del derrumbe de la muralla.

Como resultado de este informe, hemos de señalar que los trabajos de excavación y posterior explanación realizados para la construcción de la estación base han afectado de lleno a un tramo de la muralla. Aún y todo, como la zapata de esta obra se sitúa encima de esta estructura, de momento no se puede saber si los trabajos de excavación la han destruido completamente o, si por el contrario, sólo han sido daños superficiales.

Sonia San José Santamarta

D.3.2.2. **Enparan kalea, 34-38 eta 46 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: M.ª Antonia Gereñu Urzelai
Finantzazioa: Azpeitia Lantzen S.A.
eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.2. **Enparan kalea, 34-38 y 46 (Azpeitia)**

Dirección: M.ª Antonia Gereñu Urzelai
Financiación: Azpeitia Lantzen S.A.
y Diputación Foral de Gipuzkoa

Archaeological intervention in which it was verified that the front areas of the sites had been occupied during the contemporary era, during the course of which all levels of occupation from previous eras were completely destroyed. The rear part of the sites, on the other hand, had been used for growing crops and vegetables.

Azpeitiko Enparan kaleko 34., 36., 38. eta 46. zenbakietan egindako interbentzio arkeologikoan ez da orube horiek Erdi Aroan okupatu zituztela egiaztatzen duen aztarnarik aurkitu. XIX.-XX. mende arteko egiturak soilik atzeman ditugu (eraikin horiek eraitsi ondoko hondakinak gehienak). Landare lur buztintsuz osaturiko betegarri mailak azaldu dira orubeen goialdeetan.

Horrek guztiak adierazten digu orubeen aurrealdeko espazioak Aro Garaikidean okupatu direla, eta seguru asko Aro Modernoan eta Erdi Aroan ere erabiliko zituztela, baina azken eraikuntzak egiteko erabat suntsitu zituzten maila horiek, eta horrexegatik ez dugu orduko substraturik aurkitu. Orubearen atzealdeko eremuari dagokionean, badirudi baratze gisa erabili zutela Erdi Aroaz geroztik, horixe erakusten dute bederen dokumentazioak eta interbentzio arkeologikoa egin dugun bitartean aurkitutako betegarri mailek.

En la intervención arqueológica realizada en los solares 34, 36, 38 y 46 de Enparan kalea de Azpeitia no se han registrado evidencias de la ocupación de estos solares en época medieval. Solamente se han localizado estructuras de entre los siglos XIX-XX (mayoritariamente restos de escombros del derribo de dichas viviendas), y niveles de relleno de tierras vegetales y arcillosas en la zona posterior de los solares.

Todo ello nos indica, que los espacios delanteros de los solares han sido ocupados en época contemporánea, y que probablemente lo fueron en época moderna y medieval, pero el arrasamiento de estos niveles para realizar las últimas edificaciones nos ha privado de sustratos anteriores. En lo que respecta a la zona posterior del solar, parece que es utilizada desde época medieval como espacio de huerta, a tenor de lo indicado por la documentación y por los niveles de relleno localizados durante la intervención arqueológica.

Marian Gereñu

D.3.2.3. **Enparan kalea, 40-44 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar
Finantzazioa: Promociones Laztola S.L.

D.3.2.3. **Enparan kalea, 40-44 (Azpeitia)**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar
Financiación: Promociones Laztola S.L.

The archaeological intervention of the site located at numbers 40, 42 and 44 Enparan Street was motivated by the inclusion of these sites in the so-called Archaeological Zone of Azpeitia, which lies at the north-eastern end of the town, next to the hypothetical line of the old medieval wall. The sites have been marked for the building of new houses. The results obtained revealed only a few structures and strata from the contemporary era.

3 zundaketa arkeologiko egin ditugu eremu honetan, orube osoan zehar banatuta ekialdetik mendebaldera, eta baliabide mekanikoak erabili ditugu lan egiteko. Zundaketa horiek 18 metroko luzera × 2 metroko zabalera zuten batez beste. 1,5 metro eta 3 metro arteko sakonerara iritsi ginen.

Hona hemen zundaketa horien emaitzak:

A Zundaketa

Hiru eraikuntza unitate erregistratu ditugu buztin naturalak osaturiko geruza baten gainean oinarrituak. 1. egitura 0,70 metroko zabalera, 1,50 metroko lodiera eta 1.50 metroko luzera duen horma bat da. Aurreko eraikuntzaren mendebaldeko muturreko itxitura-horma gisa interpretatu dugu, eta Aro Garaikidekoa da. Hari eratxikita beste bi eraikuntza egitura daude, baina ez dira tamaina handikoak, hormigoizko zolarria dute.

B Zundaketa

Kareharrizko bi eraikuntza egitura erregistratu genituen, kareorez elkartuak harriak. 7. egiturak 0,50 metroko zabalera eta 0,50 metroko altuera ditu eta ekialde-mendebalde norabidea du, eta aurreko higiezinaren alboko itxitura zen. 8. egiturak, berriz, 0,60-0,70 metroko zabalera eta 0,50 metroko altuera zuen, eta aurreko eraikinaren mendebaldeko itxitura osatzen zuen, Aro Garaikidekoak ziren biak ere. Buztin naturalak osaturiko geruzaren gainean oinarritzen ziren biak.

Zundaketan Mendebaldeen zegoen aldean, beste eraikuntza egitura bat erregistratu dugu, kareharriz osatua, oso trauskil eskuairatua eta hormigoiz elkartua. 1,20 metroko altuera eta 0,60 metroko zabalera ditu. Urola ibaiaren ondoko eremuan orubea ixteko horma gisa interpretatu dugu, eta berri samarra da.

C Zundaketa

Geruzak soilik atzeman ditugu, horien artean aipagarri dira landare lurrez osaturiko depositua, adreilu, harri, zur eta metal puskak, euskal zeramika herritar zatiak, aurreko eraikina eraitsi ondoko hondakinak, ... 1,80 metroko lodiera du gutxi gora-behera eta buztin naturalak osaturiko geruzan oinarritzen da. Kronologiari dagokionean, Aro Garaikidekoa da hau ere.

La actuación ha consistido en la realización de 3 sondeos arqueológicos, distribuidos a lo largo de todo el solar de este a oeste, con medios mecánicos Dichos sondeos tenían unas dimensiones medias de 18 m. de longitud × 2 m. de anchura. La profundidad alcanzada oscilaba entre 1,5 m. y 3 m.

Los resultados en los sondeos son los siguientes:

Sondeo A

Se ha registrado tres unidades constructivas asentadas sobre un estrato de arcilla natural. La estructura 1 es un muro de 0,70 m. de anchura × 1,50 m. de potencia × 1,50 m. de longitud. Lo interpretamos como el muro de cierre del extremo oeste de la edificación anterior, de época contemporánea. Adosadas al mismo se registran otras dos estructuras constructivas de escasa entidad y la solera de hormigón.

Sondeo B

Se registran dos estructuras constructivas en piedra caliza unidas con mortero de cal. La estructura 7 de 0,50 m. de anchura × 0, 50 m. de altura y de orientación Este-Oeste forma el cierre lateral del inmueble anterior mientras que la estructura 8, de 0,60-0,70 m. de anchura × 0,50 m. de altura forma el cierre Oeste de la edificación anterior, ambas de época contemporánea. Ambos se asientan sobre el estrato de arcilla natural.

En el extremo más al Oeste del sondeo, se registra otra estructura constructiva formada por piedra caliza, escuadrada de forma tosca y unida con hormigón. Tiene una altura de 1,20 m. y una anchura de 0,60 m. Lo interpretamos como un muro el cierre del solar en la zona cercana al río Urola de factura reciente.

Sondeo C

Sólo se registran estratos, destacando el depósito de tierra vegetal, fragmentos de ladrillo, piedra, maderas, metales, fragmentos de cerámica popular vasca, escombros del derribo de la edificación anterior, etc. Tiene una potencia de aproximadamente 1,80 m. y se asienta sobre el estrato de arcilla natural. Su adscripción cronológica es contemporánea.

Lortutako datuak ikusirik, eta zundaketa arkeologikoen neurriek orubearen zati handi bat hartzen dutela kontuan harturik, uste dugu ez dela arkeologiaren ikuspegitik begiratuta interesa duen beste geruzarik edo/eta egitura arkeologikorik egongo.

A juzgar por los resultados obtenidos y dado que las dimensiones de los sondeos arqueológicos representan una parte proporcional del solar importante, consideramos que es poco probable la presencia de otros estratos y/o estructuras arqueológicas de interés.

Miren Ayerbe Irizar

D.3.2.4. **San Bartolome, 32 (Elgoibar)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: Promociones Urbiondoa, S.L. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.4. **San Bartolomé, 32 (Elgoibar)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Promociones Urbiondoa, S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

In the site that was the object of this project, the most important finds included part of the medieval wall which surrounded the town and a flooded outer pit. Due to the existence of a layer of anaerobic lime, product of the sedimentation of water from the pits, a great deal of organic material has survived: vegetable remains (cherries, peaches, walnuts, hazelnuts, chestnuts, etc.), wooden utensils, leather footwear, etc. Thanks to these elements, which generally only survive under these circumstances, the flooded pits are a goldmine of archaeological information about urban life, the reconstruction of the landscape, and the diet and domestic habits of late medieval towns in the province of Gipuzkoa.

1988. urteaz geroztik hirigune historiko honetan eginiko azterketa arkeologiko desberdinek neurri handi batean handitu dituzte Elgoibarko gotorlekuari buruz genituen informazioak. Lehen etapa batean suhesiaren eta Erdi Aroko zabaltzearen ondoko harresiaren zatiaren ezaugarriak aztertu ahal izan genituen. Geroago, 1992. urtean, azterketa xehea egin zen eta hari esker trazatu osoa berreraiki ahal izan genuen, benetan intereseko elementuak identifikatu baitziren, hobia, urez betea hura, edo dorrea, esate baterako, Deba[29] ibaia alderik alde igarotzen zuen zubi bakarraren gainean. Azken urte hauetan, San Bartolome kaleko 22. eta 8. zenbakietan, 1999 eta 2001. urteetan aurrera eramaniko jarduerek aukera eman dute planteaturiko hipotesien fidagarritasuna egiaztatzeko, hobia eta inguruko harresia aurkitu ondoren. San Bartolome kaleko 23. zenbakian eginiko interbentzio arkeologiko berri honek aukera eman digu planteamendu horiek indartzeko.

Interbentzioari hasiera emateko, bost zundaketa egin genituen orubearen potentzial arkeologikoa ebaluatzeko, eta Erdi Aroko harresia eta hura inguratzen zuen urez betetako hobia aurkitu genituen orubearen atzeko aldean, Aita Agirre plazaren ondoan. Aurkikuntza haiek egin ondoren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailak aginduta, eraikin berriaren zimentazio obrek ukituko zituzten intereseko deposituak induskatzea plan-

Los diferentes estudios arqueológicos desarrollados desde 1988 en este casco histórico han ampliado en gran medida las informaciones disponibles sobre las características de la fortificación de Elgoibar. En una primera etapa pudieron reconocerse las características del muro cortafuegos y del tramo de muralla resultante de la ampliación medieval. Posteriormente, en 1992, se llevó a cabo un estudio exhaustivo con el que se pudo reconstruir el trazado completo, identificándose elementos de interés como el foso inundado o la torre sobre la entrada del único puente que cruzaba el río Deba[29]. En los últimos años, las actuaciones desarrolladas en los números 22 y 8 de la calle San Bartolomé, durante los años 1999 y 2001 respectivamente, han permitido comprobar la fiabilidad de las hipótesis planteadas mediante el descubrimiento del foso y la cerca colindante. La nueva intervención arqueológica realizada en el solar de San Bartolomé 32 ha permitido afianzar estos planteamientos.

La intervención comenzó con la realización de cinco sondeos para evaluar el potencial arqueológico del solar, constatándose la presencia de la muralla medieval y del foso inundado que rodeaba a la misma, en la parte posterior del solar, junto a la plaza Aita Agirre. Ante tales hallazgos y por indicación del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se planteo la excavación de aquellos depósitos de interés que

[29] URTEAGA, M., ETURA, J.A., GEREÑU, M., 1992. *Estudio Histórico-Arqueológico del Urbanismo de la villa de Elgoibar*. Eusko Jaurlaritza, Elgoibarko Udala. Argitaragabea.

[29] URTEAGA, M., ETURA, J.A., GEREÑU, M., 1992. *Estudio Histórico-Arqueológico del Urbanismo de la villa de Elgoibar*. Gobierno Vasco, Ayuntamiento de Elgoibar. Inédito.

teatu zen. Indusketak ukituko zuen esparrua etxearen atzealdeko itxituraren eta harresiaren artean zegoen, eta 9 metro karratu inguruko azalera zuen –1,75 metroko kotara iritsi arte.

Bigarren fase honetan hiribilduko Erdi Aroko harresia dokumentatu ahal izan genuen; 3,40 metroko luzera eta 0,90 metroko zabalera zituen, eta bere altxaeraren 1,50 metro soilik erregistratu ahal izan genituen obra kontuengatik. Egitura landu gabeko harriz eta kareharrizko boloez egina zen eta kare eta hondarrez eginiko kareore zurixkak elkartzen zituen harriak. Harresiaren kanpoaldean hura inguratzen zuen hobia atzeman genuen urez betea. Oraingoan ere, kale honetan bertan eginiko beste interbentzioetan gertatu zen bezala, ezin izan genuen haren zabalera zehaztu, interbentzioak ukituriko orubearen mugetatik kanpo zegoelako eta Aita Agirre plaza aldera luzatzen zelako.


Hobia osatzen zuten deposituak limo hondartsuak ziren, gris ilunak, eta material organiko ugari, errekarriak eta eraikuntza materialak ageri ziren bertan. Azpiko mailetan, hobiko sedimentuak iluntzen zihoazen eta

iban a verse alterados por las obras de cimentación del nuevo edificio. El espacio afectado por la excavación se situaba entre el cierre posterior de la vivienda y la muralla, con una superficie de unos 9 metros cuadrados hasta alcanzar una cota de –1,75 metros.

En esta segunda fase fue posible la documentación de la cerca medieval de la villa, con una longitud de 3.40 m. y una anchura de 0,90 m., registrándose únicamente 1,50 m. de su alzado por condicionantes de la obra; la estructura realizada con mampuestos y bolos de caliza, estaba trabada con mortero de cal y arena de tonalidad blanquecina. En el exterior la muralla se localizó el foso inundado que rodeaba a la misma. En esta ocasión, al igual que ocurría en otras intervenciones realizadas en esta misma calle, no fue posible descubrir la anchura del mismo debido a que continuaba fueran de los límites del solar afectado por la intervención, prolongándose hacia la plaza Aita Agirre.

Los depósitos que formaban el foso estaban compuestos por limos arenosos de tonalidad gris oscuro con gran cantidad de material orgánico, canto de río y material de construcción. En los niveles inferiores, los

Erdi Aroko harresia eta hobia Elgoibarko hiribilduan.



Muralla y foso medieval de la villa de Elgoibar.

plastikoago bihurtzen ziren, errekarriak eta eraikuntza materialak desagertu egiten ziren, eta landare lur gehiago agertzen zen. Induskatu beharreko eremuan etengabean ura zegoenez eta material arkeologikoak aurkitzeko garaian limo horiek zailtasunak sortzen dituztenez, ateratako lurrak urez bahetu genituen, elementu arkeologikoak modu azkar eta seguruagoan berreskuratu ahal izateko.

Giro anaerobikoetako limo geruza bat egoteak aukera eman du materia organiko ugari kontserbatzeko. Hobien bigarren mailako funtzioaren emaitza dira aurkikuntza horiek neurri batean, hiribilduko garbiketa eta saneamendu beharrak estaltzeko erabiltzen baitziren hobi horiek. Hala bada, hondakin ugari aurkitu genituen: larruzko oinetako eta uhalen hondakinak, melokotoi, gerezi eta haran haziak, fruituen azalak (gaztainak, hurrak, intxaurrak...), zurezko piezak, esate baterako, orraziak, iltzeak, larakoak, eta beste ohiko elementu batzuk, zeramika, txanponak, orratzak, herreteak eta abar. Soilik zirkunstantzia horietan aurki daitezkeen elementu horiei guztiei esker, urez betetako hobiak arkeologiaren ikuspegitik benetan interes handia duten espazio bilakatu dira hiriko bizitza ezagutzeko eta Behe Erdi Aroko Gipuzkoako hiribilduen paisaia, dieta eta etxe ohiturak berritzeko.

1346. urtean sortu zen, Markina eta Mendaroko biztanleek eskatuta, Elgoibarko hiribildua, Villamayor de Marquina izenarekin. Erregeak Logroñoko hiri-gutuna eman zuen, eta harresiz eta dorrez inguratzeko agindua eman zuen errege-statusa emateko ohikoa zen bezala. Oin angeluzuzena zuen finkamendua sortu zuten Deba ibaiaren eskuinaldean, bi kale paralelo zituen haranaren norabidearekin lerrokatuak. Finkamendu hori harrizko horma batez itxi zuten eta horma urez inguratu zuten; alde batetik ibaia bera, eta beste aldeetatik, hiru metroko sakonera baino handiagoko hobi bat eraiki zuten. Geroago, eta koiuntura politiko berri batean, suzko armak agertzean, Erdi Aroko harresiek galdu egin zuten beren erabilera, denboraldi hartan ez baitziren hainbeste gatazka izaten, eta horregatik hiribilduak galdu egin zuen bere jatorrizko izaera, eta harresia ere zuen defentsa interesa galtzen hasi zen. Harresiak eta hobiak beren funtzioak galdu ondoren —lehenengoari goiko aldea kendu zioten eta bigarrena erabat bete eta lehortu egin zuten— hiri eremua zabaltzen hasi zen, eta jada abandonaturiko esparru gotortuaren espazioa aprobetxatu eta okupatu zuten, gaur egun ezagutzen dugun kanpoaldeko lerrokadura berria osatu arte.

Guk hainbat hobitan eginiko interbentzioek benetan aztarna interesgarriak ekarri dizkiote Erdi Aroko Gipuzkoako ikerketa arkeologikoaren panoramari. Kontuan izanik hobiak zabortegi gisa erabiltzen zituztela hiribilduko biztanleek, defentsa testigantzez gainera, era askotako hondakin arkeologikoak azaldu dira, eta ugari gainera, bereziki materia organikoa, benetan bereziak Erdi Aroko panorama gipuzkoarrean.

sedimentos del foso iban oscureciéndose y haciéndose más plásticos, desapareciendo el canto rodado y los materiales de construcción, localizándose una mayor cantidad de material vegetal. Debido a la constante afluencia de agua en la zona de excavación y a la dificultad que ofrecen estos limos para localizar materiales arqueológicos, las tierras extraídas se cribaron con agua para permitir de esta manera la recuperación del ajuar arqueológico de una forma más rápida y segura.

La existencia de una capa de limos de ambientes anaeróbicos, ha permitido conservar gran cantidad de materia orgánica. Estos hallazgos son fruto en parte de la función secundaria de los fosos: cubrir necesidades de limpieza y saneamiento de la villa. Así, se localizan restos de calzado y correas de cuero, semillas de melocotón, cereza, ciruela, cáscaras de frutos (castañas, avellanas, nueces…), piezas de madera tales como peines, clavijas, pasadores, y otros ajueres habituales como cerámica, monedas, alfileres, herretes, etc. Gracias a todos estos elementos, sólo localizables en estas circunstancias, los fosos inundados se han convertido en espacios de gran interés arqueológico para el conocimiento de la vida urbana, la reconstrucción del paisaje, la dieta o los hábitos domésticos de las villas bajomedievales guipuzcoanas.

Será en 1346, y a petición de los moradores de Markina y Mendaro, cuando se funde la villa de Elgoibar, bajo la denominación de Villamayor de Marquina. El rey concederá la carta puebla de Logroño, y dará ordenes para que se cerque y torree como era habitual en la concesión del estatus de realengo. Se creará un asentamiento de planta rectangular, en la margen derecha del río Deba, con dos calles paralelas y alineadas con la dirección del valle. Este emplazamiento se cercará con un muro de piedra rodeado de agua; por un flanco el propio río y por los demás lados un foso de más de tres metros de profundidad. Con posterioridad y en una nueva coyuntura política, en que las murallas medievales han perdido su utilidad por la aparición de las armas de fuego, debido a la situación menos conflictiva del período y a la perdida del carácter fundacional de la villa comienza a producirse un proceso de abandono del interés defensivo de la muralla. Tras la pérdida de funciones de la cerca y del foso —la primera se desmocha y el segundo se colmata y deseca— se produce una pequeña expansión del área urbana que aprovecha y ocupa el espacio de la fortificación abandonada, hasta formalizar la nueva alineación exterior que conocemos hoy en día.

Las intervenciones realizadas por nosotros en diversos fosos, han aportado al panorama de la investigación arqueológica medieval guipuzcoana vestigios sumamente interesantes. Teniendo en cuenta que los fosos servían de vertedero a los habitantes de las villas, a los testimonios defensivos se suma una variedad y número de ajuares arqueológicos, con especial atención a la materia orgánica, excepcionales en el panorama de la Edad Media guipuzcoana.

Pía Alkain Sorondo

D.3.2.5. **Santxoenea, 25 (Errenteria)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar
Finantzazioa: 3 JES 99 S.L.

D.3.2.5. **Santxoenea, 25 (Errenteria)**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar
Financiación: 3 JES 99 S.L.

The archaeological intervention consisted in the monitoring of the demolition of the building and the subsequent archaeological sondage. The importance of the site lies in its location, on the outer limits of the hypothetical line of the medieval wall and one of the entranceways to the old town.

Errenterian, Santxoenea kaleko 25. zenbakiko eraikinean hainbat fasetan egin genuen jarduera arkeologikoa. Alde batetik, aurreko eraikina eraisteko lanen jarraipena egin genuen, eta egungoaren aurreko eraikuntzari loturiko egituren altxaerak erregistratu genituen, aurreko eraikuntza hori berriro aprobetxatu egin baitzuten. Era berean, zur laginak hartu genituen behe solairuko habeetatik, oso lodiak haiek, datazio dendrokronologikoa egiteko. Mendebaldeko fatxadaren jarraipena ere egin genuen, eskuz desmuntatu zen hura, Erdi Aroko harresiaren hondakinak aurkitu nahian.

Bigarren fasean, berriz, aurreko eraikuntza eraitsi ondoren, zundaketa bat egin genuen luzeran, ekialdemendebalde norabidean. Zundaketa horrek 2 metroko zabalera, 18 metroko luzera eta 2 metroko sakonera zituen batez beste. 2 × 2 metrora zabaldu genuen Hegomendebaldeko muturrean.

Estratigrafiaren ikuspegitik begiratuta, baldosazko zoruaren azpian, zabor depositu bat aurkitu genuen eraikuntza materialez osatua (teilak, adreilua, mortairua eta harria), baina lodiera txikia zuen, 0,10 eta 0,30 metro artean.

Azpian, lur geruza bat azaldu zen, kolore beltzaxka zuen, oso iluna, eta zepa ugari zegoen bertan. 0,40 me-

La actuación arqueológica en el inmueble de Santxo-enea n.º 25, en Errenteria se llevó a cabo en varias fases. Por una parte, se realizó un seguimiento de las labores de derribo del inmueble anterior, registrando estructuras, en alzado, relacionadas con la edificación anterior a la actual, que había sido reaprovechada. Del mismo modo, se recogieron muestras de madera de la viguería de la planta baja, de gran grosor para su datación por dendrocronología. También se realizó un seguimiento de la fachada oeste, que fue desmontada con medios manuales, con el fin de localizar restos de la cerca medieval.

La segunda fase consistió en la ejecución, una vez derribado el inmueble anterior, de un sondeo longitudinal, en dirección este-oeste, de 2 m. de anchura × 18 m. de longitud × 2 m. de profundidad media. Puntualmente fue ampliado en 2 × 2 m. en el extremo suroeste.

Desde el punto de vista estratigráfico se registró bajo el suelo de baldosas, un depósito de escombro con material de construcción (teja, ladrillo, mortero y piedra) de escasa potencia, entre 0,10 y 0,30 m.

Por debajo, se localizó un estrato de tierra de color negruzco, muy oscuro, con gran cantidad de escoria,



Mendebaldeko fatxadaren zimentazioko zurezko pilotajearen xehetasuna.

Detalle del pilotaje de madera de la cimentación de la fachada oeste.

troko lodiera zuen gehienez ere. Ondoren, limo depositu bat agertu zen, hondartsua, hura ere beltzaxka, eta hondakin organiko ugari eskaini zizkigun (zurak, hezurrak, larrua,...) eta baita eraikuntza materiala ere. 0,30 eta 0,80 metro arteko lodiera zuen. Geruza hori buztin grisak osatutako depositu baten gainean oinarritzen zen, buztin plastikoak ziren, landare materiala ageri zuen eta metro 1eko lodiera zuen. Azkenik, limoak agertu ziren azpian.

Egiturei dagokienean, mendebaldeko eta iparraldeko zimentazioak erregistratu genituen. Beheko solairuan bereizi genituen landu gabeko kareharriz eginiko egitura horiek, mortairuz elkartuak zituzten harriak eta 0,80 metroko zabalera zuen. Era berean, orubearen ia erdialdean, hegoalderantz, beste eraikuntza egitura bat atzeman genuen, honek ere 0,80 metroko zabalera zuen. Landu gabeko kareharriz egina zen, ongi egina, eta 2 metroko sakonera ikusten zitzaion gutxienez. Suntsitze mailakatua ageri zuen.

Erregistro arkeologikoak eskaini zigun berezitasunetako bat, zurezko pilotajea aurkitzea izan zen, haritzzura zen, eta hartan oinarritzen ziren egiturak.

que alcanzaba una potencia máxima de 0,40 m. A continuación, un depósito de limo arenoso, también negruzco con gran cantidad de restos orgánicos (maderas, huesos, cuero,...) y material de construcción. Tenía una potencia que oscilaba entre 0,30 y 0,80 m. Este estrato descansaba sobre un depósito de arcilla gris, de consistencia plástica, con material vegetal y 1 m. de potencia. Finalmente, por debajo, se localizaron los limos.

En cuanto a las estructuras, se registraron las cimentaciones de la fachadas oeste y norte. En planta baja se delimitaron estas estructuras de mampostería de caliza con mortero de 0,80 m. de anchura. Del mismo modo, casi en el centro del solar, hacia el sur, se localizó otra estructura constructiva, también de 0,80 m. de anchura. Realizada en mampostería de caliza, bien trabada alcanzó una profundidad visible de al menos 2 m. Presentaba un arrasamiento escalonado.

Una de las peculiaridades del registro arqueológico fue el hallazgo del pilotaje de madera, de roble, en el que se asentaban estas estructuras.

Miren Ayerbe Irízar

D.3.2.6. **San Roke, 7 (Getaria)**

Zuzendaritza: Larraitz Arretxea
Finantzazioa: Promociones Nola 2000, S.L. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.6. **San Roke, 7 (Getaria)**

Dirección: Larraitz Arretxea
Financiación: Promociones Nola 2000, S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

The emergency archaeological intervention carried out at number 7 San Roke Street in Getaria failed to provide any archaeological data of interest, despite its location in the historic quarter.

Arestian aipaturiko orube horretan dagoen eraikina berreraiki behar zutela eta, kontuan harturik Getariko Hirigune Historikoaren barnean dagoela, 2003ko udaberrian interbentzio txiki bat egin genuen, baina ez zigun intereseko daturik eskaini. Harri naturala oso zentimetro gutxira azaldu zen eta depositu arkeologikoa aurrez hondatua zegoen, eta horrexegatik, euskal zeramika herritarraren zati batzuk baino ez ditugu aurkitu, oso balio txikikoak, eta gainera ez zeuden antzinako inolako egiturari loturik. Emaitza horiek ikusi ondoren, baimena eman zuten obra zibila aurreikusitako terminoetan aurrera eramateko.

Con motivo de la reedificación del inmueble situado en el solar citado, y teniendo en cuenta su ubicación dentro del Casco Histórico de Getaria, en la primavera de 2003 se llevó a cabo una breve intervención que no arrojó ningún dato de interés. La presencia de la roca natural a escasos centímetros de profundidad y el arrasamiento previo del depósito arqueológico únicamente aportaron algunos fragmentos de cerámica popular vasca de escaso valor, y no asociados a ninguna estructura de antigüedad. Estos resultados determinaron la autorización para llevar a cabo la obra civil en los términos previstos.

Larraitz Arretxea Sanz

D.3.2.7. **San Roke, 25 (Getaria)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: Munosain S.L.
eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.7. **San Roke, 25 (Getaria)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Munosain S.L.
y Diputación Foral de Gipuzkoa

In general terms, the archaeological intervention carried out at number 25 San Roke Street revealed a simple stratigraphic sequence. The archaeological levels contained little of interest and the geological substratum is almost at the same level as the street. The excavation of the subsoil revealed no evidence dating from earlier than the modern-contemporary era.

Orube hau Getariko hiribilduko hirigune historikoan dago, haren mendebaldean; luzeran hedatzen da San Roke kaletik hasi eta N-634 kostaldeko errepidearen gainetik dagoen amildegiraino.

Eraikinak traza gotikoa zuen, baina geroagoko xehetasun batzuk ere ageri zituen; angeluzuzen antzeko oina zuen baina irregular samarra, eta hormak, berriz, ez ziren tamaina berdinekoak. Eraikina karga-hormaz eraikia zen eta zurezko egitura zuen. Beheko solairua, bi goiko solairu eta estalkipea zituen, eta multzoa osatzen zuen ondoko eraikinarekin, 27. zenbakia zuenarekin, haren hegoaldeko artekohorma aprobetxatzen baitzuen.

Interbentzio arkeologiko honetan zabaleran induskatu genuen ia orube osoa, 2,70 metro inguru zabal eta 7,20 metro inguru luze zituen tarte bat izan ezik, ekialdeko sektorean, fatxada nagusiaren ondoan. Obra proiektuaren arabera eremu honetan lur iraulketarik aurreikusten ez bazen ere, hainbat zundaketa egitea erabaki genuen zimenduak eta hormen arteko mendekotasun-erlazioak egiaztatu ahal izateko.

Oro har, San Roke kaleko 25. zenbakian eginiko interbentzio arkeologikoan sekuentzia estratigrafiko xumea aurkitu genuen. Erregistraturiko azalerako maila, eraikina eraberritzeko aurrera eramandako obrek eragin zituzten lur iraulketen ondorioa zen. Haren azpian, hondar depositu batean oinarritzen zen zolarria ikus zitekeen sektoreetako batzuetan. Zolarri horren egitekoa azalera berdintzea zen, eta haren azpian harri naturala ageri zen.

Interbentzio arkeologiko honetan, gauzarik garrantzitsuena eraikinaren paramentuen irakurketa izan da, horrek halako jarraibide batzuk ematen baitizkigu orubearen eboluzio-prozesua ezagutzeko. Gure egunetaraino iritsi den eraikuntza XV. mendearen amaieran edo XVI. mendearen hasieran eraikiko zuten, eta haren hormak harri naturalaren gainean bermatzen dira zuzenean. Eraikuntza hori egin zutenean, jada zutik zegoen aldameneko orubeari, 27. zenbakiari zegokiona. Arrazoi horregatik haren hegoaldeko itxitura-horma erabili zuten artekorma gisa. Bi fatxadak kanpoaldetik elkartzeko hego-ekialdeko ertza kendu zuten, eta horregatik, hareharri landuz horma-atal txiki bat eraiki behar izan zuten arestian aipaturiko ertz hori sendotzeko. Era berean, hegoaldeko eta atzealdeko itxitura-hormak eraiki zituzten, baina azkeneko hori ez da kontserbatu.

Atzealdeko itxitura horren suntsiketa eta eraikinaren oineko egungo irregulartasun hori labarraren des-

El solar se localiza en el casco histórico de la villa de Getaria, en la zona occidental; se extiende longitudinalmente desde San Roke Kalea hasta el barranco situado, por encima de la carretera de la costa, N-634.

El edificio, de traza gótica con algunos detalles evolucionados, tenía una planta tendente al rectángulo ligeramente irregular; siendo los muros de desigual tamaño. El edificio construido con muros de carga y estructura de madera, contaba con planta baja, dos alturas y bajo cubierta, formando conjunto con el edificio anejo, n.º 27, del que aprovechaba su medianil meridional.

Durante la intervención arqueológica se procedió a excavar en área la práctica totalidad del solar, a excepción, de un tramo de unos 2.70 m. de ancho 7.20 m. de largo situado en el sector oriental, junto a la fachada principal. Aunque en esta zona, según el proyecto de obra, no estaba previsto ningún movimiento de tierra se optó por realizar varios sondeos, para comprobar las cimentaciones y las relaciones de dependencia de los muros.

En términos generales durante la intervención arqueológica realizada en el n.º 25 de San Roke kalea se registro una secuencia estratigráfica sencilla. El nivel superficial registrado era consecuencia de la remoción del terreno provocada por las obras llevadas a cabo para la rehabilitación del edificio. Por debajo de él, se localizaba, en algunos sectores, una solera que asentaba sobre un depósito de arenas, cuya función era la de nivelar la superficie, tras él se registraba la roca natural.

Lo más significativo de la intervención arqueológica hay que buscarlo en la lectura de los paramentos del edificio, que nos da algunas pautas para reconstruir el proceso evolutivo del solar. La construcción que ha llegado hasta nuestros días, debió de ser alzada a finales del siglo XV o comienzos del siglo XVI y, sus muros se asientan directamente sobre la roca natural. Cuando se asumió la construcción de ese edificio ya estaba en pie el correspondiente al solar contiguo, n.º 27. Por este motivo se utilizó su muro de cierre meridional como medianil. Para unir las dos fachadas desde el exterior, se eliminó la esquina sureste, de ahí que fuera necesaria la construcción de un pequeño lienzo en sillares de arenisca para reforzar la citada esquina. Así mismo, se alzó el muro de cierre meridional y el de cierre trasero, aunque este último no se ha conservado.

La destrucción de ese cierre trasero y de la actual irregularidad de la planta del inmueble hay que relacio-

plazamendu naturalekin lotu beharko lirateke, horien eraginez desagertu egin baitzen Getariko hirigune historikoko bosgarren kalea, Plateria izenekoa, eta ondorioz, atzealdeko itxiturak berriro antolatu behar izan ziren kaleko eraikin bakoitietan. XIX. mendea baino lehenagoko uneren batean eraiki zuten atzealdeko horma, fatxadarena ez bestelako orientazioarekin eta atzera emana aurrekoari zegokionean.

Eraikineko fatxada nagusia hiru solairutan banatzen da, eta horietan hainbat bao irekitzen dira, baina interbentzio batzuk jasan dituzte geroago. Baoetako batzuen zati batzuk itxi dira, eta bigarren solairuan erdiko leiho-balkoia kendu da, fatxadaren konposizio-eredua aldatuz. Seguru asko, eraikinaren barnealdeko banaketa ere aldatuko zuten uneren batean, altuera zertxobait aldatuz eta bi leiho txikiren bidez argitzen zen sabaigaina sortuz.

narlas con los desplazamientos naturales del acantilado que provocaron la desaparición de la quinta calle del casco antiguo de Getaria, denominada Platería y que provocó la reorganización de los cierres traseros en los edificios impares de la calle. En un momento anterior al siglo XIX, se alzó el muro trasero con una orientación diferente al de la fachada y retranqueado respecto al anterior.

La fachada principal del inmueble se articula en tres plantas en las que se abren diversos vanos que han sufrido varias intervenciones posteriores. Algunos de los vanos se han amortizado parcialmente y en la segunda planta se eliminó la ventana-balcón central, modificando el modelo compositivo de la fachada. Posiblemente la distribución interna del inmueble también se modificó en algún momento, variando ligeramente la altura y creando un sobretecho que se iluminaba mediante dos pequeños ventanucos.

Pía Alkain Sorondo; Rosa San José Miguel

D.3.2.8. **Gudarien Enparantza, 3 (Hernani)**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Gudarien Enparantza, S.L. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.8. **Gudarien Enparantza, 3 (Hernani)**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Gudarien Enparantza, S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

The intervention carried out in the town of Hernani, founded during the second half of the 14th century, failed to provide any results of archaeological interest.

Gudarien Enparantza kaleko 3. zenbakiko orubea Hernaniko Erdi Aroko hiribilduaren hegoaldean dago, Udaletxetik gertu eta parroki elizaren aldamenean. Eraikinaren barnean eginiko zundaketek ez digute aukerarik eman XIX. mendearen erdialdea baino lehenagoko okupazio baten aztarna garbirik identifikatzeko, garai horretan eraiki baitzuten egungo eraikuntza. Hiri espazio zehatz honen historia hertsiki loturik dago parroki elizaren lekualdatzearekin, herri bazterretik egungo kokalekura ekarri baitzuten hura. Gertakizun hori XVI. mendearen bigarren erdialdean izan zen, eta tenplu horren inguruan halako espazio libre batzuk sortu ziren, oraingo orube hau, esate baterako, elizkizunak, bilera publikoak eta abar egin ahal izateko.

El solar de Gudarien Enparantza n.º 3 se ubica en la parte meridional de la villa medieval de Hernani, en las proximidades del Ayuntamiento y adyacente a la iglesia parroquial. Los sondeos realizados en el interior del edificio no han permitido identificar evidencias fehacientes de una ocupación anterior a mediados del siglo XIX, momento en el que se construye la presente edificación. La historia de este concreto espacio urbano está estrechamente vinculada al traslado de la iglesia parroquial desde las afueras de la población hasta su actual ubicación. Un hecho que tiene lugar a lo largo de la segunda mitad del siglo XVI, creándose en torno a este templo una serie de espacios libres, como el presente solar, donde poder celebrar los oficios religiosos, las reuniones públicas, etc.

Alfredo Moraza Barea; Miren García Dalmau

D.3.2.9. **Fraskueneko Murrua, 1 (Hondarribia)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: San Jose «Gurutzeko Alabak» ikastetxea eta Gipuzkoako Foru Aldundia

The archaeological assessment intervention failed to provide any data of interest regarding the real line of the old wall and its subsequent destruction. The levels documented are of little archaeological interest, since they reveal neither structures nor levels of occupation predating the modern era.

2003ko urrian ebaluaziorako interbentzio arkeologiko bat egin genuen Hondarribiko San Jose Ikastetxearen iparraldean, hegoaldeko sektorean. Interbentzio arkeologiko hori egin genuen espazio horretan pilotaleku bat eraiki behar zutelako; izan ere, hirigunea babesten zuen harresi errenazentista gotortu zaharrari loturiko elementu arkeologikoak egon zitezkeen bertan. Dokumentazio idatzi eta kartografikoaren bidez bagenekien harresiaren ekialdeko aurrealdearen trazatua egungo Fraskueneko Murrua kalearen paraleloan joango zela. Horrenbestez, Parroki elizaren burualdearen eta San Jose Ikastetxearen atzealdearen artetik joango zen San Felipe gotorlekuraino. Era berean, bagenekien aurrealde hori 1794. urtean suntsitu zutela Konbentzioko Gerraren garaian.

Testuinguru historiko-arkeologiko egoki hori izan arren, interbentzio arkeologikoak ez zigun datu garrantzitsurik eskaini harresi zaharraren benetako trazatuaren eta geroko suntsiketaren inguruan. Dokumentatu genituen mailak zaborrez osaturiko mailak baino ez ziren, zabor antzuak eta obra hondakinak ziren, baina arkeologiaren ikuspegitik ez zuten bat ere garrantzirik, Aro Modernoa baino lehenagoko okupazioaren lekuko izan zitekeen egitura edo mailarik ez baikenuen atzeman orube osoan. Zundaketak egin genituen bitartean aurkitutako kareharri eta mortairu hondakin kopuru handi horiek arestian aipaturiko harresi horren hondakinak izan zitezkeen, harresiaren leherketaren ondoren sortutakoak, edo lehenagoko aurri-faseren batekoak ere izan litezke beharbada.

D.3.2.9. **Fraskueneko Murrua, 1 (Hondarribia)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Colegio San José «Hijas de la Cruz» y Diputación Foral de Gipuzkoa

Durante el mes de octubre de 2003, se llevó a cabo una intervención arqueológica de evaluación, en el sector meridional del ala norte del colegio de San José de Hondarribia. La intervención arqueológica se llevó a cabo con motivo de la construcción en dicho espacio de un frontón, ante la posibilidad de encontrar evidencias arqueológicas asociadas a la antigua muralla renacentista abaluartada que protegía el núcleo urbano. A través de documentación escrita y cartográfica se conoce que el trazado del frente oriental de la muralla debía ir paralelo a la actual calle de Fraskueneko Murrua. Por lo tanto, discurría entre la cabecera de la iglesia parroquial y la parte trasera del colegio de San José, hasta el baluarte de San Felipe. También se conoce que dicho frente fue destruido en 1794 durante la Guerra de la Convención.

A pesar de este contexto histórico-arqueológico, la intervención arqueológica no aporto datos relevantes sobre el trazado real de la antigua muralla y su posterior destrucción. Los niveles documentados se limitaron a niveles formados por vertidos tanto de estériles como de escombro de escaso interés arqueológico, no permitiendo descubrir estructuras ni niveles de ocupación del solar, anteriores a época moderna. La gran cantidad de calizas y de restos de mortero hallados en los sondeos, podría explicarse como parte del escombro perteneciente a la citada muralla, asociados con la voladura de la muralla o incluso pudieran asociarse a alguna de las fases de ruina anteriores.

Pía Alkain Sorondo; Rosa San José Miguel

D.3.2.10. **Arma plaza, 12 (Hondarribia)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: Azse, S.A. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.2.10. **Harma plaza, 12 (Hondarribia)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Azse, S.A. y Diputación Foral de Gipuzkoa

During the archaeological assessment intervention carried out at this site located at number 12 Harma Square, evidence of an earlier building was found. According to historical documents, this building may have been built during the 17th-18th century.

Aztergai dugun orube hau Hondarribiko hirigune historikoaren erdi-erdian dago, hiribilduko gune altuenean eta Karlos V.aren Gaztelua deiturikoaren aurrealdean; luzeran hedatzen da Arma Plazatik hasi eta San Nikolas eta San Karlos kaleetan elkartzen den kale esturaino. 7 metro zabal eta 20 metro luze dituen lursail bat hartzen du.

Ebaluaziorako interbentzio arkeologiko honetan bost zundaketa egin genituen guztira baliabide mekanikoak erabilita. Eraikuntza barnealdetik hustu baino lehen egin genituen lan arkeologikoak, eta horrenbestez, zegoen espazio librearen araberakoak izan ziren zundaketak.

Oro har, sekuentzia estratigrafiko xumea aurkitu genuen. Azalerako mailak zoladurak, zolarriak eta Aro Garaikideko zaborrak ziren. Era berean, orube osoan dokumentatu genuen buztin berdexkaz osaturiko maila bat eta Aro Modernoko materialak azaldu ziren bertan. Maila horren azpian substratu geologikoa ageri zen.

Elementu interesgarri gisa, eraikuntza baten atzealdeko itxitura-horma izan zitekeen egitura bat aurkitu genuen; horma hori 1,5 metro atzera emana zegoen egungo eraikinaren itxitura-hormarekiko, eta orientabidea ere zertxobait desberdina zuen. Egitura horren azterketak aukera eman digu atzealdeko kale estuaren lerrokadura nabarmen aldatu dela egiaztatzeko lerrokaduran ez ezik, zoruaren kotari dagokionean ere. Erregistraturiko sarrerako atearen atalasea kalearen egungo harzola baino metro bat beherago azaltzen zen.

El solar se localiza en pleno centro del casco histórico de Hondarribia, en la zona más alta de la villa y frente al castillo denominado de Carlos V; se extiende longitudinalmente desde Harma Plaza hasta la calleja que confluye en las calles San Nicolás y San Carlos, ocupando una parcela de 7 m. de ancho por 20 m. de largo.

En la intervención arqueológica de evaluación se abrieron un total de cinco sondeos con medios mecánicos, realizándose las labores arqueológicas previamente al vaciado interior de la edificación por lo que los sondeos se ejecutaron adecuándose al espacio libre existente.

En términos generales se registro una secuencia estratigráfica sencilla. Los niveles superficiales correspondían a pavimentos, soleras y a vertidos contemporáneos. Así mismo, en todo el solar se documentaba un nivel compuesto por arcillas verdosas que contenía materiales correspondientes a época moderna; por debajo de este nivel se registraba el sustrato geológico.

Como elemento de interés se localizó un estructura identificada con el muro de cierre trasero de una edificación; el muro se retranqueada 1,5 m. respecto al muro de cierre del edificio actual, presentando una orientación ligeramente diferente. El análisis de esta estructura permite ver como la alineación de la calleja trasera se ha modificado notablemente no sólo en alineación, sino también respecto a la cota del suelo. El umbral de la puerta de acceso registrado aparecía un metro por debajo del empedrado actual de la calle. Parece claro que



3. zundaketa: hormaren eta atalasearen xehetasuna.

Sondeo 3: detalle del muro y del umbral de puerta.

Badirudi argi dagoela eraikin hau eraitsi ondoren, hainbat betegarri egin zituztela atzealdeko kalearen eta Arma Plazaren artean zegoen desnibela berdintzeko.

Kartografia zaharra berrikusi ondoren, badirudi aztergai dugun orubean eraikuntza bat zegoela aurrealdean, fatxada plaza aldera zuena, eta atzealdean, berriz, baratzea zegoen. Kartografia hori erreferentziatzat hartuta, badirudi orube osoko eraikuntza XVII. mendearen amaieratik XVIII. mendearen hasiera bitartean egin zutela.

Dokumentazio zaharra kontsultatu ondoren, Arma Plazan zeuden eraikuntzei buruzko eta gerra gatazken ondorioz suntsitu zirelako erreferentziak aurkitu ditugu. 1684an gertatutako erasoa baloratzeko idatzitako txostenean «Hendaiako gotorlekutik» zera diote «*quedaron muchas casas lastimadas y de calidad que amenazaban ruina (...) La casa de Fco. de Ybarguren en la plaza de Armas necesita apear hasta las primeras ventanas del quarto principal y primero, que lo que llega al techo de las de Fco. de Belssa, se hará de entender el gasto a medias (...) y por cuenta de Ibaguren lo que desde el techo arriba estuviere (...) La cassa (...) del Regidor Diego de Santestevan, en la misma casa necessita le apuntalen y asignen para que al tiempo del apeo de las cassas de Ybarguren, no caiga de fuerte que experimenta la misma ruina la casa de Joseph de Buitrajo*»[30].

Hainbat urte geroago, plaza horretan zegoen beste etxe bati buruzko erreferentziak aurkitu ditugu. 1832. urtean eginiko txosten batean, benetan hondatuta[31] egoteagatik Butron etxean aurrera eramaniko interbentzioak aipatzen dira. Zoritxarrez, ezin dugu zehaztu etxe horietakoren bat orain plazako 12. zenbakia okupatzen duen orubean egon zen ala ez.

posteriormente al derribo de este edificio, se emplearon diferentes rellenos para intentar salvar el desnivel existente entre la cota de la calle trasera y Harma Plaza.

Revisando la cartografía antigua parece que en el solar objeto de estudio se localizaba una construcción situada en su parte delantera, con fachada a la plaza, mientras que la parte trasera estaba destinada a huerta. Tomando como referencia esta cartografía, parece que la edificación de todo el solar, se produjo a partir de finales del XVII y principios del XVIII.

Consultando la documentación antigua encontramos referencias en torno a las edificaciones existentes en la Plaza de Armas y su ruina como consecuencia de las contiendas bélicas. En el informe redactado para valorar el ataque acaecido en 1684 «desde el fortín o baluarte de Hendaya» se dice que «*quedaron muchas casas lastimadas y de calidad que amenazaban ruina (...) La casa de Fco. de Ybarguren en la plaza de Armas necesita apear hasta las primeras ventanas del quarto principal y primero, que lo que llega al techo de las de Fco. de Belssa, se hará de entender el gasto a medias (...) y por cuenta de Ibaguren lo que desde el techo arriba estuviere (...) La cassa (...) del Regidor Diego de Santestevan, en la misma casa necessita le apuntalen y asignen para que al tiempo del apeo de las cassas de Ybarguren, no caiga de fuerte que experimenta la misma ruina la casa de Joseph de Buitrajo*»[30].

Años más tarde volvemos a encontrar referencias a otra de las casas ubicada en esta plaza. En un informe elaborado en 1832 se habla de las intervenciones llevadas a cabo en la casa Butrón debido al estado ruinoso que presentaba[31]. Lamentablemente no podemos precisar si alguna de estas casas se ubicó en el terreno que ahora ocupa el solar n.º 12 de la plaza.

Pía Alkain Sorondo; Rosa San José Miguel

D.3.2.11. **Francisco de Gainza, 19. «Villa Claudia» etxea (Irun)**

Zuzendaritza: M.ª Antonia Gereñu
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mendarri S.L.

D.3.2.11. **Francisco de Gainza, 19. Villa Claudia (Irun)**

Dirección: M.ª Antonia Gereñu
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa y Mendarri S.L.

The archaeological intervention carried out failed to reveal any elements of archaeological interest. The deposits found correspond to fill-ins generated in recent years.

Villa Claudiak okupaturiko orubea Beraungo muinoaren beheko aldean dago, Ertzaintza-etxe aldera, a priori erromatarren garaiko Oiasso hirigunearen barnean dagoen eremu batean. Leku horretan hainbat zundaketa egin genituen, baina oso estratigrafia xumea aurkitu ge-

El solar ocupado por villa Claudia se encuentra en la parte baja de la colina de Beraun, hacia la comisaría de la Ertzaintza, en una zona que a priori se integra en el núcleo urbano romano de Oiasso. Se realizaron una serie de sondeos en los que se registró una estratigrafía senci-

30 Hondarribiko A.H. Sec. E Neg. 5 Lib. 3 Exp. 8.

31 «Se apee el tejado, y las paredes de poniente, norte y la poca que tenía de oriente» 1832, urtarrilak 24. A.M. Hondarribia Sec. D neg. 5 Lib. 3 Exp. 8.

30 A.H. Hondarribia Sec. E Neg. 5 Lib. 3 Exp. 8.

31 «Se apee el tejado, y las paredes de poniente, norte y la poca que tenía de oriente.» 1832, enero 24. A.M. Hondarribia Sec. D neg. 5 Lib. 3 Exp. 8.

nuen. Jatorri antropikoko deposituak ziren, Aro Garaikidekoak (1., 5. eta 7. testuinguruak), eta baita sedimentu jatorriko deposituak ere, lurreko geologiaren araberakoak.

Errekarriz osatutako mailak buztin puskak ageri zituen han eta hemen (1. testuingurua), eta arkeologiaren ikuspegitik antzua zen. Maila hori muinoko alde hau betetzeko erabili zuten XX. mendearen hasieran. Horrenbestez, lurra berdindu zuten eta gaur egun eraitsia dagoen eraikuntza eraiki ahal izan zuten.

Konklusio gisa, esan daiteke, Villa Claudia etxearen kokalekua ikerketaren ikuspegitik interesgarria bazen ere Oiassoko herrixkaren eragin eremuan egoteagatik, zundaketen emaitzek ez dute okupazio horri buruzko daturik eskaini.

lla formada por depósitos de origen antrópico de época contemporánea (contextos 1, 5 y 7), así como depósitos de origen sedimentario propios de la geología del terreno.

El nivel formado por cantos rodados con inclusiones de arcilla (contexto 1), estéril desde el punto de vista arqueológico, fue utilizado para rellenar esta zona de la colina a principios del siglo XX, sirviendo para nivelar el terreno y permitiendo la construcción de la edificación actualmente demolida.

Como conclusión puede decirse que aunque el emplazamiento de villa Claudia se presentaba interesante desde el punto de vista de la investigación por encontrarse en el área de influencia de la aglomeración urbana de Oiasso, los resultados de los sondeos no han aportado datos referentes a esta ocupación.

Lorea Amundarain

D.3.2.12. **RV-55.3.02 U.E. (Irun)**

Zuzendaritza: M.ª Antonia Gereñu
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Irunurpi S.L.

D.3.2.12. **U.E. RV-55.3.02 (Irun)**

Dirección: M.ª Antonia Gereñu
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa y Irunurpi S.L.

*Sondages carried out in a site located near the Oiasso port's area of influence. The stratigraphic sequence registered was simple, with a dark silt layer being discovered over the river bank bed, containing fragments of pottery from the Roman era (*terra sigillata*, thin walls common to the Bay of Biscay). These fragments, however, do not seem to indicate the presence in this area of a Roman settlement, but rather the depositing of these materials, as waste, in the silt of the wetlands, in an area near the Oiasso port.*

Interbentzioaren garapena

Orube honetan aurrera eramaniko zundaketa arkeologikoek sekuentzia estratigrafikoa erregistratzea eta eremu horretan erromatarren garaiko hondakinik zegoen dokumentatzea zuten helburu. Xede horrekin, halako kata batzuk planteatu genituen luzeran. Eremua bat ere egonkorra ez zenez, eta horrenbestez, behera erortzeko arriskua zegoenez, zati txikiak hartu genituen kata horiek egiteko, 4 eta 5 metro arteko luzerakoak. Guztira 19 zundaketa egin genituen, 1 ekialde-mendebalde norabidean eta 4 horien perpendikularrean, iparralde-hegoalde norabidean.

A Sektorea (1-8 zundaketak)

Erregistraturiko sekuentzia estratigrafikoa xumea zen oso. Landare lurrak osaturiko betegarria zen, hainbat eraistetatik etorritako hondakinekin nahasia (tailak, adreiluak eta fundizio-zepak ekialdeko sektorean). Maila horren azpian buztinez osaturiko maila bat zegoen, buztin marroiak ziren, eta hura buztinezko beste depositu baten gainean oinarritzen zen, baina oraingoak buztin argiagoak eta trinkoagoak ziren (3. testuingurua). 3. testuingurua kendu ondoren, limo gris-beltzaxka

Desarrollo de la intervención

Los sondeos arqueológicos llevados a cabo en el solar tenían como objetivo registrar la secuencia estratigráfica del mismo y esclarecer si en este espacio se documentaban restos de época romana. Con este fin, se plantearon una serie de catas longitudinales, que debido a la inestabilidad y el consiguiente riesgo de hundimiento de las mismas se realizaron en tramos pequeños de entre 4 y 5 metros de longitud. Se realizaron un total de 19 sondeos, 15 en sentido este-oeste y 4 perpendiculares a estos en dirección norte-sur.

Sector A (Sondeos 1 al 8)

La secuencia estratigráfica registrada era sencilla, un relleno de tierra vegetal, mezclado con escombro procedente de diversos derribos (tejas, ladrillos y escorias de fundición en el sector oriental). Bajo este nivel se situaba un relleno de arcillas de tonalidad marrón que descansaba sobre otro depósito de arcillas, más limpias y compactas (contexto 3). Una vez eliminado el contexto 3 se localizaron una serie de limos (contexto 4) de tonalidad gris-negruzca, que asenta-

batzuk azaldu ziren (4. testuingurua), errekarriz osaturiko ohe batean oinarrituak. Limoek osaturiko depositu honetan erromatarren garaiko zeramikazko materialak aurkitu genituen.

B Sektorea (9-15 zundaketak)

Bigarren zundaketa sektorea orubearen hegoaldean zegoen. A sektorean erregistraturikoaren antzeko ezaugarriak zituen estratigrafiak, baina lurra okertu egiten zen Mendebaldeko norabidean. Erromatarren garaiko zeramikazko hondakinak zeuden limo ilunen depositua lodiagoa zen.

C Sektorea (16-17 zundaketak)

Sektore honetan eginiko zundaketak iparralde-hegoalde norabidea zuen, 9 metroko luzera zuen eta 1,20 metroko zabalera, eta –3,40 metroko kotaraino jaisten zen. Erregistraturiko estratigrafia A eta B sektoreetakoaren antzekoa zen oso, eta errekarriz osaturiko betegarri baten gainean zegoen erromatarren garaiko zeramikazko hondakinak zeuden limo ilunen depositua.

D Sektorea (18-19 zundaketak)

D Sektoreak ere aurrekoen antzeko ezaugarriak zituen, baina errekarriz osaturiko depositua kota handiagoan zegoen eta limo ilunek osaturiko mailak orubearen mendebaldean baino lodiera txikiagoa zuen. Bestalde, orubea banatzen zuen horma baten hondakinak agertu ziren, baina garai berri batekoa zen (7. testuingurua), kareharriz egina zen, aski eskuairatua, eta kare eta hondar orez elkartuak zeuden harriak.

Interpretazioa

Alde honi dagokion dokumentazio historikoak adierazten du XVIII., XIX. eta XX. mendearen hasieraren artean padurak lehortzeko etengabeko prozesua eman zela eremu horiek laborantza lur gisa erabili ahal izateko. Gainera, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran espazio horietan eraikitzen hasi ziren zoru eskasia zutelako.

Se exploró una banda de unos 100 metros a cada lado de la traza, a partir de sus aristas exteriores, con el objeto de definir las afecciones en su carácter crítico

(eragin zuzena duen eremua), handian (10-15 metro kanpoaldeko ertzetatik hasita) edo apalean (100 metro bitarte kanpoaldeko ertzetatik hasita). Afekzio handia edo apala sartu dugu obren garapenak errepide inguruetan uki ditzakeen elementuei begira.

Miaketa arkeologikoaren emaitzak

Txostena prestatu ondoren, obra horiek lau baserritan eragina izango zutela ikusi genuen, horietako hirutan zeharkako eragina izango zuten: Zupide, Altamira eta Zorroztarrieta, eta batean zuzenekoa: Oruestaguesti.

Miaketak emaitza negatiboa eskaini zigunez, eta bertan egon zitezkeen benetako elementu arkeologikoen gainean obrek izan zitzaketen eragina ezin izan genuenez zehaztu, kontrol mekanismo batzuk ezinbestekoak dira obrek irauten duten bitartean benetako elementu arkeologikoak aurkitu ahal izateko.

Hala bada, jarduera arkeologikorako programa bat aurrera eramatea erabaki genuen proiektuaren hurrengo garapen faseetan, halako neurri zuzentzaile batzuk kontuan hartuta.

Hori guztiz bidezkoa da gainera, azalerako miaketa lanetan azaleran ikusten diren elementuak soilik atzematen direlako, eta eremuaren ezaugarrien ondorioz elementuak ez direnez behar bezala ikusten, kontrol mekanismo batzuk beharrezkoak dira obrak egiten diren bitartean ezkutuan dauden elementuak aurkitu ahal izateko, horrelakorik baldin badago bederen.

Aipatzen ditugun neurri horiek, lurrak iraultzen dituzten bitartean obren kontrol eta jarraipen arkeologikoa egitea dira lur emankorra dagoen eremuetan eta arkitektura eta etnografia elementuak hurbil dauden lekuetan.

Obren jarraipen arkeologikoak jarduera puntualak egiteko beharra ekar dezake, baina jarduera horiek ahalik eta eragin txikiena izan behar dute obren garapenean.

(zona de incidencia directa), severo (10-15 metros a partir de sus aristas exteriores) o moderado (hasta 100 metros a partir de sus aristas exteriores). El hecho de introducir una afección severa o moderada responde a elementos que puedan verse afectados periféricamente por el desarrollo de las obras.

Resultados de la prospección arqueológica

Una vez elaborado el informe quedaron reflejadas las incidencias en cuatro caseríos, tres de ellos de manera indirecta: Zupide, Altamira y Zorroztarrieta, y de manera directa: Oruestaguesti.

Ante el resultado negativo de la prospección y no pudiendo haber determinado cualquier afección de las obras sobre elementos arqueológicos reales que pudieran existir, se hace necesario una serie de mecanismos de control que permitan localizar elementos arqueológicos reales durante el desarrollo de las obras.

Así pues se optó por un programa de actuación arqueológica a seguir en las fases posteriores de desarrollo del proyecto, adoptando una serie de medidas correctoras.

Esto es justificable perfectamente ya que los trabajos de prospección superficial localizan sólo elementos visibles en superficie y debido a las características de la zona, que impiden la visualización correcta de los elementos, se hace necesario una serie de mecanismos de control que permitan, durante el desarrollo de las obras, localizar, en caso de que existan, elementos ocultos.

Las medidas que apuntamos son control y seguimiento arqueológico de las obras para los procesos de movimientos de tierras en las zonas donde exista tierra fértil y en zonas de proximidad a elementos arquitectónicos y etnográficos.

El seguimiento arqueológico de las obras puede determinar la necesidad de actuaciones puntuales que deberán interferir, en la medida de lo posible, mínimamente en el desarrollo de las obras.

Luis M.ª Tirapu Canora

D.3.3.2. **Vitoria-Gasteiz-Bilbao-Donostia-San Sebastián Abiadura Handiko Burdinbidea. Atala: Hernialde-Zizurkil**

Zuzendaritza: Jose Maria Vilades
Finantzazioa: Sustapen Ministerioa

D.3.3.2. **Línea de Alta Velocidad Vitoria-Gasteiz-Bilbao-Donostia-San Sebastián. Tramo: Hernialde-Zizurkil**

Dirección: José María Viladés
Financiación: Ministerio de Fomento

Prospection. Environment Impact Study. Negative results.

Eraikuntza Proiektua idazteko miaketak honako udalerri hauek ukitu zituen: Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu eta Zizurkil. Miaketa lan horretan emaitza negatiboak lortu genituen Ondarean izan zitzakeen eraginari zegokionean. Hala eta guztiz ere, Anoetan aipatzekoa da Basagaingo Herrixka, haren azpitik tunel baten trazatua igarotzen baita.

La prospección para la redacción del proyecto de construcción afecto a los términos Municipales de: Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu y Zizurkil. Como resultados de la misma se obtuvieron resultados negativos en cuanto a la afección al Patrimonio. No obstante hay que mencionar en Anoeta al Poblado de Basagain debajo del cual discurre el trazado de un túnel.

José María Viladés Castillo

D.3.3.3. Vitoria-Gasteiz-Bilbao-Donostia-San Sebastián Abiadura Handiko Burdinbidea. Atala: Zizurkil-Urnieta

Zuzendaritza: Daniel Perez Vicente
Finantzazioa: Sustapen Ministerioa

D.3.3.3. Línea de Alta Velocidad Vitoria-Gasteiz-Bilbao-Donostia-San Sebastián. Tramo: Zizurkil-Urnieta

Dirección: Daniel Pérez Vicente
Financiación: Ministerio de Fomento

This paper summarises the results obtained in relation to archaeological, architectural and ethnographic heritage during the emergency archaeological prospecting and documentation work carried out in the areas affected by the future construction of the high-speed Vitoria-Bilbao-San Sebastián rail link, in the section running between Zizurkil and Urnieta, in Gipuzkoa.

Sarrera

Lan hori arkeologia, arkitektura eta etnografia dokumentazioa biltzea izan zen, eta horretarako, bibliografia eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren (Eusko Jaurlaritzaren Kultura saila) Kultura Ondarearen Inbentarioko datuak kontsultatu genituen Gasteizen (Araba).

Informazio hori guztia bildu ondoren, begi-miaketa bat egin genuen, lurra atera gabe, alde batetik, inbentarioak kontsultatu ondoren ezagutzen genituen aztarnategi desberdinetan eta arkeologia eta arkitektura aldetik interesa zuten puntuetan obra honek izango zuen eraginaren maila egiaztatzeko, eta bestetik, ukituriko eremuan arkeologia edo arkitektura hondakin berriak aurkitzeko.

Azterketa eremua

Aztergai dugun eremu hau Donostiaren hegoaldean dago, 10 bat kilometrora, eta Zizurkil, Aduna, Andoain eta Urnieta udalerriak ukitzen ditu.

Trenbide plataformaren atal honen luzera 6.100 metro ingurukoa da, eta horietatik 5.500 metro tuneletik igarotzen dira eta gainerakoa aire zabaletik, bai bidezubi eta zubien bidez bai azaleratik.

Trenbideak zeharkatzen duen lurraldea oso menditsua da; mendilerro txikiak dira, eta haran ugari daude ho-

Introducción

Estos trabajos consistieron en la recopilación de documentación arqueológica, arquitectónica y etnográfica a través de la consulta de la bibliografía y de los datos de los Inventarios de Patrimonio Cultural del Centro de Patrimonio Cultural Vasco (Departamento de Cultura, Gobierno Vasco).

Una vez reunida esta información se realizó una prospección visual, sin extracción de tierra, para comprobar, por un lado, el grado de afección de esta obra sobre los diversos yacimientos y puntos de interés arqueológico y arquitectónico conocidos por la consulta de los inventarios, y por otro lado, la posibilidad de localizar nuevos restos arqueológicos o arquitectónicos en la zona afectada.

Área de estudio

La zona que nos ocupa se localiza a unos 10 kilómetros al sur de Donostia-San Sebastián, afectando a los términos de Zizurkil, Aduna, Andoain y Urnieta, en Gipuzkoa.

La longitud de este tramo de plataforma ferroviaria es de unos 6.100 m., de los cuales 5.500 m. discurren en túnel y el resto en tramos al aire libre ya sea en viaductos y puentes o en superficie.

El territorio que atraviesa la línea ferroviaria es muy montañoso, compuesto por pequeñas sierras que están

rien artean, nolabaiteko garrantzia duten erreka eta ibaiek (Ancibar, Oria, eta abar) zeharkatzen dituzte haran horiek.

Oro har, eremua oso gizatartu eta aldatua dago, bereziki haran handietan, horietan kokatzen baitira biztanle gune garrantzitsu gehienak. Gainerako herri, herrixka eta baserriak haran txikietan eta tontor eta mendi gailur txikienetan barrena sakabanaturik daude.

Garaturiko jarduerak eta metodologia

Aplikatu genuen metodologiak bi lan fase zituen elkarren artean erlazionatuak. Alde batetik, dokumentazio lana egin genuen, eta bestetik, landa-lana.

Dokumentazio lana

Lan fase honetan honako kontsulta hauek egin ditugu:

Arkeologiko-Arkitektura Ondarearen Inbentarioak. Eusko Jaurlaritza: ukituak gerta litezkeen interes eta babes bereziko leku guztiak ezagutzeko egin genuen hura.

Bibliografia: eskura izan ditugun arkeologia, historia, arte eta abarri buruzko argitalpen orokor eta partikularren datuak bildu genituen eragin-eremuari buruzko ezagutza osatu eta argitu ahal izateko.

Dokumentazio Kartografikoa: kartografia funtsezko lan tresna da kontrol arkeologiko ona aurrera eraman ahal izateko, lekua aztertzeko lehen hurbilketa bat eskaintzen baitu. Gainera, lurraldeko toponimoen eta ezaugarri topografiko eta hidrografikoen informazio iturri interesgarria da, zalantzarik gabe.

Landa-lana

Aurreko fasea amaitu ondoren, eta lortutako datuak kontuan harturik, proiektuaren bigarren faseari ekin genion kontsultaturiko erreferentzia horiek eskainitako berriak lurraren gainean egiaztatu ahal izateko. Aurkitutako aztarnategiak eta eraikuntzak bilatu eta kokatzen ahalegindu ginen. Eta toponimoak eta esanahi berezia izan zitzaketen gorabehera geografikoak egiaztatu genituen.

Miaketa egin genuen bitartean aplikaturiko metodologia miaketa sistematikoa izan zen. Horretarako, arkeologoak ardatz batzuetan zehar banatu ziren, elkarren artean bost eta hamar metro arteko tarteak utzita, eta trazatutik hainbat aldiz pasa ziren eremuaren dokumentazio osoa egiteko beharreko miaketa lana osatu arte.

Emaitzak

Ukituriko eremua aztertzeko eginiko ibilbideetan arkeologia, arkitektura eta etnografia aldetik interesa zuten hainbat puntu aurkitu genituen.

cortadas por abundantes valles atravesados por arroyos y ríos de cierta importancia (el Ancibar, el Oria, etc.).

En general la zona está muy humanizada y alterada, sobre todo en los grandes valles, donde se sitúan la mayoría de los núcleos importantes de población, el restos de los pueblos, aldeas y caseríos se diseminan por los pequeños valles y cimas de las colinas y montes más accesibles.

Actividades desarrolladas y metodología

La metodología que se aplicó comprendió dos fases de trabajo interrelacionadas. Por un lado se realizó el trabajo de documentación y, por otro, el trabajo de campo.

Trabajo de documentación

Durante esta fase de los trabajos se han llevado a cabo las siguientes consultas:

Inventarios de Patrimonio Arqueológico-Arquitectónico. Gobierno Vasco. Se realizó con el fin de conocer todos aquellos lugares con especial interés y protección que pudieran verse afectados.

Bibliografía. Se recopilaron aquellos datos de publicaciones generales y particulares sobre arqueología, historia, arte, etc. que han sido accesibles, para completar y aclarar el conocimiento sobre la zona de afección.

Documentación Cartográfica. La cartografía se considera como el instrumento de trabajo fundamental para el desarrollo de un buen control arqueológico ya que proporciona una primera aproximación para el estudio del lugar. Además, es una interesante fuente de información de topónimos y de las características topográficas e hidrográficas del territorio.

Trabajo de campo

Una vez concluida la fase anterior y con los datos obtenidos se inició la segunda fase del proyecto encaminada a comprobar sobre el terreno las noticias aportadas por las referencias consultadas. se intentó localizar y situar los yacimientos y las edificaciones localizados. Y se hizo una comprobación de los topónimos y de los accidentes geográficos que pudieran tener una especial significación.

Durante la prospección la metodología aplicada consistió en una prospección sistemática que se realizó con el reparto de los arqueólogos a intervalos regulares a lo largo de unos ejes con una separación entre cinco y diez metros, realizando pasadas alternativas respecto al trazado hasta completar el barrido necesario para la total documentación de la zona.

Resultados

Con el estudio y el recorrido del territorio afectado se localizaron una serie de puntos de interés arqueológico, arquitectónico y etnográfico.

Zizurkilgo Udalerrian egiaztatu genuen baserri batzuk bazirela (Muitegui Zahar, Salugarte, eta abar) trenbidearen trazatutik 150 eta 500 metro arteko distantzian zeudenak, eta horrenbestez, horietan ez du eraginik izango. Era berean, Arkanitz eta Aunibarko ibai-errotak dokumentatu genituen, baina horiek ere trazatik urrun geratzen ziren, eta Zarateko Bentako trikuharria, berriz, ez zuen inola ere ukituko obrak.

Adunako udalerrian ere aurkitu genituen intereseko egitura batzuk, Erdi Aro ondoko Izagirre eta Zabala baserriak, esate baterako, baina horiek ere obratik urrun zeuden. Belokaingo Trikuharria ere urrun dago, trazaren mendebaldean, 200 bat metrora, eta alde horretan tuneletik igaroko da trenbidea.

Trikuharri horren zati bat Andoaingo udalerrian dago. Gainera, alde horretan dago Burdin Aroko Buruntzako herrixka garrantzitsua, etorkizuneko trenbidetik 300 bat metrora, baina trenbidea tuneletik igarotzen den sektore batean. Horrenbestez, horretan ere ez du eraginik izango.

Miaturiko azken udalerria Urnietakoa izan da. Udalerri horretan hainbat baserri aurkitu ditugu, Oianume eta Urmeneta, esate baterako, Erdi Aro ondoko kronologia dutenak, Aierdi baserria Behe Erdi Arokoa, eta arkitektura aldetik babestua dagoen Arizmendi baserria. Eraikin interesgarri horiek ere ez ditu ukituko eraikuntza lanak.

Gainera, miaketa arkeologikoa egin genuen bitartean, ez genuen katalogatu edo inbentarioan jaso gabeko aztarnategi edo eraikuntza berririk aurkitu.

Konklusioak

Inbentario desberdinak kontsultatzeko lana egin dugun bitartean lortutako datuen arabera, egiaztatu dugu, aztarnategi, baserri eta errota horiek aski bazterrean eta urruti daudela etorkizuneko trenbidearen trazatutik, eta horrenbestez, obren fase eta prozesu desberdinek ez dute haietan eraginik izango.

Etorkizuneko jarduerarako plan orokor gisa, sastraka ebaki eta garbitzeko lanetan, eta obrak aurrera eramatean eginiko lur iraulketetan arkeologo bat egotea gomendatu zen. Gomendio hori egin zen Gipuzkoako alde honetan benetan Arkeologia eta Arkitektura Ondare aberatsa dagoelako, eta azaleran hauteman ez diren hondakin arkeologiko berrietan eraginik ez izateko.

En el Término de Zizurkil se pudo comprobar que había una serie de caseríos (Muitegui Zahar, Salugarte, etc.) que se situaban a una distancia que oscilaba entre los 150 y 500 metros del trazado del ferrocarril, por lo que no se verán afectados. También se documentaron los molinos fluviales de Arkanitz y de Aunibar que también quedaran alejados de la traza y el dolmen de Venta de Zarate que en ningún caso se verá afectado por la obra.

En el término de Aduna también se localizaron estructuras de interés como los caseríos postmedievales de Izaguirre y Zabala que quedarán lejos de la obra. También el dolmen de Belokain quedará alejado a unos 200 m. al oeste de la traza, en una zona donde la vía férrea discurrirá en túnel.

Un parte de este mismo dolmen se encuentra en el término de Andoain. Además en esta zona se localiza el importante poblado de Buruntza de la Edad Hierro que se encuentra a unos 300 metros de la futura vía de tren, pero en un sector que discurre en túnel, por lo que tampoco se verá afectado.

El último término recorrido es el de Urnieta donde se han localizado varios caseríos como los de Oianume y Urmeneta de cronología postmedieval, el de Aierdi que es de la Baja Edad Media y el caserío protegido arquitectónicamente de Arizmendi. Estos interesantes edificios tampoco se verán afectados por la obra constructiva.

Además durante los trabajos de prospección arqueológica no se localizaron nuevos yacimientos o edificaciones de interés no catalogados o inventariados.

Conclusiones

Por los datos obtenidos durante los trabajos de consulta de los diversos inventarios se ha podido ver que estos yacimientos, caseríos y molinos se encuentran lo suficientemente apartados y alejados de la traza de la futura línea férrea por lo que no se verán afectados por las distintas fases y procesos de estas obras.

Como plan general de actuación futura se recomendó la presencia de un arqueólogo durante los trabajos de desbroce y desmonte, y en los movimientos de tierras que se vayan a realizar durante las obras. Esta recomendación se debe a la riqueza del Patrimonio Arqueológico y Arquitectónico en esta zona de Gipuzkoa y para que no se afecten a nuevos restos arqueológicos no detectados en superficie.

Daniel Pérez Vicente; Marta Bueno Moreno

D.3.4. *OBREN KONTROLAK*

D.3.4.1. **Bizkai etorbidea, 8 (Arrasate)**

Zuzendaritza: M.ª Antonia Gereñu
Finantzazioa: Ursalto S.L.
eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.4. *CONTROLES DE OBRAS*

D.3.4.1. **Bizkai etorbidea, 8 (Arrasate)**

Dirección: M.ª Antonia Gereñu
Financiación: Ursalto S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

Archaeological intervention carried out in a site located in the Zarugalde district in the town of Arrasate-Mondragón. Documentary information identified the site as part of the Zarugalde forge and later Oiaoste mill. However, the archaeological intervention failed to find evidence of any kind related to the said installations.

Sarrera

Arrasateko Bizkai Etorbideko 8. zenbakian dagoen orubea Zarugalde aldiriaren barnean zegoen, XVI. mendean dokumentatua lehen aldiz. Horixe zen hiribildutik urrutien zegoena, eta hiribildutik argi bereizia zegoen gainera, Aramaio ibaiaren ibilguak bereizten baitzuen. Eraikuntza unitateak bi etxe-ilaratan zehar banatzen ziren. Hegoaldekoak Aramaio eta Elorrioko bidea zuen muga iparraldean eta ibaia, berriz, Hegoaldean. Iparraldekoak bidearen beste aldean egokitzen zituen bere etxeak, eta haiek oinarritzen ziren muinoaren mazelak abiatzen ziren atzealdetik.

Etxe-ilarak Olarteko zubiaren ondoan hasten ziren eta San Balerio errekaren ondoan amaitzen ziren. Puntu horretan bereizten ziren gainera Elorrio eta Aramaiora zihoazen bideak. iparraldeko ilarak iparralderantz jarraitzen zuen Olaosteko errota eta burdinolan zehar, errekaren ondoan zegoen hura, bertako urak aprobetxatzeko. Aldiri honen hiri erreferentzia nagusiak ibaiek eta bideek zehazten zituzten horrenbestez, baina bi eraikuntza berezi ere bazeuden, San Agustin monasterioa mendebaldean eta Monterron Jauregia ekialdean. Bi eraikuntza horiek eraikin osagarriak, baratzeak eta lorategiak zituzten inguruan.

Ditugun dokumentu erreferentzien arabera, aztergai dugun orube hau Zarugaldeko burdinolaren instalazioekin eta geroagoko Olaosteko errotarekin loturik egongo litzateke; zehatz adierazteko, orube honen atzealdeko fatxadaren aldamenean egongo ziren kanala eta errotaren antepara.

Interbentzio Arkeologikoa

Oro har, orubeko estratigrafia xumea zen oso: zementuzko zolarri batek osatzen zuen azaleko maila (5. testuingurua), eta maila hori zaborrez osaturiko betegarri baten gainean zegoen. Zuzenean harriaren gainean (4. testuingurua) oinarritzen zen betegarria. Atzealdean lurra berdindu zutela sumatzen zen, Zarugaldeko burdinola edo san Agustin eta geroagoko Olaoste errota urez hornitzeko kanalarekin loturik egon liteke berdintze hori. Gehienetan kanalen bidez ekartzen zen ura ibaietatik,

Introducción

El solar ubicado en Bizkai Etorbidea 8 de Arrasate-Mondragón formaba parte del arrabal de Zarugalde, documentado por primera vez en el siglo XVI. Era el más apartado de la villa y con una clara separación de la misma determinada por el cauce del río Aramaiona. Las unidades edificatorias se distribuían a lo largo de dos hileras de casas. La meridional estaba limitada al norte por el camino de Aramaiona y Elorrio y por el sur con el río. La septentrional abría sus casas al otro lado del camino y por la trasera se iniciaban las laderas de la colina en la que se apoyaban.

Las hileras comenzaban junto al puente de Olarte y concluían junto a la regata de San Valerio. En este punto se producía, además, la separación de los caminos de Elorrio y Aramaiona. La hilera septentrional continuaba hacia el norte a través del molino y ferrería de Olaoste, situada junto a la regata para aprovechar sus aguas. Las referencias urbanas más importantes de este arrabal estaban marcadas, por lo tanto, por los ríos y caminos, además de por la existencia de dos edificios singulares, el monasterio de San Agustín al oeste y el Palacio de Monterrón al este. Ambas edificaciones estaban rodeadas de construcciones anexas, huertas y jardines.

Según las referencias documentales el solar objeto de estudio estaría relacionado con las instalaciones de la ferrería de Zarugalde y posterior molino de Olaoste; concretamente, el canal y la antepara del molino se situarían colindantes a la fachada trasera del mismo.

Intervención arqueológica

En términos generales, la estratigrafía del solar era sencilla: un nivel superficial compuesto por una solera de cemento (contexto 5) situado sobre un relleno de escombro que asentaba directamente sobre la roca (contexto 4). En la zona trasera se observaba una explanación en el terreno, que podía estar relacionada con el canal de abastecimiento de agua de la ferrería de Zarugalde o de San Agustín y posterior molino de Olaoste. La traída de aguas desde el río se realizaba,

kanal horiek maldan zeuden ibilbide osoan, eta gutxi gora-behera ibaien eta erreken paraleloan luzatzen ziren, anteparetara iritsi arte ibilgua aprobetxatuz. Elementu horien sekzioak aldatu egiten dira ur emariaren eta hornitzen zituzten instalazioek zeuzkaten beharren arabera.

Atzealdeko zelaigunean indusketa egin ondoren, egiaztatu genuen ez zela burdinolarekin eta geroagoko errotarekin, eta zehatzago adierazteko, kanalarekin eta antepararekin loturiko elementu bakar bat ere kontserbatu, kontsultaturiko kartografiak kokaleku honetan egokitzen baitzituen elementu horiek. Aurkitutako estratigrafiari dagokionean, aipatzekoa da, baratzeari zegokion lur organikoz osaturiko mailaren azpian agertu zirela buztin naturalak.

por norma general, por medio de canales que mantenían una pendiente constante, corriendo más o menos en paralelo a los ríos o regatas aprovechando el cauce hasta alcanzar las anteparas. Las secciones de estos elementos varían en función de los caudales disponibles y de las necesidades de las instalaciones a las que abastecían.

Una vez realizada la excavación en la explanación de la zona trasera se comprobó que no se conservaba ningún elemento relacionado con las instalaciones asociadas a la ferrería y posterior molino, concretamente con el canal y la antepara, que según la cartografía consultada los situaban en este emplazamiento. En cuanto a la estratigrafía identificada decir, que debajo del nivel de tierra orgánica correspondiente a la huerta, se registraron las arcillas naturales.

Marian Gereñu

D.3.4.2. **Iraurgiko San Martin (Azkoitia)**

Zuzendaritza: Sonia San Jose
Finantzazioa: Jose Mari Uzin Epelde

D.3.4.2. **San Martín de Iraurgi (Azkoitia)**

Dirección: Sonia San José
Financiación: Jose Mari Uzin Epelde

As a result of the construction of a greenhouse on the eastern side of Iraurgi, a 43.00 × 18.00 metre trench was dug using mechanical means. The archaeological monitoring of the works failed to reveal any positive results.

Iraurgiko San Martin muinoan (Azkoitia) berotegi bat eraiki behar zutela eta, 43,00 × 18,60 metroko zanga ireki zen baliabide mekanikoen bidez. Inguru hartan zegoen malda leuntzeko, gehienez ere 2,40 metro induskatu dira zangaren mendebaldeko eremuan, eta ekialderako betegarri gisa erabili zen handik ateratako sedimentua. Lanak amaitu ondoren, 2 metro inguruko desnibela utzi da zangan mendebaldetik ekialdera.

Iraurgiko muinoa Azkoitiko Hiribilduko Gune Arkeologikoaren barnean dagoenez, eremu hori Kultur Ondare gisa inskribatu zen, Monumentu Multzoa kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean, indusketa eta lur berdintze lan horien kontrol arkeologikoa egin dugu. Izan ere, badirudi, leku horretan kokatzen dela Azkoitiko herriaren sorrera, eta gizakiaren presentzia erromatarren garaiaz geroztik egon daiteke dokumentatua Iraurgin, eta bat ere zalantzari gabe, Goi Erdi Aroaz geroztik. Kontrol arkeologikoa egin dugun bitartean ez dugu finkamendu horren aztarnarik aurkitu.

Con motivo de la edificación de un invernadero en la colina de San Martín de Iraurgi (Azkoitia), se ha excavado una zanja de 43,00 × 18,60 metros por medio mecánicos. Para suavizar la pendiente que había en esta zona, se ha excavado un máximo de 2,40 metros en el lado oeste de la zanja, utilizando el sedimento extraído como relleno de la parte este. Una vez terminados los trabajos se ha dejado un desnivel de unos 2 metros de oeste a este de la zanja.

Debido a que la colina de Iraurgi se encuentra dentro de la Zona Arqueológica de la villa de Azkoitia que fue inscrita como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, hemos realizado el control arqueológico de estos trabajos de excavación y explanación. De hecho, parece ser que, en este sitio se sitúa la fundación del pueblo de Azkoitia, pudiendo estar documentada la presencia humana en Iraurgi desde época romana, y sin ninguna duda desde la Alta Edad Media. Durante el control arqueológico realizado no se ha encontrado ningún vestigio de este asentamiento.

Sonia San José Santamarta

D.3.4.3. **Vicente Elizegi. Biteri-Fernandez de Landa Plaza arteko Atala (Errenteria)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: Construcciones Jorge Martin Nieto, S.L. eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.4.3. **Vicente Elizegi. Tramo Biteri-Plaza Fernández de Landa (Errenteria)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Construcciones Jorge Martín Nieto, S.L. y Diputación Foral de Gipuzkoa

In general terms, the archaeological intervention carried out in Vicente Elizegi Street failed to reveal structures of levels of occupation predating the contemporary era.

Interbentzio arkeologiko honetan Elizegi kaleko urbanizazio obren kontrola egin genuen, 30 bat metro luzeko tarte batean. Aurkitutako maila arkeologikoak, XVIII. mendean kanala abandonatu zenetik 1846. urtean Biteri kalea ireki zen arte, espazio horretan jarritako betegarriekin lotuko genituzke. Betetze prozesu horrek estali egingo zituen eremu horretan egon zitezkeen Erdi Aroko edo/eta Aro Modernoko hondakinak. Horrenbestez, Vicente Elizegi kalean egindako obrek Aro Garaikideko deposituak baino ez zituzten ukitu, eta horiek arkeologiaren ikuspegitik ez zuten balio handirik.

La intervención arqueológica supuso el control de las obras de urbanización de la calle Elizegi, comprendiendo un tramo de unos 30 metros de longitud. Los niveles arqueológicos localizados se asocian con los rellenos depositados en este espacio desde el abandono del canal en el siglo XVIII, hasta la apertura de la calle Biteri en 1846. Este proceso de colmatación que habría cubierto los restos de época medieval y/o moderna que pudieran existir en esta zona, afectando las obras realizadas en la calle Vicente Elizegi únicamente a depósitos de época contemporánea de escaso valor arqueológico.

Pía Alkain Sorondo

D.3.4.4. **Pedro Hirizar z/g (Irun)**

Zuzendaritza: Pia Alkain Sorondo
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.4.4. **Pedro Hirizar s/n.º (Irun)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological intervention carried out in Pedro Hirizar Street failed to reveal any elements of archaeological interest.

Orube horrek hartzen duen espazioa padura eremu zahar batean dago, Irungo erromatarren garaiko esparrutik eta Erdi Aroko finkamendutik hurbil. Kontrol arkeologikoa egin genuen bitartean egiaztatu genuen indusketak batik bat Aro Garaikideko betegarrietan zuela eragina, eta behin edo behin padurari zegozkion deposituetan, baina arkeologiaren ikuspegitik antzuak ziren.

El espacio que ocupa el mencionado solar se sitúa en una antigua zona de marismas, cercana al núcleo romano y al asentamiento medieval de Irun. Durante el control arqueológico se pudo comprobar que la excavación afectaba sobre todo a rellenos de época contemporánea, y puntualmente a los depósitos propios de la marisma, estériles desde el punto de vista arqueológico.

M. Lorea Amundarain Gangoiti

D.3.4.5. **Oiartzabalaundi baserria (Oiartzun)**

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau
Finantzazioa: Manuel Garayar Zuloaga eta Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.4.5. **Caserío Oiartzabalaundi (Oiartzun)**

Dirección: Miren Garcia Dalmau
Financiación: Manuel Garayar Zuloaga y Diputación Foral de Gipuzkoa

The Oiartzabalaundi farmhouse has a number of unique characteristics, and much of its original structure still survives today. The archaeological monitoring project carried out revealed that the subsoil has been completely destroyed.

Oiartzabalaundi baserriaren (Oiartzun, Gipuzkoa) jabeek berritze obra batzuk egin behar zituztela eta, obra horien jarraipena egin genuen arkeologiaren ikuspegitik begiratuta. Oiartzabalaundi baserria landa arkitekturaren adibide bikaina da, kalitate handikoa, eta jatorrizko eraikuntza ezaugarrietako asko kontserbatu ditu.

Berritze lan horrek barnealdeko egitura ukitzen zuen batik bat, hainbat zapata egin behar baitzituzten. Kontrol arkeologikoa egin genuenean, egiaztatu genuen substratu arkeologikorik ez zegoela, lurreko buztin naturala agertzen baitzen azaleratik berehala. Badirudi zirkunstantzia horien arrazoia une berri samar batean lurrean eginiko beheragune bat dela, eta horrek ez digu aukerarik ematen baserriak izango zituen eraikuntza faseei buruzko datu berririk ezagutzeko.

Las obras de reforma emprendidas por los propietarios en el caserío Oiartzabalaundi (Oiartzun, Gipuzkoa) contaron desde el punto de vista arqueológico con un seguimiento de las mismas. El caserío Oiartzabalaundi es un excelente ejemplo de arquitectura rural de calidad, habiendo conservado buena parte de sus primitivas características constructivas.

La reforma afectaba fundamentalmente a la estructura interna con la realización de varias zapatas. El control arqueológico efectuado pudo comprobar la total inexistencia de substrato arqueológico con el afloramiento desde la misma superficie de la arcilla natural del terreno. Estas circunstancias parecen haber estado motivadas por un rebaje destacado del terreno practicado en un momento relativamente reciente y que nos ha privado de conocer nuevos datos referentes a las posibles fases constructivas del caserío.

Miren Garcia; Alfredo Moraza



Oiartzabalaundi baserriko egungo fatxada nagusiaren ikuspegia kanpoaldetik.

Vista exterior de la actual fachada principal del caserío Oiartzabalaundi.

D.3.4.6. **GI-632 errepideko saihesbidea: Ormaiztegi-Zumarraga**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.4.6. **Variante de la GI-632: Ormaiztegi-Zumarraga**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological monitoring of the road works for the new GI-632 failed to find any remains of interest. In this context, as a complementary measure, the Sosoaga Txiki farmhouse (due to be demolished during the course of the road works) was comprehensively documented. The farmhouse contained an interesting structure dating from the middle of the 16th century, although it had been severely altered as the result of a number of different building projects carried out over the centuries.

GI-632 errepidean, Ormaiztegi-Zumarraga tartean, saihesbide berria egiteko obrak burutu zirela eta, kontrol eta jarraipen arkeologiko xehea egin genuen planifikaturiko trazatuan.

Errepide zati berri horren trazatua oso malkar handiak zituen esparru batetik igarotzen zen gehiena, eta bidezubien bidez gainditzen zituen haran aldeak. Ekintza antropikoak oso eragin txikia izan du paisaia honetan, eta bertan aurrera eraman diren jarduera gehienak, bai historian zehar bai gaur egun, lurren nekazaritza eta abere hazkuntza ustiapenekin loturik egon dira. Horren guztiaren ondorioz, aurkitutako lur depositu naturalak, oro har, esan daiteke, arkeologiaren ikuspegitik begiratuta ez duela inolako garrantzirik.

Premisa horiek izan arren, lur iraultze horien jarraipen lanak xehetasun handiz eta modu sistematikoan egin dira. Arreta berezia eskaini zaie inbentarioan jasotako elementuetatik gertu zeuden lursailei, errepidearen enborrak, ez zuzenean ez zeharka, elementu horietako bakar bat ere ukitzen ez zuen arren.

Aldiz, derrigorrez suntsitu egin behar ziren hainbat elementu ukitzen zituen trazatuak, eta oso bereziki Sosoaga Txiki baserria (Ormaiztegi). Ondare elementu horrek, katalogatu gabe eta inbentarioan jaso gabe bazegoen ere, hainbat eraikuntza ezaugarri interesgarri ageri zituen. Kontuan izanik baserri horren etorkizuna zein izango zen oso garbi zegoela, ondasun horren galera arinduko zuten neurri zuzentzaile batzuk abian jartzea erabaki genuen Obrako Zuzendaritzarekin. Zehatz adierazteko, baserri horren dokumentazio arkeologikorako azterketa xehea egin genuen eraikuntza eraitsi aurretik.

Sosoaga Txiki baserriaren eraikinak neurri eta itxura aski xumeak ageri zituen, baina barnealdean alderdi interesgarriak gordetzen zituen bere eraikuntzari buruz. Baserri hori Ormaiztegiko gune nagusiaren Ipar-Mendebaldean zegoen, zelaigune txiki batean, Sorozarreta mendiaren mazelaren erdialdean. Nekazaritza eta abeltzaintza moldeko eraikuntza zen, eta gaur egun bertan ez zen inor ere bizi. Oin laukizuzena zuen eta ia 200 metro karratuko luzera, beheko solairua eta goiko solairua zi-

Los trabajos de ejecución de la nueva variante de la carretera GI-632 en su tramo de Ormaiztegi-Zumarraga han contado desde el punto de vista arqueológico con un control y seguimiento detallado del trazado planificado.

El trazado de este nuevo tramo de carretera discurría mayormente por un ámbito caracterizado por las acusadas pendientes del terreno, salvando las zonas de valle mediante viaductos. La acción antrópica sobre ese paisaje ha tenido un impacto mínimo, donde las actividades mayoritarias tanto histórica como actualmente han estado ligadas a la explotación agropecuaria de esos terrenos (herbales, repoblaciones de coníferas, etc.). A consecuencia de todo ello el depósito natural de tierra constatado puede calificarse en líneas generales como de escaso y sin relevancia desde el punto de vista arqueológico.

A pesar de estas premisas las labores de seguimiento de esos movimientos de tierra se han realizado de forma minuciosa y sistemática. Se ha prestado especial atención a aquellas parcelas situadas en las proximidades de algunos de los elementos que se encontraban inventariados, aunque ninguno de ellos se encontrase afectado por el tronco de la carretera de una manera directa ni indirecta.

El trazado, sin embargo, sí afectaba a varios elementos que iban a ser necesariamente destruidos y muy en particular al caserío Sosoaga Txiki (Ormaiztegi). Este elemento patrimonial a pesar de no estar catalogado ni inventariado presentaba una serie de interesantes características constructivas. Teniendo en cuenta el certero futuro de este caserío se acordó con la Dirección de Obra poner en marcha una serie de medidas correctoras destinadas a paliar la pérdida de este bien, las cuales se concretaron en la realización de un detallado estudio de documentación arqueológica del mismo de una manera previa a su derribo.

El edificio del caserío Sosoaga Txiki presentaba unas dimensiones y una apariencia bastante modestas, si bien en su interior escondía interesantes aspectos sobre su construcción. Este caserío estaba situado al NW del núcleo principal de Ormaiztegi en un pequeño rellano a media ladera del monte Sorozarreta. Era una construcción de tipo agropecuario que actualmente se encontraba deshabitada. Presentaba una planta rectangular con una superficie de casi 200 me-

tuen eta bi isurialdeko teilatua. Haren egitura, bai barnealdean bai kanpoaldean, aski konplexua zen eta eraikuntza prozesu luze eta zaila erakusten zuen. Hainbat eraikuntza uneri zegozkion elementuak bereiz zitezkeen bertan, baina horietako batzuk aski aldatuak zeuden dagoeneko.

Laburpen gisa, adierazi daiteke, Sosoaga Txiki izeneko baserri honek izandako bilakaerak lau eraikuntza fase desberdin jasan izan dituela gutxienez:

Lehen fasea, eta horixe izango zen jatorrizkoa, XVI. mendearen erdialdean kokatuko genuke. Badirudi une horretan eraiki zutela baserria, baina horren aztarnarik ez da kontserbatu ia. Bereizi zitezkeen hondakin urriak testuingurutik kanpo zeuden gehienak eta berriro aprobetxatuak egituraren beste puntu batzuetan, habe karrera eta Ekialdeko fatxadako zutoina izan ezik. Elementu horien artean, aipatzekoa da hainbat zutoinen presentzia, mihiztadurak lapranean eginak jatorrizko besoekiko, eta besoak «enara hegalak» deiturikoen bidezko dekorazioarekin. Eskuartean oso datu gutxi ditugunez, ia ezinezkoa da eraikuntza honen ezaugarriak definitzea, baina antzeko adibideei erreparatzen badiegu, osorik edo ia osorik zurez eginiko eraikuntza betera hurbilduko ginateke, bai barnealdeko itxiturari bai kanpoaldekoari dagokienean.

Bigarren eraikuntza-ekimenean eraberritze lan handi bat egin zuten hurrengo mendearen, hauxe da, XVII. mendearen lehen erdialdean. Esan daiteke baserria ia osorik berritu zutela. Eraberritze lan horren emaitza baserri barrokoaren adibide bikaina izango zen, baina zoritxarrez, haren zati bat baino ez da gure egunetara iritsi geroago ere hainbat eraberritzen egin direlako. Ez dakigu berritze lan handi hori zergatik egingo zuten, baina beharbada hondamen handiren bat gertatuko zen garai hartan (sutea?).

Eraikuntza berriak oin lauangeluarra zuen ia, gaur egun dagoena baino zabalagoa, baserriko alboko horma-arte bat (Mendebaldekoa) desagertu zelako. Eraikin honen egitura horma-arte batzuetan oinarritzen zen, pieza bakarreko zurezko zutoinak zituen, hareharri landuz eginiko pilare edo oinarri batzuen gainean egokituak. Kanpoaldeko perimetroa, eta seguru asko barneko banaketetako batzuk beheko solairuan kargahormen bidez egingo ziren jada, oso modu xumean egin ere, landu gabeko harriz, eta eskantzuak, berriz, hareharri landu kateatuak ziren. Kanpoaldeko itxitura, gutxienez bere fatxada nagusietan, oholez osaturiko itxitura izango zen, eskualde zehatz honetan oso hedatua zegoen ereduari jarraiki, eredu horren adibide urri batzuk ikusi baitaitezke oraindik ere. Aurreko ereduaren aldean oso nabarmena da bilakaera, eta elementu bereziena beso bikoitzen bidez eginiko mihiztadura multzo bitxi bat dela esango genuke. Eraikuntza berri honen kanpoaldeko irudiak beste elementu ezaugarri batzuk ere ageri ditu, horien artean etxebizitzara sartzeko sarrera bat nabarmenduko genuke, sarrera hori tamaina handiko karrerape edo ezkaratz antzeko tros cuadrados, disponiendo de planta baja y superior con cubierta a dos aguas. Su estructura, tanto exterior como interior, era bastante compleja y evidenciaba un largo y complicado proceso constructivo en el que se podían distinguir distintos elementos pertenecientes a otros tantos momentos constructivos, algunos de los cuales se encontraban ya bastante alterados.

A modo de resumen puede señalarse que la evolución experimentada por este caserío de Sosoaga Txiki había pasado por al menos por cuatro fases constructivas diferenciadas:

Una primera fase, y supuestamente original, que databa de mediados del siglo XVI, momento en el que parece que se lleva a cabo la edificación de este caserío, y sobre la cual apenas se habían conservado indicios. Los pocos restos identificables se encontraban mayormente descontextualizados y reaprovechados en otros puntos diferentes de la estructura, salvo la viga carrera y el poste de la fachada Este. Entre esos elementos destaca la presencia de varios postes con los ensamblajes «a cara» de los tornapuntas originales, con la característica decoración a base de las llamadas «alas de golondrina». Con los pocos datos disponibles resulta prácticamente imposible definir las características de esta construcción, aunque teniendo en cuenta ejemplos similares nos acerca a una construcción ejecutada de una manera total o casi totalmente en madera, tanto en lo referente a su cerramiento interior como exterior.

La segunda iniciativa constructiva viene definida por una gran reforma llevada a cabo durante la primera mitad del siglo siguiente, el XVII, que supone en la practica la reconstrucción casi completa del caserío. El fruto resultante será un excelente ejemplo de caserío barroco, aunque lamentablemente sólo una parte del mismo ha podido llegar hasta nuestros días fruto de reformas ulteriores. Esta reforma será llevada a cabo por causas que desconocemos aunque quizás se puedan relacionar con algún tipo de episodio de corte catastrófico (¿incendio?).

La nueva construcción presentará una planta casi cuadrangular, más amplia que la actualmente existente al haber desaparecido una de las crujías laterales del caserío (la oeste). La estructura de este edificio estará fundamentada en una serie de crujías con postes enterizos de madera dispuestos sobre una serie de pilares o basa de labradas en sillería arenisca. El perímetro exterior, y posiblemente parte de las compartimentaciones internas en planta baja, serán ya realizadas mediante muros de carga ejecutados de una manera muy sencilla a base de mampostería y con los esquinales con sillares de arenisca encadenada. El cierre exterior, al menos en sus fachadas principales estaría realizado mediante un cierre de tablas, siguiendo un modelo ampliamente difundido en esta concreta comarca y del cual aún se pueden observar algunos escasos ejemplos. La evolución respecto al modelo precedente es evidente, destacando como elemento más original la presencia de una serie curiosa de ensamblajes mediante el empleo de tornapuntas dobles. La imagen exterior de esta nueva construcción presenta además otra serie de elementos característicos, y entre ellos destaca la presencia de un

batek babesten zuen, eta Hegoaldeko eta Mendebaldeko fatxadetan barrena luzatuko zen seguru asko, horiek baitziren eguzkiak gehien ematen zuen aldeak. Karrerape horren hondakinak oraindik ikus daitezke argi eta garbi arestian aipaturiko bi fatxada horietan, harlanduz eginiko eskantzuak haietan sarturik, baina gaur egun ez dute egitura funtziorik betetzen.

Baserri honen eboluzio-garapenaren hirugarren fasean atzeraldi bat eman zen argi eta garbi, bai formari bai neurriei dagokienean. Fase zehatz hori XVIII. mendearen erdialdea eta XIX. mendearen hasiera artean burutuko zen. Alderdi garrantzitsuena da baserria bi etxebizitza independentetan zatitu zutela, eta horrek alde handiak eragin zituen hegoaldeko eta iparraldeko sektoreen artean, sektore horietako bakoitzaren bilakaera bereizi eta partikular horren ondorioz. Berritze lan horiek obra garrantzitsuak ekarri zituzten baserri honen eraketan; izan ere, bao batzuk itxi eta beste berri batzuk ireki zituzten, barnean ere beste banaketa batzuk egin zituzten, zurezko jatorrizko egituraren zati bat kendu eta beste bat askoz ere xumeagoa jarri zuten (zutikoak, horma-arteko habeak, konoenbor antzeko oinarriak harriz edo landu gabeko harriz eginak eta abar). Beste alderdi aipagarri bat da bizitzeko azalera murriztu egin zutela, alboko horma-arteetako bat kendu ondoren. Horrenbestez, eraitsi aurretik zituenen antzeko neurriak eman zizkioten baserriari, eta horixe izango zen estalkiko gailurraren lerroan sumatzen zen desoreacceso a la vivienda protegido a través de una especie de soportal o zaguán de grandes dimensiones y que correría presumiblemente por buena parte de las fachadas sur y oeste, las de mayor insolación. Los restos de soportal aún se pueden observar perfectamente en esas dos referidas fachadas, con los esquinales de sillería insertos en ellas y que actualmente carecen de función estructural.

La tercera fase en el desarrollo evolutivo de este caserío viene marcada por un claro retroceso, tanto formalmente como en las mismas dimensiones del mismo. Esta específica fase tendrá lugar entre mediados del XVIII y principios del XIX. El aspecto más significativo viene dado por la compartimentación en dos viviendas independientes del caserío, lo cual provocará las claras diferencias constatadas entre sus sectores meridional y septentrional, fruto de esa diferenciada y particular evolución de cada uno de esos sectores. Esas reformas conllevarán obras importantes en la configuración de este caserío, tapiando algunos vanos y abriendo otros nuevos, realizando nuevas compartimentizaciones internas, se sustituirá parte de la primitiva estructura de madera por otra mucho más sencilla (pies derechos, vigas de crujía, basas troncocónicas de piedra o de mampostería, etc.). Otro de los aspectos destacables es la reducción experimentada en la superficie habitable con la pérdida de una de las crujías laterales, dotando al caserío de unas dimensiones semejantes a las disponibles antes de su derribo y que



Ormaiztegiko saihesbidea. Hegoaldeko fatxadaren ikuspegi orokorra.

Variante de Ormaiztegi. Vista general de la fachada sur.

karen arrazoia. Seguru asko, aldez aurretik prestatutako planik gabe egingo zituzten eraberritze lan horiek guztiak, pixkanaka-pixkanaka eta etenik gabe.

